

LATIEGI'tar BIXENTE

**SAN IÑAZIOREN
DENBORAKO
ELIZA**

(Birjaiotza - Protestalaritza - Elizaren Eraberritzea)

ELIZ - EDESTI - SORTA

Akrgitakdari: EDILI - Donosti
Irarkola: LOREA - Donosti
Dep. Leg. S. S. 302 - 85

*Maritxu
eta
Ramonita
nere bi arreba kuttunei
esker onez
eta maitasun aundiz*

EUSKERAZAINZA'ren ARGITALDIA

SARRERA

Ez diot Idazti oneri itzaurrerik ipiñi nai. Soilki-Soilki, oartxo bazuk jarriko dizkiot aurretik: Auetxek:

Nere adiskide batzuek irakurriak dituzte idazti onen atalen batzuk. Beren iritzia eskatu diet adiskide oiei' Eta beroeingandik jaso ditudan ezkutitzak izango dirala iduritzen zait idazti onen itzaurreordezkorik egokiena; eta emen ípřřřřko dizkizut.

Lekona'tar Imanol zarraren eskutitzatik asiko naiz. Eskutitz ori ez da nik eskatua, nere liburu au irakurri ondorean berak bere-arioz idatzia baizik. Bi atal irakurri ditu Lekuona Zarrak liburu ontatik: Luter'ena, eta Elizaren Eraberritzeari dagokiona. Emen ikusi dezakezun eskutitz au, Luter'en atala irakurri ondorean bidali zidan. Artu nuan beragandik beste bat ere, bigarren atal ura ikusi ondorean egiña. Baiña galdu egin zait azkena egin zidan au. Ala ere gogoan dut eskutitz ortan, nik "San egiten nizkion goratzarreak, San Iñazio egunaren bezperan nolako pozez irakurri zituan" esaten zidala.

Neretzat, euskerari buruzko arazoetan, maixu gurena, On Manuel Lekuona da. Orregaitik bidali nion nere idazti au' Bere oniritziak eman zidan ats aurrera jarraitzeko. Eskerrikasko On Manuel.

Bere aolku guztiak bete ditut. Baita aietakoren bat ain ziburra iruditzen ez zitzaidanean ere: adibidez "adarra jotzeari" buruzkoa. Nere ustez, euskerazko esaeran, "adar" orrek ez bait du erderaz "cuerno" itzak artu duan zentzurik. Euskeraz, "adarra jo" esaten dugunean, ez dugu adarra eskuz jotzea adierazi nai, adarraren bidez soifua jotzea baizik. Euskerazko adar ori ez da ukimenari dagokion gauza. Entzumenari dagokio' Ala ere, Maixuaren esana atsegiñ osoz beteaz, kendu egin ditut idazti ontatik "adarra jotze" ori, eta orren antzeko esakizun guztiak'

Beste gauza bat, irakurle: On Manuel'ek ez zuan eskutitz ori argitaratua izateko asmotan egin' Idatzi zuanean ez zuan argitaratua izan zitekeanik pentsatu ere egiten. Garbikeri-zaleegia ba'zera, artu eidazu ori kontuan, eta ez zaitetz zipoztu bertan "amigo", "panderoa", eta "saleroa" aurkitzen ba'dituzu' Eskutitz au, "alkarrizketa goxoaren estiluan" idatzia dago, eta estilo ortan, egokiak, atsegiñak, eta izketa-alaigarriak dira orrelako esakizunak. ¡Ez zera noski On Manuele'k "pandero" euskeraz nola esaten dan ez dakiala pentsatzen asiko!

Sartu zaitetz bada zu ere "adiskide-arteko alkarrizketa goxozko" estilo ortan, eta irakurri ezazu atseden onez On Manuel'en gutuna. Eta orren ondorean.',, besteak:



Oyartzun'dik 1976'gn Otsaillaren 10 (Sta. Eskolastika)

Latiegi'tar Bixente Jaunari

GASTEITZ'a

Agur, aspaldiko adixkide: Bejondaizula!

Izugarri lan ederra egin dezuz! Ain ederra; ez bait nuan uste orren luzea izanik, dana irakurtzeko betarik aterako nuanik; bañan, amigo, bein irakurtzen asi nintzanezkero ez det eskutik uzteko indarrik izan! Sinista zazu.

Zuk ala nai zenduan ezkeru, zuzenketa zerbait egin diot. Gure Liturgi-lanen neurrian egin ere zuzenketa. Lan aundi xamarra ipiñi dizut, dana berriro kopiatzen. Ez du ajolarik. Merezi du gaiak, eta baita panderoa erabiltzeko izan dezun saleroak. Bejondeizula, berriz esanda ere!.

Seriotasunaren etsai zitekean esaeraren-bat kendu dizut. Ez dezazula damurik. "Adarra jo" ta olako esaeratxuak obe kentzea.

Pozik jakingo dituz zure berriak zure lan oni buruz. Eta bitartean, agur berriz ere, zure adixkide zaar

Lekuona'tar Manuel'ek

Latiegi'tar Bixente'ri

Ricardo Buesa 1 - 3º iz.

VITORIA - GASTEIZ

Bixente lagun maitia:

Jakin dot zuk idatzitako "Elizaren Edestiaren lenengo liburutia laster agertuko dala.

Barri onek bene-benetan poztu egin nau. Liburu orren zati andi bat bere garaian irakurri neban, eta ziñez diñotsut atsegin andia ekarri eustala irakurpen orrek.

Gai atsegiña darabilzu, baiña niretzat liburu orren nabarmenena, euskera ulerterrazaz idatzi dozula da. Izan be, gaurregunean El Batua-ren izenean ainbat eta ainbat euskera ulertzeiña argitaratzen danean, zure liburua izar eder baten antzera agertzen yaku. Orra or, gure elertiak bear dauan pitxia: ulerterraztasuna. Liburuak atsegiñak izateko, gai erakarkorra erabili bear dabe, onetaz gaiñera, begiraldi soil bat az ulertzen diranetakoak, batez be.

Benetan diñotsut. Bizkaitarra banaz be, idazti ori irakurri nebanean, ez nintzan konturatu, Gipuzkeraz ala Bizkaieraz idatzia ete zan. Eta auxe da, izan be, egin dagikedan gorapamenik onena.

Artu egizu nire biotz-biotzeko zoriona

Zubiri'tar

1985'ko urtarrillak 27
Latiegi'tar Bixente Jaunari
GAZTEIZ'en

Agur adixkide jator ori,

Benetako berri pozgarria eman didazu: Zure Elizaren "Kondaira" argitaratzea dijoztela Euskerazaintzako bazkideak, osorik gaiñera, lau idazkiak bata besteren ondoren, eta lenengoa irarkolan noski! No-la ez poztu aspaldiko amets ori egi biurtzen dezu-ta!

Euskaldun bezela, nere esker beroena agertu nai nizuke gaur zuri. Izan ere, aiñ ederra da zure lan ori; nik irakurri nituen zatiak gogora dakarzkite! Amaren rnagalean euskera ikasi duenak eta gero ornitu, edozeiñ gai erabili lezakeala gure izkuntzan, garbi agertzen dezu. Euskera "Errikoia", ura iturritik bezela sortzen zaizu.

Liburu aberatsa! Azken urte auetan argitaratu diran liburu ederretakoa nere ustez. Txalo bero bat Euskerazaintzako bazkide guztiei ere.

Teologi'ko gai guztiak euskeraz erakutsi naiean omen dabiltz. Zure Elizaren "Kondaira" ori ondo etorriko zaie, naiz ikasleentzat, naiz irakasleentzat.

Baiñan ez oraiñ lore tartean etzan. Lanari ekiñ ta jarrai bear diozu, euskeraren alde dituzun amets guztiak "martxan" jartzeko. Kementa ba-dezu, bai ta nortasuna ere ortarako. Ni emen zu zirikatzeke.

Agur biotzez eta berriro nere zorionak

Elizondo'tar Aita Maulo'k

1985, otsailak 10
Bixente Latiegi Jauna
GASTEIZ

Adiskide on,

Elizaren historia edo edestiari buruz zuk aspaldian prestaturik dituzun lanetatik bat laister argitaratuko dela jakiteak asko poztu nau. Eta izen egokia jarri omen diozu liburu berriari: SAN INAZIOREN DENBORAKO ELIZA.

Berri on eta pozgarria euskaldunontzat, zure ardura eta kemenari esker, Elizaren edesti osoa euskeraz leengo aldiz eskaintzen zaigulako, orain zati bat eta ondoren beste iru edo lau zati. Eta berri ona,

edesti orretan euskal santu eta fededunek izan duten eskuartzea obeto ezagutuko dugulako, adibidez, 16. mendeko Elizan Inazio santuak eta Xabierko Frantzisko santuak sortu zuten mogimendu eta eraberritzen arrigarria.

Gaur euskeraz geroz eta geiago irakurtzen da. Ona emen liburu interesgarria eta irakurtzeko erraza denentzat eta baitipat kristautasunaren edestia edo ibilaldia gertutik ezagutu nai dutenentzat.

Agur biotzez eta jarrai lanean.

Isidor Baztarrikak

Bilbao, 145385'ko Epailaren 16'an.

Zure Eliza'ren Edestia benetan lan **Bixente. Zorionak** biotz-biotzez eta millesker eritxi bat emoteko aintzakotzat artu nozulako.

Betiko lez, lan onetan zure trebetasuna agiriagirian dago. Euskerara bizian idatzita, zure lana ulerterrez da, aria ondo eroaten dozu ta saiatzen edo alegintzen zara egintza baxotxa ondo argititzen.

Esan bearrekoa da, lana gatxa ta neketsua izan arren, gertaera guztiak, egintza danak, benetako berezkotasunagaz eta alderdi-bakotasunagaz azaltzen dirala.

Ikusten da, baita be, gogoberoz egindako lana dala. Alan izan bear be... Ludian —esan oi danez— gogootzez ez da iñoiz gauza andirrik egin.. 'Gogoberoa bear da zailtasunak gainditzeko.

Eta zulako gizon gartsu ta adoretuentzat zailtasunak, eragozpenak eta ostopoak aupada bat, akuilu bat dira... Orregaitik, zenbat eta zailtasun edo gaiztasun andiagoak, alegiñak be andiagoak izaten dira areik gainditzeko.

Barrero be zorionak, eta orain-arte lez Erljio ta Aberriaren onerako ekin eta ekin, J. L., irakasle lanetan, idazle lanetan, aztertzaile lanetan etabar.

Ba Azkue andiak esan eban lez:

"Nor nor dan, Mariñasi,
ezautuko dona:
emonetatik zugatza,
egiñetatik gizona".

Jesus'ek esan ebana: "Euren fruetatik (egiñetatik) ezagutuko dozuez".

Bilbao'tar Jon E.

Zarautz, 145385'ko Otsaillak 2'
Latiegi'tar Bixente
Gazteiz

IRAKURLE! Eliztarrok, —eta ala ez diranak zer esanik ez—, zenbat aldiz arinkeriz eta gaia bear ainbat aztertu ta ikasi gabe, maxiatu izan ditugu Elizaren ainbat eta ainbat une ta arazo latzak?

Orrelakorik berriz ez gertatzeko; gizaldien zear Elizaren aunditasuna ta santutasuna ikasteko, ta bide batez, beren ustez asko-jakiñak arpegira bota oi dizkiguten arruntkeritopiko utsak diran Elizaren kontrako esaldieri erantzun on eta zorrotz bat eman al izateko, a zer egoiera bikaña ematen digun Latiegi'tar Bixente'k Elizaren kondaira ontan!

Ain euskera erreza ta ederrean idatzia egonik, eta gaia ain jakingarria izanlk, irakurgainobela atsegin bat irakurri oi duzun zaletasunez eta pozez irakurriko duzu liburu au.

Oñatibia'tar Manu'k

J. H. S.

Larrea, 145385'ko otsaillaren 25'an
Latiegi'tar Bixente jaunari
GASTEIZ

Agur, adiskide on!

Lau letra eskatu daustazuz. Naizta premiñarik ez, or dozuz eurok, geure gogo asegarri lez laster eskuratuko dauskuzun liburu jakingarri orren omen zabalez.

Ez dautsot iñori miñik emon nai, baiespen au mamin egitera-koan: au da, zaarren arteko asko bazter itxiak izanda be, euskal idazle jator arnasa andikoak, edozertarako gai doguzanak, eurok ditugula gaur egunean be.

Onakoa zaitugu zu be, jakitate sakona baizen edatua erakusten dozuna. Eliz-kondaira orokorra, euskeraz, zeuk aurrenik eratu dozu. Apaiza zara ta eliz-gaiei ekin bear, bakotxak dagokionari nunbait. Ez

dozu edozelako lana; beraz, langille nekegaitz, erne ta bizkorra ager-tzen zara. Arlo orretan, ba-dakit, aspaldi danik zabiltzana. Irakats-garaitik kanpo atera oi dozuzan astiunak orretan emoten dozuz.

Idazleak, ona izatekotan, arlo bi garaitu bear ditu: leenen idaz-gaia ta izkuntza bigarren. Esan det, eliz-gizona zara ta urteen gurpillez itzuiinguru asko Eliz-irakatsiak eta beronen Edestia, beraz, eguneroko ikasteak eta ausnartzeak dozuz. Gai ortaz liburu batzuk an-tolatzeko asmotan diarduzu aspaldi.

Euskerazko eguneroko ta aldizkariak irakurteko oitura dauanak ondo dakianez, etzara idazle txepel. Azken-boladan naiko idatzia zara Donostia'ko "SaskiNaski"-n eta Bizkaiko "Zer"-en, adibidez. Izkera errez oparoa darabiltzu. Gauzak alderdi bikaiñez ikusi ta adierazten ba-dakizu, umore onez bezela piper-zizkorrez birbiztuta. Au, barriz, naitaezko jako irakur-gosea biztu ta jakin-galea sartu nai dauan idaz-leari.

Gaia, egiaz, garrantzitsua dozu. Eleizea, izan be, Kristok bere goi tar irakatsiari iraupena ezarteko sortu ta Kepa Apostoluaren arkaitz gaiñean eregi ta Aren jarraile guztiok, barne artzen gaituan Alkartea dogu.

Bi milla urte doi-doi joanak dira arrezkero, Kristok sortu ta jarri ebala eta gaur, mundu edatua bere gerizpe gozo atsegingarrian babesten dau, landa erdian zutik dagoan zugatz eskergak legez. Elein onen arnasa, bizitza ta tirabirak dozuz liburuan datozenak. Asieratik gaur arterañoko guztia.

Gai zabal, ezin obe oni Euskalerrian ez dautsa oraindik iñok ekin, zuk bezelako zabalera orokorrez beintzat. Beste bat dabilkigu, bego emen esana —Julen Urkiza, ondarrutarra—, bertoko Eleiz-edesti luze samarra osotu nairik. Zuk lango zabaleraz, **ezta oindiño iñor** saiatu.

Amaseigarren mendean Bañat Etxepare izan jakun olerki idatziari asiera emon eutsana' Eleiz-Kondaira idazleen artean zeu izango zaitu-gu Euskalerrian leenengoa, lan bikain orri, baikor ta gogotsu, ertzak ezari dautsozana. Ez al dozu txalorik merezi?

Urte batzuk dira, zeuk ekarrita, lan ori irakurri nebala, zati bat beiñik bein, Maisuki egiña iruditu jatan. Dana burutu barik zeunkin oindiño, ta nik —oitura dodanez— aurrera joteko esan neutzun; aurre-ra, bai, gaiñeko erpiñean ipiñi arte ereiñotz-adarra'

Olan egiña dozu, ta orain irarkola daroazu zeure lan ederraren fru-tua. Zorionak, biotzez!

AITA ONAINDIA

Liburu au, ia oso-osoan amaiturik dagoan Elizaren Edestiko zati bat duzute. Izena, —San Iñazioren Denborako Eliza— XVI mende kili-kagarri artan Loiola'koak eta bere semeek izan zuten arrakastaren omenez ipiñi diot. Atsegiñ bait zaigu euskotarroi, txit atsegiñ bait zaigu gure erritar batek izan zuan itzala gogoratzea: berak berez izan zuana eta baita bere semeen bitartez izandakoa ere. Ain zuzen Josuren Lagundia euskotar aren izpirituak emandako zitua bait dugu! Gaiñe-ra, jaso ere, iaiñ ederki jaso bait zute beren aita euskaldunaren izpiritu lenengo iñakitar aiek!

Orregaitik, —eta gaurko gure jendeari Birjaiotzatik onuntzko gertakizunak, beste antziña-antziñako aiek baiño unkgarriagoak izango zaizkiola iduritu zaidalako—, asi dut Birjaiotzako liburu onekin Elizaren Edestiaren argitaratzea. Gero etorriko dira. "Aro Berriko Eliza", "Gure Denborako Eliza", "Lenen Denboretako Eliza" eta "Erdi-Aroko Eliza". Guziaz, amalau-amabost urteen aldi luzean astiro-astiro burutu-tako lana!

Zuk liburua iriki aurretik barkapena eskatu nai nizuke. Emen aurkituko dituzun irat-uts edo "inprentako erraten" barkapena. Iru aldiz irakurri dituk irarkolatik bidali dizkidaten probak. Saiatu naiz okerrak zuzentzen, baiña ala ere, bat baiño geiago aurkituko duzu nozki 'Izurrite eragoz-eziña dugu euskaldun idazle-irakurleok irartutsen izurria' Pazientziz artu-bearra; gure irarkoletako langilleek ez bait dakite euskeraz, eta euskerarik ez jakitean, izkiz-izki, zer ipintzen duten jakin gabe, aritzen bait dira lanean.

Alare, gelditu zaizkigun uts oiek garrantzi txikikoak dira, geienak beintzat: irugarren prueba-irakurtzea egiñ ondorean naita utziak' Ez bait nuan bestela liburu au irarkolatik sekulan aterako! Adibidez, nik "Erroma'tik" idatzi nuan tokian "Erromatik" ipiñi didate. "1510'eko" ipiñi-bearrean, "1510'ko". "Zuen" eta "Nuen" nik "Zuan" eta "Nuan" idatzi nuanetan; irarkolan lan egiten duten neskatilletatik batek "batua" pixka bat, —ez asko baiñan bai zerbait—, ikasia dalarik, batuaren erak sartu bait dizkit oartzeke.

Neri "Zuen" eta "Nuen" oiek ez zaizkit batere gustatzen' Zergaitik? amaierako "en" ori ia euskaldun danentzat (gutxienez 90'en-zat) plurala, "askorenera" dalako. Bizkitarrek ere, giputzon "Zuen" "Eben" esaten bait dute. Eta "Eban" singularrez. Guk, "Zuan" erabiltzen dugu: erriaren fonetika jarraituaz, "Zun", baiña beiñere ez "Zuen". "Zuen" au, (adibidez "aita-semeek ikusi zuen") plurala da ba beti guretzako.

Alatagutziz, "DUT" bai; "dut" aurkituko duzu beti "det"en ordez. Arrazoia? Bizkaierazko "dot"etik Iparraldeko "dut" ori gure "det" baiño bertago dagoala iduritzen zaidalako. Bear bada, lpartarren "dut" bizkaitarren "dot" ber-bera da, fonetikaren eragiñez, "o" "u" biurtua izan ondorean. Euskal fonetikak maiz egiten bait du "o" "u" biurtze ori.

Gipuzkera eta Bizkaiera alderatzen dituan erak erabiltzea garrantzi aundiko gauza da neretzat. Nere ustez euskeraren batasuna egitekoa ba'da, —ots, "Euskeraren Batasuna", gazteleraren batasunaren antzera, "numeric", au da, "euskalkiak baztertuta euskera berri bakar bat" sortuaz egin-bearra ba'da—, batasun ori bizkaiera eta gipuzkera alkarrenganatuaz egin bear dan gauza da. Ia euskaldun danok (% 90 baiño geiago) euskalki oietan mintzatzen bait gera!

Beste edozein batasun-mota sartu naiean ibiltzea euskerarentzat urkamendiko soka prestatzen aritzea da.

Euskeraren batasuna, gaiñera, gazteleraren edo latiniñaren batasunaren antzekoa ez baiña Grezi'ko izkuntzarenaren antzekoa dalarik, beste bide batetik jo bear dugu gure euskeraren batasunaren billa.

Euskeraren batasuna, euskaldun bakoitzak bere euskalkia ondo ezagutzea baizik ez da; besterik gabe, beste euskalkiak ulertuko bait ditu.

Euskeraren batasun-bidean urrenge urratsa, euskeraren batasuna bere gaillurrera eramatea, euskaldun bakoitzak, —gipuzkoar batek adibidez—, bere euskalkia ondo ikasi ondorean bizkaieraren aditz-jokua ikastea izango litzake. Ori.', giputz orrek bizkaieraz idazteko ere gai izan nai ba'du.

Laburdi'ko eta Zuberoko euskalkiak ez ditut aipatu; ez nerea aiña maite ez ditudalako, gipuzkeraren aditza ondo ikasi duanarentzat euskalki aien aditz-jokuak zailtasunik ez dualako baizik.

Beste itz batzuei buruz, errez igarriko duzu zalantzan ibillia naizela. "Erain"?, "Erein"?, "Batzutan"? "Batzuetan"? eta abar, nola idatzi? Euskerazaintzaren aolkuen zai nago, irakurle' Euskerazaintzaren erakutsien zai, idazkeraren bidez bizkaiera eta gipuzkera alkarrenganatu ditzegun, itz oiek eta oien antzeko beste itz asko nola idatzi bear ditugun jakin-zai.

*

Elizaren seme naiz. Apaiza Orregaitik, liburu ontan,
—uste ez dedan gauza—, sinesmenari dagozkionetan okerrik balego-

ke, aurretik dagit oles, ozenki, oker oro Elizaren esanera zuzentzeko gerturik nagoala aitortuaz'

Ta zuk ere, irakurle, liburu au zorrotz aztertzeko ezkubidea bai bait duzu, apalki artuko ditut zure iritzi eta epai-itz guztiak. Auxe duzu nere nora-bidea idatzi nai badidazu: "Instituto Politécnico Diozesano" Calle Nieves Cano. Gazteitz'en.

Eskerrikasko.

BIRJAIOTZA-AROKO ELIZA.

Rinascimento

Birjaiotza.

Beti izan oi da jaiotza gertakizun alaia. Eta alaia ba'da jaiotza, naitanaiez izan bear du gertari alaia birjaiotzak ere, eriotzaren illunpetik bizitzaren argira piztutzeak.

Benetan aldi alaia izan zan beintzat, gizadiarentzat, Birjaiotzako aldi dizdiratsu ura.

Bai noski. Baiñan, ala ta guztiz, izan zan gudarik, borrokarik, eta samintasunik naiko Birjaiotzako aldi dizdiratsu artan ere.

Erdiaroaren amaiera, ituna gertatu zitzaion gizadiari, negargarria. "Eun Urteko Guduak" sortutako gaitz-ondamenek, "Sarkaldeko Zisma"k atzetik laga zuan animentako urduritasunak, eta batez ere "Izurrate Beltzak" Europa guztira edaturiko ikara izugarriak, itundu zuten, benetan itundu!, Erdiaro luzearen azkena. Orduan sortu zan, edertiaren altzoan, "Eriotzaren Dantza" deitu oi zaion ertigai ezaguna.

Jendea, ordea, ertza batetik beste ertzara, erdian gelditzeke, igarotzearen zale izakita, "eriotzaren dantzaz" aspertuta, "biziarekin dantzan" asteko gogoak eraginda, ituntasunaren ertzetik alaitasunaren ertzera igaro zitzaigun. Ta neurriak maiz ausirik, lizuntasunera jau si zan, eta zentzugabekerira.

Ai baiña! Naiz ori egia izan, ez du sekulan Elizak Birjaiotzako aro zoro artan aiña santurik, eta ain santu aundirik, izan.

Pozetan murgil-egin-zale bizi izan zitzaigun Birjaiotzeko gizadia. Makiabelo idazleak, argitu-berria bait zuan "asmo zuzenak bide okerak zuzentzen dituala" erakutsiaz, bere "Il Principe" deritzan liburuak, moralitate berria eskeiñi zion jende goza-zale txoratu arri edozeiñ

okerkeriri zintzotasunaren itxura emateko. Makiabelo'ren dotriña, moralitate ooren ukamena da. Eta, moralitate orotik iare, egin zuten Birjaiotzako gizakumeek majiñabat erailketa, ezkon-loiketa, eta edozein motako ekintza gaizto.

Alabadere, ez zan gizadiaren edestian, orduan aiñako garbitasun-egarririk eta orduan aiña zintzotasun-goseak jotako jenderik izango' Elizaren garbitasuna, Eliz osoaren antzaberritze edo erreforma izan zuten jende aiek kezkarik nagusia.

1453^{ean} jausi zan turkitarren eskuetara Konstantinopla, deko Erromatar Imperiolurraren uri nagusia. Uri artatik igesi, aspalditik Sarkaldera etorri eta etorri ari ziran jendeek ekarri zituzten onuntz Grezi zaarreko ertilarien lan bikaiñak. Baita antziñako elenerazko idazle eta filosofilari ospetsu aien idazti ederrak ere.

Emen, Birjaiotzako jakintsuek ez zioten Grezi'ko filosofi zaarrari jaramon geiegirik egin. Bai ordea ertilariei: irudigilleei eta idazleei: olerkariet bereiziki. Grezi'ko eta Erroma zarreko olerkariak irakurtzea zan birjaiotzatarren gozotasunik aundiena. Asieran olerti aren edertasuna zuten maite. Laister, ordea, izan zitzairen maitea olerki aiek aurkezten zuten bizimodua ere. Ta olerkari aiek sasi-jaiko-gurtzaille izan bait ziran, eta sasijainkotasunaren araura bait zegoan eratua olerki aiek aurkezten zuten biziera, sartu ziran Birjaiotzako bizitzan, eta sakon sartu ere, Grezi eta Erroma zaarretako sasi-jaiko-zaleen oiturak. Itxuraz, kristau lez baiño geiago agertzen zaigu sinisgabe lez, arlo askotan, jende ura.

Itxuraz eta axalez bakarrik ordea; gogobarnean iñoiz baiño kristau ziñezkoagoa izan bait zan Birjaiotzako kristaudia. Ez zuan jende arek kristautasuna baiño arazo bizkorragorik izan. Kristautasuna zabaltearren joan ziran ezagutu-berriak ziran munduaren ertzetaraiño, millaka eta millaka, mixiolariak; Kristautasuna garbitzearren joan ziran katolikoak eta ostelari edo protestanteak, XVI eta XVII mendeetan alkarren aurkako guduketa odoltsu anker aietara. Zoritxarreko erlijio-guduak!

Grezi eta Erroma zaarreko ertilariek, Gizakurnea zuten ertilan ororako gai nagusi. Aiei jarraiki, gizonaren edertasuna artu zuten gai Birjaiotzako ertilariek ere. Ertiak, GIZAKUMEA egin zuan ekintza eroren muiñ. Ertilarien atzetik, GIZAKUMEA egin zuten Birjaiotzako filosofilariek oldozketa-lan guztien mami. Erdiaroan, Jaungoikoa izan zuan filosofiekintza orok asmo nagusia' Birjaiotzakoan, GIZAKUMEA, iza-

nen da adimen-lanaren gairik nabarmenena. Orrela sortu zan Umanismo edo Gizazaletasun esan oi zaion filosofi-era.

Giza-gurtze orrek ordea ez zuan erdiaroko filosofi zrrrik **Alderantziz**, iñoiz baiño bizkorrago jeiki zan, —bir-jeiki—, Donetomas'en filosofi ura, eta leen sekulan iritsi ez zituan erpiñ garaietaraiño igo zan orain Birjaiotzako teologilariei eskerrak.

Poz eta negar, okerkeri eta zintzotasun, sasijainkokeri ta santutasun, argi ta illuntasun, aro naasia izan genduan Birjaiotzako aro bereizi ura. Zuria eta beltza; maitagarria eta iguingarria. Miresgarria beti ere. Ederra!

Itali'n sortu zitzaigun Birjaiotza; amalaugarren mendean, eta mende ori dana, eta urrengo, eta amaseigarrena, bete zituan. Gioto margolaria ipiñi oi dute Birjaiotzaren sorburuan. Elertilarien artean, berriz, Petrarca ta Boccaccio; eta batzuen iritziz, baita Dante ere'

"Birjaiotza". Itz orrek zerbait illik zegoala eta berriro jaio zala esan nai digu. Zer ote zan bir-jaio zitzaigun zerbait ori?

JAKINTZA!, erantzungo dizute edestilariek.

Jakintza? Bedi' Baiña ez bereiziki, eta ezta ere geiegi. Jakintzaren jaiotza, XVII eta XVIII mendeetan, "Argikuntza-Aroan" egin bait zan.

Ertia, —"Ars"—, ertia izan zan Birjaiotzakoan eriotzetik piztu zitzaiguna. Ots ordea! Oker dabil, oso oker, erdiaroka jakintzaz antzu eta ertz legor izan zala uste duana. Birjaiotzako idazle jatorrek berak ez zuten sekulan orrelakorik pentsatu. XVII eta XVIII mendeetako sasi-filosofilari "argitu" aien ustea izan zan-erdiaroka ez-jakite eta illuntasun utsezko aroa izan zalaren uste oker ori.

Arozarrean ere, dizdiratsua izan genduan kristau-jakintza Erromatarren Aginte-Lur edo inperioan. Dizdiratsua eta antziñako Grezi eta Erroma'ko ertilari eta filosofilarien araura tajutua. Tuzidides, Tazito, Zizeron, Demostenes, Aristoteles eta Platon, —Platon bereiziki—, zeuzkaten buruan eredu, Tertuliano'k, Origenes'ek, Jeronimo'k, Augustin'ek, Krisostomo'k... idatzi edo itzegiten zutenean. Klasikoen usaia dute 1 Leon eta 1 Gregorio Aitasantuek; eta baita gero, XII mendean ere, Bernardo Deunak berak.

Egia da, barbaritarrek etorri ziranean Sarkaldeko jakintza zearo ondatua eta ezereztua izan zala. Baiña ez zan ill. Elizaren altzora gorde zan; eta altzo orren bero goxoan berbiztuta, indartsu irten zan ostera ludira.

Erdiaroko jakintza osoa Elizaren umea da kristaudiaren bi alderdietan. Sortaldean, jakintza ororen eta ederti osoaren landuzaille guztiak eliz gizonak izan ziran Krisostomo'gandik asita Donibane Damaskotarraren Era bat Sartaldean, Ispalis'ko Isidor Deunagandik, asita Eskolastika sortzeiraiño.

Amabigarren mendean egin zuan gorapen aundia kristau-jakintzak, orduan asmatu bait ziran erromanikera, ertirako, eta eskolastika, adimen-laneterako.

Gallurrera igo, berriz, XIII mendean igo ziran gallur-gallerrera kristau ertia eta kristau-jakintza. Orduangoa da gotik-era, agian etxeder-gintza edo arkitekturak izan duan erarik ederrena; eta orduangoa da, baita're eskolastikari eskerrak, ordurarte Teologiak izandako aldirik aberatsena. Elertian berriz, erdiarokoa da ludi guziko epopeyarik

Dante Aligieri'ren "Komedi Jankoitiarra". Erdiaroko kristautasunaren etsaiek, Birjaiotzakotzat aurkeztu nai digute Dante. Ez dute arrazoirik; eraz eta mamiz erdiarokoa da bere olerti-lan guren ura' Marrniz batez ere, aren mamia Donetomas'en Teologi eskolastikatarra bait da, itz-neurtu sendoetan ipiña.

Tamalez, Okcam'ek sortutako nominalismoaren erruz XIV mendean eta XV'aren asieran legortu egin zan eskolastika. Eta, eskolastikarekin, teologia. Ez zan mende oietan teologilari zorrotzik sortu.

Ta Birjaiotzak jakite berrien gosea sortu zuanean, jakite berri oiek kristautzeko, teologiak iñoiz baiño biguiñagoa, gazteagoa, biziagoa, eta "egunekoagoa" bear zuanean, gogorturik aurkitu zuan giro aldaketa arek gure teologia; gogorturik, eta zaaturik, moteldurik, "antziñako" egiñik!.

Erdiaroaren azken-aldiko burulangillerik nagusia, aipatutako Okcam frantziskotarra izan zan. Eskozi'ko semea. Adimenez urduriegia zalako eta neurri guztien ertzetan ibiltzea gustatzen zitziailako, gaitz geiago egin zion teologiari mesede Batez ere, "gogapen orokorrak" izen uts besterik ez zirala esatearekin biziiturria moztu zien jakintza guztiei, jakintza ororen gaiak ain zuzen, orduan "conceptus universales" deitzen zitziainen "gogapen orokoi" oiek bait dira'

Bereiziki, Filosofi eta Teologijakintzei egin zien izugarritzko gaitza Okcam'en "Nominalismo" edo "Itzuserkitza"k. Eta ona zergaitik:

Izadijakintzek, aipatutako "gogapen orokor" aiek erabiltzen dituzte, gai nagusi lez, beren lanketarako. Baiña "gogapen orokor"etaz landa, erabiltzen dituzte gauza bakoitzaren "irudiak" ("innágenes") eta gauza oien "gogapen bakoiztiarrak" edo "conceptus

peticulares" esaten zaienak ere.

Adimen-jakintzek ordea, teologiak eta filosofiak batez ere, ez du-
te, "gogapen orokorrak" kendu ezkerro, beste mamirik.

Eta!.' mamiz ustutako jakintza batek ¿balio al du zerbaiterako?
Ez noski askorako! Ala esan aal izan zuan Okcam'ek giza-adimena ez
dala gauza Jaungoikoa ezagutzeko!

Eta "gogapen orokorrak" soilki "itzak", itz utsak izanik, adimen-
jakintzak lantzea, batez ere filosofia lantzea, itz utsekin jostaketan
ibiltzea besterik ez ba`da, gu atzipetu naiean dabil adimena, zentzuen
bidez ezagutzen dugun izaditik aruntz, guretzat bide ziurrak aurkitu
dezazkeala oles dagigunean.

Ori errez ulertuko didazu, Martin Luter'ek "arrazoiari"
"magna prostituta", "urdanga galanta", asarre zergaitik esan zion.
Okcam'en filosofian eta teologian ezia izan bait zenduan Martin Lu-
ter! Ez zan ba orduan Okcam'en filosofia eta teologia besterik erakus-
ten!, unibersitate geienetan beintzat.

Garai artako jakintsuek ez zituzten ikusi nominalismoak ekarri
zezazkean ondorio makurrak. Itxutasun orren erruz izan zuten
Okcam'en aburuek ain arrakasta aundi eta zabala.

Gaur, zalantzarik gabe, esan genezake protestantismoa edo os-
telaritzza, ez osoki, baiña bai neurri galantean, nominalismoaren ume
izan zala.

Okcam'en ekintzak, izan zuan alde baikor zuzen bat ere: izadi-
jakintzei ematen zien garrantzia. Izadijakintzetara alderatzea, naita-
naiezko gauza zuan Okcam'ek, adimen-jakintza oro itz-jolasketa soil
biurtzen zuanez gero. Baiña, alatagutziz, ontzat artu bearra zan izadi-
jakintzei buruz aldarrikatzen ziguna.

Ordurarte, teologilari eta filosofilari kristauek ez zioten izadi-
jakintzari bear aiñako jaramonik eman; Jaungoikoa izan zuten
azterketa-gai bakarra; Jaungoikoaren ekintza, izadia, oartzeke azturik
gelditu zitzaien. Izadiaren maitale izan zan Donefrantzisko asistarra;
Izadi-jakintzen zalea, Donalberto Aundia, domingotar ospetsu eta teo-
logilari iaioa, baiña ez Asistarraren semeek, ez domingotarraren
anaiek, ez zuten tajuzko izadi-jakintzarik eratu.

Birjaiotzakoan, —ez asko, baiña bai zerbait—, izadijakintzaren
zaletasuna piztutzen danean, kristau-teologitik at egingo da pizkunde
ori. Gure filosofiak eta gure teologiak ez dute jakintza orren garrantzi-
rik ikusiko'

Amaseigarren mendean, berbiztuko dira kementsu Trento'ko

Kontzilioaren inguruan gure teologia eta filosofia, baiña, garai artan, teologilarien ardura nagusia protestalaritza bait zan, aantzirik geldituko zaizkigu ostera izadi-jakintzak.

Elerti edo literaturaren arloan Boccaccio eta Petrarka ipiñi oi dira Dante'ren alboan, Birjaiotzaren aintzindari lez, eta ez arrazoirik gabe, Dante erdiarokoa ba'da, beste biak osoosoan birjaiotzalariak bait dira eraz eta mamiz. Dante bera ere, esan daiteke oin bat erdiaroan eta bestea aro berrian dituan gizona dala, naiz muiñez erdiarotar eta eskolastikoa izan, eraz berekin bai bait du birjaiotzaren dizdira' Esan dezagun adimen-lanez erdiarotarra dala aren "Komeri Jainkotiarra"; eta, irudimen-jokuz, birjaiotzakoa.

Iru gizon ospetsu aiek, —Boccaccio, Petrarka, Dante—, irurak, izan ziran sinismen sendoko gizonak, naiz Boccaccio, elizgizonen akatsak margozterakoan, margo orlegi garratzegien erabil-zale maiz agertu. Izkuntza narratsa batere kezkarik gabe erabili oi zuten Birjaiotzako idazle eta izlariak, baita sermoietan ere. Emakume zintzoa eta fiña izan zan animaz Margarite Naparroa'ko Erregiña, Frantzi'ko erderak Birjaiotzakoan izandako idazlerik iaioenetakoa. Ala ere aski izkera gordipean idatzi zigun bere "Hectameron", Boccaccio'ren era-ra.

Dante baiño ariñoagoak izan ziran Birjaiotzako elertilariak, izan ere Birjaiotzaren ezaugarriak nabarmenenetako bat arintasuna izan bait zan. "Itxurari"!, ematen zitzaion garrantzi aundia. Ala, bereiziki latiñez idatzi zuten birjaiotzalariak, Erasmo adibidez, estilista txit iaioak dituzu. Aien lanez, ederra eta polita dute benetan axala, bear bada Erroma'ko klasikoen idaztiez baiño politagoa eta ederragoa, motela mamia; motela eta geza, aula, indar aundirik gabea.

Idazle politt aien giroa, eta orduango pentsalari birjaiotzatarren adimen-lan guztien elburua "umanismoa" izan zan, "gizitzia"

"Gizitzia" esan dut, baiña "gizazaletasuna" esan bear nuan ego-ki mintzatzekotan, "umanismo" ura ez bait zan "antropologiaren" antzeko jakintza bat izan.

Erdiaroko eskolastikak Jainkoa izan nuan adimen-begientzat ikuspide bakar. XIV mendean, nominalismoaren aize zoroak legorturik, batere ezetasunik gabe zetzan eskolastika zaar ori, eta artaz aspertuta, bide berrietaruntz jo zuan giza-adimenak, ta Jainkoa aztu gabe, Gizakumea artu zuan ikuspide nagusitzat, ortara bultzatzen bait zuten orduan bir-ezagutu berriak izan ziran antziñako Grezi eta Erroma'ko klasikoen ertiak eta jakintzak. Gauza jakiña da ba filosofilari

eta ertilari klasiko zar aien ardura bakarra gizakumea izan zala. Gizon-emakumeen edertasuna era egoki eta atsegiñean aurkeztea izan zuten elburu, Fideas'ek eta Miron'ek. Gizakumearen zoriona izan zan soilki Greziko filosofilarien asmoa. Gizakume lez ikusten zituan mitologiak bere jainko eta jainkemeak, eta gizekumeen bizitza biurtu zuan aien biziera, eta ez, ain zuzen era aski garbian, gizon-emakumeen bizitza baiño lizunagoa eta nardagarriagoa bait zan mitologiako jainko eta jainkeme aien bizitza.

Birjaiotza, erti-igikunde bat eta bizitzeko era bat izan zitzaigun batera. Jakintza-igikunde bat izan zanik ezin esan daitekeala deritzai-gu

Bizitzeko era lez, Birjaiotza umanismoaren ondorioa da. Umanismoa, jakintza ez baiña, bizitzeko "era" berri bat izan bait zan. Umanismoa ez zan gizakumearen zertasuna aztertzen saiatu. Ez zan gizakumeariburuzko filosofi bat edo antropologi bat izan. Soilki, edo beintzat bereiziki, gizonki bizitzeko "era" berri bat nai izan zuan edatu, ortarako Grezi eta Erroma'ko olerkarien abestiak eredutzat artuaz' Ots: Aristoteles, Platon edo Sokrates ez baiña, Virgilio, Ovidio, eta geinaz Seneca, izan zituzten birjaiotzatarrek irakasle. Axaleko gauza izan bait zan umanismo ura.

Bizitz-era berri ortan, txukuntasunak, dotoretasunak, zuan garra-tzirik aundiena. Eta elburu, berriz, nork bere burua ospetsu egitea, izan zan Birjaiotzako gizaseme-alaben elburua. Elburu ortara iristeko edozein bidetik jo zezakean edonork, "elburu zuzenak, zuzen biurtzen bait ditu bide okerrak", Machiavelli'k erakutsi zuan lez.



Itali'ko Laterriak 1454'ean

Iparretik Egora:

- Saboia'ko Dukateria
- Milan'go Dukateria
- Benezi'ko Errepublikak
- Ferrara'ko Dukateria: (Dominio Stense, Estetarraren
- Lurraldea, mapa ontako izkeran)
- Jenoba'ko Errepublika.
- Luka'ko Errepublika
- Florentzi'ko Errepublika

- Piombino'ko Errepublikak
- Siena'ko Errepublikak
- Elizaren Laterriak
- Napoles'ko Erreiñua
- Siziliko Erreiñua
- Zerdeña'ko Ugarteak (Aragoi'arena)
- Kortzega'ko Ugarteak (Jenoba'arena)
- Elba'ko Ugarteak (Piombino'rena)

Dalmazi'ko Itxas-Ertza Benezi'rena zan geiena. Beste zati bat, txikia, Ungari'rena, eta bestea, bertako Ragusa'ko Errepublikarena. Itxasertz artako ugarteak, ia danak, Benezi'renak.

Ez ditugu aipatzen Iparraldeko Laterri txikiak. Laterri aietan txikiena Monako zan, eta aundiena Mantua'ko Markeseria.

BIRJAIOTZAKO AITASANTUAK

V NIKOLAS

(1447 - 1455)

1447. Aitasantu berri bat aukeratzeko bildurik zegoan, IV Eujenio'ren illetak amaitu ondorean, kardelanan "konklabea" edo "giltzapeko batzarra". Orduan maiz gerta oi zan bezela, batzar naasia izan zuten ura kardenalek; bi zatitan zatiturik bait zeuden: orsinitarrak eta kolonnatarrak.

Alkar ezin artu zutela-ta, erdibide bateruntz jo zuten azkenean kardenal aiek. Orrela, ez Colonna ez Orsini izan zan Aitasantu berria, apika ezaguna zan errikoakor bateko mediku apal baten semea baizik: Tomaso Parentucelli.

Konklabea asi zanean ez zuan iñok orrelako autaketarik itxaro; ezta Tomaso Parentucelli berak ere.

Ala ta guztiz, giltzapeko batzar artan gutxi ziran, aitasantutzara igotzea, Parentucelli'tar Tomas onek bezain egoki merezi zutenak. Jakintza aundiko gizona bait zan alde batetik, eta, naiz santu izan ez, apaiz-bizitza sendokoa bestetik. Nikolas artu zuan izen aitasantutzarako, eta izen ortako aitasantuetan V'a izango da.

Aurkitu zuan arazorik naiko bai Elizaren Laterrietan, bai Elizaren gorputz osoan, eta bai Kristaudiko gizartean ere.

Elizarenak zirala garai aietan Erroma, eta Itali'ren gerrialdea, edonork badakian gauza da. Aitasantua zan lurralde artako Erregea. Ta maiz izan oi zituzten Aitasantu-Erregeek politikazko islr illak beren Laterri aien barruan.

Ain zuzen ixkamil-garaia zan Nikolas V'ak, Aitasantu aukeratua izatean, Laterri aien erregetza bere eskuetan artu zuan garai ura, Aitasantuei agintaritza kenduta, Laterri aiekin Errepublika bat osatzearen aldekoak bai bait ziran an. Errepublikazaleen alderdi orrek, izen aundiko iraultzalari bat zuan buruzagi: Eztebe Porcaro.

Aski indar aundia zuten Erroma'n errepublikazale auek, eta Eugenio IV'a il zanean, ez zan konklabe-egiterik ere izango noski, egoaldetik Napoles eta Aragoi'ko erregeak, V Alfonso "Magnanimus" edo "Zabalak", kardenalen batzarre-barneko askatasuna babesteko gerturik zegoela adieraziaz, bere gudaroztea Elizaren Laterrietako mugara bidali ez balu. Bere Laterrietako barren-pakea egin eta sendotubearra naitanaiezkoa zuan beraz V Nikolas Aitasantu berriak. Gizon pakezalea bait zan oso, barkapen maitetsua eman zion, konklabearen asieran erria Aitasantuen erregetzaren aurka jeikiarazi naiean ibilli zan Porcaro iraultzalariari.

Baiña ez zuan Porcaro'k bere asmorik aztuta laga, eta urte batzuk geroago aren aurka gogor jardun bearren aurkitu zan V Nikolas.

Matxinada bat prestatu zuan ba Porcaro'k 1453'ko Errege eguneko. Aitasantua eta Kardenalak, Errege eguneko meza ospatzen ari ziran unean, danak baiturik artzea, eta ori ezin bazuan, danak aitzoz iltzea asmatu zuan, eta ortarako laureun iraultzalariren taldea bildurik zeukan ixilllean.

Talde ura ez zan, ziurki, Erroma'ko Erria; ezta Erroma'ko Erriaren ordezkari-sail txiki bat ere. Erroma'ko Erria, Aitasantuekin pozik bizi izan zan beti, bai bait zekian Aitasantua Erroma'ko errege izateak, ospe aundia eta aberastasun naroa ematen ziola Erroma'n: Porcaro'rena bezelako Errepublikatxo koxkor baten landerkeriak ezin eman zezaiozkean ospea, eta aberastzana! Porcaro'ren Errepublika esan dugu. Ori zan ba ain zuzen, Porcaro'ren asmoa: bere burua Erroma'ko Errepublikaren Lendakari egitea!

Orregaitik, Porcaro'ren talde iraultzalari ura, ezpatalari urduritsuez, eta baita egiazko gaizkille odoltzaleez ere, osatua zegoan.

Iritxi zitzaion ordea Aitasantuari matxinadaren berri, eta ertzaindia bidali zion Porcaro'ri. Ez zuan onek errenditu nai izan, eta borroka odoltsu baten ondorean, baitua, epaitua, eta Sant'Angelo'ko ormetatik urkatua izan zan lau egun geroago.

Erroma'ko erria ez eze, Aitasantu-Erregearen alde agertu zitzaizkigun matxinada artan aundikiak, eta jakintsuak, eta orduango umanista edo gizazale ospetsu aiek danak: Manetti, Filelfo, Poggio, Alberti, Piccolomini, Plátina, Valla...

Ez da ori arritzeko gauza, Aitasantuek Erroma ertilanez aunditzearen zale agertu bait ziran beti, eta beste lengo Aitasantuek baiño geiago, Porcaro'k ondatu nai izan zuan V Nikolas au.

Sendi pobre baten altzoan jaioa zalarik, diru-faltaz ikasketak utzi

bearrean aurkitu zan; baiña liburu ederrei eta ikasketari izan zion zale-
tasunik ez zuan sekulan Tomasso Parentucelli gazteak galdu.
Liguri'ko jaun aundiki batzuen umeei erakusten txapon batzuk iraba-
zita Boloni'ko Ikastetxe Nagusira itzuli aal izan zuanean, jakintza aun-
diren jabe egin zitzaigun an.

Gero Nikola Albergati kardenal jakintsu eta santuaren serbitzura
jarri zan. Kardenal onekin, diplomazianetan, Frantzi eta Alimani ibilli
aal izan zituan, eta baita Florentzi'n, uri ontan egin zan kontzilioaren
giro pizgarrian bizi ere. Emen sendotu zuan egiazko adiskidetasuna
Leonardo Aretino'rekin, eta Giannozzo Manetti, Giovanni Aurispa,
PoggioBracciolini, eta orduango beste gizazale ospetsuekin. Bera
ere, —naiz asko idazteko astirik ez aurkitu—, jakintza-zaletasunez eta
baita jakitez ere, ez bait zan aiek baiño txikiagoa.

Aipatu dugun Nikola Albergati kardenalaren omenez artu zuan
aitasantutzara iritxi zanean Nikolas izena. Eta gizadiak eta Elizak une
aietan zituzten auzi eta arriskuek ez zioten jakintasunari izan zion ar-
durarik moteldu.

Berealaxe ekin zion lanari. Erroma'ko uriaren aurpegia garbitzea
izan zan bere aurreneko asmoa. Ortan Leon Bauttista Alberti arkitek-
toa izan zuan aolkulari' Berritu zituan uriaren arresiak, gazteluak, jau-
regiak, elizak...; karrika berriak iriki nai izan zituan; bera izan zan Kos-
tantino'k eraikitako Kepa Deunaren Jauretze nagusia, bir-eraiki nai
izan zuan lenengo Aitasantua.

Eriotzak ez zion, asmo guzti aiek mamitzeko astirik eman, —ain
motza izan bait zan bere aitasantutza!—, baiña asmo aiek mami egi-
teko astirik izan balu, bere ekintza "bikaintasunean ez zala antziñako
inperatoreena baiño kaxkarragoa izango" idatzi zuan Eneas Silvio Pi-
colomini'k.

Batikan Jauregiko biblioteka izan zuan bere bigarren gurari ku-
ttuna' Liburutegi ura aunditzeko, al izan zituan liburu eta esku-idatzi
guztiak erosi zituan"Erosterik izan ez zituanak kopiarazten eta latera
edo latiñez ez zeudenak latiñarazten, gogo osoz saiatu zan. Ortarako,
sorkaldetik, turkitarrendandik igesi ango jendeak zekarzkian elene-
razko liburuak erosten dirutza aundia gastatu zuan. Eta Konstantino-
pla turkitarrek' artu ondoren ere, andik atera ezin zituan liburuak ko-
piatzera, jakintsu-sail bikain bat bidali zuan. "Alemani'ren azkeneko
zokoraiño bidali zituan liburu eder billazailleak", rdatzi zigun
Manetti'k.

Batikano'ko liburutegian zenbat liburu bildu zituan ziur jakiterik

ez daukagu' 453'000, idatzi zuan Bistici'k; 3.000, Eneas Silvio Piccolomini'k. Garai artan orrenbeste liburu batean biltzea zer lan zan jakiteko oroi dezagun Frantzi'ko liburutegirik onenak, Sorbona'koak, 844 ale besterik ez zituala; 45300 Bessarion kardenalarenak; Pabia'ko Visconti'renak, 45388; Urbino'ko dukearenak 772; Florentzi'ko Medizitarrenak 158 (1.000, mendearen azkenean); eta Batikanokoa k, V Nikolas Aitasantu egiterakoan, 350.

Gauza garestia ta zailla zan liburua, ez bait zan oraindik Gutenberg'ek 1.440'ean sortu-berria zuan irarkola munduan zabaldu; eta buruen ale bakoitza eskuz idatzi bearra bait zan; ta Nikolas V'ak, gaiñera, bera oso kaligrafilari ona zalarik, berak ikustatu nai izaten bait zituan, banaka, bir-idatzitako liburu danak; eta era bikaiñean zeuden aiek bakarrik onartu!

Diru asko txautu zuan ontan, baiña mesede aundia egin zien elertiar eta jakintzari, elenarazko filosofilari eta ertilarien lanak eta Asaba Doneen idazkiak salbatzeko izan zuan arduraren bidez'

Napoles eta Aragoi'ko V Alfontso'rekin batera, —eta bear bada au baiño geiago—, bera izan zan XV mendean "mezenas" edo ongilerik aundiena.

"Beste Aitasantu Nikolas bat izan ba'gendu, eta beste Alfonso Errege bat, onozkero ez zan elenerazko liburu bat geldituko laterara itzulia izan gabe" "E se fusse stato uno altro papa Nicola e uno re Alfonso, non restava appresso de Grezi libro inguno che non fosse tradotto", idatzi zuan Bistici'k.

Fidelfo'k berriz, "Grezia ez zala desegiña izan, Itali'ra aldatua bai-zik" idatzi zuan.

Zorionean!, 120.000 liburu baiño geiago erre zituztela Sortaldean turkitarrek, esaten bait digu Kiev'eko Isidor kardenal gizazaleak!. Ta, bazuan onek gauzak ongi jakiteko arrazoirik, Konstantinopla'n bait zegoan, Aitasantuaren ordezkari lez, turkitarrak an sartu ziranean.

Eta Erroma edertzen gastatutako diruarentzat ere bazuan Nikolas V'ak, ertimaitasunaren gaindik, teologizko arrazoi bat ere. Entzun nola mintzatu zitzairen kardenalei iltzer zegoala:

"Jakintsuek, edestia aztertze utsarekin errez igarri dezakete Elizaren aunditasuna. Ez ordea erriko jende xee arrunt ezjakiñak. Jende onek bear-bearrezkoa du aunditasuna begiekin ikustea; bear-bearrezkoa du jauretze bikaiñak eta irudi ederrak begiekin ikustea. Zentzuei zizta zorrotza dagieten gauza arrigarriak bearrezkoak ditu!"

Ta, orregaitik egin omen zituan lan bikaiñ aiek danak: Jende ezja-

kin gaixoeak, Elizaren Uri Nagusiko jauregi eta jauretxe oparo aiek ikustean Elizaren aunditasuna igarri zezaten.

Ez zuan V Nikolas'ek, eder-lan oietan ari zan bitartean, Eliza eta mundua larritzen zituzten arazoetatik bat bakarrik aantzi.

Arazo auetatik, V Felix sasiaitasantuarena zan, zalantzarik gabe, Erroma'rentzat mingarriena' Oroi dezagun labur-labur, V Felix onen edestia:

1418'an amaitu zan Konstantza'ko Kontzilioa; baiña ez ziran bertan Elizaren istillu guztiak amaitu; alderantziz, kontzilio artan bertan indar berria artu zuan "kontzilioarismoak"; "aitasantuen gaindik kontzilioa zala Elizaren agintaritza nagusia", oles zegian aburuak.

Ain zuzen Kostantza'ko Kontzilio arek, laugarren eseraldiko lenngo atalean onako auxe erabaki zigun: "Kontzilio onek, bere esku-bidea, zuzenean Jainkoagandik artua du, eta pertsona oro, edozein dignitateko pertsona, naiz pertsona ori Aitasantua izan, kontzilioaren esanera egotera bearturik dago sinismenari eta Elizaren batasunari dagozkion gauzetan"

Atal ori ez zan sekulan Aitasantuek onetsia izan, baiña asko zabaldu zan bere-baitan zeramakian dotriña XV mendean. Itali'n teologilari eta legiztilari asko, kontziliaristak ziran; Frantzi'n, geienak; eta Alemani'n, ia danak.

Kontziliarismo orrek aize aundia eman zion protestantismo edo ostelarietari. Aitasantuaren gaiñetik zegoan kontzilioaren iritzia eskatzen zuan Martin Luter'tarrak, kontzilioa ere bere aurka jarriko zitzaio-la oartu zan arte.

Noizbeinka, eta sarri, kontzilio bat egitea erabaki zan Konstantza'n, eta, erabaki orren araura, bi kontzilio egin ziran: Pabia'koa 1423'ean eta Basilea'koa 1431'an. Bietan agertu zuan kontziliarismuak bere burua, baiña bigarreanean bereiziki.

IV Eujenio zan Aitasantu Basilea'ko kontzilioakoan. Aitasantu onek bildu zuan kontzilio ura; eta Aitasantu onek berak desegin ere desegin zuan eta azkarregi, bear bada—, kontziliarismoaren bildurak artara bultzata. Baiña orduan, —Aitasantuak kontzilioa desegin zuanean —, Aitasantuaren aurka jeiki ziran kontziliokideak, eta Basilea'n jarraitu zuten bildurik, aipatu degun Konstantza'ko atal aren araura.

Oso gutxi ziran Basilea'n bildurik zeuden gotzaiak, baiñan beren alde zuten Sejismund Inperatorea' Gaiñera, apaiz utsei, —eta apaiz

uts zan kontzilio artako jenderik geiena—, gotzaiei aiñako eskubi-deak eman zitzaizkien. Azkenean, Basilea'ko kontzilioak, zazpi gotzaiek eta 300 apaizek osatzen zuten XXXIII eseraldian, aitasantutza kendu zion IV Eujenio'ri; eta XXXVIII'ean, Saboya'ko Dukea, Amadeo, egin zuan Aitasantu. V Felix izen ipiñi zion onek bere buruari. Eneas Silvio Piccolomini artu zuan, berriz, idazkari.

Piccolomini gizazalearekin batera, Kusa'ko Nikolas Kardenala eta Kapranika'ko Domingo kardenala izan zirar Basilea'ko gizonik ospetsuenak. Baita Nikola Tudeschi legiztilaria ere.

Orrela zeuden gauzak V Nikolas Kepa Deunaren Aulkira igo zanean. Berealaxe, eskuz bezela adimenez eta biotzez ere gizon zabala bait zan, barkapen osoa eskeiñi zion V Felix sasiaitasantuari eta, gaiñera Kardenal izendatu zuan' Pozik onartu zituan sasiaitasantuak V Nikolas'en eskeintzak, eta berealaxe, aitasantutzakoa utzirik Erroma'ko Elizaren altzora itzuli zan; ordurako, oker jotzen bait zion politikaren aizeak ere; uko egin zioten ba, Eskozi'ko erregeak, eta ordurarte IV Eugenio'ren aurka gudan ibilli ziran Milan'go Dukeak eta Aragoi ta Napoles'ko Erregeak. Inperatore berria ere, III Federik, alde baiño geiago zeukan aurka, arrezkero, sasiaitasantu arek'

1451'ean il zan, Elizarekin pakean, Felix V'a, Elizaren edestiko azken-sasiaitasantua.

Oso era maitetsuan onartu zituan V Nikolas'ek kontziliarismoari ordurako uko egin zioten Cesarini, Capranica eta Cusa Kardenalak, Andres Escobar Portugal'eko beneditar ospetsua, eta Eneas Silvio Piccolomini idazle iaioa.

* *

Aitasantutzaren autoritateari Nikolas V'ak sendopen aundia eman ziola, naitanaiez aitortu bear dugun gauza da.

Baiña Eliza obenez garbitzen, batez ere Aitasantuaren "kuria" edo jaurledia garbitzen, lan geiegirik egin ez zuala ere, naitanaiez aitortu bearra dugu. Bazuan ba "kuria" arek garbiketaren bearra! "Curia romana omnis vitii et corruptionis plena est" idatzi zion txosten batean Capranica kardenalak V Nikolas'eri: "Erroma'ko kuria okerkeri eta txarkeri oroz beterik dago". Okerkeri oien sustraiak:dirua erabii tzeko era, eta, karguetarako, duin ez ziran gizonak izendatzea.

Garbikuntza ori egitea Capranica beraren eskuetan ipiñiaz erantzun zuan Aitasantuak.

Bera gizon garbia eta oitura zuzeneko kristaua zalarik, bazuan N kolas V` rak Eliza garbitu eta txukuntzeko guraria. Agian, —laburra izan bait zan bere aitasantutza—, astirik ez izateak eragozi zion lan ori egiten astea. Garbiketa-asmo orrekin ospatu zuan 1450'an "jubileoa" edo "Barkapen Urte Donea". Izugarritzko jendetza, ordurarte iñoiz ez aiñako jendetza bildu zan Erroma'n Europa guztitik; Alemani'tik bereiziki.

Urte Santu ortan egin zuan santu Nikolas V'ak Siena'ko Bernardin frantziskotarra. "Kanonizazio" ontara bost santu etorri ziran Kepa Deunaren Jauretjera: Kapistrano'ko Jon, Marka'ko Jon, Alkala'ko Diego, Pedro Regalado, (bostak frantziskotarrak), Boloni'ko Katalin (klaratarra) eta Kasia'ko Rita (agustindarra). Birjaiotza-aroa, santu asko eta santu aundiko aroa izan bait genduan!

Izugarritzko dirutza aundia utzi zuan Urte Doneak Erroma'n. Diru aiek danak liburuak erosten, bir-idazten, eta latifñera itzultzen, urtu zituan Nikolas V'ak. Birjaiotza-aroko aitasantuen gauzak!

Eliza garbitzeko asmoak eraginda bidali zituan Alemani'ra Kusa'ko Nikolas kardenala eta Kapistrano'ko Jon Donea. Asmo bera-ekin Frantzira, Estouteville'ko Gllermo kardenala'

Bazan Europa'ko Elizan garbitasunaren bearra; Frantzi'n eta Alemani'n batez ere. Kontziliarismoa txit zabaldurik zegoan bi Laterrietan. Apaizak zearo ez jakiñak ziran, meza eman eta sakramentuak egiteko bear-bearrezkoa zutena buruz ikasi besterik ez bait zuten egiten' Seminariorik ez zan. Erriko apaiz zarra, berak ere sakramentu-egiten besterik ez zekiana, izaten zan apaizgaien irakasle.

Gero, apaiz oiek ez zuten bizitzeko aiña apaiz-lanean irabazten, —zearo txiroak bait ziran parrokiak—, eta beste edozein lanari eldu bear izaten zioten' Erriko jendea bezela bizitzen ziran, tabernetan, dantzan, jokuan, eta erriko jendea bezela, oso maiz, maitakeri-arazoetan sarturik ibiltzen ziran, ta, asko, emakume batekin naasirik bizi oi ziran. (i3'tik 1 ! Ipar-Renanran).

Gotzaiak berriz printzipeak bezela agertuko zaizkigu: izugarri aberats, jauregirik ederrenetan, morroiez inguratirik; aberats-kumeak zenituan, izan ere, geienak; eta asko, aristokrazikumeak; jakitez eta kulturaz ondo jantziak, ertiaren eta elertiaren maitale sutsuak, birjaiotzatar egokiak. Ez ziran, gotzai aiek, beren elizbarrutietan bizitzen, Erregeen jauregietan baizik; eta beraiek zituan erregeak laguntzailerik egokienak, aolkulari lez, diplomazilanetan; eta, baita, gudan guda-rozteen burutzagitzarako ere' Alemani'koak, gaiñera, Laterri-Buru zi-

ran, beren elizbarrutiak, Inperio-barruan, Laterri iare bait ziran.

Maiz ikusiko ditugu, kristaudi guztian, gotzai apain, jakintsu, dotore aiek emakumeekin naastuta. Ez danak, baiña bai askotxo'

Gotzai aien eredu zan N ikolas V'ak Frantzi'ra ordezkari bidalitako Estouteville'ko kardenala bera. Emakumerik ez zitzaion ezagutzen, baiña bai aberastasun naroa eta printzipe-biziera oparoa. Kontsistorio esan oi zaie Aitasantuak kardenalekin egiten dituan batzarrei. Ba, Estouteville'k kontsistorio batera joan bear zuanean, bere serbitzuko 300 zaldunez inguraturik iristen zan Batikano'ko atarira.

Frantzi'ko legazio artan ez zuan Estouteville'k ezertxorik lortu, lenxeago sutan errea izan zan Ark'ekeko Jone'ren izena garbitzeaz landa'

Ezer gutxi lortu zuten Kusa'k eta Kapistrano'k ere Inperio lurretan. Erriko jendearen artean, bai: une-uneko frutua, aski aundia izan zuten, erria apaiz eta gotzai santuei entzuteko irrikatzen bait zegoan; baiña Eliza bera, len zegoan bezain zikin gelditu zitzaigun.

Oitura zikiñez bezain naasia aurkitu zuan politikazko iskamillaz ere Kristaudi zaarra jkolas V'ak. Frantzi eta Inghlanderri-arteko "Eun Urteko Gudua" ez za oraindik amaitu. VII Karlos errege zala Ark'eko Jone Frantzi'ko guda ozteen buruzagitzan jarri zan ezkeru, garaille zan Frantzia.

Baiña.", Jone Ark'etarra errea izan zan 1431'ean. Inghlanderriaren eskuetan zegoan oraindik Calais'ko kaia' Eta Frantzi'n len Inghlanderriarenak izandako lurralde guztiak bir-irabazi naiean zebillen VI Enrike Inghlanderriko Erregea'

Bi Laterri indartsu aien artean pakea sendotzearren ere, bidali zuan Nikolas V'ak Estouteville'ko Kardenala'

Itali'n bai; adu ohea izan zuan Aitasantuak; Laterri txiki askotan zatiturik zegoan Itali aberats eta urduri artan, "Lodi'ko Pakearen bidez lortu bait zuan 1454'ean eta berealaxe, "Liga Itlica" esan zitzaion Alkartearen bidez, Benezi'ko Erkala, Milan'go Dukaterria, Florentzi'ko Erkala, Napoles'ko Erreiñua, eta Elizaren Laterriak, 25 urterako era paketsuan bata bestearekin alkartzea' Jenoba'ko Erkala eta Saboya'ko Dukaterria gelditu ziran Itun artatik at, baiña, ala ta guztiz, barnean bait ziran Itali'ko Laterririk indartsuenak, 1454'ko "Italiar-Alkartea", izan zuan Itali'k, aski aro luzean, pakearen giltza'

V Nikolas bera izendatu zuten Alkartearen Lendakari, Laterri alkartu aiek: "guztieon Aita, Buru eta Zuzendari dan Aitasantua", beraien izkeran.

Kostantinopla turkitarren mendera jausi ondorean Nikolas V'ak Itali'ko Laterri artean sartu zuan kezka ondorio izan ziran "Lodi'ko Pakea" eta "Italiar-Alkarte"; begi zorrotzez eta era egokian ikusten zuan ba Aitasantu argi arek, Kostantinopla atzi ondorean, itali'ko Laterri txiki aiek alkartzen ez ba'ziran, II Maomet Sultanaren gudaroztea Itali'n bertan sartu zitekeala.

Ain zuzen Kostantinoplaren erortzea izan zitzaion V Nikolas'eri aitasantutzako arantzarik mingarriena.

Gaur oartu ez giñazken bezalakoa izan zan erdiaroan Kostantinoplaren itzala. Uri jakintsua, uri eder bikaiña. Izugarriak ziran bere arresi eta babes-gazteluak; munduko bikaiñenak. "Portae sublimis Urbs" esaten zitzaion: "Almenik Aundieneko Uria". Erromatar-Inperioaren Buru izateko, Elizari pakea eman zion Kostantino l'ak, lenen inperatore Kristauak, eraikia izan zan; eta gero, Inperioa bi zati IV mendearen azkenean egin zatean, Sortaldeko Erromatar-inperioaren Uri Buru biurtu zitzaigun; eta naiz XI mendea ezkerro Erroma'tik, berezitako Eliz Ortodoxiarraren Uri Buru ere izan, mirespen aundiz eta maitasun osoz begiratu oi zion beti kristaudiak Kostantinopla'ri.

Larri zebillen, oso larri, azkeneko eun urteetan Kostantinopla; gero ta estuagoa zan ba, turkitarrek ipintzen zioten esia. ikus:

1357'an igaro zuten Dardaneloetako itxas-zintzurra, Europa'n orrela oiñak ipiñiaz Soliman Sultanaren gudariak. Urrengo urtean arrapatu zuten Gallipoli deritzan uria, Dardaneloetako giltza.

Alkartu ziran, bildurrak jota, Balkan-Mendietako erri guztiak. Ai perrik. 138453'rako, ia Bulgari guziaren eta Serbi osoaren jabe ziran turkitarrak. Bayazeto lak irabazi zituan lurralde zabal aiek danak.

1444'ean izan zan Barna'ko borrokaldi odoltsua, Mourad II Sultanak irabazia. Borrokaldi artan il ziran, millaka gudari kristauen artean, IV Ladislao Poloni'ko Erregea eta Cesarini, Aitasantuaren Kardenal Ordezkaria.

Lau urte geroago, ' 448'an, Ungari'ko Jon Hunyady Erregeordezkoa garaitu zuan Sultan berak, Kosobo'n'

Edestiko indarren jokaeraren araura, aspaldi turkitarren eskuetan bear zuan Kostantinopla'k. XIV mendearen asieran, mongolitarren erasoak salbatu zuan, izugarrizko jipoia eman bait zien Tamerlan'ek turkitarrei Ankara'ko borrokan, 1402'garren urtean' Ta oso gaizki ibillibearreak ziran turkitarrak, Tamerlan iltzean aren gudari mongolitarrek barreiatu ez ba'lira. Ala jaso al izan zuten ostera (turkitarrek) burua, eta bizkorki jaso gaiñera.

1448'a izan zuten turkitarrek Kostantinopla arrapatzeko unerik egokiena. Urte ortan bertan ain zuzen, turkitarrek Kosobo'n ain garaitza betea lortu zuten urte ortan, il bait zan VIII Jon "Paleologos" Inperatorea. Baiñan orduan albanitarrek salbatu zuten Kostantinopla Kroya'ko borrokan lortu zeiten garaitzari eskerrak. Borrokaldi ortan kaskatako izugarria eman bait zien Gorka Kastriota albanitarrak Murad il'aren "jenizariel". 144453'garren urtea zan.

Aspalditik Sarkaldetarren laguntzaren billa zebiltzan Kostantinopla'ko Inperatore, Agintari eta Aundiki guztiak' Laguntza orren billa joan ziran Florentzi'ko Kontziliaora, bearrezkoa ba'zan, Sortalde eta Sarkaldeko elizen akartzea egiteko ere prest.

* * *

143453'an Florentzi'ko Kontzilioan, egin zan Sorkaldeko Eliza "Ortodoxiarraren" eta Erroma'ko Elizaren alkartasuna. Alkartasun ori, Inperatoreak egin bear zuan Sorkaldean lege. Ori len-bait-len egiteko eskatu zion Nikolas V'ak XII Kostantino'ri.

Nagi ibilli zan len VIII Jon eta nagi zebillen orain XII Kostantino ere Erroma'ko Elizarekingo alkartasunaren arazo artan, bai bait zekiten Sorkaldean jende asko, lekaideak batez ere, —Sorkaldeko Eliza-baitan ain itzal aundia zuten eta, geienak beintzat, ain jakite errikoak ziran lekaide aiek—, alkartasun aren etsai amorratuak zirala.

Florentzi'ko Kontzilioan lortutako Alkartasuna ere, geiago izan zan itz utsez egindako alkartasuna, biotzez egiña baiño. Turkitarren bildurrak bultzata egin zuten Alkartasun ura Sorkaldeko Gotzaiek eta Inperatoreak berak. Erriari ez zitzaion batere alkartasunagaitik ajolik. Gotzai asko orduan ere, eta lekaideak, —banakaren batzuek kendu ezker, —denak Aitasantuaren etsai ziran' eta ez zuten Erroma'rekin alkartzetik entzun nai.

Erroma'n bertan ez ziran orain danak Kostantinopla'ri laguntzearen aldeko. Zismatikoak omen ziran ba sorkaldetar aiek, egiazko Elizatik bereziak, eta erejeak, egiazko sinispidea galdu zutenak. Beste batzuek bai, al zan guztian lagundu nai zioten XII Kostantino'ri; sorkaldetarrek, naiz zismatikoak izan, ala ta guztiz, kristauak ziralako bai noski; batez ere, Kostantinopla babestea Itali babestea zalako, Kostantinopla turkitarren eskuetara jausten ba'zan jaki gozoa gelditzen bait zan aientzat itali'ko itxasertza luzea.

Laguntasuna ematearen aldeko zan, iñor baiño geiago, Aitasantua bera eta orrela bidaldu zuan Kostantinopla'ra, ordezkari, eta gudara talde txiki baten buruzagi, Kieb'eko Isidor kardenal-gizazale jakintsua. Ordezkaria Kostantinopla'ra iritxi bezain laister, 1452'an, egin

zan ofizialki Santa Sofia jauretxean Sarkaldeko eta Sorkaldeko Elizen alkartasuna, baiña Sorkaldeko eliztarren naimenaren aurka. "Sultana-
ren turbantea maiteago zutela, —esaten zuten an askok—, Aitasan-
tuaren tiara baiño".

Imperatoreak ere, kontzientiaren aginduz ez baiña gudarako la-
guntzaren bearrez izenpetu zuan Santa Sofia'ko alkartzea. Lekaideak
berriz, oiuka zebiltzan karriketari, alkartasunaren aurka, eta aien ar-
tean, beste guztiak baiño sutuago, Gennadio izeneko lekaide ausarti
bat.

"Psike" edo gogamen naasi ulerkaitzeko gizakumea, Gennadio
urduri ura. Gorka Scholarios zuan izen. Florentzi'ko Kontzilioakoan
bera izan zan, Alkartasuna egitearen alde, geiena saiatu ziranetako
bat. Gizon azkarra eta jakintsua bait zan, oso egoki mintzatu zitzaigun
Kontziliobarruan. Baiña bost urte geroago, 1444'ean, Alkartasunaren
aurka zebillen Kostantinopla'n, eta orain, 1452'an, bera izan zan Santa
Sofia'n egindakoaren etsairik zaratatsuenaren'

Gero, Maomet II'ak Uria artu zuanean, Gennadio au egin zuan
Konstantinopla'ko Patriarka eta Sorkaldeko Eliz osoaren buru' Orrela-
ko zerbaiten billa ote zebillen Gennadio? ala, beste sorkaldetar ba-
tzuk bezela kardenal egiña izan ez zalako, asarretu egin ote zan Erro-
ma'rekin?

1453'an eraso zion Maomet II'ak Kostantinopla'ri. Etsaiez bildu-
rik gelditu zan Uria, munduarekin itsasoa beste biderik gabe. 100.000
gudari zituan turkitarren gudarozteak, aien artean diru-truke Maomet
II'aren serbitzura etorritako kristua-sail eder bat. 7.000 besterik ez zi-
ran, Kostantinopla'n, XII Kostantino'ren gudariak; aietatik 5.000 impe-
riotarrek, eta 2.000 atzerritarrek: jenobatarrak, beneziarrak, erromata-
rrak, kretarrak..., eta, baita, II Maomet'en etsai ziran turkitar batzuk
ere.

Uriaren arrizko babeski bikaiñei eskerrak, eta, baita're borrokan
ipiñitako kementasun arrigarriari eskerrak, lortu aal izan zuan guda-
rozte txiki arek turkitarren erasoei aurpegi ematea, baiña azkenean,
eun millako multzoaren pixuak zapalduta, menderatua izan zan. San
Romano zeritzan atea zain-tzen il zan, ezpata eskuan, XII Kostantino,
Erromatar-Inperioko azken Inperatorea; eta ate artatik sartu zan II
Maomet garaille. Izugarrizkoa izan zan turkitarrek, jenizariiek batez
ere, uriko karriketari egindako odol-ixurketa. Agindu ere, agindu bait
zien aurretik Maomet II'ak "iru eguneko paradisia", Kostantinopla
artzen ba'zioten.

1453'ko orrillaren 2453'an jausi zan Kostantinopla. Egun ori artu oi da Erdi-Aroaren azkentzat. Erroma, Sarkaldeko Erromatar-Imperioko Uri Nagusia Odoakro eruldar Erregearen eskuetara jausi zanean, 476'ean, asi zan "Erdi Aroa" esaten zaion edestiaren aldi luzea; eta 1453'an amaitu zan, Kostantinopla, Sorkaldeko Erromatar-Inperioaren Uri Nagusia, turkitarren mendera erori zanean.

Laister ikusi zuan Maomet II'ak zenbateraiñokoa zan lekaideek Erroma'ri zioten gorrotoa, eta politikolari argia zalarik, era gozoan erabilli zituan lekaide aiek; Sarkaldetik Laterri kristauak, Aitasantuak eraginda, erasotzen ba'zioten, laguntzalle garrantzitsuenetan garrantzitsuena izan bait zezakean lekaide-multzo ura. Ikusten zuan ba zenbat aiñekoa zan lekaideek erri xearen baitan zuten itzala.

Esan dugu, Kostantinopla'ko Patriarka izendatu zuala Gennadio lekaide biurri ura; eta iru urte geroago Gennadio au il zanean, Isidor lekaidea. Gerontzean Sultanek jarriko dituzte Kostantinopla'ko patriarkak, eta Sorkaldeko Elizaren jaun-da-jabe izango dira, Patriarka oien bitartez.

Berandu iritxi zan, —Kostantinopla turkitarren eskuetara erori ondorean—, Nikolas V'ak Uri arri laguntzeko gertutu zuan ontzidia: 10 ontzi aundi Elizaren Laterrietakoak, 10 Benezikoak, eta beste ontziren batzuk: Naples'koak eta Jenoba'koak.

Kostantinopla jausita ondorean ere ez zuan Nikolas V'ak kemenik galdu' Gurutze-guda bat altxa nai izan zuan turkitarren aurka, eta kristaudiko Errege eta Laterri-Buru guztiei idatzi zien ortarako laguntza eskatuaz. Portugal'eko V Alfontso'k bakarrik erantzun zion. Besteak ez ziran aursartu. Ezta Inperatorea ere, naiz turkitarrak Ungari'ren gaiñean euki. Orduan itxasoz ain indartsu ziran Jenoba'ko eta Beneziko errepublikek berriz, naiago zuten une artan Sultanarekin salesrosketan asi, aren aurka gudan sartu baiño.

Portugal'ekin ar-eman bereziak izan zituan Nikolas V'ak. Indar aundiko Laterria zan orduantxe Portugal, 1415'ean Jon I Avis'tarrak Zeuta artu zuan ezkerro' V Nikolas Aitasantuaren denboran, Portugal, Ginea'ko itxas-kolkoaren ertzetaraiño iritxirik zegoan, "o Infante Don Enrique o Navegante" edo Endika Printzipe Jaun Itxaslarraren ekin-tzei eskerrak.

Baiña gaztelarrak ere, Kanariak artu ondoren, Ginea'rako ur aietara sartu naiean zebiltzan-da Endika Itxaslariak Nikolas V'aren epaitza eskatu zuan.

Endika berari erantzun zion Aitasantuak, 1455'ko urtarri11.4ren

8'an izenpetutako bulda baten bidez. "Romanus Pontifex" du bulda orrek izen eta Portugal'eko erregei Afrika'ren azkeneko muturreraiño aurki leitezkean ugarte eta lur guztien jabetasuna ematen die. Afrika guztia Portugal'entzat, Kanarietako Ugarteak izan ezik.

Bizirik zegoala oraindik munduan erdiaroko Teokrazia edo Jainkoaren Ordezkarri lez Aitasantua mundu guztiko Errege zalaren ustea!

Bitori'ko Frantzisko izango da "Papa no est rex mundi" "Aitasantua ez da munduko Errege" ots egingo duana.

Iru urte leenago "Dum Diversas" deritzan buldan, 1452'ko Ekainiaren 18'an, maometarren eta sasijainko-gurtzaillen lurak indarrez artzeko eskatzen dio Nikolas V'ak berak, V Alfontso Portugal'eko Erregeari; garai artan mundu guztiaren ustea bait zan Kristoren fedea zabaltzeko jentillei guda egitea gauza zuzena zala' Bitori'ko Frantzisko izango da ori zillegi dala esango duana ere'

Kristaudiko errege guztiakin ederki konpondu zan V Nikolas; III Federik Inperatorearekin batez ere. Ain zuzen berak koronatu zuan, Erroma'n, Inperatore eta berak bedeinkatu ere bedeinkatu zuan III Federik aren eta Leonor Portugal'eko printzesaren ezkontza. 1452'ko koroiaketa ura izan zan Errom'an egindakoetan azkenekoa.

Kostantinopla'ren ondamenak eta urte berean gertatutako Porcaro'ren matxinadak, zearo aldatu zuten Aitasantuaren izakera. Beñere ez zan itxura ederreko gizona izan: ttikia, azalez zurista, mearra, eta koxkorra; begi txikiak zituan; beltzak, borobillak; Gorputzez ez zan gizon dotorea. Baiña umorez, zearo atsegiña zan, alaia, baretsua, xaloa. Osasun sendoko gizakume bizkorra! berrogei ta bederatzi urterekin Aulki Donera igo zanean. Agure zar akitu bat zirudian zortzi urte geroago, eriotzako ordua iritxi zitzaionean. Ala agortu bait zuten aitasantuzako lanak, nekeak, eta kezak.

1455'eko epaillean il zitzaigun, 24'etik 25'erako gauean, kardenalei luzaro itzezin ondorearen, Kristo gurutzatuari begira'

Egokia deritzaigu "Encyclopaedia Britanica'k egiten dion gorazarrea: "Nicholas was perhaps the best of the Renaissance Popes": "Nikolas zan, agian, Birjaiotzako Aitasantuetan onena".

Nikolas V'a bezala, maiz ikusiko ditugu Birjaiotzako Aitasantuak politikazko arazoetan sartuta. Txit naasia eta ulerkaitza dugu XV mendean Itali`ko politika-giroa.

Guk uste baiño indar geiago zuten Birjaiotza-aroan Itali'ko Esta-

du edo Laterri aiek, eta Elizaren Laterriak ez ziran, ziurki, auelenak eta motelenak' Ipiñi dezagun Itali'ko Laterri txiki aien eredutzat Florentzi'ko Errepublika. Lorentzo Medizi "Bikairia"ren denboran, Florentzi'ko urteroko errentak II Elisabete'ren Ingländerrikoak baiño aundiagoak ziran.

Aberastasun-giro ortan, laister ikusiko dugun lez, Aitasantu asko Jaupari edo "Sazerdote" baiño geiago izan zitzaigun Errege. Mota ortakoak izan ditugu IV Sixto, VIII inozentzio, VI Alexander, II Julio, eta X Leon. Beren almena eta agintea aunditzeko, —ederra bait da agintzea!—, maiz ikusiko dituzu Aitasantu oiek mokoz orpo Itali'ko eta Europa'ko politika-arazoetan sartuta.

Guduketa oietan bein baiño geiagotan joan ziran aitasantuak berak borrokara, beren gudarien burugazi lez. Ta ori baiño okerragoa dana, gogoizkilluak, ots, exkomikak, arifñegi eta egiazko arrazoirik gabe erabilli oi zituzten errege etsaien aurka; eta baita, "interdikto" edo elizkizunak egiteko debekua ere, Erri eta Laterri osoen aurka.

Beste askotan, Eliz-Laterrien barruan sortzen zitzaizkien etsalak: Aitasantuen jaurlaritzarik nai ez zuten gizonak, Erroma Errepublikak egitearen zaleak. Orduan, etsai oien aurka borrokan ari bearrean aurkitzen ziran Aitasantuak; etsai oiek espetxera jaurti bearrean; eta baita eriotzari bidali bearrean ere.

Ez zaigu gauza gozoa Aitasantu bat politikazko arazoengaitik iñor eriotzaz zigortu bearrean ikustea. Orduango oiturak eta gaurkoak ez ordea berdiñak izaki! Ez dezagun aztu gaiñera, orrelako gertakizunetan, Erroma'ko Errege lez jarduten zutela Aitasantuek; ez Elizaren Buru lez.

Zikinkerri asko ikusiko dugu Birjaiotza-aroko Elizaren aurpegian: elizjendeak, apaizak, gotzaiak, kardenalak... emakumeekin bizitzen eta lizunkerizko semeak sortzen; Aitasantuak Elizako karguak dirutruke saltzen; beren sendiak aberastasunez betetzen; illobei, naiz oraindik umeak izan, Elizak dituan kargurik garrantzitsuenak ematen; eta illoba oietako bakoitza lau bost sei elizbarrutietako gotzai egiten, elizbarruti oietako errentak jasoaz oparo aberastu zitezen...

Debozio aundirik gabe bizi ziran lekaimeak ere; prailleak bezela, lekaimeak umetxo ziralarik konbentuetara batere bakaziorik gabe sartuak izaten bait ziran. Kristau landerren bizimodua ere berdin-berdiña zala, esan bearrik ez dugu.

Baiña ez zan dana ustela Birjaiotzako Elizaren baitan. Ez da oraindik aro artako eliz-jendeen bizierari-buruzko ikerketa sakon bat

egin, baiña enkueta ori egingo balitz, arriturik ikusiko genduke orduan ere zintzo bizi ziranak asko zirala. Eta arrigarriagoa gertatuko tzaigukeana, santuki bizi ziranak ere guk uste baiño askoz eta askoz geiago zirala.

Zabarkeria ordea, errez ikusten dan gauza da-ta, zabarkaria datorkigu soilki gogora Birjaiotza aipatzen dugunean; zabarkeriaz mintzatzen zaizkigu edestiliburuak ere Birjaiotzaz ari zaizkigunean, mintzo-gai eta irakur-gai lez ere kilikagarriagoa bait da zabarkeria zuzentasuna baiño. Altagutziz ez dugu ukatuko gaur baiño nabarmenagoa izan zala orduan eliz-jendearen zabarkeri ori' Baiña, baita're, aitortu -bearrean gera santutasun-naia iñoiz baiño aundiagoa izan zala orduan Elizaren gorputz osoan.

Eliza santututzea betiko lana izango dute elizkideek, elizkide oiek, gizakume diralako, naitanaiez kutsatu bear bait diote Elizari beren giza-griñeri kiratsa. Eliza santututze ori ordea, soilki Elizaren aurpegia, itxura, axala, "kera" santututzea besterik ez da izango, Elizaren mamia, --zertasuna ta nortasuna--, ustelkaitza bait da eta aldaeziña, Jesukristok berak sortua ta eraikia eta Gogo Deunak gordea dalako.

V Nikolas Aitasantutzara igotzerako bizkor ziraun Europaren iparraldean Gerard Groote olandarrak XIV mendean asmatutako "Devotio Moderna" edo "Eraspen Berria". Izugarriko garrantzia izan zuan "Eraspen Berri" onek, Olanda'n bereiziki, baiña baita Frantzi'n, eta Alemani'n ere. Gero, kristautasun osoaren barnera sartu zan "Eraspen Berri" orren izpiritua, eta gure egunok arte iritxi zaigu.

Ikus zertan dagoan "Eraspen Berriaren izpiritu ori:

—"Barruko bizitza": zentzuak eta anima osoa gure baitara bilduta, an, barruan, Jainkoarekin mintzo ixillean jardutea;

—Otoiz-aldietatik at ere, lanean ari geranean, animaren begiak barruan daramagun Jainkoari begira gordetzea, eta gure gogoia Jainko orrekin izketa xamurrean eukitzea;

—Gogooitoitza edo meditazioa: Garrantzi aundia ematen zion "Eraspen Berriak otoiz-kera oni, eta esan ere, esan dezakegu, "Eraspen Berri"ko maixu onuragarri aiek erakutsi zigutela kristauoi gogooitza egiten.

Asko eta bikaiñak izan ziran "Eraspen Berriak sortu zizkigun gogoirakasleak' Danetan ezagunena, Tomas Kempis, "Kristoren Antz-bidea"ren egillea.

Kristauok gorputz bat geralaren zentzurik ez duala "Eraspen Be-

rria" k esan oi da; kristautasuna "Elizaren barruan" bizitzearen oartzetik ez duala; "Eraspen Berriaren izpirituan bizi dan kristauak bakarki begiratzen omen dio Jainkoari, eta bakarki omen darabil Arenganako bidea; eta ortarako bearrezkoa duan grazia, Elizarik ez balitz bezela, zuzenean datorkiola, uste omen du, Jainkoagandik gogora.

Ta orregaitik, "Eraspen Berriak protestantismoari bideak urratu eta erreztu egin omen zizkion. Ori dana esan oi dute beintzat edestilari batzuek'

Ez da ori egia, osoosoan beintzat.

"Eraspen Berria" k, orduan azturik zeuden kritau-bizitzaren xee-tasunak erakutsi zizkigun. Azturik ez zeudenetaz mintzatu bearrik ez zuan.

"Eraspen Berria" k gizon eta emakumezkoen Alkarte bikaiñak sortu zituan, eta gaiñera, Olanda'n eta Alemani'n Agustindar Kanonigoen Anaidia eraberritu edo erreformatu zuan-. Erakunde auetatik ez zan iñor ere protestantismora igaro. Naiago izan zuten protestalarien mempean zigorra jasan Elizari uko egin baiño'

Mesede aundi bat egin zigun katolikoei —edestiaren barrutian—"Eraspen Berria" k: Martin Luter'en kristautasuna Barruko Bizitzan oiñarritzen ba'da, Barruko Bizitza ori Luter'ek ez zuala sortu, berak baiño ia eun urtez lenago Eliza katolikoaren altzoan "Eraspen Berriak" k sortu zuala esan aal izatea.

Laister ikusiko dugu, datozten Aitasantuen agintaritzapean, naiz Eliza beeruntz joan, nola sortzen dan eta zabaltzen, —beeruntz doan Eliza orren altzoan—, goruntz eta goruntz, eta gero ta gorago, bizkor altxatzeko lei bizia.

Naiz Elizaren azala zimurtu, bere muiñik ez bait da sekulan moeltzen.

III KALIXTO (1455-1458)

Aragoi'ko Erreiñuko semea. Jatiba'n jaioa. Borja'tarra, bere izena Alfonso Borja bait zan. Baiña, naiz abizen berekoa bai, izen berez Borja zeritzan sendi ospetsuaren aide ez zan, naiz gero, ezkontzen bidez aidetasun artan sartu, bere arreba Isabel, Borja'tarJofre'rekin ezkondu bait zan. Isabel eta Jofre, Alejandro Vraren guraso izango ziran.

Legiztilaria zan' Legiztilari ospetsua' Benedilto XIII sasiaitasantuak Lerida'ko kanigo egin zuan; eta Aragoi'ko Alfonso V Erregeak bere idazkari' V Martin Aitasantuarekin asarre zebillen Alfontso Aragoi'tarra; eta Aitasantua menderatzearren, Benedikto XIII sasiaitasantua il ondorean onen Aulkia artu naiean zebillen Jil Muñoz aitasantutzat onezagutzekotan ere bazebillen; baiña Alfonso Borja idazkariak eragozi zuan Elizari gaitz aundia eginen zion onezagutze ura.

Alfontso Borja'k berak lortu zuan Jil Muñoz'ek aitasantu izateko asmoei uko egitea, eta berak adiskidetu zituan V Alfontso Erregea eta V Martin Aitasantua. Eskerrez, Balentzi'ko goigotzaitza eman zion Aitasantuak.

Basilea'ko Kontzilioaren alde egon zan, Aragoi'ko Erregea; baiña ez, ordea, Alfontso Borja, ta egin aal izan zuan Erregearen eta IV Eugenio Aitasantu berriaren arteko pakea' Oraingoan, kardenaltza izan zuan sari.

Nikolas V'a il zanean gogor berpiztu zitzaigun ostera konkla-bean, Orsinitarren eta Colonnatarren arteko borroka. Oraingoan ere ez zuan iñok uste Alfontso Borja Aitasantu irtengo zanik' Capranica nai zuten auek, (Colonnatarrek); Bessarion aiek, (orsinitarrek)' Eta au, Bessarion, irtengo zan Aitasantu, Abiñon'go Alain kardenalak Bessarion sorkaldetarraren bizar luzeari-buruz izkirimiri parregarri bat jaurti ez balu.

Beste irten-biderik ikusten ez zutelako aukeratu zuten kardenalek

Aitasantu Borja'tar Alfontso, 77 urte betetzera zijoan agurea'

Oso gaizki artua izan zan aukera'

Asarretu ziran birjaiotzalariak, Aitasantu berria, Birjaiotzako gizona ez baiña erdiarokoa bait zan bete-bete; legiztilari utsa; ertia-rengaitik ajolik ez zitzaiona; erti eta elerti arazoetan txanpon aundirik gastatuko ez zuan Erroma'ko Errege eta Elizaren Aitasantua.

Italiarrak asarretu ziran batez ere, Kalixto III au italiarra ez zalako. Aragoitarra zan, italiarrek esaten zuten lez, "katalana". Ta Aragoi'ko V Alfontso Napoles'ko Errege ere bai bait zan, bildur ziran, —Aitasantua Alfontso V'aren idazkari izandako aragoitar bat izanik—, Aragoi'ek Itali'n indar aundiegia ez ote zuan artuko. Arriskuan ikusten zuten V Nikolas'ek lortutako "Alkarte Italiar" ura. Ez da arritzekoa, Aragoi'ko Alfontso Erregea, Napoles'ko, Sizili'ko eta Zerdeña'ko Errege zala, eta Milan'go Dukaterria ere ango Dukearen eriotz-ostean beregiteko asmotan zebillela gogoratzen ba'dugu.

Legiztilari zorrotzegia zan ordea Kalixto III'a iñoren aurrean bu-rua arrazoirik gabe makurtzeko eta laister eman zion ain adiskide izan zuan Alfontso V'ari aurpegi. Ikusi dezagun nola.

Milan'go Dukaterria Frantzisko Sforza'k artu zuan azkenean. Aren laguntza irabaztearren ezta bikoitzak gertatu zituan Alfontso Aragoi'koak: bere billoba bat Frantzisko Sforza'ren alaba batekin ezkondu zuan, eta Frantzisko Sforza'ren seme bat bere billoba batekin' Ez zitzaizkion ezkontza oiek Aitasantuari atsegiñ izan, arriskuan ikusten bait zituan "Lodi'ko Pakea" eta "Alkarte Italiarra".

Bazuan V Alfontso Erregeak beste billoba bat ere: amaika urteko mutikoa! Zaragotza'ko Goigotzai egin nai izan zuan, baiña ezetz erantzun zion Kalixto III'ak. Orduan, Erregeak, Elizako Laterrietakoak ziran "Ankona'ko Marka" eta beste lurralde batzuek eskatu zizkion; eta ezezkoa eman zion berriz ere Aitasantuak'

Baziran orduan Itali'n "condottieri" esaten zitzaaien guda-gizon batzuk. Borroka zan aien langintza. Borrokarako gudarozte bat osotzen txautzen zituzten beren diruak, eta borrokak ematen zizkien aberastasunetatik bizi oi ziran' Buruzagi auetako bat zan Jacobo Piccinino. Ta buruzagi onon bidez zirikatatu nai izan zuan V Alfontso Erregeak III Kalixto Aitasantua.

Elizaren Laterrietakoak ziran Romaña probintzia eta Boloni uria' E3;41ei ekin zien Piccinino'k. Uxatu zuten Aitasantuaren gudariek baiña orduan Siena'ko Errepublika txikiari ekin zion. Siena'k Kalixto'ri eskatu zion laguntza, eta onek bere gudaroztea bidali zuan Baiña oparo

lagundu bait zioten Piccinino'ri Alfontso V'ak eta onen adiskide eta ezkontz-aide Sforza Milan'go Dukeak, luzea izan zan gudua, eta diru asko urtu bear izan zuan an Kalisto'k eta geiegi atzeratu bere bizi guztiko ametsa izan zuan turkitarren aurkako gurutze-gudaren asiera. Xeetasun auek danak, Birjaiotzako Aitasantuek, —lurralde aski zabal baten erregeak ziralako—, nolako istilluetan sartuak ibilli bear izaten zuten ikusi dezazun, idatzi dizkizut, eta orrela egingo dut datozten aitasantuekin ere.

Zillegi bezaigu Birjaiotzako oitura enasak oroitzeko garrantzi arkudia duan zertxo bat len-bait-len azaltzea.

Oraintxe esan-berri dugu, V Alfontso Aragoi'ko Erregeak Zaragoza'ko Goigotzai egin nai izan zuan mutiko arek, AMAIKA urte besterik ez zituala. Kristaudi osoan, Birjaiotzakoan, batere kezkarik gabe, lurralde guztietan egin oi zan gauza zan Elizako karguak umeei emate ori. Ori bera gertatzen zan ezkontzako sakramentuarekin ere: umetxoak zirala, ezkontzen zituzten gurasoek beren seme-alabak. Ona, adibidez, millaka eta millaka eta millaka trakeskeri berdintsuen artean, ale batzuek:

—17 urte zituan Rafael Sansoni Riario IV Sixto'k Kardenal egin zuanean.

—6 urte bakarrik Alonso'k, Fernando katolikoaren semeak, Zaragoza'ko Goigotzai Sixto IV'ak izendatu zunean'

—7 zituan Zesar Borxa'k Sixto IV berak "Protonotario" edo "lenenfedemaille" egin zuanean; 16 urtekin Zesar iruñako gotzai zan; 17'rekin Balentzi'ko Goigotzai; eta 18'rekin KardenaI!!!. Azkeneko titulo auek bere aitak eman zizkion: IV Alexander'ek.

—7 urte zituala egin zuan Sixto IV'ak Jon Medizi Protonotario eta 13'rekin Inotzentzio VIII'ak Kardenal.

Auxe bera gertatzen zan lekaidetxeetan ere. Gero ain aipatua izan zan Anxelize Arnauld lekaimeak, amaika urte zituan Port Royal'ko Abateme edo abadesa egin zutenean. Frantz'in bertan Lorena'ko Kardenal Karlos Gisa'k amalau urte zituan gotzai egin zutenean. Sei gotzaitza, eta abatetza ugarien jabe izan zan!

Orrela aukeratutako gotzai eta kardenalek eliz-gizon usairik ez izatea ez da noski arritzeko gauza'

Eta arritzekoa al da ain umetan ezkontzen zituzten senar-emazte aiek, gero, aunditutakoan, alkarrenganako maitasunik ez sentitzea?

Zenbat ezkontzauste, zenbat lizunkereri, zenbat gorroto eta zenbat eriotz eta litxerkeri ez zan oitura txar ortatik sortu?

¿Ez ote dugu Eliz Ama Santua iñoiz pekatuak gabe ikusiko? Ez noski zuk itz orri eman nai diozun zentzuan. Eliza gizakumeez osatua bait da!

Ta, agian, Eliza pekatari izan bear orrek, Jainkoaren gogamen sakonean, zerbait guri adierazi nai izatea, ere ba'leike'

Danok dakigu Kepa, aurreneko Aita Santua, biraolari ustela izan zala Kristo'ren azken gau artan. Ala ere Kristo'k Aita Santu egin zuan pekatari fede-ukatzaille ura; ta esan oi da, bere karguan arrotu ta lilluratu gabe pekatuak ulertu ta pekatariak biotz goxoz artzeko gai izan zedin egin zuala Aitasantu.

Arantz samihia du biotz muiñean Elizak sekulan pekatuz ezin garbi izate ori. Ez ote du Kristok au dala bide, bere Eleizarentzako zerbait billatzen?; agian.'. aundikerigabe mundu pekatariaren kide senti dedin uzten ote du pekatari? Edo mundu zikiñari —bere buruan zikintasun ber-bera dakusalarik—, adimen zabalez begiratu dazaion..., eta bera askotan pekatariago izanik pekatari guztiak anai obenkide bezela alaitsu besarkatu ditzan, pekatuan azturik bezela lagatzen ote du?

Badu berez Elizak arrotasunera jausteko arrisku berezia' Jainko Aitaren Jaurerri, Semearen gorputz, Gogo Deunaren Jauretze, ondo daki Elizak bera bakarrik dala santutasunaren iturri, gaizkakunde edo salbazioaren ontzi, egiaren kutxa' Badu, bai, arrisku, beragandik kanpo dagoan guztia, —erlijio, oitura jakintza, erakunde, eta gizakume—, oker, gaizto, ta pekatuzko bezela, gaitzesteko arriskua. Ta, naiz bera ere pekatari izanik, maiz erori ba'da Eliza arrokerizko epaiketa oiek egitera ¿zer gerta lezaioke bere burua arantz eta oro garbi ikusiko balu?

Oroi ditzegun, oroimen apaltsuarekin, Birjaiotzako Elizaren pekatuak. Orduan ere, beti bezela, pekatuak zaratatsuenak aragizko pekatuak izan ziran' Ez dira noski kaltegarrienak baiñan pekatu oiek atarrazi dute otsik geiena. Elizaren gorpuzki mota guztietan zegoan zabalduerik lizunkeria; kristau xeetan, lekaideetaNpaizetan, gotzaietan, baita lekaimetan ere, jainkoaren Neskatil gardenak ere, bateren batzuk, zikindu bait ziran lizunkeriz. Aitasantuak egon ziran iare pekatu ontatik, aitasantutzako denboran beintzat, naiz aurretik kardenaI zala, aitasantu aietako bat baiño geiago semeak sortzera iristeraiño emakume ederrekin nâsirik ibilli izan. Badira Alexander VI'a Aitasantu zala ere aragizko obenera jausi zala diotenak. Baleiken gauza da, baiña bein Aitasantutzara igo zan ezkeror aragikeriz garbi bizi izan zala dirudi.

Aitasantutza artzerakoan bertan egin zuan III Kalixto'k, Kostanti-

nopla askatzearren, al zuan guztia saiatzeko ziñ edo juramentua. Eta berealaxe asi zan lanean, bere erritar Bizente Ferrer'koa Santu egin ondoren.

Arrisku izaugarrian ikusten zituan Grezi eta Ungari, eta baita Itali'ko sortaldearen ere. Orregaitik, legorrez kristau-gudarozte sendo bat, eta itxasoz ontzidi bikain bat eratzea izan zan bere aurreneko asmoa'

Bere bizi guztian ez zuan atsedenek artu' Arrigarria izan zan osasun makaleko agure arek gurutze-guda bat piztutzeko jarri zuan leia. Eten gabeko itzaldiak egiten, erregei idazten, bazter guztietara ordezkariak bidaltzen, bere Laterrietako kaietan guda-ontzi berriak egiten, izkilluak sortzeko urrezko eta zillarrezko pitxi eta irudiak urtutzen... ez zuan atsedenek artu.

Erregeek ez zioten erantzun' Jendeek bai; jendeek sentitzen zuten oraindik biotzetan kristaudiaren batasuna. Ez ordea erregeek. Errege bakoitzak bere Laterriaren onturreari begiratzen zion; eta Laterriaren onari baiño geiago bere pertsonaren aunditasunari.

Eskandinabi'tik Portugal'eraño, eta Eskozi'tik **baztar** guztietara bidali zituan Aitasantuak praille izlariak, urietan eta errietan gurutze-guda aldarrikatu zezaten, eta guda ura gertutzeko dirua jaso zezaten.

Orduan maiz gerta oi zan bezela, diru bilketa artan egin zituzten zikinkeriren batzuk Aitasantuaren ordezkari batzuen-batzuek. Kalixto ill'ak gogor zigortu zituan okerkeri aien egilleak. Oroi dezagun au, gero orrelako arazo baten erruz jeikiko bait da Elizaren aurka Martin Luter. Leon X'ak ez zuan Luter'en denboran, III Kalixto'k erakutsi zigun zorrotzasunik erabili, naiz ura ere legiztilaria izan.

Oroi ditzegun aitasantutza artzerakoan Kalixto'k erabili zituan itzak: "Zin dagit." osoosoan saiatuko naizela, bear ba'da nere edola ixurtzeraño, Kostantinopla bir-irabazten, kristau baituak askatzen, sinispide zuzena babesten, eta Maomet'en siniskeri deabrukoia ezerezten" Bibar'ko RuP"Zid'en oldozkera berdiñeko gizona zan, noski, Kepa Deunaren Aulkian jarririk zegoan aragoitar sutsu ura.

1455'eko Orrillaren 15'ean eman zuan argitara gurutze-gudarako bulda. Sajuanistek babesten zuten Rodas arriskuan zegoala entzun zuan bezain laister bidali zituan aruntz 16 guda-ontzi aundi. Ekaitzak eragozi zien Rodas'erako bidea'

Asarretu zan Kalixto ontzidi artako buruzagiekin, eta etsi gabe jarraitu zuan guda-ontzi berriak egiten Tiber ibaiaren ertzetan.

Ludobiko Scarampo kardenal borrokalaria izendatu zuan Aitasantuaren itxas-ontzien buru' Aitasantuaren ontzi aiekin, eta Napoles eta Aragoi'ko V Alfontso'k eskeiñitako beste batzuekin, irten zan itxasora Scarampo; eta lortu ere lortu zituan garaitza batzuk turkitarren aurka borrokan.

1456`ko San Pedro egunean, Kristaudiko gotzai gutzietan idatzi zien Kalixto III'ak otoitza eta penitentzia eskatuaz, sortu nai zuan gurutzegudaren alde. Illero, meza-liburuan dagoan "Contra Paganos" meza esan eta errogatibak egiteko agintzen zuan, eta egunero, illunaberreko "anjelus" esaterakoan egin oi zan lez, eguerditan ere, ezkillak jota, iru aitagure esateko.

Ain zuzen, egun aietantxe ekin zion II Maomet Sultanak Belgrado'ko uriari. 100.000 gudari zeramazkian eta 300 **Gudari aien ar**tean asko kristauak oraingoan ere, batez ere kañoilariak; eta baita suizkillugilleak ere.

Belgrado, turkitarrentzat, Ungari'ko bidean azkeneko eragozpena zan' Ungari'ko lurralde aien inguruetan zebiltzan ain zuzen bi gizon ospetsu: Jon Karbajai'darra Kardenala Aitasantuak Austri'n gurutzeguda gertutzeko aruntz bidalia eta Jon Capistrano Donea, gurutzeguda predikatzerat bidalia. Transilbani'n zebillen au, baiña laister etorri zan Ungari'ra, Karbajal Kardenal Ordezkarriak deituta'

Boemi eta Ungari'ko Errege berria Ladislao zan, 16 urteko mutikoa; eta Jon Hunyady guda-gizon iaioa, Erreñu bikoitz artako gudarozteen buruzagia'

Eskubide osoak eman zizkion Ladislao gazteak Carbajal kardenalari.

Zuzen ikusten zuan Kardenal onek Europa osoaren arriskua-ta, saiatu zan Federik III Inperatorearekin, Frantzi'ko VII Karlos'ekin, Itali'ko Laterrietako Agintariekin, beta norekin ez?, Belgrado'ri laguntzeko gudarozte bat osatzen, tinko ematen bait zioten oraindik aurpegi turkitarrei belgradotarrek.

Jon Hunyady eta Jon Capistrano Belgrado'runtz abiatu ziranean Biena'ra joan zan ostera Carbajal, gudari geiagoren billa. Izan ere txit urria eta itxuraz aula bait zan Hunyady'ren gudaroztea: 10.000 gizon; Gaiñera gizon oietatik asko guduketako oiturik gabeko nekazariak ziran; eta unibersitateetako ikasleak; lekaideak; eta basa-zuloetako bakar-biztanleak..

Donibane Capistrano'k ats emanda, ausartu zan Jon Hunyady bere amar milla gudari aiekin eun milla turkitarrei era sotzera. Baiña

oso era zugurrean jokatu zuan.

Danubio ibai zabalaren ertzean dago Belgrado. Sabe ibaiak bere urak Danubio'ra ixurtzen dituan tokian. Ibai andia, luzea eta zabala duzu Sabe ere'

200 ontzi zeuzkan Sultana'k, uretan, belgradotarrei ibaietaz baliatzea eragozteko'

Hunyady'k, berak ere aurretik gertu zituan ontziak, ixillean jaurti zituan turkitarren ontzidiaren aurka; Berandu oartu ziran turkitarrak, eta desegiñak izan ziran beren 200 ontzi aiek. Seba'ren eta Danubio'ren artean jarri zuan orduan Hunyady'k bere gudaroztea, ederki babestua'

Zazpi egun geroago eraso zuan II Maomet Sultanak, baiña Uriaren barrengo eta kanpoko jende gudaria iaioki erabili bait zuan Hunyady'k, eta miresgarria izan bait zan gudari kristau aien ausardia, zearo zapaldua gelditu zan Sultanaren indarra'

"Jesus" oiuka dantzatzen omen zituzten kristauak ezpatak, aien artean Jon Capistrano Santua gelditu gabe "Jesus " oiuka ibilli zalako.

Bigaramonean sartu ziran kristauak turkitarren kanpamentu edo kapartegian eta ikaragarria izan zan an egin zuten ilketa.

Mingarri zaigu gaur, "Jesus" izena ezpata-zaratarekin eta jende il ketarekin naasian entzutea. Kristauok ordea geren denborako umeak izaki-ta..., urduango oiturak orrelakoak izan!

1456'ko Uztaillaren 21'a zan. Garaitza andia izan zan ura kristaudiarentzat! "The turn of the taide" deitzen dio "Encyclopaedia Britannica" k: "Ur-igidaren aldakuntza". Ederki esana. Badator goruntz itxaso. Baiña gelditzen da une batean, eta asten da beeruntz' **itxa**-soari guruntzkoa beeruntzko biurtzen zaion une ori izan zan Belgrado'ko borroka, turkitarren edestirako. Emango dituzte oraindik nekeak, baiña aien indarra ez da sekulan ondurarte bezelakoa izango.

Oartu zan Kalixto garaitza bikain aren garrantziaz, ta aren omezez Josu'ren Antzaldatze edo Transfigurazioaren jaija surtu zuan, urtero Eliza osoan Dagonillaren 6'ean ospatzekoa. Laterri-Buru guztiei idatzi zien, turkitarren aurka gudara deituaz, Kostantinopla'ko bidea, eta agian baita Jerusalem'erakoa ere idikirik zeudela adieraziaz. Ez zioten erantzun'

—Jenoba'ko eta Benezi'ko Errepublikek naiago zuten salerosketa guda baiño,

Portugal, lenxeago ain Aitasantuen adiskide agertu zaigun Portugal, orain Afrika irabazteko eginkizunetan sarturik zebillen, eta ez zeukan gudarako astirik,

Dinamarka eta Noruega'ko Kristian lak bere sakelera sartu zituan an gurutze-gudarako jaso ziran txanponak, eta ori bera egin zuan Borgoria'ko Dukeak ere'

Frantzi'n, Paris'ko eta Rouen'go Unibersitateek, Kontzilio Orokor baten babesa eskatu zuten, gurutze-gudarako dirua biltzearren Aitasantuak bidalitako bulden aurka. Bizirik egon, oraindik, kontziliarismoal, eta Erroma'ra dirua bidaltzeko gogo gutxi izaki Paris'en!

—Alemani'n, erriak ondo artu zuan gurutze-gudaren albistea, ez ordea Jaunek eta Gotzaiek. Maguntzi'ko Martin Mayer goigotzaia izan zan, III Kalixto'ren asmoen aurka, gotzai aien buruzagia.

Gotzai auek ziotenez, gurutze-gudaren kontua aitzaki utsa besterik ez omen zan: Aitasantuak, bere sendia aberasteko nai omen zuan dirua'

Alemani'ko Jaunek berriz, III Federik Inperatorearen ezezkoaren gaindik Nuremberg'eko "Dieta"n bildurik, antziñako "Gravamina Germaniae" edo "Alemani'ren Zamak" ziralako aiek aizatu zituzten berriro, Ots: Aitasantuek Alernani'ri ipintzen zizkioten zama edo kargaen zerrenda. "Babesik gabeko bildotsa bezela mulkiltzen omen zuten Aitasantuek Alemani, ainbeste zerga, amarren, "amnata", "resevatio", eta edozein motako diru jasotzez. Morroitzaraturik omen zeukaten Alemani, gotzaiak eta abatak bertan iareki aukeratuak izatea debekatzen zutelako.

Alemani'ko eliz-karguak Erroma'ko kurian diru geiago eskeintzen zutenei edo azpilan geiago egiten zutenei ematen omen zitzaizkien. Ori zioten beintzat Nuremberg'en Jaun eta Gotzaiek; eta, tamalez, ez zan gezurra, esaten zuten guztia. Izugarritzko garrantzia izango dute "gravamina" aiek geroxeago Martin Luter'en iraultzarakoan.

Ez zan Kalixto III'a kizkurtu. Kardenal egin berria zan Eneas Silvio Piccolomini'ren bitartez erantzun zien Alemani'ko Gotzaiak eta Jaunei; ta berak Georki'ko kristauei idatzi zien, eta baita Etiopi'ko Inperatoreari, eta Persi'ko Erregeari ere, au, naiz maometar izan, turkitarrekin agarre zebilela bai bait zekian'

Kalixto III'ak ez zuan gurutze-gudarik sortu aal izan, baiña ikusi zituan alatagutziz gurenda eder batzuk'

1457'an Scarampo Kardenalak, Aitasantuaren eta Napoles ta

Aragoi'ko Alfontso V'aren ontziekin Meteleni'ko borrokan, jipoi gogorra eman zien turkitarrei; 25 ontzi artu zizkien; gaiñerakoak urpera joanak izan ziran.

Bi urte leenago, gurutze-guduen doaiak eman zizkion Gaztela'ko IV Endika'ri, bertako mauritarren aurka ekin zezan, eta urte bete geroago, 1456'ean, beste bulda batean, ildakoen alde eskeiñi zitekean induljentzia irabazteko eskubidea ematen zion. Aurreneko aldiz Elizaren edestian. Ez bait zan artean, ildakoen aldeko induljentzirik eman

Gorka Castriota "Iscandembeg"zuten turkitarrek etsairik menderakaitzena. Ezin izan zuten Albani'ko mendietan Buruzagi bikain aumenderatu. Umetan turkitarrei baituran emana. Maomet'en siniskeran izan zan ezia. Gizon gazte gudari trebe eta txit iaioa agertu zuan bere burua Sultanaren esanera; eta buruzagirik azkarrenetakotzat eukia izan zan turkitarren gudaroztean. Aita il zitziola jakin zuan, aren printziperria eskatu zion Sultanari. Ez zuan erantzunik artzen-da, Albani'ra iges egin zuan, eta Sultanaren aurka gudan asi. Laister izan zuan berekin, borrokarako prest, Albani'ko jende guztia.

Ain zuzen, Kalixto III'aren denboran, 1457'an, izugarritzko ondarena jasanarazi zion Sultanaren gudarozteari Tomorniza'ko borrokaidian. "Errege eta agintari guztien artean, kristautasunaren aldetik esker eta aipu geiena merezi dituan buruzagia", esan zion, eten gabe gudarako oparo lagundu zion Aitasantuak. Mereziko ote zuan Gorka Castriota'k orrelako aipurik Sultanak aitaren Jaunderrria eman balio? Orrelako sustrai argalak izaten bait dituzte askotan edestiko gertakizunik aundienak. "Athleta Crhisti" izan bearrean (Aitasantu berak zion lez), ez ote zitzaigun "Athleta Mahomae" irtengo?

Albani'ren alboan dago Bosni, gaur Yugoslabi'ko zatia, orduan turkitarren menpera jausia. Carbajal Kardenala bidali zuan ara III Kalixto'k, Esteban Tomas ango Erregea turkitarren aurka jeikiarazteko. Ez zuan orrelakorik lortu Kardenalak, baiña bai, oraindik bataiatzke zegoan Errege barbaritar ura bataiatu.

Belgrado'ko garaitzaren ondorean berealaxe il zan Jon Hunyady, (amar egungeroago), izurritz. iru illebeta geroago berriz, Donibane Capistrano il zitzaigun'

Andik urte batera Ladislao Errege gaztea izan zan illobira jetxi zana. Jon Hunyady'ren semeak artu zuan Ungari'ko buruntza: Hunyady'tar Matias Corbino'k, eta au izan zan agian orduango erregerik bizkorrena. Boemi'ko buruntza Gorka Podebrady utrakistaren burura joan zan.

Berealaxe asi zan Jon Carvajal Kardenala Boemi'ko Errege berria Elizaren altzora ekarri naiean. Baiezkoa jarri zan Erregea, eta koroia-ketarakoan, uko ere egin zien "hustarren" aburuei, —Hustarren ondorio bait ziran utrakistak—. Eta Aitasantuaren esanera egongo zala ere ziñ egin zuan. Baiña gero, buruaste aundiak eman zizkien ondorengo aitasantuei.

1458'an berriz, Aragoi eta Napoles'ko V Alfontso joan zan beste mundura, kristau zintzo lez, bere semeari beti Aitasantuen esanera egoteko aginduaz. Errege bikaiña izan zan, aundikia, oparoa, eskuza-bala, adimen argikoa, garai artako erregerik'dizdiratsuená "Magnificus", "Gutziz Aundia" esan zioten gizazale jakintsuek. Izan ere, jakintsu eta ertilariei laguntzeko leiaketan ez zuan bere adiskide V Nikolas Aitasantua beste kidekorik izan.

Aragoi'ko Erreiñua Jon il bere anaiari utzi zion, Ferrante semeari Napoles'koa, —Sizili'rik gabe, ugarte au ere li Jon'eri utzi bait zion— Jon II'a!, Euskalerrriari kalterik aski egin zion gizona. Naparroa'ko Errege ere izan bait zan bertako Zuriñe Erregiñarekin ezkondu zanez gero.

"Ferrante", —Napoles'ko Fernando I'a—, sasikumea zan. Baiña alatagutziz, jaiota bereala erregegaitzat onezagutu zuan IV Eujenio Aitasantuak. Garrantzi aundiko gauza zuan, Ferrante'k onezagutze ori, Napoles'ko Erreiñua Aitasantuen "feuderrí" bait zan 105453'an Roberto Giskardo'k II Nikolas Aitasantua Erreiñu artako Buru Nagusitzat artu zuan ezkeró. Lau mende bazeramazkian beraz Napoles'ko Erreiñuak Aitasantuen mendetzan.

Erregegaitzat euki zuan Ferrante Nikolas V'ak ere. Baiña ez orain Kalixto ill'ak, naiz len, Ferrante mutiko zala, onen irakasle izan.

Frantzitik Anjou'ko Rene'k beretzat eskatu zuan Napoles, V Alfontso il zala jakin zuan bezain laister. Aspalditik bai zeukaten anxutarrek berena lez Napoles'ko Erreiñua.

Anjou'tarrari eta aren alde zegoan Frantzi'ko Erregeari aurpegi emateko, Napoles'ko Errege izendatu zuan berealaxe Ferrante'k bere burua. Ez zitzaion legearen aldetik ere arrazoirik falta —Napoles'ko Jaun feudalariaik— IV Eujenio Aitasantuak aspalditik onartu bait zuan bera erregegaitzat'

Baiña Kalixto III'ak, Aitasantu batek egiña besteak desagiñ dezakeala-ta, napolestarrei Ferrante'ri obeditzea galerazi zien. Ferrante'ri eta Anjou'ko Rene'ri. Berak esango omen zuan, Jaun feudatarri lez, Napoles'ko errege nork izan bear zuan.

Aitasantua, bere illoba maitea, Borja'ko PedroLuis, Napoles'ko

Errege egin naiean zebilela pentsatu zuan mundu guztiak.

Illoba ori bidali zuan beintzat, Elizaren Laterrietako gudaroztearen aitzinean Ferrante'ren aurka borrokara.

Florentzi'k eta Milan'ek, Ferrante ezagutu zuten Napoles'ko erregetzat. Gaizki ibilli bearra zan Aitasantua, une larri artan eriotzak eraman ez balu' 1458'ko Dagonillaren 6'ean il zan.

Arrigarria da, iru urte laburreko aitasantutzan agure arek egin zuan lana. "Nepotista"edo sendikeri-zale izan zala diote edestilari batzuek. Baleike, orduango Aitasantu guztien gaitza izan bait zan ori. Egia da Kardenal egin zituala bi illoba; Rodrigo (VI Alexander izanen zana eta Pedro Luis, berealaxe Elizaren Laterrien gudarozteko buruzagi Nagusi izendatu zuana)' Askok maite zuan mutil au; Benebento eta Terracina'ko Printzipe egin ondorean, agian Napoles'ko Errege ere egin nai izan bait zuan.

Egia da baita're, Elizaren Laterrietako Gaztelu eta Babes guztiak "katalanen", ots, Aragoi'ko Erreiñuan jaiotako jendeen eskuetan jarri zituala; baiña sendikeriari buruz, bein betirako, bi itz esan nai nituzke:

Orduan sendikeria mundu guztian zabaldurik zegoan gauza zala, eta ez zuala iñor arritzen; ia legezkotzat jotzen zala; ta orduango gauzak orduango begiekin ikusi bear dirala; ez gaurkoekin.

Aitasantuek, azpijokuz betetako Itali naasi eta istillulari artan, naitanaiezkoa zutela garrantzi aundiko karguak konfiantza osoko jendei ematea; konfiantzako jende ori billatzea gauza zailla zala orduan, eta orregaitik, era baldarrean askotan, bai noski, baiña beti ere konfiantzako jendea billatu naiean, sendiko jendearengana jotzen zutela. Ez da naiko arrazoa, ez noski, jende zintzo ugari bai bait zan orduan Elizako karguetan Aitasantuari laguntzeko, baiña ez genituan Aitasantu aiek Birjaiotzako umeak izango, jardun ziran bezela jardun ez balira'

Ertirako eta jakintzarako ez zuan III Kalixto'k, lanez ondo betetako iru urte aietan, astirik izan. Lege-gizona geiago zan erti-gizona baiña; ala ere urte aietako elertilaririk aundienaren adiskidea izan genduan, bere idazkari eta kanonigo egin zuan Lorenzo Valla'ren adiskide.

III Kalixto izan zan Eneas Silvio Piccolomini idazle gizazale ernea Kardenal egin zuana ere'

III Kalixto gurutze-guda-ezin eratuz zebillen bitartean, sendotzen eta bizkortzen ari zan Elizaren gorputz osoan Kristautasun garbiago

baten guraria.

Askorentzat, batez ere kristau ikasientzat, Kontzilioa zan Elizaren eraberritze edo "erreforma" egiteko bide bakarra. Sarkaldeko zisma edo zatiketa Kontzilio batek amaitu zuan ezker, "kontzilio" itza agoz-ago ibilli zitzaigun luzaro kristaudian, eta maiz entzungo dugu Kontzilioaren eskea Birjaiotzako Aitasantuen denboretan'

Kontziliozale aientzat, "Kontzilioa" mundu-ontakoa ez dan gauza miresgarri baten antzeko zerbait zan, misteriozko indar zerukoiaz bete, Elizako eta Kristaudiko gaitz ororen sendagaillu utseziña. Ametsezko izakia' Gero "argituentzat" Argikuntza izan zan, eta gaur anarkistentzat Lanuzte Orokorra dan gauza bera'

Ez zan gaiñera kontziliotasun ura osoro gogai garbia, kontzilioke-ria geiago bait zan, askorentzat, kontziliotasuna ots, "kontzilioke-ria": Kontzilioa Aitasantuaren gaindik dagoalaren ustea.

Orregaitik, oso zaletasun urria izan zioten Birjaiotzako Aitasantuek "kontzilio" itzari. Alderantziz, itz gozoa izan zan ori Errege eta Agintari guztientzat, Kontzilioa-bitartez Aitasantua menderatu nai bait zuten!

Kristau askok eta askok ere bildurra zioten kontzilioari. Ez zuten gaiñera uste Eliza eraberritzeko bide bakarra kontzilioa zanik. Itxaropen geiago zeukaten aiek kristauen biotz-aldaketan, kontzilio soillean Orrelakoak ziran XIV mendea ezker Europa'ko eliz guztietan aldakuntza sakon baten eske, oleska zebiltzen izlariak: Ferrer'dar Bizente, Siena'ko Bernardin, Kapistrano'ko Jon'..eta aneika olako, Birjaiotzaren luzaro guztian'

Ezin iruditu dezakegu igarle sutsu aiek errietan sortzen zuten biotzetako zurrunbillo osasungarria.

Kementsu ari zan lekaidetxeetan ere eraberritzearen guraria indartzen.

Lekaidetxeen eraberritze ontan eragite aundia izan zuan "Eraspen Berria"k, bere izpirituan sortu bait ziran, Gerardo Groote'ren bitartez, "Bizitz Alkartuko Aizpak" 1374'ean, eta geroago, 1380'a ezker, Florentzio Radewijns'en bitartez, "Bizitz Alkartuko Anaiak". Rade-wijns berak sortu zuan Windesheim'go Lekaidetxea ere'

II PIO (1458 - 1464)

Zikiña, naasia, izan zan Eneas Silvio Piccolomini Aitasantu egin zuan giltzapeko batzarra. Eneas berak idatzi zigun nolako pixua izan zuten kardenalen artean nazionalismoek, simoniak, bekaizkeriek eta aundinaikeriak. Eta orrelako gauzak bein baiño geiagotan gertatu ziran aitasantu baten autaketan. Elizaren eskiertasuna ez dagoela gizonen eskuetan, naiz gizon oiek gorriz jantzitako kardenalak izan!

Egin zituan egiñalak Estouteville'ko Kardenal aberats aundiak, 1458'ko konklabe artan aitasantu izendatua izateko, baiña aitasantutzara iristeko ezer egin ez zuan eta izatera iristerik uste ere ez zuan Eneas Silvio Piccolomini izan zan auekeratua: gizazale leguna, idazle txit ona, izlari atsegiña, diplomatiko iaioa, jakite aundiko gizona.

Gaztetan, birjaiotzako beste asko bezela, maitekerira aski okertuxea ibilli zan eta izan zuan sasikume bat ere Estrasburg'en. Gero kontziliarista egin zitzaigun, eta esku aundia izan zuan Konstantza, ta Basilea'ko Kontzilioetan. Idatzi ere idatzi zuan kontziliarismoaren alde: "Libellus Dialogorum de Concilii Autoritate", "Konzilioaren Aginteari-buruzko Alkarrizketen Liburuxka", lenen mailleko gizazale edo umanista bateri zegokion latin miresgarritz idatzia.

Felix V sasiaitasantuaren idazkari ere izan zan. Konstantza eta Basilea'ko Kontzilioen serbitzura Frantzi, Flande, Eskozi eta Alemani ibilli zituan. Emen, Alemani'n, Olerkari koroiatu zuan ofizialki Federik lil Inperatoreak eta bere lenengo idazkari izendatu'

Biena'n Inperio'ko "kantziller" zan Kaspar Schliek'en adiskide aundia egin zan eta bere bi idazki ospetsuenetako batek "De duobus amantibus Eurialo et Lucretia" deritzanak kantziller onen maitakerikontu bat azaltzen digu Boccaccio'ren erara' Bestea, "Chrisis" izenekoa, oso moralitate gordiñeko drama bat da. Garai artako gauzak!

1444'ean Erroma'ra bidali zuan Inperatoreak, enbaxadari. Orduarte Felix V'aren eta Eujenio IV'aren artean, zalantzan ibilli zan Fede-

rik III Inperatorea nor aitasantutzat artu ez zekiela, baiña azkenean Eujenio'ren aldera itzuli zan zalantzarik gabe eta Aitasantu onekin pakeak egitera bidali zuan gure Eneas Silbio. Ordurako utzia zuan onek ere kontziliarismoa, eta berari zor zaio neurri aundian Inperatorea eta Alemani osoa ain era paketsuan Eujenio IV'aren albora etorri izatea.

Berandu egin zan apaiz, Eneas Silbio Piccolomini elertilari ospetsua; berak dioskunez "bildur ematen omen zion emakumerik gabe bi-zi bearrak" ("Cavi ne me sacer ordo involveret, timeo enim continen-tiam"), baiña beiñ ordena santuak arturik, apaiz egokia izan zitzaigun. Bereala asi zan kontziliarismoaren errua ezereztu naiean idazten. "De Rebus Basileae gestis", "Basilea'n gertatua", deritza bere orduango li bururik garrantzitsuenak.

Asko maite izan zuten Eneas Silbio apaiza IV Eujenio'k, V Ni o-las'ek, eta III Kalixto'k. Baita mundu guztiak ere, oso gizon xaloa, arraia, biguiña, eta benetan maitagarria bait zan.

Nikolas V'aren Ordezkarri lez, lan ederra egin zuan Morabi'n, Sile-si'n, Austri'n, Karinti'n eta Ungari'n.

Siena bere jadirerrian zegoan gotzai, III Kalixto'k Kardenal egin zuanean.

Asko ikasi eta asko ikusitako gizona zan, beraz, Kepa Deunaren Aulkira igo zanean, Eneas Silbio.

Olerkari, izlari, eta idazle apaiñenetakoa zalarik ere, bein Aita-santu egiña izan ondorean ez zan literatura izan bere gurarietan na-gusiena, guda baizik: turkitarren aurkako gurutze-guda. Ez ziran pozik aurkitu gizazaleak ori sumatu zutenean, ikusten bait zuten Aitasan-tuaren diruak ertira joan bearrean gudara joango zirala.

Ez ziran atzipetu. Egia da II Pio'k Fidelfo'ri diruz lagundu ziola, Jon Antonino Caprano bere jauregira deitu zuala, Flavio Biondo'ren adiskide kutun izan zala eta Platina'ri oparo lagundu ziola; baiña diru-rik geienak, ia danak, gurutze-gudarako izan zituan. V Nikolas bat es-pero zuten gizazaleek, eta III Kalixto bat etorri zitzaien'

Baiña turkitarren aurka gudan asi baiño len Itali'n bertan pakea egitea bearreko gauza zuan Aitasantuak-eta, ikus dezagun nolakoa izan zan bere politika'

Egiatzko anarkia laga zuan Kalixto III'ak Elizaren Laterrien bar-nean: Orsinitarrak, Kolonnatarrak, Sabellitarrak eta beste aundiki guztiak alkarren artean borroka bizian ziarduten. Asteko, illoba bat, Antonio Piccolomini, egin zuan Aitasantu berriak Sant'Angelo'ko bu-ruzagi. Sant'Angelo zan Erroma'ko gaztelu nagusia.

Jaun italiarren artean Milanerriko Francesco Sforza adiskide zuan. (Ain zuzen Sforza au saiatu zan geiena Eneas Silbio Piccolomini Aitasantu izendarazten). Napoles'ko Erreiñua errez bereganatu zuan II Pio'k, naikoa bait zun ortarako Erreiñu artako Jaun feudalarri lez, buruntza Ferrante'ri ematea. Eta ontan zalantzarik iñork izan ez zezan, Orsini kardenaI altsua bidali zuan Napoles'era, Ferrante errege koroiaztera, eta ortaz gaiñera, Napoles'ko buruntza ura Anjou'ko Dukearentzat nai zuan Frantzi'ren aurka guda egiteko laguntza eman zion Ferrante'ri.

Milan'go eta Napoles'ko bi adiskide sendo oien laguntzan oiñarriturik, pakeratu zituan Elizaren Laterriak; eta baita bi matxinada zantatu ere.

Matxinada oietako bat, Tiburzio zeritzan ezpatalari batek sortu zuan. Len Erroma'ko Errepublika sortu naiean V Nikolas Aitasantua-ren aurka jeiki zan Porkaro aren illoba zan Tiburzio au. II Pio menderatuta Errepublika ezarri nai izan zuan onek ere "summa bestialita et pazzia", Mantua'ko enbajadariaren itzetan: "pistikeri eta ankerkeri aundiz". Menderatua izan zan, eta urkatua.

Arriskutsuagoa izan zan bigarren matxinada, Piccinino "condottiero" edo guda-gizonak piztua. Asis'ko uria arrapatu zion onek Elizari. Zorrotz eman zion aurpegi II Pio'k eta Asis utzita iges egin bearrean aurkitu zan matxinoa'

Rimini'n ere aurka jeiki zitzai url artako Jauna: Malatesta, orduango gudaalbururik iaioena, Birjaiotzako Aur⁹ kien eredia, Itali'ko borroka guztietan parte artu zuana, kultura aundiko gizona, ertilarrien adiskide ta mireslea. "Sceleribus insignis": "gaizkille galanta" esaten zion Aitasantuak eskomikako buldan. Garrantzirik gabeko esaria. Orrelako izketa errez erabiltzen bait zuten Aitasantuek etsaien aurka. Eskomika ez ezik, gudaroztea ere jaurti zion gaiñera II Pio'k, eta arin menderatu zuan Milan'go eta Napoles'ko adiskideen laguntzarekin.

Ez zan Malatesta'rekin gogor portatu, beretzat eman bait zion, bitzita osorako, Rimini'ko uria.

Itali baretu ondorean gurutze-guda gertutzeko asmoari ekin zion. Aurreneko urratsa, Mantua'n egitea nai zuan Batzar batera Kristaudi-ko Erregeak deintzea izan zuan' (1458. Urrillaren 13'an argira eman zuan, dei ori egrriaz, "Vocavit Nos Pius" deritzan bulda. Urrengo urterako deitzen zituan Erregeak Batzar artara).

Ez zitzaion Erregerik etorri. Aitasantua bai, joan zan Aitasantua, baiña Erregeen ordezkariak eta bigarren mailleko Jaun batzuk baka-

rrik bildu ziran Mantua'n. Alperrik. Ez bait zuten ezertxo erabaki.

Ez zan Aitasantua zul edo frakaso orrekin kukildu. 1460'aren Urta-rrilleko 16'ean gurutze-gudara deitu zuan kristaudi osoa, "Ecclesiam Christi" deritzan buldaren bidez.

Oso gaizki zebillen ordurako osasunez II Pio. Gaixorik zegoala egin zuan MáWa'tik Erroma'rako bidea. Auldurik eta akiturik iritxi zan, baiña tinko Araun gogoaren sendotasunak gorputz makal aren barruan.

Bazekian berak gurutze-gudarako, eta edozer gauzatarako, Aitasantuzaren eskubideak indartzea eta argi ipintzea bear-bearreko gauza zuala.

Bi eragozpen, ia berdiñak biak, zeuzkan ortarako garaitu-bearrak: Kontziliokeri edo kontziliarismoa eta Bourges'ko Pragmatika'n gorputz egiñik zegoan galikeria.

Ez zuan ezer lortu galikeriaren arazoan. Bere aitasantuzaren asiera-asieratik eskatu zion Frantzi'ko Karlos VII'ari Pragmatika aren ezabatzea. Ez zuan erantzunik jaso. Orixe bera eskatu zion VII Karlos'en semeari, XI Koldobika'ri, errege-gai zala agindurik bait zeukan onek Bourges'ko Pragmatika edo Agindu ura kenduko zuala. Ala egin ere egin zuan, eta naiz Sorbona eta Paris'ko Parlamentu edo Epai-Mai Nagusia Bourges'ko Pragmatikaren aldekoak izan itsu-itsuan, Erreiñuko Lege egin zuan, Erregeak, Pragmatika aren ezeztatzea.

Ez denbora luzerako. Politika zebillen XI Louis'en buru-barnean. Ferrante'ri kenduta, Aitasantuak Napoles'ko Erreiñua Anjou'ko Dukeari ematea nai zuan. Eta li Pio Ferrante'ren alde egongo zala beti, ikusi zuanean, Pragmatika ezereztuaz eman-berria zuan legea kendugabe, "Erroma'ren geiegikerien aurka frantziar-elizaren eskubideak babesteko" galikeriz betatako aginduak ematen asi zan'

Zori ohea izan zuan Pio'k kontziliokeriaren arloan. Eliz-dotriñaren maillan garaitu bait zuan betirako "kontziliarismo"aren izurria, 1460'ean argitaratu zuan "Execrabilis" izeneko buldaren bitartez.

Esan dugu kontziliarismoa zer izan zan: Kontzilioa Aitasantuaren gaindik dagoalaren ustea. Ikus dezaguz laburki nola sortu zan uste ori Elizaren baitan:

Sortu, Sarkaldeko zismaren altzoan sortu zan. Gauza jakiña da, XIV mendean Aitasantuak Abirion'en bizi izan zirala; Orduan Elizaren Laterrietako bat zan eta gaur Frantzi'koa dan Abiñon'en. Baiña Abiñon'go azkeneko Aitasantua Erroma'ra joan zanean, ixtilu latzak sor-

tu zitzaizkigun Elizan' Ona gertakizun aien aria.

1377: XI Gregorio Erroma'ra.

1378: XI Gregorio'ren eriotza Erroma'n' Zori txarrez, urte bete besterik ez zuan egin Erroma'n. Geiago bizi izan balitz ez zan agian zisma edo zatiketarik Elizan sortuko.

Urte ortan bertan, Erroma'ko kardenalek VI Urbano egin zuten Aitasantu'

Berealaxe, urte ortan bertan, VII Klemente izendatuaz erantzun zieten Abiñon'en gelditu ziran kardenalek, aien ustez ez omen zan ba baliozkoa Erroma'koek Erroma'n egin zuten autaketa'

Bi Aitasantu Eliza bat berean. Eta ez zan erreza egiazkoa nor zan ezagutzea. Bitan zatiturik gelditu zan Eliza; bi zati egiñik Eliza-baitan kristauak; batzuk Abiñon'go VII Klemente'ren esanera, Erroma'ko VI Urbano'ren esanera besteak.

Galbide izugarria zan bikoiztasun ori Elizarentzat; eta gorroto-bidea!, Aitasantuek berak ere, bata-beste exkomikatu bait zuten.

Orduan jaio zitzaigun kontziliarismoa. Ez zan dotriña lez jaio' Iñork ez bait zuan esaten Kontzilioa Aitasantuaren gaindik zegoanik. Soilki konpon-bide utsa bezela jaio zan. Egiazko Aitasantua nbr zan jakiteko jakintsuen eta gotzaien batzar bat eratu bearko zala pentsatzen asi bait ziran kristau zintzoak.

140453. Pisa'ko Batzarra. Itali'ko Pisa'n bildu ziran gotzai eta kristau jakintsu batzuk zisma ura konpontzeko, baiña len baiño askoz okerrago utzi zituzten gauzak, beste Aitasantu bat aukeratu bait zuten an: V Alejandro.

—Iru Aitasantu zeuzkan orain kristaudiak begien aurrean: XII Gregorio Erroma'n; XIII Benedikto Abiñon'en; eta V Alejandro Pisa'n.

Egoitza ura Elizarentzat lotsagarria zala-ta, konponketa bat biltzarren len baiño indar geiago artu zuan kontziliarismoak. Ots: Pisa'ko Batzartxo arek kontzilio izenik merezi ere ez zuala-ta, egiazko Kontzilio Orokor bat galbide artatik irtetzeko bearrezkoa zalaren usteak. Ez zan oraindik kontziliarismoa dotriñ bat: Eliz-barneko arazo bat argitzeko konpon-bide bat besterik ez zan'

Iru bide zeuzkan Elizak zorigaitz artatik irtetzeko:

"Via Cessionis". Iru Aitasantuek beren aitasantutza uztea' Irtenik gabeko bidea, ez bait zuten Aitasantuek orrelakorik entzun ere nai; beren barnean ziur uste zuan ba, iruetako bakoitzak, egiazko Aitasantua bera zala.

---"Via Compromisi" Iru Aitasantuek, iruetan egiazko Aitasantua nor zan erabakitzeke bilduko zan epaimai baten esanera egongo zirala iruek itz-ematea. Baiña ez bait zuten Aitasantuek bide ontatik ere sartu nai, ez zitzaiola Elizari irugarren bidea besterik gelditzen us-te izan zuten gotzai eta jakintsu askok:

—"Via Concilii": Kontzilio Orokor bat bildu, eta, —iru eztabaidazko Aitasantu aiek ala nai edo ala nai ez—, Kontzilio aren eskuetan ipiñi zisma aren konponketa.

—Poliki-poliki, asieran konponketa-bide besterik izan ez zan kontziliarismo ura teologidotriña biurtzen asi zitzaigun. Pisa'ko Bartzarrekoan agertu zan, —Pier d'Ailly eta Jean Gerson'ek eraturia—, kontziliarismoa teologiaburu biurtzen zuan lenengo liburua. Bi gizon aiek jakintsu aundiak ziran, eta kristau zuzenak. Ez ziran agian oartu beren aburu arek nolako ondorio txarra ekarriko zuan.

Erregeak ere, eta bereiziki Imperatorea, "Via Concilii" oren aldekoak ziran-da, bide ortatik abiatu zan kristaudia.

—1414: Kostantza'ko Kontzilioa. Bi aldetan edo bi zatitan ebaki daiteke Kontzilio onen bizia: Aurrenekoan zearo kontziliarista izan zan, asko zabaldu ziran ba ordurako Ailly'ren eta Gerson'en aburuak. Bigarrenean, ez; bigarrenean bai bait zan an, Kontzilioak berak aukeratuta, Eliz osoak egiazkotzat artzen zuan Aitasantu bat: V Martin. Onatx nola izan zan Aitasantu egiña:

Kontzilioaren aurreneko aldia, Erroma'ko Aitasantuak, XII Gregori o'k, Kostantza'ko Kontzilio ura legezko eginda, berealaxe bere Aitasantutza utzi zuanean amaitu zan. Ori gertatu bezain laister aitasantutza uzteko eskatu zien Kontzilioak Abiñon'go XIII Benedikto'ri eta Pisa'ko XXIII Jon'eri. Eta aiek ezetz erantzun zutenean kontzilioak berak kendu zien aitasantutza; eta Kontzilioak berak aukeratu zuan V Martin Aitasantu.

Amaiturik zegoan, besterik gabe, Elizaren zisma; baiñan ez kontziliarismoa. Alderantziz indar aundia artu zuan onek, eta Kontzilioko teologilari ta legiztilari geienak "kontzilioa Aitasantuaren gairik zegoala" sinisturik irten ziran Kostantza'tik.

Izan ere ez al zuan Kontzilioak konpondu Aitasantuek ondatu zutena, ots Elizaren Batasuna? (Gaur, irakurle, badakigu zalantzarik gabe zisma artan ere egiazko Aitasantu bat izan zala beti: Erroma'koa; baiñan orduan ez ziran gauzak aiñ argi ikusten).

—Gaiñera Kostantza'ko Kontzilioak "Frecuens" izen duan erabakiaren bidez, kontzilioak maiz egitea erabaki zuan. Eta naiz erabaki ori

kontziliarista izan ez, ospe eta itzal aundia ematen zizkion ain itxura-ederreko egi ten zuan "kontzilioa"ri. Eta kontziliokerizko une bereizi artan "kontzilioa" geiegi goraiapatzea kontziliarismoari ats eta indar ematea zan'

—1431: Basilea'ko Kontzilioa. Aburuz zearo kontziliaristak ziran, Kostantza'ko "Frecuens" ura arrazoitzat arturik, Basilea'ko Kontzilioa egin zuten apaiz eta unibersitatelariak' Oroi dezagun, kontzilio artan, Eneas Silbio Piccolomini, gure Pio II'a, izan zala jakintsurik garrantzitsuenetako bat; zearo kontziliarista oraindik au ere.

IV Eujenio Aitasantuak ez zuan Basilea'ko jende oiulariarekin bear aiña kemen erabili, eta indartsu zabaldu zan uri artatik Frantzi eta-Alemanialdera kontziliarismorik gogorrenaren kiratsa.

Kontziliarismoaren era berri bat ere sortu zan Basilea'ko zurrunbilloan: Eliza erakunde demokratikoa biurtzen zuan kontziliarismoaren era berri bat: Jesukristok Eliza osoari eman omen zion Almena, Autoritatea, eta Eliza osoak ematen omen dio Aitasantuari onek duan, eta dezakean, almen oro, eta, Aitasantuak, kontzilioaren esanera egon bear omen du. Kontzilioa omen da, Eliza; edo, beintzat, Elizaren legezko-ordezkaria.

Ez da ori egia. Eliza gizarte sagaratua dalako, Jaungoikoak zuzenean ematen dio Elizaren Buruari, Aitasantuari, almen oro, eta, Jaungoikoak berak ipintzen du Aitasantu bakoitza Eliz osoaren gaindik' Jesukristok berak eratu zuan orrela gure Eliza.

Orrelako zerbait gertazten da beste gizarte sagaratuan, sendian, ere: Jaungoikoak zuzenean ematen die gurasoei agintea, ez semeek; eta, orregaitik, semeen gaindik daude gurasoak.

Len ain kontziliarisi:a izan zan II Pio'k amaitu zuan kontziliarismoaren auzia, "Jaungoikoagandiko almenez, Jaungoikoak zuzenean bitartekotasunik gabe ematen dion almenez, Aitasantua eliztar guztien gaindik Eliza.osoaren Buru bakarra dala" Elizaren dotrintzat erakutsiaz'

Gogapenen maillan argi gelditu zan Aitasantuaren nagusitza, bizitzaren arloan, ordea, ez bait dira ekaitzak ain une batean baretzen, bizirik jarraitu zuan oraindik jende askoren buru-muiñetan kontziliarismoak.

Alemanian bereiziki. An, Di'ether Maguntzi'ko Goigotzaiarekin, gotzai batzuk eta Gregorio Heimburg legiztilari ospetsua ziran kontziliarismoaren aldekoak. Alemani guzira zabaldu ziran Heimburg onek Erroma'ren aurka idatzitako liburuxkak. (Orrela ari zan an luteritasune-

rako giroa gertutzen).

Besarrion Kardenala bidali zuan ordezkari Aitasantuak Alemani'ra. Ez zuan, tamalez, gizon egokiena aukeratu, Kardenal sortaldetar arek ezin bait zitzazkean, naiz orduango gizonik jakintsuenetako bat izan, Sarkaldeko politikaren eta bereiziki Inperioko politika naasiaren ixkamillak era zuzenean ulertu. Orregaitik, len baiño okerrago utzi zituan Alemani'ko kontziliarismoaren auzi eta arazoak' Ondo gizon santua zan ba Bessarion, txit argia eta arras zintzoa, eraspen aundiaren jabea Eliza osoaren altzoan, eta biziki maitatua kristau guzien arten. Altagutziz diplomazilari kaxkarra irten zitzaion Pio II'ari. Ez dala erreza, Aitasantuentzat, auzi bakoitzerako Ordezkari egokiak aurkitzea, jakintza eta santutasuna ez bait dira askotan Ordezkari egoki bat osotzeko, naikoak izaten.

Inperiolurreko kontziliarismo gogorki errotu au gogoan artu bearra da gero laister, an bertan, Martin Luter'en iraultzak izan zuan arreta zuzenki ulertu nai ba'dugu.

Alemani'n Bessarion aski larri zebillen artean ez zan lasaiago aurkitzen ura bezain ospetsu genduan beste kardenak bat, Kusa'ko Nikolas, Inperio lurretako egoaldean, Austri'ko Tirol'en ain zuzen'

Brixen'go Gotzai zan Nikolas Kusatarra; eta Bertako Jaun ere bai, Laterri bait zan Brixen'go Elizbarrutia Tirol'en'

Jauntza Inperatoreari ematea pentsatu zuan Nikolas'ek, baiña gudaz eraso zion Austri'ko dukeak, beretzat nai bait zuan onek Brixen'go Elizbarrutiaren Jauntza. Borroka artan Gotzaiaren alde jarri zan II Pio, eta exkomikaz zigortu zuan Sejismund Austri'ko Duke borrokalaria. Menderatu zigun Dukeak indarrez gotzaia, baiña ez zion onek elizbarrutiaren jauntzarik errenditu bizi izan zan artean.

Dukearen alde ari ziran Alemani'n kontziliarista danak. Zerbait egin nai izan zuan inperatoreak, baiña ez zuan ezetxo ere lortu, ta II Pio eta Kusa'ko Nikolas bera il-ondorean baretu ziran istilluak Gotzai berriaren eta Dukearen arteko konponketa baten bidez.

Austri'ko Dukearekin ez eze, izan zituan Kusa'ko Nikolas'ek beste jendetxo batzuekin ere naigabe minkorrek. Norekin, eta lekaime-txoekin!

Biziera lasaiegian aurkitu zituan Brixen'go elizbarrutian klarisak eta beneditarrak. Nai izan zituan zuzendu, baiña ez zeuden asmo oietan emakumetxo lasaikeratu aiek, eta gogor eman zioten aurpegi; eta tinko jarraitu zuten beren txepelkerian.

Lekaimeen jarduera au ere gogoan jasotzekoa dugu Alemani'n

Martin Luter'en iruartzakoan praille eta monjen artean gertatuko daren zioak aditzeko.

* * *

Eragozpen oiek ez zuten II Pio'ren kemenik makaldu. Eten gabe ari izan zan gurutze-gudarako korapilloak lotzen:

Carvajal Kardenalaren bidez, Federik III Inperatoreak Matias Corvino Hunyady Ungari'ko Erregetzat onezagutzea lortu zuan aurrena. Orrela, Inperioaren aldetiko borroka baten bildurrik gabe, iareki eraso zezakean Errege ungaritar bikain arek turkitarren gudaroztea.

—Bessarion Kardenalaren bidez, lortu zuan, baita're, Benezi gudu artarako gerturik egotea. 40 gudontzi aundi eta lurreko gudarozte bat agindu zizkion Benezi'ko Errepublikak.

—Aitasantuaren politikari erantzunaz, alkarte-itun baten bidez, bateratu ziran Benezi'ko Errepublika eta Ungari'ko Erreiñua, guda artarako. Inperioarekin pakean eta Benezi'rekin pakean, osoan iare zitu an eskuak Matias Erregeak turkitarrei ekiteko.

II Pio'ren eskaria onartzuz, ekin zien Gorka Kastriota'k ere turkitarrei, berriro, aiekin ziñaturik zeukan atermena urratuaz. Eta beti bezala garaille irten zan orain ere borrokaldi guztietan albanitar trebe ura,

Orduan, Kristaudi'ko Erregeak erakartzeko bere burua gurutzeguda aren buruzagi egitea oldoztu zuan II Pio'k, eta zentzu ortan idatzi zuan kristaudia gudara dituz 1463'ko bulda' Entzun bulda onen esaldi batzuek:

—"Ikusia daukat ezin izan dedala iñola ere kristauen nagitasunik ezereztu. Orregaitik, ni neroni noa arriskura, eta guda ontan urtuko ditut Aitasantuaren eta Erroma'ko Erregearen diruetatik, aal ditudan txanpon guztiak. Jaungoikoaren izenean goaz gudara, eta Jaungoikoaren legearen alde sartuko gera borrokan. Jaungoikoak berak zapalduko dizkigu etsai guztiak, gure-gure begien aurrean!"

—"Badantzut maxiatzaille batzuen izketa: "Zer egin dezakek ik? Agure aiz, gaixo ago, eta apaiza aiz Guda ez dek ire eginkizuna. Kepa'ri ezpata gordetzeko agindu zioke Josukristo'k eta aren ordezkari aizelako, ez dezakek ik ezpatarik erabili. Erregeak dituk, ire esanera ezpata erabili bear dutenak. Guda zintzoan diardutenak onestea, onestea bakarrik, dek ire eginkizuna" entzuten ditut esaka".

"Orixe da ain zuzen nik egin nai dedana' "Nola jaso dezaket

nik ezpatarik eskuan, onespaketarako esku utsa jasotzeko gauza ez naizen onek! Otoitzaren bidez egingo det nik neronek gudua, ez izkillu baten bidez' Ez da nere besoa izango gudariei lagunduko diena, nere otoitza baizik. Ontzi galanta baten goi-goitik itxasoan, edo muiño baten gallurretik lur legorrean, nere ekintza antziñako Moises arek beze-la gudari kristauak onestea eta gure etsaiak gaitzestea, izanen da".

Zirrara bizia egin zion biotz-mamian Kristaudiko jendeari Aitasantua berbera gudara zijoala jakiteak. Bizia zan kristau-zentzua erriaren altzoan, eta ugari abiatu ziran Aitasantuarengana gudu artarako bazter guztietatik kristau gazte errikoiak.

Ordurako, gaixo zegoan oso Il Pio, baiña ala ere Ankona'runtz irten zan Erroma'tik bidari, kai ura ezarri bait zuan gudarien bil-tokitzat. Oartzen zan bera oso gaixo zegoala. "Agur Erroma, —esan zion azkeneko aldiz uria ikusi zuanean—, Agur Erroma! Ez nauzu geiago bizirik ikusiko".

Oiñaze bizitan egin zuan bide guztia, baiña kemenik galdu gabel; eta iizorian iritxi zan Ankona'ra.

An zeuzkan zai kristau-gudariak ugari; Europa guztikoak ziran; frantziarrak bereiziki, Espaiña'ko Erreiñuetakoak, alemaniarrek... eta baita eskozitarrak ere. Erregeak falta ziran an; eta Jaun aundiak.

Nicola Fortegerri Kardenala, guda-gizon iaioa, izendatu zigun Aitasantuak kristau-gudarozte osoaren Buruzagi. Eta Karbajal Kardenala, Ankona'ko Jaurle.

Egun batzuk geroago iritxi ziran Benezi'ko itxasontziak, Errepublikari artako "Dux" bera, Kristobal Moro, buruzagi zutela. Beranduegi!; bigaramonean eman bait zitzaizkion Aitasantuari elizekoak. Urrengo egunean il zan, pake gozoan, Kardenalei gurutze-guda aurrera eramateko eskatuaz.

Baiña... Aitasantua il bezain laister itzuli ziran kardenalak Erromara, itxasontziak Benezi'ra, eta gurariak bakoitza bere etxera.

* *

Il Pio'ren bizitza ikusi ondorean galdera bat etorri lezaioke burura edozein irakurleri: Gaztetan ain kontziliarista izandako Eneas Silbio Piccolomini ura, egitan damaturik biurtu ote zan Aitasantuaren esanera, ala politikaren aizeak bultzata egin ote zuan bere itzulpena?

Kontziliarista ez eze gizaseme lizuna ere izan zan gaztetan Eneas Silbio. Bere lizuntasunean arroxkoa gaiñera! Erarik lotsagabeenean

eman zion bere aitari maitale batekin izan zuan sasikumearen berri; baiña eskutitz berean, "Jaungoikoaren errukian zeukala, soilki, bere itxaropena" esaten zion. Pekatuzko egun aietan idatzi zuan gaiñera bere olerkietako bat, biotz-ukitu aundiko olerkia: "De Pasione Domini". "Gure Jaunaren Nekaldia". ;Orrelakoak zirala birjaiotzako gizakumeak! ;Pekatuzko bizitzan ere Jaungoikoa ezin aantzi zutenak!

Beste kondizio on bat ere izan zuan beti Eneas Silbio'k: egi-zaletasuna. Laister aspertu zan lizunkeriz, baiña ez penitentziegiteko asmotan, ondo janez eta ondo edanez bizitzeko gurariz baizik, Alemani'ko adiskide bateri idatzi zionez: "Nauseam mihi fecit Venus; Bacho magis quam Veneri parebo; vinum me alit, me juvat, me oblectat, me beat; hic liquor suavis mihi erit usque ad mortem". "Venus" lizunkeriari eta "Bachus" mozkorkeriari esaten diola gogoan artzen ba'duzu, errez ulertuko dituzu Eneas Silbio'ren itzak: "Nazka ematen dit Benus'ek. Orregaitik Bako'ri jarraituko diot emendik aurrera; ez, Benus'eri; ardoak mantentzen nau, ardoak laguntzen dit; berak alai tzen nau; eta zorionez betetzen; gozoa izango zait il arteraiño edaria".

Gero ordea, elizgizon izan zanez gero, ez janean ez edanean bate-re geiegikeririk gabeko gizona izan zala badakigu.

Berak esan digu, nola gaztetan ez zan ausartzen bere burua apaiz egitera, emakumerik ukitu gabe bizi bearko zuala pentsatze utsak bildur ematen ziolako. Orrenbesteraíño zan egirik ez estaltzearen zale!

Egiaren maitasunak ekarri zuan, kontziliarismoari uko eginda, Erroma'ko Elizaren altzora.

Ordurako, bere adiskide jakintsu guztiak kontziliarismo oro lagata Aitasantuaren aldeko ziran. Aiekin izandako solas-aldi sakon luzeek, ta berak berez zuan adimenaren-argitasunak, eta baita umanista lez Erroma'ri eta Erroma'rekin zer ikusirik zuten gauza guztiei zien maitasunak ekarri zuten kontziliarismoaren anarkitik Elizaren legera.

Apalki aitortu zituan itzez eta idazkiz bere erruak mundu guztia-
ren aurrean: "Aeneam reiicite, Pium suscipite" idatzi zuan aitasantu-
tza artu bezain laister, bulda batean: "Eneas utzita ar zazute Pio"

Itz oiek berak bir-esaten dizkio adiskide bateri gutun batean, gaz-
tetan idatzitako eleberri lizun arriburuz: "Tractatum de amore, sensu
pariterque aetate juvenes, cum nos scripsisse recolimus, Carole dilec-
tissime, paenitentia inmortica pudorque ac moeror animum nostrum
vehementer excrutiat. Seni magis quam juveni credite. Nec privatum
hominem pluris facite quam pontificem: Aeneam reiicite, Pium susci-
pite". Euskeraz:

Zentzuz eta adifñez gazte nintzalarik, maitakerizko eleberri ura idatzi nuala oroitzen naizenean, ene Karlos maitea, damu garratzak, lotsak, eta biotzatiko erarik gogorrean atsekabetzen didate gogo. Zar oni entzuen eiozute; ez, gazte arri. Utzi ezazute Eneas, eta onar ezazute Pio".

Santu, ez zan beiñere santu izan Eneas Silbio, baiña bai gizon zintzoa apaiz egin zanetik.

Umanista..., beti izan zan umanista ernea; baita Kepa Deunaren Aulkian ere. Gurutze-gudua gertuarazteko nekeek, ez zioten idazteko gogorik kendu, ta olerkiak eta liburuak idazteko ere aurkitzen zuan astia. Kosmografi bat idazten ari zan bere azkeneko egunetan ere' Bukatua zeukan aurretik Kosmografi orren "De Europa" liburua' Aitasantu zala idatzi zuan "De Asia" Eta Aulki Donera igo baiño leenago amaitu zituan "Historia Friderici Imperatoris" eta "Historia Bohemica". Orduan idatzi zuan berriz, —Aulki Danean eseri zanez gero—, "Comenteril rerum memorabilium". Bere aitasantutzaren eguneroko bat dugu azkeneko liburu au.

Elizaren garbiketan sendoki saiatzeko, ez zuan astirik izan! Lagundu bai, lagundu zien biotzez, ortan ari ziranei: Jon Soreth karme darren zuzendari nagusiari adibidez; Kepa Bosham Eskandinabi'ko apaizak bizitza zuzenera erakutzen ari zanari; eta erri landerrari itzegiten zioten mixiolariei.

Baiña ekintza sakonagoa bear zuan, Aitasantuaren inguruko jendeetatik asita Eliza osoaren eraberritzeak. Baiñan gurutze-guda, ekintza bearrezkoagoa iduritu zitzaion-da, ez zuan beste ekintza artarako denborarik aurkitu.

Ez zeukan ala ere, azturik utzia; il zanean, Elizaren antza-berritza sakonki egiteko egitarau bat aurkitu bait zan bere paperetan.

Esan dezagun, amaitzeko, Aitasantu gizazale bateri zegokion gauza da-ta, zearo asarretu zuala, Kristaudiko bazter batzuetan judutarrei bataioa indarrez arrerazten zitzaiaela jakiteak.

Era berean asarretu zan jopu beltzak saltzen eta erosten ari ziran kristauak bazirala esan zitzaionean. Ez zuan asarretu besterik egin. Agian'.., ;orduan oraindik salerosketa ori, gauza urria zalako? Izan ere, artean ea bait zan Amerika'rik idoro! Eta gauza jakiña da Amerika aurkitua izan ondorean sortu zala esklabutzaren arazoa. 1460'ean II Pio'k ez zezakean, urte asko geroago sortuko ziran arazoentzat legerik antolatu. Oartu zan beintzat giza-salketa ori okerkeri utsa eta aundia zala. Kostako zaie, urrengo iru mendeetan, teologilari kristauei ortaz

konturatzea!

Esan dezagun, amaitzeko, III Kalixto bezain aide-zale edo nepotista izan zala Pio II'a ere. Ura aiña; ez geiago. Ez bait ziran bi auek izan, ain birjaiotzatar izandako oben ortara geiena jausi ziran Aitasantuak.



II Paul
(1464 - 1471)

Ankona'n zeuden kardenalak, li Pio il zanean, baiña berealaxe etorri ziran Erroma'ra eta asi zuten Giltzapeko Batzarra.

Baziran Batzar artan kardenaI egokiak: Carvajal, oro zuzentasun; Bessarion sorkaldetarra, santu eta jakintsua; Torquemada, teologilari bikaiña.. ' Ez zuten autarkirik jaso. Alderantziz, 453 jaso zituan D'Estouville ondobizi-zaleak; zazpi Scarampo kardenal gudalburu trebeak, amaika Pietro Barbo dirutsuak'

Au, Barbo, izan zan Aitasantu egiña bigarren autaketan.

Autaketa asi aurretik, kardenalen artean egindako "capitulaciones" edo itunben batzuek betetzera beartu zuan bere burua, ortarako ziñ egiñaz' Orixe egin zuten beste Kardenalek ere konklabe aren asieran, ori bait zan, birjaiotza-aroan, konklabe guztietako oitura.

Aitasantuak Abirlon'en bizi izan ziranetik zetorren itunben oiek egiteko oitura, eta 1431'ean Eujenio IV'a aukeratua izaterakoan egin ziranak izan bait ziran gogorrenak, ona emen 1431'ko itunben aren atalik jakingarrienak:

Goitik beera, "in capite et in membris", Elizaren Jaurlaritza osoro garbitzea izanen da aitasantu berriaren lenen-lenengo zeregiña.

Elizaren Jaurlaritza ori, Erroma'tik beste toki batera, kardenalen baimenik gabe, ez du (Aitasantu berriak) aldatuko.

—Elizaren eraberritzea egiteko, len-bait-len bilduko du Kontzilio Orokorra'

KardenaI baten aurka ez du ezertxo ere egingo beste Kardenalen onespernik gabe.

Kardenalentzat izango da Elizaren errenta guztien erdia'

Eliz-Laterrietako Agintari eta Jaurle danak, Aitasantuaren esanera egoteko egin oi duten bezelaxe egingo dute Kardenalen "Kolejio" edo Kopuruaren esanera ere egongo diralaren ziña.

—Aitasantuak ez du egingo, Kardenalen oniritzirik gabe, garrantzizko daitekean, ez legerik emango, ez gauzarik egingo.

Ez ziran ain gogorak V Nikolas ezkerok egiten ziran itunbenak, baiña danak zuten elburu Aitasantuari eskuak lotzea, eta kardenalen almena aunditzea aitasantuarena moztuaz.

Gero ez zituzten Aitasantuek, aurretik ziñatutako itunben oiek betetzen; Aitasantuak bai bait du, bearrezkoa dala uste duanean, zinke-ta guztiak askatzeko eskubidea'

Zergaitik egiten zituzten Kardenal aiek, baliorik ez zutelara aurretik ere bazekiten itunben oiek? Birjaiotzako oiturak!

Ala ere aipagarria dala uste dut, aldi aietako giroa ezagutzeko, itunben oietan danetan aipatzen ziran iru gauza auek gogoratzea:

Elizaren xauketa: Elizaren "erreforma" edo eraberritzea;

—Kontzilioa al zan azkarrenik egiten astea;

Eta.", Kostantinopla turkitaren ankapera jausi zan ezkerok, igurutze-guda!!!

* *

Kepa Barbo, IV Eujenio'ren iloba, beneziarra zan, salerosle aberatsen semea, bera ere salerosketara oitua, diru-erabilketan iaioa. Ez zion ekonomijakintza orrek aitasantutzarako batere kalterik egin' Ala esan aal izan zuten edestilariek, Kepa Barbo aitasantutzara igo zanean erriko jendearentzat bizitza neurri ederrean merkatu zala, naiz berak dirua, Erroma'ko Errege lez, zekenkeririk gabe gastatu.

Jakituri urriko gizona zan. Ez bait zan ikastoletara joan. Zekian guztia, gaztetan etxera joaten zitzaizkion maixu batzuekin ikasi zuan, eta ez zan asko, orrela ikasi zuana; Benezi'n oraindik ez zan Birjaiotzako umanismorik sartu-ta, ez zuan ez elenerarik ez laterarik ikasi; ezta birjaiotza-zaleei ain kutun zitzaizkien ertirik eta elertirik ere. Teologirik ez zekian; are gutxiago Fiosofirik edo Legiztirik. Aitasantu zala ez zitzaigun lateraz mintzatzeko gauza izan' Italieraz, eta aski gaizki, mintza oi zan beti.

Ez zion jakintzari gorrotorik, ez orixe; baiña ez zion jakintzak kezka geiegirik ematen. Altagutziz, naiz kulturaz ain gaizki jantzia izan 23 urterekin artu zuan, IV Eujenio'k emanda, Kardenalen Kapela.

Salerosle aberatsen seme zalarik, oparo eta ederki bizitzea ziztaion atsegin. Eta orrela, aberaski bizitzearren, Kardenal zala asi zuan Marko Deunaren Jauregia, gaur "Palazzo Venezia" esaten zaio-

na. Jauregi au omen da, erdiaroko "gotik-era"tik aro berriko bir-jaiotz-kerak dizkiratsura pausoematen, lendabiziko arkitektura-lana. Edo beintzat lenen-birjaiotza-lanetan ederrenetako bat'

Maiz bizi oi zan gela eder aundiz beterik dagoan jauregi artan II Pio. Atsegin zitzaizkion otoruntza oparo alaitsuak: egun asko irauten zuten janketa edo bankete oparoak. Baita jantzi dotoreak ere; atsegin zitzaizkion arri bal iotsuz apaindutako jantzi aberatsak. 200.000 urrezko "florin" balio omen zuan bere mitra batek. Urrezko eta zillarrezko ontziak erabiltzen zituan otorduetan. Arri-biziak, mota guztietako arri aberatsak bildumatzeari izugarrizko zaletasuna zion, eta maiteki losintxatu oi zituan, emeki banan-banan ukituaz, bere arri bikain aiek' Era berean jaso eta gordetzen zituan bere bilduman antziñako irudi eta margolan ederrak.

Gertakizun eta jai-aldi aundi eta zaratatsuen maitale, ikusgarriak ziran jaun aundikientzat prestatzen zituan eizaketak, eta erri xeari maiz eskeiñi oi zizkion pestak; iñauteri-pestak bereiziki.

Arriturik kontatzen dizkigute garai artako idazleek, (Canensi'k adibidez: "Vita Pauli II") jai iaukal aien aberastasun naroa. "Benezi'ko Jauregi"ko leio nagusitik, Aitasantua bera egoten zan, jolas-jai oietan, parrez erriari begira, eta jendeari oparo dirua esku betean jaurtiaz'

Ta naiz dirua ain alaiki erabilli, imerkatu egin zituan, Elizaren Larterrietan, aragia, arraia, ogia eta ardoa!

Gorputzez arras gizon ederra eta itxura onekoa zan. Ain zuzen, Aitasantu egin zutenean, Formoso artu nai izan zuan izen: II Formoso. Kardenalek kendu zioten gogapen ori burutik, Aitasantuak bere burua ederzat aitortzen zuala usteko omen zuan ba erriko jendeak. Formoso'k ederra esan nai bait du.

Markos izen-artzea oldoztu zuan orduan. Muziñ egin zioten izen orri ere Kardenalek. Zergaitik? San Markos Benezi'ren zaindari zalako. Eta zaindari ez eze, Errepublika aren ikurra ere bazan San Markos. "San Markos'en Errepublika" esaten zitzaion Benezi'ri. "San Markos"! deadarka sartzen ziran borroketara Benezi'ko gudariak, eta San Markos'en leoia zan Errepublika aren arma-arria.

Ta..., Aita Santu berria beneziarra bait zan, pentsatu omen zezakean jendeak, Kardenalek uste zutenez, Aitasantuak Benezi'ri geiegizko zaletasuna ziola, aitasantutzarako Markos izena artzen ba'zuan.

Azkenean, Paul artu zuan izentzat.

Irakurri duzunaz, errez oartuko ziñan II Paul Erroma'ko Aitasan-

tua eta Erroma'ko Erregea, Errege geiago izan zitzaigula Aitasantu baiño.

Itali'n ain ugari ziran Birjaiotzako Printzipe ospetsu aietako bat izan zan; baiña beste aiek ez bezelakoa, Paul II'ak ez bait zien ertilanei beste aiek danak ain era neurrigabeen zieten zaletasunik.

Zaletasunik-ez orrek eraginda, "Brebe-idazle" edo "Abbreviatores" lateraz esaten zitzaien Aitasantuen Jaurlaritzako idazkari aien kopurutik II Pio'k sartu zituan guztiak uxatu zituan; eta gero, i Pomponio Leto'ren "Academia Romana" bera ezereztu zuan!

Aitasantuen dokumentuei, orduan eta gaur, "Bullae" esan oi zaie, garrantzikoak ba'dira; eta garrantzi aundikoak ez ba'dira, "Breves", "Literae Breves", euskeraz "idazki Laburrak". "Idazki Labur" auk idazteko, 24 -Abrebiatore"k lan egiten zuten Abiñon'go Aitasantuekin. II Pio'k 70'era igo zuan talde orren kopurua, eta bertan sartu zituan Erroma'ko umanista edo gizazalerik iaioenak. Danak uxatu zituan, eta danak lanik gabe eta zer janik gabe utzi zituan orain II Paul'ek, "brebelarien" taldea leengo 24 aietara laburtuaz.

Uxatuen izenean gogor idatzi zion Plátina'k. Sant'Angeloko baitegira jaurti zuan Aitasantuak, eta gaztelupe leitzetsu artan egon bear izan zuan lau illabetez birjaiotzalari izentsu arek.

Erroma'ko Akademia berriz, Julius Pomponius Letus'en zuzendaritzapean Erroma'ko gizazale-talde batek sortutako erakundea zan. Gizazale aietako bat zan ain maiz aipatu izan dugun Platina ere: Bartolomeus Platina, garai artako gertakizunak jakin nai dituanarentzat gizonik egokienetakoa, albistari zeatza izan bait zitzaigun bere idaztietan.

Akademi artako gazte aiek sasijaikogurtzailleak, eta iraultzalari ak, zirala esan zitzaion Aitasantuari. iPaul II'a bera il nai zutela ere zabaldu zan Erroma'n!.

Gezurra dana. Jende aiek ez ziran jainkoustel gurtzailleak; egiazko kristauak ziran. Erroma zaarreko Jupiter, eta Venus, edo Baco edo beste jainkoaizun aien omenez olerkiak egitea, eta aien izenak maiz erabiltzea, eta beste orrelako gauzak, elerti-joku uts besterik ez ziran.

Iraultzalari, eta batez ere aitasantu-iltzaille izateko, ondo-bizitezaleegiak ziran aristokrazieta-burgesikume aiek danak. Itz borobillak erabilli bai, eta Aitasantuaren aurka eta apaizen aurka mintzatu ere bai; sinistekoa da, ori bein baiño geiagotan eginen zuten gauza dala. Baiña nork ez zuan Erroma artan Aitasantuen aurka itzegiten? Nork ez, apaizen aurka? Eta nork ez zuan izkera zakarrrik erabiltzen?

Ala ere, Sant'Anjeloko baitegira jaurti zituan danak II Paul'ek. Ez zuten noski an biziera gozoegirik izan. Platina beintzat oiñazetua, torturatua, izan zan epailleak galderak egiterakoan.

Espetxe illun artan, bertako zuzendaria, Arevalo zaldun gaztelatarra, izan zuten baituek egiazko aingeru laguntzaille; bera ere gizazale benetakoa bait zan.

Markos Barbo kardenala, Aitasantuaren illoba, zan auzi artan epaille nagusia. Eta ez bait zuan iñorengan errurik aurkitu, espetxetik askatuak izan ziran danak azkenean.

II Paul il zanean, berealaxe piztu zan berriro Akademia, eta berealaxe izan ziran ostera "brebelarien" kopuruan sartuak Aitasantu zanak bidalitako aiek danak.

Bere aurrekoak bezela, sartu zan II Paul Itali'ko iskamilletan. Pio II'a Milan'go Dukaterriaren eta Napoles'ko Erreiñuaren adiskide izan zan; II Paul'ek Florentzi'rekin eta Benezi'rekin, egin zituan adisdidetasunak. Ez denbora luzerako, laister asarretu zan Benezi'ko Errepublikarekin. Ona zergaitik:

1466'ean, Milan'go dukea, Francesco Sforza, il zan. Beretzat nai izan zuan orduan Benezi'k ildakoaren dukaterria. Aitasantuari ordea Benezi'ren eskua geiegi indartuko zala iruditu zitzaion, eta aren aurka alkarte bat osatu zuan Florentzi, Napoles, eta Milan'go dukegai Galeazzo Maria Sforza, Francesco zanaren semearekin. Bere asmoei uko egin bearrean aurkitu zan Benezi.

Baiñan laister, Florentzi'ri ekin zion Benezi'k. Medizitarrek ziran Florentzi'ko Errepublikaren Jaun, eta Jaun auen aurka Florentzi barnean sortutako matxinada batez baliatu nai izan zuan Benezi'k. Medizi'tarrek menderatu aal izan zuten matxinada ura, eta, —Paul II Aitasantua pakea egiteko artekari zala—, Florentzi'ren Jabe gelditu ziran Medizi'tarrak, eta ontan ere atzera egin bear izan zuan Benezi'k.

Pio il'aren denboran aipatu dugu Gorka Podiebrad, Boemi'ko Erregea. Utrakista zala, ots, husitarren alderdikoa zala ere esan dugu.

Paketsu erabilli zuan II Pio'k, Aitasantuaren esanera egoteko emanik zeukan itza urratuta ostera utrakisten alde borrokara jeiki zan Errege ura.

Gogorragoa izan zitzaion II Paul; Pio'ren baretasuna alperrikakoa izan zala ikusita, exkomika jauti bait zion 1446'ean. Eta, exkomika

orren bidez, Podiebrad'en esanera egoteko beartasun orotik iaretu zituan Boemi'ko biztanleak.

Podiebrad Erregeak, Gregorio Heimbürg, Alemani'ko legiztilari kontziliaristaren aolkua jarraituaz, Kontzilio Orokor baten iritzia eskatu zuan, Aitasantuak jaurti zion exkomikaren aurka.

Erreiñu-barrendik etorri zitzaion uste ez zuan erantzuna, bere aurka jeiki bait zan Boemi'ko Aitorren-Seme Katolikoaren Alkarte. Kanpotik berriz Ungari'ko Matias Corvino erregeak eraso zion, Aitasantuak eskatuta. Zaila zebillen gudua, Ungari'ko Erregeak Morabi osoa artu ondorean ere. Baiña 1471'an Podiebrad il zan, eta aren erregetza Poloni'ko Ladislas Jagellon katolikoaren eskuetara joan zan.

Ala ere, ez zegoan zearo garbitua, II Paul il zanean, Boemi'ko arazo.

II Paul ez zan gurutze-guduen maitaleegia. Baiña ikaratu zan 1470'ean II Maomet'ek Negropono edo Eubea izeneko ugarte arrapatu zuanean. Negropono zan Benezi'ri sortaldean gelditzen zitzaion azkeneko kolonia.

Bidali zituan orduantxe Paul II'ak bere ordezkariak Errege guztien albora gudarako eskaria egiñaz. Batek bakarrik erantzun zion: Usun Hassan, turkimandarren Erregeak, Asi'ko basamortuen sakonetik'

Ez zan gurutze-gudarik egin. Soilki, Itali'ren babeserako, Alkarte bat egin zan Milan, Florentzi eta Aitasantuaren artean. Eta. Carvajal Kardenalak Benezi'n erabili zuan iaioatasunari eskerrak, ez zuan, II Paul'ekin oso asarre zegoan Errepublikaren arek, pakerik turkitarrekin egin.

Uste gabeen ii zan, 45 urte zituala, II Paul Aitasantua, Elizaren edestirako ezer aundirik egin gabe.

IV Sixto
(1471 - 1484)

Izenez Francesco della Rovere, Sabona-odoan jaioa, sendi txiro baten semea. Berak egingo du aberats, izugarri aberats, ordura arte ain txiro izandako bere sendi ori, Elizaren edestian ezagutu dan aitasanturik sendikerizaleena izango bait da IV Sixto.

Filosofia eta Teologia Padua'n eta Boloni'n ikasi zituan; eta frantziskotarra bait zan, bere ordenako Zuzendari Orokor izateraiño igo zitzaigun.

Berak uste ez zuala iritxi zitzaion kardenaltza, II Paul'ek emanda. Ez zuan noski Paul II'ak usteko, kardenaI egiten zuan frantziskotar ura ain aundikeri-zale irtengo zitzaionik.

Itali'ko politikan Elizaren Laterrien aunditasuna izan zuan elburu Kardenal berri onek, izentzat Sixto artuta, aitasantutzara jasoan izan zanez gero, ta elburu ori lortzearren:

—Elizaren Laterrien barnekopakea egiten saiatu zan aurrena, Orsinitarrak eta beste aundiki matxinadazaleak menderatuaz. Kardenal egin-berri zuan Giuliano della Rovere illoba gazteari eman zion bere gudaroztearen buruzagitza. Praille frantziskotarra zan mutil au ere, baiña prailletarako baiño geiago jaio zala dirudi "condottiero" edo guda-gion izateko. Aidean irabazi zituan beintzat ostera Aitasantuarantz, aundikiek II Paul'eri kendutako Todi, Spoleto, eta Citta de Castello arresi sendoz bebestutako uriak.

—Mintza gaitezen laburki, Itali'ko iskamilletan ain beso luzea izango duten, Aitasantu onen illobetaz:

1^a - Oraintxe aipatutako Giuliano della Rovere; II Julio izenarekin Aitasantu izango dugu VI Alexander Borxatarraren ostean:

2^a - Pietro Riario, Julen edo Giuliano'ren lengusua, Aitasantuaren arreba baten semea, Frantziskotarra au ere gazte-gaztetatik, eta Aitasantuaren kuttuna; ta, orregaitik, erarik zoroenean aberastua izan za-

na. 25 urte zituala izan zan Kardenal egiña; eta ortaz **Floren-**tzi'ko, Sebilla'ko, Balentzi'ko eta Espoleto'ko goigotzai; ta Kostantinopla'ko Patriarka! Gero, eman zizkion Aitasantuak beste gotzaigo eta abatago batzuk ere, eta kargu oietatik jasotzen zituan errentekin, antziñako Kreso ura baiño askoz oparago bizitu zan Erroma'ko Jau-regirik ederrenatako batean. Bai omen zituan 500 morroitik gora ertilan aberatsez eta urrezko ontziz betetako Jauregi artan. Ospe aundi-koak izan ziran beintzat adiskide aundikiei eman zizkien bazkari ta apariak; eta Erroma'ko urian onenak omen ziran bere ikulluetako zai diak. Adiskide eskuzabala izan, zuten ertilariek. Gizagaixoa, Jauregi berri bat eraikitzen asi ondorean il zan, gazterik, bere geiegikerien erruz, 28 urte besterik ez zituala.

3^a - Rafael Sansoni Riario. Kepa Riario'ren illoba. Orregaitik, bere illobaren illoba zalako bakarrik, egin zuan Kardenal IV Sixto'k. 17 urte zituan illobatxo onek Kardenalaren kapela gorriaz gaiñera Aitasantuak amar gotzaigo etaihatago batzuk geiago eman zizkionean.

4^a - Oietaz gaiñera beste iru illoba egin zituan Kardenal gure IV Sixto illoba-maitale arek: Cristobal della Rovere, Girolamo Basso della Rovere eta Domingo della Rovere.

Seiak ziran kardenal izaterik merezi ez zutenak.

Eliz-gizon izan ez ziran illobetan iru dira aipagarrienak:

5^a - Jovanni della Rovere. Urbino'ko Dukearen alabarekin Aitasantu osabak ezkondu zuana.

6^a - Leonardo della Rovere. Erroma'ko Jaurle edo Gobernadore egiña, eta Sora'ko Duke izendatua gero. Aberaski ezkondu zuan au ere osabak: Napoles'ko Fernando l'aren sasi-alaba batekin.

7^a - Girolamo Riario, Pietro Riario'ren anaia, eta ura iI zanean aren ondasun guztiak jaso zituana; (esan bait dugu oso gazterik il zala kardenaltxo txolin ura). Imola'ko Jaun egin zuan Girolamo au osabak, eta Caterina Sforza, Milan'go Dukea zan Galeazzo Maria'ren alabarekin ezkondu.

Kontzientzirik gabeko umea zan Girolamo' eta deabru zirikatzaile ankerria izan zitzaion IV Sixto osabari. Beretzako, Itali'n, jaunderribat lortzea beste asmorik ez zuan izan, eta biurrikeri aundiak egin zituan Jaunderriri ori lortzearren, laister ikusiko dugunez

—Itali'n ez zan kixazko pakerik lortzen. 1476'an Galeazzo Maria Sforza Milango Dukea, Elizara meza entzutera sartzeko une berean izan zan aitzoz illa. Beren buruak "errisalbatzaille" uste zituzten iru gaztek il zuten.

-1476'ean, Florentzi'ko Lorenzo Medici "Il Magnifico" asarretu zitzaigun IV Sixto'rekin: Zergaitik? Biak Milan'go Duke berriari Imola uria erosi nai ziotelako. Aitasantuak erosi zuan azkenean uri polit ori bere illoba Girolamo'rentzat, 40.000 dukat'en truke. Pazzi'tarrek aurreatu zioten dirua.

Bi sendi ziran orduan Itali'n bankularirik aundienak: Pazzi'tarrak eta Medezi'tarrak. Ordurarte, Medizitarrak izan ziran Aulki Donearen bankalari. Orain Pazzitarrek artu zuten aien lekua.

Orretxegaitik asarretu zitzaion IV Sixto'ri Lorentzo Medizi Florentzi'ko Jauna; orregaitik, eta geroxeago, Aitasantuak, Lorentzo'ri atsegin ez zitzaion gizon bat Pisa'ko goigotzai izendatu zualako. Florentzi'ko Errepublikaren barruan zegoan Pisa. Lorentzo'ren aide bat, Felipe Medizi, Lorentzoren laguntzaille zintzoa, izan zan Pisa'ko goigotzai. II zan, ordea, eta Francesko Salviati egin zuan orain Aitasantuak gotzai; Lorentzo'ren adiskide ez zan gizona.

Arrezkero al zuan guzia egin zuan Lorentzo'k Sixto IV'aren aurka, Elizaren Laterrien baitan Aitasantuaren aurka jeikitzen ziran condottieri iraultzailleei lagunduaz-eta.

* *

Lorentzo'ren jokabide orregaitik, eta, agian, baita Florentzi'ko Errepublika'ren lurretan Girolamo illobarentzat Printziperri bat osatu nai zualako ere, eman zidonespena IV Sixto'k, Medizi'tarrei Florentzi kentzeko Pazzi'tarrek burutu zuten asmoari.

XV mendearen asiera ezkerro ziran Medizi'tarrak Florentzi'ko Errepublikaren Jaun.

Kosme Medizi'k irabazi zuan Jautza Bankalaria zan. Izugarri aberatsa; ertilari danen laguntzaillea. Dirua erruz txautu zuan Florentzi edertzen-eta, "Aberriaren Alta" izendatu zuten florentziarrek. Beste titulorik gabe gobernatu zuan arek Errepublika, erri guziaren onespen osoarekin.

1464'ean il zan, eta bere seme Pietro Medizi'k artu zuan Florentzi'ko jauntza. Laister iI zan au ere: 146453'an. Eta orain bi semek: Lorenzo'k eta Giuliano'k artu zuten aren lekua. Biak ziran gizon bikaiñak, naiz izen ori, "Il Magnifico", edestiak Lorentzo'ri bakarrik eman. Agian, Lorentzo izan zalako Errepublikaren Lendakari. Adimen zorrotzeko gizona, kultura aundi dizdiratsuaren jabea, politikari trebea, bear zanean jaurle gogorra, ertilari eta jakintsuen adiskide esku-zabala... Au zan Pazzi'tarrek Florentzi'tik jaurti nai zuten gizona.

Ori lortzeko, Francesco Pazzi, Girolamo Riario'rekin eta Aitasantuak Pisa'ko Goigotzai egin-berri zuan Francesco Salviati'rekin alkar-tu zan Erroma'n eta alkarte orren barruan tajutu zuan bere egitaraua:

—Girolamo'ren serbitzuko kapitan batek, Jovanni Batista Montesecco'k ilko zuan aitzoz Lorentzo;

—Lorentzo'ren anaia, Giuliano, bi apaizek ilko zuten: Bagnone'ko Esteban'ek eta Antonio Maffei'k.

—Salviati Goigotzaiak, gudaritalde batekin Jaurlaritzaren Jauregia menderatuko zuan, eta Pazzi batek erria Medizitarren aurka altxatu.

—"Aitasantuak bai al du gure asmo auen berri? Nik ez dut aren onespenerik gabe ezer egingo", galdetu zien beste iruei, gizeraille izateko kontzientzi onegikoa zan kapitan arek.

—"Aitasantuak, guk eskatzen dioguna egingo du auzi ontan; Lorentzo'rekin oso asarre dagoalako eta aren ordeztu Florentzi'n beste Jaun bat ipintzea nai dualako",—erantzun zioten Girolamo'k eta Goigotzaiak.

—Ez zan lasai gelditu Montesecco kapitana, eta izan zuan era Aitasantuari gauza bera galdetzeko.

—"Nik ez dut iñoren eriotzarik nai. Egia Florentzi'n Jaurlaritzaren aldaketa bat nai dutala, baiña iñoren eriotzarik gabe", —erantzun zion IV Sixto'k.

—"Aitasantua: --jarraitu zuan Montesecco'k—; Gauza auek ezin daitezke egin Lorentzo, edo Girolamo bere anaia, eta agian beste batzuk ere il gabe".

—"Nik ez dut, iñola ere, iriotzarik nai. Aitasantua ezin daiteke eriotza erabiltzearen aldekoa izan. Ni ez naiteke eriotzaz baliatu".

—"Egifizialak egingo ditugu iñor ez iltzeko' baiña guk naiezta ere eriotzaren bat gertatuko balitz, barkatuko dio noski zure Santutasunak erailleari", —eskatu zion Girolamo maltzurak bere osabari.

—"Pisti basati oker bat besterik ez aiz, illoba, —iardetsi zuan Aitasantuak—' Esan diat ez dutala iñor iltzerik nai. Florentzi'ko Jaur-laritzaren aldaketa bat besterik ez diatela nai; entzun duk? Entzun al duzu zuk ere, Montesecco? Gauza bera jakiñarazi nai bait dizut zuri: eriotzaTik ez dedala nai! Begi onez ikusiko dutala Florentzi'ko alda-kuntza ori, eta atsegin izango zaidala Lorentzo jaurlaritzatik jaurti-zea. Okerra eta gaiztoa bait da Lorentzo"!

Agur egiterakoan auxe esan omen zien oraindik Aitasantuak:

"Egizute nai duzutena, baiña eriotzik gabe"!

Aitasantuaren beste illoba bat Florentzi'n zegoan denbora aukeratu zuten matxinoek Lorentzo'ren eraiketarako. Florentzi'n zegoan illobatxo aren izena? Sansoni Riario Kardenala.

Florentzi'ko katedralean, ain zuzen mezanagusikoan, zan egitekoa eriotz zikiñ ura. 1478'ko Jorraillaren 26'ean.

Ai baiña! Azkeneko unean, "berak ez zuala elizarik odolez zikindu naita", atzera egin zuan Montesecco kapitanak. Eta, agian, gudagizon onen kontzientziko kezkek salbatu zuan eriotzatik Lorentzo. Azken-azkeneko orduetan egitarau osoa aldatu-bearrean aurkitu bait ziran matxinoak!

Iritxi zan eguna. Mezan zeuden katedralean, oi zuten lez, Lorentzo eta Juliano Florentzi'ko Jaun Medizitarrak. Sagarakoan, —jaunartzerakoan beste batzuek diotenez—, Lorentzo'rengana urbildu zan Montesecco'ren lekua artu zuan eraillea. Ala uste zuan berak; baiña Lorentzo'rengana alderatu bearrean, —atzipetu-edo egin zan nonbait-eta—, Lorentzoren anaia zan Juliano gaztearengana joan zan zuzenean, eta Juliano'ri sartu zion saietsetik aiztoa. Eta baita Frantzisko Pazzi'k ere, berea, bularretik! Bi zauri oietatik odola boteaz Jaurretxe artako lur sagaratura jausi zan, bizirik gabe Juliano Medizi doakabea.

o

Bitartean, Lorentze' ron gaiñera, etorri ziran aipaturiko bi apaiz aiek. Zuaritu zuten aiztoz. Baiña ez bear aiña; eta bizirik atera aal izan zuten andik bere serbitzari batzuek.

Katedraletik at, Frantzisko Salviati goigotzaiak ezin izan z.t, fan Jaurlegik artu, eta pota egin zuan Jakobo Pazzi'k ere Florentzi'ko erria jeikiarazteko erabilli zituan ekintzetan. Alderantziz, Medizitarren alde jeiki zan erria eta berealaxe izan ziran baituak matxino guziak.

Gogorra izan zuten justizia: Goiz artan bertan izan ziran urkatuak Jaurlegiko Leio batetik esegita, Frantzisko Salviati Goigotzaia eta Frantzisko Pazzi bankalaria. Beste eraille danak ere urkatuak izan ziran, baiña bi aiei, aurretik, erriak sudurra eta belarriak moztu zizkien. Montesecco'ri lepoa moztu zitzaion. Il-aurretik epaileen aurrean azai du zituaneetatik artua da len kontatu dugun Altasantuarekingo alkarizketa.

Sansoni Riario'k ez zekian Pazzi'tarrek sortu zuten matxinada arriburuz ezertxo ere. Altagutziz, baitua izan zan ura ere'

Arrigarria Sixto IV'aren jokaera, Florentzi'n gertatuaren berri iritxi zitzaionean.

Ez zuan erailketaren aurka ezer esan. Ez zuan erailleen aurka ere oirurik jaso. Bai zera! Florentzi'ko Jaurlaritzaren aurka egin zuan deardar!: epaiketarik gabe Pisa'ko goigotzaia urkatu zutelako, eta Sansoni Riario baitu zutelako. Gaiñera gaiñera Lorentzo'ren erbesteratzea eskatu zion Florentzi'ko Errepublikari!!!

Ezetz erantzun zuan Errepublikak. Sixto IV'ak, "Iniquitatis filius et perditionis alumnus Laurentius de Medicis" "Medizi'ko Lorentzo gaiztakeri ororen seme eta galbide guztien irakasle" deritzan buldaren bidez, Lorentzo exkomikatu zuan eta Florentzi'ko Errepublika osoan elizkizunik egitea debekatu "interdikto" baten bitartez.

Gudan amaitu zan iskamilla. Florentzi'ren aldetik Benezi, Milan eta Frantzi'ko XI Koldobika irten ziran borrokara, eta Aitasantuaren aldetik Napoles'ko Ferrante edo Fernando I'a, eta Siena'ko Errepublika txikia.

Azkar ibilli zan IV Sixtota, Florentzi'ko Errepublikaren barrura sartu zan bere gudaroztea. Larritu zan Medizi'ko Lorentzo, ez Benezi'k ez Milan'ek, ez bait zioten bear añaako laguntzarik ematen. Ez eta Frantzi'ko Erregeak ere, Aitasantuaren alde sartzeko prest zegoan III Federik Inperatorearen itzalak geldiarazi bait zuan.

Lorentzo Medizi'k ordea, —diplomazilari iaoa bait zan—, Napoles'ko bidea artu zuan ixillean, eta an i Fernando'rekin pakeak egin ziotuan.

Atsegin gaitza egin zion pake arek, Florentzi'ko lurralde guztia irabaziko zuala ziur ikusten zuan IV Sixto'ri, i Florentzi'ko Errepublikaren barnean sartuta zeukan ba une aietan bere gudaroztea!. Okerrago jarri zizkioten oraindik gauzak turkitarrek. 1480'ren Uztaillean Otranto artu bait zuten auek Itali'n bertan. Pakeak egin bearrak izan ziran Itali'ko Laterri guztien artean.

Ez luzerako. Ferrara'ko Dukaterria bere illobarentzat, Girolamo'rentzat, irabazteko, gudan zan ostera Aitasantua 1483'an' Guda ortara sartuarazi zuan Benezi ere. Oraingoan IV Sixto'ren aurka irten zan Napoles'ko Fernando. AIde berriz Roberto Malatesta Rimini'ko Jauna. Elizaren Laterrien barnean ere piztu zan borroka; Orsinitarrak Aitasantuaren alde altxa bait ziran, Colonnatarrak aren aurka jeiki ziranean.

Roberto Malatesta'k Napoles'ko gudaritaldea garaitu ondorean amaitu zan gudua, baiña era arrigarrian; Benezi'ren aurka jarri bait zan orain Sixto IV' iSixto'k berak sartu zuan Benezi gudan! Eta orain, iinterdiktoa, —elizkizunak egiteko debekua—, jaurti zion guda ura gelditu nai ez zualako!

Itali'ko gudu aietan maiz gertatzen zan lez len bezelaxe gelditu ziran gauzak azkenean.

Esan dezagun, amaitzeko, bere illobak aunditzearren eta Aitasantuen erregetza aunditzearren, Niccolo Machiavelli bera arriturik uztera aiñako era biurriak erabilli zituala IV Sixto'k, Itali'ko arazoetan.

*

Polikipoliki, ari zan Kristaudian, erregeak gotzaiak aurkezteko oitura legezko egiten. IV Sixto'k ez zuan oitura orren aurka ezer aundirik egin. Ez zan erreza ere. Birjaiotzako politika-erarekin txit ederki kizatzen zan oitura bait zan ura.

Inperatoreak bazuan V Nikolas eta II Pio ezkerro Elizbarruti batzuetako gotzaiak aurkezteko eskubidea. Ontzat eman zion IV Sixto'k eskubide ori.

Baita're 16 gotzai aurkeztekoa eman zion Dinamarka eta Noruega'ko Kristian l'ari, ura Aitasantuari ikustaldi-egiteko Erroma'ra etorri zanean. Ain zuzen, eraspén aundiarekin ibilli zan Erregea, Erroma'n, elizatik elizara barkapenak irabazten'

Ungari'ko Erregeak ere bazuan, gutxienaz V Nikolas'en denboretatik erreifi uztiko gotzaiak aurkezteko almena. Ez zion Sixto IV'ak almen ori moztu baiña Errege arek noizbait egin oi zituan geiegikeri batzuk galerazi zizkion.

Berdin jokatu zuan gogor Portugal'eko II Jon'en aurka Errege au Elizaren askatasuna mozten ari zalako.

Aragoi'ko Fernando II Katolikoarenkin egin zuan itunbena izango da, gero Espaiña'ko Erregeek gotzai aurkezetarako erabilliko duten ai menaren oiñarria.

Bazuan gaiñera Fernando Katolikoak sasikume bat: Alonso. Erregearen eskariari erantzunaz, naiz Alonso ori sei urteko umea izan, Zaragoza'ko Goigotzai egin zuan Sixto IV'ak. (Gero, 1612'an, Fernando'k Naparroa lapurtzerakoan, Alonso Zaragoza'ko goigotzai ori izango da naparren aurkako borrokan Aragoi'ko gudaroztearen buruzagi. Gaztela'koarena Alba'ko Dukea izan zan; eta Lerin'go Kontea napar ukatuena. Errez mendarutu zituzten iru gudarozte aiek, bat eginda, gure Naparro doakabearen indarrak).

Garai, ontakoa da Espaiña'ko Inkisizioaren sorkuntza.

XIV mendea ezkerro gogortu zan Gaztelerrian juduen biziera. Asko, geien-geienak, bataiatu egin ziran orduan, eta judu kristau aueta-

tik ugari iritxi ziran Elizaren goiko mailletaraiño. Judu-kiftau aut-eako bat, Fray Alonso Espina'koa, izan omen genduan, esan oi danez, len-dabizi Inkisizioa eskatu zuana. Barra-barra maxiatzen zan ba Españi'ko Erreiñuetan, udu aietatik asko gezurretan kristau egin zira-la. Aitzaki orretaz baliaturik nai zuten Errege Katolikoek Españietan Inkisizioa eratu. Eta IV Sixto'k 1478'ko "Exigit" buldaren bidez eman zien eskatzen zutena.

Baiña Españi'ko Inkisizioa ez zan beste lekuetakoa bezelakoa.

Inkisizio'ko epailleak Erregeen esanera egon bear zuten, ez beste tokietan bezela, Elizako Agintarkien esanera. izkillu bikaiña Erregeen politikagintzarako; IV Sixto bezain makiabeldarra bai zan gutxienez Fernando Katolikoa! Ez ordea beste erregeek baiño gaiztoagoa'

Judutarrek menderatzeko Fernando'k Inkisizioaren bearrik ez zuala, argi erakusten digu bere jokabideak. Amarren bat urte geroago judutar guztiak bidali bait zituan bere Erreiñuetatik! Orduan ere gutxi gora bera eunetik ogeiedo irten omen ziran erbestera, % 20 bakarrik; gaiñeko guztiak bataiatu egin ziran ba XIV mendeko aiek bezela.

*

Oker ibilliko zera irakurri duzunaren ondorean IV Sixto sinisrnenik gabeko gizona zala oldozten ba'duzu. Ez orixe. Sinismen sendoko gizona zan, eta baita eraspén aundikoa ere. Batez ere Andre Mari'ri izan zion eraspén beroa; eta Joseba Deunari. !Arrigarri gertatzen zaizkigula Birjaiotzako jende aiek!

Mari Birjiñaren sortze garbia ez zuan sinest-egi biurtu, baiña biotz beroz aldeztu zuan; izan ere, bera frantziskotarra zalarik, gogoan bait zeukan mende t'erdi leenago, 1300'ean, Duns Eskoto Sorkunde Garbiaren alde sendo mintzatu zala.

Oso teologilari ona zalako berriz, egoki eta sakon jokatu zuan ereji eta dotriña okerren aurka. Alemani, Ungari, Frantzi eta Piamonte ziran ereji eta siniste-naasketarik geieneko lurraldeak. Zintzo ibilli zan ortan IV Sixto.

Fraileekin esku zabalegia izan zuan, geiegizko eskubideak eman bait zizkien karmeldarrei, eta bereiziki domingotarrei eta frantziskotarrei. Ez ziran gustora gelditu apaizak eta gotzaiak'

Fraileei zien zaletasunak eraginda, neurritik irten ere egin zan batzuetan; adibidez, "obserbantes" edo arau gogorreko frantziskotarrak "Conventuales" edo arau biguiñego frantziskotarren mendera

ekari nai izan zituanean. Idatzi ere egin zuan ortarako bulda, baiña aurka irten zitzaion Marka'ko Jakobo Donea ta, ez zan, frantziskotarrak bateratzen zituan bulda ura argitaratzera ausartu.

Frantziskotarrei eta domingotarrei, ondare edo erentziak artzeko eta lurak erosteko eskubidea eman zien. Ez zan noski ori frailleen perfekzio edo osogunerako biderik egokiena-ta, ez zuten orrelako eskubiderik artu nai izan arau gogorreko prailleek.

Sixto IV'ak egin zituan done Buenabentura eta frantziskotarren lenengo martiriak: 1220'ean Marok'en bizia galdu zuten bost prailleak'

Bir-galerazi zuan kontziliarismoa ere. Ontan istillu aski latzak izan zituan:

—Alde batetik Frantzi'ko XI Koldobika beti Kontzilioeske dea-darka ibilli zualako. Ala, batez ere, Medizi'tarren aurkako matxinada aren ondorean Sixto Benez'i'ren aurka gudan asi zanean. Federik III Inperalaria zearo kontzilio baten aurka azaldu zalari eskerrak ixildu zitzaigun orduan Frantzi'ko Erregea.

—Beste aldetik, Basilea'n, berriro, sasi-kontzilio bat sortu zitzaiolako. Ara nola:

Bazuan Sixto'k praille domingotar bat, Zamonetik'tar Andres, yugoslabitarra, Padua'ko Unibersitatean ikasia, III Federik Inperatorearen adiskide aundia zana.

Goigotzai egin zuan Sixto IV'ak bere lagun ori. Baiña ez zion kardenalzarik eman. Eta asarretu zitzaion ura.

Pazzitarren auziaren erruz Aitasantuak Florentzi, Milan eta Benez'i'rekin zebilkian guduaz baliatuta, Elizaren eraberritzea oiuka eskatzen asi zan, eta Erroma'ko ustelkeriaren eta Sixto IV'aren sendikeriaren aurka ozenki mintzatzen. "Deabru'aren Seme" esaten zion Sixto Aitasantuari.

Alde irten bait zitzaizkion (praileari) Benez'i, Milan eta Florentzi, eta batez ere Frantzi'ko XI Koldobika, Basilea'ra joan zan; an, Kardenal lez aurkeztu zuan bere burua, eta III Federik Inperatorearen Ordezkarik lez. Eta berriro bir-irikia aldarrikatu zuan Basilea'ko Kontzilio zaar ura'

Bidali zituzten ordezkariak, kontzilio artara Napoles'ek eta Florentzi'k' Baiñan Inperatorea asarretu bait zan goigotzai iraultzaille arekin..., eta Benez'i'k beste kontzilio bat eskatzen bait zuan.'. , Itali'n Aitasantuak eta bere etsaiek pakea egin zuten bezdain laister, ezertan gelditu zan, Basilea'ko Kontzilioaren gezurrezko berpiztutza ura'

II Paul'ek asirik utzi zituan Errusi'ko Eliza Erroma'koarekin alkarzetezko Iban III'arekingo alkarriketak. Aurrera jarraitu zituan orain IV Sixto'k. Eta Erroma'raioño etorri zan Iban

Erroma'n, Kostantinopla'ko azken-inperatorearen billobarekin ezkondu zan. Itxaropen aundiegia jarri zuten emakume onengan Aulki Donekoek, uxoa uste-ta bele irten bait zitzaien. Bein Errusi'n, Erroma'rekingo alkartasun ororen etsai agertu zan ba.

Gurutze-gudarik ez zuan aztu Sixto IV'ak; Eta bazuan ez aztutzeko arrazoirik aski. Itali'n bazekian ba erriko jendeak berak, ¹¹ Maomet Erroma bera arrapatzeko gogoarekin zebilela.

Aulki Donera igo orduko, lau ordezkari bidali zituan Sixto'k Kristaudira: Bessarion zaarra, Frantzi'ra, Borgoña'ra eta Inghlanderrira; Rodrigo Borxa, III Kalixto'ren illoba, Gaztela'ra eta Aragoi'ra; Gotzon Capranica, Itali'ko Laterrietara; eta Marco Barbo, II Paul'en illoba, Alemani'ra Ungari'ra eta Poloni'ra.

(Beste kardenai bat, Pliverio Carafa, Eliz-Laterrietako ontziekin eta Napoles'ko Erregeak utziko zizkionekin osatzea pentsatzen zuan ontzidiaren buruzagi izendatu zuan).

Ez zuten ordezkari aiek ezer lortu. Españi'n, Rodrigo Borxa'k ekarritako bulda baten bidez, konpondu aal izan ziran Aragoi'ko Fernando eta Gaztela'ko Elizabete'ren arteko ezkontzan egindako okerkeriak.

Itali'n, Benezi'k eta Napoles'ek bakarrik erantzun zioten Aitasantuaren deiari, eta bi Laterri auen laguntzarekin eta bere ontziekin lortu aal izan zuan Sixto IV'ak 82 ontzi aundiko itxas-indar bat osotu.

Ontzioekin, Rodas'ko zaldun donibanetarrei lagundu ondorean, Oliberio Karaffa Kardenal buruzagiak Smirli'a'ko uria kendu zien turkitarrei. Alperrik dana. Aitasantuaren mariñelak. eta Benezi'koak, eta Napoleskoak, alkarrekin asarretu ziran ba, Itali'ra itzuli ziran danak, Smirna, ostera, turkitarrentzat utzita.

Aitasantuek ez ziran konturatzen, baiña aro-betiko agintarientzat zentzu gutxiko gauza ziran gurutze-guda aiek. Gurutze-guda, Erdiaroko gauza da. Gurutze-gudak bearrezkoa du Europa'ren batasuna. Erdiaroan Europa lurralde bat zan. Errien arteko esirik gabeko lurralde bakarra: Kristaudia. Birjaiotzarako ausia zan Europaren batasun ura; eraikiak ziran ordurako erriarteko esiak, ez noski gaur bezain itxiak, ez, baiña esiak ala ere, giazko esiak, eta esi oien barruan errialde ba-

koitzeko agintariak, ez zuan bere onturrea besterik billatzen. Ez zitzaien Kristaudiagaitik ajolik. Bizi zuan oraindik "Kristaudiaren zentzua" erriko jende xearen biotzetan; ez ordea Errege eta Jaun Aundien asmo zekenetan. Ta bitartean...

Arro, garaille agertzen zuan Sortaldean II Maomet. 1480'ean artu zuan, esan dugun lez, Otranto. Zerraz ebaki zuan gerritik bertako gozua! Uriko 22.000 biztanleen erdia, gazte-jendea, katigu eramana izan zuan, eta beste erdia, geiena, erailla.

Ikaratu zuan Itali. Aitasantua bera Abifion'era joan bearko ote zuan ere pentsatzen asi zuan. Etsi aurretik ordea. Fregoso Kardenala bidali zuan Otranto'ra 34 guda-ontzien aitzinean. Ontzi oiekin, eta Napoles'ek utzi zizkion batzuekin, 1481'aren Iraille'ko 10'ean artu zuan Kardenal buruzagiak, borroka odoltsu eta gogorraren zitu, Otranto'ko uria. Guda-buruzagi ernea ta trebea agertu zitagun an Fregoso Kardenala.

* * *

Ertiaren arloan, lenen maillako mezenas izan zitzaigun IV Sixto. Aurrera eraman zituan V Nikolas'ek asitako lanak urian; eta Baticano'ko Liburutegiaren bigarren aita izan zala esan daiteke, era oparoan ornitu bait zuan biblioteka ura mota guztietako liburu ederrez. Gaiñera, jende guztiaren serbitzura ipiñi zituan liburu aiek danak, atek osoan zabalduaz.

Adiskide izan zitzaizkion Pomponio Leto, Jacobo Volterra, Segismundo dei Conti, Bartolome eta beste orduango elertilari ospetsu guztiak. Baita Francesco Filelfo olerkari jite zailleko ura ere. Plátina'ri Batikan-Liburutegiko zuzendaritza eman zion. Melozzo Forli'k egin zituan Liburutegiaren ormetako margoirudiak.

Margolarien artean IV Sixto'ren lagunak izan genituan Boticelli, Serdenti, Girlandaio, Pinturicchio, Signorelli, Perugino... Danak ari izan ziran aitasantuarentzat lanean, berak eraiki zuan eta bere izena daraman "Capella Sixtina"n batez ere'

Errege bikaiña izan zuan Erroma'rentzat IV Sixto. Ez ain Aitasantuona Elizarentzat.

Bere obenik aundiena, sendiari izan zion maitekeri neurri gabea!: orrek egiñarazi bait zizkion egin zituan okerrik aundienak.

Aurpegira jaurti dezaiokegun txarkeririk aundiena auxe da noski zalantzarik gabe: Simoniari Elizako atek zabaizabal irikitzea. Entzun

zeiñen ederki abestu zuan ori laterazko itz-neurtu bikaiñetan orduan-
go umanista batek:

Venalia nobis
templa, thura, preces, coelum est venale, Deusque.
Sixte pater, fidei custos, oviumque magister,
per ovilia regnant
saevus aper, tigres rabidae, truculenta leonum
semina, multicolor pardus, gryphis naribus uncis.

Euskeraz:

Salgai dauzkagu
jauretxeak, inzentsua, otoitzak, salgai zerua, eta Jaungoikoa.
Sixto Aita! fedearen babes, ardien irakasle!:
'...artaldean, basurde ankerra, tigre amorratuak, leoikume
ikaragarriak dira nausi, leopardo beltzarrea,
ta grifo sudur-okerra.

Ez uste ori idatzi zuan gizazale dotorea eliz-jendearen etsaia za-
nik. Olerki orren egillea, praille karmeldar bat duzu: Baptista Spagno-

VIII INOZENTZIO (1484 • 1492)

Lotsagarria, Sixto IV'a il ondorean Erroma'n gertatua. Altxa ziran Kolonnatarrak Aitasantu izanaren aide guztien aurka. Altxa zan erria ere, au, bereiziki Sant'angelo'ko gazteluaren Jaun zan Girolamo Riario'ren aurka. Kanpoan zan IV Sixto'ren illoba kuttun au. Kanpoan egoteak salbatu zion bizia. Bere emazteak, Katalin Sforza'k, sendo eman zien matxinoei aurpegi Sant Angelo'ko gaztelutik, gaztelu ura Aitasantu irtetzen zanari bakarrik errendituko ziola oi u egiñaz. Gaztelua eskatzen zioten ba iraultzalari aiek. Ez zuten emakume bikaiñ aren leialtasunik zapaldu!

Markos Barbo Kardenalaren trebetasunak ekarri zuan Erroma'ra konklabea bildu aal izateko aiña pake.

Dignitate gutxiko konklabea zan ura, oso santutasun urriko gizonak bait ziran IV Sixto'k egindako kardenalak. Bi aitasantugairen artean zegoan jokua. Bi aietako bat, Girolamo della Rovere, Sixto IV'aren illoba; bestea, Rodrigo Borxa, III Kalixto'ren

Oartu zan Girolamo aitasantutzarik ez zuala bereganatuko, eta Aulki Donera Borxatarra igo ez zedin, Jenoba'ko GiOvanni Battista Cibo'ren alde asi zan lanean; eta ortarako kardenal aukeratzailleen artean dirua oparo zabalduaz, lortu zuan bere adiskide arentzat Kepa Donearen Aulkia' Zearo simoniz zikindua izan zan beraz, autaketa doakabe ura'

Bazekian Girolamo'k zer zebillen. Zortzi urteen luzaroan bere esanera eukiko bait du aukeratuarazi duan Aitasantua: Inozentzio VIII'a.

Ez zan Aitasantu berria jakituri aundikoa; "di mediocre literatura" zala diosku Benezi'ko enbaxadariak' Berandu egin zan apaiz, eta apaiz izan aurretik izan zituan gutxienez bi sasikume Napoles'ko andre batekin: Francescheto eta Teodorina. II Paul'ek egin zuan goztai, eta Girolamo'k lortu zion IV Sixto'rengandik kardenaltza.

Baretsua eta pake-zalea zan VIII Inozentzio, baiña sartuarazi zuan Erroma'ko Errege izateak Itali'ko guduetan.

Gaiñera, jenobatarra zalarik, beti izan zan aragoitarren etsaia, aspalditik ezin alkar ikusi bait zuten Aragoi'ek eta Genoba'k, biak Korzega'ren jabetza eztabaidatzen zutelako.

Napoles'ko I Fernando, edo Ferrante Napolitarren izkeran, aragoitarra bait zan, Aragoi'ko V Alfontso'ren semea.', Fernando orrekin izan zituan bere borroka guztiak.

Arroa zan Fernando, eta lurralde batzuk kendu zizkion Elizari; lurralde aietan inotzentzio'ren izenean agintari zana erailla izan zan. Bere burua arriskuan ikusi zuan Aitasantuak ere eta bildurturik Abifion'aldera joateko asmotan ibilli omen zan, Aitasantuaren asmo oiek eta Frantzi'ko Errege berriari zion bildurak ikaratu zuten Napoles'ko Erregea.

Beiñere ez zuan eskier euki Fernando lak Napoles'ko buruntza' Sizili'ko ugartea, eta baita Napoles ere, erdiarora ezker frantziarren eta aragoitarren kutizi ziran. Eta orain ere Karlos VIII Frantzi'ko Errege berriak Napoles eta Sizili beretzat nai zituala jakiteak eraman zuan Fernando I'a Aitasantuaren esanera'

Aurretik, jeiki zitzaizkion matxinadan Napoles'en bertan aundikiak, 1485'ean, eta aundiki oien alde jarri zitzaion Inozentzio VIII'a. Ez zan Fernando kukildu. Menderatu zituan aundikiak eta baita eriotzez zigortu ere. Asarretu zan berriro Aitasantuarekin, borrokara joaz. Bere alde zeuzkan Milan eta Florentzi. Aitasantuaren alde zegoan Jenoba. Orsinitarrak Aitasantuaren aurka..., Colonnatarrek alde zeudelako!

Geroago, 148453'an, Inotzentzio'k jaurti zion eskomikak ere ez zuan apaldu Napoles'ko Erregea. Kontzilio baten eskea egiñaz erantzun zion Aitasantuaren exkomikari.

Frantzi'ko Karlos VIII'ak ordea Napoles arrapatu naiean jarraitzen zuan-da, asmo oien berri jakiteak moteldu zituan Fernando'ren asarrea eta kemena. Frantziarren aurka ekiteko laguntzarik onena Aitasantuarena zuala-ta, berealaxe egin zituan Inotzentzio'rekin pakeak. Baita bere burua Aitasantuen menpeko azaldu ere' Eta ez arrazoirik gabe. Napoles'ko erreñua Aitasantuen feuderrri bait zan aspalditik.

Geiago oraindik; pakea ta adiskidetasuna obeto sendotzeko, Inozentzio billoba batekin ezkondu zuen Alfontso bere illoba.

Aitasantuaren billoba, Teodorina Cibo'ren alaba, nextato bat besterik ez zan oraindik.

Batikano'ko Jauretxean egin zan ezkontza, Aitasantuaren au-

rrean; sekulan osotasunera eramana izan ez zan ezkontza, egun batzuk geroago il bait zan emaztetxo. Alfontso berriz apaiz egin zitzaigun, eta Kardenal izateraiño iritxi zan: Aragoi'tar Alfontso Kardenala. Napoles'ko Erregeak bezela pentsatu-edo zuan lenxeago Lorentzo Medizi'k ere, eta Magdalena bere alaba Inozentzio VIII'aren semearekin, Franceschetto Cibo'rekin, ezkondu zuan. Ez zion senar egokiegirik ematen, ezaguna da ba mutiko>arek ardoari zion geiegizko zaletasuna.

Magdalena aren ama orsinitarra bait zan, Clarice Orsini, ezkontza orrek ekarri zituan orsinitarrak Inozentzio'ren adiskidetasunera.

Izugarrizko emaitza aberatsak egin_zizkien Aitasantuak bi ezkonagai eta bere aurrean egin zan ezkontza.

Asarrexamar gelditu zitzaion jendea ezta oparo aien ostean. Ez noski bera, —Inozentzio VIII'a—, senargaiaren aita, eta lengo eztaietan andregaiaren aitona zalako. Ezta diru geiegi txautu zualako ere. Ontara oiturik zegoan erria, eta Aitasantu bat seme-alaben aita izatea, oso pekatu xumea zan Birjaiotzako jendearentzat. Pio II'ak berak, ain maitatua izan zan Pio'k, izan zuan ba seme bat. Baiña bere seme-alabak lotsarik gabe jendearen aurrean agertzen aurrenekoa Inozentzio izan zan-da, lotsa orren faltak minkaiztu zuan orduan jendea. "Primus pontificum filios filiasque palam ostentavit", idatzi zigun Egidio Viterbo umanistak.

* *

Naiz pake-zale izan, egin zien Kristaudiko erregeei gurutzegudarako deia Inozentzio VIII'ak. Ez zan gudarik sortu. Alderantziz, Sultan berriarekin pakeak egíñaz amaitu zuan Inozentzio'k gurutzegudarako dei ura. Ona zergaitik eta nola:

1481'ean il zan Maomet II'a; Otranto artu ta bereala. Bi seme utzi zituan: Bayazeto eta Dschen, (edo Xen). Bi anaiok, gudan asi ziran bat bestearen aurka. Bayazeto irten zan garaille. Xen'ek, Rodas'ko ugartera iges-egin zuan, eta an, ugarte aren Jaun ziran zaldun donibanetarren babespean bere burua gorde.

Bayazeto'k urteko 45.000 dukat eskeiñi zizkien donibanetarrei Xen ondo gordeta eukitzearen truke, bildur zan ba ugartetik iges egin da bere anai arek beste gudaldi bat ez ote zion sortuko. Errez egin zuan Rodas'ko Zaldun Donibanetarrekin tratao.

Jakin zan ori Kristaudian, eta Sultanaren aurka jarduteko, Xen baitua tresna egoki-egokia izango zutela oartzen ziralako Errege guz-

tiek nai izan zuten Printzipe ura beren albora baituran ekarri' Inozentzio VIII'a izan zan ori lortu zuana, Zaldun Donibanitarren Maixu Orokarra Kardenal egitearen truke. Ekarri zuten Donibanetarrek Erroma'ra Bayazeto'ren anaia, eta Erregei egiten zaien arrera egin zion Aitasantuak.

Pozik zegoan VIII Inozentzio! Xen printzipeari Kostantinopla'ko buruntza eskeiñita, berealaxe gurutze-gudari asiera ematea pentsatzen!, —bai orixe—, pozik zegoan Inozentzio VIII'a!

Asmo orrekin itzegin zien Enbajadariei Erroma'n. Ziurtzat jotzen zuan oraingoan garaitza gure Aitasantuak, baiña Ugariko Matias Korbino'ren eriotzak, eta atzetik an sortu zan anaiarteo guduak, !zimurtu zituzten orduangoz itxaropen guztiak!

Oartu zan ordea arriskuan Bayazeto II'a. Errez oartu ere, azpi-joku nazkagarrian Benezi'ko Errepublikak, Erroman gertatzen ari zan guztiaren berri ematen bait zion ixilka. Diplomazizko bidea artu zuan Bayazeto'k'

Aitasantuari balio zoragarrizko emaitzak bidaliaz, Sanjuandarrei bezela, urteko 45.000 dukat eskeñi zizkion Xen ondo zaintzen ba'zion. Baiezko erantzuna eman zion Inozentzio VIII'ak, eta, orrela, au izan genduan, sinisgabeekin itun-egiten, aurreneko Aitasantua.

Pozik gelditu zan II Bayazeto. Bere esker ona agertzearren, Josu'ren saietsa gurutzean zulatu zuan aizta igorri zuan Erroma'ra. Lurrean belauneko, eraspelik aundienarekin artu zuan Inozentzio VIII'ak Josu'ren nekaldiko oroigaillu done ura.

* *

Inozentzio VIII'a izan zan sorgiñen aurkako bulda eman zuana. "Summis desiderantes affectibus" deritza bulda orrek eta 1484'ko Abenduaren 5'ekoa da. Bulda ori, Alemani'n, sorgiñen aurka gogor, gogorregi eta itxuegi zebiltzan bi praille domingotarrek eskatu zioten Aitasantuari: Jacobo Sprenger'ek eta "Malleus Maleficarum" "Eme gaizkilleen maillua" deritzan liburuaren egille zan Enrike Institoris'ek.

Bulda ortan, beste gauza batzuen artean, entzun duala diosku Aitasantuak, "persona ar eta eme batzuek deabru ar eta emeekin li-zunkerizko arremanak ere badituztela".

Garai artako beste jende askok bezela, sinisten zuan, dirudianez, Inozentzio VIII'ak ere, gauza aiek egiak zirala.

Ordurarte, orrelako kontuen egitasunaren aurka egon ziran Aita-

santuak XI mendeko VII Gregorio'rengandik asita' Kontu ustel oien-gaitik emakume gaixo batzuei eriotza ematea galerazi zion arek Dinamarca'ko Erregeari. Eta XIII'ean, IV Alejandro'k orrelako kontuetan sartzea debekatu zien inkisiziokoei. erdiaroko eskolastiko batzuk asi ziran gizonak deabru emeekin ("succubi") eta emakumeek deabru arreakin ("incubi") aragizko alkartzea egin dezaketela esatenda, asko zabaldu zan kristaudian sorginkeriaganako gorrotoa.

Abirion'go Aitasantuetan XXII Jon eta XII Benedikto, Inkisizioa sorgiñen aurka sartzearen aldeko agertu zitzaizkigun.

Eta..., ez da errez zergaitik esatea, baiña Birjaiotza-arogan, jakintzaganako zaletasunarekin batera, izugarri zabaldu zitzaigun, Alemani'n eta Gales'en eta Eskozi'n batez ere, sorgiñei-buruzko siniskeria' Esan ere esan bait diteke sorginkeria Birjaiotzaren argitasunean jaiotako landarea dala: Birjaiotzaren argitasunean; ez Erdi-Aroko "illunbeetan".

Sorgiñak sorgiñ, siniskeri oiek danak baiño okerragoa zan Inozentzio VIII'aren agintepetan Erroma'ko Elizak zeraman bidea.

Simonia (ots, Elizako karguak eta Jainkoari eta aninnei dagozkien gauza doneen salerosketa) izan genduan aitasantutza artako obenik larriena. Oro zan salgai Erroma'n. Edozer gauza erosi zitekean diruz, eta edozertarako bear zan dirua.

Aitasantua bera ere jausi zan oben ortara. Zer esanik ez bere inguruko jendea' Auen artean, agertu zan bulda faltsoak saltzen zituztenen talde bat ere. Asarretu zan Aitasantua, eta baituak izan ziran danak; eta bi, urkatuak!

Ez zuan kardenalekin orrelako kemenik izan. Era lotsagarrian bizi izan ziran auetatik asko, emakume eder, ardo garesti, eta jaki bikaiñen artean' Batez ere onako auetxek ibiUi zitzaizkigun lotsagarrienik: Sansoni Riario, Ascanio Sforza, Battista Orsini, Giovanni Battista Sabetelli, Giovanni Jacobo Sclafonati, Giovanni Balue, Federico Sanseverino, Giuliano della Rovere, eta Rodrigo Borxa'

Emakumeetaz mintzatu gabe, ona jendetxo aien bizieraren adigarriritxo bat:

Sansoni Riario kardenalaren etxean, 14.000 dukat urre galdu zituan gau batean, jokuan, Franceschetto Cibo Aitasantuaren seme zun eta lapurkeri-zaleak. 8'000 berriz, galdu zituan antxe bertan, beste gau batez, Balue Kardenalak' Millaka dukat oiek zenbait aiñako dirutza zan oartu zaitezen, xeetasun labur batzuk eman nai dizkizut:

—16 dukat irabazten zituan, "Sapienza" ikastetxe ospetsuan or-

duango jakintsurik garaienetako batek, Pomponio Leto'k: 16 dukat illeko.

—10, (amar dukat illeko), Batikan-Liburutegiko zuzendari izatearen sari, beste birjaiotzalari dizdiratsu batek: Platina'tar Bernabe'k: 10 dukat eta Bibliotekan bertan bizitzeko gela.

—2.000 dukat eman zizkion, ezkontzeko dote, Elisabete bere alabari Borxa'tar Errui Kardenal txit aberatsak.

—666, (seireun eta irurogei ta sei, illeko), zan Erroma'ko, agian munduko, sueldorik aundiena: Elizaren Laterrietako Jaurlaritzaren Lendakariaren saria. Ori irabazi zuan Errui Borxa berak, Aitasantu izan baiño len, kargu ura euki zuanean.

Ertigintzan, jakintsu eta ertilariek adiskide izan zan VIII Inozentzio ere, eta naiz IV Sixto'k aiñako leiarekin ez, jarraitu zituan arek asitako lan guztiak.

Orrela, urtetik urtera zijoan edertzen Erroma'ko uria Aitasantuen adoreari, eta diruari, eskerrak. Ta Erroma'z esaten duguna esan deza-kegu Elizaren Laterrietako uri eta erri guztietaz ere.

Jakintsuekingo adiskidetasunean jakin zuan neurritik ez pasatzen. Bere aitasantutzako denboran etorri zan Erroma'ra Giovanni Pico de la Mirãndola, gizazale ospetsua, "de omni re scibili", "jakindaithekan oroz", itzeko borrokara edozeiñi erronka egiñaz. Jardun-aldi artarako 45300 tesi edo esari aurkezten zituan'

Inozentzio VIII'ak zalantzarik gabe debekatu zuan jarduketa ura eta arrazoi osoz gaiñera, 45300 esari aietan, egi borobillen artean, kabela edo aztikerizko txolinkeri batzuk ere bai bait zeuden.

Margolarien artean, bere adiskiderik miñenak, Perugino, Pinturicchio, Mantegna, eta Filippo Lippi izan zituan.

Azkeneko urtean oso gaixo egon zan gure Aitasantu au. Eta bera bezain gaizki zegoan bere Uri Nagusia, Erroma, ere. "Erailketarik gabeko egunik ez dugu" idazten zuan Erroma bertatik Mantua'ko enbajadariak. Gaizki zegoan eliza ere: "Ez da sekulan, Elizaren edestian, oraiñ baiño pekatu ugariagorik, mardulagorik, maizkoagorik eta nabarmenagorik ikusi", deadar zegien kardenalei, Aitasantua il ondo-rean, konklabearen asierako itzaldia egin zuan goigotzaiak.


Egia. Baiña egia, baita're, ez zuala sekulan Elizak orduan baiño garbitasun eta santutasun-gurari aundiagorik bere erraietan seiki ~ sumatu'

Apika bazan Eliza-baitan, santutasun-egarri orrek kezkatzen eta arduratzen ez zuan kristaurik. Pekataririk gogorrenentzat ere ez zan,

"Elizaren Eraberritzea", zentzurik gabeko itza.

Baziran, bai noski, garbitasunerako ibilketa ortara bide okerretik sartzen ziranak. Ala Florentzi'n Sabonarola, izketa zuzen eta zintzoen artean izugarrizko ikaragarrikeriak agintzen zituzten profezi edo igarpenak pulpittuaren gaiñetik erronka lotsagabea jaurti oi zituan praille domingotarra.

Barkapena eskatuaz il zan Vill Inozentzio. Eta kardenalei, bera baiño Aitasantu egokiago bat, arren, aukeratzeko eskatuaz.



Mapa ontako Elizaren Laterriak

Iparretik Egora:

Parma:	Markak
Moderna	Castro
Bolonia	Erromaldea
Ferrara	Napoles'ko Erreinuaren barruan:
Romaña	Pontecorvo
Urbino	Benavento.
Perugia	

Frantzi'ko Erreñuaren barruan:

"le Conte Vennesin" edo Benis-Konterria, eta Avignon edo Abiñon, Konterri artako Uri Nagusia.

VI Alexander
(1492 • 1503)

Lotsarik gabe ibilli zan ostera dantzan simonia konklabearen al-tzoan. 200.000 dukat jarri zituan bankuan Frantzi'ko Erregeak, eta 100.000 Jenoba'ko Errepublikak konklabekideen izenera, Juliano de-lla Robere aitasantu egitearen truke. Ala ere ez zan au atera. Aurrene-ko lau egunetan ez zuan iñork bear aiña autarki bildu. Orduango le-gearen aginduz, bigaramonean, eta urrengo bi egunetan kardenalek ez zuten eguneko otordu bat besterik izango: eguerdiko bazkaria; eta iru egun geroago, ardoa, ogia eta ura bakarrik!!! Bosgarren egunean berealaxe aukeratu zuten Aitasantu berria: Errui Borxa, III Kalixto'ren illoba, Milan'go Koldobika Sforza "il Moro"k nai zuana. Autaketa au dirua-bitarte izan zanik ezin esan daiteke, punttu ortaz ezer ez dakigu-ta. Ez daiteke beraz simoni-dantza azkeneraifño eraman zanik ziurtasun- ez esan, Frantzi'ren eta Jenoba'ren dukat aiek ez bait zuten nai zute- nik lortu.

Jofre (Godofredo) Borxa eta Elisabete Borxa'ren semea zan Ro- drigo, eta Aragoi'ko Erreiñuan Balentzi'ko Jatiba'n jaioa. III Kalis- to'ren arreba zan bere ama. (Aita eta ama, naiz abizen berekoak, aideak ez ziran, edo, beintzat, os-oso aide txikiak ziran)'

Gazterik joan zan Erroma'ra, gure Errui, bere osabaren albora. Erroma'n gizazale edo "umanista" ospetsu bat izan zuan irakasle: Gaspar di Verona. Gero, Boloni'ko unibersitatean, legiztia ikasi zuan, orduan eliz-gizonen artean ain modakoa zan jakintza.

Osaba Aitasantutzara igo zanean, Kardenal egiña izan zan berea- la. 24 urteko mutil gaztea zan orduan. Urrengo urtean, Elizaren jaurla- ritzako kargurik aundiena eman zion Aitasantu osabak: "vice- cancellarius" izendatu zuan. Kargu ortan egon zan Aitasantu egiña izan arte; eta danak aitortzen dute, ago batez, kargu ortarako oso gi- zon trebea zala.

Izugarri aberatsa egin zan, kargu orren errentekin, eta III Kalisto'k II Pio'k, II Paul'ek, IV Sixto'k eta VIII Inozentzio'k eman zizkioten elizbarrutien errentekin. Aitasantu guztiek eskertu nai izan zioten ba Elizaren Jaurlaritzan egiten zuan lan egokia. Bazekiten maitekeritan naasia zebillela. Naaskeri orri, ordea, oso garrantzi txikia ematen zitzaion Birjaiotzakoan. Maitakeritan naasirik ibilli ziran errege eta aundikiak, Alemani'n, Frantzi'n, Itali'n, Españietan, eta Europa guztian. Baita gotzai eta kardenal asko ere!, printzipe eta aundikiak bezela bizi bait ziran auek. Eta zoritxarrez erriak ere printzipe lez geiago ikusten zituan eliz-gizon garai aiek apaiz edo jaupari lez baiño. Eta ez da arritzekoa. Kardenal, gotzai, eta abata aiek, ez bait ziran, asko eta asko, apaizak edo abatak. Gotzai, abata, edo kardenaI-tituloa besterik ez zuten!, eta agintzeko eskubidea!!, eta errentak jasotzekoa ere bai!!! Baiña apaiztasunik ez zuten. Ez bait ziran apaiz sagaratutako gizonak.

Ori kontuan euki bear duzun gauza da, orrelako gotzaiak orrenbete alaba edo alako kardenalak ainbeste seme izan zituala irakurtzen duzunean: gizon aiek apaiz-kontsagraziorik ez zutela; soilki, eleizgizon izan zitezten, aurreneko "tontsura" artzen zutela.

Gotzai, kardenaI, abata aietatik asko berrogeiren bat urtera iristen ziranean, apaiz egiten ziran; beste batzuk, "kleriko" izatez uzteko Aitasantuari baimena eskatuta, ezkondu egiten ziran' Eta aitortu bear dan gauza da apaiz egiten ziran aiek, bizi-modu garbia eramaten zutela andik aurrera' Askok eta askok, bizitza santua; beste batzuk ez ziran santu izango, baiña bai bizitza garbiko gizonak.

Izugarri aberatsa egin zala, esan dugu, Borxa'tar Errui Kardenala. Errez! Eliza'ren Laterrietako kargu dizdiratsu ortaz gaiñera, Mallorka'ko Gotzai bait zan; eta Kartajena'koa, Oporto'koa, ta Ungari'n dagoan Erlau'koa...; eta Lekaidetxe-pillo eder bateko Abata!.

Bazan oitura makur ori Birjaiotzakoan: Gotzai bakarrari, bata bestearengandik urruti, arras urruti, zeuden bi, iru, lau, edo bost elizbarruti emateko oitura, naiz gotzai ura elizbarruti aietara urbilduko ez zala, aurretik jende guztiak jakin. Orrela, asko ziran beiñere beren gotzairik ikusten ez zuten elizbarrutiak: Sekulan senarrik ikusten ez zuten emazte alargunak!

Gaitz aundiak ekarri zizkien ardiei artzaiak artaldeetatik urruti ibiltze orrek.

A! Ta Birjaiotzako gotzaiak zeñen oparo bizi ziran jakiteko, pentsa ezazu Errui Borxa Kardenala, ainbeste lekutako gotzai eta abata, eta Elizaren Jaurlaritzako lendakaria, ez zala Kristaudiko gotzairik

aberatsena. Bera baiño aberatsagoa omen zan Rouen'go Kardenal frantziarra.

Ez omen zan Errui gorpuzez ere nolanaiko gizona. Ona zer dion bere irakasle izandako Berona'ko Gaspar'ek: "Formosus est, laetissimo vultu, aspectuque locundo, lingua ornata atque melliflua, qui mulieres egregias visas ad amandum gratia allicit et mirum in modum concitat, plusquam magnetes ferrum".

Euskeraz:

"Gizaseme ederra da; aurpegiz txit alaia, itxuraz bizirot atsegiña; izkera goxokoa, ta apaiñekoa; topatzen dituan emakume guztiak maitemintzen ditu, ta, era miresgarrian, burnibiziak burniapurrak baiño bortizkiago bereganatzen ditu".

Zazpi seme-alaba izan zituan Rodrigo Borja Kardenalak. (Ez dugu zertaz arritu Berona'ko Gaspar'ek idatzi ziguna irakurri ondorean). Auexek izan ziran Kardenal Borxa'tarraren umeak:

Aurrenekoa, Pedro Luis, neskatil batengandik sortua. Gandia'ko Duke egin zuan Fernando Katolikoak, Granada'ko gudatean ondo lagundu ziolako. Gaiñera, Erregeak, bere lengusu bat eskeiñi zion andregaitzat: Maria Enriquez. Gazterik il zan ordea Pedro Luis Borxa-ta, egin gabe gelditu zan ezkontza ura.

Bigarrena, Jeronima, oparo ezkondu zuan aitak, amabi urteko neskatoa zala' Amalau urtekin zan neskato gaixoa. Bere ama nor izan zan ez da jakin.

—Isabel izan zuan irugarrena. Ume zala ezkondu zuan au ere. 2.000 dukateko dotea eman zion! Ez dugu onen amarik ere ezagutzen.

Beste lauak Vantzza da Catanei zeritzan andre batengandik jaio zitzaizkion. Ezkondua zan oraindik Vanozza aurreneko semea eman zionean.

—Vanozza'ren aurreneko seme ori, Zesar izan zan, ospe aundiko printzipea izatera iritxi zan gizasemea.

Zazpi urteko muttikoa zanean "protonotarius apostolicus" egin zuan IV Sixto'k. Amasei urte bete zituanean, gure Iruña'ko Gotzal egin zuan berriz, VIII Inozentzio'k. Urrengo urtean, mutillak oraindik 17 urte besterik ez zituala Balentzi'ko Goigotzai izendatu zuan bere aitak, Kepa Deunaren Aulkira igo bezain laister; eta 18'rekin, ikardenall. Pisa'ko Unibersitatean egin zituan Zesar'ek bere ikasketak, eta txit argia izan zan, eta jakitez ongi jantzia.

Juan. Alarguna zan Vanozza, ume au, eta urrengo biak, erditu zituanean. Jon, Gandia'ko Duke izendatua izan zan, Pedro Luis bere

anaia il zanean, eta aren andregalarekin, Maria'rekin, ezkondu zan. Era txarrean galdu zuan bizia, 144536'garren urtean. Erroma'ra iritxi berria zan egun artan, 'aitak deituta, Aitasantuaren gudarozteen "gonfaloniero" edo "Buruzagi Nagusi" izateko. Zesar'ekin batera, Vanozza amarekin apaldu ondorean, etxerakoan, Zesar'eri agur egin ondorean, aitzoz erail zuan norbaitek.

Egun batzuk geroago Tiber ibaietik aterea izan zan bere gorputza. Eztarria erdiebakirik omen zeukan eta soin guzia zauriz betea. Ez da jakin eriotz aren zioa: maitakerizko auziren bat? Orsinitarren apentza? Zesar anaiaren bekaizkeria? Ez; au beintzat ez dirudi egia izan daitekeanik.

—Jofre. Santxa Aragón, Napoles'ko II Alfontso'ren sasialabarekin ezkondua' Esquilache'ko Printzipe egin zuan eztaietakoan bere aitag iarre bak.

—Lucrecia. 13 urte bete bezain laister, Jon Sforza Pesaro'ko Jau-narekin ezkondu zuan Alesander VI'ak. Baiña ezkontza ura balio gabea izan zan, senarra "impotens" edo ziztor zalako. Bereala ezkondu zuten Napoles'ko II Alfontso'ren sasiseme batekin' Urte bete baiño len aitzoz il zioten, —orsinitarrek?—, senar berri au, eta beragandik izandako semetxo batekin gelditu zan, 1453 urterekin alargun, andre gazte polit ura' Andik iru urte Alfontso Este, Urbino'ko Dukearen semea, eman zion aitag senartzat'

Oso gaizki itzegin oi da emakume oni buruz. Baiña uka ez daiteken egia auxe da: esamesa oietatik ez dala bat bakarrik ere, benetako arrazoez oiñarritu daitekeanik.

Birjaiotzako alaba zalarik, egia da Erroma'n beste bere adiskide eta lagunek bezela, emakumetxo ariña izan zala. Baiña Ferrara'ko dukesa lez, zintzo ibilli zan eta andre eder bezain on eta jakintsu bezain eraspentsutzat gorai patzen dute orduango ertilari guztiek. Gaztele-raz, italieraz, frantzeraz, lateraz, eta eleneraz mintzaten zan andrea, 3453 urterekin il zan. Bi seme utzi zituan: Ferrara'ko Erkules II'a eta ipolito Este, izen-abizen bereko bigarren Kardenala'

Ez zan Lukrezi'ren eriotzakoan gorrotoa ixilik gelditu. Bi bertso auek agertu ziran aren illobi-gaiñean:

-w\
"Conditur hoc tunulo Lucretia nomine sed re
Thais, Alexandri filia, sponsa, nurus"

Euskeraz:

"Obi ontan datza... Lukrezi izenez; baiña, izatez,
Thais, Alexander'en alaba, ematea eta erraiña".

Lukrezi baiño geiago, aren aita, Alexander Borxa'tarra iraindu nai zuten bertso auk. Daramaten pozola osoosoan ulertu aal dezazun, oroi antziñako Erroma-Inperio zaarrean, Lucretia, zinzotasunez eta garbitasunez! bere izena goresgarri egin_zuan Andre ospetsu bat izan zala; Thais, berriz, IV mendian Ejipto'k 4magaldu zaratatsu bat, bere gurasoek ber-berek lizunkerira jaurtia, gero damaturik, penitenzi aundiak egiñaz donetasunera iritxi zana eta gaur aldareetan dagoana: Santa Thais. Orregaitik, Thais gogoratzean Lukrezi'ren aita, Alexander adierazi nai digute bertso aiek, eta aitaizan zala alaba gaiztotu zuana. Okerrago oraindik: Alabari erraiña daitzean, onen senarra ere Alexander'en semea zala pentsaarazi, eta seme-alabak alkarrekin ezkondu zituala aitak, oiukatu. Gezurra, guzia!

Bertso aien ez-ezagunari Itali'ko olerkaririk aundienak erantzun zion, Koaobika Ariosto'k, euskeratzerik bear ez duten bertso bikaiñ ulert-errez auen bidez:

"Lucrezia Borgia di cui d'ora in ora
la belta, la la fama honesta
et la fortuna crescerà, non meno
che giovin pianta in mrbido terreno"

Errui Borxa Kardenala, Aitasantu izatera iritxi baiño len bereizirik zegoan Cattanei'ko Vanozza'rengandik. Au arekin bizitzea utzi zuanez gero, iru aldiz ezkondu zan, kristauki, eta il ere kristauki il zitzai-gun zartzaro ederrean.

* * *

Errui'ren umeen artean Zesar izan zan ospetsuena. Gauza gogorak esan dira bere, aurka, baiña zailla da zentzuzko edestilari zintzo batentzat gauza oiek egiztatzea. !Ainbeste gezur esan ziran edonoren aurka", gezurra, edena, aiztoa eta azpikeria ain arinki erabilli oi ziran Birjaiotza-aro naasi artan!

Oso aberatsa egin zan Zesar, Aitasantuak eman zizkion elizbarruti eta abatagoen errentekin. Subdiakono izatetik ez zan sekulan pasa. Ez zan beraz apaiz beiñere ordenatu. Alare, Diakonotxiki zalarik, elizgizona zan: "clericus", laterz esaten danez.

Baiña ez zitzaigun Zesar urduria jauparitzarako jaio. Bere leia guztiek gudarozte garaileen buruzagi izatera bultzatzen zuten. Leialki jokatu zuan kardenaI gazte arek. Guda-gizon biurtzeko, leenik bere Elizako kargu guztiak laga zituan. Ez zuan ori egin bearrik garai artan oitura bait zan, ta oitura arrats zarra gaiñera, gotzai ta kardenalak gudarisaillen buruzagi bezela gudarien aitzinean burrukaldietan sartzea. Beste aldetik, kargu aiek dirutza neurrigabeak sortzen zizkieten, eta ez ziran gaiñera bizitza alai arduragabea eramateko eta emakumeekin na' spildurik lizunkerian bizitzeko eragozpen, gauza auek ez bait zuten orduan iñor arritzen' Ez zuan noski egun aietan beste iñortxok berak eman zuan urratsik emango' Bazuan nonbait Zesar'ek zuzentasunaren ta egokitasunaren susmoa' Merezi du aipamen eskertua.

Askatu zizkion Alexander VI'ak Elizarekin zituan lokarri guztiak. Asko sentittu omen zuten Aitasantuak eta Kardenal lagunek Zesar'ek artutako erabaki ori, gizon atsegiña bait zan, baiña, dakusgunez, besteak baiño kontzientzi geiagokoa ere bazan.

Ez da leku ontarako bere gerrateetako bizitza. Aipa dezagun ortan ere egin ziola serbitzu Elizari, aitasantuen Laterrietara pakea ekarri bait zuan bertako jauntxo feudolari berritsuak menperatuaz.

Euskalerruari ezkontzaz lotua egon zan eta Euskalerriko Laterririk aundienaren alde gudan zebilela ixuri zuan bere odola, Karlote Albret Napparroa'ko Jon Erregearen arrebarekin ezkondua bait zegoan.

VI Alexander il zanean gaixorik zegoan Zesar, eta orregaitik ez zuan arekin borrokan ibilli bearrik izan Julio 11 Aitasantu berri Borxata-rraren etsai porrokatuak. Zesar'ek berak ere, edo aitasantuaren aurka borrokan ibilli nai ez zualako, edo gaitzak jota, borrokan ibiltzeko gai ez zalako, abegi onez artu zuan 11 Julio'ren agintea eta egin zituan berekin pakeak.

Arrisku orotik iges egitearren Napoles'era joan zan, baiña Ferna-

do Katolikuak andik aterata Medina'ko gazteluan espetxeratu zuan. Laister alde egin zion espetxetik Zesar gazteak Naparroara joateko.

Bildurtu zan II Julio, ta bazuan bildurtzeko arrazoirik naiko, izugarriko etsaia izan bait zezakean Zesar Borxa gudaketaroko zuen trebetasunagaitik eta elizaren Laterrietako jendeak zion maitasunagaitik' Eritszak ekarri zion lasaitasuna; Zesar'en eriotzak.

Naparro'ko gudarozteen burugazi bezela Biena'n zegoan, eta uri orren landetan il zan gizonki Naparro'ko errege Jon'en etsaien aurka borrokan. Ogei ta amaika urte besterik ez zituan.

—Beste Borxatar bat ere jaso zuan Alesander VI'ak kardenaltzara: illoba zuan Jon Borxa, Monreale'ko Goigotzaia.

Gaiñerako sendikojendeei ere doai ta mesede aundiak egin zizkien, Aitasantu onen obenik aundienetako bat sendizalekeria izan bait zan.

—Aulki Donera iristerakoan bazeramazkian amabi urte Vanozza maitalearengandik aldendurik. Ez zan geron•tzean santuki bizitu; bizi-modu mundukoiairen maitale jarraitu zuan; ikusgarriak ziran ematen zituan pestak; Itali'ko printziperik aberatsena baiño aberaskiango bizi zan; Erroma'n antolatu oi zituan dantzaldi eder aiek baiño jai dizdiratsuagorik ez zan Kristaudi osoan...; baiña Vanozza utzi zuan ezkerro, ez zan Rodrigo Borxa aragikerizko obenean jausi"! dirudianez beintzat'

Itzegin bai, asko itzegin zan Erroma'n bertan batez ere, Borxa Aitasantuaren aurka Giulia Farnese gaztea beti Aitasantuaren jauregian ikusten zalako. Txit andrazko polita omen zan au. "Giulia la Bella" esaten zion Erroman jendeak. IV Alexander'en illoba baten semearekin ezkondua zegoan. Oso gazte zala ezkondu zan Batikan-Juaregian; Ordurako zarra zan Alexander; neskato aren aitona errez izan zitekean. Ta billoba bat bezela maite izan zuala, dirudi.

Alatagutziz Andre gazte ura, ¿egiaz izan ote zan Aitasantuaren maitale? "Concubina Papae", deitu zion Burckard'ek eguneroko baten modura Batikan-Jauregian bertan idatzi zuan "Liber Notarum" izeneko liburuan' Baiña Burckard'ek ez digu esaten zergaitik orrela deitu zion. ,Erriaren esamesa jaso besterik egiten ez zualako?

Errui Borxa'k Aulki Donean bost urte zeramazkianean, Borxatto bat jaio zan Erroma'n. "Infans Romanus", ots, "Erroma'ko ninia", izen ipiñi zion erri zirikalariak. "Erroma'ko nini" ori, Jon Borxa, gero gizon egiñik, Nepi'ko Duke izatera iritxi zitzaiguna, Zesar Borxa'ren sasikume bat dugu seguruaski, ia ziurki. Baiña ori, ziur-ziur ezin esan deza-kegun gauza da. Aitasantuaren Seme izan ote zan ba "nini erromata-

rra"?' Ez, noski. Ez dirudi beintzat' Arrazoi danak ezezkoaren alde da-
goz.

Esan leikeala, beraz, uste dugu, IV Alexander lizunkiretik garbi
ibilli zala bere aitasantutzan. "Uste dugu"; Aitasantuaren griñak nola-
koak ziran jakinda, lizunkeritik garbi ibilli zala, ziur esaterik ez bait
daukagu. Gaiñera, lizunkeria baiño oben aundiagoa da simonia; eta
ez zan simonitik garbi ibilli Alexander IV Aitasantua.

* *

Bere asmo sendoa Elizaren Laterrien aunditasuna eta sendota-
suna izan zan. Eta baita Itali osoko Laterri guztiena ere, ortarako atze-
rritar danak Itali'tik at eukiaz.

Ikus dezagun, atalka, Alexander Vvaren politikagintza:

—Bazan Elizaren Laterrien altzoan oitura oker bat. Bertako uriak
Jaun erdi-feudatarrien eskuetan ipintzea. Aitasantuei ongi etortzen zi-
tzaien oitura ori bere illoba eta adiskideak aunditzeko. Baiña Jaun
oiek eragozpen aundia ziran Aitasantu Erregeak bere Erreiñuan iareki
agindu aal izateko.

Alexander VI'a Aitasantu egiña izan zanean, Franceschetto Cibo,
Inozentzio VIII'aren semea zan bi uri aietakoen Jauna, eta Birxinio Or-
sini'ri saldu zion, Alejandro VI'aren baimenik gabe, bi uri aien Jaun-
tza. Juliano della Rovere Kardenalaren jauregian egin zan saleroske-
ta.

Il arte etsai amorratu izango ditu Alexander VI'ak Della Rovere,
Savelli, Orsini eta Colonna sendiak. Azkeneko bi sendi auek beti izan
ziran bata bestearen arerio. Borxatarren aurka joateko egin zituzten
ain zuzen alkarrekin pakeak.

Asarretu zan Aitasantua. Eta Erroma-barrengo bere etsai guztiak
Napolen'ko Fernando I zaarrarekin alkaturik zeudela bai bait zekian,
Milan'ekin eta Benezi'rekin alkartu zan bera, ta, naiz agirian esan ez,
baita bi Laterri aien atzean zegoan Frantzi'ko Karlos VIII Errege gaz-
tearekin ere'

Ikaratu zan Napolen'ko I Fernando, Frantzi'ko Erregea ango erre-
geek oi zuten lez Napolen arrapatu naiean asiko ote zan bildurrez. Eta
ikaratu zan I Fernando'rekin alkaturik zegoan Pietro Medizi, Floren-
tzi'ko Lendakari berria ere.

—Erroma'tik, Orsinitarrak eta Kolonnatarrak, eta Juliano della
Revere'k batez ere, Aitasantuaren aurka gudan asteko eskatzen zio-

ten I Fernando'ri. Onek ordeak, diplomaziaren bidea artu zuan, eta...iAitasantuarekin adiskidetasuna berritu! Errez etorri zitaion Aitasantua bere asmoak onartzera, ordurako adierazi bai zuan Españrtik Fernando Katoliko gazteak, Frantzi Itali'n satzen ba'zan, berealaxe sartuko zala bera ere Napoles'ko Fernando zarraren alde.

Orsini, Colonna, Savelli, Della Rovere, ete beste etsai guztiak ere, Erroma'n Aitasantuarekin pakeak egitera bearturik aurkitu ziran' Abegi onez artu zituan onek; Alexander VI'a bere etsai eta arerio guztiakin izugarri liberala, osoosoan biotz zabala, izan bait zan beti.

Par egiten zuan, jendeak bere aurka itzegiten zuala esaten ziotenean, eta, "noren aurka ez du jendeak itzegiten"?, erantzuten zuan'

Bein, Elizaren Laterrietako gudaroztearen burugazi nagusia, Zesar seme maitea, aurkeztu zitaion jendeak bere aurka izugarrikeriak esaten zitalako asarre, eta zigorra eskatuaz.

"Zure aurka, Zesar? Baita nere aurka ere! —iardetsi zion Alexander VI'ak—. Ez dio ajolik. Erroma'n, seme, askatasuna badugu; egiazko askatasuna; eta jendeak badu zutzaz eta nitzaz itzegiteko eskubi-dea"

—Fernando I'a zaararekin pakea egin ondoren, alkaturik gelditu ziran Napoles, Erroma, Florentzi, eta Milan; bazirudian berbiztua zala V Nikolas'ek osatutako "Liga Italica" edo "Italiar-Alkarte" ura. Baiñan...

Ludovico "il Moro", Milan'go Jauna, —Napoles'ko Fernando zarraren arerio bait zan—, Frantzi'ko Erregeari oska zegoan.

Alejandro aitasantuak maiz idatzi zion, —Milan'go Jaun orri—, Frantzi'ko Erregea Itali'ra ez ekartzeko arren eskatuaz. "VIII Karlos ez da Napoles utsarekin geldituko. Itali guztia naiko du; eta zuk zerorrek ere aren morroi izan bearko duzu", izan oi zan arekingo Alejandro'ren arrazoiketa.

Bereala asi zitzaizkion Aitasantuari barrengo etsaiak borrokarako prestatzen' Juliano della Rovere izan zan Frantzi'ra iges egiten aurrenekoa, eta Aitasantuari guduan ekiteko eskatu zion VIII Karlos'eri, batere lotsarik gabe'

Laister jarraitu zion atzetik Colonna'k, Napoles'ko Erregeari judaskeri zikin bat egiñaz, Errege onen serbitzura bait zegoan "condottiero" lez ordurarte.

—144534'ean asi zuan guda VIII Karlos'ek Saboia'n sartuaz. "Kontzilio Orokor" baten eskaria egiñaz zetorren. Aitasantua epaitzeko eta Aulki Donetik botatzeko egin nai zuan Kontzilio Orokor ori.

Napoles'ko Erregearekin alkartu zituan VI Alexander'ek bere indarrak Florentzi babesteko. II Alfontso, Fernando Iaren semea, zan orain Napoles'ko Erregea.

Florentzi'ko Kepa Medizitarrek, ordea, ez zien Alfontso'ren eta Alexander'en gudaroztei itxaron. Karlos VIII'a urbildu zan bezain laister iriki zizkion uriaren atea.

Eta Karlos Florentzrn sartu zala entzun zuten unean jeiki ziran Alexander Vraren aurka Sabelitar eta Kolonnatarrek. Ostia deritzan uria artu zioten indarrez, eta Frantzi'ko ikurriña an zabaldu.

Napoles'tik II Alfontso'k Milan'go Dukearen eta Frantzi'ko Erregearen aurka exkomika eskatzen zion Aitasantuari. Alexander VI'ak ordea, zuurki jokatu zuan, eta ez zion, ezpatarekin zetorrenari, exkomikarekin erantzun nai izan.

Ezpataz datorrenari ezpataz erantzun bear zaio ez exkomikaren bidez' Egon zan zalantzan Alexander ezpata erabilli edo ez erabilli pentsatzen, baiña azkenean borrokarik gabe errenditzea arazo artan egokiagoa zala iruditu zitzaion. Eta Frantzi'ko Karlos VIII'ari Erroma'ko atea irikitzeko agindu ondorean Sant'Angelo'ko gazteluan itxi zan bera. Karlos'en artilleria, ordea, Europa'ko artilleririk onena zan-da, an ere errenditu bearrean aurkitu zan Aitasantua.

Eta Karlos'ekin itunben labur bat egin zuan: Aitasantua'k Erregeari, Civitavecchia'ko kaia ematen zion itun ortan, eta, gudaroztea ibilli izateko, Elizaren Laterrietako bideak iare uzten zizkion. Erregeak Aitasantuari eraspen osoa, obedientzi apala, eta babes ziuerra eskeintzen zizkion.

Bere eskeintza, bigaramonean egiztatu zuan Karlos VIII'ak, Alexander Vraren oiñetan jende guztiaren aurrean iru aldiz belaunikatuaz.

Karlos'en artilleria baiño emankorragoa gertatu zan Alexander'en diplomazia, eta asarre gelditu ziran Erroma'n Borxatarren areio guztiak.

—Ustel ibilli zan Alfontso Ira. Napoles'ko buruntza seme zuan Fernando II gaztearen eskuetan utzita aragoitarrena zan Sizili'ra iges egin bait zuan.

Il Fernando edo Ferrantino gazteak berak ere !iges egin zuan Napoles'ko uritik! Eta an sartu zan garaille VIII Karlos. Berekin zeramatzian baiturik Zesar Borxa eta Xen printzipe turkitarra. An il zan printzipe au.

—Aspalditik agindurik zeukan Karlos VII'ak kristuak salbatzeko turkitarren aurka gudan ekiten, ta Napoles'ko Jaurerria irabazi bezain laister asi zan gurutze-gudan pentsatzen. Kristau zintzoaz gaiñera, aski "erdiarotarra" zan ba Errege gazte ura: XII eta XIII mendeetako zaldun aiek bezain ameslari aundia, bere ezpataz kristaudi osoa iaretuta Errege altsu betigaraille izatearen zalea.

Eman zuan Alexander VI'ak gurutze-guda artarako bulda.

Itali'ko egoaldearen giroa gozoa izaki ordea ta, Napoles'ko biziera legunean laister aztu zitzaizkion Errege gazteari kristaudia gaizkatzeko asmoak eta bere burua ospetsu egiteko zaletasunak' Gurutzegudaz zearo aantzirik, Napoles'en jarraitu zuan, lasai, bertako atsedeen goxoa gozatuaz.

Ez zeuden Napoles'en asarre Karlos'en gudariak ere. Baiña an ondatu zan Frantzi'ko gudarozte pinpiriñ ura, lizunkerian murgildurik, izurri berri baten mendera jausi bait zan: sifilis edo buba esan oi zaion izurriaren mendera.

Leen ere bazan buba Europa'ko lurraldeetan, baiña txit urria eta oso bakana zalako, ez-ezaguna zala ere esan daiteke. Orregaitik izutu zan ainbeste jendea, orain Napoles'en ain era bildurgarrian izurri ez-ezagun berri ura iñork uste gabe sortu zanean. Gero Frantzi'ra itzultzerakoan, Itali guzira zabaldu zuten frantziarrek gaitz makur ura. Itali'tik, laister edatu zan Europa osora, eta erregeetaraiño eta jaun aundiataraiño iritxi ere iritxi zan. Baita elizgizonetaraiño ere. Bubaz jota ibilli zitzaizkigun Askanio Sforza, Juliano della Rovere, eta Zesar Borxa Kardenalak.

Gaitz ura frantziarrek ekarri zutelaren ustean, "morbo gallico", "frantzigaitza", izen-ipiñi zion jendeak. Frantziarrek ordea, izurri ura Itali'n arrapatu zutela uste zutelako, "itali-gaitza" deitu zioten bubari'

Itali'aren Egoan frantziarrek bubaren aurka borroka latzean ziar-duten artean, asko aldatu zan Erroma'n politikaren giroa.

Irten zan Itali'tik Karlos VIII'a' Begi zorrotzez ikusi zuan orduan Alexander VI'ak, arrezkero Españi'ko Errege altsuen adiskidesuna bear-bearrezkoa izango zitzaiola, éta naiz atzerritarren maitale izan ez, adiskidetasun ura sendotzeko "katoliko" izengoitia erabilli aal izateko eskubidea eman zien Aragoi'ko Fernando'ri eta Gaztela'ko Elisabet'e'ri.

Bi arrazoi zituala, esan zion Alexander berak Ferrara'ko Dukate-riaren enbaxadariari, atzerritarrek Itali'tik urrutu euki nai izateko:

A) —. "Aitasantutzaren askatasuna". Itall'n Errege bizkor bat na-

gusi gertatuko balitz Aitasantua Errege aren kapillau biurtzeko arris-
kuan aurkituko omen litzake

B)—. "Itali'ko Laterri guztien askatasuna". "Itali italiarren eskue-
tan" egon bear zuala uste omen zuan ba zalantzarik gabe'

Ori dala-ta ez omen zuan nai Itali'n ez Frantzi'ko ez Españi'ko
Erregerik' Ezta Alemani'ko Inperatorerik ere.

Alexander VI'ari dagokio beraz II Julio'ri erasten zaion "Fuori i
Barbari" oiu abertzalea. "Fuori i barbari"!, "Kanpora atzerritarrak"!

Maiz esan oi zion edozeiñi Alexander VI'ak "italiarra zala bera
biotzez eta buruz, naiz jaiotzez aragoitarra izan": "Itali'k eman dit nai-
zen guztia eta dedan guztia". "Itali'ri zor diot dana"! Ez zioten erroma-
tarrek sinistu.

Atzerritarra zan oro erabilli oi zuten gorroto eta iseka txatxu ber-
beraz erabilli zuten Alexander Aitasantuaren izena ere. Atzerritarra za-
lako!

Ain zuzen, dokumentuetako oiñarririk gabe Alexander'en aurka
esan ziran eta gero idatzirik gelditu ziran litxerkeri guztiak, atzerrita-
rrenganako erromatarren eziñikusi artan dute egiazko iturburua.

Oso gaizki itzegin zuten len eromatarrek III Kalixto'ren aurka.
Eta, Kalixto, Aitasantu ona izan zan. Baiña atzerritarra! Aragoi'koa!'

Oso gaizki itzegin zuten geroago ere Adrian Vraren aurka; Eta, VI
Adrian ere, oso Aitasantu ona, Elizak izan duan onenetakoa izan zan.
Atzerritarra bait zan ordea! Olanda'koa!

* * *

VIII Karlos il zanean, XII Koldobika'k artu zuan Frantzi'ko errege-
tza. Eta Frantzi'ko Errege guztiek bezela, sentittu zuan berak ere Itali
menderatzeko gogo bizia.

144538'an, Koldobika'k burun'tza jantzi zuan urte berean, kardenal-
tza utzi-berria zuan Zesar bere semea bidali zion Alexander VI'ak en-
baxadari.

Erregerik aundienari egin zezaoikean arrera egin zion Koldo-
bika'k. Eta, ez noski arrazoirik gabe. Berak itxaro zezakean doairik
aundiena bait zeramakion Zesar'ek Aitasantuarengandik: Valois'tar
Jone'rekin egiñik zeukan ezkontza baliogabea zala erabakitzen zuan
epai-itza.

Bere naimenaren aurka ezkondu zala eta ezkontza ura osotasu-
nera eramana izan gabea zala, zion erregeak. Eta bere naimenaren

aurka ezkondu zala sinistaarazteko, Jone gaixoaren itxusitasuna aurkezten zuan argumentu nagusi lez. XI Koldobika Erregeak beartu omen zuan ezkontza artara'

Erregeak ziona egia zan edo ez epaitzeko Aitasantuak eraturako epaimaiak, egiazkotzat euki zituan erregearen arrazoiak, eta epaiketa orren araura, baliorik-gabekotzat erabaki zuan Aitasantuak ezkontza ura, eta iare gelditu ziran Erregea eta Erregiña. Erregea Itali'rako gudu-ibillaldia gertutzeko; Erregiña, donetasunerako bideari osoan ekiteko'

Andre itxusia izango zan, bearbada, Jone Valoistarra; baiñan bazan benetan emakume ona eta zintzoa, otoizlari zugarra, eta karitate-egille eskuzabala. Karitategintzarako sortu zituan ain zuzen Paula'ko Frantzisko Donearen laguntzarekin "Anuntziata"ko lekaimeak. Aurgiz ez polita, baiña bai animaz ederra, aldareetan agurtzen dugu gaur Jone Valois Donea.

Koldobika XII'aren adiskide maite eta aolkulari nagusiarentzat ere bazeramakian Zesar'ek Aitasantuaren doai bereizi bat: kardenaitza: Amboise'ko Gorka'rentzat: Kardenaltza!

Paris'en enbaxadari zegoala ezkondu zitzaigun Zesar, Albret edo Labrit'eko Karlote'rekin. Napparoa'ko Printzesa zan Karlote. Kataliñ Napparoa'ko Erregiñarekin ezkontuta zegoan Jon'en arreba'

Ez zuan Zesar'ek eztaiondo luzeegirik izan. Bereala sartu bait zan XII Koldobika itali'ra gudaketan Benezi'rekin alkartuta. Iru kardenai zekarzkian berekin Erregeak: Gorka Amboise lenen ministroa, ordurako kardenai izatea utzi zuan zesar Borxa embaxadaria, eta oraindik kardenal eta laister Aitasantu izanen zan Juliano della Rovere, borxatarren etsai beroa.

Frantzi'tik irten-aurretik Valentinois'ko Duke egin zuan XII Koldobika Erregeak Zesar Borxa'tarra, Aitasantuaren naimen ona irabazteko. Bein Itali'n, Fernando Katolikoarekin alkartu zan, bien artean Napoles'ko Jaurerria zatitzeko asmotan. Ez zitzaion gaizki iruditu Alexander VI'ari zatiketa ori. Koldobika'ren adiskidetasuna bere seme maite Zesar'entzat onugarria izango zala idurutzen zitzaiolako, bainoski; baiña baita ere, Itali'n baten ordez bi errege aundi sartzearekin, alkarrenganako bildurrak bien indarra aulduko zuala uste zualako ere, orrela Laterri italiarren askatasuna zerbait ziurrago-edo biurtuaz. Berak bakarrik gaiñera, —Alexander Aitasantuak bakarrik—, ez bait zuan bi Errege aiek Itali'tik uxatzea pentsazten asteko ere indarririk!

Napoles'ko gudaketa amaitu bezain laister ekin zion Zesar'ek

leen asirik zeukan Elizaren Laterriak zearo Aitasantuaren mendera ipintzeko lanari. Frantzi'ko Errege adiskidearen laguntzarekin errez menderatu zituan Laterri aietako jauntxo erdifeudalari aiek danak. Ekin zion Florentzi'ri ere, Errepublikak onek jauntxo aietako bateri lagundu ziolako. Ikaratu ziran florentziarrak, eta 108.000 dukat emanaz erosi zuten beren askatasuna. Arrazoi beragaitik artu zituan mendean Zesar'ek Piombino'ko Laterri txikia eta onena zan Elba-ugartea.

Bere esker ona agertzearren, Romaha'ko Duke egin zuan Aitasantuak. Ospe guztien gaillurrera jaso aurkitzen zan orduantxe Zesar Borxa'tarra; eta doñu ederreko izengoiti auekin apaintzen zuan dokumentatuetan bere izen dizdiratsua: "Adria'ko Printzipea; Romaha'ko Dukea; Valentinois'ko Dukea; Urbino'ko Dukea; Piombino'ko Jauna; eta Elizaren Laterrietako gudarozteen Buruzagi Nagusia"

Titulo oietan danetan, "Romaha'ko Duke"arena zan Elizarentzat arriskutsuena. Elizaren Laterrietako bat bait zan Romaña. Ez ote zuan ikusten Alexander VI'ak, lengo jauhtxo koxkor aiek kenduta, aien orde bestea Jaun altsu bakar bat ipintzen zuala Elizaren Laterrietan? Bai ote zuan Zesar'ek, Alexander bere aita iI ondorean, bai ote zuan bere Dukaterri artan Aitasantuen esanera jarraitzeko asmo sendo zintzorik?.

Alexander'en eriotzak, eta eriotz ori gertatzerakoan Zesar bera oso gaixo egon izateak, erantzunik gabe utzi zikiguten galderatxo auk.

Alexander VI'a ez zan sekulan guda-zalea izan. Altagutziz, turkitarren aurrerapenek artara beartuta, egin zuan berak ere gurutze-gudarako deia; 1.500'ean. Ez zan gur e-gudarik sortu' Ez zuekaten ba Europa'ko agintariak ekintza onturre-gabe artarako gogorik.

Españi'k eta Benezi'k bakarrik erantzun zioten Aitasantuari: erantzun laburra; baiña bi Laterri aietako ontzi-sail batek kendu zien turkitarrei Adriatik-itxaso'ko ugarte txiki bat' Laister, ostera, galdu zan ugarte!

Gurutze-guda, erlijiozko arazoa da. Erljioa gauzarik baliotsuena lez maitatzea eskatzen duan arazoa. Birjaiotza'ko erregeek ordea, mundu ontako onturrea zuten bereiziki maite' Mundu au eta mundu ontako aberastasunak zituzten maite. Gurutze-gudak, alderantziz, beste mundua eta beste munduko gauzak geiago maitatzea eskatzen du batez ere.

Ez ote zuten ori ikusten orduango Aitasantuek? Politikarako ain

begi zorrotzeko Ziran Aitasantu aiek, ez ote zuten ikusten gurutze-guduen aroa pasea zala? Bai noski. Baiña alatagutziz, zerbait egin nai zuten turkitarren erasotik Kristaudia salbatzeko, ta orregaitik jarraitzen zuten kristau-jendeari gurutze-gudarako deika.

Ez zuan VI Alexander Borxa'tarrak kristautasuna izkilluz bakarrik babestu.

—Erejiaren aurka, zintzo lan egin zigun. Boemi'n eta Morabi'n bategi ere; eta Itali'ko Iparraldean' Utrakisten ixkamillaz baliaturik an bait zebiltzan leiatsuenik erejeak.

—Kauskas-Mendien egoaldera dagoan Georgi zarreko Eliz Ortodoxiarra Erroma'ko Elizaren altxora erakartzen ere poliki saiatu zan.

Berak utzi zigun argi betirako, kristautasunari dagokion atalik garrantzitsuenetako bat: Ortodoxiarrek ematen duten bataioa, egiazko bataioa dala zalantzarik gabe: balio osoa duana.

—Alexander VI'ak bidali zuan Groelandi'ko Ugartera Gotzai bat. Oroigarria dugu Groelandi'ko Elizaren edestia.

II Olaf, Noruega'ko Erregeak kristautu omen zuan ugarte aundi ura XI mendean. Gero, XV'ean, eskimal itxas-lapur sasijainko-gurtzaillek ezabatu zuten, ia osoki, Eliz gazte ura. Bizirik gelditu ziran kristauek, V Nikolas'eri egin zioten dei, apaizak, eta gotzai bat, eskatuaz' Ez omen zeukaten ba,— ikus jende aren sinismen sendoa—, ez omen zeukaten mezarik, eta mezarik ez izatean, "azkena euskaristia egiteko erabili ziran aldare-oialak" gurtuaz gordetzen omen zuten beren sinismena. Geldi ibiltzen ordea Elizako gauzak! Geldiegi ere bai, askotan. Orrela, ogeitamar urte geroago, VIII Inozentzio'k sagaratu zuan Groelandi'rako Gotzaia: Matias izeneko beneditar bat. Eta au bera bidali zien groelanditarrei gotzai IV Alexander'ek.

—Amerika portugaldarren eta españiarren artean zatitzeak egin zuan edestiaren arloan ezaguna VI Alexander'en izena. Zatiketa ori Españietako bi Erregeek eskatu zioten, bizirik bait zegoan oraindik erregeen ber-beren buruan ere, erdiaroko teokrazia: Aitasantua Jainkoaren ordezkari dalako mundu osoaren Errege Nagusi ere badalaren ustea.

Uste o'yan araura ikusi aal izan dugu lentxeago V Nikolas España eta Portugal en artean Afrika zatitzen. Andik urte batzuetara, III Kalixto'k eta Sixto'k eman zizkieten portugaldarrei Afrika'ren Egoaldetik "usque ad indos", "inditarretaraiño", aurki zitezkean lurralde guztiak.

Ameriketaren erdibitzea, 143453'ko "Inter Caetera" Buldaren bidez egin zuan VI Alexander'ek. Azoreetatik eun leguaz aruntzko lur guz-

tiak españiarrei eman ten zizkien Bulda orrek; onuntzkoak, portugaldarrei. Bulda orri eskerrak dugu gaur-egun izkuntzaz eta kulturaz portugaldarra, jendez eta lurrez EgoAmerika'ren erdia badan Brasil opa-roa.

—Beste Birjaiotzako gizakume guztiak bezela, akats, erru, oben eta guzti, zearo sinestun izan genduan VI Alexander. Sinestun eta otoizlari; Amabirjiñari eraspen bizia izan ziona. Baita biotz oneko gizona ere' Benetan maite izan zituan beartsuak, eta gaixotegi ta babes-etxe asko eraiki zituan aien onerako.

—Liturgiari dagokionez, elizkizun oro egoki egitea gustatzen zitzaien Jauparia izan zan. Orrela ospatu zuan, dotore, 1.500'go Jubileoa.

Ain zuzen, jakintzaren aldetik, Jubileo ura irabaztearren Erroma'ra etorri ziranen artean ospetsuena, Nikolas Koperniko izanen zan noski: ludia eguzkiaren inguruan dabillela erakutsi zuan, Krakobi'ko kanonigoa. Ordurarte, jendeak, eguzkia zebillela uste bait zuan, mundu geldiarene inguruan. Urte bete gelditu zan Erroma'n Koperniko matematikak erakusten. Ikasle izan zuan Mikel Gotzon Buonarroto ertilaria. Eta, baita, laister Aitasantu (III Paul) izango zitzaigun Alexander Farnese kardenala ere.

—Alemani'n, sortu-berria zan irarkolaren bidez, dotriña oker asko ari zala jendearen artean zabaltzen, jakin zuan bezain laister, debekatu zuan 1501'ko bulda baten bitartez, liburu gaiztoen argitaratzea. Bui da au izan zan irarkolen "zentsura" ezartzen, lenen-lenengo legea.

—Ertilari eta jakintsu guztien adiskide esku-zabala izan genduan Borxa'tar Aitasantua. Pinturicchio margolaria, eta, etxedergilleen artean, Bramante ta Sangallo izan zituan kuttunenak; Bramante bereiziki.

* * *

Erroma'n VI Alexander jaialdi naro alaietan kontzientziko kezkarik gabe pozik bizi zan bitartean, sutsu ari zitzaigun Florentzi'n Aitasantuaren geiegikerien aurka deadar egiñaz Jeronimo Savonarola praille domingotarra.

Florentzi'tik kanpora ere Savonarola asko zan orduan kristaudian oiuka. Izugarrikerien igarle ziran danak, eta berdiña zan guztien leloa: "Aspertu da Jainkoa. Nazkatu dute mundu ontako oben nazkagarriek. Gerturik dago mundua zigortzeko. Ikaragarria izango da Jainkoaren zigorra; Noe'ren denborako uralde nagusia, ta Sodoma'ko sutea ttipi

eta ñañar utziko dituana' Berealakoxekoa dugu eta gain-gaiñean daukagu zigor ori, danok penitentzigintzara itzultzen ez ba'gera'''

Savonarola'ren izena beste guztiena baiño ezagunagoa egin ba'da, Savonarola'k Florentzi'ko politikan izan zuan esku luzearengaitik izan da.

Asieran, Savonarola'k, geiegikeririk gabe, Elizaren garbiketa eskatzen zuanean, zalantzarik gabe lagundu zion Alexander VI'ak.

Gero, Savonarola Alexander beraren aurka pulpittutik era zakarrean mintzatzen asi zanean ere, baretasun osoz eta deus erantzun gabe entzun zituan onek praille oiulari aren salaketa guztiak. ;Ez bait genduan alperrik, Alexander VI'a, beti ere kritika iarearen maitalea izan!.

Baiña Savonarola Alexander Aitasantuaren autoritatearen aurka asi zanean oleska, auzia erabat amaitu-bearrean aurkitu zan Alexander, Aitasantu lez; eta eskomika jaurti zion. Ez zan Savonarola makurtu. Aurrera jarraitu zuan, eliz-arozetan bezela politika-arazoetan ere. Baiña aspertu zan azkenean Florentzi'ko Errepublika bera, eta eriotzera epaitu zuan praille biurri ura; bera eta bere bi praille laguntzailleak. Irurak izan ziran urkatuak.

Savonarola ez zan santua; ez agian, buruz osasun onekoa ere, maiz ikusten bait zituan zeruko odeien artean ikuspen arrigarriak: ez-patak, geziak, aiztoak, danak kazkabarra bezela tximist-artearen lurre-runtz jausten, eta gero, zeru urdiñean idatzirik esari bildurgarriak, gizadiarentzat izugarritzko zigorrak agintzen zituzten esaldiak.

Ziur uste izan zuan Jainkoagandik artutako doai bereiziaz egiazko igarle edo profeta zala.

Ez zan santua. Ez zion Aitasantuari obeditu, eta Aitasantuak jaurtitako exkomikari par egiñaz erantzun zion.

Borondate onekoa izan zan seguruaski, baiña buruko gaitz izkutuak noski beste guztien gaindi zegoala ustearazi zion, eta besteak ziralara beti oker zebiltzanak; ez bera beiñere.

Alexander VI'a ez zan, Erroma'n, gizon garbia; ez orixe! Savonarola, bai, Florentzi'n. Baiña Alexander agintari zabala zan, liberala osoosoan; ez, Savonarola: ilgorra eskatzen zuan onek oiuka, Florentzi'n berak ezarritako jaurlaritzaren etsai guztientzat!

Jaurlaritza ori Karlos VIII Frantzi'ko Erregea Itali'n sartu zanean ezarri zuan. Ordurarte, Kepa Medizi, Lorentzo'ren semea, zen Florentzi'ko Lendakari. Ta, onek iges egin zuanean, Savonarola gelditu zan VIII Karlos'en oniritziarekin Florentzi'ko diktatore.

"Santo Domingoren praille batek ikaraturik dauka uria. Danak erreztatzen ari oi dira. Astean iru egunetan ez dute ogia eta ura beste-rik artzen' Beste bi egunetan, ardo pixka bat eta salda! Neska gazteak, eta baita emakume ezkondu batzuk ere, lekaimeen konbentuetan pasatzen dute eguna' Florentzi'ko karriketan ez duzu mutil, gizonetako, eta atso zarra besterik ikusiko" (Mantua'ko enbaxadariak idatzitako itzak dira).

Jesukristo izendatu zuan Savonarola'k Florentzi'ko Errege. "Jesukristo Erregetzat artu nai al duzu, Florentzi"? ots egiten zuan karrika eta enparantzak-zear. "Gora Jesukristo Florentzi'ko Erregea"! erantzuten zioten deadarka jendeek'

Jesukristo Erregearen izenean, "Salbazioko Gudarozte" bat sortu zuan amar urtetik ogei urteraiñoko mutiko eta mutillekin, karriketan egiten ziran okerkeri danak itzez zuzendu, eta bearrezkoa ba'zan, epaitegietara salatzeko. Etxeetako barren-zoko guztietara ere sartzen ziran "Jesukristo'ren gudari" aiek! Zertarako? Etxean zitezkean jokukartak, usai gozozko ontziak, emaztekien edergailluak, Kitar binboliñ eta gaiñerako dantza-eresitresna guztiak bildu, jaso eta uriko enparantza nagusira eramateko, an, jendearen aurrean, sutan erreak izan zitezzen. iJoan bedi sutara pekatu-bide izan daitekean oro!

Karlos VIII'a, Itali'ko guda galduta, Frantzi'rutz zijoala eta Kepa Medizi Florentzi'ra zetorrela entzun zuanean, asarretu zan zearo Savonarola, ta pulpittu gaiñetik eskatu zuan oiuka "tiranizko Agintarien eriotza" Kepa Medizi aipatzen zuan itz oiekin izenik esan gabe' Ez zan, ala ere, izketa ori entzutean jenderik arritu. Ala bait zeukan zearo menderaturik uri guzia!

Ez zan jenderik arritu, emakumezkoei soiñekoetan-da apainkeri guztiak galerazi zizkienean ere. Aundiagoa dana, iagindu zien ezkondui zein egunetan ez zitezkean gorputzez alkartu! Era berean egin zuan lege, noiz bai ta noiz ez zitezkean denda ta salerostegiak iriki. A!, ta bera sermoiean ari zan bitartean, itxirik egon bear zuan oro Florentzi'n: jatetxeak, dendak, ardandegiak'", eta eskolak!'

Arritzekoa? Bai noski. Batez ere Savonarola'ren itzala ez zala erri xearen gaiñera bakarrik edatzen gogora ba'dakarkigu' Zoraturik entzuten zioten Florentzi'ko ertilari eta idazle gizazale bikaiñ aiek guztiek ere. Boticelli, Mikel Gotzon Buonarroti, Perugino, Pico de la Mirándola, Poliziano, Marsilio Fizino, eta beste asko, anitz denbora luzean entzule apal zintzoak izan zituan.

Apaizak!, ez zitzaizkion beiñere benetan adiskide ta lagun izan.

Ezta prailleak ere. Naiz bera domingotar izan, aurka euki zituan bere konbentukoak ez ziran domingotarrak ber-berak. Politikan geiegi sartzen zala, botatzen zioten aurpegira praille eta apaiz auek. Eta poliki-poliki, bere apaizen atzetik, asi zan erriko jendea ere Savonarola'gandik urruntzen, batez ere Frantzi'ko Karlos VIII "zeru-goitik Eliza garbitzera jetxitako aingerua" ez baiña Errege tutulu motel bat besterik ez zala ikusi zuanean. Izan ere... Eliza garbitzera zetorren Aingeru bezela aurkeztu bait zien Savonarola'k Errege ura florentzitarrei. Orain ordea, Errege arek Frantzi'ra lotsagarriki iges-egin ondorean, len bezain zekusan erriak Eliza; Itali berriz, buba-gaitzez'kutsutua, Itali gai-xoa.

Alatagutziz... Savonarola, Errege ura Aingeru-Eliz-Garbitzaillea zala, esan-da-esan ari izan bait zan..., eta, Itali'ko Printzipe guztiak Erregearen aurka alkartu-ondorean ere Savonarola Erregearen alde bait zegoan eta Erregearen alde gordetzen bait zuan Florentzi'ko Errepublikak., asarretu zitzaizkion Printzipeak eta Aitasantuarengana jo zuten, Milan'go Koldobika Sforza "il Moro" Dukearen bitartez. Praille baztar-nastazaille ura ixillarazteko eskatzen zioten Aitasantuari.

Bazuan Aitasantuak zertaz kezkatu! Karlos VIII'a, Alexander VI'a kenduta beste Aitasantu bat aukeratzeko, Kontzilio berri batean pentsatzen zebillen. Aren adiskide aundia zan berriz Savonarola. Frantzi'ko Erregeak eta Florentzi'ko prailleak gaitz okerra egin zeza-keten Eliza-baitan, biak alkartuta Kontzilio bat biltzen asten ba'ziran. Alatagutziz, —baretsua eta gozoa bait zan berez Alexander Borxa—, goxoki itzegin zion praille zital arri, Erroma'ra etortzeko aginduaz. Ona Aitasantuaren izkera:

"Profeta zerala diozu. Profetak, argi agertu bear du, egiazko profeta dala! Atoz neregana. Aitak semea bezela artuko zaitut. Nik neronek erabakiko dut egiazko profeta zeran ala ez. Nere esanera egotera bearturik zaudela oroitu nai dizut, eta beartasun orren indarrez, neregana etortzeko! agindu ere agintzen dizut".

"Ez da Jainkoaren naia, oraingoz ni emendik ateratzea", erantzun zion praille "igarleak". Txarkeri izugarria, Aitasantuaren agindua ez betetze ori; Jainkoaren izenean egiña gaiñera, betiko erejeen modura.

Lonbardi'ko Kongregazio edo Probintzikoa zan len Florentzi'ko domingotarren konbentua. Savonarola bertan sermoiketean asi zanean, konbentu aren iaretasuna eskatu zion Savonarola berak Alexan-

der VI Aitasantu izendatu berriari. Baiezkoa erantzun zion onek, eta konbentu iare egin zuan konbentu ura eta Savonarola bertako Aita Nagusi'

Orain, iaretasun ura kenduta ostera Lonbardi'ko Kongrazioari lotzen zuan Alexander Aitasantuak Florentzi'ko konbentua, eta Savonarola bera Kongregazio artako Zuzendari Nagusiaren esanera ipiñi.

Era larrian gelditzen zan Savonarola, ta lengo iaretasuna lortzeko apal-apal idatzi zion Alexander VI'ari, "bera Erroma'ko Elizaren esanera egon zala eta ala egongo zala beti" ziñ egiñaz. Ta Florentzi'ko konbentuaren iaretasuna eskatzen zion ostera, ortarako bere arrazoiak emanaz.

Alexander gizon ona zan, ta naikoa iduritu zitzaion praillearen jo-kaera ori; eta eman zien berriro konbentuari yaretasuna eta Savonarola'ri bertako Nagusitasuna. Baiña naiz gizon ona izan, ez bait zan iño-za, Savonarola'ri sermoi egitea debekatu zion "Erroma'ra etortzen ez zan bitartean".

Makurtu zan praillea, asieran, Aitasantuaren agindura.

Asko ziran ordea oraindik Florentzi'n bere miresleak, eta beretar auek aren itz beroa entzun nai zuten berriro.

Florentzi'ko Jaurlaritza ere, oraindik, aren jarrailez beterik zegoan-da, debeku ura kentzeko idatzi zion, —Jaurlaritzak—, Aitasantuari.

Florentzi'n, Aitasantuak debekua altxa zualaren susmurrua zabaldu zan, ta besterik gabe, susmuru ura egiazkoa ote zitekean azertu ere egin gabe, sermoiketan asteko eskatu zion Jaurlaritzak Savonarola'ri; eta beste oiñarririk gabe, sermoiketan asi zan au berriro!

Eta, inola gaiñera! Ereji-usai nabarmena duten izugarritzko gauzak esanaz!

"Aitasantuak ez dezaidake karitatearen eta ebangelioaren aurka ezer agindu. Ez dut uste aginduko didanik, baiña orrelako zerbait aginduko balit auxe esango nioke nik: Ori egitean ez zera egiazko Artzaia; ez zera Erroma'ko Eliza. Oker zabiltz. Gizonen gaindik, nik, Jainkoari obedittu bear diot"

Aitasantuak, amalau teologilari domingotar bildu zituan Savonarola'ren auzia aztertu zezaten' Batek ez gaiñeko guztiek praille ura gaizki zebilela eta zigorra irabazirik zeukala erabaki zuten.

Ez zuan zigorrik erabilli Aitasantuak. Soilki Lonbardi'ko Kongregazioarekin eta Erroma ta Florentzi'ko konbentuekin Kongregazio be-

rri bat sortu zuan, eta Kongregazio ortako Zuzendariaren esanera ipiñi Sabonarola.

Zismaren atariraiño iritxi zan oraingoan gure praillea. Idatzi batean, agintariiek karitatearen aurka ezin agindu dezaketela, bir-esaten zuan, eta ori egiten ba'zuten, "eskomikari ere, bildurrik gabe aurpegi eman bear zitzalola"

Eta sermoi batean aUxe esan zuan: "Zuetako asko ari dira eskomika etorriko zaigula esaten. Etorri daiteke nigaitik, nai duanean. Lenbait-len otorri dedin egizu zuk, arren, nere Jaungoikoa"!.

Bitartean gero ta aundiagoa zan Florentzi'n bertan iskamilla. Sabonarola'k eliz batean itzegiten zuanean, aren aurka itzegiten zuten beste elizetan apaizek eta prailleek. Auen artean frantziskotarrek bereiziki.

Errian ere gero eta geiago ziran Sabonarola'ren etsaiak. Egun batean, etsaiok bete zuten aren eliza, eta txistuka eta oiuka ixildu zuten praille diktatorea. Pulpittutik bota nai izan zutenak ere izan ziran.

Ikaratu zan Savonarola, eta idatzi daitekean eskutitzik apalena idatzi zion Alexander VI'ari: "Nere etsaiei entzun diezu. Zergaitik ez didazu neri ere era berdiñean entzun"?, esaten zion eskutitz artan.

Naiz nik etortzeko agindu, onera etorri ez zeralako" erantzun zezaiokean Aitasantuak. Baiña ez zion ori erantzun, Savonarola'k Florentzi'n eskutitz ura idazterako, idatzir, eta izenpeturik bait zeukan berak praille aren aurkako eskomika.

Ez zuan Savonarola'k bururik makurtu. "Eskutitz" bat argitaratu zuan, eskomikapen ura, Aitasantua atzipetua izan zalako, baliorik gabea zala adieraziaz.

Bazkun baten eskuetan ipiñi zuan Aitasantuak auzia' "Savonarola bere Kongregazioko Zuzendariaren esanera jartzen ez zan bitartean" eskomikapenik ez altxatzeko, eman zion Bazkun arek aolku'

Erotu egin zala Savonarola dirudi. Aldi batean, mezarik eman gabe eta sermoirik egin gabe egon ondorean, "Jainko Jauna: bidali nazazu infernura eskomika onen barkapenik eskatzen badut" oiuka, sermoiketari ekin zion atzera berriz.

Bere itzaldietatik jasoak dituzu onako esalditxo auek:

—"Printzipe on bat eta Eliz-Agintari on bat Jaungoikoaren izkiriak dira. Jainkoak eskutik uzten dituanean ordea, Jainkoa beraien-gandik urruntzen danean, ez dira arrezkero Jainkoaren izkillu. "Ferro roto" dira: Txatarra".

"Madarikatua bedi lege oro, kanon oro, kontzilio oro, karitatea-
ren aurka mintzatzen ba'da".

"Gizakume utseziñik ez da. Ero utsa ziñake, Aitasantua utsezi-
ña dala sinistuko ba'zenu"

"Aitasantuaren eginkuzuna egia erakustea da. Gauza okerrak
erakusten dituean ez da egiaz Aitasantu' Gauza okerrak agintzen
dituanen ez da ari Aitasantu lez agintzen": "Quando egli erra non e
papa; e se comanda una cosa di errore, non comanda come papa".

"Bai al dakizute ni gaitzestearekin Erroma'ko jende oiek zer
loritu nai duten? Florentzi'ko gure Jaurlaritza au ezereztu, eta tirania
emen ezarri!"

Aitasantua'k Florentzi'ko Jaurlaritzari idatzi zion, Sabonarola'ren
desobedientzien zenbaketa egiñaz, eta praille ura ixillarazteko eska-
tuaz. Baita Erroma'ra bidaltzeko ere, eskatzen zion, aita semea beza-
la artuko zuala aginduaz' Ori egiten ez ba'zuan interdiktuaz zemaizen
zuan Florentzi'

Interdiktua, elizkizunak egiteko debekua zan' Biña baita beste
gauzal bat ere: Aitasantuaren esanera zeuden erriei interdiktu-pean
zegoan erriarekin salerosketan jarraitzea debekatzen zitzaien. Gaitz
aundia zan ori, ain zuzen salerosketatik bizi zan Florentzrrentzat!

"Aitasantuak sermoigintza galerazten ba'dit sermoigintzan ja-
rraituko dut; Florentzi'ko Jaurlaritzak galerazten ba'dit, ordea, obeit-
tuko diot Jaurlaritzari" esan zuan orduan Sabonarola'k' Ta ori gertatu
zitzaion. Bere etsaiak Jaurlaritzan sartu ziran beazain laister eman
zioten ixiltzeko agindua. Eta ixilik gelditu zan. Itzez; ez lumaz.

Europa'ko Erregei idatzi zien. Aitasantutzatik VI Alexander ken-
duta beste Aitasantu bat aukeratzeko Kontzilioa biltzen saiatzeko es-
katzen zien' Ez omen zan ba Alexander VI'a egiazko Aitasantu.

Kontzilioari buruz Savonarola'k zuan gogapena ez zan oso zuze-
na: "Kontzilio egitea Eliza biltzea da; ots, abata on guztiak, gotzaiak,
baliozko eiizgizonak eta kristau sekular zintzoak biltzea. Baiñan Bille-
ra ori ez litzake benetako Eliza izango Billera ortan Espiritu Santuaren
grazirik ez balego" Orrela pentsatzen zuan berak, baiña ez zuan ondo
pentsatzen.

Gogor ziarduten frantziskotarrak Savonarola'ren aurka. Bein,
auetako bateri biribiziko burutapen borobilla gogoratu zitzaion: Savo-
narola egiazko igarle dan edo ez jakiteko erabilli dezagun sua, oi-
u egin zien pulpittutik entzuleei. Egiazkoa bada, bizirik irtengo da sute-
gitik; bertan erreko da berriz gezurrezkoa ba'da.

Pozik eta alaitsu artu zuten florentziar guztiek praille frantzisko-tarraren ateraldi kilikagarria.

Enparantza nagusian izanen zan sua piztua. Bi praille sartuko ziran sutara: frantziskotar bat, eta domingotar bat' Savonarola'ren orde, azkeneko au. Erretzen ez zanaren bidez adieraziko zuan Jainkoak **n**ren alde zegoan.

Bildu zan aukeratutako egunean erruz jendea. An ziran Florentzi'ko Jaun eta eliz-gizon geienak ere' Baiña, baldintza jarri eta baldintza kendu, suan sartu gabe igaro zuten prailleek eguna, egun osoa!, eta asarretu zan, goiz-goizetik barurik zegoan jende-multzo ura dana.

Bigaramonean, borroka biziak sortu ziran karriketan. Sartu zan konbentuen barneraiño erri muturtua matxinada beltzean oiuka..., eta matxinada artan galdu zuten bizia iru praillek eta erriko jende batzuek.

Azkenean, aspertuta, espetxera jaurti zuan Jaurlaritzak Savonarola bera. An izan zan au epaitua..' epaitua, eta ieriotzara galdua!

Ez zuan Jaurlaritzak zuzen jokatu' Alde aurretik eskaturik bait zeukan Alexander VI'ak, praille ura, —berak epaitu nai zuala-ta--, Erroma'ra bidaltzeko. Ez zuan Savonarola gaixok Aitasantuak, Alexander Borxa baretsuak, epaitua izateko zorionik izan. Florentzi'ko Jaurlaritzak kendu zion urkamendian bizia. Berari, eta bere bi praille lagunei'

Zortzi urte iraun zuan Savonarola'ren diktadurak. Ia zortzi urte iraun zuan Alexander VI'aren pazientziak ere. Eta Florentzi'k praille biurri ura Erroma'ra bidali balu, ez zion Aitasantuak eriotzik emango.

"Ni ez naiz jendea iltzearen maitale (esan zion bein, justizi gogorragoa eskatzen zuan Zesar semeari); Askanio Sforza ta Juliano della Rovere eriotzaz zigortu aal izan ditut bein baiño geiagotan, baiña ez dut orrelakorik egin nai izan". Paketsua ta "liberala" zala VI Alexander!

* *

Elizaren eraberritzea ere ez zuan zearo azturik utzi Borxa Aitasantuak. Batez ere bere seme zarrena erailla izan zanean piztu zitzalon era berezian, Elizaren garbiketa egiteko gogoa' Miñ aundia egin zion Alexander VI'ari bere semearen gorputz illa zauriz beterik ikusteak. "Nere pekatuak zigortzearren eraso dit orren gogorki Jainkoak; ez bait zuan gazte onek orrelako eriotz ankerrik merezi. Barka bezaie

Jainkoak erail dutenei", esan zien kardenalei aiekin izan zuan aurreneko billeran' Eta berealaxe Eliza garbitzeko artu-berri zuan asmo sendoaz mintzatu zitzaien, "leen ere beti izan omen Zuan ba Elizaren eraberritzean lan egiteko gogo bizia".

Ez zien gezurrik esaten; Birjaiotzakoan, kristau pekataririk aundienek ere Elizaren garbikuntza gurari kuttuna izan bait zuten.

Kardenalen Batzorde bat eratu zuan, orduan, Aitasantuak, garbi-ketagintzan asteko, berak re, "aurren-aurrena bere burua garbitu eta eraberrituko zuala" agindu ondorean.

Benetakoa zan noski, une artan, Aitasantuaren asmoa'.., baiña ez zan alataguztik ezertxo ere egin.

Ez da arritzekoa; Rodrigo Borxa zan ba VI Alexander naiz aitasantuz jantzirik egon, eta Rodrigo Borxa ez zan iñolaz ere Eliza garbitzeko jaiotako gizona.

*

Bitartean..., aurrera zijoan Eliza-baitan, donetasun geiago eskatzen zuan igikundea, eta igikunde ortan aitzindarietako bat, zalantzarik gabe, Rotterdam'eko Desiderio Erasmo izan genduan; txit itzal aundikoa gaiñera, Birjaiotza aroan idazlerik iaioenekotzat eukia izan bait zan.

Idazle batek, idazleen maixu izateko, idazteko "era" naikoa ba'du, benetan izan zan Erasmo idazleen maixu. Txukuna, apaiña, politta baita Erasmo'ren era. Latiñez idazten zuan, eta Salustio'k edo Tito Libio'k ez zuten arek bezain era xarmagarrian idatzi.

Baiñan sakontasuna peitzen zaie aren liburuei. Ariñak dira; axalekoegiak; mami mardulik gabeak.

Alataguztiz, on aundia egin zion Elizari Erasmo Roterдамdarrak.

Agian, Erasmo erdiprotestalaria izan zala entzunik egongo zera. Edo, beintzat, bere izkera minkatzarekin, elizjendearen aurkako izkera minkatzarekin, protestalaritzari bidea zabaldu ziola. "Erasmo posuit ova, Lutherus exclusit pullos", esan oi da luzaroan: "Erasmo'k erron zuan, Lutero'k txitxak atera".

Ori..., Ez da egia!

Gogor jotzen ditu gotzai praille eta apaizak, baiñan badakigu nola zueden usteldurik orduango apaiz praille eta gotzaiak. Iñork baiño obeto zekian ori Erasmo'k, bera ere apaiz baten semea bait zan!!!

Errukirik gabe jorratzen du garai artako eskolastika, baiña ez zaio

ortan ere arrazoirik falta, zentzurik gabeko dialektika, ots, itz utsezko arrazoiketa-jokua bait zan orduango eskolastika. Amalagarren mendean ez zan teologilari bikaiñik izan. Aitasantuen Abihon'era erbesteratzearen ondorean gartatutako Zisma sarkaidetarrak eta geroagoko kontziliarismoak, zearo desegin zuten taflogiak bearrezkoa duan eskiertasunezko giroa. Ez zuten eliztarrek teologirik geiegi ikasten. Apaizek eta praille arruntek, batere ez. Eta Unibersitateetan ere geiago ikasten zan kanoniztia teologia baiño. Protestalaritzak eman zion berriro bizi berria teologiari, protestalariei erantzuteko eta egiazko sinisbidea erakusteko naitanalezkoa izan bait zitzaion Elizari teologiendo bat. Orduangoak dituzu Trento'ko eta Trento'ren aroko teologilari aurenak.

Baiñan aiek ere, protestalaritzaren eta Elizaren eraberritzearen arazoei lotuegiak egon ziran, eta Birjaiotza'ko kultura teologiz jantzia izan gabe gelditu zitzaigun. Gauza jakiña da nola kristautu zuan Aki-na'ko Tomas Deunak greziarren filosofia. Birjaiotzako kulturak ez zuan orrelako gizon bat izan' Uraxe zan Ertiaren Teologia egiteko garaia. Egin gabe gelditu zan. Eta egin gabe daukagu, oraindik, ertiaren teologi ori'

Erasmus ez zan santua, baiña bai gizon garbia eta sinismen sendo eta zuzeneko kristaua. Martin Luter'ekin arremanak izan zituala egia da; baiña asieran bakarrik; Luter Elizaren eraberritzaille ez baiña Elizondatzaille zala oartu zan arte. Orduan zearo asarretu zan arekin. "Christum agnosco, Lutherum non novi": "Kristo dut on-ezagutzen, ez Lutero", esan oi zuan, eta "me vero ab Ecclesiae Catholicae consortio nec mors distrahet neo vita": "Ni beintzat ez bizitzak ez eriotzak ez nau Elizaren altzotik aterako".

Erasmus'ren kristau-eraren sustraiak, "Erasperen Berria"n zeuden erroturik, ezi ere, erasperen-berritarren ikastetxe batean ezi bait zan. Altagutziz, ez zan bere maixuen santutasun maillara igo. Baiña santutasunera igo ez ba'zan ere, apaiz egokia eta agurgarria izan zan beti.

Teologilari ez zan. Ez zuan teologilibururik idatzi. Alare zuzenbide txit egokiak eman zizkion teologiari, aspaldiaspalditik teologilari-iek azturik zeukatenak: Idatzi Donea eta Elizako Asaba zaarrak.

Arrazoi du Teologilariei eberkerarik eta elenerarik ez jakitea akats aundia lez aurpegira botatzen dienean; baiña ez du arrazoirik filosofiarri garrantzia kentzen dionean, eta, filosofiak teologian berea duan tokia, ielertiari! eman nai dionean.

Aundia izan zan Erasmo'k jakintsuen artean egin zuan ona, eta

kristaudi guztira zabaldu zan bere igikundea, Espāñi'ra bereiziki, Erasmori asko zor bait diote XVI mendeko gogo-idazle espāñiarrek. Trento'n lan egin zuten teologilari bikain aiek ere Erasmo'ren zordunak izan genituan.

II JULIO (1503 - 1513)

Iru kardenalek nai izan zuten aitasantutza IV Alexander il zanean. Auek dituzu iru kardenal aiek: Askanio Sforza, Milano Jaunaren anaia; Juliano della R6vere, Sixto IV'aren illoba, eta Gorka Amboise, Frantzi'ko Erregearen aolkulari eta laguntzaillea. Azkeneko au iruretan egokiena.

Kardenalek ordea beste bat aukeratu zuten: Francesco Todeschi Piccolomini, Pio II'aren illoba. Gauza egokia zand-a, bere osabaren izena artu zuan aitasantutzarako: III Pio. Zoritxarrez berealaxe i I zitzaigun Aitasantu berria.

Birjaiotzalari ospetsua, jakintza guztien maitale, erti eta elertiarren miresle, eta onbide danen zale, Pio III'a genduan Elizak orduantxe bear zuan Aitasantua. Baiña gorputz zegoan ogei egun-barruan.

Ez zuan nonbait oraindik Elizak Jainkoagandi benetako Aitasantu bat merezi.

Bildu zan ostera giltzape-batzarra, eta oraingoan bai, lortu zuan oraingoan Della R6vere'k aspalditik ain gogo guztiz nai zuana: Elizaren Aitasantu eta Erroma'ko Errege izatea. Julio artu zuan izen Erroma zarreko Julio Zesar aren omenez: Julio II'a.

Ondo zaindu zuan Julio II'ak Eliza, baiñan Aitasantu baiño geiago izan zitzaigun Birjaiotzako Jaun oparoa, ertilariei laguntzeko diru-iturri naroa, Erroma'ko Errege aberats indartsua, gudarozteen buruzagi trebe ta yayoa.

Roberetarra zalarik guztiak bezela, borxatarren etsai amorratua zan. Ondo zekian ori Zesar Borxa'k-eta, alde egin zuan ziurtasunaren billa Aitasantuaren mendeko lurraldeetatik. Orrela galdu zituan, bere aita —VI Alexander— Aitasantu zala, Itall'n irabazi zituan lur eta kargu guztiak. Asko balio bait du biziak!.

Izan zuan sasi-alaba bat Kardenal zala Julio II'ak, eta, len esan dugun lez, "frantzi-gaitza" berekin zuala igo zan Aulki Donera. Gazte-

tan artutako gaitza!.

Kristoren Ordezkeri izatera iristen ziran gizon auetan ainbete zabarkeri ikustean, galdera mingarri bat sortzen zaizu seguruaski zure biotz kristauaren barne-muiñetan: ¿Nondik Elizari .ainbeste lizunkeri zikiñ?

Erantzun bat eman aurretik, oroi dezagun berriro, guri ain arrigarri eta oiñazegarri zaizkigun oitura lizun oiek ez zutela orduan iñor arritzen. "Sasikumeen aroa" deitu zion Birjaiotza-arolari orduango idazle bikain batek. Ederki esana. Ez ume guztiak lizunkerizko maitekeritik sortuak ziralako, baiña bai, danak ez ba'ziran, askotxo orrela sortuak ziralako.

Baiñan ez ezazu arren uste garai zoro artako gizon-emakumeak sinismenik gabeko jendeak ziranik. Ez, iñolaz ere! Zerbait sendorik ba'zuten jende aiek, zerbait ori sinesmena zan! Naiz pekatari aundiak izan, ez zuten beiñere erlijiotasunik galtzen, eta bazekiten damu bizkorrak jota pekatutik irtetzen; eta baita donetasunik aundieneraiño igotzen ere' Aietakoa izan genduan gure Iñaki Loiolatarra.

Gogoan izango duzu Vanozza andrea, Rodrigo Borxatarraren maitalea. Ba otoitzean eta ekintza onetan lanean amaitu zuan emakume arek bizia. Anei emakume aipatu genezazke vanozza'ren kidekoak. Naparroa'ko Erregiñ bat adibidez, Naparroa'ko beste Erregiñ idazle arek bezela Margarite zeritzana, Enrike Naparroa'ko. III eta Frantzi'ko IV'aren emaztea. Eta zenbat orrelako, gizaseme eta emazteki, aundiki eta lander, mailla guztietako jendea!!!

Berdin eliz-jendearen artean ere. "Los lindos pecados del cardenal" esaten omen zioten Elisabete Katolikoaren andre eta andereño laguntzaille aundikiek, Mendoza Kardenalaren iru semeei. Arabarra zan jaotorriz kardenala: Santillana'ko Markes idazle ondoezagunaren semea; Politikolari iaioa. Errege Katolikoak ez ziran izan zirana izango Españietako politika Mendoza Kardenalaren eskuetan egon ez ba'litz.

Bere pekatuetaz damututa Goigotzai bikaiña izan zan Toledo'n gure kardenaI ura.

Julio II'a, bere osabak —IV Sixto'k— egin zuan Kardenal; ogeita zortzi urteko praille gaztea zala; eta berealaxe elizbarruti -sail bat eman zion: Karpentsa, Lausana, Abiñon, Coutances, Viviers, Mende, Ostia, Velletri, Bolonia, Sabona, Vercelli, (azkeneko biak VIII Inozentzio'k emanak). Eliz barruti auetaz gaiñera bereak izan zituan Juliano della Rovere kardenalak lekaidetxe askotako errentak.

Oso sendi apal eta txiroaren ume jaioa, izugarri aberatsa egin

zan elizbarruti eta lekaidetxe aietako errentekin' Ondo bizi izan zanik ezin daiteke esan, urduriegia eta borroka-zaleegia bait zan ongi bizitzeko.

Gizakume zitala, zipotza, jite zakarrekoa zan. Eta ala jarraitu zuan beti. "Il papa terribile" esan oi zion jendeak. Arroa ere bazan. Agintzearen zalea. Azpi jokazaille-iaioa; baiñan baita politikolari trebea, diplomazilari argia, eta guda-gizon ernea, kementsua, gurenda-bidea aurkitzeko begi zorretzekoa.

Jakituri laburra zan berea. Oso ederki idatzi zion Erasmo'k "vinum amas pro litteris": "ardoa duzu maite, ez elertia", ardozaletxoa ere izan bait zitzaigun, gaztetan; eta baita, orduan, emakumezalea ere.

Kardenal zala, gutxienez alaba bat izan zuan "dona Felice", gero Aulki Donetik Orsinitar batekin oparo ezkondu zuana. Beste bi alaba geiago izan zituala esaten dutenak badira, baiña esakizun au egia bada, oso umetan illak izanen ziran bi alaba aiek, ez bait da gero aien aztarnik azaltzen.

Illoba bat Eleonora Gonzaga'rekin ezkondu zuan, eta Erroma'ko Jaurlaritzza eman zien, beraiei, eta beren ondorengoei, irugarren belaunaldia arte.

Beste illoba bat, au neskatoa, Marcantonio Colonna'rekin ezkondu zuan, nepotista izan bait genduan II Julio! Irugarren illoba, Galeotto, Kardenal izendatu zuan, naiz bizitza zikiñeko umea izan, eta beste laugarren bat, Sixto, ez jaikiña eta erdi ttonttoa ere kardenaltzara jaso zuan.

Kardenal egin zituan beste bi gizakume gazte, Segismundo Gonzaga eta Francesco Alidosi, biziera alai eta lizuneko personak izan arren.

Len ere bazekian II Julio'k agintaritzza zer zan, VIII Inozentzio'ren denboran bera izan bait zan agindu zuana' (Esan dugu ba asmo orrekin jaso zuala aitasantutzara, simoniaren bitartez, Jenoba'ko Cibo Kardenal mottela). "Papa et plus quam Papa" zala orduan Della Rovere, esaten zuten kuriako jendeek. "Egli e papa e piu che papa" zion berriz erriak. "Bera da aitasantua; eta baita aitasantu baiño geiago ere"

Alatagutziz, Aitasantutza artu zuanean, Erroma'ko Errege lez, gizon egokia izan zan' Aunditu eta edertu bait zituan Uria eta Elizaren Laterrietako zoko guztiak. Baita pakea egin eta aberastasuna ekarri ere. Julio II'a il zanean, iñoiz baiño sendoago, paketsuago eta abera-

tsago aurkitzen ziran Laterri aiek.

Bi etsai menderatu bear zituan Elizaren Laterrietan pakea lortze-ko: Jaun erdifeudalariak eta mendietako lapurrak.

Aitasantu bat iltzean gerta oi zan bezela, oraingoan ere Aitasantu berriaren aurka jeiki ziran askatasun osoaren billa jauntxo aietako batzuk. Zesar Borxa gaizki egoteak ere adontasun ona ematen bait zien ortarako, au —6beste irten-biderik ez zualako?— Aitasantu berriaren alde agertu zan ezkeror' (Esan dezagun, Zesar'ek berak, bere borondatez eman zizkiola Aitasantu berri oni ROOmaña'ko Dukateria eta Elizaren Laterrien barnean zituan Jaunderri guztiak).

Ez zan erreza Jaun aiek menderatzea, Itali'ko politika naasian, ai de izaten bait zituzten Laterriren batzuek. Oraintxe ere, Alexander Via gorputz zegoala jakin bezain laister, Benezi'ko Errepublikak Rimini eta Faentza arrapatu zituan indarra-bidez.

Ez zitzaigun ikaratu II Julio. Bere gudaroztearen aitzenean jarrita, orain Frantzi'rekin alkartu, orain Fernando katolikoarekin, banakabanaka bir-irabazi zituan uri aiek danak, bere aitasantutzaren luzarogan.

Arriturik ikusi aal izan zuten gudariek nola sartzan zan Aitasantu zarra borrokaldiaren erdian uri aietako baten arresietan irikitako zirrikutik barrena. "II papa di cuor e animo terribile!": "biotz eta kemen izugarriko Aitasantua!", enbajadari baten itzetan.

Bera gudan zebillen artean mendietako lapurren aurka jaurti zuan bere ertzaindia. Gogorra izan zan epaileen zigorra. Ta garbiak gelditu ziran lapurrez eta eraillez Elizaren Laterriak.

Frantziarrez eta españiarrez beterik aurkitu zuan II Julio'k Itali, aitasantutzara igoa izan zanean. "Fuori i barbari" oiuegin omen zuan orduan, eta oiue orrekin Itali'ko Laterrien askatasunaren maitale zala adierazi nai omen zuan, eta baita Itali'ko Laterriak ezereztuta Itali aundi bat egitearen aldeko zala ere.

Ez ezazu orrelakorik sinistu. Julio II'ak ez zuan sekulan orrelako oiurik egin. Gero asmatutako deadarra duzu ori.

Julio II'a ez zan Itali'ko Laterriak desegitearen aldeko. Laterri aien askatasunaren aldeko, bai, Aitasantu guztiak izan ziran bezela. Ori zan aientzan Itali'ren askatasuna: itali'ko Laterrien askatasuna. Baiña ortik aurrera ez ziran sekulan igaro. Ez zuten beñiere Itali bakar aundi bat eratzeko ezer egiterik pentsatu. Ez zezaketen pentsatu ere, Itali'ko zatirik ederreneko Errege bait ziran berak, eta zati artako erregetza galdu ondorean Itali berri osoaren erregetza berak irabaziko zu-

ten ezin bait zezaketen igarri.

II Julio ez zan atzerritarren arerio. Ain zuzen atzerritar bateri, Fernando Katoliko aragoitarrari eman zion Napoles'ko buruntza bertako Jaun feudatari lez. Soilki, frantziarren arerio zan, eta ez frantziarrak ziralako, baizik, orduan, Erroma'ko Jaurerriaren Errege bezela eta Erroma'ko Elizaren Aitasantu bezela, arriskurik aundiena Frantzi'ko XII Koldobika'ren aldetik ikusten zualako.

XII Koldobika Milan'go Dukaterriaren eta Jenoba'ko Errepublikaren jabe zan, indarrez azpian artuak bait zeuzkan Itali'ren Iparreko bi Laterri aiek. Egoaldean berriz, Napoles'ko Erreiñua arrapatu nai zuan. Ta bitartean, arekin beren indarrak alkartzeko gerturik zeuden Beneziko eta Florentzi'ko Errepublikak. Koldobika'ren asmoak mami egiten ba'ziran, iparretik eta egotik kurrika edo tenaza baten bidez bezela erdian artzen zituan Elizaren Laterriak, eta Aitasantua aren morroi biurtzeko arrisku betean aurkitzen zan.

"Beren erregearen kapillau egin nai naute frantziar auek. Nik ordea Aitasantu! izan nai dut" esan oi zien Julio II'ak bere adiskideei.

—Erroma'ko Errege lez, bere erreñuaren eta Itali'ko beste Laterrien askatasuna babesteko Alkarte bat eratu zuan "Liga Santa" esan oi zaion alkarte: Beneziko, Españi, eta Elizaren Laterrien artean osatutako "Alkarte Donea"

Gudate ortakoa da Rabena'ko borrokaldia: odoltsuena ordurarte Itali'n izandakoen artean.

24.000 oiñezko, 4.000 zaldizko eta 50 kañoi ziran frantziarren indarrak. Agintaria, 22 urteko mutil gazte bat, Foix'tar Gaston Nemours'ko Dukea, XII Koldobika ber-beraren illoba. Eta kapitanen artean ospetsuena, Bayardo, "bildurrik eta okerrik gabeko zalduna": "Ie chevalier sans peur et sans reproche": "el caballero sin miedo y sin tacha".

Aurrean, Alkartuen indarrak: Fernando Katolikoaren eta Julio II'aren gudariak: 18.000 oiñezko, 2.000 zaldizko, 24 **Agintariak**, Cardona espāñiarra, baiña bereiziki Beretarra'tar Kepa, "Pedro Navarro" edesti-liburuetan, Erronkari'n dagoan Garde'ko seme euskalduna. Aitasantuaren izenean, Jon Medizi Kardenala, bera ere laister Aitasantu (X Leon) izanen zana; Julio II'ak berak, ogean oso gaixo zegoalako, ez bait zuan borroka artan parte artzerik izan.

Izugarria gertatu zan borroka. "Ez da sekulan, bai batzuen bai besteen aldetik, orren ederki eramandako borroketarik izan", esan omen zuan gero Bayardo "ez bildur ez okerrik gabeak". 6.000 gorputz gelditu ziran Rabena'ko zelaiean. Zaurituak berriz, asko geiago izan

ziran: 610.000? Esan daiteke, iru gudaritik bat, edo illa edo elbarritua izan zala Rabena'n. Illen artean ospetsuena, Foix'tar Gaston frantziarren buruzagia bera' Alkartuen buruzagiak: Jon Medizi Kardenala, Cardona, eta Bereterra'tar Kepa, katigu artuak izan ziran.

Ikaratu zan Itali osoa Rabena'n gertatuaren berri jakin zuanean; Ikaratu zan batez ere Julio II'a, frantziar garailleak Erroma'ra zetoztela esaten bait zan! Erroma'ra!, bertan Julio II'aren ordeztu beste aitasantu bat ipintzera"., eta urian izugarritzko ebasketa bat egitera' Sinistekoak ziran bi gauzak:

—Ebasketa..., orain, Foix'tar Gaston il ondorean frantziarren guztien buruzagi zetorren La Palisse'ren gudariek ikaragarrikeri gaitzak egiñak bait ziran Itali'ko iparraldean.

—Saisiaitasantu baten ezarketa..., Luis XII'ak sasikontzilio bat bildurik zeukalako, eta kardenaI batzuk bere alde irten ziralako.

Baiñan ariñ ber-bizkortu ziran Alkartuen indarrak, eta Erroma'n sartzerik izan gabe iparreruntz itzuli bearrean aurkitu ziran La Palisse'ren gudarozteak. Jenoba jaiki zan orduan askatasunaren aide, eta an zeuden frantziarrak menderatuta Errepublika iarea biurtu zan berriro' Alpe-Mendietatik beera berriz, Suizi'ko Schiner Kardenal gualburu trebeak eraso zien 18.000 suizitarrekin Frantzi'ko gudariei Pabia'ko zelaietan' Berea izan zuan gurenda.

Era lotsagarrian itzuli zan ostera bere lurraldera Frantzi'ko gudaroztea. Ondamena goxatzearen, "Rabena'ko garaitza, garaitz aundia izan zala" esan omen zion norbaitek Karlos XII'ari. "Nere etsaiei eman bezaizkie. Jaikoak orrelako garaitzak", erantzun omen zuan arek.

—Erroma'ko Elizaren Aitasantu bezela ere, ederki erantzun zion II Julio'k Karlos XII'ari Letran'go Kontzilioaren bidez.

Pisa'ko sasikontziliaren aurka bildu zuan Julio'k II'ak V Letran'go Kontzilioa, Kontzilio Ekumenikoetan XVIII'a dana.

Amboise'ko Gorka kardenaI frantziarra 1510'ean il zan. Indar aundia artu zuan ostera Frantzi'n galikeriak aren eriotz-ostean. Lau kardenalek bultzata, eta Frantzi'ko elizgizon askoren eskariei erantzunaz, Pisa'n kontzilio bat egitea erabaki zuan, 1511'ean, Karlos XII'ak. Lau kardenalek asi zuten kontzilio ura: Bernardino Carvajal espaiarrak, Prie eta Briconet frantziarrak, eta Amanien Albret, Naparroa'ko Jon erregearen anaiak' Sasikontziliaren aldekoak ziran beste bi kardenaI ere, italiarrak auek: Sanseverino eta Borxa, Zesar'en aidea.

1512'ko eseraldian, almen guztiak kendu zizkion Pisa'ko sasi-

kontzilio arek II Julio'ri. Alperrik; kristaudia, ia osoki, Julio Aitasantuaren aldekoa bait zan. Ain zuzen, frantziarrak izan ziran sasikontzilioa osatu zuten 25 Gotzai eta 6 Abata aiek gelenak.

Gaiñera, Frantzi'ko gudaroztearekin batera uriz-uri iparreruntz iges egin bearrean aurkitu ziran kontzilio-egilleak, eta Lion'en egin zuten 1512'an bertan azkeneko billera.

Eta besterik gabe, bere aulkeri utsez, ezereztu zan Pisa'ko Kontzilio doakabea.

Letrango Kontzilio Ekumenikua, 1512'ko Jorraillaren 1453'an asi zan. iru ziran Kontzilioari II Julio'k eman zizkion elburuak: 1^a), Pisa'ko sasikontzilioari erantzun egoki bat ematea; 2^a), Elizaren eraberritzea; 3^a), Gurutze-guda egin aal izateko Agintari Kristauen arteko pakea.

Iru asmo oietatik, aurreneko bakarrik lortu zuan, II Julio'k asi eta X Leon'ek amaitutako kontzilio onek.

Eta Pisa'ko sasikontzilioa galikeriaren giroan sortu bait zan..., eta galikeria Bourges'ko "Pragmatique" edo "Erabakian" bait zegoan errotua, ez zitzaien aztu Kontzilioko Asabei "pragmatika" zorigaizto-ura gaitzestea.

Bearrezkoa izango dugu guk, —ainbeste aldiz aipatu dugu-ta—, pragmatika aren oroipentxo labur bat emen egitea.

1438'garren urtea zan' Frantzi'ko Erregea, Karlos VII'a. Basilea'n urduri eta oiulari jarraitzen zuan bildurik Kontzilioak. Erroma'n, IV Eujenio genduan Aitasantu. Zatiturik eta naasirik zegoan Eliza'

Ekaitz-arro ortan, zer egin eta nora jo jakiteko, Karlos VII'ak Bourges'era deitu zituan Frantzi'ko Elizgizon eta Aundikirik ospetsuen guztiak' An Basilea'ko Kontzilioaren aldekoiei eta Aitasantuaren aldekoiei, bi alderdiei, entzun zien Erregeak. Aurrenekoen aldera okertu zan. Ez da arritzekoa.

Frantzi'ko teologilari eta legiztilari geienak, ia danak, kontziliaristak bait ziran.

Giro ortan eman zuan Karlos VII'ak "Bourges'ko Pragmatika" 23 atal ditu Pragmatika orrek. Txit egokiak, geienak. Baiña batzuk, zearo kontziliaristak; onako auek adibidez:

—Amar urtetik amar urtera, Aitasantuak nai edo Aitasantuak nai ez, kontzilio orokor bat izango da egiña;

—Aitasantuak kontzilioegiterik ez nai ba'du, Kardenalek egingo dute kontzilorako deia;

—Aitasantuak kontzilioaren erakutsiak onartzera eta kontzilioa-

ren aginduak betetzera beartuak daude;

—Gotzaien izendatzea, Aitasantuen eginkizuna ez da

—Galitar-Elizaren (ots, Frantzi'ko Elizaren) oitura aintzagarriak ("laudabiles consuetudines ecclesiae gallicanae") zintzo gordebearrak dira.

Leon X'ak eta Frantzisko lak ezereztuko dute laister, alkar artuta, Elizari ainbeste gaitz egindako Burges'ko Pragmatika ori.

Elizaren garbiketa-arloan ez zuan Kontzilioak ezer aundirik egin. Julio II'ak berak bai; eman zituan agindu batzuk; egokiak, bai, baiña gutxi. Ez zuten zitu aundirik ekarri; batez ere paraille-jendea zuzuntzeko eratu zituanak. Ez bait zan erreza, prailleen eraberritzea.

Birjaiotza-aroko prailleak, neurri aundian "era zabarrean bizi zirala", edo "bizitza lasaia zeramatela", ala "lasaiturik" latifñez "relaxi" zeudela esaten dugunean, ez dugu, ez orixe!, orduango prailleak zunkerian bizi ziranik esan nai. Bat edo beste, baziran orrelakoak, baiñ konbentutik irtetzen ziran, edo konbentutik jaurtiak izaten ziran. Prailleak, eta monjak, naiz "relaxi", "lasaituak" izan, lizunkeritik iare eta garbi bizi ziran gaur bezela orduan ere.

Ezer esan nai izaten dan praille-monja aiek "zabarturik", "lasaiturik", "Relapsi", bizi zirala esaten danean? Auxe: Beren Anaidi edo Ordenetako araudi zorrotzetatik kanpora bizi zirala; era berbarau, zurdatz, otoizketa luze, eta penitentzi gogorrek egiteaz azturik...; munduko kristau soil sekularren antzera bizi zirala.

Praille eta monja oien eraberritzea, ots, praille-monja oiek beren Anaidietako arau•zorrotzetara bir-eramatea zein zailla zan adierazteko bi Kardenal ospetsuen ekintza gogoratu nai dugu:

Kardenal oietako bat, frantziarra, Amboise'ko Gorka, Frantzi'ko Jaurilaritzan Lendakari. Bestea, gaztelarra, Frantzisko Ximenez Zisneros'koa, Gaztela'ko Jaurerrian "Regente" edo "Errege-Ordezkoa".

Praillerik "lasaituenak" "fratres mendicantes" edo anai eskaleetakoak zirala-ta, Paris'ko Domingotarrak eta Frantziskotarrak zuzentzetik asi nai izan zuan Amboise'k garbiketa-lana.

Era zakarrean erantzun zioten "eskaleek".

Eskomikapenez zemaituta ere ez ziran makurtu "Saint Jacques" konbentuko domingotarrak. Gudari talde bat bidali zien orduan Kardenalak' lzkilluz ornitutako milla unibersitate-ikasleen laguntzarekin, aurpegi emi1 zioten, bizkorki, preilleek Kardenalaren gudaritaldeari. Gudari geiago bidali-bearrean aurkitu zan Kardenala konbentu ura

errenditzeko.

Domingotarrek indarra bezela, iseka eta iraiña erabilli zituzten frantziskotarrek Kardenalari erantzuteko. Kardenalaren ordezkariak konbetura iritxi ziranean, elizan bildu ziran prailleak, eta an egon ziran, Eukaristia agirian ipiñita, salmoa abestu eta salmoa abestu, kardenalaren ordezkariak aspertu ziran arte. Bigaramonean, eun ertzai-riekin etorri ziran ordezkariak. Oraingoan ez ziran ausartu prantxiskotarrak, Kardenalaren lepotik par egiten astera, baiña beste bide bate-tik joaz, aren ordezkariekin mintza eta mintza eztabaida luzean denbo-ra galduarazten asi ziran. Asper-asper eginda itzuli zitzaizkion berriro Kardenalari bere Ordezkari aiek.

"Aitasantuek emandako baimenetan oiñarriturik" bizi zirala bizi ziran bezela, esaten zuten frantziskotarrek eta ez zitzaien arrazoirik falta. Aitasantuek berak, IV Sixto'k batez ere, lasaitu bait zizkieten prailleei arau zar gogorrak, eta ez noski oso era egokian.

Konponketara bearturik aurkitu zan Amboise. Eta, karmeldarre-kin eta beneditarrekin izan zituan jarduketak ere ez zuten emari geie-gikorik ekarri. Borondate onarekin zebillen Amboise. Baiña ez zekian dirudianeaz, indar utsez ez dala gauza aundirik lortzen' Gaiñera, bere ekintza, "kanpotikoa" zan; ez Doneteresek eta Donibane Gurutzekoak egin zutena bezela, "ordena" ber-beraien barrendik sortua eta aurrera eramana.

Amboise baiño gogorragoa izan zan Zisneros, eta zугurragoa' Konbentu batera sartzerakoan, bertako prailleek zituzten Aitasan-tuengandiko "pribilejio" edo baimenezko paper guztiak eskatzen ziz-kien, eta Aitasantuaren Ordezkari lez, danen aurrean paper aiek erre! Ala ere ez zuan beti nai zuanik lortu. Balladolid'ko konbentuko Fran-tziskotarrek ateak itxi zizkioten, eta ertzaindi'ko gudariak, —ain zuzen berak sortu-berri zituan "Santa Hermandad" edo "Anaidi Done"ko gudariak—, bidali bear izan zituan kubentu ura geziz errenditzera. Ta, igeziei geziz erantzunaz!, eman zien praillek onetorria'

Talabera'koak ere, Balladolid'ko aiek bezela, indarrez mendera-tuak izan bear izan zuten. Kalatayud'koak eskomikatuak izan ziran.

Toledo'koak, gurutzea aizenean zutela, prozesioan irten ziran beren asarrea jende guztiaren aurrean erakustera; Salamanka'koak geiago egin zuten oraindik, kanpora irtenda izurritzko ixkamilla sortu bait zuten uriko karriketan'

Gogorra izan zuten errenditu ez ziran prailleek zigorra, baiña on-dio merezia. Batzuk, asko, Itali'ra erbesteratuak ere izan bait ziran!

Ez zan faltatu Marok'era iges-eginda, an maometar egin zanik ere.

* *

Birjaiotzaren seme, ertilarien adiskide beroa, eta naroa, izan genduan II Julio. Izugarri esku zabala. Bere ertigizonik adiskideena Mikel Gotzon Buonarroti izan zuan. Lan asko, lan aundia egin zuan onek Batikan-Jauregian, Sixtiar-Kapilleko margoketan, adibidez; eta bai eginkizun ttipi izkutueta ere, berak eratu bait zuan "Ertzain-Suiziarren" jantzia, gaur oraindik aitasantu-zaiñ oiek erabiltzen duten jantzia bera. (Ain zuzen, Julio II izan zan Ertzaindi orren sotzaillea).

Julio II'ak egin zuan Mikel Gotzon margolari ere! Mikel Gotzon'ek berak ez zuan ba margoketan asterik pentsatu ere sekulan pentsatu' Irudigille izateko bakarrik balio zuala usterik zegoan, eta ez zuan irudigille eta arkitekto besterik izan nai. Julio II'ak ikusi zuan bere adiskide irudigille arek, margoketarako ere doai bereiziak zituala, eta Julio II'ak artara bultzata, asi zan Mikel Gotzon margolaritzan' !Begi zorrotza zutela ertiarazoetarako Birjaiotzako Aitasantu aiek!

Etixedergilleen artean Julio Sangalo ta Donato Bramante zituan rnaiteenak. Julio II'ak azkeneko onek, Bramante'k, asi zuan Erroma'n dakusgun Kepa Deunaren Jauretxe Nagusia.

Euskotarrantzat badu **II'ak. Azkeneko garrantzi** bereizia, berak izenpetua bait da Fernando Katolikoak Naparroa lapurtzeko erabili zuan bulda.

Baiña, bulda ori, II Julio'ren bulden bilduman ez dago. Ez ote da berea? Aizuna ote da beraz?, gezurrezkoa? Nork idatzia? Erroma'n Fernando Katolikoaren adiskideren batek? Bulda orren eskaria egiten ari bait zan Fernando! Españi'n bertan Fernando'ren inguruko norbaitek? Fernando Katolikoak berak?

Bulda ori dala-ta deitu zion "el Falsario", "Aizuntzaillea" Fernando Katolikoari Kanpion edestilariak'

Bi aldiz egon zan iltzeko zorian II Julio Aitasantua. Bigarreanean, (ziur uste bait zuan jendeak iltzen zala), arren ondorean Aulki Donera igo nai zutenak, iasi ziran beren buruen alde lanean! Autako bat Maximilian I Inperatorea izan zan. Kardenalen autarkia irabazteko Fugger bankalariak aurreratutako dirua erabiltzeko asmoa zuan, eta ziur zegoan bere alde izango zuala Pisa'ko Kontzilioan sartutako kardenalen laguntza. Bazuan Fernando Katolikoaren onetsia ere.

Aitasantu eta Inperatore batera? Gaur, gauza arrigarria guretzat;

ez ordea, orduan, Birjaiotzako jendearentzat. Dana dala, sendatu zan Aitasantua, eta amets utsetan gelditu ziran Maximilian I'aren asmoak.

Bi urte geroago il zan Julio II'a. Aurretik, apalki eskatu zien barkamena kardenalei "pekatari aundia", "maximus peccator" izan zalako, eta Aitasantu on bat aukeratzeko eskaria eginda, pakean utzi zuan ain maitea izan zitzaion mundu au.

* * *

Julio II'a Aulki Donean egon zan urteetan, bizkor jarraitu zuan, zitu ederrak emanaz, Olanda'ko "Eraspen Berri" eliz-garbitzailleak.

Olanda'ko Eraspen berriaren emaitza izan genduan Frantzi'n, "Evangélisme" edo "ebangeliotasuna" esan zitzaion igikundea.

Meaux'ko elizbarrutia izan zuan "ebangeliotasun" orrek kabi, eta bertako gotzaia, Gillermo Briconet, izan zuan berriz, Etaples'ko Lefebvre'ren laguntzarekin, zuzendari.

"Evangélisme"ren "bizitza guzia ebangelioan oiñarritu nai izatea" da' Ez, Luter'ek nai zuan bezela, "ebangelio utsean", baiña bai, "bereiziki ebangelioan".

Ebangelioa "bizitza osoaren anima" egiteko asmo orrekin, gizatalde polita bildu zan Meaux'en Briconet Gotzaiaren eta Lefebvre idaztidone-irakaslearen inguruan: Meaux'ko Lagunartea". Len ere esan dugun bezela. Lagunarte artako pertsonik ospetsuenetakoa, Napparroa'ko Erregiña: Margarite Valois'tarra, II Enrike'ren emaztea izan zan. Jakintsuenetakoa an, eta zalantzarik gabe, idazlerik onena: Frantzi'k Birjaiotzakoan izan zuan olerkaririk onenetakoa. Eta benetan katolikoa.

Auxe ere esan bear da andrazko aren omenez: Emakume lizunez ain beterik egon zan Frantzi'ko errege-inguru artan, bera, naiz neskakil polita izan, lizunkeri orotik garbi ibilli zala beti. "La margurite des margurites" esaten zion bere anaiak, Frantzisko I'ak, "izarlilien izarlilia"

Agian, Margarite, beste Meaux'ko lagunartekoak bezela, egiazko ebangeliotasuna, Lute'r'en ebangeliotasun okerretik ezin bereizturik ibilli izatea, baleiken gauza da. Orregaitik, bear bada, Margarite bera katolikoa izan ba'zan, eta ala il ba'zan ere, kalbindarra izan zan, zearo kalbindarra, bere alaba, Jone II'i'a Napparroa'ko Erregiña.

Ziurki, "bizitza osoa ebangelioan" errotu nai izate arek, geiegikeri batzuetara eraman zuan noiz edo bein Lagunarteko sermoilari sutsu

biotz-bero aietakoren bat edo beste, adibidez pulpittutik "Santurik ez, Kristo bakarrik!", deadar egiten zuan, Aranda'ko Mikel, Margarite'ren sermoilari eta Luter'en miresle ura.

Briconet Gotzaiak berak ere, Frantzisko Deunaren zaurietaz mintzatzea galerazi zien frantziskotarrei, eta Frantzisko Zaurituaren irudia aldareetan ipintzea!

Alatagutziz, asmo oneko jendeak ziran Meaux'ko "lagunak". Egia da Farel protestalaria oso adiskide izan zutela, eta "lagunetakoren bat edo beste" Roussel adibidez, gero protestalaritzara joan zirala baiña egia da baitare, asmo oneko jendeak zirala Meaux'ko "lagun" aiek danak. Soilki, iameslariegiak! izan ziran; baita "lenen denborako" kristautasunaz ain era beroan mintzatzen ziran ere. "Meaux'ko lagunek" Elizaren edestia ez zuten ondo ezagutzen, eta lenengo kristau aiek nolakoak izan ziran ez zekiten.

Ameslariegiak eta "inoxenteegiak" ere izan ziran borondate onez betetako "lagun" aiek. Orregaitik kosta zitzaien ainbeste, berak bide batetik eta protestalariak beste batetik, oso beste bide ezberdin batetik, zijoaztela konturatzea. Ori ikusi zutenean bai, zearo urratu zituzten protestalarietako arreman guztiak.

Ameslari eta "ifioxentegia" izan zan Meaux'ko Gotzaia bera ere, Guillaume Briconet, Pisa'ko Sasikontzilioan, buruzagien artean ikusi dugun Guillaume Briconet Kardenal aren semea. Ots ordeala, legezko semea, Kardenal ura apaiz izan baiño len jaio bait zan gure gotzai au. Borondate oneko kristau zintzoa zan Meaux'ko Gotzaia! baiña "iñoxente xamarra", geiegi kosta bait zitzaion berari ere bere Lagunartean zeuzkan izkutoko iru edo lau erdilutertar aien okerkeriaz konturatzea. Orduan bai. Tinko jokatu zuan orduan katolikotasunaren etsai aien aurka.

Ameslariagia eta "inoxentegia" izan zan Jacques Lefevre d'Etapes, (Iatiñez, Jacobus Faber Stapulensis) filosofilari, teologilari, eta biblilari ospetsua, bere adiskide Meaux'ko Gotzaia bezela. Paris'en ikasi zuan teologia eta baita elenera ere sakonki. Eta matematika. Florentzi'ko Akademi Plantondarrean ikasi zituan berriz, Marsilio Fizinorekin eta Pico de la Miràndola'rekin, Birjaiotza'ko era eta jakintzak; ta Erroma'n, Herrnolao Barbaro'rekin, Aristotele'n Filosofia' Ondo prestatutako gizona zan, beraz.

Paris'en Filosofia erakutsiaz asi zuan bere ekintza. Argitaratu zituan Aristotele'ren liburu guztiak ere, zuzenean eleneratik bir-itzuliak, eta oarkizun egokiez ornituak. Maitasun aundia zien antziñako filoso-

filari aundiei; Jainkoak jentillen zuzendari izateko, era bereizian, bidalitako gizakumeak izan zirala uste izan bait zuan: "Quos philosophos suo tempore fecit Deus suos sacerdotes, suos vates, et faces quae ad tempora nostra lucent" idatzi ere zuan. (Filosofilari aiek, beren denboretan, Jainkoak bere apaiz, igarle, eta argi-zuzi egin zituan, eta gure aro ontaraiño iristen zaigu oraindak aien argia").

Alare, bere zaletasun nagusia, Idazti Donea izan zan. Idazti Donea eta Elizako Asaba Zaarrak; mistikarako jaio izan bait genduan Jacobus Faber Stapulensis biotz-bera.

Ezin ukatu daiteken gauza da, izugarri lan ederra egin zuala Idazti Doneen barrutia; ^


Asaba Doneeiburuz argitaratu zituan amabiren bat liburuetaz landa, beste orrenbeste argitaratu zituan Idazti Doneari buruz, eta azkenean Bibliaren itzulpena: "La Sainte Bible En Francoys". Vulgata"tik egin zuan itzulpen au; frantzerara egindakoeta" 'urrenekoa.

Gizon argia, kristau zintzoa, Lefebre; baiña iñoxenteegia, asko kosta baiz zitzaion, geiegi, protestalarien asmoetaz oartzea; Erasmo'ri baiño askoz geiago. Margarite Erregiñaren jauregira bildu zan bere azken egunetan, eta an il zan, pakean, kristau jatorra lez. (1536).

Adiskide asko izan zituan; Zisneros Kardenala, adi bidez: Eta Frantzi'ko Erregeak, I Frantzisko'k, "Lurren Galiae", "Frantzi'ren Argi", esan oi zion. Erregeak baiño begi zorrotzagoa izan zuan Bitori'ko Frantzisko'k eta lau itz egokiren bidez egin zigun Lefebre'ren antzirudia: "Iste bonus vir Stapulensis": "Etapletar gizon on-puska au"! Ederki esana: Ori izan bait zan Lefebre: "bonus vir", "on-puska" bat. Orixe izan zan Briconet Gotzaia; eta orixe bera, Meaux'ko "lagun aiek ere: "on-puska" utsak!.

Gauza bat erakusten digu Frantzi'ko "ebangeliotasunaren" edes-tiak: Oso gauza zailla, eta arriskugarria zala Elizaren eraberritzea, eta arreta aundiz ibilli bearra zegoala; bestela, Eliza lizunkeriz garbitzearen, siniskeri ustel eta okerrez zikindu bait zitekean; len baiño geiago zikindu: Elizarentzat gaitz makurragoa bait da siniskeri okerra lizunkeriri zikiña baiño.

Lizunkeriz zikindutako Eliza, Eliz zikiña da; baiña Eliza! Sinispide okerreko Eliza, aurpegiz garbia izango litzake, baiña ez litzake Eliza izango'



MARTIN LUTER

LEON X'a, (1513-1521).- Sixto VI'ak exkomikatutako "Lorenzo Magnifico" edo "Lorentzo Bikain" Medizistarraren semea zan Leon X'a: Florentzi'ko lendakari izandako Lorentzo aren semea. Iru urte besterik ez zituala, Birjaiotzako olerkaririk aipatuenetako bat eman zioten irakasle; sei urte zituala egin zuten Elizaren Fede-Emaile, Notario; eta andik laister, lau lekaidetxeko Abata. Ta amairu urte bete zituanean, !Kardenal!!!.

Gizon gazte zala, aberats, baña lizunkeriz zikindu gabe, Erroma'n bizitu zan berak eraikitako jauregi eder batean, jakintsuen artean esku zabalen dirua ixuriaz. Florentzi'ko Errepublikaren Lendakari ere izan zan aldi batean, eta pozik bizi izan ziran aren agintzapean florentziarrak.

Buruz landua, edertilarien laguntzalle naroa, borondate onekoa..., Birjaiotzako gizaseme bezela bizitzaren maitale sutsua zan, naiz-ta, beste asko ez bezela, bera oituretan garbia, otoitz-zalea, eta ziñezko sinistuna.'. , baiña beratza, aultxo, biguñegia! Auxe zan Leon X'a Martin Luter'en garaiako Aitasantua'

"Goza dezagun aitasantuketa
Jainkoa'k berak emana dugu-ta",

zan, auzi larriak amaitu ondoan maiz erabilli oi zuan esaera. Ta gozoki joan oi zan edertilarien jardunetara, musiko edo ereslarien entzutera, antzerkien ikustera. iBera ere, bertsoegille izaki...! Baita eiztari amorratua ere'

Ura zan ura egiazko urre-aro, Erroma'n bizi ziran guztientzako! Nork uste izan, ekaitza ain urbil zegoanik?

PROTESTALARITZA.—Lau burutan sortu zan protestalaritza, lau izan bait ziran protestalariak; ia lauak aldi berean, baiña bakoitza bere aldetik. Lau gizon auen izenak Martin Luther, doixtarra, alemanitarra; Yon Calvin, frantziarra; Ulrik Zuingli, suiziarra; Enrique VIII'a, inglanderriko erregea'

Ez zuten lauak pentsakera bera. Lokarri batek bakarrik lotzen zituan batera laun gogabideak. Lokarri ori, Erroma'ko Aitasantua Eliza'ren buruztat ez aitortzea zan. Lauak izan ziran elkarren etsai. Izan ere, iain ziran ez berdiñak! Izena berriz, Protestalari izena, usteezean bezela sortu zitzaien. Ara nola:

Martin Luter Aitasantuaren aurka jeiki zan bezain laister, asi zan Karlos V Inperatorea bere Alemani'ko erridietan pakea ezartzeko, lutertarrei, goxoki, aoa itxi naiean. Ortarako, Spira'ko urian 152453'an bildu zan "Dieta" edo inperioko Batzar Nagusian sinispideaz aldatzea galerazi zuan. Biziro egin zuten lutertarrek, debeku orren aurka oste-keta edo protesta. Orretxegaitik, lutertarrei leenik, eta gero, aldi artan Aitasantuaren aurka altxa ziran guztien jarraitzaileei, "Protestantea" deitu zitzaien latifiziez; "Ostelariak", "Protestalariak".

Enrique VIII'az beste ostelariak bazituzten bi gogapen alkarrekin berdiñak: "Idazti Deuna kristau bakoitzak *bere erara* ulertu lezakeala, (ortarako Ata Gurenak bakoitzari bakoizki argi egiten diolako)"; eta, "sinismenak *bakarrik* salbatzen gaituala (obra onak bearrekoak ez di-ralako)", sinistea.

MARTIN LUTHER.—Alemani'ko Eisleben izeneko urian jaio zan Martin Luter, 1483'garren urtean' Bere aitak meatzetan lan egiten zuan, eta egiazko kristaua, baiña gogorregia omen zan.

Mutil azkarra irten zan Martin, Erfurt'eko Ikastola Nagusian egin zituan ikasketak agertzen dutenez' Okam'en Filosofia erakusten zan Ikastola artan, 1512'an artu zuan Luter'ek "Irakasle" izateko baime-na: "Doctor" izateko eskubidea, latiñez esan oi zanez.

Gazte-gaztetandik izan zan Martin Luter adimenez zorrotza, baiña gogoz bildurtia, eta ikara ta estutasunetara okertua.

"Irakasletzarako" baimena artu zuanean ere, poza **larrita**-sun geiago senti omen zuan biotzean, andik aurrera erantzunbear zorrotzagoa izango zualako Jainkoaren aurrean.

Urte ortan bertan, inguruan lertu zitzaion tximist izugarri batek, biziro bildurtu zuan, eta tximistaren argia itzali bezain laister, lekaide, fraile, sartzeko eskeintza egin zuan. Uste bait zuan, munduan jarraitu-ri k ez zuala bere animarik salbatuko. Ainbestekoa zan Jainkoaren epaiketari ta inpernuko suari zion bildurra. Orrela sartu zan Erfurt'eko agustindarren lekaidetxean, naiz bere aita meatzalleak eta bere adis-kideek ez orrelakorik giteko esan-da-esaten.

Ara nola kontatzen digun Luter'ek berberak gertakizun ura:

"Hilf du, Sancta Ana", "Lagun zaidazu, Ane Deuna", dei egin

omen zuan tximist-ortzotsen burunbak izuturik, Ane Deuna zan ba Saxoniko zaindari.

"Damutu zitzaidan geroago, —dio Luter'ek—, lekaide sartzeko eskeintza ura egin izatea", eta beste askok ere atzeratu nai izan ninduten eskeintza ori betetzetik; baiña aurrera jarraitu nuan nik' Baita nere aita ere; asarretu zan nere aita, tximist-erortze artako nere eskeintzaz jabetu zanean. "Ego vero perseveravi": "nik ordea, tinko iraun nuan nere asmoetan"... Munduari agur egiteko, Alexis Deunaren egunean nere inguruan bildu nituan adiskiderik onenak, eta aiekin jai egin nuan. Saiatu ziran, danak, burutik neri lekaide sartzeko asmoa kendu nairik. "Alperrik ari zerate, esan nien; alperrik. Gaur ikusiko nauzute, biar, ordea, ez nauzute ikusiko"; ta ala sartu nintzan lekaidetxean. Eta gero ere ez nuan sekulan lekaidetxeak irtetzerik pentsatu"

Lagun onak eta irakasle atsegiñak aurkitu zituan agustindarren artean, eta pozik bizi izan zala bertan, dio Martin'ek berak. Ala ere ani ma salbatuko ez ote zuan bildurra berekin zeraman erraiñetan, eta gogoz ekin zion otoizketari ta penitentziegiteari. Oso penitentzi gogorak, berak diona egia ba'da.

Penitentziegite eta otoizketen artean iritxi zitzaion Agustin Deunaren Anaidiaren altzoan botuak, eskeintzak, egiteko garaia.

Alperrik saiatu zan berriz ere Martiñ'en aita zan Hans Luder, —orrela idazten bait zuan arek bere abizena—, asmo oiek Martifferi burutik kentzeko, bere semea lekaidetarako jaioa ez zala-ta, botogintza ura deabruaren lana zala esanaz. Berearekin atera zan Martin. Gogorragoa zan nunbait aita baiño semea. Gero ere, protestalaritza sortu ondorean, berekin eraman bait zuan semeak aita!

Lekaidetxean, pozik, Okam'en erara egin zituan Anai Martiñ'ek ikasketa guztiak; bai filosofia, bai teologia. Bere bizitza guztian okamdarra izanen da Luter'en oldozketaren

Ta iritxi zitzaion apaiz egiña izateko eguna. Maiz irakurriko duzu li buruetan, osteraren bezela aurka irten zitzaiola oraingoan ere aita' Ez da egia. Etsi bait zuan ordurako Hans Luder'ek..., agian bi seme li zizkion izurrite batean Jainkoaren zigorra ikusi-edo zualako. Joan zan semearen Meza Berrira; ta alaiki joan ere, zaldiz, ogei adiskide zaldizkoez inguratutik. Berak ordaindu zien adiskide aiei danei 80 kilometroko ibillaldi aren gastu guztia; Eman zion lekaidetxeari ere eskupeko ederra: urte osoan bi lekaideren bazkaren balioari zegokiona eta, adiskidetasunaren adigarri, itzegin zion atzera berriz, "berorika", bere

semeari' Ala egiten zion len ere, eta nolako arrotasun garbi gozoarekin!, semeak Erfurt'en unibersitate-graduak artu zituan ezkerero. Leena-go lekaidetxean sartu zitzaionetik ika itzegiten bait zion, bere asarrea, orrela ere, adierazi nairik.

Apaiz Witemberg uriko Ikastola Nagusian filosofia erakusten ipiñi zuten agintariek gure Martin.

Bitartean, Idazti Donea ikasten gogotik saiatu zan eta jakintza au lortu zuanean idazti Donearen erakusketa bere eskuetan artu zuan Witemberg'eko Ikastetxe Nagusi artan.

Izan zan Erroman ere, bere lekaide-lagundiaren auzi batzuek zuzentzera joana' Ta erromes bezela, eraspén beroaz ibilli zan, bertako Jauretze ta toki doneetako bixitak egiten. Bi illabete egin zituan urian 1510'etik 1511'ra. Ez zitzaion noski atsegin izan bere begiz ikusi izan zuan Erroma'ko bizikera lizuna, baiña begi paketsuaz eta patxada osoz ikusi zituan ango eliz-gizonen dirukeri nabarmen eta nolabaiteko oiturak. Ez zuan animaren baretasunik galdu, are ta gutxiago sinismenaren aurkako zalantzarik sumatu bere biotzean'

Andik lau-bost urtera izan zan Martin Luter'en gogamenaren iraultza'

Orduan zart-egin zion bere barrunbeko izakera guztiak. 1515'tik 1516'era, Paul Doneak erromatarrei idatzitako epistolaren azalpena egiten ari zan Witemberg'eko Ikastola Nagusian. Ta orduantxe gertatu omen zitzaion berak "Torreko Aurkikuntza" esaten duana. Bere lekaidetxean, torrean, epistola aren itzak buruz jorratzen ari zala, idoro omen zuan ba, uste gabean, salbamenaren izkutukia ulertzeko berak ain gogoko zuan argia. Larri ta estu bizi omen zan artean, betiko inpernuaren bildurrez. Orduan jakin omen zuan, ziurki, salbatuko zala' Jakin omen zuan baita, zergaitik zalantzarik gabe salbatuko zalakoaren ustean lasai bizi zitekean: Jainkoak gizona Kristoren santutasunez jazten dualako. Entzun dezaiozun berari:

"Irrikatzen zegoan nere gogoa Paul'ek Erromatarrentzako idaztitan ziona ulertu nairik. Eta artean ulertu ez ba'nuan, ez zan noski ulertu-nairik ez nualako, nola argitu ez nekialako baizik, idazti artako esakizun au: "Bertan, (ebangelioan), agertzen da Jainkoaren Justizia" Izan iain gorroto nituan nik bi itz auek: "Jainkoaren" "Justizia". "Uste bait nuan, bi itz oiek, —ala erakusten zuten irakasleek eta—, Jainkoaren baitan dan Justizia adierazten zutela' Jainkoa bera done egiten duan Justicia; Jainkoak pekataria galtzeko erabiltzen duan Justizia. "Justitia Activa". (Itz auekein, pekataria, eta batez ere pekatuan iltzen dan pekataria naitanaiez gorrotatzera Jainkoa da-

raman Justizia, adierazi nai du Luter'ek).

"Estu neukan nere barrua, ikusten bait nuan, naiz nere lekaide-bizitza errugabea izan, pekatari nintzala Jainkoaren aurrean, eta nere penitentzi-ekite guztiekin ezin nentzakeala Jainko ori baretu".

"Ez nuan nik, ziurki, Jainkorik maite; ez. Gorroto nion Jainko orri: pekataria zigortzen duan justiziazko Jainko orri. Naiz agotik biraurik irten ez, amurruz betetako ixiltasunean jeiki oi nintzan ikara zekarkidan protestan, Jainko orren aurka. ¿Ez ote da naikoa, galdetzen nion nere buruari, ez ote da naikoa pekatari gaixook jatorrizko pekatuaren ondorioz betirako galduak izatea? ta Amar Aginduen Legeak gaiñera botatzen digun zamaren azpian bizi bear izatea?... Auetaz gaiñera, 6samiña samiñaren gaiñean ezarri bear al digu Jainkoak, Ebangelioaren bitartez bere asarrea ta justizia gure buruetara irauliaz? Amorraturik zegoan nere kontzientzia, basa-pistien antzera. Ala ere, ari ta ari nebillen nere atsekabean, Paul Doneak zer adierazi nai zuan jakin naiean".

"iBi itz aien inguruko beste itzei begira asi nintzan arte! Esakizun osoak onela bait dio: Bertan agiri da Jainkoaren zuzentasuna, justizia; idatzita ere bait dago, gizon zuzena sinismenak bizi duala"

"Orduantxe asi nintzan ulertzen, Jainkoaren zuzentasuna, justizia, gizon fededunak, "zuzen" bizitzeko, sinismenaren truke Jainkoaren doai bezela Jainkoagandik artzen duan Zuzentasuna dala' Argi ikusi nuan esakizun osoaren zentzua auxe dala: "Ebangelioak, Jainkoaren zuzentasun "pazientzizkoa", "Justitia pasiva", erakusten digu: Zuzentasun orrekin, Jainko errukitsuak "zuzen" egiten gaitu, fede bitarteko dugula; idatzia bait dago, zintzoa sinismenaren indarrez bizi dala".

"Berriz jaioa bezela ikusi nuan nere burua, ta zeruko ate zabaletik barrura sartu nintzalaren poza sumatu nuan. Idazti Done guztiaren aurpegia erabateko itxura berrian agertu zitzaidan".

Asi zan Luter, ezkutuan ta arreta aundiz, gogapen auek zabal-tzen. Laister ipiñi zitzaion bere alde Karlstadt apaiza, Witemberg'eko lkastetxe Nagusiko irakaslea; baita ikastegi artako gazte sail bat ere, eta Luter'en lekaidetxeko praille batzuk. Baziran erriko jendeak ere, aurreneko lutertarren artean.

Sua laister lertu zan.

1517'garren urtean asi zan Alemani'n Leon X'ak emandako barkapen edo induljentiaren zabalkundea.

Brandenburg'etar Albert goigotzaiaren agindupean, Tetzal do

mingotarra izan zan zabalkunde ori Maguntzi'n egiteko izendatua. Maguntzi, batera Elizbarruti eta Laterri iare zan, Alemani'ko beste Elizbarruti asko

Saxoni'ko printziperrian, Luter'en lurrean, ez zan barkapen aren zabalkunderik egin, ez bait zuan Federik "Jakintsu" Printzipeak artarako baimenik eman.

Witenberg ordea, Luter bizi zan uria, printziperriaren mugaondoan zegoan-eta, laister izan zuan Luter'ek zabalkunde aren berri; eta, bereiziki, Tetzerek zabalkunde ura egiteko zerabilkian izkeraren berri'..

Ondo ezagunak ziran kristau guzientzat Barkapenak; eta Baita barkapenen oñarrizako dotriña ere: Ama Birjiñak eta Santuek, baiña batez ere Kristok, irabazitako meritu neurrigabeak Elizaren eskuetan daude, altxor edo aberastasun aundi bezela. Aitasantuek, eta gotzaiek ere, badute aberastasun ori kristauei emateko eskubidea, otoitz, limosna, edo beste ekintza on baten truke. Barkapen ori, pekatu aitortuengaitik purgatoriorako gelditu leikean zorra ordaintzeko da. Orregaitik, Barkapena irabazteko pekatariari aitorketa eskatzen zaio. Eta biziok eta illak Gorputz bat egiten bait dugu, Barkapen ori garbitokiko animen alde eskeñi daiteke mundu onetan senide batek bere senidearen zorra ordaindu lezakean bezela. Gauza maitea izan du beti Elizak induljentzia; baita kristau erriak ere.

Baiña Birjaiotzako Barkapen-banatze aietan ez zan dana gari garbi. Ikusi dugu zenbataiñekoa zan eliz-gizonen diruzalekeria, saltzen ere bait zituzten diruz, batere lotsarik gabe, gotzaigoak eta Elizaren beste karguak' Induljentziak berak ere, limosnaren truke ematen ziran askotan, eta orrela, diru-iturri naroa ziran eliz-gizon aientzat bein baiño geiagotan.

Luter ainbeste asarretu zuan Barkapen au Julio II'ak 1507'an, Erroma'ko Kepa Donearen Jauretzea egiteko, sortu zuan. Leon X'ak osteria induljentzi au zabaltzea erabaki zuanean Brandenburg'etar Alberto izendatu zuan, zabalketa ori Alemani'ko lurralde batean zuzentzeko'

Brandenburg'etar Alberto Printzipeak ogeita iru urte zituan, Magdeburg'eko Goigotzai ta Alberstard'eko Gotzaiordezko egin zutenean. Andik urte batera Maguntzi'ko Goigotzai aukeratu zuten bertako Eliz-gizon Nagusiek, baiña Erroma'ri kargu orregaitik ordaindu bear zitzaizkion amalau milla dukat urreak Alberto'k bere sakeletik ematekotan.

Iru elizbarrutitako Gotzai, batean, izateko, Erroma'ko baimena

bear zuan, eta eman zion baimen ori Leon X'ak baiña beste amar milla dukaten truke. ¿Nondik sortu olako dirutza aundia? Frugger bankalari-ek erakutsi zioten nola: Naikoa zuan ortarako, bere iru elizbarrutietako barkapen-zabalketaren buruzagitza lortzea. Induljentzi-zabalketarekin lortzen zan diru guztiaren erdia, Erroma'ra bialduko zuan; beste erdia Alberto'rentzat izango zuan, eta erdi onen itzean Fruggertarrek aurreratuko zioten bear zuan diru guztia. Pozik onartu zuan Alberto buru-ariñak bankalari diruzale aiek eskeiñi zioten tratu nazkagarri ura eta orrelako intentzio "santuarekin" artu zuan beregain barkapenaren zabalkundea'

Alberto'ren esanera, asi zan Tetzal induljenzia aldarrikatzen. Izlari iaioa ta teologilari ona zan. Ala ere, bere itza sarkorrago egin naiean edo, esan zuan txepelkeriren bat edo beste. Adibidez, diruak Barkapenaren kutxaren barruan tintin egin bezain laister ateratzen zala anima bat garbitokitik'

MARTIN LUTER'EN JOKAERA.—Ez zuan Luter'ek Printzipe-Gotzaiaren istoriarik jakin, baiña berdin izango zan jakin balu ere, Luter ez bait zan sekulan Eliza garbitzeagaitik jeiki, bere animaren salbamera seguru zuala jakitearren baizik. Ez zuan Elizaren xauketarik, billatzen; bere biotzaren lasaitasuna billatzen zuan. Eliza salbatu bearrak ez zuan estutzen. Bere anima salbatu bearrak estutzen zuan.

Ez zan, beraz, Luter, maizegi esan oi dan bezela, eliz-berritzaille bat, Eliza katolikoa utzi ondorean bere elizan "era" berriak sortu ba'zitan ere. Aldaketa oiek nai-ta-naiezkoak zituan bakarrik gelditu zan ezkerero. Baiña ez ziran aldaketa oiek Martin Luter'en elburu.

Martin Luter, batez ere, anima oiñazetu bat zan. Gaiñean ezin kendurik zeukan pekatuaren zamatik, ain bildurgarri zitzaion Jainkoaren justiziatik, eta betiko inpernutik, iges egin nai zuan anima gaixo, izutu, errukarri bat. Gauza bat bakarrik nai du Luter'ek: salbatuko dala seguru jakin. Segurantzi edo eskiertasun ori bakarrik nai du. Gizon argia zan, adimen zorrotzekoa, idazle iaioa, baiña aren sikologia, buruko gaitzek zauritu duten persona baten sikologia zan, eta gaixotasun edo auleri orrek bein baiño geiagotan eramanen zuan Luter izutua erotasunaren atariraiño-^eta agian, batzuetan, aruntzaxeago ere bai.

Orretxegaitik egin zion miñ aundia Tetzal'en izketak. Uste bait zuan berak, "Torreko Aurkikunde" artan, salbatuko-zalako-eskiertasuna betiko lortu zuala; ta, orain, induljenzien arazoa, ziuertasun ura guzia zalantzan ipintzera bait zetorkion!

Gaiñera, Tetzl'en izkera ariñak osoro asarretu zuan. ¿Ez at zan, bada, bera, Luter, bizitza guztian burruka beltzean ibilli pekatuen atza-parretatik ezin aldegiñik? „Nondik zetorren lekaide domingotar ura txanpon bat kutxatillara botatzea naikoa zala esanez pekatuetatik libratzeko?

Esaten zuan Tetzl'ek, bearrezkoa zala aurretik pekatuen damua eta aitorketa; ta ori jakin zuan noski Luter'ek' Gaiñera dez ote zuan ikusten urrezko txanpon bat kutxa batera jaurtitzea gauza errexegia ba'zan pekatuen barkapena irixteko, berak aipatzen zuan "Kristogan siniste uts" ura ez zala askoz zaillagoa?

Luter'en problema sakonagoa zan. Luter'ek ez zuan pekatuak zeren truke barkatu galdetzen; limosnaren, damuaren ala sinismenaren truke. Luter'ek galdetzen zuana zera zan: ea pekatuak barkatu zitezkean; eta ezetz erantzuten zuan. Pekaturik ez zala barkatzen, ez zala deusezten' Jainkoak berak, ez zituala pekatuak barkatzen; Kristoren zintzotasunez "estali" egiten zituala, ta, Kristok pekatu oien zorra ordaindu zualako, kontuan ez artu.

Au sinisteak ekarri zion animako pakea; bere pekatuak aundiak eta gaiñetik-ezin-kenduak izan-arren, Kristoren rnerituak askoz ere aundigoak ziralako, ziur zegoan Jainkoak ez zizkiola kontuan artuko.

Ziurtasun ori barkapenen arazoak urratu zion. Luter'en aurreneko gauza induljenzizabaltze artan zer ikusirik zuan guztiari idaztea izan zan. Brandenburg'etar Alberto Maguntzi'ko Goigotzai ta zabaltze aren zuzendari zanari; Luter'ek bere artzai zuan Brandenburg'eko Gotzaiari; Maguntzi'ko Printzipe Autalariari, (Printzipe Autalari esaten zitzaien Inperatorea autatu edo aukeratzeko eskubidea zutenei).

Ez zioten erantzun. Gero Luter'ek esango du, orretxegaitik, erantzun ez ziotelako, ezarri zituala Witemberg'eko Ikastola Nagusiko ateetan bere "Thesis" edo "Esari" ezagunak' Ez da egia' Uts egiten dio nunbait oroimenak gai ontan, "Esariak" atean ipintze ori, bigaromanean bertan egin bait zuan, 1517'ko Done Guztien egunean. Egun au artu oi da Protestalaritzaren sort-eguntzat.

"Esari" oietan purgatoriorik ez zala, ta, ortaz, barkapenak alperrikako gauzak zirela; eta Elizak pekatuak barkatzeko almenik ez zuala, zion Luter'ek; bazituan ziri ozpiñak ere Aitasantu ta eliz-gizonen dirugosearen aurka.

Illabete batzuek lentxeago idatziak zituan Karlstadt'ek, dotriña bera zeramaten beste 127 esari. „Bere lagunaren atzetik gelditu nai ezak eraman ote zuan Luter bere 4535'ak argitaratzera? Dana dala, lati-

ñez idatzi zituan, agian, dotriña berri ura erriari iristea nai ez zualako, bere aldakuntzaren asieran beintzat.

Teologilarientzat bakarrik ari ba'zan, laister erantzun zioten auk.

PROTESTALARITZAREN ERNETZEA'—Oroi ditzegun erlijio iraultza onen aurreneko momenturik garrantzitsuenak:

1517, Azaroa, Done Guztien eguna. Luter'en 4535 Esarien" agerpena.

1517, Abendua. Konrand Koch "Wimpina"k, Luter'en 4535 "Thesis" aien aurka 56 "Antithesis" edo "Esari-aurkako" antolatzen ditu. Wimpina au apaiza zan, Frankfort'eko Ikastola Nagusiaren zuzendaria.

1518, Ilbeltza. Jon Tetzl'ek Wimpina'ren 56 Antithesis auk argitara ematen ditu.

Luter, Saxonitarra zan. VVimpina Brandeburgetarra' Alemani'ko bi Laterri auen alkarrenganako bekaizkeriak bai omen du zer-ikusi protestalaritzaren aurren-momentuetako "agozko" gudaketa ontan' Ain gera txikiak gizonok eta ain dira koxkorrak iraultza audienen asierak ere!

1518, Udaberria. Luter'ek "Induljentzien Sermoia" egiten du, bar-kapenak alperrikako siniskeri baliogabeak dirala esanaz'


1518' Sermoi orri, Tetzl'ek, alemanez idatzitako "Jardun" batekin eta latinez edatutako 50 "Esari"rekin erantzuten dio.

1518. Jon Eck, Ingolstadt'eko Ikastetxe Nagusiko irakasleak "Adnotationes", "Oarrak", izeneko liburua idazten du, Luter'en gogaeta eta Hus'en erejiaren arteko berdintasunak agertuaz. Jon Eck domin-gotarra, gizon ospetsua zan, diruagatik korrittua jasotzea zillegi zala erakusten leenenetakoa. Luter'en adiskidea izan zan' Baita Babiera'ko Dukearen eta Eichtat'eko Gotzaiaren laguna ere' Ain zuzen Gotzai onek eskatu zion "Oar" aiek idazteko, ta ori egitean Gotzai au izan zan Luter'en aurka lenen zutitu zan Eliz-agintaria' Besteak lotan zeuden.

1518' Luter'ek amorruez erantzuten dio Eck'eri, "Asterisci" edo "Izartxoak" idatziaz.

1518' Brandenburg'etar A I berto Maguntzi'ko Goigotzaiak, (induljentziengandik jasotzea uste zuan diru-uzta arriskuan zegoala ikustean ikaratu zan nonbait-eta) Martin Luter biurri ura Aitasantuari salatzea erabaki zuan. iNoizbait...!

Leon X'ak ez zion arazoari garrantzi geiegi eman, lekaide teologi



KG/R' 1E3dHPIEN

- | | |
|------------------------------|----------------|
| 1. SCH ¹ ALKALDEN | 8. DRESDEN |
| 2. fic1HLI-IEN | 9. C-1E/BEN |
| 3. KO8URG | 10. wITTENBERG |
| 4,17.5C/VACH | P1uHL8G. |
| 5. JENA | 12. ERFURT |
| 6. ALTEN86. | 13. wEirtAR |
| 7. SLOLPEN | 14. LE/PZ1G |
| PRMITZ/PERP/A | nDUKATEPRIA |

MUGAZ MAIZ ALDATZEN ZIRAN, LUTER'EN DENBORAN LEOEZ1G uRIA,
 NAIZ PRINTZIPEAREN LURRETAN ESON,DUIrE ARENA ZAN

LUTER'EA/ GARAIKO BI SAXON/A I(

√ W DIMGERS'EN · H1570RISCHER ATZAS ' LIBURUIIIIF ARTUA

zaleen arteko ixkamilla utsa zalakoan. Staupitz agustindarren zuzendariari Luter urduri ura baretzako agindu ondorean, lasai jarraitu zuan bere bizikera ariñean, noizbeinka gotzaigoren bat salduaz, dirua sortzeko.

1518, Jorrailla. Heidelberg urian agustindarren batzarra. Leon X'aren agindua adierazten zaio Luter'i; eta onek bere burua defenditzen du, berak egiazko teologia, "Gurutzearen Teologia", aurkitu zuela esanaz. Teologi orren mamia: Pekatuei-buruz, "askatusuna" itz utsa besterik ez dala, gizona naita-naiez pekatu egin bearrean aurkitzen dalako. Baiñan ez omen du orrek garrantzirik, gurutzearen merituetan sinistea naikoa bait da anima salbatzeko. "Siniste" orrek, eta, ez, "egite onak", salbatzen omen du gizona.

Agustindar askok onartu zuten, Luter'ek agertu zien sinisbide berria. Staupitz bera, agustindarren zuzendari nagusia, Martin Luter'en lagun ta adiskide kutuna zan aspalditik. Orregaitik batere eragozpenik gabe, iare ta garaille irten zan Anai Martin Batzar artatik.

Garaille'..! Izan ere, bere alde zuan Alemani'ko agustindarren Probintzi osoa. Bere alde Witenberg'eko Ikastola Nagusiko irakasle ta ikasle geienak. Aren alde jarri zan Bucer teologilari domingotarra... Orduantxe idatzi zuan Luter'en ikasle batek "Disputatio", "Jarduketa", izeneko liburua, irakaslearen gogapenak zabaltzeko.

—1518, Maiatza. Luter'ek "Induljentzien balioari buruz Erabakiak" edo "Resolutiones de virtute Indulgentiarum" idatzia idatzi, ta Aitasantuari bidaltzen dio. Libuaren eskeintza egiteko itz goxo apalak darabilzki, baiña argi adierazten du bere "erabakiak" ez aldatzeko daukan asmoa ere.

1518. Asten da Erroma'n Luter'en aurkako epaiketarako auzia osatzen. Auzi ori asteko bearrezkoa zan, teologilari batek epaitu-bearraren gogapenetaz bere iritzia idatzita ematea. Idatzi ori Prierias domingotarrak egin zuan, ta izen au eman zion: "Dialogus in praesumptuosas M. Lutheri conclusiones de potestate papae", "Aitasantuen almenari buruzko, M. Luter'en gogakizun arroxkoetaz alkarriketeta". Izenak berak jakinarazten duan bezela, Prierias'ek lan ortan Luter'en esakizun guztietatik Aitasantuaren eskubideen aurkakoak ziranak bakarrik artu zituan kontuan. Orduango eliz-gizonak teologilari baiño legiztilari areago bait ziran.

—1518' Garagarrilla: Luter'i Erroma'ra etortzeko agintzen zaio, bere esakizunen kontu ematera. Bazirudian Luter'en ixkamilla laister amaitzekoa zala. Alemani'ko Maximilian Inperatoreak ere, Luter'en aurka Inperioko Legeen araura ekiteko agindu bait zuan. Baiña...

Luter'ek bere aldera ekarri zuan Saxoni'ko Printzipe Autalaria. Printzipe au Federik "Jakintsua" zan, Erroma'ko eliz-gizonak begi onez ikusten ez zituan gizona. Orretxegaitik ez zuan bere Laterrian Induljentzia zabaltzeko baimenik eman.

Maximilian Inperatorearekin asarre zebilen Federik Printzipea. Maximilian'ek, bere ondorengo bezela Españi'ko Karlos I'a aukeraztea nai zuan. Saxoni'ko Printzipe aukeratzalleari ez zitzaion atsegin Maximilian'en asmo au, agian berak ere Inperatore izateko gogoia zualako. Printzipe onen ezetza garrantzi aundikoa zan Maximilian'entzat, inperatore-egilleen arteko baten ezetza bait zan. Ta politika-ixkamill ontan urtu zitzaion Maximilian'eri, Luter'en auzia len-bait-len amaitzeko gogoia. Printzipe saxonitarra Luter'en adiskidea zalarik ez zitzaion Maximilian'eri arekin asarretzea komeni'

Gaiñera, Leon X Aitasantua bera Maximilian'en aurka jarri zan, ez bait zuan Karlos I'a Inperatore izatera iristerik nai, Elizaren Laterriak Karlos'en mendean geldituko ziralakoaren bildurrez' Karlos I'a lendik Gaztela, Aragoi, Naparroa eta Napoles'ko Errege zan, eta Milan'go Jauna. Ontaz gaiñera Alemani'ko Imperatore izateak esku aundia emango zion, Itali'ko iparraldeko erridietan. Ez zitzaion Aitasantuen politikari orrenbesteko indarra gizon baten eskuetan ipintzerik komeni, batez ere gizon orrek Elizaren Laterriak ipar eta egoaldetik bere gudarozteen artean arrapatzen ba'zitian!

Leon X'ak Inperioko Aulkia Saxoni'ko Printzipe Autalariari eman nai zion. Luter'en lagun eta eusle zan Federik "Jakintsua" bera nai zuan Inperatore egin'" iA nola zebillen Elizaren politika!

Näskera aundiegiak ziran auek, bai Maximilian'entzat, bai Leon X'arentzat, praille berrikerizale baten esamesetan pentsatzeko. Politika'k salbatu zuan Martin Luter.

Bildur bait zan au Erroma'ra joan-bearragaitik..., bere lagun eta Jaun Federik Printzipeak lortu zion, Erroma'ra ordeztu, laister Augsburg'en biltzekoa zan Dieta edo Inperioko Batzarrera presentatu aal izatea' Eman zuan ortarako baiezkoa Maximilian'ek' Baita Leon X'ak ere. Biak zeukaten Federik Jakintsuari atsegin emateko gogoia, ikusi ditugun arrazoiengaitik'

Dieta artan Bio'ko Tomas "Kaietano" Kardenal domingotarra izanen bait zan Aitasantuaren Ordezkarri, berari eman zioten Luter'i entzun eta erantzuteko eskubidea. Maiteki artu, eta eragozpenik gabe praille urduri arri bere lekaidetxera itzultzen lagatzeko agindu zioten.

Ostera Luter'en alde ipiñi zan politika. Izugarritzko ospea ematen

bait zion, Erroma'ko auzigela ixil batean ordez, Inperioko Batzar Nagusi batean, Inperioko gotzai ta printzipe altsuenen aurrean itzegin aal izateak. Izan ere, gauzarik garrantzitsuenak bakarrik erabiltzen ziran Dieta baten aurrean.

1518, Urrilla; Augsburg'eko Dieta. Agertu zan Luter' Kaietano'k auxe eskatu zion: Aitasantuak Induljentzien bidez Kristoren merituak kristauen artean zabaltzeko eskubidea bazuala, eta sakramentuak sinismenaren adigarri uts ez zirala aitortzea. Ezetz erantzun zuan Luter'ek; ala ere Ikastola Nagusien iritzia gai oietaz, eta besteetaz, onartuko zuala agindu zuan. Eta espetxeratuko ote zuten bildurrez, —Hus'i gertatua oroitz-edo—, iges egin zuan andik "notario" edo fede-emaille baten eskuetan "e papa non bene informato ad melius informandum", "gaizki oartu zuten Aitasantu batengandik obeto oartu-bearra zan Aitasantuaganako" deia egiñaz'

1518, Azaroa. Epaiketa gertutzeko lanak aurrera zijoaztela-ta Aulki Doneak Luter Erroma'ra eramateko agintzen du. Federik "Jakintsu"ak, ordea, Luter Saxoni'tik ateratzeko baimena ukatzen du. Luter'ek bere auzia Kontzilio Ekumeniko batera eramateko eskatzen zuan.

1518, Azaroa. Leon X'ak Bulda bat argitaratzen du Kaietano'k idatzia. Bulda orrek induljentzien egiazko dotriña adierazten zuan.

1518, Azaroa. Bulda orri Luter'ek, ostera, Kontzilio Ekumeniko bat eskatuaz erantzuten dio.

1518, Azaroa. Leon X'ak "Urrezko Arrosa", Elizaren saririk aundiena, Saxoni'ko Federik "Jakintsua"-ri ematen dio, agian Luter'en auzi onetan printzipe ura Eliza katolikoaren aldera ekartzeagaitik. Aitasantuaren jauregiko laguntzaille bat, Karlos Miltitz, izan zan sari ori eramateko aukeratua. Gizon iaioa zan, **arroxkoa**. **Asi zan** bere-kasa Luter'ekin alperrikako jardunetan. Maiz idazten zuan Erroma'ra. Bere idazkietan Luter'en auzi guztia konpontzeko bideetan sarturik zegoala sinistaarazi zuan, orrela Erroma'ko Epailleen begiak lausotuaz'

151453. Ez zan gertakizun berririk izan aurreneko bost illabeteetan. Ixilik dago Luter, baiña bere ikasleek, batez ere Karlstadt teologilariak, gogor dagite lan "luterkoitasuna" zabaltzen.

151453, Garagarrilla ta Uztaila' Eck'en eta Karlstadt'en arteko jarduna; Luter'ek bere "4535 Esariak" agertu ezkeroztik, ostelaritzaren sortze-aroan jazotako gertakizunik garrantzitsuena.

Gertakizun au ondo ulertzeko, oroi dezagun Saxoni'ko errialdea

bi Laterritan zatiturik zegoala. Laterri oietako baten buruzagia Federik, —"Jakintsua" zeritzaion— Printzipe Autalaria zan; Lutertarra. Beste Laterriarena, berriz, Gorka Dukea, katolikoa.

Gorka Saxoni'ko duke onen lurraldean, Leipzig urian, izan zuten jardun au, eta Dukea bera izan zan billeren lendakari. Azkeneko bille-retara Luter bera ere etorri zan, bere lagunekin. Auen artean, aurreneko aldiz agertzen da Felipe Melanchton, gero ain teologilari ospetsua izanen dana, lutertarren alderdian.

"Aitasantuen almena" eta "giza-naimenaren askatasuna" izan ziran alkarrizketa aietako gaiak.

Karlstadt larri ikusi zuanean, sartu zan Luter bera alkarrizketan; baña Eck'etar Jon'ek laister baztertu zuan, Kontzilio Ekumenikoen erakutsietaz baliaturik. Zalantzarik gabe, bere etsaiak **teologilar**ri jakintsuagoa zan Eck.

Estutu zuan Luter bazter guztietatik. Orduan, Anai Martin, igesbide guztiak itxirik ikustean, bere burua ez errenditzeagaitik, Kontzilioen aala bera ukatzeraifno iritxi zan, entzule guztien aurrean, Kontzilio Ekumenikoak uts-eziñak ez zirala esanaz'

Arriturik eta ikaraturik jeiki zan Gorka Saxoni'ko Dukea ori entzutean.

lare ta lasai jarraitu zuan Luter'ek Leipzig'eko alkarrizketa auen ondorean, bera, Saxoni'ko Dukearen Laterrikoa ez **Saxoni'ko** Printzipe Autalariaren Laterrikoa zalako, ta Printzipe au bere alde zeukalako' Ala ere tankatako gogorra izan zan lekaide berrikerizalearentzat Leipzig'eko jarduketa, ta ez bakarrik Eck katolikoa, Luter ta lutertar guztiak baiño teologilari obea agertu zalako, baizik-eta kristaudi guztiak. Luter'en asmoak eta gogaketak argi ezagutzeko bidea, jarduketa artan izan zualako.

Kontzilio Ekumenikuen maixutasuna ukatzean, Elizaren maixutasun osoa ukatzen zuan Luter'ek; Asaba Doneena, Elizako Irakasleena, Gotzaiena, Aitasantuena."

Artean zalantzan zeudenak ere, zalantzarik gabe ikusi aal izan zuten, Martin Luter agustindarra egiazko erejea zala'

Saxoni'ko Printzipe Autalari lutertarrak Ikastetxe Nagusien iritzia eskatu zuan. Laister etorriko da Ikastola oien erantzuna, eta Luter'en aurkakoa izanen da'

—151453, Uztaila' Luter'en beste idazti baten argitaratzea: "Leipzig'en arrotutako gaietaz Luter'en iritziak". Kontzilioen utsezintasuna ukatzea da liburu onen elburua'

Onen atzetik beste liburuxka-sail bat dator Luter'en lumatik, urte ontan eta ondorengoaren aurreneko erdian. Melanchton izan zan idatz-lan ortan lagundu ziona.

—1520, Otsailla' Irixten zaizkio Luter'i Lobaina ta Koloni'ko Ikastola Nagusien epai edo sententziak bere dotriñak gaitzetsiaz. Asarretu zan biziro praille egosgorra. Ekin zion ikastola aien aurka itzik gogorrenekin. Ez zuan nonbait gogoratzen Augsburg'eko Dietan Kaietano'ri Ikastola Nagusien esanera egongo zala agindu ziola.

Garai ederra 1519 ta 1520 arteko garai au berrikerizaleen erakuspenak zabaltzeko. II berria zan Maximilian I Inperatorea 151453'an. Ez zan oraindik etorri Alemani'ra aren ondorengo Karlos V'a Berrizaleen lagun ta eusle zan, argi ta garbi, Martin Luter'en Jaun Agintaria, Federik "Jakintsua", Saxoni'ko Printzipe Autalaria. Sortu-berria zan inprenta edo irarkola, eta errexbide aundia ematen zion, ain idazle iaio ta atsegingarri zan Luter'tar Martifferi, bere gogaiak, erretxiñaz igurtzitako idazkietan, zabaltzeko.

Aldi artarako Luter'ekin zeuden, gero Lutertasunaren ereille garrantzitsuenak izango ziran gizonak' Bi motetakoak ziran. Eskubikoak batzuek baretsuagoak; ezkerrekoak besteak, urduriagoak'

Ona eskubitarrak:

JON BRENZ, WUrttemberg'eko Dukaterrian lutertasuna zabai duko duana.

—MARTIN BUCER, alsaziarra eta domingotarra, Estrasburg luterkeratzen saiatuko dana.

FELIPE MELANCHTON, kristaukera berriaren teologilaririk ospetsuena, adimen zorrotzeko gizona. Amazazpi urte zituan Tubinga'n "Irakasle" gradua irabazi zuanean, eta ogeitabat Witenberg'en griego erakusten asi zanean. Protestalarien artean "katolikoena" izan zan.

Ezkertarrak:

—TOMAS MUNZER. Nekazariak Jaun feudalarien aurka jeiki ziran, MUNzer au izan zuten buruzagi.

ANDRES BONDENSTEIN "KARLSTADT", teologilari lutertarren artean iraultza-egille gogorrenetakoa.

--ULRIK HUTTEN olerkari arlotea. Alemani'ko Birjaiotzazaleetan ospetsuenetakoa bat, alemanitarren begien aurrean Martin Luter Alemani'ko askatasunaren aitzindari ta buruzagi bezela, leenik agertu zuana.

—FRANTZISKO SICKINGEN, erdi-zaldun erdilapur, 1522'an Alemani'ko zaldundia ondamenara eraman zuan gizona, alemaniar

-politika aldatu-bearra zala-ta, iraultzara jaurti bait zituan Ego-Renania'ko "zaldunak". Zaldun auek danak,"zaldun" baiño geiago ziran "lapur"; diru-truke edozeiñen esanera gudara joateko beti prest zeuden gizakumeak, borroka bait zan aien ogibidea...

—1520, Garagarrilla. Luter'en liburutxo berri bat: "Erroma'ko Aitasantutza" Aitasantutza gizonak, ez Kristok, sortua dala dio liburu ortan.

—1518 ta 151453'ko urte auetan Luter bere dotriña zabaltzen baiño geiago saiatuko da Alemani'ko erria Erroma'ren aurka jeikiarazten, ortarako aspalditik Alemani'n errotuta zegoan Erroma'ko eliz-gizonen aurkako asarreari aize emanaz. Baiña ezin esan leike, gai ontan asmo txarrez ibiUi zanik, bere erriaren seme zalarik nai-ta-naiezkoa bait zan, alemaniarren Erroma ezin ikusi ura. Erroma'ko dotrifien aurka zegoan alemaniar baten idazkietan agertzea. Dana-dala. jokabide onek izugarri atsegin ta maitekor egin zuan alemaniarrentzat Martin Luter'en irudia.

—1520. Urte onetan argitaratu ziran Luter'en idazki garrantzitsuenetatik iru:

—"Jaun aundiki kristauei eta Alemanrko erriari, Laterri Kristauren eraberritzeari buruz". Liburru ontan Luter'ek Errege ta Agintariei Kristaudiaren eraberritzea beren eskuetan artzeko eskatzen die; ta, ori egiteko eskubidea badutela adieraztearren, kristau oro apaiz dala dio. Apaiztasun ori Bataioarekin omen datorkigu. Naiz kristau bakoitzak, Elizan, eginkizun berezia izan, 'bataiatua danak Apaiz eta Gotzai eta Aitasantu sagaratua dala esan lezake". Berdin argitzen omen ditu Espiritu Santuak kristau guzien adimenak Elizaren altzoan. Ontaz bai omen du kristau bakoitzak bere-kasa idazki Doneak ulertu ta iragarzteko eskubidea. Kontzilio Ekumenikoa biltzea eskatzeko almena ere kristau guziak omen dute, eta batez ere Laterrietako Agintariak, kristaudiaren buruzagiak diralako. Batez ere Alemani'ko Printzipeek, beren baitan egiazko Apaiztasuna daukatelako, lenbait-len asi bear omen dute Alemani'ko Eliza aldatzen.

Nazkagarria da idazki auetan darabilkian izkera. Ikusi: "Zuzentasun osoarekin urkatzen ditugu lapurrak, eta eriotzera eramaten gaizkilleak; ñolatan, orduan, bizirik uzten dugu Erroma'ko...zekena, bera luidian izan dan lapurrik aundiena, gaizkillerik okerrera izanik?".

Lekutan zeudek bere anima salbatzeko kezka."!

Bada, ala ere, norbait Luter'ek bere salbameneko zalantza mingarri ura biotzean bizirik zeramala, eta ezin sendatuzko zauri aren

oñazea ito naiez Aitasantuaren aurkako zarata ura eraiki zuala, diona. Geiegi esatea deritzait' ¿Nork jakin aal, lekaide izutu aren "psike" edo gogomuiñ nãsian zer gertatzen zan?

"Elizaren Babiloni'ko katigutza", da beste liburuaren izena. Idazki onen gaia Eliza da, baiña ez begi-aurrean dakusgun pekatuz loitutako Eliz au; beste Eliz bat baizik: Ebarigelioaren araura tajutua dan Eliz izkutu ikuseziña. Erroma'k sakramentuei buruz erakusten duan dotriñak omen dauka_ katigu Eliza garbi au' Luter'ek dionez, sakramentuak sinismenaren adigarri besterik ez dira, eta sinismena siñalez adierazi edozein kristauek egin bait dezake, ez da apaiz sakramentuegilleen bearrik. Elizak ez du jauparitzarik, apaizgorik bear; iragarleak bear ditu, profetak, Jainkoaren itza zabaltzeko. Entzun, liburu ontako ziri bat: "Bear-bearrezkoa da Elizaren lege guztiak ezereztea; bearrezkoa da apaizak ez ezkontzeko oiturari amaia ematea ere; oitura au deabruak asmatutakoa da".

"Kristau-askatasuna" Au da irugarren liburua' Aitasantuari eskeiñi zion, gaiñera zetorkion exkomikua baztertu nairik-edo. Ziur salbatuko gerala sinistea omen da kristautasunak dakarkigun askatasuna. Izkera leun xaloaz idatzia, ba leike au izatea Luter'en idazkirik goxoena.

Idatzi zuan berealaxe beste idazkiño bat ere; "Meza" izenekoa, meza ez dala Sakrifizio edo Oparia esanaz.

1520, Garagarrilla. Leon X'ak "Exurge, Domine", "Jeiki, Jauna" izeneko Bulda argitaratzen du Luter'en dotriña gaitzetsiaz, Luter bera izendatu gabe'

Luter'en erantzuna:

Leenik, Militz'en aolkua jarraituz, Leon X'ari idazten dio Aitasantuaren aurka obenik ez zuala egin esanaz. Gero'..,

Idazkitxo bat argitaratzen du: "Antikristo'ren Buldaren aurka"; bere eskuak idatzitako idazkirik garratzena.

—Bere auzia Kontzilio Ekumeniko batera eramateko eskatzen du.

Witemberg'eko erri-sarreran, ikasleek txalo zegitela, Aitasantuaren Bulda sutara botatzen du, itz auek esanaz: "Quoniam tu conturbasti sanctam veritatem Dei, conturbet te hodie Dominus. In ignem istum" "Zuk Jainkoa'ren egi donea sumindu duzulako, samindu zaitzala gaur Jaunak' Zoaz sutara".1520'aren abenduko amargarren eguna zan.

-1521, Ilbelta. Leon X'ak "Decet Romanum Pontificem", "Aitasantuaren eginbearra da" izeneko Buldaren bidez Martin Luter exkomikatzen du.

—1521, Jorra Illa. Martin Luter Wormes'ko dietaren aurrean.

Saxoni'ko Printzipe Autalariak lortu zuan bere lagun Luter'entzako Batzarre artan itzegiteko baimena. Amar egun egon zan Luter uri artan.

Dieta, inperioko erakunderik goikoena eta garrantzitsuena zan: Inperioko Laterrri-Buru guztien billera. Orregaitik, ostelaritzari izugarrizko ospe-ematea zan Luter'eri Batzar artan mintzatzen uztea. Baiña Luter'eri Dietara deitzearekin zerbait okerragoa ere bazekian Batzar arek, ostelaritzari ospe-ematea baiño okerragoa, alegia..., ordurako, Leon X'aren Bulda-bidez, exkomitatu bait zegoen Martin Luter! Epaitua zegoan, beraz, Lutereren auzia; epaitua, eta erabakia; Aitasantuak berak erabakia. Epaiturik zegoan auzi ura Alemani'ko Dietak bere eskuetan artez utsa, Aitasantuaren epaitzaren balioa ukatzea zan; are geiago, sinismenari zegokion auzi betean, Dietaren almena Aitasantuarenaren gaindik ipintzea.

¿Zerk makurtu ote zuan Karlos V Inperatorea bezain agintari katoliko bat lekaide nastailie arri Batzar Nagusi artan agertzeko baimena ematera? Politikaren giroak!

Gaztea zan oraindik bera, Inperatorea; Alemanarra iritxiberria, eta oraindik Alemani'ko izkuntzarik ere ondo ezagutzen ez zuana' Ain zuzen, ura zan bere agintaritzako lenen Dieta-Billera, eta bazekian billera artan Luterek adiskide asko eta indartsuak zituala: Saxoni'ko Federik "Jakintsua", ta Palatinat'eko Koldobika V Kontea, (printzipe autalariak, biak);, ta Hesse'ko Felipe "Bikaiña" Langrabe edo Lur Jaun gazte ausarditsua..., eta beste asko.

Ez zitzaion Karlos V'ari iñolaz ere bere agintaritzza Alemani'ko Printzipe arro aiekin asarreturik astea konbeni. Une artantxe bertan, gaiñera, aurka jeikirik zeuzkan guda beltzean, Españi'n, Gaztela'ko "komuneruak". Sorturik zeukan Españi'n iskamilla galanta; sortu zitzaiokean beste bat, eta ez txikiagoa Alemani'n ere. Ez zitekean Karlos gaztea jostaketan ibilli.

Adur ona izan zuan Luter'ek; asiera-asieratik jarri bait zitzaion bere alde politikaren ibillera'

Baita Aulki Donearen politika ere!, Birjaiotzako Aitasantuek erabilli zituzten politika eta ekonomi-erak nazkaturik eta gogaiturik bait

zeukaten Alemani'ko erria. Eck teologilari ospetsuari idatzitako esku-
titz batean onePa dio Aleandro Nuntzioak: "Zearo gure aurka jeikirik
daukagu Alernanj osoa. Amarretik bederatzik, agiri-agirian gorai-
patzen dute emen Martin Luter. Eta amarretik beste bat ori ere, naiz
sinismen-arazoetan zuzena izan, V`i1 bedi Erroma'ko Kuria"1 deadarka
idoroko duzu. Emen, adiskide, gizakumeek ez ez"e, arri eta zugaitzek
berberak ere (sed et lapides et ligna) Luter gorai-
patzen dute (Lutherum clamant)".

Elertilariak iperbole esan oi dioten izkera anpatuaren zale zan
Aleandro Nuntzioa, baiña anpaketak kontuan artuta ere, zerbait adie-
razi nai dute noski ber-idatzi ditugun itz mingarri oiek.

Agindu zorrotza eman zien Karlos V'ak Printzipe luterzaieei,
Nuntzioaren aolkuz, Dietan Aitasantuaren almena zalantzan ipini ez
zezaten: Dietak ez zuela billera artan Luter'en dotriñaren aipurik ere
egingo; dotriñ ura ordurako Aitasantuak gaitzetsia zeukalako. Dieta-
ren eginkizuna. Luter Aitasantuaren esanera beartzea izanen zala.

Ustelak atera ziran Karlos V'aren usteak.

Arro sartu zan Martin Luter Dietaren aurrera, Bazekian Alema-
ni'ko jende guztien begiak, Worms'en bildurik zegoan Dieta artara adi-
adi zeudela zuzenduak.

Eta Dietak, aurrean zeukan lekaide ausarti arri ordurarte erakutsi-
takoak ukatzeko agindu zionean, ara zer erantzun zuan lekaideak:

Berak ez zuala dotriñ okerrik zabaldu.

—Arazo guztiaren sustraia, Erroma'k Alemani ankapean euki-
naia zala.

Ez zuala bere idazkietan esanetatik ezertxo ere ukatuko, Idazti
Donearen bidez, uts egin zuala adierazten ez ba'zitzajon.

—Ez zuala Kontzilio ta Aitasantuen arrazoirik onartuko, bai ba-
tzuk eta bai besteak erakuste okerretara jausi zitezkelako.

—Bera Jainkoaren Itzaren mirabe zala, ta Idazti Donearen esane-
ra bakarrik egongo zala.

Alperrikakoak izan ziran Karlos V Inperatoreak egin zizkion
oarrak: gogora zitzala, bere joka-bidetik Kristaudi guztiarentzat sortu
zitezkean gaitzak; gogartu zitzala, ordurarte sortuak zeuzkan nasketa
ta gorrotoak...

"Pekatu da norberaren kontzientziaren aurka jardutea. Jainkoa
lagun bezait. Amen". erantzun zuan Luter'ek.

-1521, Maiatzaren 25. "Worms'eko Agindua" Ezer lortzerik ez zegoela ikusi zuanean, eman zuan Karlos V'ak lege au, Luter eta luter-tarrak legetik kampo ipiñiaz, eta aien idazki guziak erretzeko aginduaz.

Alperrikakoa izan zan "legetik kanpo" ipIntze au, Saxoni'ko Printzipe Autalariak zer zetorrelaren usmoa arturik, legea argitaratu baiño len toki seguruan gorde bait zuan Luter: Wartburg'eko gazteluan'

Ortarako Worms'etik Martin Luter bidez zetorrela, onek uste ez zualarik gaizkille batzuek arrapatu-ta, nunbaitean preso gorde zutehkoaren itxura egin zuten Printzipeak eta bere morroiek, iñortxok ere nork arrapatu zuan eta non izkutatu zuten ez zekiela. Agian ez ziran, itxurazko giza-lapurketa aren egilleen asmoak, artaraiño iritxiko , baiña batean birragertzeaz gaiñera, bizien artetik indarkeribidez izkutatua izateak, ez zion nolanaiko otsa eman Luter'en izenari.

Amar illabete egon zan Saxoni'ko Autalariaren gaztelu artan, ta ez zuan ordurik alperrik galdu, langille porrokatua bait zan Anai Martin. An asi zuan, andik amar urtera amaituko zuan Bibliaren itzulpena, aleman zarrean idatzitako libururik nagusiena. Alemani'ko izkuntza bera tajututzeko indarrik edo influentzirik aundiena izan duan idazkia. Ikus Anai Martiñ'en lanerako griña: Itun Berriaren itzulpena iamar astetan! egin zuan; ta nolako izkera apaiñean egin ere. Elertilari berdindgabea agertzen zaigu Luter itzulpen ortan; baiña baita kristau biotzkoi eta eraspén bizikoa ere, Bibliaren maitale benetakoa; barru-pake-egarrizko sinismen larri, baiña sendoa, duan gizona.

Baditu, ala ere. akatsak itzulpen onek. Akats oien iturburuak egillearen atsedén-naia ta setakeria dira. Psikologi izu batek sortuarazitako atsedén-naia; bere buruaren iritzia besterik jarraitzen ez duan egosgor baten setakeria.

Akats oiek, egillea bera oartzeke noski, itzulpen guztian zabaldurik daude, ta garrantzitsuenak auetxek dira:

—Zentzu illuneko esakizunen itzulpena "sinismen-utsetikako-dotriña"ren argitan egitea'

—Biblia bi zatitan, leen maillako ta bigarren maillako zatitan, ebaki izatea'

—Itzulpena egitekoan bere pentsakera sendo-bearrez ibilli izatea.

Baiña baita onako beste au ere: Erromatarrentzako Epistolán "Sinismen" itzaren ondoan "Uts" itza ipintzen du bere-kasa; "Sinismen Utsa". Ori, Alemani'ko erderak eskatzen omen du' Dana-dala, Paul

Doneari, ez diona esanerazten dio.

Zeruko doaia bezela zabaldu zan itzulpen au bere irarkaldi guztietan. Izan ere, ain ulerterreza bait zan erriarentzat!

Ulert-erretasun ori lortzeko, soilki, erriak erabiltzen zituen itzak erabilli zituan Luter'ek. Alemani'ko erderak, doixterak, dialektu edo izkelki asko ditu. Ba, izkelki aietan guztietan erabiltzen eta ulertzen ziran itz, esaera, aditz, eta joskerak bakarrik erabilli zituan Luter'ek. Orrela, bi gauza lortu zituan: Izkuntzaren arloan, batasunari asiera ematea; erriko jendea-baitan, irakurtzeko zaletasuna piztutzea. Bi gauza oiek lortzeko..' iez bait da beste biderik!

Idatzi zituan beste liburu batzuk ere Martin Luterek Wartburg'eko gaztelu artan. Bat Paris'ko "Sorbona" Ikastetxe Nagusiaren aurka, ikastetxe arek bere dotriñak gaitzetsi zizkiolako; beste bat, Lobaina'ko irakasle Latomus'en aurka' Baiña aldi ontako bere idazkirik aipatuena, lekaide-lekaimeen "eskeintza" edo "botoeri"-buruz idatzi zuan liburuxka da; jakiña, "eskeintza" oiek baliorik ez dutela esanaz. Liburu au zala bide, irten ziran, pillaka ta pillaka lekaide ta lekaime, beren etxe doneetatik; eta lutertar egin.

—1521, Abendua. Argitara azaltzen da Melanchton'en "Loci communes rerum theologiarum", "Teologigairik garrantzitsuenak", kristauera berriaren teologi-idazkirik garaiena, Birjaiotzako gizadizale landuak irabazteko idatzia'

Bitartean, izan zuan Luter'ek, bere izkuta-tokian, barru-borrokarik naiko; Bakartasunak bere barrunbeko izu, eta salbamenari buruzko bildur guztiak, birpiztu bait zizkion. Egun eta gau larriak igaro zituan gaztelu artan' "Ez dakit Jainkoak nigandik alde ez ote didan ere", ta, "Lizunkerriaren galdak sutan dauka nere gorputzaren aragia", zion Melanchton'eri idatzitako eskutitz batean.

Badio, baita, deabruarekin borrokan ibiltzen zala ere atsedetik gabe. Arratsalde batean deabrua bera zakur-itxuran aurreratu omen zitzaion, zorionez, arrapatuta, leiotik jaurti aal izan omen zuan. Itz bakoitzari berak bere balioa eman nai badio dez dute itz auek argi adierazten Luter'en sikologia edo gogoizakera erokeriaren atarira noiz edo bein urbiltzen zala? Dana dala, askotan agertzen zaigu kupidagarri Martin Luter gizagaixoa.

WITEMBERWEKO ELIZ BERRIA'—Martin Luter Wartburg'eko gazteluan deabruarekin borrokan, eta, bere bildurra ito naiean idatzi ta idatzi ari zan bitartean, Karistadt jarri zan Witemberg'ko lutertarren

buru. Gogorkeri zaleen alderdikoa, eta Luter bera baiño lutertarragoa, bereala asi zan, protestalaritzaren jaioterri izan zan uri arri, katoLiko usai guztia kentzeko lanean, orrela lenengo "Eliza Berria" eratuaz. 1521'garren urtea zan.

Bazuan gizon latz onek jendeen biotza irabazteko indar. Bereganatu zuan beintzat Melanchton ere, lutertarretan baretsuena ta "kato-li koena" zana' Baita uriko jendea ere; batez ere Ikastola Nagusiko ikasleak. Azkeneko mugetaraiño eraman nai zuan Luter'en dotriña.

Urte orren Eguberri-egunean agertu zan lendabizi Karlstadt apaiza apaiz-jantzirik gabe eta orrela eman zuan meza ere, Kanon edo Sagara-otoitzik gabeko meza: baita aurreneko aldiz eman ere zion erriari eukaristia ogi ta ardoen itxurapean.

Ots aundia atera zuten ostelari edo "protestante" guztiak, —Luter, Zuingli ta Calvin'ek—, ogi ta ardo itxuretan Jauna erriari eman al izatearen alde' Ta erriari orrela Jauna artzea atsegin zitzaiolako, zer ikusi aundia izan zuan auzi onek ostelartzaren zabalketa azkarrean' Ez zuan, agian, Elizak, garrantzirik gabeko gai ontan, bear bezela amorerik eman.

Karistadt'en Elizak liturgia gabekoa eta txiroa bear zuan izan. Ortarako, aldare ta santuen irudiak apurtuarazi zituan, eta eliza ta lekaidetxe guztien aberastasunak batera bildu. Eliza apala izan bear zuan gaiñera, Gogo Deunagandiko jakintza utsez argitua; eta, —batez ere Mū nzer anabaptista Witemberg'era etorri ezkeroztik—, apaltasun ori lortzeko, Ikastola Nagusiko ikaslei ikasketak laga ta eskulanean asteko eskatu zitzaien; eta, danen eredu izateko, Karlstadt bera nekazari egin zan'

Kristau orori eman zitzaion, Jainkoaren Itza iragartzeko baimena'

Karlstadt izan zan protestalarietan aurrena ezkonduetako apaiza; Kristo eukaristian egiaz ez zegoala esan zuana; irudienganako eraspina idolatria, jaikoaizunkeria, zala oiuegin zuana; ta meza, Azken-Apariaren oroigallu uts biurtuaz, mamiz deuseztu zuana'

Ez zuan Melanchton'ek ortaraiño iritxi nai. Berari, jakintzaren la-gun eta teologilari erne zanez, ez zion noski atsegiñik egiten ostelartza edo "protestantismoa" sortu zuan ikastola nagusi ura ikasle ta irakaslerik gabe ikusteak. Ta len-bait-len etortzeko idatzi zion Martin Luter'eri.

Bitartean Anai Martin'ek bere izkutokian "Magnificat abestiaren azalpena" idazten ziarduan. Au da noski Luterren libururik xamurrena.

Ez zan, ordea, dana xamurtasuna izan, gaztelu artan. Luterek, az-

kena an idatzitako liburuetan, baditu izkera enasakoak ere.

1522'—Epaillean irten zan Anai Martin Wartburg'etik; eta, Witemberg'era iritxirik, zortzi itzaldi trebe ta iaioen bidez, lortu zuan kristaudi nasi ta biurri artan pakea ezartzea.

Garrantzi aundia du Karlstardt'ek eraturako "eliza berri" onek, naiz-ta bizitza laburrekoa izan; aurrerakoan ez bait da protestalaritza, ordurarte bezelakoa izango. Ordurarte ez zuan Luter'ek, gogapenak erein besterik egin. Karlstardt'ek Witemberg'eko kristaudian egindako iraultzak gauza bat erakutsi zion: legerik gabe ez zitekeala alkarte bat osotu.

Eta bere itzaldi ta idazkietatik sortua zan kristaudi berri ura sendotu ta batean gordetzeko, araudi bat egin bearrean aurkitu zan. Araudi ortan Karlstardt irten zan garaille; Luter'ek, naiz latifña ta eliz-jantzi antziñakoak elizkizunetan erabiltzea lortu, onartu bear izan zituan Karlstardt'ek sartutako berrikeririk geienak:

—Eliz-gizonak ezkondu aal izateko eskubidea.

Meza ixilla galeraztea.

—Mezaren ordez. Azken-Apariaren oroigalluzko zirimoni bat egitea.

—Eukaristia ogi ta ardo itxuretan erriari ematea.

Aitortu-bearra agintzen zuan legea kentzea-

-Barau-egunak ere kentzea.

Azkenik: Erri bakoitzean, Elizaren burua kristau-guztien-alkartea, izatea.

Alkarte orrek aukeratuko ditu iragarleak, eta baita kendu ere, beren lana ondo betetzen ez ba'dute; baiñña Alkarteak ez du, iñor bere esanetara beartzeko almenik izango; "s'ne potestate"; "agintaritzarik" gabekoa izanen da.

Orrela, protestantismo edo ostelaritza "eliza" biurtu zan, eta au izan zan eliza berriaren leen araudia'

1524.—Asi zan Luter bera Karlstadt'en modura bizitzen' Urte on-tan ezkondu ere zan Bora'ko Kataliffekin. Emakume au lekaimea zan, zistertarra, ta beste amaikarekin bizi zan. Danak irten ziran lekaime-txetik, eta amabiak jarri ziran Anai Martiffekin etxe berean bizitzen. Ez zion alkartasun orrek batere atsegiñik egin Melanchton'eri, eta Anai Martiñ'en ezkontzak, berriz, osoro asarretu zuan.

Urte ortan bertan, baiña lentxeago, asarretu zitzaion Erasmo ere, Luter'en aurreneko egunetan onen aldekoa-edo izan zan. Beintzat, begi onegiekin eta itxaropen geiegirekin artu zituan Erasmo gizadiza-leak praille susu aren arrandiak. Eliza itxuraz-berritzera ta garbitzera

zeturrela uste izan zuan. Bazion Luter'ek bildurra galanta. Orregaitik eskatu ere zion, arren, bere aurka, ez idazteko.


Iru liburitu erditu zituan bi gizon ospetsu aien asarreak. Liburu oien gaia: "naimenaren askatasuna". Askatasunaren alde zegoan Erasmo jakintsua; aurka Luter mistikoa. Liburuak, 1524'tik 1526`era idatziak izan ziran.

ILLUNDIAN ARGIA, ADRIANO Vra'—Olandatarra zan, Utrecht urian jaioa; Karlos V'aren lagun eta aolkulari; bene-benetan gizon ona; auxe izan zan Leon X`a il zanean Aitasantu autatu zutena. Ain zuzen Gazteitz'en zegoan autatze orren berri iritxi zitzaionean' Karlos V'ak Españi-aldeko bere Jaurerrietarako Errege-ordezko egin bait zuan. Kardenal zan gaiñera; ta Tortosa'ko Gotzai.

Garrantzi aundikoa da bere aitasantutza, ez gauza asko egin zituualako,—ez zuan egiteko denborarik ere izan, urte bete bakarrik izan bait zan Aitasantu—, baizik-eta, i noizbait! orrenbeste denboren ondo-rean, Elizak, bere Buruan, aldakuntza-bearraren zirrara, Adriano'ren aitasantutza orretan seattu zualako.

Arriturik entzun zituzten Alemani'ko Jaunek Nurenberg'eko Dietan Aitasantuak nuntzioaren bidez esan zizkien gauzak' Ez zan sekulan Aitasantu baten agotik orrelako itzik jalki. Gero ere ez da jalki, gure Paul Vrak eginberria duan aitorketa bera baiño sakonagoa bait da arena, eta egiazkoagoa dalaren usaia bait dario. Orrela mir"zo zaio bere nuntzio Frantzisko Chieregattri:

"Balta esango ere dezu zabalki (Dietan) zigorkada au Jainkoak ala nairik etorri zaiola Elizari, eta gizonen obenengaitik eta batez ere Apaiz eta Gotzaien obenengaitik etorri zaiola. Ez da, noski, Jainkoaren beso salbatzaillea moztu; ez. Obena dago Beraren ta gure artean, ta orretxegaitik ez gaitu onartzen' Ozenki ots egiten digu Idazti Doneak, erriaren obenak eliz-gizonen obenetatik dutela sorkundea' Ondotxo dakigu, Aulki Done onetan urte askoren buruan gauza nazkagarriak gertatu dirala; geiegikeriak egin dirala, gauza zerukoiak erabiltzean; ez dala agindutako itzik bete; argiago esateko, dana okerretik okerrera joan dala. Ez da, beraz, .arritzeko gauza, gaitza Burutik gorpuztera, Aitasantutik Gotzaietara jetxi izatea' Gotzai ta Apaiz, danok baztatu gera zuzentasunaren bidetik, bide ontan dabillenen aspaldi iñor ez izateraiño. Emaiogun aintza Jainkoari, bere aurrean gure buruak makurtuaz' Aztertu beza guretako bakoitzak, zergaitik jausi dan, eta zigortu beza bere burua Jainkoaren zigorra jasan nai ez ba'du Aren asarre-egunean.



Alemante. 1(0
 ELIZ - GIZONEN
 ESTADUA!
 1547

*v W DuKERS'Ejfi "NIS ToR(Schiff?
 ATLAS * LI8L/Rj, 7IK ARTUA*

"Itz-emanen duzu, bada, Gure izenean, Gure almen guztia erabiliko dugula, Aulki Done au, Jauregi au, garbitzen; emendixe sortuak bait dira noski oker guztiak. Ta emendixe gaitza sortu dan bezela, esan ezazu emendixe sortuko dala gaitz ororen sendagaia ere."

"Garbikuntza au egitera beartuak gaude: auxe eskatu ere eskatzen digute erridi guztiek".

"Ez dugu Aulki Done onen kutiziarik izan. Atsegiñago zitzaigun, baiki, ure azken-egunak bakartasunean amaitzea. Pozik lagako genduan, ukitu gabe, eskeiñi ziguten buruntza. Jainkoaganako begiruneak, gure autatzea zintzo egiña zala jakiteak, eta zisma bat sortu zitekealaren bildurrik ekarri gaitu Artzaintza Done au artzera. Ez dugu iñolaz ere Artzaintza gure aundikerirako erabiliko, ezta gure sendi koak aberasteko ere, Jainkoaren Andregai dan Eliza Doneari berezkoa duan edertasuna itzultzeko baizik, ankapetuei laguntzeko, gizakume zintzo ta jakintsuak goraltzeko, itz batean, Kepa Deunaren ondorengo jator batek egin bear duan guzia egiteko..."

"Ez bedi, ala ere, iñor arritu, oker guztiak ekiñaldi bakar batez zuzentzen ez ba'ditugu, sakonki sartua bait dago gaitza, ta ugariegiak bait ditu sustraiak. Astiro ibillibearrak gera, beraz; leenik, zauri aundienak eta arriskugarrienak sendagai egokiz sendatzen saiatu bearko dugu; bat-bateko ekite urduriegiak guztia okerragotu bait lezake".

Zoritxarrez aitorketa tolesgabe onek ez zuan ezer lortu. ¿Lortu al ote zezakean, urte batzuk lenago etorri balitz? Nork daki!

Luter'ek beintzat lentxeago idatzitako "Astoa Aitasantu" izeneko idazkiño nardagarriarekin erantzun zuan. Orduangoa du "Beia lekaidede" izenekoa ere, lekaide-b[zitzairi iseka egiteko sortu zuana.

Jainkoak bere izkutuzko erabakietan ez zion oraindik Elizari Adriano VI'aren taiuko zuzendari bat eman nai. Baiña, il aurretik, izan zuan Aitasantu Eliz-garbitzailleak apaiz garbitzaille baten ikerpena, bixita.: Eneko Loiola'koarena. Jerusalem'era abiatu-nairik onespeneren billa joan zitzaion.

OSTERA ILLUNA, KLEMENTE VII'a.— Adrian V'raren ondorean Klemente VII`a. Medizistarra, igo zan Aulki Donera. Bere aitasantutzaren denboran zabalkunde aundia artu zuan Luter'en dotriñak Alemani'n, alde jarri bait zitzaion berriro politikaren aizea. Luter'en aldeko politika ori Soliman II'ak Frantzisko lak eta Klemente VII'ak eratu zuten'

Soliman II'a "Bikafia"k, 1526'ean Mohacs'eko burrukaldi odol-

tsuan purrukatu zituan ungaritarren indarrak. Ungari'ko errege Koldobika II'a ere burruka artan il zan. Bearrekoak ziran orduantxe Alemani'ko izkillu guztiak turkitarren eraso geldiarazteko; eta Karlos V inperatoreak printzipe protestalarien laguntasuna ere bear bait zuan ortarako, laguntza ori lortzeko, printzipe aiei eta "protestantismo" edo ostelaritzari onura aundiak eman bearrean aurkitu zan'

Edonork daki, eten gabeak izan zirala Karlos V'ak Frantzi'ko Errege Frantzisko I'arekin izan zituan guduketak. Baiñan guduketa aiek ezik, lotu zituzten Inperatorearen eskuak, (eta ostelarienak askatu), Inperatoreak Klemente VI'arekin izan zituan borrokek ere.

Beste Birjaiotzako Aitasantuak bezela, ez zan Klemente VII'a Medizis, kontzilio-egitearen zaie. Atsegiñago zitzaion politika. Agintzara iritxi zanetik, Karlos V'aren aurka ipiñi zan, ta 1526'ean Frantzrrekin eta Benezirekin batean Cognac'eko "Alkarte Santua" osatu zuan Inperatoreari guda egiteko. Gudate ontakoa da zoritzarreko "sacco di Roma", "Erroma'ko ebastea": Karlos V'aren gudariak Erroma artu ta bertan egin zuten ondamera.

Bitartean ez zuten Alemani'ko Jaun iutertarrek astirik galdu, bakoitzak bere Laterriko eliza protestalari egiñarazten, inperatorearen indarrak Itali'n, Ungarn, Frantzi'n edo Afrika'n nâsirik ibiltzeaz balia-turik. Bazuten, noski, ortara zerk bultzatua' Luter'ek eliz-aldakuntza printzipeen eskuetan ipintzen bait zuan, eta printzipeak egiten bait zituan, bakoitza bere jaurerriko elizaren jabe, jaun, ta nagusi; komeni zitzairen printzipei beren elizen aldaketa len-bait-len egitea, orrela neurri gabe zabaldu ta osatzen bait zituzten beren eskubideak eta aberastasanak. Eskubideak.", printzipea Laterriko ta Elizeko auzi oren epailari egiten zalako: aberastasuna..., elizaren ontasun guztiak bere eskupera igarotzen ziralako.

Orrelaxe sortu ziran Laterri-Elizak, bakoitza printzipe baten jaun-tzari lotua. Aurrenekoa Prusi'koa izan zan. Ordurarte lurralde ura "Teutonitar Lekaide Zaldunen" lurra zan. 1525'ean egin zan lutertar "Lagundi Done aren Maixu Nagusia, ta Lekaidetza laga, ezkondu, bere Laterriari elizkoiusai dana kendu, Dukaterri biurtu, Prusi izendatu, ta bere burua egin zuan bertako dukea: Prusi'ko dukaterriaren lenengo Dukea. Laister ostelaritzatu ziran beste bi eliz-laterri ere: Samland eta Pomerani. Biak, Alemani`n garai artan maiz gerta oi zan bezela, elizbarruti ta laterri iare ziran, batera. Gotzaia zuten Printzipe. Bi auek izan ziran Eliza katolikoa ukatu zuten lenengo gotzaiak; ez dira, ala ere, bakarrak izango.

Gertatu ere; gerta izan zan, erriak katoliko irautea naizta bere gotzai printzipea lutertar biurtu. MuThster'eko gotzai printzipeak ezin izan zuan bere laterria erlijio berrira eramane. Lutertar egin zan Koloni'koa ere. Aurka irten zitzaizkion, ordea, apaiz-jende gallurrenak. Gropper teologilaria `zan zan Koloni'n goigotzai protestalari aren aurkako ekintza zuzendu ta bizkortu zuana, eta Karlos V'a auzia erabaki zuana, katolikoaren alde, goigotzai ukatuari gotzaitza ta jauntza utziaraziaz.

Garai ontarako, inperioko Iparralde ta Gerrialdeko erridi guztiak, lutertar ziran.

Bazuten katolikoek ostelaritza edo "protestantismoa" geiago zabaltzen joango zalakoaren bildurra. Baiña orduantxe, Karlos V'a, Cognac'ko Alkarte Donearen indarrak azpiratuta bere buruaren jabe iarea aurkitu zan, bere bizian aurrenekoz, Bi urteen luzaroan gertakizunen jabe izan zan Inperatorea.

—152453. Spira'ko Dieta. Bertan, erlijio berriaren zabalkundea debekatu zuten batzarkide katolikoek' Baita asarre oiue egin ere, lutertarrek. Orduantxe egin zuten auek "OSTELARI" izena erantsi zien osteketa edo protesta. "Protestantes", deitu zitzaie, latinez; "ostelariak", "Protestalariak".

—1530' Ausburg'eko Dietan erabaki zorrotzak artu ziran protestalariaren aurka; Eliza Katolikora itzultzeko agindu zitzaie, eta Elizari ostu zizkioten ontasunak ostera Eliz.ari biurtzeko. Lege gogorrak. Gogorregiak gaurko ulerkerarentzat' Aldi aietan, ordea, bai batzuek eta bai besteek, kezkarik gabe erabilli oi zuten indarra animeetako gauzetan, ta taiu ortako legeak maiz ematen ziran.

Ausburg'eko Dietako legeak, **indargeak izan ziran, ez** bait zuan betearazteko astirik izan Karlos V'ak; andik bi urtera ostera turkitarren aurka borrokan zebilletakol Berriro guduak salbatu zuan ostelaritza, "protestantismoa".

—1532. Ungarrako zelaieetatik eraso diote inperioari turkitarrek. Une larri artan Karlos V'ak printzipe lutertarrei ere eskatzen die laguntza.

Laguntza ori emateko printzipeak ipintzen duten baldintza: Ausburg'eko Dietan artu ziran erabaki gogor aiek deusezteko. Karlos V'aren nai-ta-naiezko erantzuna: Baietz.

Baiezko ori Nurnberg'eko itun" edo "Konpromisoan", lege egin zan.

—1530'eko Augsburg'eko Dieta arek badu erlijio-uts-arloan ere garrantzia. Antxe agertu bait zan lenengo aldiz Martin Luter'en goga-

keta Siniste-arau edo "Kredo" batean mamitua. Siniste-arau ori Melanchton'ek egiña zan. Arreta aundiaz egin zuan lan ura, benetako alkartasun-zale zan teologilari erne arek, Luter'en pentsakera, katolikoak ez asarretzeko, al zuan modurik gozoenean edatuaz' Augsburg'eko Kredo au izan zan urte batzutan lutertar guztientzat Sinispide berriaren ezaugarri bakarra'

MARTIN LUTER'EN SINISPIDEA' Luter ez zan teologi-egille; ez zuan, orregaitik, bere gogakizuna teologisistema batean edatu. Gogakizun ori bere idazti-sorta ugarian zabaldurik dago. Auetxek ditu bere gogapenik nabarmenenak:

OBENA.—Gizona ez daiteke pekaturik egin gabe bizi. Areago oraindik: gizakumeak dagian guztia, pekatu da.

Au da Luter'en pentsakera guztiaren ardatza. Gogai au bere bizitzaren muiñ-muiñetik, aterea du. Anai Martin'ek betidanik bere burua obenez beteta ikusi zuan; etsirik zegoan obenik egin gabe bizitzerik ez zuala.

Bazuan bere arrazoia ere. Griña oker utsari deitzen bait zion "Oben" Bera obenik gabe bizi ezin ba'zan, beste ere ori gertatzen zitzaiela sinistra laister igaro zan. "¿Nik ezin dut?, besteek ere ez". ¿Urrats ori arrazoiaren aurkakoa dala? Ez zuan Anai Martiñ'ek arrazoiarekin eta arrazoiketarekin adiskidetasunik geiegi, "zornez ta legeznez betetako ernagaldua" deitzen bait zion arrazoiari. Orrela mintzo ziran, aldi artan, filsofilari "nominalista" edo gogapenak "itz uts" zirela aitortzen zuten guztiak. Ez du, beraz, Luter'ek, pekatueiburuzko sinispide au berea.

JATORRIZKO OBENA'—Jatorrizko obenak osoro usteldu ta gaiztotu omen zuan gizakumearen zer-izatea' Jatorrizko obena, gugan, "gure zertasun guztia galdua egote ori" omen da.

Ez da pentsamentu au Luter'ena bakarrik. Aspaldidanik uste zuten ori bera teologilari "agustinzaleek". Ona zer zion Bitor Donearen Ugo ospetsuak: "Patet, concupiscentiam mali esse peccatum

"argi agiri da jatorrizko obena, txarkerirako griña dala"

Jatorrizko obena ez zala bataioan barkatzen, zion Martin Luter'ek; baiña ortan ere beste "agustinzaleekin" ago bateko zan' Ta ontan ez zuten okerrik egiten. Orrela uste izan zuten Trento'ko Kontzilio o'ko Asabek ere: "Gai oni buruz iutertarrek, guk esaten duguna bera diote; aientzat griña txarra, bataio-ondorean ere jarraitzen duan griña

txarra, Jatorrizko Obena bait da" zion Severoli Kontzilioko Izlari Nagusiak.

ASKATASUNA'—Jatorrizko obenak gizadiaren zertasuna guziz gaiztoturik laga dualako, gizakumeak ez dezake gaiztoa ez dan gauzarik egin. Bere egite guztiak gaiztoak dira, pekatu dira. Ez dezake egite onik egin. Ontaz, pekatu egiteko edo ez egiteko almenik ez du. Askatasunik ez da, moral edo oitura-arloan'

Badu oraindik zentzu zuzena, Anai Martin'en esakizun onek' Luter'ek, gizonak "onik" ezin egin dezakeala esatean, bi gauza adierazi nai ditu:

—Gure egite guztiak, Eliz-gurasoek, "Imperfectio" edo "osotasun-falta" deitzen dioten mozkeri arekin egiñak izan bear dutela
Ta ori egia da.

—Gure egiteak merituzkoaz izateko gai ez dirala. Au ez da egia, baiña bada gai ontaz alkarrizketarako bide, katoliko ta luterarren artean. Katolikoen iritziz, egitei meritugarri izatea, graziak ematen die. Luterentzat fedea da grazia. Ez du esaten fedea gizakumeen egiteak "onak" biurtzen dituanik, —gizakumearen egiteak beti pekatu bait dira—, baiña bai fedez igurtzitako egite oiek gabe egiazko federik ez dala. Orrela, nolabait, egite auek "bearrezkoak" eta "santuak" dira fede-adigarri bezela.

ZUZENTASUNA'—Egite guziak obenak ba'dIra, inondik eta nola gizonak aurkitu, salbatzeko bear-bearrezkoa duan zuzentasuna edo garbitasuna?

Jaungoikoak zuzentzen du gizona, ez au zuzen egiñaz, (gizonak beti obendun jarraitzen bait du), Kristoren zuzentasunaz gizona estali az baizik. Orrela Kristoren zuzentasunaz jantzi duan gizonari Jainkoak ez dizkio, Zuzentasun orren-pean estalirik jarraitzen duten pekatuak kontuan artzen, argiz beterik dagoan leiar batean auts apurño tti-kitto bat kontuan artzen eta ikusi ere egiten ez dan bezela. Naiz gizakumearen obenak aundiak izan, neurrigabe aundiagoa bait da Kristoren zuzentasuna.

Izkera au ez zan berria. Ona zer zion Bitor Donearen Ugo'k berak: "Licet remaneat concupiscentia post baptismum, non tamen ad reatum, quia iis qui renati sunt, non imputatur; sed hoc est remitti peccatum originale, non imputari". "Naiz griña txarra bataio ondorean gurekin gelditu, ez gaitu zigorgarri egiten, (bataioz) birjaiotakuoi ez bait

zaigu kontuan artzen; ta auxe da jatorrizko obena barkatzea: ez kontuan artzea".

"Agustinzaleek" jatorriko obenaz, batez ere griña txarraz, ziotena, Luter'ek pekatu guztientzaz dio. Ori esatean bere burua Elizatik kanpo ipintzen zuan'

Katolikoentzat, Kristoren irabazietatik datorkigun zuzentasunak, gizona barru-barrutik osoro aldatzen du. Luter'entzat ez da aldakuntzarik. Kristoren zuzentasunak gizona kanpotik bakarrik ukitzen du.

SINISMENA.—Sinismenaren bitartez, bere-egiten du gizakumeak Kristoren zuzentasuna. Kristok salbatzen duala zinez sinisten duanari, Jainkoak beti erantzuten dio. Erantzun ori, "Kristoren zuzentasunaz jaztea" da.

Orrela, ziur jakin dezake gizakumeak salbatuko dala, bere sinis-tea ez bait daiteke erantzunik gabe gelditu. Neurrigabea izaki Jainkoaren errukia...!

Luter'en sinismena, uste osoa Jainkoagan ipintzea da. Buru, biotz, bizitza, gizakumea dan guztia, itxu-itxuan, arrazoiketari ibilli gabe, Jainkoaren altzora jaurtitzea.

Arrazoiketarik gabe noski, Okann'ek erakutsi bait zuan, adimenak ez dezakeala Jainkorik ezagutu; fedeak bakarrik ezagutzen duala Jaungoikoa. Luter'ek nominalista okandarrak izan zituan irakasle!

GRAZIA.—Sinismena bera da grazia. Ez da beste grazirik; gizakumea, giza-izakeraz gora, Jainkoaren kide nolabait egiten duan grazirik ez da. Jatorriz-gaio diko bizitza guztia deusezten du Anai Martiñ'ek.

JAINKOA'REN LEGEA'—Maiz esan oi da, Iutertarrek, aragikerian murgildu nai zutenean "vivamus luteranice", "Luter'en erara bizi gaitzen" esaten zutela. "Oben egin daigun, sinisten degun ezker". Ez zan ori, ez orixe, Anai Martiñ'en gogabidea. Egia da, berak idazkiño batean onako au idatzi zuala: "pecca fortiter et crede fortjus". "Egizu oben sendo, baiña sinistu ezazu sendoago".

Esari onek, beste bere inguruko itz-saretik kanpora aterata, bakarrik artzen ba'da, arras engañatu lezake edozein. Au da esari orren zentzua: "Naiz aundiak eta ugariak izan zure obenak, zure sinismena sendoa ba'da, salbatuko zera".

Garrantzi aundia du Martin Luter'entzat Jainkoaren legea bete-tzeak, bestela sinismena ez bait litzake egiazkoa izango. Luter'en sinismena, Jainkoari bizitza osoa ematea da.

SAKRAMENTUAK.—Iru bakarrik onartzen ditu: Bataioa, Eukaristia ta, —naiz beTe erara—, Aitortza.

Sakramentuak, fedearen adigarri uts besterik ez dira; ta au, bi eratarata: Artzen dituztenen eta artzen ikusten dituztenen sinismena sendotzen dutelako.

Ez du onek esan nai Luter'ek sakramentuei garrantzirik ematen ez dienik, sakramentuak bait dira, bere iritziz, Kristoren Kalbarioko irabaziak gureganatzen dituztenak. Sakramentuak eta Biblia. Orregaitik sakramentuei "Verbum Visibile", "Begientzako Itza" deitzen die; Bibliari "Verbum dictum", "Belarrientzako Itza", deitzen dion bezela. Bi "Itz" auetan, Biblia da garaiena, berak bait digu sinismena sortzen, eta bera gabe beste salbabide guztiek ez bait dute deus balio, baiña Bibliatik ernetako sinismenak dakarkigun zulentasuna, "via sacramentali", "sakramentuen bidez", iristen zaigu bakoitzari'

Ez dago beraz sakramentuen arloan ere erabat itxita, katoliko ta lutertarrentzat alkarrizketarako atea.

BIBLIA,—Auxe da Luter'entzat Jainkoagandiko grazien ubidearen iturburua. Berak "JaInkoaren Itza" deitzen dio, edo soilki: ITZA. Itzak, sinismena sortzen digu; Itzak, sinismenari nola erantzun erakusten; Itza da Elizaren katea bera. Itzaren bitartez ari da gugan Ats Deuna. Jainkoaren itza ez da gizonaren onerako bakarrik; munduaren onerako ere bada. Ortik datorkio Elizari, Itza munduari aldarrikatu bearra.

Itzak min dagio munduari' Munduak muziñez darantzuo Itzari, mundua okerra bait da; eta Itzak okerkeri ori aurpegira jaurtitzen bait dio...

Badirudi Luter'ek bere gogoetan aurrera jarraituaz, Eliza, oker dagoan mundu ori zuzentzeko egiña dala esan bear duala. Ez ba. Elizaren egitekoa, Itza iragartzea omen da; "jus verbi". Mundua Itz orren arauera biziartzea, "executio verbi", Laterri-nagusien egitekoa omen da.

BIBLIA ULERTZEKO ASKATASUNA.—Kristau bakoitzak bai omen du Itza bere adimenak erakusten dion erara artu ta ulertzeko askatasuna, ortarako bakoitza Gogo Deunak barrundik argitzen dualako. Ez da beraz, Elizaren arloa Itzaren zentzua adieraztea. Elizak Itza olestu bakarrik egin bear du' Itzaren zentzua Gogo Deunak berak agertuko dio Itza artzen duan bakoizari.

Pentsakizun onekin, osoro egiten dio lepo Martin Luter'ek Elizaren maixutzari.

ELIZA.—Eliza, bere izatez, "ontologice", iragarketa bat da; "praedicatio": Itzaren iragarketa..., eta iragarketa orri emandako erantzuna. Itzak, iragartzen dan bakoitzean, siniste-sail bat biltzen du; sail orrek sinistuaz erantzuten dio iltzari: Orixe da Eliza. Ez da, beraz, Eliza bein betirako egiñik dagoan gauza; unez-une egiten ari dan gauza da, unez-une bait da itza aldarrikatua, ta unez-une bait du sinismentzeko erantzuna jasotzen,

Badaki Luter'ek Eliza orrek, aragizko gizakumez egiña izanik, begiz ikusi leiken izakera bat bearrezkoa izan duala, edestian zear, Kristok sortzea eman zion une beretik. Eliza "regnum spirituale", "jaurerri gogokoia" da. Baiña nai-ta-naiezkoa du mundu onetan diarduan artean, "regnum materiale", "jaurerri lurkoi" baten itxuraz jaztea. Baiña ludiko-jaurerri itxura au, Elizak samiñez bere gaiñean eraman bear duan obenezko gorputz bat da; "corpus meretricis": "urdanga-gorputza".

Elizaren izaeraz ta Elizaren egin bearretaz dituan gogapenak dira, Martin Luter Katolikoengandik geien urruntzen duten puntuak. Ala ere, gaurko egunean, bada alkar-azterketa baterako abagunea, luter tarrei berairi motza iduritzen bait zaie Luter'ek Elizaz zuan iritzia.

Motza. ¿Zergaitik ez ote zuan berak irudi ori osatu? Zalantzarik gabe, eliza berri bat eraikitzea pentsatzen ez zualako. Lengo Eliza rra nai zuan, oituraz, baiña batez ere sinispidez, berritu. Ta ori egin nairik, egiaz egin zuana, Elizaren bizia zimurtzea ta izakera-muiñez osoro legortzea izan zan.

APAIZTASUNA.—Kristau oro omen da, bataioaren indarrez, apaiz edo jaupari. Danak zertasun berdiñeko apaiztasuna, jauparitzta, omen dugu eta jauparitzta orren maillak, Aitasantutzatik Apaizketaraiño, gizonen sorketak omen dira, ez Kristorenak.

Egia da aldi aietan kristau danen jauparitzta edo apaiztasun orokorra, aztuegia zegoala, eta Elizako agintariek beren agintaritzta geikeri itxusietaraiño maiz eramaten zutela, baiña Luter, ontan ere, mutur batetik besteraiño joan zan, eta berak diona Elizaren zain berberak apurtzea da.

KRISTOREN BIGARREN ETORRERA.—Martin Luter Kristoren bigarren etorrera orri begira bizi izan zan beti, etorrera orrek bakarrik al-

datu bait zetzazkean gauzak' Bitartean, Itza iragarritz beste, ez zegoan ezer egiterik.

Ez du lutertasunik bear bezela ulertuko Luter'en baitan ain bizirik zegoan eskatologi edo "azken-une"rako zentzurnen au gogoan ez daukanak.

Orretxegaitik Luter'en teologia ituna da, tristea, ta puntu askotan antzua. Ludian borroka besterik ez dakus, ta borroka orren gentza ez da mundu onetan lortzekoa; "azkenean" baizik. EZer egin bitartean? Soilki. Itza aldarrikatu.

Borroka ezin-geldia gizona-baitan ere, batera pekatari ta santu bait da gizona; santu kanpotik Kristoren santutasunez, pekatari barrundik, obenez usteldua dagoalako. Noiz animako pakea? "Azkenean" ¿Bitartean? Itza sinistu.

Borroka, baita Elizan ere; dana batean gogozko erreiñu donea ta gorputz lurkoi zikiña dalako. ei; Osakundea? "Azkenean", Kristok Eliz ori gogo uts biurtzen duanean. ATa bitartean? Itza aldarrikatu, Itza sinistu.

Borroka Istorian bertan ere; borroka amai-gabea Itza zabaltzen duan Elizaren ta Itza artu nai ez duan munduko politikaren artean. Azkenean bakarrik amaituko dira borroka guztiak; Kristok mundu au zuzen egingo duanean. ;Bitartean egin bear duguna? Itza erein ta... Jainkoagan itxaron'

MARTIN LUTER'EN NEKEAK.—NEKAZARIEN GUDUA.—Alemanrko nekazariak aspaditxotik zebiltzan asarre. Jaun eta Gotzai feudalarien jopu ziran; Askatasuna nai zuten; askatasuna ta bizimodu ohea.

Martin Luter'en alde ipiñi ziran geienak, Martin Luter askatasunaren aitzindari agertzen bait zan erriaren aurrean. Askatasunaren alde zorrozki ta ozen mintzatu zan Anai Martin, ta mintzaera orrek aize eman zion, ziurki, nekazarien amorruari.

MUntzer, —lenen orduko lutertarretakoa eta gogortasunaren zale zan MiThtzer— izan zan gudaketa ontan nekazarien buruzagi. Ordurako anabaptista egin bait zan, eta ausiak bat zituan Luter'ekingo adiskidetasunak. "Deabruaren ordezkari nagusia" ta "Witemberg'eko aitasantua" deitzen zion orain, len bere irakasle izanari.

Odol asko ixuri zan 1525'eko gudu onetan, eta ondamen aundiak egin ziran. Millatik gora dira nekazariak apurtu zituzten gaztelu ta lekaidetxeak.

Azkenean, orde, Frankenhauseñ'go borrokaldian purrukatuak izan zira nekazari gaixoak' MCantzer bera ere katigu egiña izan zan, eta lepoa moztu zioten' Gogorak izan ba'ziran len nekazariak, ez ziran orduantxe biguiñagoak izan jaun garailleak, nekazari garaituak zigortzen'

Martin Luter matxinadaren asieran, Karlstadt'ek eta aren alderdikoek nekazarien alde oles-egin zutelako-edo, nekazarien alde bezela jarri zan. Ori adierazten du beintzat, nekazarien eskariei erantzunaz idatzi zuan "Pakearen alde deia" izeneko liburuxkan. Baiña laister, —rnatxinoen jokabideaz ikararurik, noski—, Printzipeen alderdira igaro zan itxu-itxuan. Orduantxe idatzi zuan beste idaztitxo bat, nekazarien alde illabete lenago idatzitako aren bigarren agerpenaren azkenean agertzekoa. Aurrenekoan Jaun feudalarien aurka idatzi bait zuan, bigarren oni izen au eman zion: "Baita nekazarisail ebasle ta erailleen aurka ere". Aurrenekoan nekazariei "lagun maiteak" esaten zien; oraingoan ikaragarritzko esakerak darabilzki "lagun maite" aien aurka:

"Al duan guztiak, naiz agirian naiz izkutuan, lepoa biurrituz ito, eta buruindu bear ditu (nekazari oiek)' Oroi beza edonork matxino bat baiño izaki edentsuagorik, gaizkilleagorik eta deabruzkoagorik ez dala. Erail beza, bada, edonork, zakur amorratu bat iltzen dan bezela. Berak ilko zaitu zu, zuk bera lenago iltzen ez ba'duzu.

Aizto-zauriz josi bitza, erail bitza, ito bitza, al duan guztiak, matxino oiek. Ta ori egitean, zuk bizia galduko ba'zenu, zorionekoa zu, ez bait zenezake sekulan eriotz zoriontsuagorik aurkitu; izan ere Jainkoaren legea betetzeagaitik eta karitateari serbitzeagaitik ilko ziñake!

"Badira (nekazarien artean) gizakume errugabeak ere' Baiña auek Jainkoak gordeko ditu (erailketatik). Gordetzen ez ba'ditu, errugabeak ez ziralaren siñale da, edo matxinoen ekintzarekin konforme zeudelako, edo, gutxienez (aien izenik salatu gabe) ixilik egon ziralako. Zitzu eragieiezu, bada, escopetei nekazarien aurka".

Ludi ontako agintariak (liburutto orrek dionez), gizakume jainkozaleak defenditzeko ta matxinadak eragozteko jarri omen ditu Jainkoak; gizakume oro agintarien esanera egon bear omen du, ta iñor ez omen daiteke agintarien aurka jeiki, ezta nork bere burua defenditzeko ere' Liburutxo orretan gizakumea agintarien jopu da.

Len baiño lagunago gelditu ziran gudate onen bukaeran Anai Martin eta printzipeak. Lãguntasun ori ez galtzeagaitik noski egin zuan Martin Luter'ek bere bizitzako gauzarik zikiñena. Hesse'ko Fellpe'ri bigarren emazte batekin ezkontzen uztea'

Printziperik luterkoienetakoa zan Filipe, Hesse'ko "Landgrave" edo "Lurralde-jauna". Ezkondua zan baiña itun Zarreko asaben araura, beste emazte bat artzea pentsatu zuan, ta ori egiteko Luter'eri eskatu zion baimena, baimen ori ematen ez ba'ztzaion Inperatorearen alderdira igaroko zala adieraziz. Arriturik erantzun zioten Luter'ek eta Melanchton'ek, bi emaztezko ezkontza ori erriarentzat ondabide izanen zala. Felipe'k ordea, —ordurako Buzer'en onespena bai bait zuan—, berriztu zituan bere eskari ta zemai eta asarreak. Ona zer erabaki zuan azkenean Luter ek Melanchton'en baikunarekin: Ez zala zillégi Felipe'k nai zuana. baiña Ebangelioaren alde egin zituan lanak saritzearren, ematen ziola bigarren emazte batekin ezkontzeko baimena, ezkontza ori ixillean gordetzekotan. 1540` ean egin zan orrelako ezkontza arrigarria.

BIRBATAILARIAK.—Anabaptista edo birbatailariak, sustrai sakonak noiztik eta nondik dituzten, iñork ez daki. Amaseigarren mendean zabaldutako auek Suizi'ko Zurich urian sortuak dira, eta Zuingli'ren denboran zabaldu ziran andik Europa'ren gerrialdiko lurretara. Luter'ek bezela, sakramentuak sinismenaren siñale besterik ez dirala zion' Anabaptistek, Luter'ek eta Zuingli'k baiño arrazoibide zuzenagoarekin, umetan bataiatua berriz bataiatu bearrean aurkitzen zala zioten, aurtzaroko bataio arek balio ez zualako. ez bait dira aurak, ez federik artzeko ez fedenk iragartzeko gauza.

Luter'ek, —bere pentsaeran arrazoirik gabe—, gogor eutsi zion aurren bataioaren balioari, eta gaitzetsi zituan, asarre, birbatailariak'

Zuingli'k, berriz, Zurich'eko agintarien indarra erabili zuan anabaptisten aurka. Gai ontan ere asarre ziran Zuingli'rekin birbatailariak, ez bait zitzaien atsegin, sinismena zabaltzeko, agintarien indarra erabiltzea Zuingli'k egiten zuan bezela.

Anabaptista auek gizakume paketsuak ziran, zigorrari baretasunaz erantzuten ziotenak, besteren sinispidea errespetatzen zekitenak. Agian anabaptistak dira Europa'n besteren erlijioa errespetatzen aurrena ikasi zutenak. Aitormen ori zor zaie.

Zurich'etik atera bear izan zuten; eta, poliki-poliki, asi ziran mundu guztira zabaltzen. Batez ere ezagutuak izan ziran Tirol. Babiera eta Morabi'ko anabaptistak' Eta Olanda'koak. Ain zuzen, Olanda'n eta Alemani'ko iparraldean sortu zitzaion anabaptisten zuaitz paketsuan adar biurri bat, gogorkeri-zalea, sasimistikua, indarrez Jainkoaren jaurerri berri bat ludian ezarri nai zuana' Mathys izeneko okiñ olanda-

tar bat uste izan zuten zala jaurreri orren erregea, Artean berenganatu zuten MUnster uria bertako anabaptistek, eta Alemani'ko uri ortara ekarri zuten Mathys eta bertan "Sion Berri'ko Errege" egin zuten.

Mnster eta ango lurraldea ziran "Jainkoa'ren Erreiñu Berria-, eta erreñu artan dana guztiena zan: dirua, ondasunak, jakiak, eta emakumeak.

(MCMster uria ta bere elizbarruti osoa Laterri iare bat ziran. Gotzaia zan laterri aren agintari).

Witemberg'eko Karlstadtarrak bezela, Winster'ko anabaptistek ere apurtu zituzten elizetako irudi guztiak.

Azkenean MUnster'ko Gotzai printzipeak eta Hesse'ko Feiipe'ren gudarozte indartsuak memperatu zituzten "sion-berri"tar aiek eta izugarrizko zigorra eman zien "Sion Berri"artako "erregea" ere, Mathys okiña, eriotzara galdua izan zan' (1535'gn urtea).

Gaitz aundia egin zion anabaptisten sendi paketsu ta otxanari Mi.instertarren geiegikeriak. Len bazter guztietan zigortuak ba'ziran —152453'an Espira'ko Dietan egindako lege batek, eriotzara galtzen zituan anabaptista guztiak—, ez ziran MC.inster'ko matxinada ondorean obeki erabilliak izan'

Zergatik ote zien erregeek orrelako bildurra? Anabaptisten arteko Anaidi asko anarkistaxamarrak ziralako.

Ala ere birbatailari paketsuek burua altxa zuten ostera poliki-poliki, batez ere Olanda'n, eta berrogei urteko zigorraldi odoltsu baten ondorean lortu zuten pakea. Sirnons'tar Menno zan orduan beren burugazi, ta orregaitik "mennonita" edo mennontarrak deitu oi zitzaien. Alemani-zear Siberi'raiño zabaldu ziran, ta emendik Ipar Ameriketara.

Bitartean Inghlanderrian ere sortu ziran beste anabaptista pakezale sail batzuk, ta Inghlanderritik, zigor-igesi' ipar Ameriketara igaro ziran, Inghlanderriko kalbindar garbizaleekin batean.

Azi-ale auetatik sortuak dira gaurko egunean ainbat indar duten eliza "Baptistak".

MARTIN LUTER'EN AZKENEKO URTEAK.—Mnster'ko naspilletik gauza bat irten zan len baiño sendoago: printzipe protestante edo ostelarien eskubidea; elizeko gauzetan sartzeko eskubidea, beste orrelako matxinadarik sortu ez zedin.

1531 ezkeru. "Esmalkaida'ko Alkartean bildurik zeuden printzipe auek. Auentzat idatzi zituan Luter'ek "Esmalkalda'ko Ataltxo" edo

artikuluak, gerontzean lutertar guztien sinismen-eredu izanen diranak. Melanchton'ek idatzitako Augsburg'eko Sinispideak katolikoe-kin alkartzea billatzen ba'zuan, Esmalkalda'ko onek katolikoengandik bereistea billatzen duala dirudi.

Paul III (1534-154453) Aitasantua, benetan Kontzilio bat bildu naiean zebillen, ta 1537'an deitu zituan lutertarrak Mantua'ra, Kontzilioari asiera emateko. Baiña Esmalkalda'ko printzipeak ezetz erantzun zioten.

Urrengo urtean, Karlos V'a turkitarrekin borroka bizian ibiltzeak eta guda ortarako Esmalkal'ddiko printzipeen laguntza lortzeko, auei Inperatoreak amore eman izan bearrak, eragotzi zuan, ostera ere, Kontzilioaren asiera. Beti politika, lutertarren alde!

1541'ean Ratisbona'n bildutako Dietan izan zuten alkar-jarduketa bat teologi'lariek. Gropper eta Eck ziran katolikoak; Melanchton, Bucer ta Pistorius, lutertarrak' Iritxi ziran teologilari auek batasun-antzeko zerbaitera "jatorrizko obenaren", "askatasunaren" eta "sabalmenaren" auzietan; alperrik, ordea; batasun ori egiteko tajutu zuten dotriña ez bait zuten onartu ez Aitasantuak ez Martin Luter'ek.

Ez zuten bitartean denborarik galtzen printzipe Iutertarrek eta 1541'eko Ratisbona'ko Dieta ortan bertan, turkitarren erasoak bildur-tuta zeukan inperatorearengandik, bentaja ederrak atera zituzten.

Aundiagoak eta bizkorragoak izan ziran oraindik, iru urte geroago, (1544), Espira'ko Dietan lortu zituztenak, orduan Karlos V'a Frantzi'rekin ere borrokan bait zebillen.

Ikaratu zan Paul III Aitasantua, ta oiur egin zuan Inperatorearen jokabide onen aurka.

Baiña, uste gabeen, urte ortan bertan aldatu ziran gauzak, "Crespy'ko Pakea"rekin lasaitu bait zan Karlos V'a. Ta Aitasantuarekin alkarturik jakinarazi zion kristaudiari, ainbat aldiz aipatuko Kontzilioa Trento'n berealaxe biltzera zijoala' laister, Iutertarrek ez ziralara joango erantzun zioten, eta Luter'ek berak liburu zital baten bidez iardetsi zion. Liburu orren izena: "Deabruak sortutako Erroma'ko Aitasantutzaren aurka."

Orduantxe asi zan pentsatzen Karlos V'a protestalariak menderatzeko guda beste biderik ez zuala, batez ere 1546'ean, lutertarrak erlijio-gaia aztertze-ko alkarrizketa batera deitu, eta auek erantzun ez ziotenean.

Urte ortan bertan il zan Martin Luter, pakean.

Pakean; ez bait dira egiak aren azken-egunei-buruz sortutako izu-

garrikerlak. Erretxindurik igaro zituan azkenengo urteak' Bere "se-meeek" eman zizkioten naigabeek ozpindu zioten umorea. Barne-muiñetako kezka, bildur, larritasunak, eta salbatuko ez ote zaneke ikara, ez zitzaizkion oñoz erabat itzali, eta maiz estutzen zioten bio-tza. Aitasantuaganako gorrotoa, zenbat eta zarrago ainbat eta aundia-goia egin zitzaion. Trento'ko kontzilioa asteko asmoaren entzutea izan zuan bezain laister, jarri zan kontzilio aren aurka, eta bereala pentsatu zuan Kontzilioa parregarri egiteko liburu bat idaztea, baiña ez zion eriotzak denborarik eman' Azkeneko urtetan, 1535'ean, idatzi zuan bere liburuetatik garrantzitsuenetako bat; auxe: "Galazitarrentzako epistolari-buruz komentarioak edo iruzkiñak". Luter'en oldozkunak ezagutu nai dituanarentzat nai-ta-naiezkoa.

ESMALKALDA'KO GUDA'—Ilbeltzaren 18'an il zan Martin Luter, 1546'ean. Urte ontan bertan asi zan Esmalkalda'ko guda ere. Uztai-llan.

Pakezko biderik ez zala ikusi zuan ezkerro, gudarako indarrak gertutzen ari zan Karlos V'a eta zuurki ari zan gaiñera' Ez zion gudateari erlijio-margorik eman nai. Politika utsezko arazo bezela egin nai zuan guda, printzipe protestalariak, —sekulan Dietako agindurik bete ez zutelako—, bere agintaritzaren etsaiak bezela ikusiaz. Orrela lortu zuan Maurizio Saxoni'ko Duke protestalari indartsua, Esmalkalda'ko Alkartetik aterata, bere alderdira erakartzea.

"Orain joko ez ba'gendu, Alemani guztia eta Flandes'ko lurrak fe-dea galtzeko arriskuan aurkituko lirake, —zion Karlos V'ak bere arre-ba Mari'ri idatzitako eskutitz batean—. Pentsa ta pentsa ari ondorean artu dut Hesse'ren eta Saxoni'ren aurka gudan asteko asmoa, berak izan bait dira, alkarrekin egin ditugun pakeak urratu dituztenak. Ez du noski aitzaki onek, auziaren egiazko mamia erlijioa dala luzaroan es-taliko, baiña baliozkoa zaigu ala ere; etsaien indarrak bi puska egite-ko egokia bait da"

Printzipe protestante edo ostelariak ere guda-naiean zeuden, eta berak izan ziran erasoia asi zutenak. Urte bete baiño lenago irabazi zuan gudua inperatoreak. 1547'an Muniberg'eko borrokan ondaturik gelditu ziran esmalkaldatarak; Hesse'ko Felipe, protestalarien buruz-gaia ere, borrokaldi artan katigu erori zan.

Dana zegoan orduan Karlos V'aren eskuetan, baiña ez zuan gar-raitza ospetsu arri ziturik ateratzen jakin, eta protestalaritza len be-zain sendo gelditu zan Alemani'n. iProtestalariak garaille irten ba'lira...!

Gaiñera, orduantxe, Paul Ilrarekin asarretu zan, eta ez zuan be-
rea kulpa guztia. Aitasantuak Kontzilioa Trento'tik Boloni'ra aldatu
zuan. Trento Inperioaren barruan zegoan uria zan. Boloni. berriz, Eliza-
ren Laterrietan aurkitzen zan. Ez zuan ondo artu Karlos V'ak bere bo-
rondatearen aurka egin zan aldaketa ori.

Uskeriak noski, baiña Kristaudiaren bi Buruen arteko asarreak
on-egin zien printzipe protestalariet. Zergaitik egin zuan ori Aitasan-
tuak? Inperatoreak, bere lurretan bildua egoteaz baliaturik, Batzar Do-
ne artan eskua geiegi sartzan zualako. Eta ori gotzai askori, batez ere
frantzitarrei, ez zitzaian iñolaz ere atsegin.

Galdu zuan Karlos V'ak Aitasantuagan zuan konfiantza eta bere-
kasa asi zan Alemani'ko erlijio-auziak konpontzen' Ortarako oster
Augsburg'en teologilari katoliko ta lutertarren arteko billera bat anto-
latu zuan. Teologilari auek eratu zuten, jarduketa luzeen ondorean, bi
erlijioentzako balio zezakean sinispide bat. Augsburg'eko "Interim"
edo "Bitartekoa" deitu zitzaion. Kontzilioa amaitu bitarterako baka-
rrik balio zualako' 1548'an Augsburg'en bildurik zegoan Dietak Inpe-
rioko lege egin zuan "Bitarteko" ori. Alperrik, ordea, protestalariak
eta katolikoak aurka irten bait ziran'

AUGSBURG'EKO PAKEA.—Dantzatu ziran oster izkilluak katoli-
ko ta "protestante" edo ostelarien artean. Maurizio Saxoni'ko Dukea
izan zan, sua piztu zuana. Printzipe onek, bere lagun ostelariak saldu-
ta, Inperatorearen aldean egin zuan Esmaikaida'ko guda. Inperato-
reak, "Printzipe Autalari" egiñaz saritu zuan' Baiña, bera ostelari
izaki-ta, laister saldu zuan inperatorea ere Alemani'ko printzipe oste-
larietkin eta Frantzi'ko Erregearekin alkar arturik. 1552'ko epaillean
Insbruk'en zegoan Inperatorea bera, ustegabeen katigu arrapatzea
pentsatu zuan. Larrilarri ibilli zan Karlos V'a iare iges-egiteko. Iru illa-
bete iraun zuan, orduan sortu zan gudak, baiña laister egin zan egiaz-
ko pakea, 1555'ean, Augsburg'en. Orregaitik "Ausburg'eko Pakea"
deitzen zaio, eta pake orrek errotu zuan betirako protestalaritza Ale-
mani'n. Ordurako Karlos V'a Yuste'ko Lekaidetxeko bakartasunera
joateko asmotan zebillen, eta bere anai Fernando'k zeukan Inperioko
buruzagitza.

Augsburg'eko pakean bi erlijioei ematen zitzaian askatasun
osoa. Baiña askatasun au printzipeentzat zan, ez erriarentzat. Erriko
jendeak bere printzipearen erlijioa jarraitu bear bait zuan naita-nai-ez.
Ta Printzipearen erlijioa artu nai ez zuanari, Laterri artarik beste bate-
ra igaro aal izateko eskubidea bakarrik ematen zitzaion. "Ius emigran-

di"; "Erbesteratzeko eskubidea"; bakoitzak bere ondasunak eramana, noski.

Erabaki auek esaera batean bildu zituzten: "Cujus regio, eius et religio"; "Norena errialdea, arena erlijioa ere"; ta auxe esan nai zuan: "Lurralde baten jaunak duan erlijioa izan bear dute lurralde artako jendeek ere".

Eman zitzaizen printzipeei "jus reform-landi" edo bakoitzak bere Laterriko elizaren "antzaberritzea• egiteko eskubidea" ere. Gotzai printzipeak gelditu ziran lege ontatik kanpo' Laterri ziran elizbarrutiko Gotzai Printziperen bat ostelari egiten ba zan, ez zuan bere jendeari erlijio berria artuarazteko eskubide ra ez ori bakarrik. Gotzaitza uzteko agintzen zitzaion. Aietako protestalariak ez zuten gotzai printzipeiburuzko erabaki au ontzat artu.

Orrela gelditu zan betirako Alemani bi zatian erdibitua' Esku batetik laterri katolikoak, besterik, lutertarrak.

Erljio berrira igaroko Laterrietako elizaren ontasun guztiak printzipeen eskuetara joan ziran.

Printzipeen eskuetara igaro zan, baita ordurarte Laterri aietako gotzaien eskubidea ere: elizaren auziak zuzentzeko eskubidea, alegia.

Akiturik zegoan Karlos V'a, gaitzak joa, naigabeak menderatua. Laister jakin zan Kristaudiak Inperatore zarrak,—bere Frantzisko Eraso ministro aresoarra bitarteko zuala—, Españi'ko Jaurerrien erregetza Felipe Ilari lagatzen ziela.

Ez zuan sekulan Karlos V'ak Ausburg'eko pakerik onartu. iNoski ere! inperatorearen lenengo egitekoa Elizaren osotasuna erejeengandik gordetzea bait zan'

BESTE ELIZ-ALDAZALEAK ZUINGLI

Suizitarra zan; adimenez gizon landua, Birjaiotzako semea, musi kazale iaioa, Erasmo'rekin eskutitzez adiskidetasunak ba tuana. Lu- 2_1 -- ter bezela, 1484'ean jaio zan' 1506'ean egin zan apaiz, t Zurich'en Jauretxe Nagusiko izlari goiena izatera iritxi zan. Eta an, Zurich'en, : eman zion sortzea bere eliz ostelari edo protestalariari.

Suizi'ko eliz-gizonen oiturak ez ziran beste lurraldeetakoenak baiño garbiagoak. Gaiñera oso zabalduak zeuden Suizrko kantoietan Wiclif eta Hus erejeen liburuak. Baita Luter'enak ere. Liburu auek bizkor-tu zuten aspaldidanik emen ere, eliz-gizonen diruzalekeriaren aurkako amorrua.

Amabirjiñaganako eraspena gaitzesten asi zan Zuingli; laister igaro zan induljentzien aurka idaztera ere. Luter asarretu zuan barkapen-iragarketak, —Leon X'ak agindutako barkapenaren iragarketak—, asarretu zuan Zuingli ere. Gero, ezkontzeko baimena eskatu zion Gotzaiari, beretzako eta beste amar apaizentzako, emakumerik gabe ezin bizi zitezkeala esanaz; Zuingli bera ordurako emakume batekin nasirik bizi zan' Gogor itzegin zuan, baita, elizak agindutako barauen aurka ere.

Bi aldiz idatzi zion bere lagun Erasmo'k, oker ari zala ikusarazi naiez' Alperrik. Adriano VI'ak ere idatzi zion, oso maiteki gaiñera.

Maitasun ontan ikusi nai dute Aitasantutzaren etsaiek Aitasantuen berekoitasunaren siñale bat. Suizi'tik irten oi ziran Aitasantuen gudarozteko gudariak. Diruaren truke joaten ziran Aitasantuen serbitzura. Zuingli, berriz, diru-truke gudari joate orren etsai zan. Erria zuinglitar egiten ba'zan, gudari bikain aiek galduko zitualaren bildurrez idatzi omen zion Aitasantuak ain samurki Zuingli erejeari'

Ez du ezagutzen Adriano Vi'aren sendotasun garbia, ori dionak. Ez, Suizrko guda-mutillak, ez; Suizi'ko erriaren sinismena baizik, eta

Zuingli beraren sinismena nai zituan Adriano VI'ak ain maitekiro, aitak semeari bezela, eskutitz ura bialdu zionean.

Zuingli'ren dotriña, gairik garrantzitsuenetan, Luter'en dotriña bera da' Ona diferentzirik aundienak:

—Luter'ek gizakumeen askatasuna ukatzen zuan. Baita Zuingli`k ere' Baiña bien arrazoiak ez dira berdiñak. Luter'en arrazoaia, jatorrizko obena ezkerro gizakumearen izatea zearo ustelduta dagoala uste izatea da. Zuingli'rena, ordea, gizakumearen izate osoa, baita naimena ere, "Jainkoagan dagoala" uste izatea.

Gauza jakiña da, "panteistek" edo "orojainkotiarrek" dan guztia Jainkoa dala esaten dutela, izadiko gauza bakoitza Jainkoaren zatitxo bat balitz bezela. Izadia, gauza bizi bat dala derizkiote. Eta izadi ori Jainkoa dala diote, edo "Jainkoa" izadiaren izen bat besterik ez dala aitortzen dutelako, edota izadia Jaungoikoaren gorputz-antzeko zer-bait dala iruditzen zaielako. Jaungoikoa, "gorputz" orren "Anima" izango litzake.

Beraz, Jainkoa genduke "gorputz" ortan bizi dana; Jainkoa "gorputz" orren gorpuzki bakoitzean bizi dana eta ari dana; Eta "gorputz" orren gorpuzkirik bikaifienak gizakumeak bait dira, Jainkoa dugu gizakumeetan bizi dana eta ari dana. Jainkoa da gizakume bakoitzaren baitan, gizakume orren adimena-bidez gauzak aditzen dituana, eta, naimenaren bidez, maitatzen edo gorrotazten dituana: iJainkoa, "aukera" egiten duana!

Zuingli ez da "orojainkotjarra", baiña badu pentsakera orren kutsua. Jainkoa "Izatetasuna" dala dio:

"Existentia", "Izate Osoa" Ortaz, dan guztira nolabait Jainkoa sartzen omen da. Dan guztia Jainkoagandiko lurriña bezela omen da, eta dan guztian omen dago Jainkoa; baita gizakurneai'en naimenean ere. baiñan ez gure teologiak dion lez. izate-bizi-indar emaille bezela bakarrik, baizik-eta baita naimenari aukera egiñarazteko ere. Jainkoa omen da gure adimenaren baitan aukera egiten duana. Ez du, beraz, gure naimenak askatasunik.

Ortaz, gure egite guztiak Jainkoa`gandik datozelako, Jainkoa bera da, gizakumea zerura edo infernura eramaten duana. Kakbin'engandik askoz ere bertago dago gai ontan Zuingli, Luter'engandik baiño. Edo Zuingli'rengandik; au zaarragoa bait da ura baño.

Beste diferentzia, sakramentuetan dago; batez ere Eukaristian. Luter'en iritziz, Eukaristiko ogiardoak ez dira Kristo biurtzen. Ez da, beraz, "Transubstantiatio"-rik edo "Zertasunaldaketa"-rik. Baiña ala

ere, Kristo, —naiz ogiarekin eta ardoarekin batean egon—, benetan dago Eukaristian. Zuinglirren iritziz, ez. Sagara aldiari, ez ardo-ogirik bema- T-Tanstrbs-tan-tiatio=rik--edo---u-Ze-rtasu-n-al-dak-eta"-rik; Baigia⁹ n, Kttf to, —na-12--eg-i-are-kin--eta-ardearek-iri-b-atean egon--; benetan-dago-E-u-karistian' Zuingl ara n, ez ar c5=•o-g-rii'k. Kristo biurtzen da, ez Kristorik ogiardotara etortzen. Soilki ogi-ardoak Kristoren irudi biurtzen dira; irudirik egokienak baike, baiña irudi bes-terik ez' "Au nere gorputza esatean, "da" itzak "adierazten du" esan nai omen du' Ala ere, esan omen daiteke Eukaristia Kristo dala, baiña Kristoren irudi bat Kristo dala esaten dan eran; egizki Eukaris-tia ez bait da Kristo, Kristoren irudi utsa baizik.

Ez zan Zuinglrik sortua pentsaera au. Karlstadt izan zan aurrena asmatu zuana, eta berak bezela pentsatzen zuten Bueer'ek eta Eco-lampadio'k ere.

Protestalaritzako indarrak batzearren, Hesse'ko FeHpe'k bildu zituan alkarrizketa batean Luter eta Zuingli, Marburg'en, 152453'garren urtean. Ez zuten alkar-aditu' izketan ari ziran bitartean, Luter'ek "au nere gorputza da" ezarri omen zuan bere maieko olean, "da" itza aundiago ta sendoago idatziaz bere "Eukaristia egitan Kristo dalako" sinis-tea adierazi naiez.

Iru eguneko jarduketa amaitzean, Zuinglrik ez omen zuan estutu nai izan, Luter'ek eskeintzen zion eskua, ta "zure baitako espiritua ez da nere espiritua" esanik, beste gabe utzi omen zuan.

Zurich uriak bere-egin zuan Zuingli'ren dotriña eta uri ortan eratu zuan Zuingli'k bere eliza, eta uri ortatik saiatu zan Suizi'ko beste urie-tara bere sinispidea zabaltzen. Aurka irten zitzaizkion "Basoko Kan-tojak", Sujzrko kantoirik zarrenak'

Laister sartu ziran gudan katoliko ta zuinglitarrak. 1531'ren urri-ll aren 11'ean Kappel'ko borrokan garaille irten ziran Basoko Kanto katolikoak. Borrokaldi ortan il zan Zuingli bera: "Jainkoa'k zigortuta" Luter'en iritziz. Andik laister, bigarren borrokaldi batean, Zug mendian, ostera ere garaitza katolikoentzat izan zan'

Orduan egin zan "Kapperko bigarren pakea", bi urte leenago egindako "Kapperko aurreneko pake" aulak ez bezela, Suizi'ko Kan-tolei baretasuna betirako ekarri ziena.

"Kappel'ko Bigarren Pake" onek, Augsburg'ekoak Alemani beze-la. bi zati egiñik laga zituan Suizi'ko aranak: Kanto katolikoak eta Kanto protestalariak. Ez litzake egoki, Kanto auei "zinglitarrak" deitzea, bein Zuingli ill ezker, aren "semeak", batzuek lutertar, eta

besteak kalbindar egin bait ziran.

Jon Eck teologilari ospetsuari zor dio Eliza Katolikoak asko ta asko, protestalaritza Suizi'n geiago zabaldu ez izatea. 1526'ean Baden urixka suizitarrean protestalari ta katolikoan artean egindako jarduketan Eck'ek osoro garaitu bait zituan Ecolampadio ta Haller' Auek biak ziran zuinglitarren teologilaririk iaioenak, Zuingli bera, arpegieman naiezik, alkarrizketara agertu ez zan ezkeru.

JON KALBIN

Frantzi'ko Noyon deritzan urian jaio zan, Luter bezela sendi katoliko baten seme, 150453'garren urtean. Kalbin'en gurasoak burgesak ziran, ez, Luter'enak bezela langille soillak. Ain zuzen, Kalbin'en aita eskomikaturik il zan, bere eliz-barrutiko kanonigoen diruak zirala-ta; bera bait zan diru aien zaindari, eta ez bait zeuden diru aien gora-beraen kontuak kanonigoen gustora.

Kalbin'ek igarotako ikastetxeetan izentsuena, Montaigu'koa izan zan.

Bi gauzek egin zuten ikastetxe ura ospetsu: Bizieraren gogortasunak eta "Dialektika" edo arrazoiketa-arauak erakusteko era zorrotzak. Bi gauzak ikasi zituan ederki Kalbin'ek,

Standock'eko Jon'ek, —Frantzi'n "Erasperen Berria" sartu zuan arek—, eman zion izakera ori Montaigu'ko Ikastetxeari.

Gero, bere aitak beartuta, Legitzia ikasten asi zan Kaibin, baiña ez zuan lege-ikasketarik amaitu, aita il bezain laister "gizadizti" edo "umanismoa", ain gogoko zuan elertia, literatura, ikastera sartu bait zan Paris'ko ikastola Nagusian.

Paris'ko ikastola Nagusia zearo lutertasunaren aizeak jota zegoan ordurako. Antxe ikasi zuan Kalbin'ek Martin Luter'en oldozketa. Oldozketa orrek eta batez ere "salbamena lortzeko sinismen utsa nai-koa dalakoaren dotriña pozgarriak" —berak dion bezela—, osoro irabazi omen zioten biotza.

Ordurarte katoliko izandako Jon Kalbin, lutertar egin zan. Aldakuntza au 1533'a ta 1534'a artean gertatu zan. Beranduko kirrua da, beraz, Kalbin, protestalaritzaren zugatzean, baiña ez garrantzi txiki-koa.

Naiz, bera iIII ondorean, aren dotriñek Europa'ko politikan naspilla aundia sortu-bearrak izan, Kalbin'en bizia ez zan Kristaudi'ko gertakizunekin Luter'ena bezain n'asia izan ere, Luter inperio baten

neurri lasaietan zebillen artean, Kalbin Laterri txiki batean itxirik aritu bait zan lanean: Jinebra'ko Uri-Laterrian.

Jinebra'ra joan baiño len, Basel'en egon zan Kalbin, Frantzi'ko protestalarien aurkako legeetatik igesi, eta Basel'etik argitaratu zuan latiñez lenengo aldiz bere libururik mardulena: "Institutio Religionis Christianae", "Kristau Erlijioaren Erakusketa", laburrago, "Institutio" edo "Erakusketa" deitu oi dana. Gero, Kalbin'ek berak Frantzi'ko erderaz atera zuan idazki au, izen onekin: "Institution Chretlenne", "Kristau Erakusketa", eta, liburu au, erdera orren sendotze-aroko oñarrietako bat izan zan' Ain zegoan ederki idatzia! Agertaldi asko izan zitan, bai latiñez bai frantzeraz, idazki onek Kalbin'en bizitzan, eta anitz irakurria izan zan Olanda'n, Frantzi'n eta Alemani'n'

Naiz gero Jinebra'ko Nagusi izatera iritxi, ez zan protestalaritza an sartu zuana Jon Kalbin izan, Guillermo Farel baizik. Gizon au Frantzi'n egin zan lènik ezaguna, Lefevre d'Etaples Berritzaillearekin batean Meaux'ko Gotzai Briconnet'ek asmorik onenarekin eraikitako Ikastegian irakasle egon bait zan. Teologi-gaietan jakintsu eta lenen mailleko izlari zalako deitu zion Gillermo Briconnet gotzaiak. Oroi dezagun, Meaux'ko elizberritzailleek Montegiiko ikastetxeko jendeekin gorputz bat egiten zutela, eta Ikastetxe artan ikasi zuala Jon Kalbin'ek i Eta baita Loiola'ko Eneko'k ere!: ez bait ziran ereje, —naizta txoko aietatik irten Farel eta Kalbin—. Meaux'ko eta Montegifko elizgizonak, gero ikusiko dugun bezela'

Frantzi'n protestalariei gauzak okertu zitzaizkienean, Farel Suizi'ra joan zan iges, eta laister egin zan Zuingli'ren adiskide' 1524'ean Ecolanpadio'rekin Base'hen ari zan, dotriña berriak zabalitzen. 1526'ean Berna'ko nagusi zan erlijio-gauzetan. Urte ontan Jinebratarrak, Saboia'ko Dukearen eta aspalditik onen aide ta serbitzari izaten zan Jinebra'ko Gotzaiaren zama gaiñetik kentzearren, Berna'ko Kantoi altsuarekin alkartu ziran. Inguratu zuan Dukeak Jinebra bere gudariekin; baiña laister uxatu zuten andik bernatarrek, ta osoro bere buruaren jabe egin zan Jinebra'ko Uria: Laterri iare'

Ta, politikazko iskamilla onek iriki zizkion protestalaritzari Jinebra'ko atepak, Dukea uxatu zuten bernatar aiek protestalari bait ziran ordurako' An, Jinebra'n, zan Fare11532'an eta bere itz iaioz laister irabazi zituan Jinebra'ko jendeen biotzak. Baita uriko Kontsejuko Agintarienak ere. Gotzaiak, eta Katedrale'ko Kanonigoak, uritik Saboia'ko lurretara joan bear izan zuten; eta Farel gelditu zan Ginebra'ko nagusi.

Orduantxe, 1536'ean, iritxi zan Jon Kalbin Jinebra'ra, ta Farel'en eskariei erantzunaz, bertan gelditzea erabaki zuan.

Bi urte egon ziran alkarrekin ianean Farel eta Kalbin, bai politikan ta bai erlijio-arloan. Ez zeuden pozik, iñolaz ere, uriko salerosle aberatsak, eta osatu zuten Kalbin'en aurkako alderdi bat' "Libertins" edo "askatasunzaleen" alderdia' Askatasunzale auek Kontsejuaren nagusi egin ziranean, lortu zuten lortu Farel eta Kalbin erbestera bidaltzea. Farel Neuchatel'era joan zan an protestalaritza erakustera; Kalbin, Bucer'ek deituta, Strasburgo'era. Eta emen egon zan 1538'tik 1541'era, jinebratarrek ostera deitu zuten arte'

Gerontzean, iII arte, Jinebra'n bizi izan zan Jon Kalbin, eta uria-
ren egiazko "Aitasantu" ta "Errege" izan zan' Bere agintepean, Jinebra, "leokrazi" edo "jaikoerreñu"biurtu zan' Teokrazi ortan Laterrria ta Eliza alkarrekin biurriturik zeuden, lokarri bateko bi ariak bezela. Egia da; eliz-agintariek ez zuten politikako kargurik, ezta laterri-agintariek ere elizakorik; baiña Kontzejuak bazuan elizako auzietan sarrera, ta eliza zan konsejuaren gidari'

Ara nola eratua zegoan Kalbin'en eliza: Aurrena, "Pastores" edo "Artzaiak" zeuden; "Itza" aldarrikatzeko eskubidea zutenak' Artzaien billera "Colegium" edo "Batzarra" zeritzan' Gero, "Irakasle" edo "Doctores" deituak; ikastoletako maixuak ziran. Ondoren, "Presbiteri" izenekoak' "Presbiter" eta "Senior" edo "Señor" itzek, "Agure" esan nai dute; agian, euskeraz obeki, "Asaba", edo, bere zentzuari begiratzen ba'diogu, "Jauna". Presbiteri auek Kontzejuak autatzen zitu-
tuan, eta beren egitekoa jendearen oiturak aztertzea zuten. Azkenik, "Diaconi" edo "Serbitzariak", karitate-ekintzen zuzendariak.

Eliz onen lendakaritza, Jinebra'ko "Artzai guztien Batzarrak" zeukan. Batzar au zan sinismen-auzi guzietarako Maixu. Nagusia. Artzaiak zalantzan aurkitzen ba'ziran, Presbiteroen iritzia eskatu bear zuten

Artzaien Batzarraren gaiñetik, "Consistorium" edo sei Artzai eta amabi Presbiterok osatutako "Alkarte" zegoan. Alkarte au ELizaren "Inkiszio", edo "Epaille-Batza Nagusi" bat bezela zan, Eliz osoa, eta Elizaren bitartez Laterrria ere, zaindu ta aztertzeko eratua; baiña baita okerrak zuzendu ta utsegilleak errukigabe zigortzeko ere! Ta meta guzi onen gaillurrean, oro begi ta belarri, Jon Kalbin.

MontaigU'ko ikastetxean ikasi zuanaren antzeko bizitza latza ezarri-
zien jinebratarrei. Errijaia, karta-jokua, antzoki edo teatroak, dantza, soiñetako apaintasuna, eta ardangelak, debekatuak izan ziran. Auzo

bakoitzarentzat ardangela bat bakarrik laga zan, eta ura auzoko jendearentzat bakarrik.

Ezkontza austen zutenak, biraolariak, eta, noski, Kalbin'en sinispidearen etsaiak, eriotza zuten zigor.

Atsedetik gabe egin zuan bere epaiketako lana "Konsistorioak". 1541'a ezkerreko, bost urtetan, berrogei ta arnasei gizakume erail zituan, eta irurogei ta emezortzi erbestaratu'

Auzo bakoitzak bazuan salatari bat, auzokoen obenak Konsistorioari jakifinarazteko ipiñia

Ez da arritzeko, askatasunzaleen alderdiak, naiz fedez Kalbindar izan, politikan Kalbin'en aurka jarraitzea.

Izan zituan orregaitik estualdiak Jon Kalbin'ek, baiña unerik larrietan ere agertu zitzaion beti norbait, larritasunetik ateratzen laguntzeko. "Norbait" ori Jinebra'ko Sinispidearen etsairen bat izanten zan. Ereje ori epaitu bearrak, eta, gero, zigortzeko erabilliarazten zuan gogortasunak, eta gogortasun onek sortzen zuan bildurrak baretzen zizkion bere politikaren etsaien urduritasunak.

Orrela 1547'an "askalazunzaleen" buruzagietako bateri lepoa moztu zion Kristo'ren jainkotasuna ukatu zuala-ta.

1551'ean, len karmeldar izandako Bolsec errearazi zuan, Kaibin'ek berak salbamenari buruz erakusten zuan "predestinazioaren" aurka irten zalako.

Ez zion eriotzik eman, baiña Elizatik exkomikatu zuan bere lagun bat ere, Sebastian Castellion, Bibliaren azalpen berekoi bat egiten zualako. Kalbin'en Jinebra'n, mundu guztiak, Biblia, Kalbin'ek agintzen zuan bezela ulertu bear zuan.

1553'ean Mikel Servet'ari, eriotza eman zion. Servet, sendagillea zan, gizadizalea, "urnanista" Aragoi'ko erreinuan jaioa. Latera, elenera, eta eberkera, ederki zekizkian gizona' Liburu ugari eta ospetsuen egillea' Gorputzeko odolaren ibilkeraz konturatzen lenenetakoa, eskutitzez aspalditik arremanak izan zituana.

1531'ean teologizko idazki bat argitaratu zuan: "irutasunari buruzko Okerrak". Zoritxarrez Servet bera jausi zan okerkeri batean, eta okerkeri zaarrean gaiñera, aspalditik sabelitarrek asmatua. Aita ta Semea ta Gogo Deuna ez zirala iru Pertsona, Pertsona baten iru "agerpide" edo "manifestationes" baizik, —zion ereji orrek—.

Kalbin'ek salatu zuan Serbet, adiskide batzuen bitartez, Liongo

inkisizio katolikora. Iges-egin zuan Servet'ek Lion'dik, eta orduan Kalbin'en "Institutio Christiana"-ren aurka "Restitutio Christiana" bat idatzi zuan; "Erakusketa"ren aurka, "Berrerakusketa". (Ala ere badi-rudi Kalbin safatari izan zuanik ez zuala Servet'ek jakin). Igesj Jinebra'n sartu zan. An arrapatu zuten kalbindarrek, eta sutan bizirik erre zuten. Ez zegiten arritzeko gauzarik . Inkisizio katolikoak ere sententzi ori bera eman bait zion.

Bere sinispidearen ereilleak jakitez osatzeko Akademi bat eraiki zuan Kalbin'ek Jinebra'n. Beza teologilaria buruzagi izandako Akademi ortatik atera ziran eundaka mixiolari berriak Europa'ko lurraldeetara.

Kalbin ez zan apaiz izatera iritxi, naiz-ta gazterik tontsura artua izan' Ezkondua zan, eta bere alabaren zabarkeriak oso samindu zioten bizitzaren amaia. 1564'ean il zan, Jinebra 'ko Kontseju ta Artzaien aurrean bere obenak aitortu ondorean.

KALBIN'EN SINISPIDEA. Kalbin'en teologiaren muiña. Jainkoaren amaigabeko AUNDITASUNA da, ta aunditasun orri dagokion, neurri-gutziz-aruntzako JAUNTASUN orokorra. Jainkoa da, izate ta ekite ooren Nagusi. izadian ez da aren NAIMENA besterik.

Bi gizon izan ziran aldi artan, beren bizitzen elburu bezela Jainkoaren aintza ipiñi zutenak: Kalbin eta Loiola'ko Iñaki' "Ad maioren Dei gloriam", "Jainkoa'ren aintza ugaritzearren" zion Iñakik; "Soli Deo gloria". "Jainkoa'ri bakarrik aintza", Kaibin'ek.

Adimenaren indar utsez ez dezakegu Jainkoaren izakerarik ezagutu. Jaungoikoa zer eta nolakoa dan, Bibliak bakarrik erakusten digu.

Martin Luter'ek bezela, Jon Kalbjn'ek ere Bibliari "Itza" deitu oi dio maizenik. "Itza"ren egitekoa, eten gabe Eliza berritzen eta garbitzen aritzea da; ta Elizaren bitartez mundua. "itza", Elizaren atergabe-ko epailari da, eta epaiketa ori "itza" artzen duten kristauen bitartez egiten da, Ortarako Gogo Deunak adierazten dio kristau bakoitzari "Itza" nola ulertu.

Onela zion Kalbin'ek, bere gogaketa berrien ereintza asi zua-nean; baiña Mikel Servet'ek eta beste etsai batzuek, "beraiek ere, Itza ulertze ortarako Gogo Deunaren argia bazutela" erantzun zjotenean, laister aldatu zuan bere pentsakera. **Elizaren altzoan, au da,** Kaibin'en Elizak ulertzen zuan bezela, ulertu bear zala, zion orduan.

JATORRIZKO OBENA. Oben au, Kalbin'entzat, gertakizun "kosmikoa" edo "Izadi orori dagokiona" da. Jatorrizko Obenak, gizonaren izakera ez-ezik, izadi osoarena ere ondatu omen zuan baI

Ondatze orren ondorioa da, len lagun zitzaigun izadia etsai biurtu izatea. Jatorrizko ohenaren aurretik, bere zituak mardul eta gozo ematen omen zituan gizakurnearentzat izadiak. Oben orren ostean, berriz, latz eta urri. Ludiaren emaitzen urritasun orrek ekarri omen ditu gizartera gorrotoa eta borroka eta guduketa. Izadiaren fruituak ez dira nai-koak gizadi guztiaren bizitzarako, eta ori **gizon bakoitza eta** erri bakoitza indarra erabili bearrean aurkitzen da, jakirik gabe gelditu naiZ ez badu. Bizibearrak sortutako gorroto orrek usteldu ditu gizarterearen korapillo guztiak; sendia eta Lateria batez ere.

Ikus nola, Karlos Marx'ek baiño iru mende lenago, Jon Kalbin'ek sumatu-bezela zuan, gizadiaren jirabiren ardatzetako bat ekonomia ote zitekean.

Kalbin'ek dionez, gizakumeen arteko gerrate bukaezin orrek, badu Jaikoaren asmoetan misteriozko zentzu edo ikurpen bat: gizadi ta izadi guztia obenez kutsuturik dagoala (eta eten gabe salbamen-eske dearkada ari dala) guri erakustea.

ELIZA. Salbamen ori Elizak ekarri bear dio gizadiari eta izadiari. Kalbin'en iritziz, Eliza ez da "Itza" otsegitea bakarrik. Itza entzuleen biotzetan sartzean eta entzule oiek alkarte batera biltzean, "gorputz" egiten da, aragizko begi auekin ikusi daiteken "gorputza" Eta alkarte ori, "gorputz" ori, ez da Luter'ek zion bezela "emazikIn baten aurpegia"; Kristoren Emaztegai Donearen aurpegia da. Ez, noski, osoro garbitua, baiña bai, Kristo berbiztu zanetik, ziurki santutua.

Luter'en Kristo, batez ere Kristo gurutzatua' dan bezela, Kalbiffena Kristo berbiztua da'

Kristoren gorputz berbiztua da Elizaren eredu. Ta Eliz onen egitekorik garaiena, bere gorputza garbitzen aritzea da atsedetik gabe, "Itza" ixpillu duala. Kristoren gorputz berbiztu orren donetasunara al dan geienik urbildu arte'

Orrelakoa izan zan Kalbin'ek Jinebra'n eraiki zuan Eliza. Eliz la-tza, estua, gogorra; beti akatsen atzetik zebillena, eta obenak zigortzeko, gau ta egun, eskua jasorik zeukana.

SAKRAMENTUAK. Luter'ena bezelakoa da, Sakramentuei buruz KaIbin'en dotriña, bi punttu auek izan ezik:

Sakramentuak bi bakarrik dira: Bataioa ta "Aparia" edo Eukaristia.

Eukaristian Kristo ez dago izatez, "realiter", bertan bere "aalen" guztia ipiñiaz baizik: virtute".

Auxe esan nai du Kalbin'ek: Eukaristian ez dago Kristo; Kristo'ren "indarra", "almena", "kementasuna", dago: "Virtus". Baiña Kristo'ren "almen" edo "virtus" guztia bertan dagoalako, gezurrik gabe esan leike Eukaristian Kristo dagoala.

ZIJZENTASUNA. Luter'en erara ulertzen du Kalbin'ek zuzentasuna edo santutasuna. Baiña bada, bi berritzelarien artean, ezberdintasun bat galanta. Kalbin'enizat ez bait du Jaungoikoak gizona bakarrik salbatzen; Izadi osoa bait da salbatua. Gaiñera salbamen ori, egiñik dagoan gauza da' Ez da Azkeneko Egunean egin bear dan gauza. Orduan hitxiko da edertasun osora; baiña, Kristo berpiztu zanetik, gurekin dago salbamen ori; zuzentasun ori gure baitan sendotu dezakegun gauza da; eta baita munduan ere, munduan lan egiñaz, mundu ori, oben-aurretik zuan ugaritasun eta edertasunaren eske, au da, lengo zuzentasunaren eske, bait daukagu.

Munduaren salbamena, Jainkoak, gizon salbatuaren bitartez egin du. Orregaitik ludiari buruzko jakintza guztiak, teologiaren antzera, jakintza santuak dira, eta lan-mota denak, otoitzaren kixa, erlijiozko ekintzak dira, jakintza aiek eta lan auek munduaren salbatzalle bait dira. A! Ta Jainkoak bere eskerra, gizon langillari, aberastasunaren bitartez adierazten omen dio. Itun Zarreko Guraso Santu aientzat bezela, Jon Kalbin'entzat ere aberastasuna Jainkoagandiko onespeneren adigarri da. Gogapen auetatik omen datorkie, kalbindar egin ziran erriei beren bizkortasuna, ta bizkortasun orren ondorioa dan aberastasuna.

Ontan aurrea artu zigun Jon Kalbin'ek, oraiñ-oraiñ arte ez bait dugu katolikuok aurkitu mundua lantzearen teologia. Ontan, eta baita politika-arloan ere.

Politika egitea, Kalbin'entzat, apostoladutza egitea da. Ta ona emen zergaitik: Animarik gabeko izadia bezela, edo geiago oraindik, gizadia ere zuzentasun osora deiturik dagoalako. Kristauen bitartez darama Jaikoak gizadia bere zuzentasunera. Orregaitik' Kristauak, kristau izan nai ba' du, gizarteko b'izitza zuzentzen al duan kemen guziarekin aritzera bearturik dago, Latterria Elizak salbatu bear du. Politika-ekintza, beraz, profezilana da.

Egia da, onetan urrunegi joan zala Jon Kalbin, Eliza Laterriaren salbatzalle ez-ezik Laterriaren "anima" ere egiten bait du, gorputz eta anirnez gizon bat osatzen dan bezela, Laterriz ta Elizaz izaki bat Orrela, teokrazirik gogorrenera erori zan.

Dana dala, gauza bat erakutsi zigun Jon Kalbln'ek: gizakumeuk ez dituala, katoliko askok maizegi uste izan duan bezela, bi, —edo iru—, bizitza bereizi: elizekoa, negozioetakoa, eta politikakoa. Danak, bizitza baten ekintzak dirala, eta bizitz ori, bere ekintza guztiekin, Jainkoagandiko eta Jainkoaganako bizitza dala, mundua salbatuaz Jainkoaren aintzarako bakarrik bizi bearra dana.

"PREDESTINAZIO" edo JAINKOAGANDIKO DESTINUA. Au da, Kalbin'en erakusketan atalik gogorrena. Jainkoaren aintzak eskatzen omen du, Jainkoa munduko gertakizun guztien Jabe ta Nagusi izatea. Gizakumea, BERAK NAI DUALAKO zerbait egiteko gauza balitz, egite orren jauna gizakumea izango omen litzake. ez Jaungoikoa, ta ori Jainkoaren nagusitasun orokorraren aurka omen dago. Beraz ez da gizona, Jainkoa da, gizona ari danean ere, gauzak egiten•dituana. Jainkoa da gizonaren bitartez gauza onak egiten dituana; Jainkoa, pekatuak egiten dituana' "Misterio izugarria auxe, baiña egiazkoa", dio KalbM'ek.

Ta, zergaitik Jainkoak gizon batzuetan pekatu egiten du? Edo izkera argiangoan esateko, ,zergaitik gizon batzuei naita-nai-ez pekatu egiñarazten die? Betiko infernurako egin ditualako'

Jaungoikoak ez du nai gizakume guztiak sabatzerik. Batzuk infernura destinatzen ditu betidanik, eta auek erremediorik gabe kondentuko dira. Beste batzuek, berriz, zerurako autatzen ditu, eta auek, gerta-ala-gerta, salbatuko dira.

¿Ta zer arrazoieri begiratzen die Jainkoak, autaketa ikaragarri au egiteko? Jainkoak ez du arrazoi bearrik. Bera da arrazoi guztien arrazoa. Jainkoaren aintza da ooren elburu, ta aintza orri serbitzen diote zeruko santuek bezela infernuko gaizto galduek ere.

VIII ENRIKE

Emakumetxo baten izena dakar gogora Ingalterra edo inglanderriko Elizaren aldaketak: Ane Boleyn edo Bolena'ren izena. Baiña oker legoke, aldakuntza aren arrazoa, neska batek Enrike VIII'aren biotzean sortutako griña izan zala, uste lezakeana' Ingalderriko Elizaren raultza ez bait zan gizon baten lana izan, erri guziarena baizik. Erri guzia irten zan, Erregearekin noski, Aitasantuaren agintzapetik.

Errege ori, VIII Enrike zan, (150453 - 1547), ertigaietan ondo ezia, teologian ikasia, aski idazle iaioa, aitasantuen adiskide zintzoa Eliza garbitzearen maitalea, eta garai artako gizadizalean artean Birjaiotzako printzipeen eredutzat eukia izan zan gizona.

Gizon jainko-zaie, —edo jainkolario—, omen zan: egunero entzuten omen zituan, beintzat, iru meza edo geiago, bere gazte-arosan'

Martin Luter Aitasantuaren aurka jeiki zanean, Enrike VIII'a izan zan Luter'en etsairik gogorrena errege guztien artean. Bein da berriro eskatu zion V Karlos Inperatoreari Luteren aurka zorrotz ekiteko, eta bildurrik gabe Alemani'n indarra erabiltzeko, erejietatik Kristaudia len-bait-len garbitzearren'

Beti izan zan VIII Enrike indarkeri-zale eta gogorkerimaitale. "Ruthless", "kupidagabea" deitzen diote edestilari protestanteek ere. Indarkerira bultzatu nai zuan Karlos V'a berriz. Bere illoba zuan berriz indarkerira bultzatu nai zuan Karlos V'a, Karlos onen izeba Kataliñ'ekin ezkondua bait zegoan bera.

Gizadizale askojakiña ,alarik, adiskide zuan Erasmo eta egin zion adiskide ospetsu oneri ere, lutertasunariburuz, eskari sutsua: Luterekin adiskidetasun oro erabat ausi, eta lutertasunaren aurka idaztez asi zedilia.

Enrike ez zan eske-egite utsarekin konformatu. Ez orixe!, X Leon'ek Luteren dotriñak gaitzetsi zituanean, ereje aren idazki guztiak enparantzetan erretzeko agindu zuan Enrike'k. Ta Martin Luterek

sakramentuen dotriñaren aurka "De captivitate babylo-nica ecclesiae", "Eliza Babiloni'ko katigutzan" izeneko liburu-a argitaratu zuanean, Enrike VIII'ak, geiena berak bere-kasa idatzitako sakramen-tuen aldeko liburu batekin erantzun zion. Liburu orren izena, "Asser-tio septen sacramentorum", "Zazpi sakramentuen aitortpena".

Esakizun borobilak darabilzki liburu orretan Erregeak; zer galdu-rik ez dutenak. Aipa dezagun onako au, esakizun guzi oien doñuaren eredu bezela: "Eliz osoak egon bear du Kristoren esanera: baiña ots!, ez Kristoren esanera bakarrik, baita Aitasantuaren esanera ere; eta ori, Kristok ala nai dualako. Aitasantua bait da, izan ere, Kristoren or-dezkari bakarra". Orregaitik, "Aitasantuaren esanik ez betetzea, ere-jiaren kideko pekatua da".

Leon X'ari eskeiñi zion liburu ori.

Aspalditik zan VIII Enrike Aitasantuen adiskide' 1512'an II Julio'ren alde sartu ere sartu zan borrokan, Aitasantu onek Frantzi'ko Erregearekin izan zuan gudu-an.

Errorna'ren laguntzaille leial jarraitzen zualako bidali zizkion bi urte geroago (1514) Leon X'ak ezpata eta kapela bat, esker on eta mai-tasunaren adigarri. Eta Aita Santu onek berak, "Defensor **"SI-**nismenaren Zaindari" izendatu zuan, Enrike'k sakramentuen aldeko li burua idatzi zuanean. Luter'ek ere erantzun zion, bere erara, Ingran-derri'ko Erregeari, nardakeriz betetako kiburuxka baten bitartez. Gero ta beroago zijoan, Enrike 'k Erroma'ri zion leialtasuna. Ori zala-ta, Kle-mente VII'ak ere "Urrezko Arrosa" bidali zion, Elizak zuan saririk ga-raiena.

Nola leike, taiu ontako gizonak Aitasantutzarekin zituan maitasu-nezko lokarri guztiak tankada batean ausi izatea? Badu galdera orrek bere erantzuna. Erregearekin batean, ordea, Ingranderriko erri guz-tiak ausi zituan lokarri oiek' Zallagoa zaIgu, ortarako erriak izan zituan arrazoiak billatzea. Gauza bat da arazo ontan argia: erriak Erroma're-kin zituan lokarriak ez zirala maitasunezkoak, eta ontan kulpa guztia ez zala erriarena.

Alemanen Protestalarien eskuetan jausten ari zalarik, sendo ziar-dun Enrike Aitasantuaren alde. Ingranderrian ere sartzen asia zan lutertasuna, ta 1525'a ezkeren "WHITE HORSE", "Zaldi Zuri" izene-ko ostatu batean biltzen ziran aurren-aurreneko protestalari aiek: Cranmer, Latimer, Barnes... Arreta aundiz ibilli bear izaten zuten, Erre-gearen eskuetan jausi ezkeren errukirik gabe sutan erre-bearrak izango bait ziran!

Ez zezakean iñork uste, Erregeak bere politika-eran asmorik aldaturiko zuanik. Baiña 1527'an, Ane Boleyn andereñoa ezagutu zuan. Atsegiña, oso atsegiña izan zitzaion neska gazte aren itxura ederra, eta berarekin ezkontzea gogoak eman zion. Bazan, ordea, ortarako eragozpen larria: Enrike, Aragoi'ko Fernando eta Gaztela'ko Elisabete Errege-Erregiñ katolikoen alaba KatalirYekin ezkondua bait zegoan!'

Aurrena, Aitasantuari, bigarren emazten bat artzeko baimena eskatzea pentsatu zuan, Hesse'ko Felipe'k Luter'eri eskatu zion bezela. Baimen ori eskatzeko zebilkian arrazoia, berdiña zan: Sinismenaren alde egin zituan lanak, Baiña Klemente VII Aitasantua, naiz kemen aundiko gizona ez izan, ez zan noski, ala ere, Martin Luter. Ulertuarazi zion ori Erregeari Wolsey -Kantziner- edo -laguntzalle nagusiak", eta ez zan orrelako eskerik Erroma'ra egin.

Wolsey au, York'eko Goigotzai eta Kardenala zan; Erregearen lagun aundi ta morroi apala. Ala, Enrike Erregea bere kutizia betetzeko edozer gauzatara gerturik zegoala ikusi zuanean, egin zituan al zituanak bere nagusiari laguntzeko' Agian Inghlanderriko Eliza arriskuan sumatzeak ere bultzatu zuan ortara'

Ikus ditzegun gauzak argi. Ane'rekin ezkontzeko, Katalif'ekin len egindako ezkontza puskatu nai zuanean, Enrike VIII'ak ez zuan Ane bereganatzea bakarrik billatzen, naiz jatorri aunditsuko neska ura itxu-itxuan maita, ortarako maitale bezela artzea naikoa bait zuan. Len ere, Ane Boley'nen aizpa zarragoa luzaroan bere maitale izana zuan.

Seme bat nai zuan Enrike VIII'ak. Legezko matrimonjotik sortutako legezko seme bat. Bazuan sasiseme bat, beste maitale batengandik, eta pentsatu ere zuan uraxe Inghlanderriko errege-gai izendaraztea; baiña bildur zan, Jaurerriko aundikiek, sasikume ura ez ote zuten errege artu naiko'

Bazuan alaba bat ere, Mari, bere emazte jator KatalitVen alaba. Baiña bildur zan Enrike!; ez bait zan oraindik sekulan Inghlanderriko erregetzaren jabe emakume bat izan. Artuko ote zuten alaba ura Erregintzat, erreñuko aundiki arro aiek?

Ez zan noski arrazoirik gabeko bildurra VIII Enrike'rena, bere aitak berak, VII Enrike'k, erregetza laterkide-arteko gudu odoltsu baten ondoren artu bait zuan: "Bi Arrosen" izeneko gudu luze eta gogorren ondoren. Enrike VII'a il ostean, <:,ez ote zan berriro lengo gudu beltz ura berbirtuko? Orregaitik nai zuan Enrike'k danek zalantzarik gabe egiazko Erregintzat onartu zezaketen legearen araura sortutako

seme bat.

Argi zegoan, ordea, Kataliñ'ek ez zezalokeala seme ori eman. Ortaz, bere naia aurrera aterako bazuan, Kataliffekiko ezkontza urratu bearren aurkitzen zan Erregea' Baiña arrazoi bat bear zuan ortarako, eta billatu zuan, —teologialaria izaki—, arrazoi edo arrazoiantzeko zertxobait: Itun Zarreko liburu batek, (Le. 18, 16), anaiaren alargunarekin ezkontzea debekatzen zuala.

Aragoi'ko nexka koxkorra zala, Enrike'ren anai Arturekin ezkondu zuten aurrena. Amalau urte zituan Artur'ek ezkondu zanean, eta andik illabete batzuetara il zan, sekulan bere emaztetxo Kataliñ ukitu gabe.

Enrike'k bere koñatarekin ezkontzea erabaki zuanean, Julio 11 Aitasantuak berak eman zion ortarako baimena, ezkontza aren aurka zitezkean eragozpen guztiak askatuaz.

Baiña Enrike'k, Aitasantuaren baimenak ez zuala balio, zion. Fe-de onez ote zebillen Erregea? Bazekian noski Ane Boleyn'ekin ezkontzeko ere Aitasantuaren edo norbaiten baimena bearko zuala, mundu guztiak bait zekian Ana'ren aizpa aldi luzean bere maitale izana zuala. Orretxegaitik, Erroma'ko elizatik irten ondoren ere, Ane'kin ezkontza egiteko, bere Eliz anglikaneko Gotzaiek eragozpen ori askatu bear izan zioten. Inghlanderri'ko Gotzaiek zezaketena ez ote zezakean Aitasantuak? Edo gauza bat uste ote zuan anaiaren emaztea eta beste bat maitalearen aizpa? Garai artako gogainasketari buruz edozer gauza pentsa daiteke' Ez omen zion, —idatzi zuan berak—, ez omen zion kontzientziak Kataliffekin pakean bizitzen uzten; eta ziur omen zegoan KatahrVengandik jaiotako Mari ez beste ume guztiak ain gazterik il izatea, Jainkoaren zigorra izan zala. Gai ontan ere, r:,gauza bat ote ziran Kataliñ'en besoak. eta beste bat maitale lizun gazteenak? Maitale bat baiño geiago izan bait zuan Errege potolo lizun arek!

Dana dala, Wolsey Kardenalak eskatu zion Aitasantuari, Enrike'ren eta KatalirVen arteko ezkontza balio gabea izan zala erabakitzeko epaiketari asiera emateko agindua'

Klemente VII'a, Karlos V'aren aurka guda bizia r'zebillen, Ez ziztaion, beraz' Inghlanderriarekin asarretzea komeni. BeSte aldetik, uste zuan Aitasantuak, Erregearen griñen galda denborak itzali, edo motelduko zuala beintzat, eta orregaitik luzarorako bota zuan auzia, baiña bitartean, —Birjaiotzako politikeria...!—, askatu zion Erregeari, maitale baten aizparekin ezkontzeko Elizako legeak ipintzen zion eragozpena eta eman zion Ane'kin ezkontzeko baimena, baiña baldintza ba-

tekin: "KatalirVekin egindako ezkontza balia gabea zala argi agertzen ba'zan".

Eta au gerta zeikelaren itxaropen-antzeko zerbait ere eman bide zion, agian, 1528'ko Bulda baten bidez. Ez dakigu Bulda orrek zer zion, irakurri bezain Vster erre bait zuten.

Aitasantuaren jokaera au, Enrike "gizonaren" griñari erregai geiago botatzea zan; eta Enrike "erregeari" iseka egitea. Klemente'k, orrela, bere burua zerbait egin bearretik libratuko zuala uste izan zuan.

Bitartean Campegio Kardenala bidali zuan Inghlanderrira, Wolsey Kardenalak eta berak. bien artean, Enrike ta Katalirren ezkontza aztertu zezaten. Aolku bat eman zion, Errorra'tik atera-aurrean: epaiketa ura al zan guzia luzatzearren egin zezakean guztia, egiteko. Bazebil-kian bildurrik naiko Klemente gizagaixoak barruan!

Lalster ikusi zuan Campegio'k, ezkontza ura egiazkoa zala. Orduan, korapillo arek legez askatzerik ez zuala ikustean, bere-kasa beste modu batera askatzea pentsatu zuan. Ortarako Erregiñarengana joan zan, bere aurrean belauneko jarri, ta Erregearekin bizitzea lagata, lekaimetxe batean sartzeko eskatu zion. Iguingarri izan zitzaion komeri ura Kataliñ Erregiñari eta, arrazoi guztiarekin, ezetz erantzun zuan.

Andik laister Erregiña bera jarri zan belauneko Erregearen oiñetan erruki-eske. Ezetz erantzun zuan Erregeak ere, arrazoirik gabe;

epaigelatik Kataliñ, zutik, batere koldarkeririk gabe, egokitasun osoan irten zanean, "My Lords", "Nere Jaunak", otsegin zuan Enrike VIII'ak; "Izan leikean ernakumerik otzanena, leialena, xaloena da Kataliñ. Bere jatorriko Andre batek izan bear dituan onbide, doai eta bikaitasun guztiak berekin ditu".

Baiña Enrike'k ez zuan ia Kataiff'l'ik maite, Ane Boleyn'en atzetik zebillen zoraturik. "Ez du Ane besterik ikusten, ez dabilki Ane beste gauzarik buruan' Mingarri da orrelako griñatxo batek Erregearen bizitza ta Jaurerriaren etorkizuna arriskuan darabiltzkiala ikusi bearra", idatzi zuan Erroma'ra Campegio Kardenalak.

Beste Kardenalak, Woysey'k, nai zuan Erregearen kutizia errezteko zerbait egin, baiña orduan Jon Fisher, Rotxester'kc.) gotzai kemenstua sartu zan auzian, Katalirren ezkontza egiazkoa zala eta Kataliñ bizi zan artean beste ezkontzarik ez zuala ontzat emango, bildur gabe esanaz, "Jon Bataiatzailleak bezela, bere lepoz zuzentasunari eta egitari zor zaien lotsa ordaindu bearko bazuan ere". Ondo zekian Fis-

her Gotzaiak susmo txar ori egizkoa irtengo zitzaioa!

Esan zuan Fisher bikain ark beste zertxo-bat ere: Enrike VIII'aren ezkontzaren auzi ura dana, bear zan bezela aztertua izan zedin, Erroma'ra bidali bear zala. Ori bera pentsatu zuan VII Klemente'k ere.

Ordurako gaiñera pakeak egiñak zituan (Klemente'k) Kataliffen illoba zan V Karlos Inperatorearekin, eta onek aspalditik eskatzen ziona onartuaz, Wolsey'k eta Campegio'k zerabilkiten epaiketa ura bere eskuetara Erroma`ra ekartzeko agindu zuan.

Esan zioten Enrike VIII'aren bidaliak inglanderri guztia betiko gai duko zuala Elizak, orain Aitasantuak Erregearen naia egiten ez bazuan. "Baleike, erantzun zien Klemente VIIak; baiña galdua bear ba'du, ez bedi okerkerian ibilli geralako galdu. Galtzekoa **guk** zuzenki jokatu ondorean galdu bedi".

Zalantzarik gabe esango zuan Wolsey Kardenalak, orduan, Aitasantuak arrazoi zuala; onura gutxikoak izan baizitzaizkion Erregearen kutizia betetzeko artu zituan nekeak! Asarretu zitzaion ba Enrike VIII'a, ezer lortu ez ziolako, eta Londres'ko Torrean espetxeratu zuan. Ez zan espetxera iritxi ere; samindurik, naigabez gaixoturik, bidean zeramakitela il zan. (1530).

Bere ordez Tomas Moro gizadizale garaienetakoa egin zuan Kantziller. Baiña Kataliffen ezkontza egizkoa zala ikusi zualako, bereala utzi zuan onek kargua.

Ala ere Jon Fisher'ek bezela, egiaren omenez galduko du gero bizi' Atsedengarri da, bi gizon auen izenak oroitzea. Ain gutxi izan bait ziran, Enrike'ren atzetik zismara joan ez ziranak."!

Orduandik aurrera Erregearen laguntzaille kutunak Tomas Cromwell eta Tomas Cranmer izango dira. Bi Tomas auek, batez ere bigarrena, dira Inghlanderriko Elizaren ondaketan kuiparik aundiena izan zutenak. Biak pagatu zuten biziarekin beren jokaera. Cromwell Enrike VIII'ak berak erail zuan. Cranmer, Mari Erregiñak.

Cromwerl politika-egille iaioa zan, baiña Erregea bera bezela, kontzientzi motelekoa ta errukirik gabea. Cranmer, apaiza, Cambridge'ko Ikastola Nagusiko irakaslea, Ane Boleyn'en sendiaren kapi-llaua, tutertarra, izkutuan ezkondurik zegoan, eta protestalari nagusienetako baten alabarekin ezkondua gaiñera: Osiander'en alabarekin.

Cranmer'ek bururatu zion Enrike VIII'ari Erroma'tik bereizten' Cranmer'ek Eliz bereizi orri Kalbjn'en sinispidea txertatu zion, bera ere, lutertasuna laga ta, kalbindar egin bait zan.

Cranmer izan zan ezkontza-arazo artan Ikastola Nagusi edo Unibersitateen iritzia komeniko zitzaiola, Erregeari belarrira jalki ziona ere. Baiña berak uste baiño Unibersitate geiago irten zitzaion aurka.

Alde jarri ziranen artean, Paris'koa, Sorbona, dugu ospetsuena, baiña Sorbona'k ere Frantzi'ko Erregeak artara beartu zualako erantzun zuan Enrike VIII'aren kutizien alde. Alatagutziz, berrogeitairu izan ziran Sorbona'n bertan Enrike'ren aurka jeiki ziran doktoreak.

Sorbona bezela, Cambridge, Oxford, Ferrara, Padua, Orleans, Tolosa, eta beste batzuk ere, Enrike'ren alde irten ziran. Ots ordeal Alde irtendako Unibersitate guztiek baldintza bat jartzen zuten Enrike'ren eta KataliWen arteko ezkontza balio-gabea izan zitekeala esateko: Ezkontza orren aurretik Katalih'ek eta Artur'ek egin zuten beste ezkontza ura gorputzen alkartasunez osotua ez izatea: Julio II'ak Enrike'ri, Kataliñ koñatarekin ezkontzeko baimena ematean, jarri zion baldintza! Eta ondo jakiña bait zan Katalifi-Artur'en ezkontza osoratu gebe gelditu zala..', balio gutxihoa izan zitzaien Cranmer'eri eta Enrike'ri Unibersitate aien erantzuna'

Alatagutziz, erantzun ura Erroma'ra bidali zuten bada-ez-bada, naiz alperrikakoa izanen zala aurretik jakin. Ori andotxo zekialako eman zion Cranmer'ek Erregeari Inlanderriko Eliza Erroma'tik bereizteko aolkua.

Bereizte orren iendabiziko urratsa, 1531'kaa. da, V111 Enrike'k orduan izendarazi bait zuan bere burua "Inlanderriko Elizaren Buru". Ala ere ez zuan urrats orrek egiazko zismarik sortu, Jon Fisher'en aoi kua jarraituz, Erregea Inlanderriko Elizaren Buru "Kristo'ren legeak ori aitortzea zillegi uzten zuan neurrian" zala, erabaki bait zuan, ortarako Erregeak bildutako eliz-gizonen batzar batek.

Bitartean VII Klemente, Erroma'n, gauzak luza-ta-luza ari zan, ikusten bait zituan bere epaiitzak ekarri zezazkean ondorenak. Tinko zegoan ordea, beti zuzentasunaren alde. Orrela 1530'ean Enrike'ri beste ezkontza bat egitea galerazi zion, eta 1531'ean Inlanderriko parlamentuari eta gotzaiei Enrike ta KataliWen arteko auzi artan epaietan ez sartzeko agindu zien.

Ikusi zuan VIII Enrike'k Aitasantuagandik ez zuala ezer lortuko, ta bere-kasa aurrera egitea erabaki zuan. liberria zan Canterbury'ko Gotzaia. Enrike'k, bereala, Cranmer lutertar izkutua izendatu zuan Inlanderriko gotzaiaulki garaien artarako. Ez zekian VII Klemente'k gizon ura lutertar zanik, eta askoz gutxiago izkutuan ezkondua zegoanik; Orregaitik, eta Erregearekin ez geiago asarretzeagaitik, ontzat

eman zuan izendatze ura.

Bereala jarri zan Cranmer Erregearen esanetara. 1533'ean ezkondu ixillean, Enrike eta Ane. Andik lau illabetera Enrike eta Kataliffen ezkontza baliorik gabekoa zala epaitu zuan. Eta bost egun geroago berriz, Ane'k eta Enrike'k ixillean egindako beste ezkontza ura egiazkoa zala aldarrikatu zuan' GaragarrilIean Erregiñ koroiatu zuten Ane Ez zuan asko pentsatuko gaixoak urrez koroiatzen zioten buru eder ura aizkorak moztu bear zioniki

Iraillaren 7'an jaio zan Ane'ren aurra. Neska bat. Inghlanderriko I Elisabete Erregiña izanen zana.

Laister adierazi zuan VII Klemente'k Enrike eta Ane'ren arteko ezkontza arek baliorik ez zuala. Urrengo urtean,1534'ean, Enrike eta artekoa, alderantziz, egiazko eskontza zala erabaki zuan; eta urte ortan bertan exkomikatu zituan Enrike, Ane, eta Cranmer Goztaia. Exkomika orreri aurka egin aal izateko asmotan, Vill Enrike'k, Kontzilio Ekumeniko bat biltzeko ezkatu zuan.

Orduantxe osatu zan Inghlanderri'ko Elizaren zisma edo bereizketat. 1534'ko azaroaren iruan argitaratu zuan Parlamentuak "Supremacy Act" edo "Jauntasunaren Legea" deritzaion erabakia. Lege orrek, InghlanderrIko Elizaren jauntasun osoa Erregeari ematen dio; Erregea egiten du Elizaren egiazko Aitasantu bakar, "the only supreme head in earth of the Church in England", "Lur ontan Inghlanderriko Elizaren buru nagusi bakarra".

Lege onek ez zion Erregeari Elizaren lege-arazoetako eta sinistegaietako agintaritzak bakarrik ematen, Elizaren aberastasun guztien jabetasuna ere ematen zion. Eta..., Ane Boleyn bezain maite zuan Enrike VIII'ak dirua! Bazan, berriz, dirurik Inghlanderriko Elizen'..! Ikusi: Lekaidetxeak berak ia milla ziran, eta Inghlanderri'ko aberastasunetan bostetik bat lekaidetxe oiena zan. Ta, lekaidetxeetaz landa, bazuan Inghlanderriko Elizak ondasun ugari beste konbentuetan, parroketan. elizbarrutietan'

Elizaren buru Erregea zala aitortzera gerturik ez zegoan guztia iltzera eramana izan zitekean, erregearen eta IngTanderriaren etsai bezela. Gutxi izan ziran, beren bizia Aitasantuen alde eman nai izan zutenak' Gotzaien artean bat bakarrik: Jon Fisher. Beste guztiak Erregearekin zismara joan ziran,

Ta Gozaiak bezela beste eliz-gizonak ere, apaiz bat edo beste, sei kartuxatar, ta beste frailerren bat ez ezik' Orobat joan zan erria ere Erregearen atzetik'

Aitasantuarekin jarraitu zuten erritar artean Tomas Moro Kantziller jakintsua dugu ospetsuena: Tomas Moro martiri Donea.

Baita Elisabete Barton lekaime beneditarrak ere merezi du aipatua izatea, bera izan bait zan Eliza Katolikotik irten baiño eriotza naia-goz izan zutenetan aurrenekoa. Oroi ditzegun frantziskotar eta agustin-dar batzuk ere. Auek izan ziran, zisma arek sortutako martiri guztiak. Zenbat guzira?' irurogei? Eunera ez ziran beintzat iritxi' Gaiñerako In-glanderriko kristaudi guztia, batere kezkarik gabe irten zan Eliza Kato-li kotik' Agian egiago litzake, In-glanderriko katolikoak "Aitasantuaren aginpetik" irten zirala esatea, eta irten ere, ori egitean katoliko izatea galtzen zutela oartzeko irten zirala' Aspalditik ez zion In-glanderritik Aitasantuari, —eta Aitasantu-Erregeen gobernuari—, abegi onez be-girutzen.

Egia da jaurreko iparraldean erria urduritu zala, eta bideetara ir-ten zala, Erregearengana joateko asmoan. "Graziaren Peregrinazioa" esan zitzaion matxinada arri, eta indarrez zapaldua izan zan. Baiña jende aiek ez ziran Erregea Elizaren buru egitearen aurka irten, ezta Aitasantuaren alde ere. Beren kristau-bizikera errikoiaren alde irten zi-ran. Iparralde artan, Eliza-aldatzailleak lenengo egun aietan gogorregi asi bait ziran aldaketa sakonegiak egiten.

Aitor dezagun, merezi dute-ta, katolikoek bezain sendo, edo sen-doago, jokatu zutela beren sinismenaren alde lutertarrek eta beste protestalariak VIII Enrike'ren eta onen ondorengo Agintari zismati-koen egunetan'

Sinispideari-buruz zalantzan ibilli zan, asieran beintzat VIII Enri-ke. Iru sinist-arau edatu zituan. 1536'ean aurrenekoa; Cranmer'en eta Cromwel'en iritzira idatzia izan zalako, Luter'en pentsaeraz kutsutua. "Amar Ataltxoak" edo "Artikuloak" deitu oi zaio Enrike VIII'aren aurreneko "Kredo" oni.

Bigarrena, "Graziaren Peregrinazioa" zapaldu ondoren, 1537'an azaldu zan, eta Erregeak bere iritzia aurrera aterä'zi zualako, sinispide au osoro katolikoa da'Bi izen ditu: "Gotzaien liburua" eta "Kristau ba- tentzako erakuspidea".

Irugarrena, 153453'koa da. Erabat katolikoa eta baita katolikoa bai-ño geiago ere' "Sei Ataltxozko Legea" deitu oi zaio. Beste aburu edo opinio guztiak gogorkeriz ito, ta bere sinispide bakarra indarrez eta zi-gorrez In-glanderriko Elizari artuarazteko, pentsatu zuan erregeak, sei artikuloen lege ori' Orregaitik deitu zion parlamentuak, argitara atera zuanean, "Aburuen ezberdintasuna amaitzeko legea".

Beste izen bat eman zioten lege arren azpian sufritu bear izan zuten kristauak. Protestanteek, "Sei ugeleko zigorra"; katolikoek, eta gero edesti osoak, "Bloody Act", "Odolezko Legea".

"Odolezko lege" orrek eriotzara ematen zituan, sei atal aukeratu ez zituzten guztiak:

1^a —Eukaristian egiazko "transubstantiazioa" edo "zertasun-aldaketa" egiten dala; au da: ardoa ta ogia Kristoren odol eta gorputz bihurtzen dirala.

2^a —Apaizak ez ezkontzea Kristok agindua dala.

3^a —Lekaide edo fralleen eskeintza edo botoak gauza onak eta Elizarentzako egokiak dirala'

4^a —Erriak, Eukaristia ogiaren itxurapean bakarrik artu bear dala. Beraz, erriari kaliza ematea ez dala zillegi'

5^a —Meza ixilla, edo kanturik gabe apaiz bakarrak ematen duan meza, egokia dala, eta zillegi dan gauza.

6^a —Aitorketako sakramentua agotik belarrira egin bear dala.

Odolezko lege onek ixuri zuan aurreneko odola, Tomas Cromwell ixillezko lutertarrarena izan zan. Erregearen adiskidetasuna galdu bait zuan, ereje bezela eriotzara eraman zuten. Bigaramonean iru artzai lutertar eta iru apaiz katoliko il ziran bakoitza bere fedearen martiri.

Larri ibilli ziran beste izkutuko lutertarrak ere' Latimer Gotzaiak bere kargua laga bear izan zuan' Cranmer'ek ere, arin bidali zuan ixilean Alemani'ra ixillik artutako bere emazte ura!

Erregeak ordea, ez bait zuan emazte-bidalketa orren berririk jakin, ez zuan Cranmer maltzurak arekin, —Erregearekin—, zuan adiskidetasun berorik galdu, eta bere esker ona arri erakusteagaitik-edo, zera adierazi zion: Artu-berria zuan emazte gazte politikak, —Ane Boleyn'ek alegia—, Erregeaz beste norbait maite zuala! (Ane'ren salatari a Cranmer izan ote zalaren sumoa sortu zan beintzat orduan).

Et zuan VIII Enrike'k bere emazteekin zorionik izan.

1536'ean illarazi zuan Ane Boleyn. gizonezkoekin maitekeritan nâsirik zebillela-ta. Urte artan bertan ezkondu zan Jone Seymour neskatillarekin, baiña aur egitean il zitzaion bigarren emazte au. Muttiko bat izan zan argira ekarri zion aurra; gero, aita íl da ondoren VI Eduardo Erregea izan bear zuana. Iru urte egon zan Enrike emazterik gabe' 1540'ean Ane Cleves printzesa lutertarrekin ezkondu zan ostera.

Tomas Cronwell'ek billatu zion emaztegai au, Erregea lutertasu-

nera bultzaarazi naiez. Baiña ez zitzaion Enrike VIII'ari gustatu. Ez omen zuan Ane Boleyn ta Jone Seymour'en edertasunik, eta gaiñera geiegizko garbizale eta konzientzi estuegikoa omen zan. „Ortatik sor-tu ote zan Erregearen baitan Cronwell'enganako ezin ikusia?

Cranmer'ek askatu zion Enrike VIII'ari sentimentuzko naigabe ura, Klebes'ko Ane'rekin egin zuan eskontza balio gabea zala eraba-kiaz. Orduan erregea, Ane laga-ta, Katalin Howar'ekin ezkondu zan (1540). Howarko Kataliñ au, Boleyn'eko Ane'ren lengusua zan. Eta Ane'k izandako eriotza ber-bera izan zuan. Lepoa kendu bait zion aiz-korak, Erregearen aginduz. iBeste gizon batzuekin maitakeriz naasirik omen zebillen ba, Ane bezela, Kataliñ au ere! Cranmer izan zala-edo, uste oi da, berriro ere salataria.

Andik urte betera, eztaietan zan ostera Enrike. Kataliñ Parr izan zan oraingo eztaí auetan Errege emazte-iltzaille arekin ezkontzeko ausardirik naiko izan zuan emakumea. Eta onekin beintzat bai; pa-kean bizi aal izan zuan Kataliñ onekin Erregeak bere azken egunak ar-te.

Esan dugun lez, emakume gazte politik bezain maite, edo mai-teago, zuan VIII Enrike'k dirua, aberastasuna' Eta Aitasantuarekin asarretuta Inghanderriko Elizaren Jaun da Jabe bakar bere burua egin baiño leenago, ia erregetza artu zuan bezain laister, asi zan, Elizaren ondasunak, nola, al zuan geienik, bereganatuko zituan pentsatzen.

Lekaidetxeetatik asi zan; aurrena txikiak itxi zituan, gero aundi-ak. 1540'ean Inghanderriko lekaidetxe eder aiek danak itxjak zeuden; eta ango aberastasunak Erregearen eta aundikien eskuetan.

Aberastasun aiek galtzeak baiño miñ aundiagoa damaigu, lekai-detxe aietako gizon eta emakumeen jokaerak. Benito Donearen seme ta alaben artean Elisabet Barton, jendeen agoetan "Kent'eko Alaba Donea", bakar-bakarrik izan zan bere odolaz Sinismena aitortu zuana. Aren ondoan, len esan dugun bezela, apaiz eta fraile sailtxo txiki bat. Badira, emezortzi besterik izan ez zirala diotenak ere.

Beste guziak, agian orrela beren ondasunak salbatzen zituztela usterik, apalki makurtu zituzten beren buruak Aitasantuaren orde z En-rike VIII'a Inghanderriko Elizaren Jaun da Jabetzat artzera.

Ez zuan iñork orrelakorik espero. Ezta Erregeak eta Erregearen aolkulari protestanteek ere' Ain zuzen, auek, Erregearen aurka jarria-razi nai zituzten eliz-gizonak, orrela Elizaren ondasunak berengana-tzeko arrazoi bat izatearren.

Ortarako Gotzai, Apaiz eta beste eliz-gizonei, gauza gogor ta gor-

diñak aitortzea eskatzen zitzaizen malizi guziarekin. ezetz erantzungo zutelakoaren ustean: "Ane Boleyn ta Enrike'ren arteko ezkontza garbia ta santua zala"; "Erroma'ko Gotzaiak lapurkeriz erabiltzen zuala Papa edo Eliz osoaren Buru, izena"; "Arrazorik gabe Eliz osoaren gairdiko Jauntasuna bereganatu zuala"; "-Inglanderrian agintzeko eskubiderik ez zuala"..

Edestilari guztien iritziz, Elizaren bizitza luzean gauzarik samiñe-netakoa da, Inglanderriko eliz-gizonen ustelkeria'

1547'an il zan Enrike VIII'a. Bera ill arte ez zuten pakerik izan katolikoek, eta, agian, auek baño gutxiago protestalariek, "Enri-
ketarrak" ez ba'ziran.

Zer pentsa errege ontaz? Lenengo gauza, bere erriak maite zuala' Gizon dotorea zan, argia, landua. Bizkortu ta indartu zuan Inglanderria, ta erria berekin zeukan.

¿Ta bere gogo-izakera edo psikologiaz?

"Ruthless"; "Errukia sentitzeko gauza ez zan gizona"; Ezta damurik sentitzeko ere. Ez zuan kontzientziko arrik. Ez dirudi okertu zitekealaren edo uts-egin zezakealaren ezaguera bazuanik[¿] ere. Bai ote zuan kontzientzirik?. Bere izakeran oraindik barrurago sartzen ba'gera, gaztetan ainbat meza entzundako gizakume arek ibai ote zuan federik? Ez dirudi "ona" ta "gaiztoaren" susmorik bazuanik ere. ¿Ba'ote zuan zentzurik? Muiñetako gaitz izkuturen batek naasita, erlijioko gauzetarako ez ote zan eroa?

Enrike VIII'az itzegin ezkerro, natanaiez itzegin bear da Ane Boleyn politaz ere. Zer esan, emakume oni buruz? Ez zuala erru aundirik. Agian, batere errurik ez zuala. Borreruaren aizkorak lepoa moztu zionean, Jainkoaren kastigua izan zala esan zuten katolikoek, eta ori esaten jarraitu dute gero ere, ariñegi noski.

Bere alde esan bear dan aurreneko gauza auxe da: emakume garbia izan zala Erregea topatu-aurretik. Eta garai artako neskantil eder gazte batentzat, ez da gutxi esatea. Oroi nola ibilli oi ziran Birjaiotzako emakume aiek.

Andregai zala Erregearen kutizira makurtu zan edo ez, ziur esaterik ez dago, baiña badirudi baietz. Danadala, orrek ez zuan orduan iñor arritzen eta ez zion iñork muziñik egin'

Gero bai, gaixo arek Erregearen onginaia galdu zuanez gero, orduan bai, ibost maitalekin! zikindu zuala bere ezkontza, jaurti zioten orduan etsaiek aurpegira. iBost maitale! Geitxo noski, egia izateko. Bost maitale, eta aietako bat, bere anaia gaiñera!, Lord Rochford, be-

re anaia ber-bera! Geiegikeri zakarregia guztia, zalantzarik gabe sinestua izateko. Altaguiz, Ibostek galdu zuten, Ane'kin batera, aizkora-pean burua!

Bada oraindik zerbait nazkagarriagorik ere: Bost aiek, eta Ane bera bost aiekin, aizkora-pera bota zituan epaimaieko Jaunen artean, Ane beraren aita zan bat; eta osaba, bestea, Ane zorigabearen amaren anaia!, (Willshire'ko Kontea ura, Howard'eko Dukea berriz au).

Senarra artzerakoan, batere kontzientziko kezkarik gabe artu zuan Ane gaxteak Enrike mardula.

Cranmer'ek egindako ezkontza ura, sasiezkontza zala? Bai noski' Baiña Wolsey Kardenalak, eta beste eliz-gizon askok, lenago Erregeak KataliWekin egindako ezkontza balio-gabea zala uste ba'zuten, eta Aitasantua bera auzia luzatzen-eta-luzatzen ari ba'zan'.., gauzak gizon aundi aiek baiño obeki ikusteko nork agindu eta nork eskatu lezaioke neskato gazte bateri?

VI EDUARDO (1547 1553)

VIII Enrike eta Jone Seyrnur'en semea zan. Bederatzi urte zituan aita il da bereala Inlanderriko Errege buruntzatu zutenean' Amabos-tetan il zan' Gaztegi izaki-ta, bere izenean, sei urte garrantzitsu aien luzaroan, Sommerset eta Warwik Dukeek agindu zuten politika-gaietan. Cranmer'ek berriz Elizako gauzetan'

VIII Enrike il zanean, katolikoa zan oraindik Inlanderriko Eliza si-nispenean eta liturgian' Baita apaizgoan ere. Inlanderriko Elizaren protestalaritzea, VI Eduardo mutikoaren erregetzan egin zan, eta aipa-tutako iru gizon oien eginkizuna izan zan.

Aldaketa ori iru libururen bitartez egin zuten. Irurak izan ziran Jaurerriko lege bezela argitaratuak. Ona iru liburu oien izenak:

—154453'ko "Prayer Book" edo "Otoiz Liburua". Cranmer'en gogo-ra idatzia. Mamiz lutertarra zan, eta liturgia aldatzen zualako, ez zan erriaren gustokoa atera. Oxford'eko eta Cambridge'ko Ikastola Nagu-siek ere muzin egin zioten. Jendea naasi zan egiazko matxinadan "ka-tolikotasunaren" alde, baiñan ots!, ez Erroma'ko katolikotasunaren aIde! Enrike VIII'aren "Sei Ataltxo" edo Artikuluetara buelta-tzea eskatzen bait zuan!

Sommerset'eko Dukeak lortu zuan pakea. Eta baita "154453'ko Otoitz-Liburua" jaurerriko lege biurtzea ere'

(Duke onek, Eduardo Seymour zuan izen. Jone Seymour, VIII Enrike'ren bigarren emazte izanaren anaia zan' VI Eduardo Errege gaztearen osaba beraz).

Ezzitzaizkion onura audikoak izan gauza oiek danak. Jendearen matxinada "katoliko" ura, bere erruz sortu zala bota bait zioten aur-pegira. Bere erruz: Jaurlaritzatik bearrezkoa zan arretarik leendik ipiñi ez zualako, alegia. Aitzaki orrekin, espetxera sartua izan zan, Jaure-riaren etsai lez. An egon zan bi urtean, eta bi urte oien buruan, aizko-

rak ebaki zion lepoa.

—1550'ko "Eduardotar ZirimoniLiburua" edo "Ordinal"-a.

Sommerset espetxean zegoan orduan; eta Warwick zan Ingalde-
rriko agintari, Cranmer'ekin, noski' Liburu onetan, sakramentuei bu-
ruzko dotriña osoro protestalaria da, eta lutertarra baiño geiago kal-
bindarra. Meza ez da sakritizioa; Kristoren Azken-Apáriaren orogallu
utsa da. Apaizen Ordenatzea edo Apaiz-egitea ere ez da egiazko sa-
kramentua' Soiisoillik Elizaren serbitzurako kristau batzuk aukerat-
zea da. Atezai bat, edo organo-jotzaille bat, edo sakristau bat aukera-
tu litezkean bezela, Elizaren otoitza zuzendu, ta erriari erakusteko, gi-
zon batzuk aukeratzea besterik ez da.

Pentsakera ortan eta intentzio orrekin idatziak dira, "Zirimoni-
Liburu" orrek Gotzai eta Apaizak egiteko dakartzkian itzak ere. Itz oien
asmoa ez da Sakramentu bat egitea, serbitzari bat aukeratzea baizik.
Orretxegaitik bereala adierazi zuan Paul IV Aitasantuak, itz aiek
Apaiz-egiteko ballogabeak zirala.

Orduan galdu zuan Ingalderriko Elizak Apaiztasuna' Jauparitza;
Itz aiek sakramentugille ez diralako, eta itz aiek ontzat artu eta apaiz-
gintza edo gotzaigintzarako erabiltzen zituzten Gotzai aiek, Sakra-
mentu egiteko, —elizak dagian bezela Sakramentu bat egiteko
alegia—, intentziorik ez zutelako. Kalbin'en asmoa zegoan Gotzai
aien ezpafiñetan eta buruetan.

Orrela erakutsi oi du beti Eliza katolikoak: Ordenaketako itzen
egokitasunaren faltaz eta ordenatzaileen intentzioaren faltaz, Ingal-
derriko Elizaren Apaiz eta Gotzaiak ez dirala egiazkoak; eta orregaitik
auetako bat katoliko egin danean, ostera ordenatu izan oi du.

Erakusbide ontan, azkeneko epaitza Leon XIII'ak 184536'ean eman
zuan "Apostolicas curas" izeneko Buldaren bitartez. Bulda onek, or-
durarte Erroma'ko Elizak Ingalderriko Elizaren apaiztasunari buruz
irakatsitakoa berritzen du. Ez da dogma-egille, ez da utseziña, ta az-
terketa sakonago bat gai ontan egiteko bidea irikirik uzten du; baiña
Elizaren lege da, eta katolikoek kontzientziak bere esanera makurra-
razteko indarra badu.

—"1552'ko Prayer-book edo Otoiz Liburua"

Ordurako, lutertasuna Iaga-ta, Cranmer erabat Kalbindarra bait
zan, liburu au ere kalbindarra da muiñez.

Garai ontan idatzi zituzten Cranmer'ek eta Warwick'ek "1553'ko
Berrogeitabi Ataltxo edo Artikuloak", mamiz lutertar eta kalbindarrak
gai askotan, baiñan azalez eta itxuraz leun eta katolikoagoak beste

aipatutako iru liburuak baiño. "Ataltxo" auek izan dira Inghlanderriko Elizaren sinispidea' Gaur "2453 Artikuluak" deitu oi zaie, Elizabete'ren denboran moztuak izan bait ziran, baiña Eduardo VI'ren 42'ak berak dira, 29'ra Iaburtuak.

MARI ERREGIÑA (1553 1558)

Eduardo VI'a, 1553'ko urte ortan bertan il zan. Urte ortan bertan galdu zuan Warwik Northumberland'eko Dukeak ere bizia, Mari'ren ordeze errege-aukian beste emakume bat ipintzearren, matxinada bat sortu zualako. Erregiñ egin nai izan zuan emakumea, Jone Gray zan, VIII Enrike'ren illoba. Ez zebillen etxe-kalte Warwik Dukea, Jone Gray ura bere seme batekin ezkondua bait zegoan. Baiñan aurka irten zitzaien oso-osoan erria, eta aizkorak eraman zituan iru aien lepoak: Warwik Northumberland'eko Dukearena, bere semearena ta Jone gaxoarena. Errege-aulkia, Enrike VIII eta Aragoi'ko Kataliffen alaba Mari'rentzat izan zan, naiz Mari katolikoa izan.

Agian lortu zezakean Mari l'ak, —ori da beintzat batzuen iritzia—, Inghlanderriko Eliza ostera Erroma'ren altzora ekartzea, erregetza luzeagoa izan baTu, naigabeek izakera mindu ez ba'zioten, seme bat izan baTu, eta asieratik okerrune aundi bat egin ez ba'lu: Españi'ko Felipe II'arekin ezkondu.

Baiña urrutiegi zegoan Inghlatterrako erria Erroma'tik, eta ez dirudi, Erregin batek gauzak alda zezazkeanik, naiz erregiñ au emakumerik arrigarriena izan.

Mari Erregiñaren laguntzaillerik aundiena, Rexinal Pole Kardenala izan genduan. Zugurtasun aundiarekin jokatu zuan Kardenal jakintsu onek, Julio Illaren ordezkari bezela; eta baita Julio Ill'ak berak ere; Inghlanderriko Elizaren ondasunekin aberastu ziran aundikiak Mari erregiñaren aurka ipiñi ez zitezen, barkatu bait zizkien, Elizari egin zitzaizkion lapurkerietatik sortutako eskomika guztiak. Ala ere ez zuan esaten lapurtutako ondasun aiek ostera Elizari bueltatu bear ez ziranik.

Pole Kardenalak, eta Konsejuko aolkulari guztiak, jakinarazi zioten Mari Erregiñari, ez zuala Inghlanderriko erriak iñolaz ere bere Erre-

giña Karlos V inperatorearen seme Felipe'rekin ezkontzerik nai. Alperrik. Mari, Felipe'rekin, gero Españi'ko Felipe II'a izango zanarekin, ezkondu zan. Ori egiñaz, Inperatorearen laguntza lortu nai zuan.

Legez, egin zan Inghlanderriko ta Erroma'ko Elizen alkartasuna; legez bakarrik ordea, ez egiatzko egitez, alde batetik erria erromazale ez zalako, eta bestetik, erriak Mari'ri asieran zion maitasuna ezarian ezarian oztutzen joan zalako.

Izan ere, ez zuan Marik asmatu, senargaia aukeratzen, eta bere Erregetza gero ta gogorragoa biurtu zan. 275 izan ziran, Mari'ren bost urteetan, illarazitakoak, Jone Grey'tik asita anabaptistetaraiño. Eraildakoen artean ezagunena: Tomas Cranmer' Mari'ren etsai amorratua eta Canterbury'ko Gotzaia; ta onekin batean, beste bi Gotzai: Latimer Woreester'koa, eta Riddley Londres'koa.

Egia da, VIII Enrike Elizaren burutzat aitortu zuten Gotzaiek berberak zirala erejeen aurka gogortasuna erabiltzeko Mari Erregiñari geienatik eskatzen ziotenak, eta egia da baita kalbindar ta lutertarrak maiz ibilli zirala Erregiña ondatu naiean ere eta au bere burua defenditu bearrean aurkitu zala. Ala ere, lepamoztutze arek asko itxusitu zuan Erregiñaren antz-irudia. "Bloody Mari", "Mari odoltsua" izen-eman zion erriak, eta naiz beste orduango Erregeak baiño odoltsuagoa ez izan, izen orrekin izendatu dute gerontzean edesti-idazle protestalariak.

Mari kupidagarriari azkenengo naigabea Aitasantuak berak eman zion, geien bear zuanean bere aolkulari ta lengusu maite Rexinal Pole Kardenala, ondotik kendu bait zion. Ta nola kendu ere! Bereala kardenai ospetsu bikain ura ' preso Erroma'ra bidaltzeko Mari ber-berari aginduaz!

IV Paul Karafa zan Aitasantu. Españi'ko Felipe II'aren aurka guda bizia asi zuan, Aitasantutzara iritxi zanetik' inghlanderriko Mari bere senarraren alde ipiñi zan; eta bere Erregiñarekin zegoan Pole gudaketa ortan, Canterbury'ko Goigotzai izateaz gaiñera, Erregiñaren aolkulari ere bai bait zan.

Ereje bezela epaitu nai izan zuan Aitasantuak. Alperrik izan ziran aren alde Mari'k egin zituan eskariak.

Naigabeak eta samintasunak aurreratu zioten eriotzak libratu zuan Pole, epaiketa lotsagarri batetik'

Aitasantutzara iritxi aurretik ere, IV Paul Karafa'tarrak Erro-

mako Inkisizioaren buru zala atxilotu nai izan zuan Pole. Ereje-usaia artzen omen zion; oldozkera zabalegiko gizona iruditzen omen ziztaion. Ez ziran noski uste ortakoak Erroma'ko beste Kardenalak, une artan Aitasantu zan Paul zanean, ia-la Pole Kardenal ospetsu ura Aitasantu aukeratu bait zuten. Azkenean, Julio III'ari eman zioten aitasantutza, eta onek, Julio III'ak, zuan Pole Inghlanderrira bere ordezkari bezela.

Gaizki jardun zuan Paul IV'ak Kardenal zintzo arekin. Ez zuan Pole'k orrelako esker txarrik merezi'

I ELISABETE (1558 - 1603)

Elizaren edestirako ez du garrantzi geiegi Erregin onek, ez bait zuan berak, Cranmer'ek Eduardo Vraren erregetzan tajututako Elizaren izaKeran aldaketarik egin.

Bi dira emakume onen gauzik nabarmenenak:

Mari'k asitako lan guztia ezereztuta Inghlanderriko Eliza osterazismara eramatea.

Katolikoan aurka, baiña baita lutertarren aurka ere eta kalbindar garbitzailleen eta anabaptisten aurka, edatu zuan persekuzio gogorra.

Bi gauza oietan asmo zuzenez ibilli zan edo ez jakiteko, agian, ez da alperrikakoa izango gertakizuntxo batzuk oroitzea:

Mari erregiñ zala, Elisabete (Enrike VIII ta Ane Boleyn'en alaba) katoliko egin zan.

—Mari ii eta erregintza berari eman ziotenean, oparo zin-egin zuan Eliza katolikoa defendituko zuala.

Lenengo urtean, parlamentuaren billera Meza katoliko batekin iriki zuan.

Bere eregiñ-konsagratzea era katolikoan egin-arazi zuan.

Beste errege katolikoek bezela, Aitasantuari konsagratze orren berri bidali zion.

Baiña errez aldatzen zuan sinispidea Elisabete kezka gabeak. Zer billatzeko? Dirudianez..., bere buruaren aunditzea, almena, indarra, nai zuana egiteko askatasuna. Agian orixe bera, askatasuna, aurki nai izan zuan ez ezkontzearekin ere. Ez bait zan beiñere ezkondu. Orregaitik, "The Virgin Queen", "Erregiñ Birjiña", esaten zioten beretarrek. Beste batzuk ordea, zalantzan ipiñi oi dute aren emakumezko bitzaren garbitasuna.

14 urteko neskatoa zala, ibilli omen zan maitakeritan sartua' Tomas Seymour, Jone Erregiñ izandakoaren anaia, omen zan bere maitalea. Ez luzarorako. Aizkorak moztu bait zion lepoa. Gero, errege-aulkira iritxi ondorean ere, lau maitale erantsi oi zaizkio "Erregiñ Nes-kutsa"ri: leicester, Hatton, Raleigh, eta Exes' Azkeneko onek ere rrekoaren aizkorapean amaitu zuan bizia.

Ia bere erregintza osoan aolkulari eta laguntzaille bat bakarra izan zuan: Gillermo Cecil. Au dala ta, zail gertatzen da, erregintza luze artan zer izan Erregiñaren asmari eta zer Cecil'ena jakitea.

Inglanterra ostera zizmara eramateko bien artean eman zituzten urratsik garrantzitsuenak auetxek dituzu:

—Marl'ren denboran espetxeratutako protestalari angiltarrei askatasun osoa eman zien, orain, Elisabete'k. Era berean bir-iriki zizkien aberriko ateak erbestera iges egin zuten guztiei.

—Cecirek, parlamentuan Elisabete'ren aldeko naiko batzarkide sartzea lortu zuanean, lege biurtu zuan ostera "Supremazy Act" edo Erregea Elizaren buru egiten zuan lege ura. Baiña, oraingoan, zorionez, Gotzai guztiak, batek ezik, ezetz erantzun zuten: ez zutela Erregiña Elizaren burutzat artuko. Erregiñak' karguetatik kendu eta espetxean sartu zituan, eta an, espetxean, il ziran. Amaika Gotzai!.

Gotzai katoliko aien orde bestez batzuk izendatu zituan. Aurrenekoa, Canterbury'ko aulki gurenerako aukeratua, Ane Boleyn Erregiñaren kapillau izandako Mateo Parker izan zan. Eduardo VI'aren zirimoni-liburuaren araura konsagratu zuten 155453'ko abenduaren 7'an. Oroigarri da egun au, orduandik ez bait du Inglanterra egiazko Apaizkuntzarik. Parker'en sagaraketan eta onek eta onen ondorengoek egindako saragaketa guztietan baliorik gabeko liburu ura erabili ain zuzen. Mateo Parker'en sagaratze baliorik gabeko artatik sortua da Inglanterra Jauparitza edo Apaizgoa.

—Parlamentuak 155453'n eman zuan beste lege bat ere: "Berdintsunaren legea", Jaurerri guztiari sinispide bat berdiña emateko: Eduardo VI'aren sinispidea,

—Eduardo VI'aren garaiako "42 ataltxo" aiek 3453'tan bildu ziran, eta 1563'an "Inglanterra" Elizaren ogei ta emeretzi artikulio edo "ataltxo" auek betirako Elizaren sinispide bakar eta Jaurerriaren Lege egin ziran.

Erregiñaren siniskera artu nai ez zutenentzat gogorra izan zan zigorketa' Asieran katolikoak baiño zigortuagoak izan ziran protestalariak.

Erriko jende ikasixamarrak, eskulangille patxadakoak, eta beste burgeskumeak, atsegin zuten oso kalbindarren otoizbide apala, bakuna, zalaparta ta aberaskeri-gabea' Katolikoegiak iruditzen zitzaizkien Inghlanderriko elizkizun oparo aiek, beren organo-soiñu, jantzi apain, zirimoni ikusgarri, Apaiz eta Gotzai dotoreekin. Apaizketa, ta Gotzai tzaren izatea bera ere, ez zitzaien gustoko'

Ez zeuden 3453 ataltxoekin konforme; beste, ebangelio utsezko, kristautasun "garbi" bat gura zuten. Orregaitik, "DIsenters", "Non-conformists", au da, "Konformakaitzak" deitu zitzaien, baiña batez ere, "PurWans", "Garbizaleak".

Espetxeetan, urkamendietan, erbestean, baZer guztietan tinko jokatatu zuten beren fedearenaide garbizaleek'

Asko igaro ziran Ipar-Amerika'ra ere, Elisabete l'a, Jakobo l'a eta Karlos l'aren erregetzetan' Orrela iritxi ziran "Mayflower", "Maiatze-kolore' ontzian, 1620'garren urtean, Amerika'ko Laterri Alkartuen irasle edo fundatzailetzat artuak izan diran 35 "Aita Peregrinuak"

Oso gogorak izan ziran asieran beintzat, Amerika-lurretan bizibide berriak iriki zituzten "garbizale" aiek, berak bezela pentsatzen ez zutenekin. Ala ere, berak igarotako samintasunen oroitzeak erakutsi zien, azkenean beintzat, besteren pentsakerak abegi onez ikusten, Aien semeei zor zaie Ameriketako erridi aietan beti bizirik diraun erri kideen pentsakera ezberdiñentzako begirapena eta askatuna.

Badugu kristau katolikuok arlo ortan gure anai oiengandik zer ikasi!.

Azkeneko ogeitamar urteetan, batez ere, zearo zipoztu zan Elisabete, katolikoak osoro ondarazi naiean, bildurrak eraginda noski. Bazuan bildur orrek egiazko oiñarri' Bein baño geiagotan erregiña botatzeko matxinada-gertuketan saiatu bait ziran katolikoak. Arrisku au aundiagoa egin zan Elisabete'rentzat 1568'a ezkeru.

Urte ortan iritxi zan, babes-eske, bere mendekoengandik igesi, Mari Stuart Eskozi'ko erregiña. Inghlanderriko katoliko askorentzat, Mari Stuart katoliko ura zan Inghlanderriko egiazko erregiña, Elisabete zismagillea sasiezkontza baten alaba bezela ikusten bait zuten. Orregaitik iduki zuan giitzapean Elisabete'k Mari bere lengusu eskozitarra.

Mari espetxetik gaizkatzeko, egin zan saiaketa bat, Mari berberaren onspenarekin. Ez da arritzekol..Eskozi'ko erregintza galdundorean txit atsegin bait zitzaion Inghlanderriko Erregiñ izatea. Iritxi zan ordea asmo oien danen berri Elisabete'ren belarrietara' Asarretu

zan zearo. Eta eriotzara galdu zuan Mari bere lengusua. Ez da au ere arritzeko gauza, orixe bera egingo bait zuan arazo berdiñean Marik berak eta beste edozein errege edo erregiñak. Emeretzi urte espe-txean igaroostean, aizkoraz lepoa mozturik amaitu zuan bere bizia Mari Stuart doakabeak.

Elizariburuzko auzietan, V Pio berak okerragotu zituan gauzak 1570'ean. Urte ortan eskomikatu bait zuan Elisabete; eskomikatu, eta gaiñera, Erregintzatik bota! mendekoei Elisabete'ren esanera egote-ko zuten obligazioa kendu bait zien, esanekotasun ortara iñor lotu ze-zaketen juramentu edo zinketa guztiak ezereztuaz! Itxuraz, erdi-aroon zegoala oraindik uste zuan Pio V'ak; eta ez berak bakarrik: aspalditik Gotzai batzuek, Españi'ko Felipe Irak, eta orduan Felipe II'arena zan Lobaina'ko Ikastola Nagusiak ere, ori egiteko eskatzen ari bait zitzaiz-kion

Ba dio norbaitek, Pio V'ak Elisabete'ri bizia kentzeko eraile bat erosi zuala ere. Ez dio egia. Pio V'a, San Pio V'a, ez zan orrelako gau-zarik egin zezakean gizona'

Badu, ala ere, esamesa orrek bere egiazko sustraia, ta auxe da sustrai ori: Gregorio XIII Aitasantuaren garaiean, Aitasantuaren le-nengo kardenaI laguntzalea. Elisabete erregintzatik botatzeko iraul-tza baten gertuketan sartuxea egon zala. Ez zaigu gaur atsegin, Eliza politika-n'asketa oietan sartua ikustea, baiña oiek ziran orduango oiturak, eta guztiok gure garaieko oituren "ume" gera' Ta, erregetza-tik botatzeko ez eze, Felipe II'a eta Gregorio XIII'a erailtzeko asmotan sartua ibilli zan Elisabete I'a bera ere.

Egia da argiak ez dezakeala aitzaki bezala esan "illunak ere au egiten du"; iai Elizaren beti mundukor izan-bear au!

Elisabete'ren asarreari su geiago emateko, Felipe II'ak 1588'an "Armada Invencible" edo "Ontzidi menderakaitza" bidali zuan, In-glanderriaz jabetzeko asmotan. Itsasoko ekaitzak eta Drake'ren iaio-tasunak menderatu zuten burruka-aurretik, españiarrek arrokeriz "menderaezifia" uste zuten itsasontzisail aundi ura.

Ingländerri'ko Eliza ia osorik zismara joan ba'zan, apur batzuek bakarrik izan ba'ziran Aitasantuaren esanera gelditu ziran kato-li koak..., esan daiteke Elisabete'ren garaiean apur oiek ere ezereztu zirala' Askok fedea ukatu egin zuten, baiña beste batzuek martiri il arte beren fedeari eutsi zioten. Beste askok erbestera alde-egitea lortu zuten. Auen artean ospetsua da Gillermo Allen Kardenala, Inglande-rrian apaiz bezela lan-egin nai zuten gazteentzat Frantzi'ko Douai`en,

eta Balladolid'en, apaizgaitegiak eraiki zituana. Laister iriki zuan beste bat asmo berarekin Erroma'n Gregorio XIII Aitasantuak ere.

Oroigarri dira benetan, ikastetxe auetan ikasita, milla arriskuren artean, Inghlanderrian ixilka lanean atsedetik gabe jardun zuten apaizak. Apaiz mixiolari auei laister juntatu zitzaizkien, lñaki Donearen Josulagunak ere.

Douartiko apaizen artean 110'ek fedearen alde bizia eman zuten' Guztira Elisabete'ren erregintzan 184 izan ziran martiriak. Oietatik 124 elizgizonak' Beste 60'ak, kristau arruntak.

1603'an il zan Elisabete, ta Elisabete'k eraildako Mari Stuart'en seme Jakob'ek artu zuan erregetza. Ain katoliko izan zan ama baten semea zalako uste izan zuten, Inghlanderrian oraindik gelditzen ziran katoliko ondarrak, Jakob l'ak pakea, edo askatasuna beintzat, eman-go ziela.

Baiña Jakob lak ez zuan iñoiz bere amarekin bizitzerik izan, eta kalbindarren artean azia zalarik, kalbindarra zan biotzez'

Ala ere, Elisabete lak baiña askatasun geixeago eman zien katoliki koei. Gogorkerialdi bat 1605'ean izan zuan. Orduan gertatu bait zan "The Gunpowder Plot" edo "Sutauts-Matxinada". Polbora edo sutautsez parlamentu-etxea, Erregea barruan zegoalarik, lertuarazi nai izan zuan katoliko urduri batek; eta katoliko guztiak pagatu zuten errua'

Aita Garnett, Inghlanderriko Josulagunen Nagusiak jakin zuan zer gerta bear zuan, baiña aitortzako sakramentuaren bitartez' Ixilik gelditu zalako, eriotzara galdua izan zan.

Ostera, Jakob l'aren azkeneko urteetan itzuli zan baretasuna katolikoentzat. Josulagunek, frantziskotarrek eta beneditarrek, ostera beren bizimodua pakean tajutu al izan zuten.

Jakob l'a iI zanean, Karlos l'a igo zan erregetzara. Katolikoen egoera berdintsua izan zan; Errege onek, ixkamillak Eskozi ta Inghlanderriko "puritans" edo garbitzalleekin izan bait zituana' Altxa ziran auek, Oliver Cromwell buruzagi zutela, eta anai arteko gudu odoltsu baten ondorean, menderatu zuten erregea.

Inghlanderria, errepublika biurtu zan, Cromwel lendakari zala. Katolikoak, —guduketan erregearen alde ekin bait zuten—, ostera ere eraso gogorraren azpian aurkitu ziran, eta gaur-gaur arte ezertarako eskubiderik gabe bizi izan dira Inghlanderrian. Izan ere, edozein kargutxorako, Aitasantuari ukoeginda, Erregea Elizaren Burutzat aitortzea eskatu bait da arrezkero lurralde artan edestia-zear.

PROTESTALARITZA EUROPA'KO BESTE JAURERRIETAN

ESKOZI. Ez zan alaigarria, amaseigarren mendearen asieran, Eskozi'ko Elizaren itxura. Erregearen eta aundikien eskuetan zeuden Elizaren aberastasunak, ta aberastasun oiek bereganatzearen, nai bezela egiten zuten, beren seme ta lagunen artean, gotzaitza ta kargu garai guztien banaketa.

Ola aukeratutako gotzai ta eliz-gizon auek sendi jatorreneko alabekin lizunkerian násita bizitzeaz ez zan iñortxo ere arritzen, Gizon aien eredu egokia da noski Dabid Beaton Kardenala, protestalarien aurka ainbeste lan egin zuana' Ba'..bederatzi seme-alaba izan zituala jaurti zioten aurpegira protestalariak!

Elizari bizkortasuna zaiñetaraiño sartzeko, ez ziran naikoak izan bi gotzai zintzok garbitasunaren alde egin zituzten lanak.

Iritxi zan protestalaritza Eskozi'ra. Baiña V Jakob'ek eta Eskozi'ko Elizaren deduzko Burua zan Jakob Beaton St. Andrews'ko Goigotzaiak, gogor eman zieten aurpegi berrikeri-zaleei. Ain zuzen, lenxeago aipatutako David Kardenal traketsaren osaba zan Jakob Beaton au.

1528'ean eman zuan bizia bere sinismenaren alde aurreneko artzai lutertarrak.

Patrik Hamilton izan zan artzai ori erregeen jatorrikoa; Bitenberg'en bertan ikasten egona. Beste zortzik ere galdu zuten bizia Jakob V'aren erregetzan.

Jakob V'a iltzean —aren alaba Mari Stuart nexka koxkorra bait zan—, Arran'go Konteak artu zuan erregiñ-ordetza. Asieran lutertarren alde jarri zan, baiñan Inglannderriko Enrike VIII'ak, —Eskozi ta Inglannderria batzeko—, Eduardo bere semea, Mari'rekin ezkontzeko eskaria egin zuanean, Arran'go Kontea, alkartze ori galeraztearren, katolikoek aldera itzuli zan bere indar guztiarekin. ; Politika beti, aurka edo alde, baiña politika beti lenen protestalaritzaren zabalkundeant!

Baiña gogorkeri eta zigorketak ez zuan Eskozi'n protestalaritzarik geldiarazi. Gaiñera, kalbindarrek aurrea artzen ari ziran lutertarrei. 1546'ean il zan, bizirik sutera botea, lendabiziko iragarle kalbindarra: Gorka Wishart, Jon Knox'en lagun kutuna. Ta odolak odola eskatzen bait du, laister galdu zuan bizia St' Andrews'ko goigotzai berriak, Dabid Beaton Kardenalak Kaibindarren eskuetan' Jon Knox bera izan zan erailketa ori gertutu zuana.

Dabid Beaton au, aipatutako Jakob Beaton aren illoba bera da. Osaba ilzean, aren goigotzai-aulkirako izendatua izan bait zan'

Esku aundia izan zuan Eskozi'ko politikan, eta arras gogor aritu zan Kalbindarren aurka' Wishart eriotzera zigortu zuan epai-maiean, berak euki zuan lendakaritza. illoba bat izan zuan ondorengo St' Andrews'ko goigotzaigoan, osaba bezela Jakob Beaton zeritzana, St. Andrews'ko azken goigotzaia. Dabid berriz. Kardenaltzara iristen, lenengo eskozitarra izan zan.

Alperrikakoak gertatu ziran Arran'go Konteak, Erregiñ-Ordezko lez, kalbindarren aurka erabilli zituan zigorketak. Amar urte geroago, Erregin-Ordetza ori Gisa'ko Mari'ren eskuetan uztera beartua aurkitu zan' Txit Katolikoa zan Andre au, V Jakob'en alarguna ta Mari Stuart neskato Erregiñaren ama. Saiatu zan, egiñalean, Katolikotasunaren alde. Eskozi, ordea, zearo Kalbintasunera aideraturik zegoan ordurako'

155453'ean iritxi zan ara Jon Knox, Kalbin'en sinispidea Ginebra'n bertan ikasi ondoren, eta bera izan zan Eskozi'ri su eman zion eta Jaurri osoa kalbindar egin zuan gizona.

1960'ean gertatu zan Ezkozi kalbindar egite ori. Aurretik, ordea, kalbindarrek sortutako matxinada baten **Agintaritzatik jaurtia** izan zan Gisa'ko Mari. Jaurlaritzara igo bezain laister debekatu zuten kalbindarrek katolikotasuna' Zigor gogorak ipiñi zizkioten mezara joate utsari, eta bein baiño geiagotan izan zan eriotzera eramana meza-entzuleren bat baiño geiago, Lekaidetxe eta elizetako santuen irudiak, —irudigurketarako bide-ematen zutelaren aitzakiarekin—, danak izan ziran apurtuak. Egin zan astakeririk naiko Kulturaren kalterako!

Ikaratu ziran katolikoak; baita zentzu oneko kalbindar berak ere. Eta bai aiek eta bai auek, Errege-Aulkirako, Mari Stuart Erregiñ gazteari dei egin zioten' Frantzi'n zegoan Mari. Frantzi'ko Frantzisko II'arekin ezkondua izan bait zan gazte-gaztetatik. Eta, ain zuzen, urte artan bertan gelditu zan alargun'

Etorri zan Ezkozi'ra, emeretzi urteko neskatil polit atsegiña, argia, buruz ederki landua, alai, katoliko sutsua, eta emakume ona, benetan ona, baiña arinxamarra; ta agian baita maitasun-zaletxoegia ere. Ez zan beintzat, iñondik ere, Knox gogorrari aurpegi eman zezaiokean Agintaria.

Ez zuan asmatu, gaiñera bere senarrak aukeratzen. Eskozi'ra iritxi zanean Enrike Darnley'rekin ezkondu zan' Enrike au gizon aundikia zan, etxe katolikoko semea. Baiña aizeputz arroa atera zan' Erregiña zanpatuta bere burua egin nai izan zuan Eskozi'ko Agintari egiazkoa' Gaiñera, Erregiñaren aurrean illarazi zuan Dabid Rizzio, Mari'ren aolkularia, Erregiñak bera baiño geiago maiteko ote zualaren bildurrez. Italtar au bere ondora ekartzean ere ez zan Oso abilla agertu Erregiñ gazte pinpiriña, gaizki itzegiteko bidea berak eman bait zuan.

Matxinada batean il zan Erregiñaren senar arroxko txoro au. Matxinada orren buruzagia Bothwell Konte protestalaria izan zan, eta baita, erriaren ustez, baita ildakoaren eraillea ere'

Ta ara nondik berealaxe Mari kaxkariña Bothwell berarekin ezkontzen dan. ¿Kaskarinkeriz? ¿Bothwell'ek artara beartu zualako? aBere erregintzari iraunpena eta katolikotasunari bizi al izatea emateko beste biderik ikusten ez zualako? Ez zuan beintzat asmatu, Jaurerri guziak gorroto zuan gizon bat bere alboan senar eta errege bezela ipintzean.

Mari bera egiten dute Erregiñaren etsaiek senar izan zuan Enrike Darnley aren eraille. Bothwell'ekin bat egiñik omen zegoan, erailketa artarako. Eta esakizun ori egiztatzearren, eskutitz batzuk aipatzen dituzte; Marik, matxinada-aurretik, Bothwell'eri egindako eskutitzak.

Mari'ren aldeko edestilariek ordea, eskutitz oiek ez dirala Mari'k idatziak, erantzuten dute.

Mari benetako katolikoa zan; Bothwell, protestalaria; eta iñork ezin ikusi zuan gizona; eta Mari'ren senar izan zan Enrike Darley'ren eraillea gaiñera. Zergaitik ezkondu ote zan gizon orrekin Mari Erregiña? Betirako illunpean gelditu zaizkigu ortarako izan zituan arrazoiak. Ezkondu zan beintzat, eta eskontza ori izan zitzaion bere gurutz-bidearen asiera.

Altxa zan jaurerria, Murray Kontea zuzendari zuala, Mari Erregiñaren aurka, eta, batez ere, onek ezkontzaren bidez Errege egin-berria zuan Bothwell'en aurka.

Aurkitu zituan Bothwell Erregeak iges egiteko bideak. Mari gai-xoa, ordea, bere etsaien eskuetan gelditu zan' Sartu zuten auek espe-

txean, ta an, Erregiñ polit lirain xalo ta buruarintxo arek, bere erriak ez zuala maite ikusi zuanean, Jakob, urte bateko bere semetxoari utzi zion Erregetza. Une artatik bertatik, Eskozi'ko VI Jakob Erregea zan, urte bateko semetxo ura. Gero Inghlanderriko James edo Jakob l'a izan zitzaigun' Eskozrko Inghlanderriko eta Irlanda'ko Errege. Baiñan ez katolikoa bere ama bezela, protestalaria baizik.

Mingal'n gaiztoek aur au Marik Rizzio italiarrarekin sortutako semea zuala zioten. Bazituan, ala ere, oraindik, Erregiñak bere alderditarak, eta atera duten espetxetik, baiña izkilluen indarrez porrokatuak izan ziran.

Mari'k beste edozein tokira joan bearrean, Inghlanderrira! igesegitea pentsatu zuan' Inghlanderriko Erregiña, Elisabete, lengusu zuan, ba, baiña ez ote zuan ikusten Elisabete Ane Boley'nen alaba protestalari bortitza zala? Ez ote zan oartzen ez zezakeala arengandik gauza onik itxaro?

Ezaguna da Elisabete'k egin zion arrera: Londres'ko Torreko espetxean itxi baiturik!.

Espetxeko urte luzeak xautu ta donetu zuten Mari Eskozi'ko Erregiñaren anitua, ta egiazko martirien antzera amaitu zituan egunak ain zori txarrekoa izan zan emakumezko maitagarri arek.

Eskozi, kalbindarren eskuetan gelditu zan osoro. Ta auek Jinebra'koa baiño Eliz gogorrago bat tajutu zuten, presbiteroen batzarra buru zuala.

Ez zan, noski Erregearen gustokoa presbiteroen eskuetan zegoan Eliz ura, ez bait zion, berak nai bezela, atzaparrak sartzeko zirrikurik eskeintzen. Saiatu zan, orregaitik, Mari'ren seme Jakob, batez ere Inghlanderriko erregetza eman ziotenefik, Eskozi'ko Eliza Inghlanderrikoarekin alkartu naiean, edo, gutxienez, Eskozrko Eliza Inghlanderrikoa bezela Gotzai batzuen menpean eta, batez ere, Erregearen menpean ipintzea lortu naiean' Alperrik. Iare jarraitu zuan Jon Knox igarleak eraiki zuan Elizak. Iare,ta Kalbindar.

ESKANDINABNO JAURERRIAK

Amaseigarren mendearen asieran Dinamarca, Noruega, Suezi, ta Islandi Errege baten mendean zeuden. Ta baita Finlandi ere, Suezi'ren zati bat bait zan orduan. Eskandinabi oso artako Erregea Dinamarca'ko Erregea zan. 1513'a ezkeru, Kristian II'a'

Aurreneko lutertarrak iritxi baiño len askatasunaren billa jeikitzen asia zan Suezi, ta Kristian II'aren erregetza onen amaiean lortu zuan askatasun ori. Ala ere, aski aundi gelditzen zan oraindik Dinamarca'ko Erregearen lurraldea, Islandi ta Noruega ez ezik, Suezi'ren egoko muturra ere bere jauntzaren mendean bait zegoan oraindik.

KRISTIAN ira (1513 - 1523). Errege au izan zan bere Laterrietan lutertasuna sartzen aurrena saiatu zana. Ez da errez zergaitik lutertarren alde jarri zan igartzea. Luter'ek erregea Elizaren nagusi egiten zuala badakigu. Suezi askatasun-billa zebillen. Noruega'k ere beste orrenbeste egin zezakean. Elizaren jabe ¿bere Laterri zabalak, Elizaren bitartez, obeki menderatuko zituala uste izateak okertu ote zuan Erregea lutertarren aldera?, ¿Elizaren aberastasunetaz jabetu nai izateak igitzen ote zuan?

Dana dala, ez zuan bere asmorik bete aal izan. Gotzaiak berak, berotasun geiegirekin izan ez ba'zan ere, aurka irten bait zitzaizkion danak. Bat bakarra izan zuan etsai bizkorra, Lund'eko Goigotzaia; ta, oni, bizia kendu zion!

Kementasun geiagorekin aurka-egin zioten Jaurerriko aundiek. Jeiki ziran eta bota zuten erregetzatik Kristian II biurri ura, eta uxatu zuten Jaurerriak.

Katolikoak ziran garaille aiek; katolikoa zuten erri guzia ere; bazi-rudian, betirako, Dinamarca'ren Laterrietan katolikotasuna salbatzen zala; baiña Errege berria aukeratzean egin zuten izugarritzko okerra aundiki katoliko aiek.

Schleswig eta Holstein'go Dukea aukeratu zuten Errege dukate-
rri bikoitz orrekin Dinamarka'ko Laterria oraindik geiago aunditzeko
asmotan.

Baiña ordurako dukaterrian Eliz lutertarra ezarria zegoan 1528'a
ezkero. Eta aski begi onez ikusi zuan bertako Dukeak lutertasunaren
zabaltze ori. Ala ere, Duke orixe bera egin zuten Errege, Dinamarka,ko
Jaun katolikoek, juramentuz katolikotasuna babestu eta ostelaritza
debekatuko zuala itz eman zielako. Politika berriro Lutertasunaren al-
de! Dinamarka'ko Errege lez, Duke arri. Federik I'a esaten zaio.

I FEDERIK (1523-1533). Errege onen denboran bazan Dinamarka'n
sermoilari lutertar iaio ospetsu bat: Tausen. Onek egin zuan lutertar
Erregea bera; baita burgesi-jendeko sail galanta ere' 1530'eko dietan
batzarkide geienak beren burua lutertar aitortu zuten. Galdurik ze-
goan Eliza Katolikoarentzat Dinamarka. Izlari iaio baten izketak ordea
ez zuan alako aldakuntzarik lortu aal izango,leendik Eskandinabi'ko
Eliza arras auldurik egon ez ba'zan. Gotzaien eta Elizjendeen axolaga-
bekeriak zeukan auldurik lurralde artako Eliza.

Gotzaiak, diru maitale aundiegia ziran gotzai aiek, eta Jaurerri-
ko aundiki ustelduek, len Kristian II'ren aurka jeiki ziran Jauntxo ta
Gozzai aiek, ez zuten oraingoan beatz bat igitzeko ere almenik izan.

Bazan oraindik itxaropena, —erriak katoliko jarraitzen bait
zuan—, bazan noski oraindik katolikoentzat itaropen sendoa; batez
ere Federik I'a iltzean an sortutako naasketan. Bi erregegai azaldu zi-
ran orduan, eta biak nai zuten Dinamarka Islandi ta Noruega'ko bu-
runtza: Federik I'aren seme Kristian Illak eta len erregetzatik jaurtia
izan zan Kristian II'ak. Bazan orduantxe Tausen izlariak eta I Federik
erregeak egin zuten eliz-aldaketa zuzentzeko era polita, baiña Gotzai
ta aundiki txepetx aiek, naiz berak katoliko iraun, ez ziran izan gauza
era ortaz nola baliatu jakiteko. Katolikoak baiño politikari trebeagoak
irten ziran ostelariak, protestalariak.

III KRISTIAN (1534 1559). Politikari trebea izan zan Kristian
Martin Luter'en lagun eta adiskidea, gudari bikaiña, bere Laterriak os-
telari egiteko asmo sendoarekin politikara zetorrena.

Etsai guztiak menderatuta, erregetza lortu zuan bezain laister asi
zan lanean. Indarrez eta gogortasunez baliatzeko ez zuan zalantzarik
erabilli' Orrela, 1536'ean, Dinamarka'ko zazpi Gotzaiak sartu zituan
espetxera, eta beren gotzaitza erregearen eskuetan laga zutenean ba-
karririk askatu zituan kateetatik. Izan zan ala ere zazpi gotzaitxo aien

artean egiazko gizon bat; Roskilde`ko gotzaia. Baiña Gotzai oneri"" ilepoa mortu zion!

Indarra, ta Dinamarca beran baiño gogorragoa oraindik, erabilli bear izan zuan Islandi'n eta Noruega'n ere. Emen, bota zituan beren Aulkietatik Noruega'ko bost Gotzaiak; eta apaiz eta kristau katoliko zintzo guztiak erbesteratu: eta Elizako aberastasun guztiak ostu. Mozkeri aundiak egin zituzten Noruega'n ostelari katolikozapailtzaleek irudi ta jauretxe-puskatzen, siniskeriustezko kutsu oro garbitu naiean' Ez zuan gutxi galdu kulturak Drontheim'go Katedral arrigarria porrokatu zutenean-eta!

Latzagoa izan zan Islandrko eraso, an erria, Jon Aresson Gotzai buru zuala, arnnetan atxa bait zan. Baiña, Erregearen gudaroztea ugaria izaki-ta, egin zan azkenean Ugartearen jabe Kristian Jon Anderson eriotzez zigortua izan zan.

1539'an Dinamarca era bat lutertarra zan. Urte ortan bertan Odensee'n egindako dietak "Konstituzio" edo "OiñarriLege" bat argitaratu zuan Jaurerrian betirako protestalaritza erroturik uzteko. Ona OiñarriLege orren atalbururik garaienak:

- Erregea Elizaren Jaun Jabe ta Agintari bakarra da, Katoliko bat ez daiteke Dinamarca'ko Errege izan. Katolikoak ez dezakete Laterriko beste edozein kargurik ere artu.
- Jaurerrian sartzera ausartzen diran apaiz guztiak eriotzara galduak izanen dira.

1541'ean Noruega ere protestalari zan; eta 1551'ean, Islandi. Bedi goratarre, merezi dute ta, Lund, Roskilde eta Holarko gotzaientzat. Baiña esan dezagun katolikotasunak ez zuala Eskandinabrñ zifñopa edo martiri askorik izan. ¿Ain axola gutxiko gauza iduritzen ote zitzaion erlijio-aldaketa Laterri aietako jendeari? Edo ta; erri kristau arrunta oartzen ote zan. oartu, aldaketa arek zuan garrantziaz? „Ikusten ote zuan, Kristian Irak Federik lak eta Kristian ilrak edatutako liturgia ta gogo-artzaintza onartzean, Eliza Katolikotik irtetzen zala?

Zalantzan jarri leiken auzia da Suezin' gertatu zana oriotzen ba'dugu.

SU EZI

Gustab Vasa'k egin zituan protestalari Suezi'ko Jaurerria eta garai artan Suezrrenak ziran Estoni eta

Askatasun billa zebillen Suezi, Dinarnarkalik bereizi naiean. Ain zuzen Gustab Vasa'ren aita askatasun-zalea Dinarnarka'ko Kristian II'ak erail zuan; eta semea, (Gustab bera), Alemani'ra iges egin bearrean aurkitu zan. Alemani'n egin zan lutertarra; benetako lutertarra.

Suezi'ra itzulirik, jeikiarazi zuan Suezi Dinarnarka'ko Erregearen aurka, eta Kristian II'ren indarrak zapaldu zituanean, beretzako izan zan Suezi'ko erregetza (1523 - 1560).

Suezi'n ondo errotua zegoan erria-baitan katolikotasuna. Orre-gaitik arreta aundiz eta polikipoliki, ta astiro, ibilli zan Gustab I Errege berria, kristaukera aldatzeko jarduketa artan'

Dinamarka'ko Erregea, Kristian II'a, ostelaria zan. Errege orren aurka jeiki zan Suezi, askatasun-billa. Errege orren aurka zebillen gudan Gustab Vasa suezitarren buruzagi gaztea. Suezi'ko erria katolikoan zan. Badirudi, Suezi'ren askatasuna sendotzeko, erriaren maitasuna lortzeko, eta, orrela, beretzat erregetza ziurtzeko, --politika-joku ego-ki baten araura—, Eliza katolikoaren alde jarriko zala azkenean Gustab Vasa, Suezi'ko Errege izatera iritxi zanean.

Ez ba. Dinamarka'n Kristian II'ak bezela, katolikotasunaren aurka ekin zion Suezi'n Gustab I Vasa'k ere. Esku txuriz, bai noski, baiña gogorki. ¿Zergaitik ote?

Politikaz baliatzaile baiño geiago, kristau lutertar zintzoa zala-ko? Kristau lutertar zintzoa izateaz gaiñera, lutertasunak politikaren arloan eman zezaiozkean bentajak ere protestalaritza bultzatzen zutelako? Ondo ezagutzen zituan beintzat berak Alemani'ko Laterri protestalariak eta bazekian ondotxo Laterri aietan nagusi ta jaun bakarra Laterriko printzipea zala. Eta nagusi ta jaun izate orrek, ospe almen eta aberastasunez gaiñera sendotasun aundia ematen ziola printzi-

peari,

Bera, sendotasun orren faltan zegoen. Ez zan errege-odolez sortutako sendi bateko semea; izkilluek eman zioten erregetza; ez zuan, garai artan errege baten seme izateak ematen zuan sendotasunik. Baiña jaiotzak ematen ez zion sendotasun ori, Elizaren buru izateak eman zezaiokean; Elizaren bitartez, —gotzai guziak bere esaneko zirala—, errez menderatu zetzazkean Jaurerri iaretu artako aundikiak, aundiki aietakoren batzuk bere aurka jeikitzekeo tentaldira jausten ba'ziran. Gaiñera, biurrikerira okertuxeak izan zitezkean aunditsu aiek baretzeko, ez zitzaion gaizki etorriko lutertasunak bere eskura zekarz-kion Elizaren diru eta aberastasunak.

Iru gizonak lagundu zioten asko erlijio aldakuntzan: Lorenzo Anderson'ek eta Lorenzo ta Olaf Peterson anaiek'

Lorenzo Anderson, Sueziko Kantziller edo Jaurle Nagusi egin zuan, eta laguntzaille ernea izan zitzaion Elizaren aberastasunak bereganatzeko. Ez dio gaizki edestilari lutertar batek, "Gustab l'ak ostelari-tzarekin egindako tratuak eman zituan irabazi ta korrittu guziak erregearen patrikarako" izan zirala'

Peterson anai biak Martin Luter'en ikasle izanak ziran Witemberg'en. Olaf, izengoitiz "Petri", izlari iaioa zan. Lorenzo, Erregeak Upsala'ko Goigotzai egin zuan. Lorenzo au izan zan Buezrko izkuntzara Biblia itzuli zuana.

Finiandi'n Mikel Agrikola izan zitzaion guntzallerik onena; protestalarietan teologilaririk ospetsuenetakoa, langille amorratua, berak biurtu zuan, Biblia Finiandi'ko erderara.

Esan dugun bezela poliki eta arretaz ibilli zan Gustab lutertasuna zabaltzen, eta politika-egille iaioa agertu zan ortan, ez bait zion erriak beifñere lengo kristautasun zarrari zion eraspenerik izkutatu. Erregearen politikari ez zitzaion gogortasunik faltatu, baiña taiu egokiz erabillitako gogortasuna' Esku biguin eta gogorra.

iSuezrz bai esan daitekela, ustegabeen eta Elizatik irtetzen zala oartzeke, igaro zala lutertasunera, urte luzeen buruan!

Gustab l'aren eta bere aolkularien lenengo urratsa, Sueziko Gutzaiak atzerritarrak ez baiña suezitarrak izan bear zutela oiugitea izan zan. Eta, Elizaren oituretako garbitasuna eskatzea! Elizaren antzaberritzea!

Bi eskariak zitzaizkion erriari atsegiñak. Nork oar zezakean Gutzai aldatze artan lutertarrek beren arteko gizonak ipiñi nai zituztenik?, eta Elizaren antzaberritze ura luzarora, Elizaren mamiaren

aldaketa izan bear zuanik?

Bigarren urratsa, Elizaren ondasunak Erregearen eskuetara erakartzea izan zan; baiña "Elizari sobra zitzaizkion ondasunak", legearen itzek ziotenez. Gudu baten ostean askatasuna lortu zuan Laterri bateri"., bizitzen asteko gai izan zedin, Elizak sobra zituan aberastasu aiek ematea, dez al zan gauza egokia?

Urrena, Erregeak eta aren aolkulariak aldaketaren etsairik gogorenak ziran Gotzaiak baztertu zituzten.

Aurretik matxinada bat izan bait zan..' Erregearen etsai bezela izan ziran zigortuak Gotzai aiek. Linkoping'go Gotzaiak, erbestera iges egin zuan' Besteras'koak, eta Upsala'ko Goigotzaiak, bizia galdu zuten. Bairla.'."Erregearen etsaiak izan ziralako"!, erriari adierazi zitzaionez beintzat.

152453'an, lutertasuna ipiñi zuan Erregeak Jaurerriaren sinispide bakartzat, lege baten bitartez. Jeiki zan aurka erri katolikoa izkilluak eskuetan zituala. Erregearen gudariek zapaldu zuten katolikoan matxinada.

Bi urte geroago 1531'ean, Gustab'ek Lorenzo Peterson lutertarra Upsala'ko Gotzai izendatu zuan, Aitasantuaren baimenik gabe, Baiña Gotzai berri aren sagaratzen liturgi katolikoaren araura egin zan. Lasai geldi zitekean erria, sagaratze "katoliko" arek argi adierazi nai bait zuan Elizako gauzak len bezela jarraitzen zutela, ta aldakuntza sakonik ez zala izango' Sinistu bide zuan erriak ori, ez bait zan beintzat urduritasunik izan.

Urte au ezkeru, Suezi'ko Eliza Erregearen eskuetan zegoan, Aitasantuarengandik osoro bereizia, baiña Suezi'ko Eliz lutertar arek bazi.: tuan gotzaiak, bazituan apaiz sagaratuak, bazuan katoliko itxurako liturgia, bazituan jai egunak...Oraindik amarka urte askotan ospatuko da azaroaren bigarren egunean difuntuen eguna, erria, oartzeke osoro katolikotasuna galduta, zearo lutertar biurtua izan arte.

Amaseigarren mendeko erri kristaua, Europa'ko lurralde geienetako erri arrunta, erlijio gaietan arras ezjakiña zan, fede gauzetan ezi gabea. Kristautasunetik zirimoni eraspen eta jaiarak bakarrik ezagutzen zituan eta maite zituan' Axaleko itxura oiek aldatu gabe jarraitu ba'zuten Suezi'n, çarritzekoa al da erria itxura orren azpitik gertatu zan aldaketaz ez oartzea?

Ala ere izan ziran katolikoan altxakundeak bein eta berriro. Gustab l'a ordea, gero ta bizkorrago bait zegoan, gero ta errexago irten zan garaille.

1544'ean lortu zuan Gustab I'ak bere oinordekoak errege-gai izendatuak izatea. Ala ere garaitza ori lortzeko unean, ezin gorde izan zituana bere espa eta marmarrak, erriak ez-ezè' Batzar Nagusiko batzarkideak ere zirimoni, eraspen, liturgi, eta sinisketa zarren lagun jarraitzen zutelako.

1560'ean Errege il zanean, Suezi erabat ostelari zan. Baiña ostelartzak izugarrizko oituren lizunkeria ekarri zuan. Jende askok uste izan zuten iguinkeri ura Jaungoikoaren zigorra zala; aundia izan bait zan!

BALTIK ITXASOAREN ERTZEKO LATERRIAK.—Lau ziran orduan Laterri aiek: Estoni, Kurlandi (gaurko Letoni), Lituani, eta Prusi.

Lauretatik, Suezi'ko probintzi zan Estoni eta Suezi'rekin batera egin zan lutertar. Eta lutertar jarraitzen du gure egun auetan ere.

Beste irurak. Teutonitar Lekaide Zaldunen Anaidiaren mendean zeuden. Albert Brandeburg'etarra zan garai artan Anaidiaren Maixu Orokor Nagusia; eta Maixu Nagusi au lutertar egin bait zan, berarekin eraman zituana Laterri aiek ere lutertasuna, (1530), Lituani izan ezik. Egin zuten au ere lutertar, (1561), baiña katolikotasunera itzuli zan berriro'

Lekaide Zaldun Teutonitarren Anaidia ezereztua izan zan. Aren aberastasuna jauntxo protestalarien eskuetara joan zitzaigun.

Iru Laterriak, Poloni'ren jauntza garaiaren azpian gelditu ziran. Baiña Letoni'k eta Prusi'k Errege poloniarrenkingo lokarriak laister ausi zituzten, eta lutertarrak dira gaur oraindik.

Ez ordea Lituani. Onek Polonj'rekin alkaturik denbora geiago egin zualako ez zuan katolikotasunik galdu, eta katoliko jarraitzen du oraindik ere.

Ikus, berriro, nolako garrantzia izan zuan politikak sinismen-arazo aietan, bai katolikoan, bai protestalarien alde.

UNGARI, TRANSILBANI, ETA POLONI

UNGARI. Turkitarrek gogor zerabilkiten amaseigarren mendean Ungari gaixoa; ta naiz etsai bizkor aren mendera lurralde zabala galdu izan, ausardiaren bitartez askatasuna gordetzen zuan oraindik baztartxo batean Jaurerri kementsu arek. Maometarren aurrean benetan zan kristaudiaren aitzindari Ungarrko erria. Ta erri aitzindari aren buruzagi kidezkoa zan, Koldobika 11 Erregea, benetako katolikoa.

Ala ere, naiz Errege onek erejia gaierazteko alegiñak egin, poliki zabaldu ziran ostelariak Ungari'n. Dana dala ez zuan an arrisku aundirik Eliza katolikoak Koldobika II'a bertako Errege zan bitartean.

Baiña, zoritxarrez, Koldobika II'a turkitarren aurka borrokan il zan Mohacs'eko erasoan. Borroka artan iI ziran zazpi Gotzai eta Jaurerriko aundiki katoliko geienak ere.

Indarrez, Soliman "Bikaiñak" irabazi zuan Mohacs'eko borroketa odoltsua, bere gudari taldeak neurrigabeak ziralako, baiña kementasuna neurtzen asi ezker, goieneko maillara igo zan ungaritarren ausardia.

Errege ta zazpi Gotzai aietaz gaiñera Mohacs'en il bait ziran, Ungari'ko jaun eta zaldun katolikoak, babesik gabe gelditu zan Ungari'n katolikotasuna, eta lan-giro ederrean aurkitu zan protestalaritza.

Soliman'ek ez zuan Ungari guzia menderatu' Gorde aal izan zuten ungaritarrek, sarkaldeko ertzean bakarrik izan ba'zan ere Aberriaren askatasuna, eta an Fernando, V Karlos Inperatoreraren anaia autatu zuten Errege. Katolikoa zan Errege berria baiña ostelari edo protestanteen aurka ez zan Koldobika Ira bezain bizkorra atera. Bear bada, naita ere, ezin izan zitekean ain gogorra, ez bait zion Ungari'ko politika-giroak ortarako aukerarik eskeintzen.

Alde batetik, buruntza kendu nai zion aundiki bat altxa zitzaion, Jon Zalpolya, ta erregetza gordetzeko, bearrezkoa izan zuan, iraultzalari aren aurka, jauntxo ostelarien laguntza. Bestetik, ziztaka ta joka

ari zitzaizkion turkitarrek Ungarrz eta Europa'ren gerrialde osoaz jabetu nairik. Turkitarren indar zapaltzaillari eusteko ere bearbearrezkoak zituan ungaritar danen arteko gentza eta batasuna.

Politika-giro orretaz baliaturik, protestalaritzaren iru adarrak sartu ziran Ungari'n: Lutertarrak. Zuinglitarrak eta Kalbindarrak, naiz azkenean zuinglitarrak kalbindarrekin eta [utertarrekin batu ta naasi.

Saiatu zan Fernando eta sailu ziran katolikoak ostelarien aurka. Giro ortan erabaki zuan Presburg'eko Dieta'k 1548'an ostelaritza gogorki zigortzea, baiña gogorkeriak ez ziran ostelaritza moteltzeko gai izan.

Bi errienda bizi ziran Ungarin: "Magiars" eta "Saxons". "Magiars", "magiarrak", Ungarrko jatorrizko jendeak ziran, Jaurerriko endarik ugariena. Saxonitarrak berriz, alemanitarrak odolez. Beste aiek baiña urriagoak, baiña aski ugariak. Ostelartzara joan ziran magiarrak, kaabintasunera jo zuten; saxonitarrek ordea, lutertasunera. Baiña Ungari'ko jenderik geina katoliko gelditu zan. Eta protestalaritzara joandako aietatik ere, asko katolikotasunera biurtu ziran berriro, protestalaritza zearo katolikotasunetik urrun zegoela ikusi zutenean,

TRANSILBANI Ungari'ren alboan Laterri iarea, bere buruaren jabea, zan aldi artan Transilbani, emen ere, Ungari'n bezela, ostelari magitarrek kalbintzara eta saxonitarrek lutertasunera jo zuten.

Ondo zigortuak izan ziran ostelariak beren dotriñen zabalkundea asi zutenean, baiña beste toki askotan bezela alperrikakoak izan ziran erejiaren aurkako erasoketak.

POLONI. Ungari bezela. sortaldetik zetozen etsai barbaritarren astinketari aurpegi gizonki emateko, Europaren aitzin-mutil eta zaindari, Poloni! Eta naiz erriaren sentimenez sendoki ta sakonkiro katolika izan. Poloni'k ere Ungari'k bezain arrisku aundian, edo aundia goan, ikusi zuan bere sinismen zaarra. Altaguztiz katolikotasuna irten zan zalantzaketa artatik azkenean garaille, batez ere josulagunei, eta Poloni bertako Gotzai bateri eskerrak' Estaliskas Hosio, gero Kardenaltzara iritxia, izan genduan Gotzai au; Emerland'eko Gotzaia.

Arriskurik aundiena Elizarentzat gotzaien aldetik etorri zan Poionn; gotzai txepetxak, aiek; bizitza lasaiekoak, axolagabeak, egiazko bokaziorik gabe artzaintzara iritxitako apaiz epelak; Alemani'tik etorritako berrikeri-zale danei abegi on egitera, barruko lasaikeriz okertu xeak zeuden Eliz-Burugazi kaxkarrak. Bi bakarrik izan ziran tajuzkoak:

Erregeak salbatu zuan katolikotasuna, I Segismund Errege katoliko benetakoak' Ez ziran gaurko gustorako fiñegiak izan Erregearen bideak, baiña bai Poloni'n, bai Inlanderrian, bai Jinebra'n bai Erroma'n, garai arri zegozkion bideak ziran.

Witemberg'eko Unibersitatean ikastera joatea debekatu zuan 1534'ean; ikastola artan Luter'eri eta Malanchton'eri entzun izan'zieten ikasle gazteak bai ziran Poloni'n protestalaritza zabaltzen ari ziran ak'

Baita ere galerazi zuan liburu ostelariak irakurtzea, agindua betetzen ez zuana ondasun guztiak galtzera eta baita erbesteratzera ere beartuaz.

Sejismund I'a bizi izan zan artean (1506 - 1548) protestalariei erasotzeak ez zuan aterrik izan. Ez zuan orde erasoketak protestalaritzaren zabalkunderik gelditu.

Berealaxe argitaratu zuten Iutertarrek Bibliaren itzulpena. Poloni'ko erderara lenengo aldiz egin zan Bibliaren itzulpena, Jon Seluyan'en lana.

Sejismund I'a il zanean, urrengo erregea Sejismund II'a izan zan, askoz ere beratxagoa, eta motelagoa, (1548 - 1572). Baiña, orduan, Estanislav Hosio jeiki zitzaigun katolikotasunaren aingeru.

Naspide aundia sortu zan Jaurerrian, ordurako iritxi bait ziran kalbindarrak ere Bibliaren beste itzulpen berri bat argitaratuaz' Indar aundia artu zuten kalbindar auek, bai bait zituzten izen aundiko laguntzalleak: Radziwill printzipea, erregiñaren konfessore Aita Lismannin frantziskotarra, Jon Laski gaztea, ain katolikoek aldeko izan zan gotzai Laski'ren illoba.

Europa'n, ia beti, beren artean asarre ibilli ziran kalbindarrak eta lutertarrak' Baiña Poloni'n ez. Ederki konpondu ziran Poloni'n protestalari guztiak erlijio-iraultzari buru emateko.

Ikusi zuten Errege berriaren aultasuna' Ikusi zuten baita're beren erlijio-kideen ugaritasuna, eta iñoren bildurrik gabe, Poloni'n Kontzilio bat egitea asmatu zuten: Kontzilio Polonitarra. Erregea izanen zan Kontzilio orren lendakaria; eta an bilduko ziran teologilari katolikoekin eztabaidan protestalarien teologilaririk ospetsuenak; Kalbin, Melanchton eta Beza batez ere. Aitasantua zan, Aitasantua bakarrik, Laterri-Kontzilio artatik zera kanpoan gelditzen zana!

Ez zitzaion gaizki iruditu II Sejismund'eri kontzilioketa ura, eta eskatu ere eskatu zion Aitasantuari, asteko baimena' Alperrik, jakiña.

Ez zan, inoski!, orrelako kontzilorik bildu, zalantza ta aultasunen

gaiñetik, Sejismund Ira (Bonna izeneko erregiñ italiar erdi kaibin-zale baten semea), biotzez katolikoa bait zan.

Erroma'ko nunzioen iaiotasunak, eta batezere Estanislás Hossio Gotzaiaren kementasunak atera zuten ekaitz illun artatik garbi Polonrko katolikotasuna. Baziran, gaiñera, orduan beste egiazko gotzai geiago ere.

Asko lagundu zion Elizaren Poloni'ko garaitza oni Pedro Kanisio'ren jardunketak. Merezi du gizon onek, Kepa Kanisio Doneak, aipamen berezia.

Olanda'ko Nimega'n jaio zan, eta Belxika'ko Lobaina'n egin zitun ikasketak. Alemani'ko Matentza'n ezagutu zuan Aita Lefevre, Donearen ikaslea, ta onekin gogojardunak egin ondorean sartu zan sortu-berria zan Josu'ren Lagundian. Ain gizakurdeen-ezagule zorrotza zan Iñaki Loiola'koak kutunki maite izan zuan, seme berri au,

Adimen eta beso zabalekoa zan guztiekin Kanisio; baita etsaiekin ere. Mundu katoliko guztiek "deabru-seme" deitzen zien "protestante" edo ostelariei, berak deitu zien leenik "gure anai bereziak". Gogorkeriaren etsai ziñezkoa, maitekiro tratatu zituan beti "anai bereizi" aiek, eta iñork baiño lan geiago egin zuan anai aiek ama Eliza Bakarraren altzora berbiltzeko. Bonifazio Donea Alemani'ko leen apostolu izan zan bezela, Kepa Kanisio izan zan bigarrena.

Beren bearra betetzen ez zuten gotzai ta apaizekin bakarrik zan garratza. Anai bereziekin beti izan zan maitetsua. "Egin'zagun auxe, zion; Egin'zagun auxe bakarrik: argiro, patxadaz, apalki, gure sinispi-dea jendei begien aurrean agertu. Arrokerizko alkarrizketa ta gorrotozko zigor guztiekin baiño geiago lortuko dugu".

Nuntzio ta erregeen aolkulari, teologiidazle, erriaren mixiolari, ikastoletako irakasle, Alemani'ko josulagunen Probintzi-Buru, Alemani, Boemi ta Poloni'ko bideetan ibilkari neka-eziha...iSan Pedro Kanisio! "Gure idazki guztiak ozkatzen ari zaigun Zakurra" deitu zion Wigan protestalariak, —"canis", zakurra eta "canisius" "zakurtiarra" bait dira latiñez—; Melanchton'ek berriz, Melanchton gozoak, Kepa Kanisio "lotsarik gabeko gizona" zala, esan zuan bein batean. Artaraaiñeko bildurra zioten protestalariak.

Poloni'n, Il Sejismund il zanean, Enrike Valois frantzitarrari eman zioten polonitarrek buruntza, (1573), Ez denbora luzerako; andik bi urtera Frantzi'ko Errege egiña izan bait zan Enrike Valoistarra. Polonrko Errege lez zintzo saiatu zan katolikotasunaren alde, Hosio'ren laguntzarekin.

Enrike Valois'en ondorean, orduan Laterri iare zan Transilbaniko Printzipeari, Eztebe Barthory (1575 - 1587) benetako katolikoari, eman zioten polonitarrek erregetza. Errege onen denboran, ikastolak eraikitzen-eta asko ta ederki saiatu ziran Iñaki loiolatarraren semeak. Ospetsuak izan genituan ikastola aien artean Poloks'ekoa eta Riga'koa.

Ia osoro katolikoa zan orduantxe Poloni guzia, eta oraindik geiago tinkatu zan polonitarren sinismen zaarra urrengo erregetzan.

Errege berria, III Sejismund, iñakitarren ikasle izana zan, eta iñakitar ospetsu bat artu zuan aolkulari ta animako gurasotzat: Warszewicki Aita. Bi gizon auei eskerrak, katolikoa dugu gaur ere Poloni'

Geiago oraindik; Suezia bera ere ia-ia katblikotasunera biurtu zuten bi gizon aien ekintzek. Ara nola:

1560'ean iI zan Gustab I'a. Lutertar batek artu zuan berriz ere buruntza: Erik XIV'ak. Au iI zanean, ordea, 1568'an, Jon III'a ipiñi zuten suezitarrek errege-aulkian. Lengoak bezelaxe, lutertarra zuten au ere, baiña katoliko batekin ezkondua. Katalin Jagellon zuan emazte, Poloni'ko Sejismund II'aren arreba.

Emeki-emeki, itzuli aal izan zuan Erregiñak katolikoan alderuntz Erregearen biotza. Orduan, Sejismund II'ak Warszewicki josulaguna bidali zion Poloni'tik, lan neketsu artan laguntzaille izan zezan.

Zitu ederra izan zuten Erregiñaren eta bere aolkulari iñakitarraren ariketa zuurrek, lortu bait zuten Erregearen itzulpena. Ixillean, baiña benetan, katoliko egin zan Jon III'a!

Itzulpen orren ondorioa, 1575'ke legea dugu. Lege orren bidez, lengoa baiño katoliko-itxura aundiagoko liturgi bat eman zion III Jon'ek Suezia'ko Elizari. Ta, erriak, loso gustora artu zuan. erriak liturgi katoliko ura.

Jon III'ak bazuan anai bat; Karlos, Sudermanland'eko Jauna, oso osoan lutertarra, eta, jakiña, Errege izatearen zalea. Sortu zan anaien artean ill-edo-biziko asarrea.

Suezia'ra nunzio bezela Gregorio XIII'ak bidalitako beste loiolatar batek, Aita Possevino'k eman zuan azkeneko kolpea, lortu bait zuan 1578'an, Jon III Erregeak, lutertasunari uko-eginda, Erroma'ko Elizan sarrera eskatzea' Leendik ere, ixillean, katolikoa zan Erregeak, mundu guztiaren aurrean aitortu zuan orain bere katolikotasuna. Eta, katolikoan poza aundiago izan zedin, ill Jon au il zanean Suezia'ko ta Poloni'ko Jaurerriek ibat egin zuten! III Sejismund Errege katolikoaren eskuetan. Ikus nola:

Suezi'ko Jon Ilrak eta bere emazte Kataliñ Jagellon'ek seme bat izan zuten: Sejismund, ain zuzen. Printzipe au izendatu zuan III Jon'ek, beste semerik ez zualarik, Suezrko Errege-gai.

Ots, ordea! Poloni'ko Errege-gai ere izan zitekean Printzipe ura, II Sejismund Jagellon Polonrko Erregeak semerik ez bait zuan. eta Printzipe aren ama, Kataliñ, Suezi'ko Jon ill'aren emaztea, Poloni'ko Sejismund Il'aren arreba bait zan. Jagelondarrak, biak.

Orregaitik, 11 Sejismund il zanean, Enrike Valois'en eta Eztebe Barthory'ren Sejismund gaztea, Sejismund Il'aren illoba eta Jon illaren semea, aukeratu zuten, 1587'an, polonitarrek Poloni'ko Errege: Sejismund

Bizi zan oraindik Jon Suezi'ko Erregea. Baiña bost urte geroago, 111 Jon il zanean, bere semeak, Poloni'ko III Sejismund'ek, artu zuan Suezi'ko erregetza ere. Sejismundo Vasa Poloni'ko eta Suezi'ko Errege Katolikoa zan orduan, bai orixe, Eliza Katolikoaren itxaropen-iturrietan gozoenal la-ia Mosku'ren ondotik Silesi'ra eta Baltik Itxaso'tik ia Itxaso Beltz'eraifño, Bielorrusi, Lituani, eta Ukrani-zear, Laterri aundia bait zan gafiñera aro artan Polonit

Errege berriak ordea, Sejismund Ill'ak, ez zuan Suezi'n ezer egite-rik izan.

154532'an il zan Jon 154533'an izan zan Segismund koroiatua. Urte bateko denbora ortan Karlos'ek euki zuan Erregeordetza; eta ez zan txantxetan ibilli, katolikotasuna Suezren erabat eragozteko; Upsala'n Dietan bilduta, Absburg'eko Sinispide lutertarra artuarazi bait zien, Suezi'ko Legetzat, Dietako batzarkidei. Ezer egiteko gauza ez zala gelditu zan Sejismund, eta, burutza artu ondorean, Poloni'ra itzuli zitzaigun 154534'ean. Ez zuan, beraz, Suezi'n denbora luzerik egin!

Karlos zan, an, Jaun eta Jabe. Ta aurrera jarraitu zuan "erromazaleen" aurka. konbentuak isten, santuen irudi eta oroigarriak puskatu ta ezeresten, gauza makurrak egin ziran Suezi'n.

Okerkeri aiek geldiarazteko asmotan, lau urte geroago, 154538'an, bost milla gudarikin itzuli zan Sejismund Suezi'ra, baiña garaitua izan zan guduan, eta bere osabak, Karlos IX'ak jantzi zuan Suezi'ko buruntza' Eta, gaur arteraifño, tinko ezarria gelditu zitzaigun an lutertasuna'

6Lutertar izango ote zan Suezi, Sejismund'ek gudua lau urte leenago, 154534'ean, edo koroiatua izan urtean, 1593'an asi balu?.

BOEMI eta IRLANDA

BOEMI. Erljio gaietan errialde naasirik baldin ba'zan amaseigarrren mendeko kristaudian, errialde ori Europa'ren erdi-erdian dagoan Boemi zan; Praga uri ederraren inguruko zelai zabala. fru kristau-talde bizi ziran, alkarren ondoan, Boemi'n: Katolikoak, Hustarren ondorio bezela gelditu ziran Utrakistak, eta Lutertarrak, Alemani'tik Sirtu berriak auek'

Karlos V'aren anaia, I Fernando zan Boemi'ko Errege, benetako katolikoa. Eta Ungari'n gero, ta, Karlos iltzean, Alemani'n bertan egiten zuan bezela, saiatu zan Boemi'n ere lutertarrei zabalketa galazten. Ala ere sartu ziran auek; ta, sartu ziranez gero, ereje berri aien sinispidea Jaurerrian geiago zabaldu ez zedin, erbestera galdu zuan Fernando lak lutertar egiten zan boemitar oro. Alatagutziz asko zabaldu zan Boorni'n protestalaritza'

Egia esateko, ez zuten protestalariak katoliko askorik berengana-tu, baiña bai utrakistak; auek, —danak—, Jon Augusto beren gotzai nagusia buru zutela, lutertar egin bait ziran'

Arrazoi zuan Pedro Kanisio'k indarkeriak ez zuala erejirik geldiaraziko, eta indarkeria baiño jardunbide egokiagoak bazirala, esaten zuanean.

Orixe pentsatu zuan noski I Fernando Erregeak ere 1547'garren urtean.

Ain zuzen urte ortan bertan, Esmalkalda'ko printzipeak zapaldu-ta, garaille ta seguru, iñoiz baiño indartsuago, arkitzen zan Fernando'ren anai aunditsua: V Karlos Inperatorea. Bazirudian lutertarren aurka zigorra len baiño gogorrago astinzeko geraia zala. Fernando'k ordea, beste bide bat artu zuan; lengo gogorkeriaren balio-eza ikusita, Iñaki loiolatarrak sortu berriak zituan josulagunei deitu zien, Boemi'ra etorrita bertan lan egin zezaten.

Ta iñakitarrek ekarri zuten ostera uzta ederrean Elizara Bgemi,

gaurko Txekoslovakia'ren sarkalderunzko lurraldea.

Boemia'ren alboan dago Silesia. Ez zan oso txukuna Silesiar Eza-
ren egoera' Artzai gutxi ta auek ustelduak; ta, nolako artzaiak, alako
ardiak: kristaukeran ezi gabeak, gutxi jakifinak, sinismenez antzu ta si-
niskeriz beteak' Politikaz. Silesia'ko Dukaterri iarea, Inperioaren al-
tzoan zegoan orduan'

Dukaterriko agintaria' Breslau'ko gotzaia bera zan; Jon V'a, luter-
tasuna zabaltzen asi zan urte aietan; luterarren adiskide eta laguna,
bera ere.

Maltzurkeri aundiak egin zituzten protestalariak Silesia'n, fraileak
komentuetatik jaurtitzen-eta' Batez ere ez ziran motzak ibilli Elizaren
ondasunak berenganatzen. Bazirudian protestalarien mendera naita-
naiez irori bearrean zegoala Silesia guztia; baiña 1526'ean Boemia
Fernando I'ak bere eskuetan artu zuan dukaterriaren gobernu, ta
jaurrialdaketa onek salbatu zuan katolikotasuna Silesia'n. Politika-
gandiko salbapena...! (Fernando I au, V Karlos Inperatorearen anaia
zan)'

IRLANDA. Amaseigarren mendean Irlanda ta Inghilterria bi jau-
rri bereizi ziran, naiz biak Errege bakar baten mendean egon.

Enrike VIII'a ezker, egin zuten saiorik naiko Inghilterriko Erre-
geek Irlanda'n sinispide berria sartzeko. Alperrik' Naiz odolkeririk an-
kerrena erabili, ez zuten Irlanda'ko erri bikaiñik menderatu aal izan.

Enrike VIII'ak gauza bat bakarra lortu zuan: Irlanda'ko Parlamen-
tuak, eta Ugarte artako zortzi Gotzaiak, Erregea Irlandako Elizaren Bu-
rutzat onezagutzea. Ez zuan orrekin ezer aundirik lortu, Erregeak be-
rak aukeratuak eta Erregearen jostailuak bait ziran Gotzai ta Parla-
mentari aiek'

Armagh uria Ulster deritzaion lurraldean dago, Ugartearen ipa-
rrean. Gaur bezela, orduan ere, Armagh zan Irlanda guztiko Elizaren
Uri Buru. Garrantzi aundikoa zan beraz uri ortako Goigotzaiaren jokae-
ra. Zuzenki jokatu zuan, benetan, asieran beintzat Goigotzai arek, bai-
ña zoritxarrez, gero, bildurrak mendean artu zualakoedo, Inghilterri-
ko eta Irlanda'ho beste gotzaiak egin zutenaren ondorean gauzak argi
ikusten ez zitualako, makurtu zuan berak ere burua, Erregea Elizaren
Burutzat artuaz.

Gero ikusiko dugun lez, Elizaren Buruzagitzako arazoak ez ziran
orduan gaur ikusten ditugun beazain argi eta erre ikusten.

A, baiña! Armagh'eko Goigotzaiaren oztopoak ez zuan Irlanda'ko

erriaren sinismenarik moteldu.

Enrike zanean, egin zituan egifialak aren seme Eduardo VI'ak bere "Prayer Book" eta "Zirimoni-Liburua" Irlanda'ko Elizabaitan sartuarazteko. iBost Gotzai. makurtu ziran! Erria, lez! Uko egin zion Erregeari erriak bere apaizdi guztia buru zuala, Irlanda'ko Elizak lengo liturgi-liburuekin eta lengo fede zarrarekin jarraitu zuan.

Elisabete Lenengoa etorri zan Mari Katolikoaren arrena, eta bere aita Enrike VIII'a eta bere erdi-anai Eduardo VI'a baiño zitalago ibilli zan Irianda'ko Eliza menderatu naiean. Ez ziran biguñak izan Enrike ta Eduardo: gogorragoa izan zan Elisabete' Ez alper gaiztoan: len baiño sendoago bait ziraun erri menderakaitz aren sinismenak. Erregiñak egiten zituan gotzaien aldean, beste batzuk ipintzen zituan Aitasan-tuak eta azkeneko auek bakarrik ezagutzen zituan erriak egiazko go-tzai'

Oartu zan noizbait Inghlanderriko gobernua; eta ikusi zuan indar utsez Irlanda'ko erri jator ura aldatzerik ez zegoala, ta orduan Erregi-ñak eta bere jaurlariek beste egInpIde, beste gauzak egiteko modu bat, erabiltzea erabaki zuten. Auxe izan zan aginp ide berri ori: Irlanda'ra jende "protestant" edo ostelaria uga ekartzea' Ortarako, Inghlanderriko eta Eskozi'ko sendiak aukeratu zituzten, sendi nekazariak geienak, sinispide berrian ondo errotuak zeudenak. Sendi auei eman zizkieten ugarteko lurrik mardulenak.

Orduandikoak dira gaur Irlanda'ren Iparrean bildurik bizi diran ostelariak, protestalariak'

Protestalarien jopu ta morroi gelditu ziran katolikoak, baiña ezzi-ran menderatu' Atn zuzen bizkorrago, ausartiago, gogorrago erantzun zuten katoliko deuseztu, txiro, zarpajario aiek. Izan ere, atzerritar oste-lariek Irlanda'ko lurren jabe egin ziran ezkeru, katolikotasuna ta aber-tzaletasuna bat biurtu bait ziran irlandarrentzat.

Elisabete'ren eginpide nardatsu arek sortu zuan Irlanda'n politi-ka ta erlijioaren nasketa ori; ta, ordudanik, galduak ziran Erregiñaren asmoa garaille gertatzeko aaltasun edo posibilitate guztiak! INork lu-rreratu Elizaren alde ta Aberriaren alde batera gudu dagian erria?

Edonork daki nasketa orrek gizonen biotzetan sortzen duan go-rroto beltza' Lekuko eta testigu dira erdi-aroko ta gure egunetako "gurutze-gudak".

Ba, ori bera gertatu zan irlandan ere. Gudaketa gordiña piztu zan Irlandar katoliko eta inglanderritar ostelarien artean, gaur oraindik itzali ez dan gudaketa.

Neke, oiñaze ta samintasun aundiak jasan bear izan zituzten Irlandarrek Elisabete'ren erregentzan, nazkagarriak izan bait ziran Erregiñak bidalitako jaurle edo gobernadore zipotzen gogorkeri odoltsuak. Agintari zeken auen artean ez dute aztu irlandarrek Gray jaurleri besatia'

Elisabete ilda, buruntza Jakob lak artu zuanean argitu zan itxaropena katolikoentzat. Enrike VIII'aren alaba Mari Katolikoaren denboran gertatu zan bezela, espero zuten katolikoek Inghlanderrian bertan ere, ostera gobernu katoliko bat etorriko zala' Ez zuan noski Jakob l'ak itxarobide aundirik eskeintzen, ordurako ogeita bost urte bai bait zerarnazklan Eskozi'n agintzen, eta biotzez protestalari zalaren aztarrik naiko eman bait zuan'

Baiña Mari Stuart Eskozi'ko Erregiñ katolikoaren semea zan-da.", bere ama gaiñera Elisabete'ren borerreruen aizkorapean erdimartiri zan-da..., bazuten aldakuntza baten, edo beiñepein, pake-aro baten itxaropena ango eta mundu guziko katolikoek.

Irlandarrek... bidali zioten ordezkari talde bat Elizarentzat pakea eskatuaz' Erantzun makurra Jakob Lenengoarena.

Inghlanderrian baiño gogorragoa izan zan oraindik Irlanda'n Mari Stuart'en semea. Erabat katolikotasuna desegin naiean, 1603'an Irlanda'ko apaiz katoliko guztiei erbestera irtetzeko agindu zien; eta agindua betetzen ez zuan guztia eriotzaz zigortu zuan.

Ez zan irlandarren sendotasunik auldu.

Karlos l'ak ekarri zuan "Ugarte Orlegira" pakearen antzeko zerbait. Bazuan noski Errege onek, asieran beintzat, borondate ona. Baiñan ez zeuden protestalariak, ez Inghlanderrian ez Irlanda'n amore emateko asmotan. eta bizkortu zan. atzera berriz, katolikoek aurkako erasoketa. Baita ere irlandatarren amorrua, eta jaiki ziran auek ostera, 1641'ean. Inghlandarren aurka, Ulster'ko lurretatik asita.

Ala'ere, I Karlos'en alde jarri ziran irlandarrak, Inghlanderriko Iraultzan, bai bait zekiten "puritans" edo gaibizaleek irabazten ba'zuten, Irlanda'ko zoria okerragoa, milla aldiz okerragoa izango zala.

Ondo gogoan zeukan ori Oliberio Cromwell, garbizaleen buruzagiak, Karlos I erregeari buruntza ta lepoa kendu ondorean, bere burua Inghlanderri, Eskozi eta Irlanda`ko Laterrien "Jaun Zaindari", "Lord Protector", au da, Diktadore edo Agintaritzar bakarra, egin zuanean. Su ta gar sartu zan Irlanda'n. Izugarria izan zan katolikoentzat ekaitza. Bere jendearen iru Orden bat galdu zuan gudaketa artan irlandako Eliza Katolikoak, Ots; Irutik bat izan ziran Elizak galdu zituan semeak, ta

ez noski Eliza ukatu zutelako' Ez orixe' Sendo dirau oraindik katolikotasunak "Doneen Ugartean"

Askok eta askok, bizia galdu zuten. Asko ta asko, erbestera irten ziran.

Enrike VIII'aren denbora ezkerro asitako erbestetze orrek gaur-gaur arte iraun du Irlanda'n. Naiz erlijio-zigorketatik igesi, naiz aberri aldeko matxinaden ondorean Inghlanderriko aierkunde edo bengantzatik alde egiteagaitik, naiz bizi bearPak ekonomi lander eta pobre bateko lurretik botata, betikoa izan du Irlanda'k jende-ixurtze eten gabe ori. Zorionez Elizarentzako; bere aberrian bezain kementsu ta fededun agertu bait dira irlandarrak bazter guztietan.

Irlandar erbestetu oiek izan dira toki askotan, batez ere Ipar Amerika'n, eliz-barruti katoliko askoren lendabiziko azia.

Bedi aintza, bedi esker on, Irlanda txiki bikaiñari, ondo mereziak ditu-ta.



FRANTZI

FRANTZI. Oso goiz asi zitzaigun lutertasuna Frantzi'n zabaltzen, eta frantziskotar praille bat izan zan lenengo zabaltzalea: Lambet Aita; 1522'an.

Urrengo urtean, 1523'an Guillermo Farel ospetsua izanen da luterarren alde itzegiten ta erakusten asiko dana. Ta laister, beste praille batzuk alkartuko zaizkio lan ortan.

Izan zituan baiki etsai gogorrak lenen denborako luterkeritza arek: Frantzi'ko Errege Frantisko I'a, Parlamentua, eta Paris'ko Sorbona Ikastetxe Garaia, kristaudiko ikastetxerik garaiena. Irurak irten ziran luterarren aurka'

Sobornak 1521'ean "Determinatio", "Erabakia", izeneko idazkitxo bat argitaratu zuan. Idazki ortan, zalantzarik gabe gaitzesten zituan Luter'en dotriñak.

Parlamentuak berriz urte ortan bertan Idazti Doneak Elizaren baimenik gabe argitaratzea debekatu zuan' Baimen-emate ori Sorbonako teologilarien eskuetan geratzen zan.

Asiak ziran ordurako teologilariak ere beren-kasa lutertasunari erasotzen. Protestalaritzaren aurkako lenen teologilari aien artean Noel Beda, Montaigu'ko Ikastetxe ezagutuaren zuzendaria, izan zan aipatuena.

Baita Gotzaien Inkisizioa ere laister asi zan lanean' 1523'an zuen suak Jon Valliere agustindarra, Frantzi'ko protestalarien aurreneko martiria.

Erregea ere etsai aurkitu zuten ostelariiek.

Bikoitza izan zan beti Frantzisko lak Lutertasunari buruz erabilli zuan politika. Protestalarien aldekoa, ots!, Printzipe ta Laterri protestalarien aldekoa, —ez protestalaritzaren aldekoa—, kanpoan; protestalarien aurkakoa, eta gogorra, Jaurerriaren barruan' Kanpoan'.., ostelarien bearra zualako, bere betidaniko etsai Karlos V inperatorearen

aurka guda egiteko. Barruan..', bere gogo osoz katoliko izanik, berrikerizaie aiek gorroto zitualako.

la milla izango dira bere erregetzaren denboran Frantzi'n bizia galdu zuten protestalariak' Auetatik geienak, 1540'a ezker bost urtean Erregearen justiziak erail zituan baldotar zaarrak dira. "Baldotarren Aragikintza" deitu zitzaion erailketa oni; "Boucherie", "Aragitxiketza". Egia da aurretik izugarrikeri aundiak egin zituztela baldotar ostelari auek. Ala ere arriturik gelditu omen zan Erregea bera, odoitza aren berri izan zuanean.

Zalantzan ibillia zan Frantzisko protestalaritzaren aurreneko momentuetan. Karlos V Inperatorearen aurka ekiteko Alemani'ko lutertarren laguntza bear zualako?; Birjaiotzako gizadizaleen lagun bezela, adimenarentzako askatasun geiagoren maitale zalako?; Garai artako beste jakintsu askoren antzera Martin Luter'en irakatsietan arriskurik ikusten ez zualako?...

Erregea bere biotzean egiazko katolikoa zala, dudarik ez duan gauza da. Ala ere gogorkeriaren eta beraxkeriaren artean igaro zuan bere agintaritzan'

Alde batetik Bada teologiadazle katolikoa, lutertarren etsairik bizkorrena, bi aldiz Jaurerititik erbesteratu zuan'

Beste aldetik protestalarien aurka maiz lege gogorrak eman zituan; 1533'ko lege baten bitartez erejia osoro desegitea agindu zuan.

Ordurako indar-arten asiak ziran Frantzi'n protestalariak. Kalbin bera ere ari zan lanean eta bereganatu zuan Sorbona'ko Irakasle Garaia bera, Nikolas Cop Erretorea' Zarata aundia atera zuan 1533`an ikastaro edo kursoa asteko Cop erretoreak eman zuan itzaldiak. Bearbada Jon Kalbin berberaren laguntzarekin idatzia zuan itzaldi ura.

Biak, erbestera galdu zituan Erregeak.

Paris'ko karrika ta enparantzetan ere ausarki agertzen ziran protestalariak. Ausarki ta lotsagabe. Aipatua da 1534'ko "Iragarkien Auzia", "L'Affaire des Placards". Frantzi'ko uri aundi geienetako ormetan letrero edo iragarki ikusgarri ugariak erantsi zituzten katolikoekin sinesgai kuttun eta maiteenei irain zakar egiñaz.

Sumindu zan erri katolikoa, batez ere Paris'ko erria. Frantzi'ko katolikotasuna agertzeko prozesio aunditsu bat egin zuten paristarrek. Ibilgune fedezko artan ikusi zituan erriak bere buruzagirik garaienak: Sorbonako Ikastetxe Nagusia, Paris'ko Parlarnentua, Erregearen sendi osoa, Lateralari Jauraritza, eta baita Frantzisko I Erregea bera ere. Orduan eman zuan onek erejia sustraitik desegiteko agindua.

Baiña berealaxe eman zuan beste lege bat ere lengoa ezereztuaz: "Couoy'ko agindua". Erejeei espetxeko ateak irikitzeko, eta kendu zitzaizkien ondasunak itzultzeko' zion Erregeak agindu ontan.

Politikaren aizeak zerabilkian bere mendean Frantzi'ko Erregea. Aurrera zijoan erejia. Aundikien artean ere izan zituzten laguntzailleak sinispide berriaren ereilleek' Danetan ospetsuena, naiz bera katolikoa izan, Valois'tar Margarite, Naparroa'ko Erregiña.

Orrela aurkeztu oi dute edestilari batzuek Naparroa'ko Margarite: lenen-protestalarien laguntzaille bezala. Baiña, egia esatekotan, Margarite ez zala protestalari aien laguntzaille izan esatera bearturik gauda. Margarite, soilki, aztertuta daukagun Meaux'ko lagunarte artako Eliza-garbitu-zaleen adiskide eta lagun izan zan biotz guztiz. Egia da, lagunarte artatik amabost bat gizon protestalaritzara igaro zirala. Baiña, ortan, Margarite'k errurik ez du.

Baiña geroxeago lenen-lenengo garrantzia izango bait dute Frantzi'ko protestalaritzaren zabalkundean errege naparrek, on deritzaigu emakume ospetsu oniburuz zerbait esatea'

Frantzi'ko Frantzisko Iaren arreba zan; au bezela Karlos Angulema'ko Dukearen eta Saboia'ko Koldobike'ren umea' Orregaitik, "Margarita Angulema'koa" ere deitu oi zaio. 144532'an jaio zan'

Amazazpi urteko neskatilla zala Alenson'go Dukearekin ezkondu zan, ta au ilII ondorean, ostera, Naparroa'ko Errege Enrike II'arekin 1527'an.

Jakiña da Aragoi'ko Erregea, Fernando "Katolikoa", 1512'an sartu zala Naparroa'n indarrez, eta Naparroa'ko Errege ziran Katalin I'a eta Jon Albret bere senarra, Auñamendrz onunzko lurraldeak galduta, Jaurerriaren iparraldera iges-egin bearrean aurkitu zirala. Katalin eta Jon aien semea zan Valois'tar Margarite'rekin ezkonduako II Enrike au.

Ta Enrike II'a izan zan, bere aita Jon Albret il ondorean, Naparroa'ko Errege bezela, legez berea zuan Jaurerriaren egoaldeko lurra artu nairik españiarren aurka gudan sartu zana.

Fernando "Katolikoangandik'erentziz artuta, bere billoba Karlos lak (Alemani'ko V'ak) zeukan eskuetan Naparroa'ko egoalde guztia, ibertako errege bezela! Naparroa ez bait zan ez Aragoi'ekin ez Gaztella'rekin naasi; Jaurerri iare ta askatua jarraitzen zuan bere legedi, gobernu, diru, ta erregetza bereiziarekin, naiz erregetza au Españi'ko erregetza zeukan persona beraren eskuetan egon. Ain zuzen, eusko Jaurerrirako izenpetzen zituan legeetan Karlos'ek ez zion

bere buruari ez "Lenengoa" ez "Bostgarrena" deitzen, "Laugarrena" baizik: "Karlos IV'a Naparroa'ko Erregea".

Alperrikakoa izan zan II Enrike'k Karlos IV'ari Naparroa'ren egoaldea kentzeko egin zion borroka ura' Ez orregaitik erabat alperrikakoa, edestiarentzat beintzat. Gudu artan jausi bait zan zauriturik Iruña'ko arresietan Iñaki Loiola'koa, Gaztela'ko aundiki baten zaldun lez, —ez, esan oi dan modura, Gipuzkoa'ko gudarien buruzagi bezela—, Enrike II'aren aurka borrokan. Zauri orren ondorena izan zan Loiola`ko zaldun gaztearen animako aldakuntza. Zauri ura zala bide Gaztela'ko Erregearen serbitzura zegoan zalduntxo ez-ezagun bat —Eneko Loiolatarra—, edestiak izan dituan pertsonarik aundienetako bat biurtu zan: Loiola'ko Iñaki Donea'

Gudua bukatu ondorean ezkondu zan Enrike II'a Margarite'rekin. Emakume asko-ikasia ta jakintzaren gai guztietan iaioa zan gaztetandik andre au, Birjaiotzako printzesa bateri zegokion bezela. Adimen zorrotzekoa ta itxura egokikoa gaiñera, artiste edo ertilarien laguna; idazle bikaiña bera ere, liburu baten baiño geiagoren egillea. Bere idazkirik ezagunena "Heptameron" izenekoa da; izenak berak adierazten duan bezela Boccaccio italiarraren araura idatzia.

Kristau biziera garbiaren egarri ere bazan Margarite. Lutertasuna zabaldu baiño lenagotik Elizaren berritzea eskatzen zuten gizadizaleen artean pertsonarik garrantzitsuenetako bat izan bait zan Naparroa'ko Erregiñ au.

Almen aundia izan zuten eliz-urduritze artan emakumeek. Ba, emakumeetan eragipen edo Infruentzirik aundiena, Naparroa'ko Erregiñak izan zuan. Bere aldean atzera gelditzen dira garai artako beste emakumezko argi ospetsu ta igikor aiek: Renee Ferrara'ko Dukesa, luterarren laguntzaillea; Bitori Colonna olerkari bizkorra, Mikel-Gotzon, Valdes, eta Rexinal Pole Kardenalaren adiskide aundia, idazle xamar bezain katoliko benetakoa; Katalin Cibo, Idazti Doneak obeto ezagutzeko galeak edo deseivak bultza-ta elenera ta eberkera ikasi zituana, Kaputxinoek aurreneko urte zailletan izan zuten euslerik leialena; ta..', ta"., izeinbat olako gelago!

Etaples'ko Lefevre'ren laguntzalle ta babesle izan genduan Naparroa'ko Margarite. Lutertarra edo kalblindarra ote zan ba Margarite bera? Lefevre beti izan katolikoa, naiz Luter'en aurreneko urteetan beronekin eta beste berrikerizalaren batekin jostaketa geiegi erabilli' Margarite'ren jauregian il zan pakean. Margarite'ren itzalpe gozoan bi zitu zan, Lefevre'ren beste lagun berrizale bat ere, Gerard Roussel.

Meaux'ko lagunartean pertsonarik garaienetakoa izan zan Gerard Roussel au' Orretxegaitik egin zuan Margadte'k bere kapillau eta geroxeago Oloron'go Gotzai izendatu zuan, Oroi, aldi artan Bearne Naparroa'ko Jaurerriarekin alkaturik zegoala. Gerard Roussel gotzaia, protestalari egin zitzaigun azkenean, Margarite iIII ondorean'

Margarite'k ondo ezagutzen zituan lutertar berrikerizaleen gogapenak, eta ori argiro ikusten da bere poemetan. Ala ere ez da iñor ausartzen Naparroa'ko Erregin dizdiratsua protestante edo ostelari izan zanik esatera. Ebangeliozale oso-osorik zala, ori bai. Ain zuzen, Meaux'ko lagunartekoak, —eta batez ere lagunartearen zuzendaria, Gillermo Brizonet, Meaux'ko Gotzaia—, ebangeliozaleak ziralako egin zan Margarite lagunarte aren aingeru zaintzaile' Ta Luter ta beste berrikerizaleak ebangelioaren lagun amorratu agertzen bait ziran..., baleike orretxegatik Naparroa'ko Erregiñak berritzaillleei asieran alako joera bat izatea.

Asieran! Asieran bakarrik' Berritzaillle aiek Elizatik-kanpo zebii tzala oartzeke! gero, aien asmoetaz oartu zanean, urratu bait zituan aiekin izan zezazkean lokarriak.

Nola daiteken Margarite bezain emakume jakintsu batek berritzaile ileen asmorik ez ikusi izatea? Ikusi al zituan Moaux'ko Gotzaiak?, Ikusi aI zituzten Lefevre'k edo Erasmo'k berak? Ikusi al zituan, asiera artan, Leon X Aitasantuak ber-berak, eta aren inguruko aolkularijendeak?

Baiñan gure Margarite beti, eta batez ere protestalaritzak bere egiazko aurpegia erakutsi zuan ezkerre katoliko zintzoa izan ba'zan ere, protestalari izan zan osoro, —kalbindar gogorra—, bere alaba Jone Albret, eskubide eta lege osoz, —ez Margarite bezela ezkontza utsez—, Naparroa'ko Erregiñ izan zana: Naparroa'ko 11 1 Jone.

Naparroa'ko Enrike II'a bere Jaurerriko Paube urian 1548'an il zanean eseri zan Jone eusko-errege-aulkian' Bendoma'ko Duke Borbon'darrarekin ezkondu berria zan eta Enrike III'aren —Frantziko iV'aren— ama izan zan'.. Baiña ontaz bere garaiean itzegingo dugu.

Euskalerrian ez zan sartu protestalaritzarik. Bai orde Frantzi'an, Frantzisko l'aren jirabirak lur mardula ta giro egokia gertu bait zioten berrizaleen ereintzari. Laister ordea, Errege au iltzean, aro latza etorri zitzaion ereintza arri.

11 ENRIKE (1547 1559). Frantzisko I'aren semea, Katalin Medizi, Klemente VIII'aren illobarekin, ezkondua; Errege gogorra izan zuten protestalariek' Gaizki ibilli ziran Frantzisko Iaren denboran. Oroi aren erregetzan eraillak izan ziran guztiak, Estebe Dolet adibidez eta Meaux'ko amalau martiri protestalari aiek. Altagutziz, okerrago ibilli ziran II Enrike'rekin, aal-egin guztiak egin bait zituan onek, ezpata eta sua erabilliaz, bere Jaurerrian protestalaritza zearo ezerezteko. i Dana alperrik!

Enrike II'aren bi besoak Montmorency "Kondestablea", eta Guise edo Gisa'ko Dukea izan ziran. Azkeneko au batez ere'

Ona Enrike II'aren erejiaren aurkako ekiñaldi latzak:

1547. Parlamentuaren altzoan Batzorde bereizi bat eraikitzea Frantzi osoro erejiz garbitzeko. Ez zan batzorde ori bere eginkizunean motza gelditu; ez orixe, iru ortetan 60 (irurogei) ostelari sutara bota bait zituan. Ez zitzaion arrazoirik gabe "Chambre Ardente", "Batzorde Kixkaltzaillea", deitu.

1551. "Chateaubriand'eko AgIndua", ordurarde erejiaren aurka emandako lege guztiak batera biltzeko. "Agindu" onen asieran, aitor-tzen du Erregeak ordurarteko ekintza guztiak ez zutela erejia desegitarik lortu, eta bein betirako elburu ontara irixteko, utsunik gabe erne ibiltzeko agintzen die Jaurerriko epaille eta ertzaiñei; **ertzaiñ** oiek legearen babesik gabe senti ez daitezen, 46 artikulua edo ataltxoetan zigorpen izugarriak iragartzen ditu erejeen aurka, eta auen idazkien argitaratze, zabaltze, eta irakurtzearen aurka.

1557. "Batzorde Kixkaltzaillearen" galdak eta "Chateaubriand'edo Aginduaren" ankerkeriek ez zuten protestalaritzarik eragozi. Ain zuzen, igarotako amar urte auetantxe egin zuan onek bere zabalanderik aundiena. AIa ere, egitan uste zuten Enrike II'ak eta bere laguntzailleek gogortasuna izkillu egokia izanen zala ostelari zari amaia emateko! Orregaitik atera zuan argira Erregeak "Compiègne"ko Legea, gogorkeriari gogorkeria erantsiaz.

Elizako epailleen eskuetatik kenduta Erregearen epaillei ematen zitzairen erejeen epaiketa, ta erejiaren aurka eriotza ipintzen zan zigor bakarra beste kastigu-mota guztiak baztertuaz.

Enrike II'a bere nairik lortu gabe il zan' Iñoiz baiño sendoago zegoan Frantzi'n kalbintasuna. Erasoaldi izugarri arek zaildu, bizkortu, egin zuan. Une ontarako ia Frantzi'ko ostelari danak kalbindarrak ziran. Ez du iñork argitu zergaitik Jon Kaibin'ek Martin Lutereri ain errex ta osoki eskua kendu zion lurralde ontan. Frantzi'ko edestilariek

diotenez frantzitarren izateko moduari kidekoa omen zaio Jon Kalbin'en arrazoiketa otz• eta burukoia; Martin Luter'en sentikeri be-roa baiño geiago. iFrantzitarrak sentimentu-jario ez balira bezela'..!

A!, Frantzi'n protestalariak ala zigortzen zituan bitartean, lotsarik gabe alkartu zan Enrike II'a, Karlos V Inperatorearen aurka, Saxoni'ko Maurizio ta beste printzipe lutertarrekin, gero Felipe II'aren aurka gu-da egiteko Paul IV Aitasantuarekin alkartuko dan bezela. Ez zuan la-gunak aukeratzeko eskrupulorik Errege frantziarrak.

* * *

KATALIN MEDIZITARRA. Enrike II'aren ondorean onen alarguna, Katalin, izan zan luzaro Frantzi'aren destinuen jabe bere iru semeak (II Frantzisko, IX Karlos eta III Enrike) izenez errege ziran bitartean. Kata-lifren aro guztia eten gabeko gudatea izan zan; erlijio-guduen aroa.

Frantzisim II'aren izenean asi zuan bere agintaritzza naasi ta biu-rria Klemente VII'aren illobak.

Frantzisko au, Mari Eskozrko Erregeingai pinpirifiaren senar gaz-tea, urte bete doidoi egon zan (155453 - 1560) Errege-aulkian, baiña izan zan ajolazko gertakizun bat urtetxo ortan.

Esan dugun bezela Enrike II'aren erasoketatik, —askotan erre-gearen lege garratz aiek ez bait ziran egoki bete ere—, bizkor ta in-dartsu atera ziran "ugonatak"

Oraindik ziurki iñork ez daki zergaitik kalbindarrei Frantzi'n "hu-guenots"deitu zitzairen, baiña izen orrekin ezagutzen ditu edestiak.

Ugonotak ziran Frantzisko H'aren garaierako frantzitar aundiki asko, auen artean Coligny anaiak, (Gaspar Coligny almirantea, Frantzisko-Andelot Coligny jenerala edo gudari-burua, eta Odet Co-ligny kardenala, amar urte besterik ez zituala kardenal egiña eta amai-ka urte bete zituanean Tolosa'ko Goigotzai izendatua).

Ugonota zan Jone Naparroa'ko Erregiña ere. Ta ugonotak ez ba'ziran ere, "gisatarrei" zien bekaizkeriagaitik, ugonoteen laguntzai-lle ziran beste bi anai ospetsu: Luis Kondeⁱkoa eta Andoni Borbon'goa, Jone Erregiñ naparraren senarra azkeneko au. 400'000 zi-ran guztira ugonotak 155453'an Paris'en egin zuten Sinodo edo Billeran berak aitortu zutenez.

Ez ziran ordea ugonotak sinodo-egiten bakarrik saiatzen. Errege gazteari ta gisatarrei egalak, —ta agian "egalak" baiño zerbait geiago ere—, moztu naiean, "Amboise'ko Matxinada", "La Conjuración

Kd'Annboise" deitu oi dan altxakundea gertu zuten. Asmo auek, ordea, iritxi ziran agintarien belarrietara. Matxinadaren buruzagiak illak izan ziran, eta Konde'ko Luis bera, Naparroa'ko senar-erregearen anaia, espetxean itxia eta lepoa gaitzera gaitzetsia. Frantzisko II'aren eriotzak salbatu zion bizia, Errege berri baten etorrerak eman bait zion Katalin medizitarrari politikaz aldatzeko modua.

Errege berri au Karlos IX'a izan zan, (1560 1574), Katalin Medizi eta Enrike H'aren bigarren semea' Mutiko gaztea bait zan au ere. ama Katalin Vek jarraitu zuan Frantzi gobernatzen. Esan dugu, Errege berriarekin politikaz aidatu zuala Katalin Medizitarrak. Ordurarte gisatarrak erabili zituan babesle Baiña indar aundiegia artu bait zioten auek, orain, gisatarren indar ori moztutzeko, al zuan guztia egitea pentsatu zuan' Bi gizaseme trebe ziran une artan sendi ospetsu aren buruzagi: Frantzisko, Gisa'ko Kontea, eta Karlos, Lorena'ko Kardenala; Frantzi osoaren egiazko nagusiak.

Bi anai auei nagusitza kentzeko, bere eskuetan artu zuan Katalinrek osoro jaurlaritza; ugonotei askatasun aundia eman zien eta Frantzi'ko gobernuan sartu zuan Andoni Borbon Naparroa'ko ezkon-erregea.

Irabazi aundia zan au kalbindarrentzat baiña ez zuten auek zugutasunik bear aiña izan orrelako garai egokian. Arrotu ziran ta egin zituzten apaiz-erailketak eta beste okerkeriak; Batez ere Frantzi'ko egoaldean ankerkeri izugarrietara jo zuten.

* * *

Gutxi gora-bera garai ontakoak dira Jone Erregiñak Naparroa'n kalbintasuna sartzeko egin zituan saiaketak. Ortarako bidali zuan bere Laterrietara kalbindar predikalari sail bat, eta ortarakoxe agindu zion bere Kapillau Jon Leizarrage'ri Itun Berria euskerara itzultzeko. Itzulpen au izan zan, —1545'ko Etxepare'ren olerki-liburutxoaren urrena—, euskeraz agertutako aurreneko benetako liburua; izenburu onekin irten zan: "Jesus Krist gure Jaunaren Testamentu Berria' "Matth. XVII; Hau da ene seme maitea, zeinetan neure atsegin ona hartzen beitut. Huni beazakizkiote".

Leizarrage berorrek beste bi idazkitxo ere argitaldu zituan: "Kristau-lkasbidea" edo "Katekismoa": eta "Egutegi" bat.

Ez zuten gauza aundirik lortu 111 Jone Albret'arraren literaturazko ekintza oiek Euskalerrian. Liburuak, erreak izan ziran. Eta "artzai" ser-

moilari kalbindarrei entzungor egin zien jendeak.

Jone'ren aurretik ere izan genituan protestalaritzaren aztarnak Laburdi'n; Baiona'n batez ere. 1541¹ean. Lutertarrak ziran epaileen aurrera agertu-bearrean aurkitu ziran Martin Detxabide, Pier Haspuru, Martin Dominique, eta Renè Charretier. Burgesikumeak danak, eta azkenekoa, Charretier, irudigillea'

Baiona'ko udal-kontzejuan bertan sartuak zeuden lutertarrak garai artan. Ezagunak dira Kontzeju artako ziñegozi edo kontzejal batzuek, Doneleon'en gorpuzkiñen aurrean ziñegiterakoan ipiñi zituzten kezka eta eragozpenik.

Zuberoa'n Gerard Roussel izan genduan lutertasuna erein naiean saiatu zitzaiguna. Ez zaigu arrotza Roussel onen izena. Oroi Margarite Erregiñaren adiskide izan zan zala, arek bere kapillau eta gero Oloron'go gotzai Amaiera makurra izan zuan gizagaixoak.

Zuberoa'n ere jauntxoren batzuk bakarrik, oso-oso gutxi, sartu ziran berrikerizaleen bidetik: Spende'ko Enecort (gero Jone liraren idazkari izango zana), Beltzuntze'ko Jon (Maule'n gazteluko Jaun eta uriko Jaurle), Gerard Bela, (Erregetzaren Ordezkarri Orokorra), eta Jacques Bela (Gerard'en semea, Maule'ko Epailea).

1555'ean artu zuan Naparroa'ko Buruntza 11 Enrike Albret eta Margarite Valois'en alabak: Jone III'ak; eta urte ortan bertan ziñatu zuan Naparroa'ko Lege Zarra. 25 urteko emakume gaztea zan.

20 urte zituan Jone'k Borbon'go Andoni'rekin ezkondu zanean' Katolikoak ziran biak orduan, ez ordea sinismen sendoegikoak. Senarra, aurrena katoliko, gero kalbindar, eta azkenean osterako katoliko izan zan, eta katolikoan alde borrokan il zan Frantzi'ko Lenen Erljio-Guduan, bere emaztea kalbindarren alde itxu-itxuan sarturik zegoan unean, ain zuzen.

Se r-emazteak ez ziran beñere oso ongi konpondu. Senarra, Birjaiotza-aroko gizona,, txit irikia zan pentsaeraz. Emaztea berriz, kontzientzi estukoa, kalbintasunean fanatismofrario iritxi zitzaigun emakumea' Ez zan beñere, —baiki bere ama Margarite izan zan bezela—, neska polit-ederra izan. Margo-irudian agertzen zaigunez, luxea eta txorrotxa zuan sudurra, eta extua, (barruko kontzientzi-estutasunaren adigarri), aurpegiko axal txoria.

Ez zuan bere Laterrietan arazorik izan katoliko iraun zuan bitartean.

Zuberoa'n, aurrera ziardun Gerard Roussel Gotzaiak Luter'en ol-zokera zabaltzen. 1555'garren urtean, Beraute'n ari zan sermoiketean.

Sumindu zitzaion entzuleetako bat, Maitie'ko Arnaud, jeiki zan aulkitik, atera zuan izkutuan zeraman aizkora, eta bi kolpetan Gotzai izlariaren pulpittuari zutabea ebaki zion. Lurrean gelditu zan Gerard Roussel Gotzaia, erortzean arras elbarrituta' Ez zan geiago jeikitzeke gauza izan, eta andik egun batzuetara il zan, Dagonillaren 15'ean.

1560¹ ko Eguberriz egin zitzaigun kalbindar Jone Benetan eta biotz-biotzez. Eta arrezkero, bera izango genduan kalbintasunaren alde, aro artan ari izan ziran apostoluetan apostolurik sutsuenetako bat'

Berealaxe, sermoigintza debekatu zien apaiz katoliko guztiei; eta, apaiz aien orde, itzlari kalbindarrak bidali zizkigun' Andik denbora gutxira Gorputz eguneko ibildeuna galerazi zigun, eta geroxeago, eriotzaz zigortzen zituan meza ematera ausartu zitezkean apaiz guztiak!

Aurkaketa geiegirik egiteke, makurtu zuan burua Bearno'ko jendeak, Naparroa'n Erregiña bezela, an, Bearno'n, Kontesa zan Jone'ren esanera. Naparroa, ordea, iez izaki Bearno!.

Asarretu ziran, izugarri asarretu ere Naparroa'n euskaldunak, eta baita borrokarako gertutzen asi ere' Ortarako, Luxe'ko Karlos'en inguruan Alkarte bat egin zuten katolikoek. Garamont'eko Kontea, ordea, agramontesen buruzagia, Jone Erregiñaren alde jarri bait zan..., eta Luxe'ko Jauna, beamontesen gudu-agintaria bait zan aspaldidanik Iparralde artan, lara or ostera berbizturik, Erregiñ zital aren erruz, antziñako anaiarteko-gudu nazkagarri, anker, aberri-ondatzaille ura!.

Erregiñak, kalbitasunik artu nai ez zuten elizjendeei, zituzten ondasun guztiak kendu zizkien; eta erria mederatzeko, bere sem² bidali zigun Enrike, 15 urteko mutilla, gudari-sail baten aintzindari.¹

Errez zapaldu aal izan zuten Enrike'ren gudari aiek, oraindik ondo prestatu gabe zegoan Alkarte Katolikoa. Erregiñaren epaiketa zorrotzak Alkarte artako iru gizon eraman zituan urkamendira. Miñ bizia eman zion ankerkeri orrek Naparroa'ko jendeari, eta piztu zan berriro gudua.

156453'an, Montgomeri, eskoziar-jatorriko guda-buru ezaguna bidali zuan Naparroara Jone III'ak. Aberekeri izugarriak egin zituan an eskoziar aren gudarozteak: lapurtu, etxeak, gazteluak eta batez ere elizak erre, apaizak il...

Eta Benaparroa'n ez eze. baita Zuberoa'n ere! Ildakoen artean oroi dezagun Etxegarai apaiza, Jon Etxegarai, larogei urteko agure martiria.

Gero eta asarreago zebillen Naparroa'ko erria bere Erregiñaren aurka, Batzar Nagusiek berak, ots, Naparroa'ko Korteek, egin zuten Jone'ren politika-modu aien aurka osteketa edo protesta egokia. Ez zan pakerik lortu.

1572'garren urtean il zan III Jone Erregiña, Naparroa'tik urruti, Blois'ko gazteluan. Badira, bear bada pozoiez erailla izan zala, esaten dutenak ere. Baleike. Erljio-Gudu aien giro zikiñean edozein gaiztake-ri bait zan posible.

Urte artan bertan artu zuan Naparroa'ko Buruntza Jone'ren semeak, Naparroa'ko III Enrike'k' bost urte leenago Jone'k Naparroa menderatzera bidalitako Printzipe gazte arek. Buruntza jantzi bezain laister eman zion askatasuna, Naparroa'n, katolikotasunari' Altaguztiz, naparrek askatasunaz gaiñera, katolikotasuna Naparroa'n Laterriaren sinispide bakar egitea eskatzen zuten-da, 1574 arte ez zan gure artean pake osorik lortu. Erriak, euskaldun erri xeak salbatu zuan Naparroa'n katolikotasuna!

* * *

156453'an egin zuan III Jonek azken ekiñaldia.

Urte ortan Frantzi'ko Karlos 1X^lak, osoro kalbindar egiten ari zitzaion Jaurerriaren egoaldea ostera katoliko biurtzeko asmoa artu zuan. Baita ordea, Naparra'ko Erregiñak bere Laterrietan protestalaritza salbatzekoa ere!. Baiña protestalaritza salbatze ortaz gaiñera, agian-agian, beste zerbait billatzen zuan III Jonek: Iparreko Naparroa'n bere agintaritza feudalarimodura sendotzea].

Zuberoa eta Naparroa (Jon-e'ren ipar-Naparroa eta baita Fellpe'ren Ego-Naparroa ere), Laterri iareak ziran, beren buruen ja-beak, agintaritza erregea-baitan ez baiña beren Batzar Nagusien baitan zutenak.

Bere burua agintari feudalarari biurtzeko ez zetorkion gaizki Jon'eri bere lurraldeak kalbindar egitea. Ikusi dugu nola bidali zigun Montgomery buruzagia eta nola makurtu zitzaizkion bearnoko jendeak eta nola aurpegi eman zioten Euskalerrikoek.

Bitartean ekaitz-giro zan. Frantzi'n' Giro ortan, lertu zan aurreneko tximista, ta tximist orrek piztu zuan lenengo ErljioGuda- Tximist ori Vassy'ko ugonote-erailketa izan zan' Frantzisko Gisa'ko Dukearen gudariak egindako erailketa: 74 illak; 100 zaurituak' Katolikoek artean ere izan zan elbarritu bat baiño geiago' Auen artean Dukea bera, borrokalarien erdian jartzen asi zanean zauritua.

Jeiki ziran ugonotak, Luis Konde'koa, —30.000 gudarien aitzinean—, buru zagi zutela, eta jaio zan lenen gudua. Baiño Dreux'ko borrokaldian menderatuak izan ziran ugonotak (1562) eta Konde'ko Luis bera katigu erori zan.

Katolikoak ere galdu zuten aurreneko erlijio-gudu onetan beren buruzagia, Frantzisko, Gisa'ko Kontea. Orleans'en 11 zuan, iñor oafztekg maltzur batek. Orleans errendiarazi naiean zebillen Gisa, uriaren barruan gorde bait zan Coligny Almirantea, protestalarien buruzagia.

Aurreneko Guda ontan il zan, katolikoan alde borrokan, Bourges artu ondoren Rouen artzera zijoanean Borbon'dar Andoni, Naparroa'ko Jone Illaren senarra, Errege-tituloa eraman zuan lenengo Borboia'

Tituloa bakarrik, ezkontzatik sortutako tituloa; Erregiña, eskubide osoz, Jone bakarrik bait zan Tituloz, eta izatez, eta eskubide eta aginte guztiz Errege izan zan lendabiziko Borboia, Jone eta Andoni'eren semea duzu: Naparroa'ko III Enrike. Iñon baiño leenago, Euskalerrian izan ziran bā. Borboitarak Errege!

Katolikoak irabazi zuten guda, eta ugonotak osoro galduak zeudela esan zitekean. Kataliñ Ama Erregiñaren politikeriak zimeldu zituan ordea garaitza aren emari guztiak. Aulkeriz, edo maltzurkeriz, kendu zizkion kateak Luis Konde'koari, eta askatasun aundiak eman zizkien ugonotei Amboise'ko Itunbenaren bitartez (1563). Baiña ez zuan politika-bide ortan luzaroan iraun.

Ez zan pakerik Frantzi'n! Pake arri lortzeko Españi'rekin alkartzea pentsatu zuan Kataliñ Medizitarrek, alaba bat, Elisabete, Españi'ko Felipe II'arekin ezkondurik bait zeukan.

1565'ean bildu ziran Baiona'n Kataliñ Frantzi'ko Ama-Erregiña ta IX Karlos bere semea, Elisabete Españi'ko Erregiñarekin eta onen aolkulari lez etorri zan Alba'ko Duke ospetsuarekin.

Ondoren txarra izan zuan billera arek: Bigarren erlijio gudua. Asarretu bait ziran ugonotak Frantzi Españi'rekin alkartu zitekeala pentsatze utsaz. Ori eragozteko, Erregea bere eskupean arrapatzea erabaki zuten. Garalz iritxi zan Erregea salbatzeko, Montmorency katolikoan buruzagia, 7.000 suizitarrekin. (Garai aietan, irakurle, non-nai ikusiko dituzu Suizi'ko mutillak diru truke gudari, bizi-bearrak ortara eramanda). Erregea baituran arrapatzeko asmoak uts egin ziela ikustean, jo zituan arnorruak eta izugarrizko okerkeri ta erailketa aundiak egin zituzten Nimes'ko urian' Asarretu zitzaien Erregea biziro, eta asa-

rretu zan katolikojendea ere, ta batzuen amorruek eta besteen asarreak, piztu ziguten Bigarren Erlijio-Guda. (Edestiak "Mikelada" "la Michelade" esan oi dio Nimes'ko ugonoteen ankerkeri arri, Mikel Deunaren egunean egiña izan zalako)

Laburra irten zan gudu au.

Saint Denis'ko borrokan galdu zuan bizia Montmorency katolikoek buruzagiak, garaitza lortu ondorean' Baiña naiz gudu galdu, ugonotak (Alemani'tik iritxi zitzaizkien laguntzei eskerrak) lortu zuten leendik zituzten askatasuna eta eskubide guztiak salbatzea, "Longjumeau'ko Pakearen" bitartez. (1568)

1569: irugarren Erlijio Guda, IX Karlos Erregearen anaia, Enrike Anjou'ko Dukea zan orain katolikoek aitzindaria; Konde'ko Luis, beti bezela, kalbindarrena. Auek asi zuten orain ere borroka, katolikoek gogorkerian ari ziralako. Lengo bi guduetan baiño atzerritar geiago ibilli zan irugarren ontan Frantzi'ko lurretan izkilluketan. Felipe II Espaini'koaren eta Pio V Aitasantuaren gudariak katolikoek alde; Alemani'ko printzipe protestalariak, ugonoteen alde.

Iru borrokaldi odoltsu izan zituan gudu onek:

—Jarnac'en katolikoek irabazia, aurrenekoa. Borrokaldi ontan il zan Luis Konde'koa, protestalari buruzagia, eta Coligny'k artu zuan are lekua, naiz ordurako beste bi buruzagi gaztek. bi Enrike'k ugonoteen artean ospe aundia artzen ari: Konde'ko Enrike, Jarnac'en ildako Luls'en semea, ain zuzen, eta Enrike Borbon Naparroa'ko Printzipea, Jone ill'aren eta Rouen'go borrokan il zan Antonio Borbondarraren semea ziran bi Enrike oiek.

—Montecontour'koa; 1569`ko urte artan berean osterat katolikoek irabazia' Berrito guztiz galduak zeuden ugonotak, baiña berrito ere Kataliñ Medizi Ama Erregiñaren azpikeriak salbatu zituan. Bildur zan noski Kataliñ. Katolikoek buruzagi garailleak, Gisa'ko Duke gazteak eta bere lagunek indar geiegi artuko ote zutelaren bildur. Lortu zuan katolikoek artean eztabaidak eta bereizketak sortzea. Katolikoak orrela beren artean zebiltzan artean, berbiztu ta bildu aal izan zituan Coligny'k ostelarien indarrak.

—Arnay-le Duc'ekoa (1570); Coligny'k irabazi zuan. Eta, borroka arekin, pakea ere bai' Urte ortan bertan egindako Saint German'go pakea; kalbindarrei izugarritzko bentajak ematen zizkiena: Paris'en izan ezik, beste toki guztietan beren erlijioa agirian ibilli aal izatea. Laterriko kargu guztietara sartzeko eskubidea...

Lau uri-gaztelu ematen zizkien gaiñera KatalirVek bere Dak e-

naiaren adigarri lez'

SAN BARTOLOME GAUA. Agoztuven 24'ean da San Bartolome; egun orren bezperako gauean, 23'tik 24`era, goizeko iruetatik asita Paris'en katolikoek egin zuten ugonote-erailtzak zikindutako egun ituna. Kataliñ medizitarrek izan zituan odolketa nardagarri aren kulpak, dirudianez' (1572).

Irugarren erlijio gudua amaitu zanean, buruzagi katolikoek indarra moztuzearren ugonoteen laguntasunaz baliatzen asi zan Kataliñ bere politikarako. Erregearen jauregira deitu zuan Coligny bera ere. Auek, ugonotak, ordea, ez zuten Ama Erregiñagan batere konfiantzarik eta laister asi ziran Errege gaztearen borondatea berenganatu naiean. Batez ere Coligny egin zan, gizon zintzo, atsegin eta jakintsua zalako, Karlos IX'aren lagun aundia. "Nere aita" deitzen zion Erregeak.

Bi ziran Coligny Itxas-Buruzagiaren asmoak: Errege gaztea ama Kataliffen itzaletik ateratzea; Frantzi Espaiñigandik osoro bereiztea.

Oartu zan Ikusi zuan Coligny jokua irabazten ziola, eta medizitarra zala oroiturik, Birjaiotzako politikolari italiarren modura, jokua kolpe batez amaitzea pentsatu zuan. Pozik eman zioten laguntza gisatarrek.

Egin-berria zan Agoztuaren 18'an Naparroa'ko Enrike Illaren ta Frantzi'ko printzesa Margarite'ren ezkontza' Margarite au Karlos IX'aren arreba zan, eta Coligny'k gertutu zuan ezkontza ura, Karlos IX'a ostelarien aldera erakartzeko; Naparroa'ko errege Enrike Illa bait zan Frantzi'ko ostelari guzien buruzagia!

Ugonota aunditsu guztiak Paris'en zeuden bildurik, orduantxe amaitu bait ziran Naparroa'ko Erregearen eztaiak' A zer unea, danei lepoa moztutzeko!

Ta zerbait egin bearrean zegoan gaizki irten bait zitzaion aurreneko ekintza: Almirante kalbindarrari bizia kentzea.

18'an ezkondu zan Enrike Naparra. 22'an uts egin zuten kolpean Coligny'k iltzera joan ziran gizerailleek, eta bizirik alde egin zien Coligny. Larri zegoan ostelarien erantzunari bildurrez, izugarri asarretu bait ziran auek' Aurrea artu bear zion Coligny'ri, Erregearen naimena bereganatzeko.

Arin egiñ zituan lanak eta sartu zuan Karlos IX aularen biotzean kezka bizia, Coligny ta beste ugonotak Erregearen eta aberriaren etsaiak zirala bein da berriro esanaz. Etsai aiek erlotzara galduak bear zuten. Eman zuan Erregeak azkenean baimena, ori egiteko, batez ere

Coligny erailtzeko uts egin zuan kolpe aren azpian noren eskua zebillen jakin zuanean. Errez agindu zuan bere laguntza Gisa'ko Enrike'k; ez al ziran bada ugonota aiek bere aita Frantzisko'ren erailleak?'

Enrike Gisa'koaren guda-gizonak asi zuten goizeko iruretan ugonote ezagunen erailketa' Laister alkartu zitzaizkien Erregearen gudari eta Paris'ko erriko gizakume anker guztiak.

Iru egun iraun zuan erailketak Paris'en. Beste uri batzuetara ere zabaldu zan; Tolosa'ra, Bordele'ra, Lion'era eta Bourges'era batez ere. Jende asko il zan. <:,Ogeita amar milla?. Ori esan zuan bateren batek' Ziurki, askoz gutxiago izan ziran, baiña ala ere bai millakada polita. All galdu zuten bizia Coligny'k eta ugonotarik aipatuenak, bi buruzagi garaienak izan ezik: Enrike Naparro'koa eta Enrike Konde'koa. Protestantismoa ukatuta, katoliko egin ziralako —itxura utsezko egitea noski—, salbatu bait zuten auek bizia!—

Gregorio XIII Aitasantuak erailketa aren berri izan zuanean Kepa Donea'ren Jauretxean Te Deum bat abesteko ta Erroma guztian jai aundiak egiteko agindu zuan.

Baiña, ots!. Ez zuan ortan Aitasantuak errurik, Frantzi'ko gobernu edo Jaurlaritzak txukun apainduta iragarri bait zien beste gobernuai, eta Aitasantuari, erailketa aren albistea: "Ugonotak Erregearen biziaren aurka izugarritzko jeikitze bat gertu zutela; maltzurkeri aren berri jakin zuala Jaurlaritzak; eta baita erriak ere; Erregearen bizia gordetzeko, ugonotei aurrea artuaz jeiki zirala Erregearen gudariak eta Paris'ko erria"...

¿Katalifi medizitarren esku iaioa ote zebillen gertakizunen zentzu aldatze dotore artan? Bera, jaiotzez Itali'ko Birjaiotzako printzesa, eta, jatorriz, Medizitarren leiñukoa, politika-jokuaren maltzurkerietan ez bait zitekean ez-jakiña!

Dana dala, Karlos IX'ak bizia salbatu zualako agindu zituan, ta azkarregi noski—, pesta aiek Aitasantuak'

AI Ta Kataliñ'en lana izan ba'zan gertakizunei etekin eta proetxu ateratzea, ugonoteek berak eman zioten ortarako gaia. Aspalditik ari bait ziran Jinebra'tik etortzen ziran sermoilari kalbindarrek erriari, Katoliko Eliza osoro desegin arte ez zitekeala pakerik artu, ta ori lortzeko, bearrezkoa ba'zan, agintarien aurka jeikitze ere gerturik egon bear zutela erakusten' Orregaitik ez zuan Paris'ko Parlamentuak Iru-garren Erljio-Guda amaitu zuan Saint German'go pakerik onartu nai izan.

San Bartolome gaueko odol ixurtzeak, Kataliffen jabetasuna

sendotu ba'zuan ere, ez zuan ugonoteen indarrak auldu. Urrengo urtean, 1573'an, Laugarren Erljio-Guduan zebiltzan. Katolikoek asi zuten gudu au Anjou'ko Duke Enrike'ren bitartez, eta uste gabean amaitu zan Enrike au Poloni'ra joan bearrean aurkitu zanean; PoJonrko Errege egin bait zuten polonitarrek Sejismund H'aren eriotzakoan.

Bi urte geroago il zan Karlos IX'a ere (1574). Buruntza, bere ánai Enrike'ri pasa zitzaion, Anjou'ko Dukeari, PoJonj'ko Errege egiña izan zan Enrike arri.

Amalau urte egon zan Enrike 111 au, (1575-1589), Frantzi'ko errege-aulkian. Badira jaurle iaioa izan zala diotenak. Beste batzuek gizon ustela ta kemenik gabea zala esaten dute. Danadala, berak buruntza artu zuanean baiño askoz okerrago utzi zituan gauzak fraille domingotar baten aiztoak bizia kendu zionean.

Enrike III'a agintzen asi bezain laister piztu zan Bosgarren Erljio-Gudua, (1576). Ez zan ugonoteen matxinada bat besterik izan, baiña guda amaitu zuan "Beaulleliko Pakean" ugonoteek irabazitako obari edo bentajek asarretu zituzten katolikoak' Asarre ortarik sortu zan ain indar aundia izanen zuan "Alkarte Donea"; "La Ligue Sainte" (1577). Ugonoteen ausarkeriak eta Errege berriaren aulkeriak zekarkian arriskutik beren sinispidea gordetzeko osatu zuten katolikoek "Alkarte Done" ori.

Ez zuan begi onez ikusi Enrike ill'ak Alkartearen jaiotza; Ezta, oraindik Erregearen bizkar ostetik aginte aundia zuan ama Kataliñ medizitarrak, ere, Erregearen almenari itzal aundia egiten bait zion Alkarte arek' Ala're Alkarte jaioberriari abegion egin bearrean aurkitu ziran ama-semeak biak. Geiago oraindik: ez zuan beste norabiderik-eta Erregeak berak artu bear izandu zuan Alkartearen lendakaritza bere eskuetan.

Urte ortan bertan ikusi zan Alkarte Doneak katolikoei eman zien bizkortasunaren aurreneko zitua; Blois'en bildutako Batzar Nagusiak, (1577), katolikotasuna Frantzi'ko erlijio bakarra egin bait zuan, eta kendu bait zizkien ugonotei ordurarte irabazi zituzten eskubide guztiak.

Geiegikeri onek sortu zuan Seigarren Erljio-Gudua, berealaxe katolikoek garaitzarekin bukatu zana. Beren kristaukera agirian erabiltzeko eskubidea galdu zuten ugonoteek. Naitanaiez etorri bear zuan asko berandutu gabe Zazpigarren ErljioGudua.

1580'ean piztu zan au, eta "Maitaleen Gudua" deitu zitzaion, Napparroa'ko Erregiñaren maitakeriixtillu batzuegaitik sortu zalako'

Biotz-bera ta maitazaletxu-xamarra zan noski Enrike III Naparroa'koaren andre Margarite panpoxa. Ez zan "Maitaleen" au, guda gogorra atera, urtean bertan amaitu bait zan, ta naiz katolikoak irten garaille, gauzak, aldatu gabe gelditu ziran. Ta laister jarri ziran okerrago ere. Askoz okerrago.

Anai bat bakarra zuan Frantzi'ko Enrike III'ak: Frantzisko Alencon'go Jauna. 1584'ean fl zitzaion anai au. Orain, legez, Frantzi'ko buruntza Naparroa'ko Erregeari tokatzen zitzaion, Naparroa'ko Borbon'dar Enrike III'ari, bera bait zan Frantzi'ko Valois'tar Enrike III'aren aiderik urbillena'

Ez zuan, ordea, Alkarte Doneak iñolaz ere 'Frantzrko erregetzan ereje bat ikusi nai.

Bizkor ta arin ibilli ziran Alkartekoak: Aurrena Borbon Kardenala, —Naparroa'ko Erregearen osaba—, aukeratu ta ezagutu zuten erregegaitzat' Gero, Erregearen borondate argala menderatu zuten beren asmoetara, ta "Nemours'eko Erabakia"ren bidez eskubide guztiak kendu zizkieten ugonoteei, eta, ortaz gaiñera katoliko biurtezeko agindu: Katoliko biurtezeko.'. ala Frantzitik irtetzeko!

Gregorio XIII Aitasantuak ez zuan iñolaz ere jokaera ori onartu nai izan. Ezta V Sixto'k ere, XIII Gregorio'ren ondorengo Aitasantuak' Alperrikakoak izan ziran Alkarte Doneak ortarako egin zituan saiaketak. Ala ere Sixto V'arengandik lortu zuten Naparroa'ko Enrike III'ari Frantzi'ko buruntza artu aal izateko eskubidea kentzen zion Bulda bat. Ez zan gutxi!

Geiago nai zuten Alkartekoek, baiñan ori ere ez zan gutxi! naiz, gertakizunen ibillera aldatzeko batere baliorik gabea izan, XVI mendea ta XIII'a ez bait ziran noski berdiñak' V Sixto, teokrazi-zale gogorra, bera bakarrik izanen zan ezberdintasun ortaz jabetzen ez zana. Danadala, Frantzi'n ia iñortxok ez zuan ondo Ikusi Aitasantuaren jokabide ura'

Alkarte Donearen neurrigabekeri orrek su eman zion Zortzigarren Erlijo-Gudari, asarretu bait zan zearo Naparroa'ko Erregea. Azkeneko erlijio gudu izan zan; edestiak deitu dionez, "Iru Enrike'en Gudua". Auek izan ziran iru Enrike oiek:

—Enrike III Naparroa'koa. ugonota guztien Printzipe Nagusia ta beralen gudaritaldeen buruzagi garaia. Beiñere, ordurarte beintzat, erlijioari garrantzi geiegi eman ez zion gizona. Aztu zitzaion gaiñera aspaldi, "San Bartolome Gaueko" estutasun artan katoliko egin zala, ta kalbindarra zan ostera'

—Enrike 111 Frantzi'koa. Ospe, almen eta aginte oro galdurik zeuzkan gizona; ia izen utsez bakarrik Frantzi'ko Errege zana' Gertakizunen jostaillua.

—Enrike Gisa'ko Dukea. Alkarte Donearen lendakaria, Jaurerri guziko katolikoaren egiazko burua, ta Paris'ko erriarentzat zerutiko aingeru beti garaille baten antzeko jaikotxiki kuttuna, Frantzia'ren benetako Jaun, Nagusi, ta jabea.

Lau urte iraun zigun zortzigarren gudaketa izugarri onek (1585-1589).

Enrike Naparrak eman zuan lenengo kasketakoa Contas'en katolikoak garaituaz. Laister izan zuan erantzuna; bi kolpetan desegin bait zituan Gisa'ko Enrike`k Alemani'tik ta Suizi'tik ugonotei laguntzera etorritako borrokalari-taldeak. Baiña... bi garaitza ospetsu auek galdu zuten Gisa'ko Duke gaztea.

Ordurarte Alkartearen alde egon zan Frantzi'ko Erregea' Oraindik ere ala jarraitu zuan aldi batean. Orrela, "Ruan'go Erabakia"ren bitartez (1588), edozein erejeri Frantzi'ko Errege izatera irixteko eskubidea kendu zion; eta geroxeago, Blois'en bildutako Jaurerriaren Batzar Nagusiaren aurrean, erejia desegiteko bere bizia ematera itundu edo konprometitu zan.

Baiña Erregeak izugarrizko bekaizkeria sentitu zuan bere barruan. Paris'ko erriak oiuka, zoraturik, Enrike Gisa'ko Dukea txaloka nola artu zuan ikusi zuanean. Agian Dukeak erregetza kenduko ziola pentsatu ere pentsatu zuan, bai bait dira Dukeak asmo ori zebilkiala diotenak ere. Ez zuan noski Erregeak bere burua Paris'en seguru ikusten-da, aldegin zuan uritik al zuan azkarren, Blois'ko Batzarkideen artera. Biois'en pentsatu zuan noski Gisa'koa iltzea, ta Blois'etik bidali zituan ortarako zortzi zaldun bereizi. Zortzi zaldun auek erail zuten ezpataz Enrike Gisa'ko Dukea. Bigaramonean, berriz, Gisa'ko Luis Kardenala, Enrike Dukearen anaia, eraillarazi zuan Errege maltzurak. Ala ere aldegin zion bizirik irugarren gisatarrak, Karlos Mayenne'ko Konteak, beste bi ildako aien anaiak, eta berau ipiñi zan orain Alkarte Donean Buruzagi.

Asarretu zan erria eraiketa aien berri jakin zuanean, asarretu ziran batez ere paristarrak, eta 111 Enrike Frantzi'ko Erregea, guztira bildurturik, Naparroa'ko 111 Enrike'ren kapartegira alde-egin bearrean aurkitu zan. An, Paris menderatzeko prestaketak egiten asi ziran bi erregeak: Frantzi'koa eta Naparroakoa.

Sumindurik, oiuka jeiki zan armetan Erregearen aurka Paris'ko

uri guzia. Asarretu zan, erailketa aiek entzutean, Sixto V Aitasantua. Erabaki zuan Sorbonak III Enrike'ren antzeko Errege bateri uko-egitea zillegi zala...

Giro ortan, ez da noski arritzekoa praille domingotar batek, Frantzi'ri serbitzu aundia egiten ziolakoan, Erregeari aitzoz bizia kendu izatea.

Era ortan 11 zan Frantzi'ko Valoistar azken-Erregea: Enrike Eriotzako orduan Naparroa'ko Erregea izendatu zuan bere ondorengo; baiña aurretik erejia laga-ta, katoliko biurtzeko eskatu zion'

* *

IV ENRIKE, Orrela ipiñi .zan Naparroa'ko Enrike III'a Frantzi'ko Enrike IV'a izateko bidean. Ez zitzaion ala ere errexa izango bide ori. Bi etsai zeuzkan aurrean: Paris'ko erria, zalantzaketarik gabe ziurki ta biziro katolikoa' Eta Alkarte Donea, Gregorio XIV Aitasantuak eta Felipe II espainiarrak diruz eta gudariz bizkorturik zeukaten Alkarte Donea.

Batez ere Felipe Ira zegoan ankaz eta buruz Frantzi'ko gudatean sartua, bere alaba Isabel Klara Eujenia egin nai bait zuan Frantzi'ko Erregiñ. Bazuan ortarako arrazoiitxurarik, printzes ori Frantziko azkeneko iru erregeen arreba baten alaba bait zan, ikusi dugunez.

Bi erregegai zituzten beraz Katoliko frantzitarrek: Borbon'go kardenala ta Isabel Klara Eujenia Espaini'ko Printzesa' (Eta gero, Kardenala il zanean, aren tokia artu zuan Karlos Mayenne'ko Konte gisatarra)'

Ez zion batere kalterik egin Enrike naparrari bere etsaien zatiketa orrek' Ezta're bere aurka Espaini'ko II Felipe ain sarturik egoteak.

Erroma-aldetik ere ondo jarri zitzaizkion gauzak. Gregorio XIV'a etsai irten zitzaion. Baiña amar illabete bakarrik izan zan au Aitasantu. Bi illabetean il zan Inozenzio IX'a ere. Ta auen atzetik Klemente VIII'a igo zan Kepa Donearen Aulkira. Ez zezakean Enrike naparrak gizon kidekoagorik idoro. Lendabizi, Aitasantu berria Espaini'ren etsaia zalako, eta gero, Aitasantu onek Enrike beraren asmoak argi ikusten zitualako.

Gudari iaioa zan Enrike naparra ta garaitzatik garaitzara iritxi zan Paris'en aurrera 154530'ean. Ta urte ontan bertan amaituko zuan guda Felipe II espainiarrak Flandet'ik bere buruzagirik onena, Alexander Farnesio italiarra, aurka bidali ez ba'zion.

Farnesio'k salbatu zuan Paris lau urterako, 154534'a arte ez bait zan

Enrike naparra uri nagusi artan sartu. baita ere, españitarrek salbatu zuten betirako naparraren Frantzi'ko erregetza.

Gero ta okerrago ikusten zuten ba frantzitarrek Espaii'ko Felipe II'aren jokaera. Katolikoei ere miñ ematen zien Felipe'ren gudariak jaurreria zear arroki ibiltzen ikusteak, Frantzi'ren salbatzailleak zirala oiuegiñaz. Ta asko ziran pakea nai zuten frantzitar katolikoak.

Gudariburu erne bezain politikari argia agertu zan Naparroa'ko Erregea' Bazekian odolez berari zor zitzaiola Frantzi'ko buruntza. Ikusten zuan, zortzi gudu erailgarrien ondorean, Jaurreria apurtuta zegoala ta jendeak ori bazekiala, eta bai ugonoteek eta bai katolikoek pakea nai zutela. Oargarri zitzaion beste zerbait ere: Espaii'ko Felipe II'aren eskupean gelditu zan ezkeru Alkarte Doneak galdu zuala erriaren maitetasuna.

Bestalde, ondo zekian Frantzi'ren geiena katolikua zala, ta Paris'ko uriak ez ziola bere aterik irikiko Errege kalbindar bati.

Beraz, Paris'en sartu nai ba'zuan, Frantzi'ko errege-aulkira igo nai ba'zuan, eta aulki ortan iraun, eta, batez ere, pakean iraun nai ba'zuan, naitanaiezkoa zuan, kalbintasunari agur eginda bere burua katoliko biurtzea.

Oridalata zebillen Enrike Borboi naparra, III Enrike Valois'ek iltze-ko orduan buruntza emanda katoliko biurtzeko eskatu zion ezkeru, Erroma'ko Elizara nola alderatu pentsatzen.

Bazan beste bat Erregearen asmo izkutuen igarle zorrotza: Klemente VIII Altasantua. Eskierki zekian Naparra argiegia zala Frantzi'k zer eskatzen zion ez ikusteko. Orregaitik lagundu zion aitasantutzara igo zanetik.

Ez zitzaion Naparra'rj aztu zeifien baliozkoa izan zitzaion Aitasantuen laguntza katolikoan naimenak bereganatzeko.

Benetako kalbindarra izateko buruz irikiegia ta biotzez zabalegia zan Naparroa'ko Erregea' Beti izan zan zigorkerien etsai, alkarrekin konpontzearen lagun' Bearbada, bai ugonoteen ta bai katolikoan gogortasunek nazka ematen zielako, ez zuan bere gazte denboran arreta aundirik ipiñi erlijiozko gauzetan, eta sinispide batetik bestera batere kezkarik gabe aldatu izan zan gertakizunek eskatzen zioten erara.

Frantzi'ko Enrike illaren eriotzak erregegai egin zuan unetik eskeñi zizkien katolikoei pake, askatasun, aipu, ta begiramen osoak. Guda aurrera zijoan neurrira, zijoan geiagora katolikoei erakusten zien naimen ona. Kalbindarrak berak ere asi zitzaizkion kezka betezen, ikusten bait zituzten Naparraren aldakuntzaren aztarnak. Esan

dezagun egia. Ez zan Frantzi'ko nagusi izateko gurari utsa Enrike'ren pake-nai ura. Bere ama Jone il ondorean Naparroa'ko Errege egin zanean bereala paketu bait zuan Ipar Euskalerrria, katolikoei eskubide osoak emanaz. Berez zan Enrike pakearen zale.

Borbon Kardenala il zanean Frantzi'ko katolikoan egiazko errege-gaia Españi'ko printzesa zan' Baiña Frantzi'k ez zuan iñoiz Felipe II'aren alabarik errege-aulkian jarriko, askatasuna galdu ta Españi'ko Errege altsuaren mendean eroriko zalaren bildurrez..., eta baita Frantzi'k españitarrei betidanik goitik beera begiratu oi dielako ere.

Une artatik zortzigarren erlijio-gudua ez zan ia erlijio-gudua, Españi ta Frantzi'ren arteko gudu aberkoia baizik. Iritxia zan garai ego-kia: Frantzi osoa paketu, baretu, eta alkartzeko garaia. Baiña Errege katoliko batek bakarrik egin zezakean mirari ori.

An zeukan Naparroa'ko Erregeak bere aurrean, armetan, Paris'ko erri katolikoan, Frantzi guztiaren eskarien ikur eta siñale.

"Paris'ek balio dik noski meza bat", esan omen zuan orduan Naparrak'

Seguruaski ez zan sekulan Enrike'ren agotik orrelako esakizunik atera. Baiña bere begi zorrotzek, bai, ondo ikusten zuten erlijiozko gu-duak betirako gaitza izanen zirala Frantzi'n, ugonoteak begirunez eta maitekero tratatu al zitzazkean Errege katoliko batek agintaritzaz ar-tzen ez ba'zuan. Errege ori bera bakarrik izan zitekean.

Danadala, Uztailaren 15'ean, 1593'garren urtean, egin zan katoli-ko Enrike Borbondarra, ta Naparroa'ko Enrike Illa izatez utzi gabe asi zan Frantzi'ko Enrike IV'a izaten.

Urrengo urtean sartu zan "meza bat ondo balio" omen zualako Paris artan.

Felipe II'ak ez zuan amorerik eman, eta jarraitu zuan gudaketak. Baiña on egin zion borroka onek Naparrari, Frantzi guztia alkartu bait zitzaion bere inguruan Españi'ri aurka egiteko. Ain zuzen katolikoak izan ziran orain Enrike IV'aren euslerik bizkorrenak. Ugonotak asarre zebiltzan beren buruzagiaren erlijio-aldakuntza zala-ta; eta eman zio-ten naiko buru-aste. Baiña Naparraren goxotasunak eta iaio-tasunak baretu zituzten eta gantzutu kalbindar eta katolikoan kezka-z, zauriak, eta urduriketak. Errege bikaiña, agintari zintzoa, zuzendari zuzurra, pakezaille trebea irten zan Enrike Naparra. Maitakerikontutan bakar-rik izan zan arlotea.

Bere legerik garaiena, "Nantes'ko Erabakia", "L'Edit de Nantes": erlijio-auzietan pakea egiteko 1598'garren Jorrajillaren 13'an eman

zuan legea. Ona bere atalik nagusienak:

- Katolikotasuna izango da Laterriaren erlijioa.
- Kendu zaizkion ontasun guztiak itzuli bear zaizkio Eliza Katolikuari.
- Kalbindarrenak diran lurraldeetako katolikoei askatasun osoa eman bear zaie (lurralde oietan ez bait zieten kalbindarrek kotasuna agirira ateratzen uzten).
- Kalbindarrek ere izango dute beren sinispidearen araura Jaungoikoa agirian gurtzeko eskubidea berenak diran lurraldeetan eta probintzi bakoitzeko bi urietan. Paris eta beste uri sail txiki bat gelditzen dira kalbindarrentzat debekatuak.
Politika arloan, katolikoek bezelaxe, eskubide osoak izango dituzte ugonoteek ere. Eliza kalbindarraren gastuak Laterriak ordainduko ditu.
- Kalbindarrak Jaurerriko legeak agintzen duten bezela bizi bear-ko dute, baiña beren auzi bereizietarako berak aukeratutako epail-maiak edo tribunalak izanen dituzte.
- 200 urigaztelu ipintzen dira ugonoteen eskuetan, Uri arresitu oiek zaintzeko gudarijendea ugonoteek ipiñi ta zuzenduko dute. Gastuak Erregeak eta Jaun erdifeudalari ugonoteek ordainduko dituzte.
- Erregearen kontzejuko aulki batzuk beti izango dira ugonoteentzat'

Errez amaitu zuan Enrike Naparrak Felipe II espainiarrek egiten zion gudua, eta 1598^r an arekin "Vervins'eko Pakea" egin zuan ezker, ez zitzaion ixkamillik sortu Jaurerriaren mugetan. Ezta barruan ere, gentzatu bait zituan, arian-arian, etengabe pakegalea zabalduaz, kalbindar saminduen gorrotoak eta konfiantza gutxiko katolikoek kezka eta bildurrak.

Gotzaiek, bai, asieratik eman zioten eta beti gorde zioten bein emandako konfiantza eta ustea. Baita beste eliz-gizonek ere. Eta baita Aitasantuek ere. Ez zuten iñoiz Errege berriaren katolikotasuna zalantzan ipiñi.

1610^oean galdu zuan bizia Naparroa^oko III eta Frantzi^oko IV Enrike^ok. Eraille baten aiztoak kendu zion bizia.

BELXIKA ETA OLANDA. Bi Laterri aberats auek zelai naro eder batean daude; "Flande'ko Zelaia" deitu oi zaion lur gozo lauean' Edonork daki, ibai eder zabalez, erreka eta ubidez oparo ornitutako zelai ura, ia dana, itsasoaren goibe edo alture berean dagoala, eta toki batzuetan itsasoaren azpitik ere bai, arri, ondar eta lurrezko esien babesean. Orregaitik, zelai artako Laterri bizkor aiei "Lurralde Beetiak" deitu izan zaie: Beeko Lurraldeak'

Amaseigarren mendearen asieran Bee-Lurraldeak Inperioaren zati ziran; Maximilian I'ari bere emazteak ezkontzako dotea bezela eraman zizkion zatiak' Inperiora igarotze ortan ez zuen Bee-Lurraldeko Probintziek beren askatasun mardula ta eskubiderik galdu. Probintzi bakoitza Laterri txiki bat bezela zan.

Europa'ko txokorik aberatsena, langintsuena, apaiñena ta aurre-ratuena zan Lurralde Beekoetako erridi kementsua. Baita Europa'ko bazterrik jendetsuena ere; uri galantez betea: Gante, 8ruxela, Rotterdam eta Amsterdam, eta batez ere Amberes, uri aien danen erregiña. Artezi edo industri lanetan lènena, eta lurgintzan ere aurrenekoa, salerosketan eta diru-erabilketan aitzindaria, Bee-Lurraldea zan noski Inperioko buruntzaren pitxirik dizdiratsuen'

Jakintza arloan ere bazuten lurralde aiek seme ospetsurik: Gizadizale landuak, Rotterdam'eko Erasmo'ren ikasleak; ertilan edo artista garaienetekoak; "Flandetarkera" edo Flande'ko estilua aipagarri egin zutenak.

Eta itxasoko jakite ta lanetan, nork ez daki Olanda'ko ta Zelanda'ko mariñelak aurrenekoetakoak zirala?

Ta alde guztietatik alpagarri izateko angoxeoak ziran baita ere Erdi-Aroan azkena sortutako mistikurik aundienak, Aro Berriaren aitzindariak: Xerardo Groote, Tomas Kempis eta "Debotio Moderna" edo "Eraspen Berri"ko mistikalari guztiak.

Bazituan ala ere bere arrak "Zorionaren Baratz oparo" arek XVI mendean. Ona ar oietaku batzuk:

—Protestalaritzak berekin Frantzi'n, Alemani'n eta Kristaudi guztian ekarri zituan gudate amai-eziñek kalte aundia egiten zion Bee-Lurraldeetako salerosketari' Merkatuak isten bait zizkion!

—Inglanterra Europa'ko azoketara sartzeak ere kolpe aundia eman zion salerosketa orri. Ordurate oiaiegintza geiena flandetarren lana zan ba. Ta orduantxe, Europa'ko azokak gudateen erruz diruz ain urri zeudenean, orduantxe asi zan Inglanterra oial egiten eta azoka aietara eun-pillo aundiak bidaltzen. Lurralde Beekoetako olarik geienak berriz euntegiak bait ziran, "krisis" edo estualdi polita ekarri zion bertako ekonomiari Inglanterra Europa'ko oial-merkatuan sartze orrek. Ola asko itxi ziran. Langille-talde aundia gelditu zan lanik gabe ta janik gabe,

iñoiz baiño nabarmenagoak agertzen ziran orduan jaun aundi eta burgesiko jauntxoan aberastasunak' Batez ere Elizarenak eta elizgizonenak, betiere Elizaren akatsak azkarrago eta argiago ikusten bait dira. Marmarra ta urduritasun bizia sortzen zuan ogibide-gabeko langilleen artean ezberditasun orrek.

—Zerga aundiegiak, gero ta aundiagoak jaurti zituzten Probintzi aien gaiñera Karlos V'ak eta batez ere Felipe Irak, guda-egiteko dirutza izugarriak bear zituzten-eta. Baiña Espariruntz zijoan aberastason ura bear-bearrekoa zan Flande-Errian bertan, ekonomiaren krisis latzak sortzen zituan gaitzak arintzeko. Españi'ko politikaren aurka muturtu ziran, erlijio-auzietan sartu baiño len, Laterri aletako Batzar Nagusiak, urietako Kontzejuak, aristokrazi edo jatorrigaraieko jendeak, salerosleak eta gaiñerako burgesitarrak.

—Felipe irak, Bee-Lurraldeen gobernuan bere atzaparra geiago ta astunago sartuaz erantzuan zuan. Kargurik garaienak españiarren eskuetara igarotzen asi ziran. Arriskuan zekusten flandetarrek, bertako Batzar Nagusien eskubidea, betidanik izan bait du Españi'k bere itzalpera sartzan diran erri guztiak gaztelartzeko griña beltza: erri oiei berekoz duten nortasun eta bakoitzasuna galduarazita Gaztela'ko iza-keraz jantziarazteko gurari gorde-eziña! Naitanaiez egin bear zuan ikaragarrizko miña politika-modu orrek Europa'ko errialde bikaiñenean. Orrela alkartu zituan Españi'ko politikak, Lurralde Beekoetan, ekonomiaren estualdiak bata bestearen aurka jaurti zetzazkean langilleak eta burgesiko jendeak.

Giro ortan zabaldu zan protestantismoa gaur Belxika eta Olanda diran erridietan, odol ixurtzerik aundienean, abertzaletasuna ta siniste-aldakuntza bata bestearekin naasi zituan ekaitz illun bildurga-

rri baten altzoan.

Ekaitz aren asieran, eta gero luzaroan ere, erlijio-gauzak ez zuten zer ikusi aundirik izan. Laterrien askatasuna ta Lege Zarren iraupena zegoan jokuan' Ain zuzen aberriaren aldeko igikunde aren iru buruzagietatik bi benetako katolikoak ziran, Hom'eko kontea eta Egmond'ekoa; Irugarrena, Guillermo Nassau, Oranxe'ko Printzipea, ez zan ostelaria oraindik, eta gero lendabizi Lutertarra eta gero kalbin darra egin ba'zan ere, ez zan beiñere gorroto ta gogorkerizko gizona izan, pakearen eta kristau guztien arteko alkar-ondoeramatearen laguna baizik. Frantzi'ko Enrike Naparraren antzekoa zan; ura bezela jakite garaiekoa, naimen lau eta zabalekoa, aberriaren aunditasunaren maitalea eta, batez ere, bere aberkideen arteko gentza ta alkartasunaren erakuslea. Biak igaro zuten bizitzaren zati luzea erlijioarazoei garrantzi geiegi eman gabe, agian erlijiotiko irabio eta nãsketek sortzen zituzten ondamenak atsegin ez zitzaizkielako. Politikaren joan-erak egin zuan geienbat, bata katolikotasunera urbildu ba'zan, bestea kalbindarren Elizara igaro izatea.

Ala ere bazuten bi gizonek ezberdintasun galanta. Naparroa'ko Erregea lagun eta mendeko guztiekin itz-jario alai atsegiña zan bezela, Oranxe'ko Printzipea izketa gutxikoa bait zan; Orretxagaitik deitu zioten "Guillermo Ixilla".

Oso goiz sartu zan protestalaritza Lurralde Beekoetan batez ere egoaldeko Probintzietan, gero katoliko geldituko ziran Probintzietan. Lekaide Agustindarrek ekarri zuten protestalaritza. Ta berealaxe izan zuan zigorra gaiñean 1520'ean erakuspide berrien aurka aurreneko legeak eman ziranez gero. Bi urte geroago íl zituan suak lutertarren aurreneko bi odol-aitorleak: lekaide agustindar bi.

Ezzan lo gelditu Karlos V Inperatorea. "Worms'eko Erabakia" be-tearaziaz, debekatu zituan lutertarren liburuak; saiatu zan Aitasantua-
ren "Erroma'ko inkisizioa" erakartzen (1522); eta 1524'53'an eriotzazko zigorra eman zuan ereje guztien aurka, eta erejeen liburuak gorde edo ereje bati ostatu naiz laguntza eskeintzen zion guztiaren aurka.

Baiña zigorrak ez zituan erlijio berriaren igarleak ikaritzen. Ezta eriotzak ere.

* * *

V Karlos inperatorea lutertarren aurka ari dan bitartean, ara non iristen diran Flande'ra BIRbatailariak, Anabaptistak, eta ez anabaptis-

ta pakezkoi mistikuak, ez, birbatailari anarkiste agintaritza oren etsai ameslari trakets bildurgarriak baizik.

Zuingli'ren Zurich'etik zabaldu zan Birbatailaritza. Paketsuak ziran Zurich'eko birbatailari aiek' Ain zuzen birbatailari biurri indarkerizaleen adar gogorrenetako bat, olandar batek eratu zuan: Jon Matthys'ek. 152453'aren inguruan Flande'ra birbatailaritza ekarri zuan Meltxor Hoffmann'en ikaslea zan Jon Mattys ura.

Hoffmann, beste birbatailari geienak bezela, eta gaurko "Jeobaren Lekukoen" antzera, eskatologi-miñak jotako gizona zan: Ludiaren amaia bertan zegoalako Jainkoaren Erregetza berealaxe mundura etortzekoa zala uste zuan ameslaria. Jainkoaren erreiñu ori erdi anarkista. munduzko legerik gabea, eta erdi komunista izanen zan, oro ororena egiñaz. Baiña Matthys'ek uste zuanez erregetza ori, bera berez etorri-zai egon gabe, indarrez ezarri bearra zan munduan. Eta "ezartze" ori egiteko Jainkoak, aukeratutako gizona berriz, Jon Matthys berbera omen zan.

Jainkoaren Jaurerria nolakoa irten zan, ikusi dugu MiThster'en. Matthys izan zan uri artara Jainkoaren Erregetza eraman zuana, baiña Errege egin zana beste olandar bat dugu: Jon Leiden'goa, Matthys baiño gogorragoa oraindik.

Flande'n, 1566'garren urtean, Amberes'ek bakarrik bazituan bi milla birbatailari. Aipatua zan Loy Prustyreck, manitarren gogapen zarrak berbiztu zituan sasimistikoa. "Loystes", "Loytarrak", esan zitzaizen aren jarrailliei, ita ugari izan ziran Brabante'n. Oso ezaguna izan zan Leonart Bouwens ere, eta ez arrazoirik gabe; amar milla kristau birbataiatu omen zituan ba berak bakarrik.

Zurich'en Zuingli'k, Alemani'n Luter'ek, Jinebra'n Kalbin'ek eta Lurralde Beekoetan katolikoek lutertarrek eta kalbindarrek, denak begi okerrez begiratzen zieten -errinaasizale" aiei. Karlos V'ak eriotzara galdu zituan gogabidez aldatu nai ez zuten birbatailari guztiak. Asko izan ziran eraillak. Asierako garai ontan seireundik gora bai; eta Alba'ko dukea iritxi zanetik, geiago. Ala zeuden beren sinispideari erantsiak!

Bere erregetza guztian aukeririk gabe jarraitu zuan Karlos V'ak erejeen aurka ekiten. Aipatutako birbatailarietaz gaiñera izango dira berreundik gora eriotzara galdutako lutertar eta kalbindarrak. Auek, kalbindarrak, 1540'ean asi ziran lur aietara sartzen.

Amaren aldetik Jon Kalbin flandetarra zan, eta maitasun aundia zien errialde aiei. Baiña asarre zegoan ango protestalariekin, xamu-

rregiak, beratzegiak, ernetuegiak iduritzen bait zitzaizkion. Protestalari burgeskoi aiek astintzeko bidali zien Jinebra'n zuan izlaririk gogorrena, aipatutako 1540 ortan. Izlari ori 1545'ean izan zan errea, baiña ekarri zuten beren zitua ziñopa edo martiriaren errautsek: Sortu ziran, ixillean, kalbindarren alkarteak, "Presbiterozko Eliza Olandarraren" lendabiziko aziak' Kalbindar-Eliza bizkorra, an sortu zanal

Lenen-Alkarte aietako "artzaiak" Jinebra'ra ikasketak Kalbin'en altzoan egitera joandako gazte sutsuak ziran; eta aiekin alkartzen ziran kristauak berriz, edozer gauzetarako gerturik zeuden jendeak, naiz oiuegiteko, naiz sutara kantari sartzeko, edo, errukiaren aztarnik gabe, etsaien odola ixurtzeko. Jon Matthys eta Jon Leide'koaren aberkide eta garaikide diralako-edo, badute Olanda'ko kalbindarrek anabaptista aien gogortasunaren ttantta bat baiño geiago. Ortik datorkio Olanda'ko Eliza Berrituari aurreneko eun urteetan ain berea duan laztasuna, zekenkeria, triku-izakera.

Olanda, ordea, Olanda izaki ta, jaso zuan azkenean burua Erasmo'k eta beste Birjaiotzako pentsalari guren aiek erain zuten gizaditasunak'

1555'ean eman zion bere seme Felipe II'ari Beeko Lurraldeetako buruntza Karlos V inperatoreak.

Edestilari guztiak, katolikoek eta ostelariak, danak diote Karlos V'aren erregetza paketsua ta atsegiña izan zala lurralde aietan. Ez ditu iñork gogoan artzen aipatutako erailketa aiek, garai artako zituak bait ziran; toki guztietan egiten ziranak. Gaiñera Karlos'en denboran protestalari utsen erretzeak gutxi izan ziran. Ildako aiek geienak anabaptistak dituzu eta auek, politikazko arrazoi soillengaitik ere, eliza, errege, printzipe eta laterriguztientzat etsai bildurgarriak ziran. Karlos V'a flandetarra zan; maite zuan bere erria ta baita erriak bera ere.

Felipe II'arekin okertu ziran gauzak. Ludian izan dan erregerik altsuena ta aberatsena zan. Ez bait zion V Karlos aitak Inperioa laga, ez zituan bereak Alemani'ko lurraldeak; baiña bai Portugal, —Karlos'ek izan ez zuana—, eta Portugal'ekin, Jaurerri onenak ziran Afrika, Asi'ren egoaldea, Ozeani'ko ugarteak, eta Ameriketa'ko Brasil' Napparroa, Aragoi eta Gaztelako Errege zalarik, Amerika osoaren nagusi zan' Itali'n bereak zituan, Sizili'ko eta Napoles'ko Jaurerriak, Zerdeña'ko ugartea, Milan, Parma, eta bi uri auen Laterriak; Frantzi'n "Franc-Conte" edo Frankonterria' Ta guzti ontaz gaiñera, Lurralde Beetietako Errege zan! Gudarozterik indartsuenaren eta itxasoko ontzidirik ugarienaren Jaun, itsazoz eta legorrez beste iñor baiño aun-

diagoa izan zan; eta beste errege guztiak baiño aberatsagoa, Ozeani'ko ugarterik izkutuenetik asita, Ameriketako zokorik urrutienearaiño, guziak atertzeke bidaltzen zizkion aberastasunei eskerak. Arrazoiez esan zezakean, "bere menpeko lurretatik, iguzkirik iñoiz ez zala ateratzen".

Horatzaille sutsuak ta etsai amorratuak izan ditu gizakume onek. Ortzira jaso dute batzuek, lokatzean ondatu besteek. Orregaitik, ez da erreza, bere izakera nolakoa zan argitzea. Ez dugu uste beste orduko gizakumeak bezelakoa ez zanik; garai artako beste edozein erregek I urrez itxasoz eta aberastasunen aren indarra izan ba'zuan, Felipe II'ak egin zuana berbera eginen zuala uste bait dugu.

Agian gauza bat egin zezakean errege orrek, Felipe II'ak, egin ez zuana: Beeko Lurraldeetara joan, ara bere guda-bururik iaionak bidaltzearekin konformatu gabe: Alba'ko dukea, Requesens, Austri'tar Jon bere erdi-anaia, Farnesio bidali zituan, baiña ez zan bera joan. Agian Felipe II'ak ez zion bere aunditasunetik, Laterri txiki aien amorrutako igiketari merezi zuan garrantzirik eman.

Bi sentimentu izan ziran Felipe II'aren ekintza guzia bere bizitza osoaren luzaroan zuzendu zutenak: Katolikotasuna ta Agintaritza.

—Katolikotasuna. Bera zan Kristaudiko Erregerik altsuena' Bere lenengo egin bearra: Eliza zaintzea, Elizaren etsaiak ezerezten. Jainkoak ematen bait ditu erregetza ta aberastasunak..., bera kristaudiko erregerik altsuena eta aberatsena egin ba'zuan, Elizaren serbitzurako egin bait zuan noski!

—Jainkoak! eman zion agintaritza' Jainkoari bakarrik eman bear zion beraz, agintaritza erabiltzeko moduaren kontua' Ta emanen bear zion egun batean; kontu zorrotza!' Orregaitik, bere egin bearra zan agintaritza orren aintza ta eskubideak gordetzea' Bera egin zuan Jainkoak gidari; berak, bere eskuz, gobernatu bear zituan Jainkoak bere zaipean ipiñi zituan gauzak. Orregaitik, bere mendean, bere mendean bakarrik!, egon bear zuten bere Laterrietako Erri, Erakunde, eta Erri-Ekintza guztiak. Baita Laterri aietako Elizaren bizitza ere..., Eliza beraren onerako'

Felipe II'a, Balladolid'en jaioa, buruz eta biotzez oso-osoan espainiarra zan. Lurralde Bekoak ez zituala maite ere esan oi da. Beintzat bere erregetzan gerogo ta begirapen gutxiago izan zien Laterri aietako Batzarre Nagusiei; ta gero ta geiago ekin zion bertako jendea baztertuta aginpideak espainiarren eskuetan ipintzeari.

Felipe'k Flande'n aurkitu zuan eztabaida, politikazkoa zan batez

ere; ez, erlijiozkoa' Ala ere erejeek sortu zioten bere aurreneko ixkami-lla: 1566'eko "Ikonoklasta" edo "Irudiausizaleen" matxinada.

Garrantzi aundiko arazoa izan zan au, aldatu aal izan bai zezakean Lurrealde Beekoetako edestiaren ibillera. Doi-doi zeramakian Felipe II'ak urte bete erregetzan. Lurrealde aietako Jaurlari Nagusia Margarite zan, Parma'ko dukesa, Felipe II'aren erdi-arreba, zentzu aundiko emaztekoa. Zabalduxeak zeuden Anabaptistak; oso gutxi ziran oraindik kalbindarrak' Euntegien krisis edo larri-unea gogortua zan ordurako ta baita, aren ondorio bezela, diruaren balio-galtzea edo inflazioa. Ez zan zailla langille landertuak, Elizaren aberastasuna zala-ta, elizetako eta konbentuetako aldare oparo eta irudi ederren aurka jekiaraztea. Suari aize-emateko gerturik zegoan birbatailarien eta kalbindarren fanatismo edo buruberokeria, itxukeri ortan aiek aifia bait ziran auek ere.

Giza-giro ortan gertatu zitzaigun irudiausleen matxinada iguin-garri ura. Txit aundiak izan ziran, batez ere Anberes eta Amsterdam'en egindako gaitzak. Gante, Malinas, Tournay, eta Flande, Brabant, ta Egoaldeko Probintzaiak ere oker galantak jasan bearrean aurkitu ziran. Felipe II'arentzat bakarrik izan zan onuragarri matxinada beltz ura' Matxinoek egindako izugarrikeri aiek danak, Jaurlaritzaren aldera ekarri bait zuten zentzu oneko jende guztia. Baita aristokrazi-eta-burges-jende askatasunzale ura dana ere.

Errez menderatu zituan Margarite Jaurlariak, bere esanera zeuzkan dirutrukezeko gudari alemanitar ugarien bitartez, birbatailari biurri guztiak' Zapaldu zituan, baita, burutu-berriak ziran egoaldeko Late-rietako kalbindarren bazkun txikiak ere.

Gertakizunen lema eskierki Margarite Jaurrearen eskuetan zegoan'

Baifia oker jokatu zuan Felipe II'ak orduan. Gogorkerira okertu zan. Ortarako jaurlaritzatik Margarite, jendeek maite zuten Margarite kendu, eta Alba'ko Dukeari eman zion aginte osoa. Itali'n zegoan Alba'koa eta buruzagi ernea izan zan an' Beeko Lurrealdeetan, ordea, politikari lez, ta baita gudari lez ere, erabat galdu zuan auzia'

"GEUX" artu Zuten izen Lurrealde Beetietan II Felipe'ren aurka jeki ziran iraultzalariek. "Geux" oiek izan ziran Alba'koaren etsairik menderakaitzenak' Itz orrek, euskeraz, "eskale arlote" esan nai du. Eta ona nondik sortu zitzaien flandetar abertzale kementsu aiei izen ori: Lurrealde Beetietako ekonomiaren estualdirik gogorreanean, abertzalerik ospetsuenak joan zitzaizkion Margarite Jaurlariari. Goseak jo-

tako langilleen alde itzegitera joan zitzaizkion; eta Espāñi'k lurralde aiei eskatzen zizkion zergak, une larri artan, arindu-bearrak zirala jakifñaraztera. Erriko jende lander gosetiaren beartasun gorriaz jabetu zanean, negar egin omen zuan Margarite'k. abertzale aiek langille beartsu aiek bezela jantzita joan bait ziran.... Margarite'ren aokuia-ri losintxalari bat, bere Andrearen atsekabea arindu-nairik, onela mintzatu omen zitzaion: "Ez zaitez estutu, Andrea; jende auek danak eskale arlote batzuek besterik ez dira-ta. Ces sont des jeux"!

Gillermo Oranxe'ko Printzipea zan flandetarren zuzendari nagusia, batez ere Alba'ko Dukeak bi abertzale katoliko bikain, Egmont'eko Kontea eta Horn'ekoa, epaitu eta erail zituan ezker. Gillermo Oranxetarra, Alba'koa baiño politikolari argiagoa eta guda-buru iaioagoa, ez zan oso-oso protestalaria, baiña Saxoni'ko Gillermo protestalariaren alabarekin ezkondua zegoan. Izketa laburreko gizona zalarik, "Ixiii" ipini zioten beretarrek izengoiti.

Gillermo "Ixilla"ren alboan naitanaiezkoa dugu aren beste anai bat aipatzea: Nassau'ko Koldobika.

Gillermo "Ixilia", iritxi zan Olanda'ko Lendakari izatera. Gazte katoliko zipotz batek kendu zion, aizto ankerrez, bizia.

Koldobika Nassau'koa eta beste irugarren anai bat espāñiarren aurka borrokan il ziran.

Odol ixurtzearen bitartez egin nai izan zuan Alba'ko Dukeak bere burua lurraldearen jabe, Ortarako Epal-Batza bereizi bat bildu zuan. Berak "Concejo de los Tumultos" deitu zion; "Matxinada-aurkako Kontzejua". Erriak, orde, laister eman zion beste izen bat: "Odolezko Kontzejua". EpaiBatza onen aurreneko erailtze ospetsuenak bi konte katoliko abertzale aien, Egmond'eko eta Horne'ko Konteen eriotzak izan ziran (1568). Gillermo "Ixilla" Alernani'n zegoan igeseginda; bere jatorrizko Nassau laterrian. Alba'koa erabat lurraren jaun eta nagusi zala zirudian.

Baiña orduan Iparreko Probintziak jaso zitzaizkion. Ordurarte urduritasuna baitipat Egoan izan zan' Orduan jeiki ziran iparreko Probintzi itxastarrak: Zelanda, Olanda aberatsa, eta Frixi. Mariñel erneak ziran Probintziar aiek eta, laister ondatu zituzten Espāñi'ko itxasontziak.

Alba'ko Dukearen semea, Fadrike, ibilli zan Iparreko probintzi aietan guda-buruzagi. Gogorkeri aundiak egin zituan. Alperrik. Garaitzik gabe eta soldatarik gabe, jeiki zan Espāñi'ko gudaroztea bere buruzagien aurka' Ospe aundirik gabe erretiraazi zuan Felipe II'ak Jaur-

laritzatik Alba'ko duke altsua. Oroipen txarra laga zuan onek alde aietan. Oraindik bere izena erabiltzen omen dute an gurasoek aurrak ikaratu nai dituztenean: "Ixo; Alba`ko Dukea etorriko da-ta".

Garaille ziran "Gueux" arlosteak. Frantzi'ko ugonota, Alemani'ko lutertar, eta Inghlanderriko angiltarren laguntza bazuten; Itxasoaren jabe ziran; Lur-barruko uriak ere bere eskuetan zeuden, garrantzitsuenak, iparraldean. Egia da kalbindar gogor aiek odolketa mardulak egin zituztela, baiña ala ere gudate artan jokatzan zan auzia ez zan oraindik erlijiozkoa, politikazkoa baizik.

Orregaitik, elizgizonak berak ez ziran españiarretaz geiegi fiatzen

Elizako gauzak bere-kixara konpontzeko kutizi aundia izan zuan betita, lortu zuan IV Paul'engandik Felipe II'ak Lurralde Beekoetako eliz-barrutien mugak aldatzea. Lau ziran ordurarte eliz-barutiak an. Emezortzi egin ziran orduan. Gotzaiakeraketa, Erregearen eskuetan gelditu zan. Ori nai zuan Felipe II'ak, eta orri zioten bildur ango elizgizonak eta erriko-jende erne guztiek, ikusten bait zuten, Erregeak, bere politika aurrera ateratzeko erabiliko zituala, asmo orrekin ain zuzen, izendatuko zizkien gotzai berri aiek danak!

Alba'ko Dukearen tokian, Luis Zuñiga Requesens ipiñi zuan orduan II Felipe'k' Eta lentxeago abegi onez artu bait zuan Lurralde Beekoetako Batzorde bat, uste izan zan politika-bidez aldatzeko asmotan-edo zebilela ere. Pake-egille lez joan zan beintzat, odolez euskotarra zan Jaurle berria. Ez zuan pakerik lortu. Beranduegi zan ortarako; gero eta bizkorrago zeudelarik, ikusten bait zuten kalbindarrek berena zutela gurenda.

Garaille irten zan Nimega'n Zuñiga Requesens' Alperrik. Nimega'ko borroka artan ii zan Nassau'ko Koldobika, baiña laister, Nassau'ko orren anaiak, Oranxe'ko Gillermo "Ixillak", Leiden'go borroka latzean menderatu zituan Zuñiga ta bere "terzio" goraiapatuak'

Garaitza ori lortu ondoren eraiki zuan "Ixilla"k Leiden'go Unibersitate ospetsua, XVII eta XVIII mendeetan izadi-jakintzetan, fisian eta kimian, eta sendagille-jakintzetan bereiziki, Europa'ko Unibersitate guztien aitzindari izan zitzaiguna.

Itxasoz, Zelanda'ko .eta Olanda'ko ontzidiak ziran nagusi, ta 1574'ean garaitu zuten berriro Españi'koa.

Asarre zebiltzan Españi'ko "Tercio" edo "gudaritalde" ezagunak. Berak uste baiño gogorragoak ziran aurrean zeuzkaten etsaiak; jende asko iltzen zitzaien borroketan; gurendak eskuetatik iges egiten

zien; beren Errege aberatsak ez zuan, zirudianez, soldatarik pagatze-ko dirurik'.. Altxa ziran berrero agintarien aurka, eta egoaldera joan ziran matxinada beltzean. Orduan, jeiki ziran egoaldeko Brabante, Flan-de eta Hainaut, (azkeneko au mintzoz frantzitarra), eta orduan alkartu ere alkartu ziran, Gante'n, ipartarrekin. An bildu ziran Lurralde Bee-koetako amasei Probintziak. Gillermo Oranxetarrak, billera artan erlijio guztientzat eskubide berdiñak eskatu zituan, eta Probintzien auto-nomi edo beren-buruen-jabetasuna.

1576'ean Gante'ko Billera ortan egin zan itun edo tratuan, "Gante'ko Pakegintzan", españiarrak jaurtitzeko, iparreko kalbindarrek eta egoko katolikoek, alkar artzea erabaki zuten. Ez zan erlijio gaietan erabakirik artu; probintzi bakoitza arlo ortan gura zuana egiteko alme-narekin gelditu zan. Ez zan ere askatasun osorik eskatu; politika-barrutian lengo Lege Zarretara itzultzea bakarrik eskatu zan'

Bitartean españiar gudari asaldatuak izugarritzko ondamena egin zuten Amberes'ko urian: "Espariarren Eroaldia"; "Fury", deitu zaio edestian, pistikeri arri.

Ez zuten oraindik amasei Probintziek Felipe II'arekin lokarrik ausi. Orregaitik ondo artua izan zan Jaurle bezela Erregeak bidalitako bere erdianai Austri'tar Jon. "Gante'ko Pakegintza" onartzeko baka-rrik eskatu zion Jaurle berriari Oranxe'ko Gillermo **eta orixe** egin zuan Jonek "Edicto Perpetuo" edo "Betirako Erabakia"ren bi-dez.

Bitartean apaiz-erailtzen eta eliz-apurtzen neurritz kanpora irte-zen asiak ziran kalbindar zentzu-galduak. Egiten zituan egiñalak Gil-lermo Oranxetarrak sinispide guztientzako errespetua lortze-arren. Au zan danen baretasuna lortzeko berak eskeintzen zuan bidea: Erri batean eun sendik erlijio mota bat eskatzen ba'zuten, erlijio orri, erri ortan, agirian bere erara Jaikogurketak egiteko eskubidea ematea' Ez batzuek ez besteek ez zioten jaramonik egin. Asarretu zitzaizkion kal-bindarrak Erroma'ko Elizaren aurka amurru itxuz beteta zeudelako. Geiegi eskatzen zuten katolikoek ere, oraindik lurralde guztiaren jabe ziralaren ustean.

Orrela, Egoaldeko Probintzi katolikoek eskariak entzunaz 1577'an bildu zan Probintzi guztietako "Batzarre Nagusien Billera" ospetsuak. Oraindik, "kontzientziko kargu bezela, Jainkoaren aurrean eta gizonen aurrean, katolikotasuna gorde ta sendotzeko" al zuan gu-zia egitea erabaki zuan Batzar arek. Alatagutziz ez ziran Oranxetarra-ren jendeak asarretu!

Ez omen da ikusi nai ez duana baiño itxu makurragorik. Lurralde Beekoetako katolikoek ez zituzten gauzak ziran bezela ikusi nai' Lurralde aietan ez zan, —naiz katolikoek ori aitortu nai ez—, erlijiozko batasunik. Orrela, beren buruak katolikoen ondoan seguro sentitzen ez zituztela-ta, Olanda ta Zelanda "Batzar-Nagusien Billera"tik bereala bereizi ziran. Laister jarraitu zieten iparraldeko beste probintziek.

Saiatu zan ala ere Oranxetarra Laterri Beekoen batasuna gorde-naiean. Baita ere, egin zuan al zuana Jon Austritarrak pakearen alde. Oranxe'koak eskatu zion bezela atera zituan atzerrira Amberes'en eroaizeak jota koldarkeri aiek egin zituzten Espaiñi'ko "tertziotarrak". Soldata jaso zutenean arro joan ziran espaiñar gudariak, beste lurralde batera. Ez zan ordea pake utsa II Felipe'k Beeko Lurraldeetan lortu nai zuana, lurralde aien Jauntasun osoa baizik. Oartu zan Jon Austritarra, alkarrizketen bidez ori lortzerik izango ez zuala, ta gudari ekin zion ostera' Baiña ori, guda, ez zan an, aspaldi ezkeru, ezertarako bidea, espaiñitarren ondamenerako izan ezik. Gaiñera, iñork nola eta zergaitik argitu ez duan eran, uste gabean il zan Austri'ko Jon, Il Fellpe'ren erdi-anaia.

Alexander Farnesio, Parma'ko Duke-gaia, ain Jaurle bikaiña izandako Margarite aren semea, aukeratu zuan II Felipe'k, Austri'ko Jon'en ondorengo.

Gudari trebe eta txit bikaiña zan Parma'ko Farnesio borroka jarraitzeko, baiña errez ulertu zuan ez zuala guda-bitartez gauza zuzenik lortuko' Ta izkilluei uko eginda, politikaren bidez asi zan lanean, beeko-lurraldeetarako lau atal auek eskeiñiaz:

Pakea; barkapen osoa.

Probintzietako lege zarrak eta eskubideak ezagutu eta gordeztea.

Gobernuan geiago atzerritarrik ez artzea.

—Probintzietako Batzarren baimenik gabe zergarik ez jasotzea.

Agian Felipe II'ak, erregetza artu zuanean, Farnesio'ren ama Margarite Jaurleri zala, ori bera eskeiñi ba'zien Lurralde Beekoei, ez zan orrenbeste odolketarik izango. Baiña orain, "Gueux" arloteak garaille ziralarik, beranduegi zan, Espaiñi'ren alde ezer lortu aal izateko'

Gaiñera, Farnesio'k Erljio Laterkoia edo "ofiziala" lez Erroma'koa bakarrik ezagutuko zuala adierazi zuan. Berak, "Laterri-erlijio" lez zion, beste mailla guztietan erlijio danentzat askatasun osoa ematen zuala adierazi naiean, baiña orduan, errialde artan, ez zan ia iñor iñorekin fiatzen, eta gaiñera, zuzentasunaren alde-

tik, ia osoro kalbindar ziran iparreko probintzi aiei, katolikotasuna "Laterriaren erlijioa" lez ezartzea, lez zan egokia! ez zan gauza zintzoa!

Oraindik erlijioen igualtasunaren billa zebillen Gillermo "Ixilla". Beranduegi zan arentzat ere. Ez zeuden ortarako kalbindarrak; lekai-detxe ta eliz-txikitzen, apaiz-iltzen, iñoiz baiño setatsugo jarraitzen zuten.

Baita beren mendean zeuzkaten lurak indarrez kalbindarrazten ere. Begien aurrean zegoan Beeko Lurraldeetan Probintzi katolikoa eta Probintzi kalbindarrak alkarren aurka gudan ekiteko arriskuan zeudela. Ta ori ikusi zuan argi Farnesio italiarrak'

Probintzi aiek bi Alkartetan bereziak zeuden 157453'an. Aurrena, egoaldean frantzieraz mintzatzen ziran probintzi ta uri batzuek egin zuten "Arras'ko Alkartea": Hainaut, Artois, Lille eta Orchies'ek. "Arras'ko Alkarte" orri Iparreko zazpi probintziek (Olanda, Zelanda, Frixi, Utrecht, Geldre, Groninga, Overisel) beste Alkarte bat osatuaz erantzun zioten: "Utrecht'eko Alkartea"

Negar egin zuan saminki Gillermo Oranxe'koak bere aberri maittea bi zatitan puskatua ikusi zuanean. Bi urte geroago, (1581), Iparreko zatiak askatasun osoa eman zion bere buruari. Orduan jaiotako Probintzi Alkartuen Errepublikak, Gillermo Oranxetarra bera lendakari zuela.

Egoaldea, katolikoa zan osoro' Bi zatien artean, Ipar eta Egoaren artean, gelditu zan gerrialdeko puska aberatsa. Iparrekoen mendean zegoan, baiña lenen maillako gudaria bait zan Farnesio, banan banan irabazi zituan Ypres, Dunkerke, Bruxas, Cambrai, Gante, eta Amberes. Egoaldeko Alkarte Katolikora sartu ziran danak.

Autonomi osoa eman zien orduan Farnesio'k Egoko Probintzietei; ez zien Iparreko Probintzi Kalbindarrei gaitzik egin, baiña aien erlijioari askatasun guztia kendu zion, bere mendean zeuzkan Probintzietan'

1584'ean eraille batek aitzoz josi zuan Oranxe'ko printzipe Gillermo, Probintzi Alkartuetako lendakaria. Eriotz-orduan urratu zuan bere ixiltasuna: "Jainkoa erruki bedi Erri zorigabe ontaz", izan ziran bere azkeneko itzak. Gillermo'ren semeak, Maurizio'k, artu zuan buruzagitzatza; Frantzi'ko Enrike II l'ak eta Inghlanderriko Elisabete'k ez bait zuten Probintzi Alkartuen buruntzarik jantzi nai izan. Ez zan, irudi duanez, gauza atsegiña Probintzi aberats aien askatasuna aurrera ateratzea' Baiñan atera zuten alatagutziz "olandatarrek" berak.

Penagarria da Iparreko Probintzi eder aiek erlijio-arloan ain go-

gortiak izatea. Katolikotasuna 1580'ean debekatu zuten. Katolikoak kargu guztietatik baztertuak izan ziran. Gregorio 1583'an -Olanda", —Zazpi Probintzien lurra—, izendatu zuan, mixio artarako bere "Apostorutzarako Ordezko" bat "Bikario Apostoliko" bat sagaratuaz.

Zorionez, Kalbin'en zipozkeri gogorrak baiño alrnen geiago izan zuan Erasmo'ren zabaltasun zentzunezkoak luzarora, eta asieran izugarri bizitza latza eraman ba'zuten katolikoek eta anabaptistek, gero-ra, bizitzeko askatasuna ta pakea lortu aal izan zituzten beintzat. lare-tasun osoa eta eskubide guztiak, Argikuntzaren emaitza lez ia XIX mendearen asieran irabaziak dituzte'

ELIZAREN ERABERRITZEA

Reformatio Ecclesiae

PROTESTALARITZA EZ ZAN. ELIZ-GARBIKETA'—
"Protestante" edo ostelariak ez zuten ELIZaren "antزابerritze" edo erreformarik egin. ELIZA, betidandiko ELIZA puskatu..., eta beste "eliz" batzuek eratu zituzten. Ta ori egiteko, ELIZA zarretik, eliz-berri-sortzaille bakoitzak atsegin zitzaiona, —edo komeni zitzaiona—, artu zuan, gaiñerako guztia, naiz ELIZA bezain zaarra izan, bazterrera bo-teaz.

Martin Luter, Ulrik Zuingli, Zurich'eko Anabaptista pakezaleak, Jon Kalbin, Jon Matthys eta MUnster'ko anabaptista biurriak, Enrique Vill'a, Tommas Cranmer eta Elisabete I'a ez ziran Eliza-Garbitzaille, ez ziran "Erreformadore", eta ez dezaiekegu izen orrekin deitu. Berairi bai, oso atsegin zitzaien itz txukun orrekin beren buruak apaintzea, baiña, justziaren araura, iñondik eta iñolaz ere ez dago-kien itza da.

Egia zan noski, ta egi nabarmena gaiñera, Birjaiotzako Eliza Ka-tolikoak garbiketa on bat bearrezkoa zuala. Baiña ostelaritza edo "protestantismoaren" gurasoak ez ziran Eliz ori garbitzen saiatu; Eli-zatik irten egin ziran.

Bada, gaiñera, beste egi bat: Eliza zarraren garbiketa ez zan oste-laritzaren asaba aiek geienik pentsatzen zuten gauza. Ez zan kristau-diaren oitura lizunen aldakuntza begien aurrean zeukaten aurreneko elburua.

Martin Luter bere barrunbeko kezka ta larritasunen lasaiketaren atzetik zebillen: Salbatuko zalaren eskiertasuna lortu nai zuan. ,Kristau-bizitzaren santutasuna ote zeukan gogoan, Hesse'ko Printzi-pe Felipe'ri bi emaztekin batean ezkontzeko baimena eman zion Mar-tin Luter arek?

Jon Kalbin'ek zer lortu nai zuan iñork ez daki' Baiña auxe da lortu zuana: Jinebra'n pentsa litekean Elizarik amorekaitzena eraikitzea. Bera zan, Erroma'ko aitasantua baiño zorrotzago, Eliz aren burua; eta bere gogaetak elizkide guztientzat nai-ta-naiezko sinispidea ziran. "Guri ere Gogo Deunak ematen digu argia Idazti Doneak ulertzeko" oiu zegiten Mikel Servel eta Jinebra'ko beste ez-kalbindarrek. Jon Kalbin'ek sutegiko galdarekin erantzun zien' Naiz ostelartzak kristau ororentzat Biblia ulertzeko askatasun osoa **Jon Kalbin nagusi** zan tokietan ulerketa ori Jon Kalbin'ek agintzen zuan bezela egin bear zan.

SEta Inghlanderriko Enrike VIII'ak? Onak bai ez zuala Elizaren garbiketarik billatzen! Bere sendiarentzat Jaurerriko buruntza asegu-ratzea, zan bere leia.

Are gutxiago pentsatzen zuten Elizaren santutasunean ostelari-tza Laterrietan indarrez sartu zuten agintariek. Ez zebillen noski san-tutasun orren atzetik Brandeburg'etar Alberto, "Teutonitar Zaldun Le-kaideen" Maixu Nagusia izanik, bere Lagundia ezereztu-ta, Lagundiak Baltik-ertzean zituan lur zabalekin beretzako Prusrko Dukaterria taiu-tu zuanean. Ezta Cromwell'dar Oliber ere, Irlanda'ko Eliza apurtzeko "Ugarte Orlegia" odolez gorri biurtu zuanean.

Luter, Zuingii, Kalbin eta Enrike VIII'ak egin zuten lana aztertzen ba'dugu, ondorio bera aterako dugu: Ez dutela "Eliz-Garbitzaille" ize-nik merezi. Ez zuten Eliza-garbitzen lanik egin. Gogakizun berriak as-matzen satu ziran, beren problemei erantzupen berriak billatzen, Eli-zak eskeintzen zizkietenan lasaitasunik edo atsegiañik aurkitzen ez zu-telako. Beren gogakizun aiek Elizarenak iñoiz izan ziran ala ez jakitea, ez zitzaien ajola.

Orregaitik ez zuten Asaba Doneetara' Kontzilioetara, edo Eliza-ren edestira jo. Bibliara jo zuten. Baiña Biblia ere ez zuten Eliza-baitan irakurtzen; bakoitzak bere erara baizik; Elizatik landa. Beren artean ere ez zion bata besteari aolkurik eskatzen. Gizon "bakarrak" ziran; beren buruetako asmakizunetaz landa ezertan konfiantzarik ez zuten pertsonak; beren adimenaren utsezintasunean sinismen osoa zuten gizakume "bakartiak"; ulertzeko zail egiten zaigun arrokeriz beteak' Aunditasunezko neurosis edo buru-miñak aulduriko jendeen antzeko bezela agertzen zaizkigu askotan.

Orregaitik, ia Eliza Katolikoa ainbat zuten bata bestea gorroto' "Kalbindar egin baiño lenago egingo gaituk Erroma'ko", oiu zegiten Alemani'ko Iutertarrek bertara kalbindarrak sartzen asi ziran.

Erriko kristauen oiturak ere ez ziran batere santutu, Eliza berriak

ezarriak izan ziran Laterrietan. Ostelaritzaren Asabak berak maiz ke-
jatzen dira saminki beren inguruko zabarkeria ikustean' Aundia izan
zan toki askotan zabarkeri Suezrn, jendeak, uste izan zuan ain-
besteko ustelkeri ta lizunkeria ez zitezkeala Jainkoaren kastigua bes-
terik izan' Ta ez da arritzekoa lizunkeraren zabalkundea. Izan ere...
komentuak utzita, pillaka ezkonduetako praille ta monja alemanitar
aiek, ez zituan noski ostelaritzara, erria santutu naiak eramango...!

Katolikoaren oiturak ere antzekoak zirala esateak ez du balio. Bes-
telako santutasun gosea piztu zan Eliza Katolikoaren altzoan";! Egia
esateko, aspalditik zebillen Eliza bere garbikundearen billa. Eman
zuan zitu ederrik naiko, santutasun-gose orrek Luter ta Zuingli oiuka
asi baiño lenago. Ta barrundiko santutasun leia Elizaren buruzagitza
bera astindu zuanean eta Eliza, bere santutasun osoa idorotzeko,
Kontzilioan bildu zanean, ordurarte eten gabe kontzilio eske ibilli zi-
ran ostelariak ez zuten Elizaren santutasun 'egard arekin ezer ikusi nai
izan' Elizaren donetasuna baiño beren burutapenak ez aldatzea inpor-
ta zitzaien geiago. Orregaitik ez zuten kontziliarik onartu.

Ez zezaketen gizon aiek erriaren santutasunik egin, berak ez bait
ziran santuak-egiteko-gai-dan zuraren ezpalak.

Martin Luter'ek bere itzaldi ta idazkietan, —batez ere "Bazkalon-
doko Solasak" izeneko liburuan— darabilkian izkuntza 'lizuna ta arro-
putza ez da, seguruaski, jendea santutasunera eramateko egokiena.
Ez eta Zuingirren berekoikeri gaitzegillea ere. Ondo ikusi zuten ori Zu-
rich'eko Anabaptiste paketsuek. Jon Kalbin, sekulan ezezkorik entzu-
teko baretasunik izan ez zuan gizona; Enrike Vill'a, edesti-idazle oste-
lariaren iritzira, "kupidarrik, eta kontzientziaren abotsik gabeko gizaku-
mea", eta bere alaba Elisabete l'a ala-olako ez ziran eskierki
"Kristoren ardien" artean santutasun-goserik sortu zezaketen "ar-
tzaiak". Askoz gutxiago izan zitezkean gose ori zeru-goitiko ogiz ase
zezaketen Aingeru Zaindariak.

Izatekotan, Birbatailariaren anaidi paketsuen altzoan zegoan
egiazko barren-kristau-bizitzaren gosea, baiña; nolako amorruekin
zigortu zuten igikunde ura Zuingli'k aurrena, Luter'ek gero. Kaibin'ek
urren eta Elisabete lak azkena!

Birbatailariaren izpirituak sortu zituan LaterriEliz ostelariaren ba-
rruan ainbeste mota ezberdiñetako "puritans" edo "garbizaleak".
Ezaguna duzu, noski, nola izan ziran auek ere kupidarrik gabe eriotza-
raiño zigortuak. Oroi, zigorketa orri zor diola sortzea Iparramerika'ko
Laterrien Alkarteak, zigorketa artatik igesi joandako inglanderriar
"garbizaleak" eman bait zioten asiera.

Ez; ez dezaiekegu ostelaritzaren gurasoei "Elizaren Eraberrizaille" deitu.

Beste erabateko pertsonak ziran Iñaki Loiola'koa, Frantzisko Xabiertarra, Abila'ko Terese, Sales'ko Frantzisko' Kepa "Kanisio", Felipe Neri, Alkantara'ko Kepa, Jon Jainkoa'rena eta ainbat eta ainbat geiago.

Gaur iñork zalantzan jartzen ez duan gauza da donetasun egarri ura ez zuala Elizan Martin Luter'en ostiko zitalak sortu. Ala ere bi gauza aipatu oi dira noizean bein, oraindik, protestalaritzatik sortuak bezela: erlijioaren arloan. Bibliaganako zaletasuna; eta portikarenean, demokrazia.

Ez da egia Eskriture Doneen zaletasuna protestaritzak ekarri zuala! Amaituak zeuden ordurako Alkala'n Cisneros'ek egiñarazi zuan "Poliglota Complutensis", Erasmo'ren "Latiñezko Itun Berria", (eleneratik ta gero Luter'ek bere Bibliitzulpena egiteko erabilli zuana), eta Etaples'ko Lefebre'k frantzieraz agertutako Eskritura Santuko liburuen itzulpena.

Bi bliarenganako-zaletasuna-ta-Asaba-Doneenganako-m aitasuna, Birjaiotzako gizadizaletasunaren emari oparo ederra da. Eta, amabostgarren mendea ezkerro zabaltzen zijoan griña santu ori, protestalaritzak, bizkortu ez baiña moztu ta ebaki egin zuala ere esan daiteke. Zoro-modura erabilli oi bait zuten ostelariiek Idazti Donea. Izan ere, Lutehek bakoitzak bere uster a Biblia ulertu zezakeala esan zuanetik likaratu egin zan Eliza!; mugarik gabeko "askatasunkeri" orrek Biblia erabiltzerakoan kristau arrunten artean egin zezakean gaitza ikusten bait zuan!.

Ikaratu! Eta, bearbada, geiegi ere ikaratu zitzaigun orduan Eliza. (kara ortatik jaioak bait dira Bibliaren azterketarako eta itzulpenerako "Bulgata"tik kanpora ibilli aal izateko, ia gaur-egun arte, ipiñi dituan eragozpenik, eta Biblia erriaren eskuetan ipintzeko izan dituan kezak.

Esan leike, noski, Luter'en iraultza etorri ez balitz, gizadizaleek lortuko zutel a, ta laister lortuko zutel a gaiñera ikusi dezakezun au guztia:

—Teologilariak Bibliara ta Asaba Doneetara itzularaztea; (ta ori izango zan besterik gabe, XIV mendeko eskolastika legor gantza-gabe aren amaia).

—Biblia, izkuntza errikoietara itzulitako Biblia, eskuetara ta biotzetara eramatea.

Bi kuttun izan zituzten Birjaiotzako gizadizaleek: Biblia, ta Asaba Doneak: Biei kalte egin zien ostelaritzak:

Bibliari, ostelariak Biblia, batere kezkarik gabe, beren aldeko zitekean edozerkerirako erabiltzen zutelako.

Asaba Doneei, aien idazkiak zearo baztertu zituztelako.

Naitanaiezkua zuten protestalariak Asaba Doneen bazterketa ori; Asaba Doneen idazkiak, Kontzilioen erabakiekin batera, Elizaren Dotriña bait dira. "Asaba Doneak- esatea "Eliza" esatea da. Baiña Eliza Katolikoa; Eliza Zaarra.

Protestalariak ordea, beste Eliza bat nai zuten; Eliza berri bat; bakoitzak berea; Biblia utsean, Biblia bakarrean oiñarritua. Ots ordea! Biblian, bai!. baiña bakoitzak bere modura, bakoitzari barrundik bere gogo soillak ematen zion erarara ulertutako Biblia bakarrean oiñarritua!.

Ez da egia ostelaritza edo protestantismuak Europa'ko politikara Demokrazia "Erkala", ("Erriaren Aala"), ekarri zuanik ere. Demokrazia, "almenaren jabe erria dalako gogapena", Tomas Akinarra, Bitori'ko Frantzisko eta Suarez 'tar Frantzisko'ren bitartez datorkigu Elizaren altzoan' Aitortu bear dugu, ala ere, Teologilari garai oien demokraziari buruzko dotriña maiz aztu oi duala Elizak bere kalterako, ta maizegi, Elizaren Buruzagiak despota edo "indarkeri utsetiko" agintari en aurrean ixilik makurtu dirala' Baiño aitortu bearra da baita, protestalaritzak erriaren politikarako eskubidea ez zuala ezagutu ere; zanzatu egin zuala; eta errege ta printzipeak, politikaren nagusi orokor ez-ezik, Elizaren jabe ere egin zituala!

XIX mendeko idazle katolikoek, Erregea Jainkoak **aragi**-egindako aingeru bat bezela ikusten zuten idazle "integrista" askatasun itzaren etsai ziran aiek esan oi zuten maizegi -demokrazia kalbin-tasunaren emaria" zala.

Ez du Jon Kalbin'ek orrelako omenik merezi. Bear bada Kalbin'ek demokrazia Elizaren barruan sortu zuan, demokraziak zer-egitzi ez duan tokian, Elizaren baitan izate oro ta eskubide oro goitikoak, Jainkoagandikoak, bait dira. Jon Kalbin'ek Elizaren gobernuak "presbiteru" edo "Jaun" zuzendari batzuen eskuetan ipiñi zuan. Presbiteru oiek zuten eskubide osoa, baiña Kalbin'en dotriña onartzen ba'zitezten bakarrik, jakiña! Errien gobernuari buruz ordea, ez zan noski demokraziaren eredu Kalbin'ek Jinebra'n eratu zuan Laterri edo Estadua. Len bazuan Jinebra'k gotzaiaren agintaritzapean, bere demokrazimaila; erri guziak aukeratzen bait zuan batere mugarik ga-

be Laterriko Kontzejua. Kaibin'ek demokrasi ori moztu egin zuan erriaren aalari muga bat **Kontzejurako, Presbiteruen Batzarrak** onartzen zituanak bakarrik izango ziran arrezkero aukeratuak'

Olanda'k ez du balio, kalbintasunaren politikazko pentsakeraren adibide edo exenplu bezela. Kalbin jaio baiña askoz lenago, gure Euskalerritik kampo Europa'n erridi demokrazialerik ba'zan, erridi ori "Lurralde Beeko erria bait zan. An, Probintzi bakoitzak bazuan bere "Estadu" edo "Batzar" agintzaillea. Bear bada, kalbintasunak moztu egin zuan an ere demokrazia, sinispide au artu zuten Probintzietan kalbindarren eskuetan bakarrik gelditu bait zan gobernua.

Izan ere, bere barruko eragiñaren indarrez, kalbintasunak "dikadura" edo indarrezko "baten-agintera" darama. Gizon baten agintera Jinebra'n; eta baita Elizabete Iaren Inghlanderrita-Irlanda'n: Pertsona baten agintera; baiña, batez ere Alderdi, Partidu, baten agintera; ori gertatu zan Olanda'n; ori gertatu zan Oliber Gomwell'en Inghlanderrita-Irlanda'n.

Egia da Olanda'n laister ostera demokrazia garaille irten zala, eta katolikoak berriz askatasunaren puskatxo bat izan zutela' Baiña ori, kalbintasun estuaren azpitik bizirik ziardun erasmotarrek aztu ez zuten gogo-zabaleko gizadizaletasunaren emaitza izan zan.

Askoz geiago kosta zan inghlanderrian demokraziaren sorkuntza, ia gaur-gaur arte ez bait dute an katolikoek ia ezertarako eskubiderik eta almenik izan.

KRISTAUDIA SANTUTASUNAREN BILLA

Beti izan du berekin Elizak, bere garairik okerrenetan ere, donetasunaren egarria' Ikusi dugu zein bizirik zegoan egarri ori birjaiotzaren aroan Olanda'ko "Devotio Moderna" edo "Eraspen Berria", ta Itali'ko "Compagnie del Divino Amore" edo "Jainkoagandiko Maitasunaren Lagundiak" aztertu ditugunean. Baita Iberia'ko Jaurrerietan egin zan garbitasun-lana aipatu dugunean ere.

Beste lurraldeetan ere bazan kristauen donetasunera-igonai ori. Naimen orren adigarri da, kristau-erriaren irakurtzeko zaletasuna, animaren bizitzako liburuak irakurtzeko zaletasuna. Asko ta asko irakurtzen zan' Libururik irakurrienak: berrietatik, "Kristoren ' ntbidea" eta Saxoni'ko Ludolfo kartuxatarrak idatzitako "Kristo'ren Bizitza". Zarretatik, Agustin Donearen "Bakarrizketak".

Baiña, batez ere Itali guztian zabaldurik zeuden "Jainkotizko Maitasunaren Lagundiak" kristautasunaren indarberritze ortan zenbateraiño garrantzia izan zuten ez da oraindik bear bezela argitu; batez ere Erroma'n bertan Lagundi aietako bat sortu zan ezkeru. Bazter guztietatik itali'ra etortzen ziran jendeentzat kristau-bizitzaren eredu bait ziran Lagundi aiek. Martin Luter bera, Erroma'rakoan, Lagundieta-koek gaixoak zaintzeko egiten zituzten lanak arriturik utzi zuten'

Lagundi oietatik sortu ziran gaiñera "Ordena" edo Elizgizonen Anaidi berriak, eta, aipagarriagoa dana, Anaidi berri oiek erlijioso edo elizgizon izateko era berri bat zekarten Elizara: Apaizen bizimodua eta lekaideen bizimodua batean biltzen zituan era berezi bat. Lekaideak bezela elizgizon berri aiek alkarrekin bizi ziran, arau edo erregela bat bazuten, zuzendari baten mendean zeuden, iru eskeintz edo botuak egiten zituzten: garbitasuna, txirotasuna, obediencia. Baiña beren lana apaiz-lana zuten, jendeen arteko apostoladutza. "Cierici Regulares" deitu zitzairen, "Erregelazko Elizgizonak". Lau izan ziran mota ontako anaidiak: Teatitarrena, Barnabitarrena, Somaskatarrena, eta danetan ezagunera, Iñaki'ren Josulagundia.

—Teatitarrak. Tiene'ko Kaietan Doneak eta gero IV Paul izanen dan Kepa Karafa'k sortuak. Karafa, Chieti'ko, (latiñez Theate'ko), goztaia zan, eta ortik datorkie anaidi berri ontakoei "teatitarrak" izena.

Aurki leikean gizonik goxoena, apalena eta xaloena zan Tiene'ko Kaietan Donea. Karata berrz, zorrotza, latza, borondate onez betea. baiña zakarra; ala ere apala. Belauneko eskatu omen zion Karafa goztaiak Kaietan apaizari, arren, Anaidi berriaren zuzendaritza artzeko. Anaidia, —parrokoei laguntzeko sortu zitzaigun erregelaz-Iotutakopaisen Anaidi au—, 1524'an izan zan Erroma'k onartua. Anaidiaren eginkizuna, sermoiketa, dotriña erakustea eta sakramentuekin erria bazkatzea zan.

Ogei urte-barruan zabaldu ziran teatitarrak Itali, Espani, Poloni, Austri ta Alemanizear. Berreun gotzai irten ziran Anaidi onen altzotik; teatitarrak izan ziran Abelino'tar Ander Donea, izlari iaioa, eta Scupoli'tar Lorenzo mistikoa'

—Barnabitarrak. Mi/an'en bazan, Bernabe Doneari opaldutako lekaldetxe zar bat' An izan zuan anaidi onek bere kabirik aipatuena. Ortik etorri zitzaien anaidikoei izena. Sortzalleak "Paul Donearen Elizgizon Erregelatuen Anaidia" zion. **Sortzalle ori Andoni Mari Zaccaria Donea** izan zan, apaiz egin baiño len, mediku zala, erriari zuzenbidea erakusten ardura osoz saiatzen zan gizona. Lagundia, 1533'koa da. Bere eginkizuna: Mixioak ematea eta erriari erakustea. Sales'ko Frantzisko Doneak, bere eliz-barrutiko jendeen artean kristautasunaren erakusketa bizkortu nai izandu zuanean, barnabitarrak eskatu zituan lan ortarako.

—Somaskatarrak' Aurreneko etxea, Pabia'ko San Mayolo'ren eliza izan zuten, ta orregaitik deitu zitzaien Anaidi ontakoei "Mayolo Donearen Elizgizonak'" Baiña leenago, anaidiaren sortzaille Jeronimo Emillan Doneak bere aurreneko lagunak Somaska'ko basamortuan bildu zitualako, erriarentzat elizgizonok beti "somaskatarrak" izan ziran. 1540'ean artu zuten aitasantuaren on-ezagupena. Beartsu guztiei laguntzen ibilli oi ziran: gaixoei, umezurtzei, emakume galduei, adin zarrekoei; eta erriko umei erakusten' Ortarako etxe ta babes-toki asko eraiki zituzten.

Somaskatarrak, Barnabitarrak eta Teatitarrak garrantzi aundiko asmakizunak izan ziran; eliz-gizonei ordurarte ezagutzen ez zan bizikerat **bat, eta Elizari apostoluzarako izkillu berri bat eskeintzen bait zien'**

Iru Anaidi auek, beren bizimodu berri eta guzti, "Jainkotizko Maitasunaren Lagundi" italiar aien kirnuak dira; "Lagundi" edo "Com-

pagnie" aien izpirituan azi ta ezitako gizonak sortuak'

Iru "Ordena" berri oietaz gaiñera, beste "lagunarte" asko erne ziran "Lagundi" aien enbor-ondo oparotik. Auen artean ezagunena 1517'n Erroma'n jaio zan "Oratorio del Divino Amore", "Jainkotizko Maitasunaren Otoizbatza" izan zan' Eta, nola ez?, "lagundi" izena bere-egin zualako besterik ez ba'da ere, Loiola'ko Iñaki Deunaren "Josuren Lagundia".

JOSU'REN LAGUNDIA

Loiola'ko Eneko Loperena (Lopez) 1491'ean jaio zan. 1521'ean jausi zan zauritua Iruña'n Naparroa'ko Enrike II'aren aurka borrokan. Naxera'ko dukearen serbitzura zegoan armetan, duke ori bere aidea bait zuan.

Garai artako gizakumea zan noski Eneko Loiolatarra, eta, gazterik, orduango beste zalduntxoan biziera lasaiaren araura bizi izan zana'

Betidanik, Euskalerrri'ko beste aide nagusiak bezela, Loiolatarrak biurriak eta borrokalariak izan ziran' Eneko'ren aitona, Loiola'ko Jon Perurena (Perez), bere zazpi semeekin beti borrokan ibillia zan. Eneko'k amabi senide izan zituan, zortzi arreba ta lau anai. Lau anai auetatik iru gudan i1 ziran; bat Napoles'en, bestea Mexiko'n eta irugarrrena turkitarren aurka Ungari'ko zelaietan.

Aro artako guda-gizonen irakurgaia, Zaldunkerietako Liburuak ziran' Liburu zoro oiek eskatu zituan Eneko'k Loiola'ko jauregian, iztarra osatu-zai, etziñik zegoala, ta esan oi da orrelako idazkirik arkitu ez zualako Santuen bizitzak irakurtzen asi zala' Ez dirudi orrek egia; Zaldunkerietako libururik Loiola'ko jauregian ez izanagatik, —ta arritze-koa da ain gudazaie ziran gizakumeen artean orrelako idazkirik ez izatea—, ez bait zan batere zailla zaldunkeriliburu aiek erostea, edo beste lagun bateri eskatzea'

Bazuan Eneko'k kuñata bat, Malen, Loiola'ko etxeoandrea, kristau bikaiña' Oni eskatu zizkion liburuak, ta onek, zer egiten zuan ondo zekiala, zaldunkerizko ameskeri aien billa asi bearrean, beste bi liburu alderatu zizkion: "FIOS Sancto'ruth" edo "Santuen Bizitzak" eta Saxoni'ko Ludolfo kartuxatarrak idatzitako "Kristoren Bizitza" Liburu auen irakurtzeak aldatu zuan Eneko'ren biotza. Loiola'ko etxeoandre jatorrari zor diogu, beraz, seguruaski, Eneko buruarin ura "Iñaki Donea" biurtu izatearen asiera. Bedi Andre Malen'entzat gure esker ona.

1522'an irten zan Loiola'tik Eneko, Jerusalem'era erromes joateko

asmotan. Monserrat'en Chenenes beneditarrarekin iru eguneko aitor-keta orokor bat egin ondorean Manresa'ko leize-zulo batean jarri zan bizitzen' An idatzi zituan "Gogo-Jardunak".

Egin zuan Jerusalengo ibilketa donea; ta ume txikiekin ikastolan latiña ikasten asi zan. Gero, Alkala'n eta Salarnanka'n, filosofia Was-tean ekin zion'

ikasketa oiek egiten zituan bitartean, jendeekin animetako gau-zetaz itzegiten, eta baita animak zuzentzen ere, ari izan oi zan. Ekintza onek, kezkatu zituan eliz-gizonak, garai artan Gaztelerrian ugari bait zebiltzan "goiargikeritu" edo Iluminatuak", erakusketa okerrak zabal-tzen. Gotzaien ordezkariak, --eta ez inkisizioak, esan oi dan bezela—, bidera atera zitzaizkion apaiz ez zan anima-zuzentzaille itxu-ra arloteko "bizkaitar" arri, ta galazi zioten ortan aritzea. Ori, ordea, animak zuzentzea, izan ain zuzen "bizkaitar" aren jaiera-ta, Paris'era jo zuan askatasun-billa.

1528'an asi zituan Paris'en zazpi urteko ikasketa sakon astiro-tsuak. Montaigu'ko ikastetxean bizi zan. Ez zuan ezagutu, etxe artatik bertatik irten-berria zan ikasle gazte bat: Jon Kaibin,

Naitanaiez Eneko'k bazuan Alemani'n Luter'ek sortu zuan ixka-millaren berri, baiña bere Paris'ko egoera guztian, eta gero ere, dotri-ña berri aiek ez zioten buruko miñik eman' Santutasuna zuan kardaba edo kezka bakarra; bere santutasuna ta Elizarena'

Ludian izan dan giza-ezagutzailerik argienetako izan da Iñaki donea' Ta animak zuzentzea ez bait zuan laga, laister bildu zuan bere ingurura lenen mailleko gizagazte-txorta bat: Pedro Fabro saboiata-rra, Frantzisko Xabier euskalduna, Diego Lainez, Alfonso Salmeron, eta Nikolas Bobadilla españiarrak, Simon Rodriguez portugaldarra.

Auekin Alkarte bat egin zuan Eneko loiolatarrak, eta, —gauza arrigarria gizakume alek danak teologilari zorrotzenetakoak izanik—, alkarte aren elburua ez zan protestalarien erejia zapaitzea, Jerusalem'era joanda lurralde aietako jentillak kristautzea baizik. Ez zuten oraindik, apika, gero protestalaritzak izanen zuan garrantzirik usmatzen.

Alkarteari sendotasuna ta iraunpena emateko, zazpi lagunek Montmartre, edo Martirimendi'n, erlijiosuen antzera egin zituzten es-keintza edo botuak 1534'eko dagonillaren 15'ean' Jerusa[en'era joate-ko eskeintza ere egin zuten. Ortarako Benezin alkartzea erabaki zu-ten. Eneko osasunez gaizki zebillela-ta Euskalerrira etortzekoa bait zan. Urte bete barruan Jerusalem'erako ontzirik ez ba'zuten Benezin aurkitzen, egin zuten botuan erabakia zegoan bezela, Aitasantuaren

esanera ipiñrko ziran. Ta Aitasantuaren esanera jarri bearrean aurkitu ziran, Benezi Turki'ren aurka gudan zegoalako ez bait zuten itxason-tzirik aurkitu.

Erroma'n asi zan Eneko, 1538'an bere Alkarteari "Josu'ren Lagundia" deitzen. 1540'ean onartu zuan Paul III'ak Iñaki'ren "ordena" berria. Agian, loiolatarraren Anaidiari Aitasantuaren baiezkoa ematen zion bulda "Militantis Ecclesiae", "Gudan dagoen Eliza" deritzalako esan oi da, Eneko'k bere Anaidi orri "Lagundi" izena bere gudari bizitza oroituaz ipiñi ziola. Ez dirudi ala danik. Batetik "Lagundi". "Compagnia", izena, ikusi dugun bezela, oso zabaldua zegoan itall'n amabostgarren mende osoa ezkerro kristau bizitzarako egiten ziran Lagunartei deitzeko' Bestealdetik, Eneko, bein bere ezpata Montserrat'eko Amabirjiña'ren aurrean laga zuan ezkerro, ez zan ezpata erabiltzearen lagun izan, eta ez zuan gaiñera bere Lagundia, maizegi esan oi dan bezela "protestanteen aurka GUDA egiteko" sortu.

Urte auen inguruan, 1452 baiño lentxeago laga zuan Eneko'k bere bataioko izena, Iñaki izen berrizat artuaz, Antioki'ko Iñaki Doneari zion eraspenak eraginda.

Josu'ren Lagundiaren izakerak duan gauzik adigarriena "laugarren eskeintza edo botua" da; edozer gauzatarako Aitasantuaren esanera egoteko eskeintza. Ez dute eskeintza ori josulagun guztiek egiten, iru mailletan bereizirik bait daude Iñaki'ren semeak: "Adjutores Temporales" edo "Bizitza-lanetarako Laguntzailleak" (Mezarik ematen ez duten "anaiak" dira auek). "Adjutores Spirituales", edo "Animeko lanetarako Laguntzalleak" (Mailla ontan daude josulagun apai-zik geienak). "Protessi" edo "Lagundikide osoak". (Gutxi dira azkeneko talde guren ontakoak, —ogeita amarrenbat apaizetatik, bat—, eta auek bakarrik egiten dute, edozertarako, beti, Aitasantuaren esanera egoteko eskeintza ori).

Baiña irugarren maillekoak egiten duten eskeintza bereizi ortaz landa ere, garrantzi aundia ematen zaio Lagundiaren barruan obedientziari. Josulagun orori agintzen zaio agintarien esanera egoteko, bere borondaterik ez duan izakia bezela; "perinde ac cadaver", "gorputz illaren antzera"

Lagundiaren nagusitza "Congregatio Generalis" edo "Batzar Aundiaren baitan dago; baina egiazko Nagusia, Batzar onek bizitza guztirako autatzen duan "Praepositu Generalis" edo "Altzindari Orokorra" da. Lagundiaren auzi oro, aren eskuetan dago ta berak aukeratzten ditu Probintzietako Zuzendariak.

Idazlari guztiek ago batez esan oi dute beti, Iñaki Loiolatarra, bere izakeraz, bere pentsa-moduz, bere lan egiteko tankeraz, aurren-aurren eta beste gauza guztiak baiño lenago, Euskalduna dala, ta Josu'ren Lagundia euskaldun baten ekintza dala.

Euskalduna ez omen da apainkeri ta edergarri alperrekoen zalea, egokitasunarena baizik. Eta Iñakik moldatu zuan Lagundi aren ezau-gaillurik nabariena ere ori omen da: egokitasuna.

Egia da beintzat lan askotarako, lan ezberdiñetarako eta lan garrantzitsuetarako izan zitzaioala Elizari egokia, arras egokia, Iñaki'ren Lagundia. Balio aundiko gizonak ziran lenengo josulagun aiek. Baina ori, Iñakik sortu zuan erakundearena ez-ezik, bere personaren meritu ere bada.

Iñaki gizon argia zan; sakon ikasi zituan filosofia eta teologia. Ala ere, jakite-gaietan ura baiño geiago ziranak asko ziran Lagundian: Salmeron, Xabier, batez ere Lainez, laister Kepa Kanisiotarra, ta aibat geiago. Baiña danak sentitzen omen ziran ume bezela Iñaki'ren aurrean. Iñaki Loiola'koa! Euskal-umore gozoko gizona, gure baserritarrak bezela patxadatsua, erri ontako apaizen antzera biotz xamur zabalekoa, bertsolarien zorrotasunaren ttantta bat ere bazuana, guztientzako lagun zintzoa, etsaienganako baretasunez betea, bein emandako itzari balio aundia erasten zion gizasemea, gauzak astiro pentsatzen zituan langille nekaeziña...

Gizon-ezagutzaille zorrotza zan gaiñera. Ez da, beraz arritzekoa aren Lagundiko jendeak ondo aukeratuak izatea, Iñaki'k ber-berak aukeratu bait zituan danak.

Animako bizitzaren izkutuki ta mixterio guztiak ere ederki ezagutzen zituan, batetik, izkutuki aiek danak bere animaren barnera astiro soegiñaz ikasiak zitalako, eta bestetik, Jaungoikoak ugari adimenera ixuri zion goi-argiak erakutsi zizkiolako.

Jainkoaren mirabe apal, gizadiaren serbitzari alai, izadi osoaren maitale biguin, iñori gorrotorik, eta ezertxori bildurrik, ez ziena, ...ez zan nolanaikoa Iñaki Loiolatarraren Nortasuna, Pertsonalitatea. Ala maitatu ere zuten, biotz oso-osotik, bere ikasle guztiek.

Idazteko moduan ere gure Iñaki (euskalduna izaki) itz-labur-zalea bait da..., aren -Gogo-Jardunetako Liburuak" eta Josu-Lagundiko "Araudi" edo "Kostituzioen" Idazkiak atzipetu dute bat baiño geiago, Idazti oien egillea gizakume gogorra, latza, legorra, biotzeko sentimentuen ito-zaillea zala sinisteraiño. Arras atzipetu dira, au uste izan dutenak' Iñaki bestelako gizona zala jakiteko naikoa da arekin bizi

izan zirenak diotena irakurtzea. Edozeiñek ikusi dezake zoraturlk bizi zirala danak beren irakaslearekin.

Bada geiago ere. Iñakik erakutsi nai duan animeko bizitza, ez da aszetika arrizkoi, antzua, bateren-batek esan oi duan bezela; biotz gozoko, Jainkoagandiko, egiazko mistika ere bada. Bera ere benetako mistikua izan genduan' Badu idazki bat, beretzako bakarrik idatzia izan zalako besteak baiño irikiagoa: "Animaren Egunerokoa" "Diario Espiritual". Toles-gabe agertzen zaigu bertan amima aren xamurtasuna, Mezakoan sentitzen zuan zirrara zerukoia kontatzen digunean-eta. Bein-da-berriro dio, batere lotsarik gabe, maiz egiten zuala negar, gozo-gozo, Jainkoaren gauzetan pentsatzean. Sarri Jainkoak mistika garaieneko igikunde ta ukituekin ere doaitu zuan.

Ez da aztutzekoa beste zerbaltxo au ere, Iñakik erakusten zuan animeko bizikeraren aurka irten ziran agiri-agirian, egun aietako bi teologilari' Ta ez nolanaikoak gaiñera; ez bait ziran noski motzak Meltxor Cano eta Frantzisko Bitori'koa, Zergaitik irten zitzaizkion aurka? Iñaki'ren "animeko-bizibide" ura sentimentu geiegizko mixtikeria iruditzen zitzaielako. Pentsatzekoa da Bitori'koak eta Cano'k mistika zer zan, eta zer aszetika, bazekitela' Biak domingotarrak bait ziran ordea, baleike beren jokaeraren azpian espa pixka bat egotea; elizgizonen artean ere askotan oartzeke sartu oi dan expatxoa. Betiko kontua izan da orieta, ez det uste Elizako Ordenetan bat ere izango danik ortan bere edestia osoro garbia duanik, naiz danak Jaungoikoaren serbitzura dauden Bazkunak izan.

Felipe II'ak bere Jaurerrietatik kanpora ikasketak egitera irtetzea debekatu zuanean ere, domingotarrek atera omen zioten lege ura, Josu-Lagundiaren atzerriko ikastola ospetsuetara Españietako gaztedia joan ez zedin' Txikikeri auk ez dira, ez, domingotarrenak bakarrik; eliz-gizon guztienak baizik. Laister ikusiku dugu nola iñakitarrak berak, argikuntza-aroa iristean, zulo berberera jausiko diran' Orrelako txikikerietan errukide ez danak jaurti bezaie aurreneko arria!

Bazuan noski jendea bereganatzeko grazia' 1540`ean artu zuan Josu'ren Lagundiak Aitasantuaren baiezkoa. 1551'ean lau Probintzi zituan: Itali, Portugal, indi eta Españi. Andik bost urtera, 1556'ean, Iñaki iltzean, Probintziak amabi ziran, milla josulagunekin. Ez zuan Lagundiak bere Aita iltzearekin erakarkunderik galdu; menderdi bat geroagoa, 1616'ean` 37 Probintzi zituan 27.000 gizonekin. Ta ori iñaki'k eta Lagundiak, lagunkide berriak aukeratzeko, nolako bae estua erabiltzen zuten edonork dakiala!

Jakintzaren arloan, (ikasketa luzeen ondorean), eta animako bi-

zitzarenean, (probazio amaigabeen buruan), egoki preparatuak zeuzkan Iñakik bere semeak Aitasantuaren aginduei erantzuteko.

Sinistu ezin añaiko lana egin zuten iñakitar aiek. Mundu guztian ikusi zitezkean zabaldurik, eta eginkizun mota guztietan sarturik.

Trento'n Teologilari, Salmeron ta Lainez bezela; aurrei dotriña erakusten Lainez bera ta Iñaki berberaren modura; munduaren sortaldeko bazter urrutietan, Frantzisko Xabiertarrarekin; uri nagusi guztietan ikastolak eraikitzen. —Koinbra'n aurrenekoa' gero Alkala'n... Goa'n, Europa'ko uri nagusi guztietan, Ameriketara...—' Amaseigarren mendearen amaieran, josulagunen lau etxetik iru, ikastetxeak ziran; eta bost josulagunetik lau, irakasleak.

Baiña ez zan ortan bakarrik gelditu Lagundiaren sasoa. Era berean zalbaldu ziran mundu guzira, mixio-lanera, iñakitarrak: Etiopi'ra, —N uñez Barreto eta Koldobika Gonzalbes—: Ameriketara. —Nobrega, Azebedo, eta batez ere laister Brasill'era eritxiko zan Joseba Antxieta, jatorriz urrestildarra, Ameriketako leen-mixiolaririk aundienetakoa--.

Bitartean, iñakitarrek Trento'ko Kontzilioak agindutako Bibliaren itzulketan ere lanean ari ziran; baita teologizko liburuak edo erriarentzako "kristau ikasbideak" idazten, Kanisio ta Bellarmino'ren antzera; eta erriari parroketan mixio ta itzaldiak egiten eta gogojardunak ematen; Poloni'n, Lurralde Beitietan, Inghanderrian, Ungari'n, Boemi'n eta non ez? ostelaritzara jausitako erridiak berriro Elizara erakartzen; Aitasantuaren nuntzio bezela ainbat Laterrietan diplomaziaren bitartez Elizari bideak irikitzen...

Garai artako Elizaren edestian bazter guztietan eta lan mota guztietan agiri zaizkigu loiolatarrak, eta aien lan-egiteko moduak badu zerbait egiaz arrigarri dana; gogorkerizko eta etsaiantzako begirape-nik gabeko aro artan, loiolatarrak ez zirafierejeak inkisiziora edo erregeen jutzizira eramatearen lagunak izan; ez ziran sinismena zabaltzeko gudua ta izkilluek erabiltzearen zaie. Xabier'ek eskatu zion beiñedo-beiñ Alburkerke almiranteari laguntza. **emen Europa'n,** Frantzi'n bateren bat izan ezik, danak izan ziran pakezko iragarle baretsuak. izakera bereizi ori, garai artakoa izateko, izakera arrigarri ori, zor diote. Bat edo batek Iñaki Loiola'koa inkisizioaren su-irazekizale izan zala uste izan ba'du, oso oker ibilli da' Gaur edesti idazle protestanteek ere, Iñaki "euskaldunari" omen egin naiean, gozoro aitortzen dute "alkar ezin eraman zitezkean garaiean, —au da, intoierantzi osoaren garaiean—, eta bakoitza bere pentsaerak zoraturik

zeukan denboran, —fanatizmu orokorraren denboran—, garai ta denbora itun aietan." Ifiakrk bat bakarrik ere inkisizioaren sutegietara, espetxeetara, edo zigorketa ta tormentuetara eraman zuanik, edo, erregeen justizira salatu zuanik ez duala iñortxok ere esaterik izango. Ta ori, Iñaki "euskaldunaren" omenez! Idazle guztiei irtetzen bait zaie, uste gabeen bezela, Loiolatarraz ari diralarik, Iñaki izenaren alboan "basque", "baskisch", edo, naiz gaztelarrak oso euskaldunzaleak ez izan, "vasco" izengoitia'

ESPAÑIETAKO BI GIZON OSPETSU

* * *

ABILA'KO JON DONEA (1500 - 1569)

lñaki'ren lagundiak, bere aunditasunagaitik, itzalean utzi dezazke garai artako Elizak izan zituan beste kimu berriak, eta kimu oiek aztutzea ez litzake zintzoa izango. Kimu berri oien artean bat, Abila'ko Jon apaizak bere inguruan bildu zuan apaiz mixiolarien Lagunartea izan zan. Españi'ren egoalde guztia, —Andaluzi ta Portugal'eko egoa—, mixiolari auek jorratua izan zan. Ez bait zuten legez Elizako Ordena bat osatu, eta ez bait zituzten beren nekeak eta garaitzak idatzi, apaiz mixiolari aien eginkizunak, eta izenak, edestiaren illunbean galdu dira. Erriak naimen osoz maite zituan' Eta ez da nolanaiko jendea beren mixioetako itzaldiek Jainkoagana ekarri zutena: Granada'ko Luis gazteleraren idazlerik onenetakoa, Borxa'tar Frantzisko Gandia'ko dukea, gero josulagunen irugarren buruzagia izanen dana eta gaur aldareetan dakusguna, Jainkoaren Jon Donea, erlijiosoen Ordena berri bat sortuko duana...

Jon Abilaterra, barruko-kristau-bizikeraren lenen mailleko irakaslea izan zan, animen zuzendari lez eta baita idazle ona lez ere: bereak ditu bi idazki ospetsu auek: "Audi Filia", edo "Entzun, Alaba", eta "Cartas Espirituales" edo "Animari-buruz Eskutitzak".

JAINKOAREN JON DONEA

Jon Zidade (144535 - 1550) portugaldarra zan, Eboran jaioa. Gudaria, gaztetan; eta ez oso mutiko zintzoa. Baiñe 153453'an, Granada'n zegoalarik, Jon Abilatarrari entzun zionean, bizimoduz aldatu, ta asi zan penitentziegiten. Bere pekatuengaitik oiuka karriketari negar egiten bait zuan, ertzaiñek errotzaz artu zuten eta erotegian itxi. An ikusi zuan

Jon Zidade'k ero gaixoak nola erabilliak izaten ziran' Geroztik gizakume aiei laguntzea izanen da Jon Zidade'ren bizitza guziko ekintza.

Txanponik ez izan arren, limosna eskatuaz, iriki zuan 1540'ean, Granada'n bertan. bere aurreneko gaixotegia' Izan zituan laguntzaille leialak; batez ere, Pedro Guerrero eta Sebastian Ramirez. Aurenkoa, Granada'ko Goigotzaia zan; bigarrena Tuy'ko gotzai eta Granada'ko Jaurerrian Erregeordezko: "Virrey" espanitarren izkeran. Gotzai Erregeordezko onek ipiñia du Jon Zidade'k "Jainkoaren Jon" izena: "Juan de Dios".

Jon Jainkoarenaren alde ipiñi ziran Granada'ko josulagunak beren apostoladutzan; eta Felipe II'ak berak, Errege izan aurretik ere, lagundu izan zion.

Jaikoaren Jon, Jenil errekan ito zan, erre kara jausitako aurtxo bat uretik atera-naiean' Jon ilda ondorean bere lagunek, oraindik orduarte Lagunarte utsa besterik ez zana, egiazko "Ordena" edo "Anaidia" biurtu zuten Pio V'aren baiezkoaren bidez' Anaidi ontako erlijiosoak ez dira apaizak; "anai" utsak dira. Apaiz apur batzuek bakarrik izan oi dituzte beren artean, animen zuzentzarako.

EMAKUMEAK ELIZAREN SERBITZURA

EMAKUMEZKOEN ORDENAK— . Aipatu-berri ditugu, goraxeago, Itali'ko "Jainkoagandiko Maitasunaren Lagundiak". **Lagundi** onuragarri aiek aipatu bearrean aurkitzen gera berriro. Aien altzoan sortu bait zan emakumeen artean, (bakarka edo sailletan bildurik, apaizei lagunduaz, umeei erakutsiaz, eta neska galduak bide zuzenara erakarriaz), apostolutzan asteko guraria. Lagundi aietakoa zan Luise Torelli, Guastalia'ko kontesa, donetasun aundiko emaztekoa. Andoni Mari Zaccaria'ri, aurrena Barnabitarren ordena sortzen lagundu zion bezela, ats-eman zion geroxeago neskati llen "lagundi" bat osatzeko ere: "Paul Donearen Omenezko Aingeruen-Lagundia". Auek dira aurreneko klausuragabeko monjak, 1535'ean sortuak' Gogoan iduki zituan; eredu bezela, Sales'ko Frantzisko Doneak bere "Bixitazio" edo "Ikerpeneko" monjak osatu zituanean.

"Paul Donearen Aingeruen" egitekoa umezurtzak eta emakume galduak zaintzea izanen zan, orduandik gaur-egun arte.

Laister asmatu zuan Guastalla'ke Luise Torelli kontesak berak, erriko jendearen alabatxoei bizitza egoki baterako bearrezkoa dana erakusteko, beste neskati llen Lagundi bat: "Maria'ren Alabak". Erriak beti "Guastalitarrak" deitu izan ditu.

Aldi berean alkartu zuan Napoles'en beste emakumezko bikain batek irugarren Lagundia neskatillentzat, Teatitarren babesean. Bai ña emakumezkoen Lagundi auetan garrantzitsuena, "Urtsuletarra" izan zan.

Urtsuletarrak, Angele edo Gotzone Merezi'k, mistikazko bizitza sakoneko emakume Doneak, sortu zituan, neska gazteen erakusketa-rako 1535'ean. Indar aundia artu zuten bereala, eta kristaudiko neska-til aundikien erakusketa, aien eskuetan gelditu zan, mutiliena josulagunen eskuetan bezela.

LENGO LEKAIDE ETA PRAILLEE BERBIZKUNDEA

ANAIDI ZARRAK. Beneditarretan, Domingo ta Frantzisko doneen semeetan, anaidi zar guztietan, bizkor ari zan sendotzen epelkeri askoren azpian garbitasunaren leia' Lei ori ez zan sekulan baiña amaseigarren mendean sartzearekin, egunetik egunera zijoan aunditzen. Bere zituak Trento'ko kontzilioaren ondorean eman zituan garbikuntza orrek osoki'

Aipa ditzegun emen, leenik, gogo-berritzaille ospetsueneren ize-nak:

Beneditarren artean: Zisneros'ko Garzia Ximenez, Kardenalaren lengusua, "Exercitatorio de la Vida Espiritual" izena duan liburuaren egillea. (Iflaki'renarekin izenean bestetan antzik ez duana, naiz askotan batek baiño geiagok, dirudianez ez baten liburua eta ez bestearena ikusi gabe baietz esan.

Gregorio Kortese. (1483 - 1548). KasinoMenditik, atera-ta, Paul III'ak kardenaI egin zuan beneditarra, Aitasantuari Eliz-garbiketetan lagun zintzo izan zitzaiona.

Kamaldularretan: Giustiniani Doatsua (1476 - 1528) San Romualdo'ren ordena osoaren berritzaillea'

Domingotarretan: Crema'ko Batista, eta Bitori'ko Frantzisko. ¿Nork ez du irakasle au ezagutzen?

Agustindarrek ere badituzte gizon bikaiñak; ezagunenak, Biterbo'ko Jilles eta Jeronimo Seripando, garai artako gizonik jakintsuenetakoa azkeneko au.

Ez zan Anaidi zaarretan iñor santutasunaren zirrara bizkorki senti ez zuanik. Santutasun-zirrara ori era berean mamitzen zan anaidi guztietan. Danetan, edestia, bat ber-bera da: zabarkeriaren erdian, lekai-de edo praille batek bere burua eta bere ordena santu egiteko gogoia sentitzen du. Ortarako, Erregela oso-osoan betetzen asten da. Laister lagun batzuek alkartzen zaizkio' Laister, beste anai batzuek aurka go-

gor egiten ere diote. Eztabaida samiñen ostean, edo etxe guztia bizitza berri garbira aldatzen da, edo erregela osoaren maitaleak, lekaide-txe artatik irtenda, beste bat eraikitzen dute.

Aztertu ditzegun bereiziki frantziskotarrak, urte aietantxe Asis'koaren sendi ugarian ordena edo anaidi berri bat sortu bait zitzagun: Kaputxino edo Txanotuena: Buruñurdunak.

Ikusi dugu bere garaiean nola Frantzisko donearen denboretatik frantziskotarren artean bi talde sortu ziran: Frantzisko'ren araudia edo erregela, itzez-itzez, bere gogortasun osoan bizi nai zutenak, eta araudi ori lasatu-bearra zala uste zutenak; Anaidia asko azi zan ezke-ro, araudi aren estutasuna egokia iduritzen ez zitzaielako.

Izan ziran "estuen" eta "lasaien" artean borrokak. Amalaugarren mendean bazirudian "lasaiek" auzia irabazi zutela, "estuak", estutasunetik estukerira igaroz, erejira eta zismaraiño iritxi bait ziran. Oroi, mende artan ainbeste neke eman zuten "Fratricelli" edo "Anaitxoak". "Anai koxkorrak" obeto, erriak isekaz jarri bait zien "Fratricelli" izen ori.

Baiña baretu ziran ain urruti joan ez ziran "spirituales" edo "Animazko-bizitza-zaleak" eta jarraitu zuten Asistarraren araua estuki betetzen gero ta naimen geiagorekin. Amabosgarren mendean berak ziruditen garaille, izan bait zituzten neurri beteko santuak: Kapistran'dar Jon Donea, Martxe'ko Jakoba Donea, Feltre'ko Bernardin Doatsua eta, batez ere, Siena'ko Bernardin Donea'

Birjaiotzako urte aietan marduldurik zegoan osoro frantziskotarren artean garbitasunaren guraria: diruzalekerira ta zabarkerira jausi tako asistar maitagarriaren anaidia birgarbitzeko leia' Garai artakoa da Zisneros'ko Frantzisko Ximenez KardenaI frantziskotarra, Gaztela'ko bere anaiak xautzen ainbat lan egirzuana.

Orduan, uste izan zuan Leon X'a Aitasantuak Frantziskotarren Anaidia batzeko garaia iritxia zala, —talde bereizi askotan banaturik bait zegoan—, eta eman zuan asmo orrekin 1516'ean bere agindua' Baiña irantziskotar-sail batek, araudia pixka bat lasaituta konbentu eta lekaidetxetako praille ta lekaideak bezela bizi aal izatea eskatu zion. Leon X'a gizon baiezkorra izaki-ta, eman zien eskatzen zuten baimena. Geroztik beltzez jantzi oi dira frantziskotar auek, eta "Fratres Minores Conventuales" deitu oi zaie: "Konbentuetako Anai Txikerrak".

Bitartean, "estuen" artean arrigarritzko santutasunera iritxi zan Alkantara'ko Kepa Donea (149453 1562) zurdatz edo zilizio-mota guz-

tien laguna, ikuskari zerukoiz doaitutako mistiku garaienetakoa, Portugal'eko Errege Jon ill'aren eta Abila'ko Terese Donearen aolkulari eta maixua. Bere ikasle frantziskotarrei "Alcantarinos" deitu zitzairen Gaztelerrian, "Recollets", "Izkutukoak", Frantzi'n, basamortuetako izkutueta bizitzea arras atsegiñ zitzaielako.

Itali'n ere bazan Alcantara`ko Kepa'ren kideko bat: Bassi edo Bascio'ko Mateo, anaitxo apal maitagarria. Kaputxino edo Buruñurdunen sortzaillea.

Arau estukoeren artean oraindik bizitza latzagoa nai zuan, eta bere bizi-aro guztian izugarritzko borroka egin zioten bere anai frantziskotar estuek' AIa ere, aurrera atera zuan bere asmoa. Izan zituan laguntzailleak: Kamerino'ko dukesa zan Katalin Zibo kristau bikaiña, Kamerino bertako gotzaia, Karafa kardenala, eta, azkenean, Bitori Kolonna biotz zabaleko emakume, egiazko kristaua; eta olerkari garaienetakoa!

Frantziskotar estuek egiten zioten borroka artan, bere alde izan zituan Mateo Bassi'tarrak frantziskotar lasaiak. Ez da noski gauza arrigarria, "estuok" "lasaien" etsai amorratuak izan zirala gogora ekartzen ba'dugu.

Anai Mateo'ri egindako borroka orren arrazoia, baleike, "estu" askoren biotzetan, bekaizkeria izatea, "estu" asko, aski lasaituak, "okerki lasaituak" bait zebiltzen dirukeri nabarmenaren mendean. Auek ezin zuten, noski, ondo ikusi, erriak "Kaputxinoak" deitzen zituan praille zakuz-jantzi aiek artzen ari ziran indarra' "Estuen" sailletatik kaputxinoetara igarotzen ziranak gero ta geiago zirala ikusteak ere, ez zezaikeen, estu zipotz aiei atsegiñ aundirik egin.

Baiña ez zan, denetan, borroka aren arrazoia, bekaizkeria izan. Anaidi berriari kontrarik aundierfa Fano'ko Jon, Anai Mateo'ren Pro-bintziko agintari nagusiak egin zion. Zergaitik? Kaputxinoak, amalau-garren mendeko "anai-koxkor" aien antzeko zismatikoak zirala uste zualako; orretxegaitik bakar-bakarrik! Argi adierazten digu ori kaputxino aiek egizko santuak zirala ikusi zuanean, bera ere kaputxino biurtu izateak!

Klemente VIII'ak egin zuan pakea, kaputxinoei eragozpenik geiago ez ipintzeko estuei aginduaz, eta kaputxinoei "estuengandiko" praillerik artzea debekatuaz.

Ordena berria sortzearekin ez zuten praille "estuek" aunditasunik galdu. 165.000, —eun da irurogeita bost milla!—, ziran egun aietan. Elizaren Anaidirik indartsuena.

Izan zan kaputxinoentzat ere jendea, orain uste dugun baiño as-

koz aundiagoa bait zan Luter'en denborako Elizan santutasun-egarria. Eun urtean Kaputxinoak 30.000 prailie izatera iritxi ziran. Baiña izan zuten samintasun garratza, beren irugarren Zuzendari Nagusia, Bernardino Ochino, lutertar egin bait zitzaien!

"Praille santuen" lendakaria protestalari biurtua eta ezkondua...! Ez da arritzeko, Paul Ill'ak "ez duk laister kaputxino askorik munduan izango" esan izatea. Baiña bi emakumezko jakintxu ta jainkozale aiek (Katalin Zibo Dukesak eta Bitori Kolonna olerkariak) baretu zuten Aitasantua, eta Anaidian azterketa bat egin ondorean ikusi zuan Ochino'ren erortzea Ochino bakarraren auzia zala..., jausitako lendakariaren prailleak osoro zintzoak zirala'

Benetan gaiñera zintzoak eta santuak! Oso atsegin zitzaizkion Itali'ko erriari praille apal xalo aiek, bizitza txiro zuzenekoak ikusten bait zituan: eta erriari itzaldi beroak egiten, beartsuei laguntzen, eta, batez ere, orduan ain maiz, ugari, ta ilkor ziran izurrite edo gaitzarroetan, iñork ukitu ere nai ez zituan gaixoak zaintzen neka eziñak zirala, begien aurrean bait zeukan'

Frantziskotarretan, agustindarretan, anaidi zaar guztietan; Iñaki loiolatarraren semeen biotzetan; "Erregelapeko Elizgizonen" lagundi berrietan; eta kristau erriaren alkarte ta kofradietan'.., Gogo Deunaren Arnasa ari zan lanean, Elizaren garbikunderako giroa antolatzen'

Aurrena Elizaren gorputzean sortu zan garbikunde-iski ori. Gero igaro zan gotzaietara, naiz gotzai garbi-zale banakak asieratik leendik ere bat baiño geiago izan; azkenean..' iiritxi zan aitasantuetara!

PROTESTALARITZAREN AROKO AITASANTUAK

Jon Medizi, Leon X'a, zan Aitasantu, Martin Luter jeiki zanean. Bere izateko-moduaz mintzatu gera laburki protestalaritzari-buruzko atalaren asieran; esan dezagun orain zerbait, bere aitasantutza nolako izan zan adierazteko:

Ogei ta amairu urte besterik ez zituan Pedro'ren giltzak eskuetan artu zituanean. Zergaitik aukeratu ote zuten kardenalek? Une artan zisma bat sortu-berria zan Elizan: Pisa'ko sasikontzilioaren zisma' Zismaren alde zeuden Frantzi eta Alemani, Kristaudiaren bi zatirik mardulenak. Gizon paketsu bat nai zuten kardenalek aitasantutzarako; iñor bildurtu ez zezaken gizon bat; orrela, ikararik gabe, zismara joan ziranei batasunerako bidea al zan guztia erreistutzeko. Orregaitik, II Julio gogor eta gudazalearen ondorengo, X Leon beratz eta pakezalea izan zan aukeratua.

Ez zegoan gaizki ezia Jon Medizi gaztea pake-egintza ortarako. Ez zan santua. Ori mundu guziak bazekian. Baiña ezta pekatari nabarmena ere. Birjaiotzazale jakintsua zan, naiz teologirik asko ez ezagutu. Orduango eliz-gizon geienenak bezela aren ikasketak, legizti-ikasketak izan bait ziran.

Lege, politika, ta diplomaziarloan oiturik eta esperientzirik naiko bazuan, eta eginkizun oietan atsegin gozoak izan zituan; baita larrialdi ederrak ere.

Larrialdiak:

—Medizistarrak 144534'ean Florentzi'ko Jauntza galdu zutenean Jon Medizis Kardenalak, praille-jantzian iges-eginda, extu-extuan bizia salbatu aal izan zuan'

—Larrialdi beltza 1512'an ere Rabena'ko borrokaldian; Julio II'aren inguruan bildu zan "Alkarte Donearen" gudarozteetan Aitasanturen Ordezkarri zalarik, frantzitarren eskuetan katigu erori bait zan'

Baiña baita atsegin-aldiak ere izan zituan, Elizaren Laterrietan

aurrena Perusa`ko eta gero Boloni'ko jaurlari laio izan zanean; edo Florentzi'ko Laterria ostera Medizistarrek artu zutenean Errepublika aren Lendakaritza berari eman ziotenean.

Ez da, beraz, arritzekoa, Birjaiotza-zale ospetsu guztiek Jon Medizitarraren autaketa poz aundiz artu izatea, gogorkeriaren etsai ziranak batez ere, "Urrezko-aroa" iritxi zitzaizela uste izan zuten, Julio 11 guda-egillearen atzetik Leon X patxadatsua etorri zanean; "saeculum illud ferreum regente in aureum versum", "burnizko mende ura une batean urrezko biurtua" izan zala; Erasmo'k dion bezela, uste izan zuten.

Elizaren berbizkudearen alde geienik lanean ari ziran gizadizaleek berak ere itxaropen aundiak zeuzkaten ipiñiak gizakume arengan, ainbeste lizunkeriar artean bere gazte-aroa aragikerietan loituga-bea izan zualako; "castissime superatam adolescentiam", Gregorio Cortese, gero Kardenal izango dan beneditar ospetsuaren itzen arabera.

Baiñan ori baiño geixago bear du Aitasantu batek bere eginkizunak ongi betetzeko. Laister ikusiko dugu nola jakin zuan beste Aitasantu batek, 111 Paul'ek, naiz gaztetan bizi modu garbia eraman izan ez, Eliz-garbiketaren alde egoki eta benetan lan egiten, 1Ta X Leon "gazte garbiak", ez!

Elizaren Buru bezela, iru gauza aipagarri egin zituan X Leon Medizitarrak: Letran'go V Kontzilioa amaitzea; Zisma konpontzea; Frantzi'ko Erregearekin, Bolonrko Konkordatoa.

1º- Letran'go edo Lateran'go Kontzilioa jarraitzeko asmoa Aitasantu egin zan bezain laister agertu zuan, ta 1513'tik 1517'ra zazpi billera egin ondorean, urte onen epaillaren 16'ean bukatu zuan. (Luter Witemberg'en barkapenen aurka oiuka asi baiño bost illabete t'erdien lenago}. Ez zuten asko pentsatzen Letran'go Eliz-Asabek, alako ekaitza ain urbil zeukatenik.

Leon X'ak azkeneko billerako itzaldian "Kontzilio arek bere asmoak lortu zituala" esan zuan "asmo aiek denbora artan lortuak izan zitezkean neurrian".

Ezer gutxi lortu zuala esango genduke gaur Ekumenikuetan XVIII'a dan Letran'go V kontzilio arek:

—Eliza garbitzeko eman zituan legeak okerrak ez izan arren eman bearrak ziran guztiak eman ez zitualako,

—Kontzilioko Asaba garaienak —eta geienak— aldaketarik nai ez zutelako,

—eta eman ziran lege egokiak betearezteko Leon X'ak eta aren

ondorengo Klemente VII'ak ez almenik ez leiarik izan ez zutelako...:

Len bezain loitsu jarraitu zuan Eliza Donearen aurpegiak. Ala ere, ez zan alperrikakoa izan Letran'go V kontzilioa, Elizak bere gorputz guztiaren zaiñetan zeukan garbitasun-egarriaren adierazle izan bait zitzaion mundu guztiari.

2º- Pisa'ko sasikontzilioa sortutako zismaren komponketan ez zuan Leon X'ak meriturik izan, zisma ura politikaren aizeak ezereztu bait zion. Bi bakarrik ziran zismatikuen alde zeuden Erregeak: Maximilian rgoa Alemani'ko Inperatorea eta Karlos XII frantziarra.

Baiña.', alde batetik, Frantzi'ko gudariak ez zuten adu onik izan Itali'ko gudatean, eta, bestetik, Maximiliarrek Aitasantuarekin pa-keak egitea erabaki zuan, Kristaudi guzia Letran'go kontzilioarekin zegoala ikusirik'

Eta baita Karlos Xtrak ere, bere burua bakarrik ikusi zuanean.

Orduan, Frantzi'ra iges-eginda zeuden sasikontzilioako kardenai, gotzai, eta beste eliz-gizon guztiak Aitasantuarengana itzuli ziran ostera. (1513).

Maiteki artu zituan Leon X'ak, eta len zituzten karguetan ipiñi zituan danak atzera. Ain zuzen Letran'go kontzilioaren amajtzako Meza Nagusia Pisa'ko sasikontzilioaren buruzagi izan zan kardenalak eman zuan: Bernardino Carbajai, Españi'ko kardenai urduriak.

Ala ere esan bearra da kardenai zisma-egille aien alde, apalki aitortu zutela beren errua, eta barkapena eskatu, Aitasantuaren oiñetan belauneko, Letran'go kontziliokide guztien aurrean.

Leon X'a ez zan epaiketa ta kastiguen maitale. Gauzei berez konpontzen lagatzearen zale zan. Zoritxarrez ez zaio berez konponduko laister Martin Luter'ek sortuko dion ixkamilla.

3º- Boloni'ko konkordatoa Frantzisko I'goarekin egin zuan, Errege onek gudan Aitasantuaren gudaroztea menderatu ondorean. Konkordatu ura, 1438'an Bourges'en lege egindako "Pragmatique Sanction" edo "Eliz gauzak erabiltzeko Erabakia" ezereztara zetorren'

"Erabaki" arek Aitasantua Kontzilioaren menpean ipintzen zuan. Ala ere I Frantzisko'k "Erabaki" ura onartzeko, eskatu zion Aitasantuari. Ezetz erantzun zion Leon X'ak, baiña une berean, "Borges'ko Pragmatika"n agertzen ziran eskubide guztiak, Konkordato berri baten bidez ostera Erregeari emateko gerturik zegoala esanaz. Ondo iduritu zitzaion Erregeari Aitasantuaren ekeintza au-ta, berealaxe izenpetu zuan Aitasantua Konkordato ospetsu au: 1516'ko Konkordatu.

Eta auxe: Konkordato onen bidez, "Bourges'ko Pragmatika"n Aitasantuen almenen aurka lege ;Oin ziran gogapen aiek ezereztea izan zan Leon X'aren garaitzarik aundiena. Ez zan ez garaitza alaia izan, Frantzi'ko Erregeari geiegizko eskubideak ematen bait zizkion Konkordato berriak; beste askoren artean garrantzitsuena gotzaiak, kanonigoak eta abatak aukeratzekoa.

* *

Erroma'ko Errege lez ez zan txarra izan Leon X'a. Egia da, Suizren alde eta Alemani'ren alde, Frantzi'ren aurka gudan sartuta menderatua izan zala. Bizkorki jokatu zuten Marignano'n ogei milla suizitarrek, Schiner kardenaI gudari iaioa buruzagi zutela. Garaille irten ziran ordea Frantzisko l'goaren ogeita-amabost milla frantzitarrek' Diplornaziaren bidez salbatu zan Leon X'a izkilluketan garaitua izan ondorean.

Itali'ko jauntxoan arteko ixkamilletan ere. Diru asko gastatu zuan. Bere illobak aunditzeko!

Politikan ez zan sekulan garbia izan, naiz edestilari italiarrek politikari trebea izan zala esan-da-bir-esan. 1 Maximilian il zanean Españietako Karlos eta Frantzi'ko Frantzisko l'a ziran buruntza guren ura nai zutenak. Ez bata eta ez bestea ez ziran Leon X'arentzat atsegiñak. Zergaitik? Bietatik edozein aundiegi egiten ba'zan, Elizaren Late-rirentzako etsai indartsuegia izan zitekealako.

Ez zan, ordea, ez bataren ez bestearen aurka agirian jarri. Frantzi'ko Erregearekin alkartu zan; eta orduantxe bertan, ixlllean, Españietakoarekin izketa goxoetan zebillen. Baiña une berean irugarren inperialarigai bat aukeratu zuan bere barruan, politikan indar aundiegirik ez zuana, Saxoni'ko Federik Jakintsua, Martin Luter'ek, Aitasantuen aurka jeiki zan ezkeror, izan zuan lagunik onena. Karlos irtengo zala Imperatore sumatzen asi zanean, egin zituan egiñalak, Frantzisko'rekin batean, autaketa ura galerazteko; baiña ziurki Karlos irtengo zala ikusi zuanean osoro Karlos'en alde jarri zan.

Errex gastatzen zuan dirua Aitasantu onek, bai bere sendikoak aunditzen, bai edertilari ta jakintsu guztiei laguntzen.

Edertu ta aunditu zuan Erroma Leon X'ak. Aitasantutza artu zuanean 40.000 bizilagun zituan uriak' 11 zanean 50.000.

Baita ere, bere Laterriko nekazaritzari laguntzen saiatu zan.

Errege lez ez zan, iñolaz ere, Errege txarra izan Leon X'a. Iñon ga-

rai aietan Jaurerri paketsu, Jaurerri alai, Jaurerri aberatsik ba'zan, Jaurerri ori Leon X'aren Erroma zan. Zuzenki uste aal izan zuten Birjaiotzako bizitza-maitaleek "urrezko aroa" iritxia zutela.

Tamalez ezin esan daiteke Leon X'a, Aitasantu lez ain iaio ta garaitsua izan zanik.

"Josu" esanaz eta Josu'ri laguntza eskatuaz il zanean, lokatzez be-tea uzten zuan Eliza' Na ere, aren denboran Martin Luter'ren 'altxakundea gertatu ez balitz, beste Birjaiotzako Aitasantuen aldean Leon X'a ez zan noski aipatuenetakoa izango. Ezta okerrenetakoz artua ere. Ez orixe!

Martin Luter'ek egin zuan ospetsu Leon Medizitarra.

Ez zuan jakin nola jokatu, Leon X gaixoak, praille agustindarra altxa zitzaionean' Badirudi altxakunde aren astuntasuna, ta ekarri zezazkean ondorio gaitzak, Leon X'ak ez zituala ulertu ere.

Baiña ori bera gertatu zitzaion beste askori garai artan, bai elizgizonen artean, bai politikarien artean, bai jakintsuen artean.

Ikusi dugu nola ibillí zan Leon X'a zalantzaz beterik, nondik jo ta nola ekin ez zekiala. Praille biurri arrekin asieratik go gorragoa izan balitz, ito aalko ote zuan, oraindik jaioberria zalarik, ostelaritzaren erejia?. Badirudi ezetz ere. Gorputz ustelari berez sortzen zaio zornea. Ostelaritza, era berean, Eliz ustel argandik naitanaiez sortubearra zan zornea izan zala dirudi.

ADRIAN VI
(1522 - 1523)

Len ere itzezin dugu Adrian Utrechtarrari buruz eta ikusi dugu nolako kemen sutsuarekin Elizaren xauketari ekin zion.

Betidanik izan bait zan Elizaren donetasunaren maitalel Agian, bere naimen orren bidetik zuzen aldatzeke jarraitu nai zuala adierazteko ez zuan Aitasantu egin zutenean izenik aldatu. Amargarren mendea kero bera bakarrik izan da aitasantutzan bataioko izenarekin jarraitu duana. Geroxeago etorriko dan Martzel II'ak ez bait zuan ia Aitasantu deitua izateko ere denborarik izan.

Kepa Donearen Aulkian egon zan urte laburrean, aurkitu zuan naigaberik ugari Adrian VI zintzoak' Ona naigabe aietan samiñenak:

Urte ortan galdu zuten Lekaide Zaldun Donibanetarrek Rodas'ko ugarteak' Ausardizko mirariak egin zituzten borrokan. Mundu guzia arritu zuten lekaide-zaldun aien kemen eta adoreak. Baiña askoz geiago bait ziran gaiñera jausi zitzaizkien turkitarrak, menderatuak izan ziran azkenean donibanetarrek eta kristaudiaren sorkaldeko babes zan ugarte ura Il Soliman bildugarriaren mendera igaro zan.

—Kristaudi-barruko ipar-lurretan zabaltzen ari zan lutertasuna nola geldiarazi ezin asmatu izan zuan'

Ta Erroma'n bertan ere bere aurka jarri zitzaizkon elizgizon garaiak, Aulki Donearen serbitzari-buruak, eta erriko jendea ere. "Barbarus", "atzerritarra", baiña batez ere, "basafia", "barbarus germanus", "germaniar basatia" omen zan Aitasantua. Baleike, —edestilari batzuek dioten bezela—, Aitasantu olandarrak Elizaren xauketan gogoregi ta urduriegi ekin izatea'

Baiña eskierki, Adrian Vi'ari gertatu zitzaiona, beste edozeiñi ere gertatuko zitzaion orduan. Leon X'aren eta aren aurrekoen garaiean diruz karguak erosi zituzten elizgizon ustel aiek, ez bait zuten xauketarik gura. Gaiñera, jakintsuengandik asita antzokietako txantxoetarai-

ño, Aitasantuengandiko diru errezez bizi zan jendez beterik zegoan Erroma; eta diru errez orrek gantzututa, alaiki bizi zan eta pozik Erroma'ko erri xea.

Jendetza arek danak bildur zion Elizaren garbitzeari; eta argiro aurka ez zeudenak ere ez zuten garbiketa ori egiten asteko presarik. Aspaldiko eundaka urtetan, Adrian VI'a zan Aitasanturik benetakoe-na. Ez da arritzekoa aren ekintzak asarre bizia sortu izatea.

Gaiñera, bere leiak eraginda, beiñ-edo-beiñ neurrilik atera oi zan Aitasantua bere izketako moduan, erromatar adimen landuen sentimenduak zaurituaz. Bere aurrekoek erakustokietan bildu zituzten antziñako irudi klasikuen aurrean, "idola barbara" "sasijainko basatiak" deadar egin omen zuan bein' Ta ez zeuden, noski, Birjaio-tzako Gizadizaleak, orrelakorik aditzeko...!

Baiña baterenbategen eman bear zuan aurreneko oinkada' Adrian VI'ak ri egin zualako, benetan xaunketa-lana asi aal izan zuten gero 111 Paul'ek eta beste Aitasantu elizgarbizaleek.

"Badira edestian, borondate oneko gizonek ezer egin ez dezaketen aldiak. Gauza ituna da, bai orixe, orrelako aldi batean bizi bear izatea", esanaz il zitzaigun Olanda'ko seme ospetsu ura.

Karlos V inperatorearen kuttun izateak ez zion aitasantutzarako on aundirik egin.

VII KLEMENTE (1523 - 1534)

Medizitarra' Bai bait zuan Lorentzo "Bikaiñak", Florentzi'ko Lendakariak, anai bat, Julen izenekoa, Lorentzo bera zauriturik irten zan matxinada artan bertan, Pazzis'tarrek Florentzi'ko Jauretxe Nagusian aitzoz il zutena... Julen aren semeazan Klemente VII'a. Leon X'aren lengusua, beraz, Leon X'a Lorentzo "Bikañaren" semea bait zan. Lengusu-lengusuak ziran Leon eta Klemente; lengusuak eta adiskide kuttunak.

Birjaiotza-aroko seme bene-benetakoa zan, Klemente; gizaseme apaiña, ederti ta jakintzaren maitalea, adimen-gaietan bera ere ederki ezia. Ez zan gizon gaiztoa; kemena falta zitzaion; gogoaren giartasuna' Esan dezagun Leon X'a baiño obea zala, baiña Leon X'ak kementasun gutxi ba'zuan, onek gutxiago zuala oraindik. Norbaitek esana da Kelemente VII medizitarrek gaixotasun bat bazuala; bakarra, baiña ura garrantzitsua: "anemia voluntatis", "naimenaren argaltasuna".

Medizitarra; diru-etxe-jabeen eta politika-egilleen sendi ospetsu bateko kirrua zalako, bi oztopo egin zituan bere aitasantutzan: Birjaiotzako Aitasantu geienak egin zituzten bi oztopoak:

Sendikeritza. Bere senide ta aideak jasotzeko ta aberasteko medizitarren interesak geiegi maite izan zituan, eta interesa oien serbitzura ipiñi zuan Eliza bein baiño geiagotan.

Politikeritza' Aitasantu baiño Errege bezela bere burua geixago kezkatzen ote zuan pentsa daiteke. Itali'ko ta Europa'ko politikaren sarean buruz-bera sartu zan beintzat.

Asieran, Karlos V Inperatorearekin alkartu zan' Ez Karlos atsegiña zitzaiolako, biak etsai bat zutelako baizik: Inghlanderriko Enrike VIII'a.

Karlos'en izeba zan Aragoi'ko Katalin, Enrike VIII'ak baztertutako emaztea, ta legezko dan bezela, Karlos V'ak bere izebaren eskubideak

babesten zituan. Klemente VII'ak, berriz, Inghlanderria zismara zeramagian Errege aren aurka Elizaren batasuna gorde nai zuan' Orra nola etsai kaltegarriago batek bi etsaitxo alkartu zituan.

Baiña ez zuan asko iraun alkarketa orrek, Klemente VII'ak bildurra bait zion Karlos V'ak zuan indarrari.

V Karlos, Inperatore lez, Itali'ko iparrean Tirol osoaren eta Trento'ko uriaren jabe zan. Berea zuan Milan'go Laterria ere, Egoan berriz, Aragoi'ko Errege zalarik bereak zituan Napoles'ko jaurerria, Sizili'koa, eta Zerdeña-ugartea. Lurrez eta itxasoz Karlos V'aren atzapar indartsuen artean esiturik gelditzen ziran Elizaren Laterriak iEta medizitarren Florentzra ere bai!.

Karlos V'ak bere bizian areriorik izan bazuan, Frantzi'ko Frantzisko Lenengoa izan zuan arerio. Onekintxe alkartu zan, bada, Klemente VII'a Karlos V'aren aimenari zion bildurrak eraginda. Ta alkartasunau sendotzearren, Aitasantuak bere illoba Katalin, Frantzisko l'aren seme Enrike'rekin ezkonarazi zuan. Seme au Frantzi'ko Enrike II'a izanen zan, eta Klemente VII'aren illobatxo Katalin medizitarra berriz, bere senarra Enrike II'a il ondorean' Errege-Ordezko lez, Frantzi'ko Agintari Nagusia luzaroan; Kontzientzi urriko emea; Elizari, ta Frantzrari ere, okerrik naiko egin ziena; "San Bartolome'ko Gaua" antolatu zuana.

Ez zuan Klemente VII gaixoak aitasantutza gozoa izan, Berri txarrak zetorkion sortaldetik eta iparretik. Sortaldean Soliman II'ak menderaturik zeukan Ungari, eta Austri, bere begien aurrean zegoan. Bazan kristaUdian, Biena uri galantaz jabetuko ote zalaren bildurra ere. Iparrean, berriz, Enrike VIII'a buruz-bera zisman jausia zegoan. Naiz asieran zalantza geiegirekin sendo ukatu zion bein ta berriro Aitasantu aultxo onek Errege arroputz arri bigarren ezkontza bat egiteko eskubidea.

Klemente VII'aren errurik audiena, Elizaren garbiketaren alde ezer baliotsurik ez egin izatea da. Egia da "Jankotiko Maitasunaren Lagundietatik" sortu ziran alkarte eliz-garbitzallee, eta Elizaren antza-berritzea billatzen zuten gotzai, apaiz, eta lekaideei lagundu zie-Ia; baiña berak ez zuan deus askorik egin.

Klemente VII'aren laguntzarekin sortu ziran leatitarrak, kaputxi-noak, barnabitarrak, somaskatarrak.


Kontzilio orokor baten eske zegoan kristaudi guzia. Entzungor-egin zion dei orri Aitasantuak.

Karlos V'ak 1534'ean Kontzilio baterako deia egitera zijoala esan

zioanean, olakorik ez egiteko agindu zion ezpairik gabe Aitasantuak'

Ez zan, noski, Karlos V'a Kontzilioa bildu bear zuana, Klemente VII'a baizik. Baiña Klemente VII'ak ez zuan nai kontzilorik. Bildur aundia sortzen zuan Aitasantuaren barruan, kontzilioa aipatze utsak: Kontziliarismo edo "kontziliokeriaren" bildurra; au da: Kontzilioa Aitasantuaren gaiñetik ipiñiko ote zalaren bildurra; Inperatorea kontzilioaren jabe egingo ote zalaren bildurra; kontzilioaren altzoan errege ta jaurreriek alkarrekin asarretuta, zisma, edo beintzat ixkamilla berriak, sortuko ote zituztelaren bildurra; eta, zergatik ez?, Kontzilioak ekarri zezakean bizitz-aldaketari Birjaiotzeko elizgizon lasai aietako edozeiñek izan zezaiokean bildurra.

Bildurrak baztertuta, arrisku ta okerzori guztiei aurpegi emanaz, Kontzilio Orokor ura len-bait-len asi bearra zala, gaur iñork ukatzen ez duan gauza da, baiña ez zan eskierki, Klemente VII txepetx ura, kontzilioa egiteko gai zan ziona'



III PAUL
(1534 - 1549)

Paul bere izenez, Alexander Farnesio zan, ain aipatua izan zan Jule Farnesio neskati pinpiriñ aren anaia. Ezaguna da Erroma'ko jendeak bal-bal esaten zuala neskato lirain ura, —"la bella Giulia"—, Alexander VI Aitasantu zarraren maitale lizuna zala.

Ta naiz lizunkerira iritxi zala ezin eskierki esan aal, egia da, zalan-tzarik gabe, Aitasantu zarrak biziro maite zuala andereño gazte pan-poxa'

Maitaketa aien aroan egin zuan Alexander VI'ak kardenai, bere maltetxuaren anai au' Bai laister erriak izen egokia jarri ere; "Cardinale Gonnella" deitu bait zion: "Azpiko Gonetatiko Kardenala".

Bere arreba polit ura, Aitasantuaren maitale izan zala egia ba'da, bizitza lasaiean arrebaren kideko izan zan Alexander Farnesio Kardenai gaztea. Iru sasikume izan zituan beintzat; bi seme ta alaba bat, Julio II Aitasantuak legezko egin zizkionak. Jakitez, beste Birjaiotzako Gizadizaleen antzera, ez zan iñolaz ere motza; ezta aberastasunaren eta bizimodu onaren etsaia ere.

Orrela jarraitu zuan aitasantutza artu ondorean ere: abeslari, neska dantzari polit eta komediegillez inguraturik bere Jauregian pesta alai zaratatsuak emanaz.

Ta ori Aitasantu egin zutenean zartua ta gaixotua zegoalarik! Baiña zerbait-txo bat oroitu bearrean gaude: Jai oiek, garai artako zirtua ziran-da, ez zutela iñortxo ere arritzen, eta, ori baiño garrantzi geiagokoa dana, Aitasantu izan baiño leenagotik ere aragizko obenak aspalditik utziak zeuzkala Alexander Farnese Kardenalak; eta berrogei ta zazpi urterekin apaiz egin zan ezkeroren bizitza gai ortan aratza eta garbia izan zala. (Ez, arren, aztu garai artan sarri, oso sarri, ematen zitzaizkiela gotzaitza eta Kardenaltza apaiz ez ziran mutiko gazteei).

Geiegizkoa ere bazan Ertiari ta Jakintzari beti izan zien maitasuna. Bein batean, Benvenuto Cellini gizon traketsa ta gaiztakeri askoren egillea zala entzutean, ara Paul III'ak zer erantzun zuan: "Ertiari bikain bat oiturari buruzko lege ta arau guzien gaiñetik dago". Itz ari ñegiak Aitasantu baten agotik jalkiak izateko.

Kepa Donearen giltzak eskuan artu zituan bezain laister egin zituan kardenal bere bi billoba, gazte denboran izandako alabaren eta bi seme aietako baten umeak. Kardenaltxo auetako batek amasei urte zituan; besteak amalau. Bazuten zertaz negar egin ostera ere Elizaren eraberritzearen zai zeuden kristau ugariak.

Ta ala ere, —izkutuzkoak izaki Jaungoikoaren bideak—, Alexander Farnese "Gonella" au zan Elizaren eraberritzea asi bear zuan Aitasantua.

Betidantik izan zan Eliza aratz baten zale, apaiz egin zan ezker, gure Kardenal au. Ez zan santu. Ez zuan iñoiz bizitza gogorrago bat eramateko kemenik izan, ezta ere atsik naiko Itali'n ain ugari ziran eleiz-garbitetaren aldeko Alkarteetan sartzeko, baiña biotz guztiz lagundu zien apaiztasuna artu ordutik Alkarte aiei eta Eliza garbitzen saiatzen ziran kristau guztiei. Batez ere Adriano Vi Aitasantuari lagundu zion zintzo.

Beste Erroma'ko eliztar aundikiek gorroto izan bazuten olandar zorrotz ura, ez Alexander Farnese Kardenalak. Alde jarri zitzaion, gogo osoz, Adriano Aitasantuari, Aitasantu au Elizari satsa-kentzen asi zanean'

Ta zindo jarraitu zuan bide ortatik, aitasantuen buruntza irukoia artu zuanean ere. Bere bi billobak, kardenal egin ba'zitan, ez zien ala ere, —beste Birjaiotzako aitasantuek egin oi zuten bezela—, ume aiei garrantzizko kargurik eman; eta ondorean egin zituan kardenalak, benetan gizon egokiegokiak ziran, Jon Belay Paris ko gotzaia, errege frantzitarrari atsegin ematearren Kardenaltzara jaso, kendu ezker. Kardenal egoki aien artean ospetsuak dira Jon Fisher (Inglannderri'ko espetxe batean martirien eriotzaren zai zegoana), Rexinald Pole, Sadolet, Carafa (gero IV Paul izango dana), Cervini, (au ere Marzel II izenarekin Kepa'ren Aulkira igoko dana), Aleandro (Alemani'ko nunzio erne, argi ta iaioa), Caracciolo legedllaria, Gaspar Contarini Gizadizale ospetsua. Azkeneko au ez zan eliz-gizona, kristau xumea baizik, baiña ala ere elizgarbiketako lanetan lenen mailleko zuzendaria. Auen antzekoak izan ziran Paul III'ak jantzi gorritz ornitu zituan beste gizonak'

Erasmus bera ere Kardenal egitea pentsatu omen zuan, eta ori, ez Aitasantua Birjaiotzazale setsua zalako bakarrik; baita Erasmus bere auts eta akats guztiekin egiazko kristaua eta Elizaren garbitasunaren maitale ziñezkoa zalako ere. Zârregia zan, ordea, Rotterdam'go maixu ospetsua ordurako. Ez zan, gaiñera, olako karguen maitalea.

Kardenalen autaketa auek alaitu zuten, aspalditik donetasunaren egarri zegoan Elizaren gorputza' Eundaka urteak ziran ez zutela kristauek Aitasantuaren inguruan orrelako aolkulari ta laguntzaillezko Batzar ospetsu bat ikusten.

Izan ere ¿zer ziran, aspaldidanik Kardenalaren lagundia osatzen zuten gizakumeak? Geienak, edo ume ta mutil koxkor zentzugabeak, edo gazte txoro arroak, edo gizon aberats jakintsuak, ongi bizitzearen zaleak' Orrelako gizasemeen gurari garbiena zer izan zitekean? Ertia, elertia, jakintza, jauregi ederrak, eizaketa... edo Eliz-Laterrietako gudarrien aitzinean borroka egiñaz altsu ta ospetsu izatera iristean

Bai noski, izan ziran len ere Kardenalen artean gizon zintzoak, gizon santuak. Baiña gutxi. Askoz geiago izan bait ziran, ordurarte, beste mota artakoak: Kardenal txepelak, amimeko giartasunik gabeak, "mundukoiak".

Orain ordea Aitasantuaren saietsetan ibai eder kardenal agurgarri aiek...! Mundu guztiak ezagutzen zituan. Edonork zekian, iakintza mota orotan maixu zirala. Baiña, batez ere, mundu guztiak nekian, gizon aiek zintzoak zirala, Eliza zuzentzearen ordurako lan aundiak egin zituztela, eta Elizaren zuzentasun ori lortzeko beren bizia ere emateko gerturik zeudela. Donetasunez apaindua agertzen zitzaion Eliz guztia-ri Kardenalen Batzarra, ta pozik zegoan kristaudia; iraulketa osoaren garaia iritxia zala sumatzen bait zuan.

Kardenaldiaren aldaketa ori besterik egin ez balu ere merezi zuan omenik naiko Paul Ilrak. Nork pentsa Alexander V[Borxa'tarrak gorritz jantzitako Farnesio gazte kaxkarin ura, --Azpigonetatiko Kardenala—, orrelako ekintza bikain bat aurrera ateratzeko gai izan zitekeanik? Ez bait zan nolanaikoa Alexander Vraren denborako kardenaletatik, Paul III'ak izendatutako Kardenaletara zegoan alde!

Baiña Paul III'ak ez zuan ori bakarrik egin' Bigarren eginkizuna Elizaren eraberritzea aurreruntz eramateko Batzorde bat osatzea izan zan' Batzorde ortarako, Aitasantuak benetako gizon egokiak aukeratu zituan, eta batzordearen lana, ia dana, bere-egin zuan Trento'ko Kontzilioak.

Egin zigun beste zerbait ere Paul III'ak Eliza txukuntzearen alde.

Ona bere eginpenik gallurrenak:

—"Araupeko Apaizen Anaidi" berriei onespena ta azkeneko baiezkoa ematea. Berak aprobatuak dira Iñaki Doneak eraturako "Josu'ren Lagundia"; neskatoei erakusteko bildutako "Urtsuletarren Lagundia"; eta baita "Somaskatar Apalzena" ere. "Kaputxino" edo "Buruilurdenen" Anaidi sortuberriari ere, Paul Ill'ak gorde zion bizia, Aita Ochino, anaidiaren Zuzendari Nagusia, lutertar egin zanean. Konturatu zan Aitasantua -Buruilurdun" guztiak ez zirala Ochino'ren antze-koak'

—Inkiszioaren berbiztea. Aspalditik zegoan illik inkiszio bildurgarria Erroma'n eta kristaudi guztian ere, Españi'ko Jaurerrietan izan ezik. Jaurerri auetan Erregeak, —Fernando "Katolikoa" k—, oso begiko zuan Elizak sortutako epaiizkillu ura, oso egokia bait zitzaion bere politikako asmoak aurrera ateratzeko. Españi'ko inkiszioa, Elizarena baiño askoz geiago izan zan, beti, Erregearen epaimaia.

Karafa'ren eta Toledo'ko Alvarez Kardenalen eskaria onartuaz, ostera 1542'an indartu zuan Paul ill'ak Erroma'ko Inkiszioa eta Karafa bera izendatu zuan epaikuntza ta epaiketa guztiaren Zuzendari Buru'

"Inkiszioa", sinismena zaintzeko indarra, zigorra, samiña ta eriotza erabiltzea zan, ta ez da noski ori Elizari dagokion lankera' Baiña gizadiaren edestiak aldi bakoitzean bere erak eta bere legeak ditu. Aiek ziran orduangoak eta guk ezin dezazkegu orduango jokaera aiek, gaurko era eta oituren bidez epaitu.

Gizakume gogorra Karafa; gogortasunaren zalea. Gogoz egin zuan lan Inkiszioaren altzoan eta sartu aal izan zuan epaikera ori Napoles, Benezi, Milan eta Florentzi'ko Laterrietan'

—"Index" edo Liburu Gaiztoen "Zerrendaren" ezarketa. 1543`an sortu eta argitara eman zuan Paul Ill'ak Zerrenda aipatu au, bertan agiri ziran liburuak irakurtzea debekatuaz, eta geroztik gaur-gaur arte Zerrendako liburuak irakurtzea galazten duan legea Elizaren legerik zorrotzenetakoa izan da, lege ori austen zuana exkomikaz zigortua, ots, Elizatik kanpora jaurtia izateaz zigortua, izaten bait zan'

Ez dirudi exkomikaz zamatutako Zerrenda orrek ere sinismena babesteko Elizak jatorki erabilli lezakean izkillua danik. Guk bezela uste izan du Elizak berak, eta gaur liburu debekatuen Zerrenda baztertua eta deuseztua izan da' Liburu gaiztoen irakurtzeak ez du gaur be- rekin exkomikapenik.

Baiña Paul III'ren ekiterik aundiena, Kontzilio Ekumenikoari asiera ematea izan zan' Ez zan lan erreza kontzilioaren biltzea, eta ez zan erreza egiña ere izan' Iru ekiñalditan egin zan Kontzilio Ekumeniko ospetsu ura: Trento'ko kontzilioa. Aurreneko ekiñaldia Paul III'aren garaian izan zan; III Julio'renean bigarrena, eta irugarrena Pio IV`arenean. 1545'ean asi zan eta 1563'an amaitu. Emezortzi urte iraun zuan, beraz, baina 1536'ean egin bait zuan Paul III'ak Kontziliorako aurreneko deia, esan daiteke 27 urteko bizia izan zuala, ain ospetsu izan zan Kontzilio arek.

Ez zan txantxetako lana, garai artan Kontzilio Ekumeniko bat osatzea, berealaxe ikusiko dugun bezela; baiña ez zuten eragozpen guztiek Paul III'a ikaratu, ta badu ontan meritua, meritu arras aundia gaiñera.

Oroitu ditzagun Aitasantuak topatu zituan eragozpen aiek:

—Kardenalen ezezkoa. Aitasantutza artuta bereala, 1534'ean, agertu zuan Paul III'ak. "Konsistorio" edo Kardenal-Billera batean, Kontzilioa egiteko asmoa, ta andik lau illabetera esan zien kardenalei, beste billera batean, kontzilioa biltzeko lanean aстера zijoala. Orduantxe artu zuan Aitasantu berriak lenengo tankatakoa. Kardenal aiek, la danak, kontzilioaren aurka atera ziran.

¿Zergaitik ote? GKardenaf aiek bizikeraz aldatu nai ez zutelako? Badaiteke, baiña ez noski orregaitik bakarrik. Guztien oroitzen zeuden oraindik azkeneko Kontzilioak. Kostantza'koa, ainbeste naSketa sortu, ta, gaiñera, "kontziliarismo" edo "kontziliokeriari" alako indarra eman ziona; Basilea'koa, egiazko zisma batean bere bizitza amaitu zuana; Letran'goa, Leon X'ak ogeita iru urte lenago amaitutako Laterandar Kontzilioa, Elizaren garbikunderako zuzenki bildua, eta, gai oni-buruz beintzat, izugarritzko uts borobilla irten zana.

Bazuten zertaz bildur izan kardenalek' Baiña Paul III'ak ez zion oztopoei bildurrik; ezta kardenalek aurkeztu ziotenari ere' Laister ikusi zuan azkeneko oztopo au nola garbitu, andik lau illabetera asi bait zan kardenaI berriak izendatzen; ikusi ditugun kardenai bikaiñak.

—Agintari kristau askoren mozkeria. Orrela 1536'ean Paul III'ak kontzilioa Mantua'n biltzea erabaki zuanean, Mantua'ko dukeak askaeziñezko korapilloz lotu zion ukatzera ausartzen ez zan baimena. Urrengo urtean (1537) Benezi'ko lurraldeetan zegoan Bizentza deritzan uri txukenean bildu nai izan zuan Kontzilio jaiokaitz ura, baiña

sei gotzai, isei bakarrik! etorri zitzaizkion Bizentza'ra. Eta... geroxeago, iukatu egin zion Benezi'ko Jaurlaritzak Bizentza'n jarraitzeko bai-mena!

—Karlos V Inperatorearen politika. Paul III'ak urrengo urtean asinal izan zuan berriro kontzilio bilkaitza, baiña Inperatorea ez zan oraindik kontzilioaren adiskideegia. Bazekian lutertarrak ez zirala kontziliora joango; ez bait zitzaien ajola Elizak zer sinismen zuan jakitea, berak beren kixara egiten zuten Bibliaren ulerketa aurrera ateratzea baizik. Gaiñera Martin Luter'ek kontzilio ekumenikoak utseziñak ez zirala esan zuan ezkerro kontzilio batek ez zezakean lutertarrentzat baliorik izan.

Inperatoreak berriz, lutertarrekin pakea nai zuan, eta pake ori lortzeko, erlijio-Baiezko alkar-izketen bidez, bera bakarrik naikoa zala uste izan zuan. Orrela bildu zizkigun bein da berriro katoliko ta lutertarren teologilariak alperrikako jarduketa luzeetan. Orrela Inperioko Lege agertu zuan 1541'ean Ratisbona'ko "Interim" edo "Bitartekoa".

Karlos V'a Paul III'aren bideetatik landa zebillen arazo auetan, eta biziro, ta arrazoiarekin, asarretu zitzaion Aitasantua'

Baziran ordurako bi urte Paul III'ak, Inperatorearen jokaera ori ikustean, noizkorik gabe Bizentza'ko kontziliogintza geldiarazi zuala. Baiña ez zuan orregaitik etsi.

—Errege kristauen arteko gorrotoa. Orrela III Paul'ek ostera Kontzilioa, oraingoan Trento'n, biltzeko agindua eman zuanean, Karlos V'aren eta Frantzisko I'aren artean sortutako gudak ito zuan, jairo aurretik, Elizaren Billera Nagusi ura.

Gaiñera, bitartean, gero ta okerrago zijoazen Inperatorearen eta Aitasantuaren arteko arremanak, eta Inperatorearena zan oraingoan errua, gero ta geiago ari bait zan Karlos V'a sinismen-auzietan sartzan; eta gero-ta nabarmenagoak bait ziran protestalaritzari ematen zizkion amoreak.

Crespy'ko pakeak 1544'ean alkartu zituan Karlos ta Frantzisko. Bereala ekin zion Paul III'ak Kontzilioketari' 1545'ean deitu zituan ostera gotzaiak Trento'ra, baiña ez zitzaion oraingoan ere ia iñortxo ere etorri. Ez zan Aitasantua zimurtu. Idatzi zien berriro Gotzaiiei, Trento'ra etortzeko agindua' Sortu ziran eragozpenak: batzuek Trento Inperio'ko uria zalako inperatoreak geiegi agindu nai izango zuala uste zuten; beste batzuek, osasunerako Trento'ko giroa txarra zala zioten. Aitasantuak, bere asmoak sendoak zirala adierazi naiean, Kontzilioa Boloni'n bere Laterrietan zagoan Boloni'n egitea pentsatu zuan.

Azkenean, ordea, Trento izan zan aukeratua.

Mundu guztiak ikusi aal izan zuan Paul Ill'aren kemena' eta, orrela, ostera urte artako abenduaren 13'an Kontzilioa Trento'n bertan as-teko agindu zuanean ez zion, inoizbait!, iñortxok ukorik egin' Protes-talariek bakarrik; baiña ori, Aitasantuak itxaro zuan gauza zan.

Lau Goigotzai, ogei ta bat Gotzai, bost Erlijioso-Anaidien zuzen-dari Nagusi, auen artean ospetsuena agustindarren Seripando, izan ziran Kontzilioa asi zuten Asabak Teologilarien artean aipagarrienak Cano ta Soto domingotarrak eta Lainez ta Salmeron iñakitarrak, az-keneko bi auek Aitasantuak bere teologilaritzat autatuak. Kontzilioa-ren lendakariak iru kardenal ziran: Cervini, Pole, eta Del Monte, berea-laxe Julio III Aitasantua izanen zana. Julio onen atzetik Aitasantu izango da Cervini ere: Paul IV` a; eta Pole, aitasantu-gai izan zan kon-blabean. Ez ziran beraz nolanaiko gizonak Ili Paul'ek izendatuko iru lendakariak.

Atsedetik gabe lan egin zuan Kontzilioak bere aurreneko ontan 1545'etik 154453'araño. Urte ontan Paul Illa kontzilioa gelditu bearren aurkitu zan. Ona zergaitik'

Izurria agertu zalaren susmurrua sortu zan Trento'n, uste gabean gizakume batzuk il ziralako. Zein bildurgarriak ziran orduango izurriak oroitzeko "izurri Beltzaren" ondakiñak gogoratzea naikoa izango da' Bildurtu ziran Kontzilioko Gotzaiak eta Trento'fik irtetzeko baimena eskatzen asi ziran Aitasantuaren Ordezkarikardenalei' Auek, —Paul Ill'aren iritiz urduritxoegi—, Gotzai geienak ala nai zutela ikusi zute-nean Kontzilioa Boloni'ra eramatea erabaki zuten (1547)' Bi urte egon zan Kontzilioa Bolonrn; bainan ez Kontziliokide guztiekin, asarretu egin ziran ba Inperatorearen Laterrietako Gotzaiak Boloni Elizaren La-terrietan zegolako, eta Aitasantuaren uri artara joateke, Inperatorea-ren Trento'n gelditu ziran muturturik. Amalau ziran Gotzai aiek. Asa-rretu zan Aitasantuarekin V Karlos ere izurrite ura aitzaki utsa zala us-te zualako, eta Trento'n beste eriotzik ez bait zan izan, eta bera, Es-malkalda'ko Printzipeak MULberg'en zapalduta, iñoiz baiño indartsua-go aurkitzen bait zan, eten gabe eta gogorki ari zan Kontzilioa Trento'ra itzultzeko Paul Ill'ari eskatzen.

Baiña kontzilioko gotzairik geienak, Aitasantuaren iru kardenal ordezkarriak, eta Aitasantua bera, Inperatorea kontzilioko gauzetan geiegi sartzen zala-ta, ez ziran Trento'ra itzultzearen zale'

Bazan zismaren arriskua. Trento'n zeuden, muturtuta, Inperato-rearen gotzaiak. Aiek an zeuden bitartean lan-da-lan ari ziran Boloni'n

billera ugarituetan, kontzilioariak: —70 teologilari, beste orrenbeste gotzai—. Alkarren aurka bezela agertzen ziran Boloni ta Trento'

Bazan, baike, zismaren arriskua; baita ere, zorionez, zismaren bil-durra' Orregaitik, buruzki jokatuaz, Trento'n gelditutako Asabek ez zu-ten iñoiz billerarik egin. Paul III'ak berriz, begi argiz, Boloni'koei la-nean jarraitzeko, baiña beren erabakiak munduari ez aldarrikatzeko agindu zien.

Gero ta geiago ari bait zan Karlos V'a Kontziioa Trento'ra erama-teko deika, Kontzilioa Aitasantuaren Laterrietan zegoan bitartean lu-tertarrak Kontzilioa joateko biguinduko ez zirala aitzakitizat jarriaz..., eta gero ta geiago ari bait ziran, batez ere Ratisbona'ko "Interim" sor-tu zanetik, Aitasantua ta Inperatorea bata bestearekin zipozten...; ta gero ta geiago bait zeuden kontzilioko Asabak Kontzilioa Boloni'n ja-rraitzearen alde..., erabaki zuzenez Paul III'ak Kontzilioa istea pentsa-tu zuan. Orrela amaitu zan 154453'n Trento'ko kontzilioaren aurreneko eklhaldia.

Andik illabetera amaitu zan Aitasantuaren bizitza ere, animeko naigabe samiñetan agortua. Kontzilioa, ain maite zuan kontzilioa itxi bearrak eta bere sendiak, ain neurri gabe kuttun zitzaion sendiak emandako naigabeek, mindu zizkioten azkenengo egunak' Azkenen-go egun aietan erail zioten, aitzoz, bere bi eme maite aietako bat; beste semeak berriz, beti eman zizkion izugárrizko naigabeak.

Sendiarenganako maitekeria izan zan III Paul Aitasantuaren pe-katu bakarra; sendiagandik antolatu zion Jaungoikoak, kidezko zi-tzaion penitentzia.

III JULIO (1550 - 1555)

la iru illabete iraun zuan Konklaberik edo Giltzapeko Batzarrik lu-
zeenetako baten ondorean, aukeratu zuten kardenalek Aitasantu-
tzarako Del Monte Kardenala, Kontzilioaren lendakari izana.(Frantzis-
ko l'aren politikeriak luzeaz zuan ainbeste autaketa ura)'

Bazirudian ez zala Aitasantu izateko egokiena. Ala, Morone edo
Pole aukeratu nai izan zituzten askok. Eskierki baziran Giltzape-
Batzar artan autatua baiño gizon argIagoak eta santuagoak; Del Mon-
te gizaxoa bere irurogei urteetan osoro agureturik zegoan. Ez zan ado-
re aundikoa; Inperatoreari beintzat bildur geiegi zion; Illoba diruzaleez
inguratua zegoan; eta, gaiñera, gaiñera... biziera-goxo-zana zan.

Askotan laga izan du Jaungoikoak bere Elizaren zuzendaritza, ga-
rairik larrietan, egokienak ez diruditen gizonen eskuetan, agian *Eliz-
zaren iraunketa gizakumeengandikoa ez dala adierazi nai digulako*.

Ta ez zan gozoa orduantxe Elizaren egoera Aitasantutzaren aur-
kako protestalarien ekiñaldiak, orduan ziran gogorrenak eta lotsaga-
beenak. Agintari kristauen **iguingarri zebillen Elizaren ara-**
zoetan naasita. Pentsa!: turkitarren itxasontziak Elizaren laterrietako
itxasertzetan lapurreta bizian zebiltzan..., i Frantziko II Enrike'k deituta!.
Ta une berean II Enrike ori ber-bera, iFrantzi'n protestalariak sutan
erretzen ari zan. ¿Alkarrekin lotu ezin daitezkean jokaera bi?' Ez orie-
xe. Bazekian Enrike'k zer egiten zuan. Turkitarren bitartez bildurrara-
ziaz, eta ereje-erreketen bidez losintxatuaz, Aitasantua irabazi nai
zuan bere politikarako.

Julio III'a kontzientzi garbiko gizona zan, naiz bizikera goxoa mai-
tetxoegi izan; eta, batez ere Elizaren garbitasunaren zale benetakoa
bait zan, berealaxe pentsatu zuan Trento'ko Kontzilioa jarraitzea. Zo-
rionez, bere aldeko zuan asmo auetan Karlos V Inperatorea.

Inperatorea alde izan ezkerro, jakiña zan aurka izanen zuala Fran-
tzi'ko Enrike II; kontzilioa Trento 'n Inperatorearen babesean aurrera ir-

teten ba'zan, Inperioko Laterriek, beti kolokan ibilli oi ziran Laterri aiek, Karlos V'aren alboan batu ta sendoago alkartuko ziralaren bildur bait zan. Eta Frantzi'ri Inperioaren sendoketarik ez konbenil

Julio III'ak kontzilioaren asiera aldarrikatu zuanean, asarre irten zan Erroma'tik Enrike II'aren enbaxadaria, Frantzi'n bertan Erregearen aginduz bildu zitekean beste kontzilio baten zemaiz zitala egiñik' jZisnaren arriskua, berriz ere...!

Ez zan Julio III'a ikaratu.

Frantzi'n, zismaren arriskua Gisa'tar Karlos, Lorena'ko kardenalak deuseztu zuan. Bedi esker on Kardenal Gisatarrari!.

Orrela asi zan Trento'n 1551'ean Kontzilioaren bigarren ekiñaldia, amalau Gotzai bakarrekin. Ontaz oartu gindezke, ez zala txantxetako gauza kontzilioa berbiltzea, eta Julio III'ak baduala ontan bere meritua.

Kontzilioaren bigarren ekiñaldi onek ez zuan urte bete besterik iraun. Etorri ziran Trento'ra Lutertarren ordezkariak ere, baiña laister ikusi zan ez zala aiekin alkartzeko modurik izango, Kostantza ta Basilea'ko ariari elduaz, alkarrizketan asi aurretik, Kontzilioa Aitasantuairen gaiñetik zegoala Elizaren siniskai eta lege bezela ezartzea eskatzen bait zuten.

Kontzilioak, poliki lan egin zuan, baiña ez zan, tamalez, oso era pozgarrian amaitu. Europa'ko politikak moztu zion bizitza. Alernani'ren eta Frantzi'ren artean gudua ler-zori zegoala edonork zekian-da, urduri zeuden Kontzilioko Asabak. Jullo III'ak, ordea, Kontzilioa jarraitzea nai zuan, eta Aitasantuairen eskariek lortu zuten Elizaren Batzar arri, illabete batzuetarako beintzat, ats ematea' Baiña baziran an iru gotzai, besteek ez bezela politikaren barrutian garrantzi bereizia zutenak: Inperioko Gotzai Autalariak' Beste lau printziperekin batera, Inperatorea autatzen zuten iru Gotzaiak: Treberis'koa, Maguntzi'koa, Koloni'koa' Larri zeuden auek; ta —guda batean zer gerta leiken ez bait da jakiten—, Alemani'ra itzuli bearrean aurkitzen zirala uste izan zuten. Inperatoreak berak ere, kontzilioa gelditzeko eskatu zuan. Ta guda asiberrian, Saxoni'ko Maurizio, Insbruk'en inperatorea preso arrapatzearen, Tirol'en sartu zala jakin zanean, ikeratu ziran Trento'ko Asabak, Trento bera ere Tirol'en bait dago,

Au dana ikustean, Julio III'ak kontzilioa isteko agindu zuan; 1552'ko maiatzaren 28'an izan zan Trento'ko bigarren ekiñaldi onen azkeneko billera.

Bazuan Julio III'ak, berak aginduta egiña, Erroma'ko arresiez lan-

da, zoragarrizko jauregi bat, lorebaratz arrigarriez Inguratua. An izkutatatu zan bere azkeneko urteetan, baiña ez, bat-edo-batek dion bezela, Elizaren antzaldatzeaz aztuta. Ez zuan Julio Illak Elizarik aantzi. Biotz-biotzez egin zuan lan, kristaudia donetasunera eramateko' Batez ere aipagarri da, ainbat arduraz, zituan kardenalik onenez inguratuta, astiro ta kontzientzi osoz, Aitasantu-Autaketa konklabeetan obeki egiteko gertu zuan Araua. Zoritxarrez arau ori lege egiteko denborarik gabe i1 zitzaigun!

Julio Ill'a Aitasantu ona irten zan' Bere oben bakarra..., aitasantutza artu zuanean anai baten seme buru-arin bat Kardenal egin izatea.

Aitasantu onek egindako lanaren ondorioa da, noski, bera ill ostante, zalantzarik gabe, ago batez, konklabeko kardenalik egokiena aitasantutzarako izendatua irten izatea: Cervini Kardenala; jakintsua, argia, laioa, baretsua ta bildurrik gabea, bere buruarekin zorrotza ta besteekin errukitsua, sinismen biziko kristaua, gizadizale eztsua, egiaren alde arkaitza bezain tinkoa. Gizon maitagarria benetan Martzelo Cervini, Inghlanderriko Rexinal Pole,ta Julio III ilberriarekin berekin, Trento'ko Kontzilioaren lendakari izana. Aitasantutzarako ez zuan izenik aldatu: Martzelo II. Au izan da bataioko izenik utzi ez duan azkeneko Aitasantua. Iñork Eliza bere garbikunde osora eraman ba'zezakean, Martzelo II'a zan lan ori egin zezakean gizona. Pozik zegoan kristaudia'

Jaungoikoaren asmoak ordea ez izaki gizakumeenen kideko. Ogei egunez bakarrik egon zan Martzelo Cervini Elizaren lendakari tzan' Musikalariek ondo ezaguna dute Martzelo II'aren izena, aren omenez Palestrina'k idatzi zuan Meza dala-ta'

Martzelo II'aren lendabiziko asmoa Julio III'ak Aitasantu-Autaketarako gerturik zeukan araua lege egitea, eta Kontzilioa lenbait-len ostera bilduaraztea izan zan; baiña ez bata ta ez bestea egiteko denborarik gabe il zan. Edestilari guziek aipatzen dute, aretzaz ari diralarik, il zanean agoz-ago ibilli zan esakizuna: Orrelako Aitasantu egokia, itxaropen guztiak ernerik zeuden une artan, "Jaungoikoa'k Elizari eman ez baiña erakutsi bakarrik egin ziola".

PAUL IV
(1555 1559)

Julio Illak gizonik egokiena aukeratzeko kardenaletan piztu zuan gurariak eraginda, aukeratu zuten auek aitasantutzarako zorrotzena zala uste zutena: Inkisizioaren buru ikusi degun Karafa Kardenala' Ez zuten asmatu: Jon Kepa Karafa napolitarra, bazan, baike, garai artan Elizak zuan gizonik zorrotzenetakoa, baiña Aitasantu izateko ez zan egokia. Otoizlari nekaeziña, langille porrokatua, bizikera gogorrekoa, bere gorputza zigortzearen maitalea, txirotasunaren lagun egiazkoa, Eliza garbitzeko zaletasunak irrikitzen zeukan gizona, bildurrik gabea; zintzoa ta zuzena, an orduan iñor zuzenik ba'zan.

Baiña ez zuan aitasantutzarako balio. Eginkizun berezia, eginkizun bakarra, besteak ez bezelakoa, da Aitasantuaren eginkizuna, eta eginkizun ori egoki aurrera ateratzeko ez da santutasuna bakarrik nai-koa. Zelestin V'aren agintaritzak erakutsia zeukan ori: baiña 1555'ean giltzape-batzarreko kardenalak ez ziran erakusketa aretzaz gogoratu.

Paul IV'a, —mea, giarra, oro azal, ta oro ezur—, gogorregia zan, setatsua, urduriegia, bere gogapenetaz geiegi fiatzen zana, eta bes-teengan bear aiña konfiantzarik ipintzen ez zuana; patxadarik artzen jakin ez-ta gauzak azkarregi asi-ta-bukatzearen zalea, baita kezkatua ere, bazter guztietan erejia ta okerra ikusten oitua. Neurmena falta zitzaien; gauzak, gizonak, gertakizunak, gogapenak, arriskuak, eta denborak eta garaiaek tajuz neurtzeko almena alegia.

Orregaitik egin zituan gauza arrigarriak:

III Paul'ek argitaratutako "Index" ura, IV Paul'ek bir-argitaratu zuan orain, baiña zentzurik gabe ugaritua, zuzentasunaren neurri guztiak ausiaz. Kepa Kanisio Doneak berak "Petra Scandall", ots, "oztopo-arri" deitu zion, arrazoi osoz, "Idazki Debekatuen Zerrenda" Karafar oni.

Paul III'ak bildu bait zuan Elizaren berbizkundera gertutzeko Batzorde bat Jon. Kepa Karafa bera bazkide zala, eta Batzorde arek idatzi

ta argitaratu bait zuan "Iritzi" bat,.., ba Jon Kepa Karafa'k Paul IV biur-tu zanean, "Iritzi" ura iidazki debekatuen zerrendan sartu zuan!, bere sudur ozpinduentzako agian usai garbiegirik ez zualako. Aitor deza-gun ala ere, Karafatarraren aldekoek diotenez Paul IV'ak Iutertarrek Estrasburg'en oarkizun okerrez beterik egin zuten "Iritzi" aren argital-dia debekatu zuala.

—Julio III'ak prestatu zuan eta Aitasantu arek eta bere ondoren-go Martzelo II'ak lege egin nai izan zuten "Aitasantuen Autaketarako Arau" ura Paul IV'k erabat bazterturik utzi zuan. Besteren gogakizu-netaz Karafatarra ez bait zan fiatzen! Berak bazituan bereak, etabere gogakizun aien argira berritu bear zan Eliza.

—Izugarrizko indarra eman zion Inkisizioari, ta EpaiMai bildurga-rrari aren aurrera deitu zituan Elizako gizonik ospetsuenak: Rexinal Pole Kardenala, ia-ia Aitasantu irten zan eta Elizaren alde ainbat lan bikain egin zuan Pole ura. Baita Morone Kardenala ere, Pole bezain argia ta ura bezela aitasantu izateko une-unean egona. Zergaitik deitu zuan? "sinismenaren alde zigorra erabiltzeak iñoiz zitu onik eman ez zuala" esan zualako. Gotzaiak, santuak berak..., edozein kristau, zegoan inki-sizioaren atzaparretan eTortzeko zorian. Ostiraletako baruastea bera ere Inkisizioko epaiketara eramaten zan-da.,! Zabaldu zan Eliz osora alako zekenkeri ta larritasun-aize bat...

Abila'ko Donibane'k, Abila bertako Doneterese'k eta beste Done eta Elizako aingeru eraspengarri batzuek ere izan zuten Inkisizio erre-txindu aren aldetik naigaberik aski.

—Paul IV'ak, aitasantutza artu baiño lenago giltzape-batzarrean zegoala, egin zuan beste kardenalek bezela, Aitasantu irtetzen ba'zan kontzilloa ostera biltzeko juramentua. Ikusi dugu len ere, or-duango kardenalak, konklabera sartzean, zinketa ori egiteko oitura bazutela. Esan dugu, baita're, ziñ ori ez zutela gero oso zeatz bete-tzen. Ba, orixe egin zuan Karafa'k ere: Kardenal lez egindako ziñik ez bete, Aitasantu izatera iritxi zanean,

Ta auxe da arrigarri: Beste Aitasantu batzuek ez zuten kontzilio-rik bildu nai izan, kontzilioari bildur ziotelako; Paul IV'ak ez zion ezer txori bildurrik. Zergaitik ez zuan ba Kontzilorik bildu? Elizaren garbi-kundea geiegi maite zualako; eta garbikunde ori azkarregi egin nai zualako.

Kontzilioko Asaben eztabaidak, teologilari eta legedilarien jardue-ta luzeak, kontzilio atzetik sortzen ziran errege ta laterri-buruen igi-kadak..', izketa ta ixkamilla aiek danak Elizaren garbiketa zaillagotu ta luzaarazi besterik ez zuten egiten Paul IV'aren ustez. Garbiketa ura,

osoro, egoki, eta azkar, egiteko ez zuan kontzilio bearrik. Naikoa zan bera bakarrik; naikoak, berak eman zezazkean lege ta aginduak. Ain zuzen, eskier, seguru, uste izan zuan Paul IV'ak Jaungoikoak Aitasantu ortarakoxe aukeratuarazi zuala'

Agian galdera bati erantzun gabe gelditu gera: Nola Jon Kepa Karafa bezelako gizon zintzo batek, aitasantutza artu aurretik egindako ziña, aitasantutza artu ondorean ez zuan bete? Aitasantuak zin guztien koropilloak askatzeko almena badualako. Ori ala bada, oraindik kardenaI zirala betetzeko asmorik gabe egiten zuten zinketa ura gauza zikiña zala?. Guk ala dakusgu; baiña gizon aiek ez zuten ala ikusten' Gaiñera agintaritzari buruz Paul IV'aren gogapenak ez ziran guztiz zuzenak, oso-osoan teokraziaren mamiz oretuak bait ziran. Erdi-Aroko Aitasantuak bazain teokrazizale zan Paul IV'a. Bazuan berak, bere ustez, erlijiozko eta politikazko zinketak, legeak eta bearkizun guztiak lotu eta askatzeko almena'

Ez da beraz arritzekoa, Paul IV karafatarra politikan sakonki sartu izatea. Frantzi'ren aldekoa izan zan Españi'ren etsai zalako. Jakiña da, garai artan Españi'ko Erregea, Aragoi'ko Errege izanik, Napoles'ko errege ere bazala. Karafatarrak, berriz, Napoles'en askatasun osoaren zaleak izaki...! Orduan Errege ori Felipe II'a zan, Aragoi'ko erregetza erdi-erail eta Gaztela'koa indartu zuan Errege españiarra, Alemani'ko Fernando I'a Inperatorearen illoba'

Bien aurka alkartu zan Paul IV'a Frantzi'ko Enrike II'arekin.

Aitasantuaren illoba Karlos Karafa Kardenala zan Elizaren Late-rietako gudaroztearen buruzagi. Arri laguntzera etorri ziran frantzitar-
rrak Gisa'ko Dukea buru zutela; baiña Karlos Karafa Kardenalak, gisa-
tarrari onek ondo pentsatuta zeukan jokabidea erabiltzen utzi ez ziola-
ko, alperrikakoa izan zan frantzitarren ekiñaldia. Etorri ziran baita,
Aitasantuaren alde, bi milla suizitar ere, baiña espāñiarrak askoz
geiago ziralako, errez irten ziran auek garaille.

Arriskuan zegoan, arrezkero, Erroma bera. Eta espāñiar garaille oien izkilluetatik Uria salbatzeko irureun "lanskenet" edo "oiñezko gudari" alemaniar gelditu ziran an. iLutertarrak danak.

Ez zitzaion noski gozoa izan IV Paul inkisiziozaleari, bere gorde-
kuntza lutertar batzuen eskuetan ipiñi bear izatea.

Laister amaItu zan gudua. Izan ere..' Karlos Karafa, Aitasantua-
ren illobak, ez zuan gudarien Buruzagi izateko balio. Gaiñera, Felipe
II'aren gudariak askoz ugariagoak ziran; eta azkenean, guda nola zi-
joan ikusi zuanean, aurka jeiki zitzaion Karlos Karafatarrari bere

bera: Jon Karafa, Paliano'ko Dukea.

Orrela, ez zitzaion asko kosta Alba'ko Dukeari Erroma'n sartu-ta Paul IV'a errenditzea' Esan dezagun Albatarraren omenez, oraingoan, Felipe II'aren gudariak, 1557'ko Erroma-artze ontan, ez zutela 1527'koan Karlos V'aren aiek Borbon'go Kondestablearen agintaritzapean egin zuten ondamenik egin. Erreza izan bait zitzaien oraingoan espainiarrei Erroma'n sartzea. Samiñagoa izango zaio laister Alba'koari olandarren gudua, eta gogorragoa izango da orduan olandarrentzat Alba'koaren eskua.

Erljioaren aldetik gauzak ikusi ezkeru, II Felipe "Errege Katolikoaren" ta Aitasantuaren arteko borroka auek ez ziela ostelariei Inperio-lurretan, Inghanderrian, Lurralde Beitietan eta Frantzi'n bertan batere gaitzik egin, errez ulertu daitekean gauza da.

Gudate ontan bi karafatar agertu zaizkigu: Karlos Kardenala eta Jon Dukea' Biak ziran Paul IV'aren illobak, burnizkoa zirudian Aitasantu onek ere bai bait zuan bere baxter beratxa: sendiarenganakO maitasuna. Ez beraxkeri arrigarria, Jon Kepa Karafa'k agure zala, larogei urte betetzera zijoan urtean, aitasantutza artu zuala oroitzen ba'dugu.

Ala ere bere sendikeria geiegizkoa izan zan. Bereala egin zuan Kardenal bere illoba Karlos; eta Elizaren jaurketa edo gobernuaren buru ipiñi zuan, naiz ordurarte aren jakintza ezaguna gudari-buruzagitzakoa ta diru-zuzendaritzakoa izan. Kargu aundiak eman zizkien beste bere senditar guztiei ere.

Auxe izan zuan akats bakarra: sendikeria; eta beste Aitasantu sendikoiei bezela, emendik sortu zitzaizkion bere samirlik garratzenak. Lotsagarri bizi bait ziran illoba zipotz auek.

Negar egin zuan Aitasantuak, egia jakin zuanean, eta bereala baztertu zituan asarre.

Oso amaiera txarra izan zuten Aitasantuaren bi illobatxo auek, Biolante zeritzan Jon'en emaztearen erruz. Jon'ek, bere emazte polit eta lirain au gazte batekin lizunkeritan lotua zegoala salatu zuan. Jon'en alde ipiñi zan Alife'ko Kontea Biolante'ren anaia. Jon berak zuan aitzoz ogeita zazpi kolpetan Biolante'ren maitale zalakoa, Gallese gaztea: Biolante, berriz, azkeneko orduraifio errugabea zala deadar zegian Biolante, bere anai ber-berak ito zuan'

Jon'en anaiak, Karlos Kardenalak, jakin zituan, dirudianez, eta jakin ere aurretik jakin zituan erailketa aiek denak. Jakin, eta ontzat artu, gaiñera.

Eraille guztiak, eta baita Karlos Kardenala ere, eriotzera epaituak izan ziran.

Gertakizun auek ordea, urrengo aitasantutzakoak dira: IV Pio'ren denborakoa.

Il a zan ordurako Paul Zenbat lan egin zuan Aitasantu onek Eliza garbitzeko, esan bearrik ez da, naiz aipatu dugunez bere erak askotan arrigarritxoak izan. Ikus:

Garai artan asko ziran lekaidetxeetatik kanpora bizi ziran lekaide ta prailleak, batez ere Erroma'n' "Girovagi", "Jirabirakoak" esaten zitzaien praille aiei, eta beren biziera ez zan oso santu-santua izaten.

Konbentura itzuli edo praille izatez utzi: ortara beartu zituan Aitasantuak' Illabete geroago Erroma'ko arresietako atea itxita, aitasanturen ertzaiñek bildu zituzten konbentuetara itzuli ez ziran "jirabirako" praille guztiak: eundakada asko. Batzuk espexera botreak izan ziran, beste batzuk Elizaren Laterrietako guda-ontzietan arraun egitera eipaituak.

Epaiketa auek bear bezela ulertzeko oroi dezagun Aitasantua Elizaren Buru ez-ezik Elizaren Laterrien Errege ere bazala.

Laga dezagun Paul IV'a: borondate oneko gizakumea, baiña aitasantutzarako gaitasunik gabea. Bi kuttun izan zituan bizitza guztian: Inkisizioa ta sendia; bietan oztopo egin zuan. Inkisizioariburuz, gogorregia ta estuegia izan zalako. Sendiaren aldetik bere illoba laztanen txarkeriak ikusteko begirik izan ez zualako' Bere politika-erarekin, berri. protestalaritzari gaitz baiña on geiago egin zion'

Erroma'ko erriak irudi bat eraiki zion enparantza batean, zerga eta kontribuzioak arindu zizkiolako; baiña il zala jakin bezain laister jeki zan matxinada beltzean, iriki zituan inkisizioaren espexetako atea, sartu zan indarrez domtngotarren konbentuetan' auek bait ziran inkisiziolariak, eta lurrera jaurti ta txikitu zuan len eraikitako irudi ura.

Ez; ez da naikoa bizitza santukoa izatea, Aitasantu egokia izateko.

IV PIO
(1559 - 1565)

Iru illabete luze iraun zuan Giltzapeko Batzarrak Aitasantu bat aukeratzeko; iru alderditan zatiturik bait zeuden Kardenalak: Españi tarrak, Frantzitarrak eta Karafatarrak; azkeneko auek Paul Karafa 11rak izendatutako kardenalak ziran. Zertxo baterako bakarrik zeuden Kardenal danen gogapen eta asmoak osoro baturik: Elizari Paul IV'a bezelako beste Aitasantu arkaizkoi bat ez emateko.

Bazan konklabetarren artean gizon egokirik, baiña Kardenalen politikeriengaitik, Elizaren edestian oso maiz gerta izan oi dan bezela, bigarren edo irugarren maillako gizontxo bat aukeratu zuten: Jon Gutzon Medizi, milandarra, abizena berdiña izan arren Medizi florentzitarrekin zer-ikusirik ez zuana. IV Pio artu zuan izen.

Burgesitarren semea, jakintzagaietan ondo ezia, sakelean diru faltarik gabea..., ez zan oso santua izan bere gaztearoan. Iru sasikume izan zituan beintzat, baiña Kardenaltzara iritxi zan ezkerko osoro Elizaren garbikundearen aldeko agertu zitzaigun. Ez zuan ezertan Paul IV'ren antzik' Baiña gizon onek, iñolaz egokiena ez zirudian "Medizitxo" edo "Medichino" onek, —orrela deitu bait zion irriz Erroma'ko erri zirizaleak—, irugarren maillako gizontxo onek eramango digu amaira Trento'ko Kontzilioal

Lau anai ta bost arreba zituan; danak semez beteak, danak aunditasun eta aberastasunik gallurrenara irixteko irrikitzen. Bazan, ostera, arriskurikl, Pio IV'ak, beti, asko maite izan bait zuan sendia eta iñoiz baiño geiago ia zarturik aitasantuzara iritxi zanean. Baiña ederki jokatatu zuan arlo ontan. Lagundu zien bere aidei, baiña aunditasun ta dirutza geiegikorik gabe.

Illoba bateri bakarrik, bere arreba baten ogeita bat urteko semea-ri, eman zizkion gobernuko maillarik gallurrenak; eta, ontan, begi zorrutza zuala erakutsi zigun. Illoba ori Karlos Borromeo Donea izan bait zan, Elizak izan duan Gotzairik dizdiratsuenetakoa. Asko lagundu zion

Kardenal onek eta asko lagundu zioten beste kardenalek ere, bereiziki Hosio polonitarrak; eta beste guztien **Morone'k, Paul IV'ak** inkisizioko espetxean sartu zuan arek berberak! (Ez gaitzan arritu Kardenalengandiko laguntza orrek, garai artarako, III Paul'ek asitako Kardenalgintza jatorrari eskerrak, Elizako Printzipeen Kopurua gizon bikaiñez osatua bait zegoan)'

Pio IV'aren egintzarik bikaiñena kontzilioa amaitu izatea da. 1562'an asi zan Trento'ko irugarren ekiñaldi au; Ilbeltzaren 18'an, 1563'ko abenduaren LI:ean amaitu zan. Ia-ia bi urte iraun zuan beraz. Beste lengo bi ekiñaidietan baiño gotzai ta teologilari geiago bildu zan irugarren ontan, izan bait zituan berreun-da-berrogeita amarretik gorako Asaben billerak, teologilari ta laguntzailleak zenbatu gabe. Izan ziran asarre-aldi itzalak Asaba auen artean, eta itz gogor ta zakarrrik entzun zan batzar artan. Errege katolikoek ere, Felipe II'ak Fernando lak eta, Frantzi'tik Katalin medizitarrak, bein baiño geiagotan Asabei bultzaka ibilli nai izan zuten, baiña oro baretu zuan azkenean eraberritzea egiteko leiak eta Lainez iñakitarraren argitasunak eta Morone Kardenalaren iaiotasunak. Ez bait zan Morone au alperrik, amaseigarren mendeak izan zuan diplomazilaririk bizkorrena...!

TRENTO'KO KONTZILIOA

Ainbeste arrisku, eragozpen eta zirikaldi-artean egindako kontzilioaren garrantzia egiaz da neurrieziña. Lau mendeen luzaroan bera izan da Eliz osoarentzat bizitzaren atsa. "Erakutsi eidazute, —zion Bossuet izlariak—, Trento'ko sinispiderik ontzat artu bearrik ez dala esatera ausartzen dan gotzai bat, apaiz bat, Katoliko soit bat bakarra. Ez duzute orrelakorik aukituko"

Paul III'ak kontzilioa bildu zuanean, ostera kristaudi osoaren sinistearen batasuna egitea zuan elburu. Egia da, kontzilioak ez zuan batasun ori lortu; bear bada bereizketa ta gorrotoa len baiño sakonagoak egin zituan, agian garrantzi geiegi ez zuten gauzetan, —erriko izkuntzak elizkizunetan erabiltze eta beste orrelako gauzatxoetan—, gogorregia izan zalako, baiña batez ere Martin Luter, Jon Kalbin, inglanderriko Agintari, eta beste bigarren edo irugarren maillako berrikeri zaleen jokaera berberagaitik protestalariekin batasunik egiterik ez zegoalako; ez bait zuten protestalari aiek batasun ori gura, kristaudi guzia bakoitzak bere sinispidera ta agindura erakartzea baizik. Orretxegaitik ez ziran beren artean ere batasunik egiteko gauza izan.

Bada ontan zerbait aipagarri' Protestalaritza buru batetik ernetako dotriña da: Luter'en burutik, Kalbin'en burutik, edo beste gizakume soil baten burutik' Kontzilioaren dotriña Eliz osoaren dotriña da; ez da Lainez iñakitarraren gogakuntza, ezta Seripando agustindarrarena edo Meltxor Cano, Bitori'ko Frantzisko'ren ikasle domingotar ospetsuarena. Baziran pentsalari erneak Kontzilioan, baziran kardenaI argi, azkar, jatorrak, baziran gotzai santuak..¹ Kontzilioaren erakusketa ez da aien arteko iñoren erakusketa. Ezta Paul III, Julio III edo Pio IV aitasantuena. Elizaren erakusketa da. Elizaren sinispidea. Ortarakoxe egin zan ainbeste lan urte luzeetako billera neketsuetan: betidaniko Elizaren sinistea okerrik gabe idoro ta ulertzeko , siniste ori Sinismenaren Egi bezela kristaudi osoari erakutsi baiño len.

Sinismen-arloan, Kontzilioa, berrikerizaleak lausotu zituzten

eglak aratzago adierazten bikainki saiatu zan. Ona bere erakuskizunlk gaillurrenak:

Paul Ill'aren garaiean egin zan lenengo ekiñaldikoak:

—Elizaren "Canon" edo Liburu Doneen "Zerrendako" liburu guztiak dirala Jainkoak irakatsiak.

Jaungoikoaren irakasketa dirala ere "Traditiones" deituta-koak; au da: agoz-belarri apostoluen garaietik sinispeneko-egi bezela Elizak Gogo Donearen zainpean gorde dituan dotriñak.

"Vulgata" edo "Errikoia" deritzaion Idazti Donearen latifnezko itzulpena, Trento'ko Asabei onena iruditzen zitzaielako, bere-egiten zuala Elizak.

—Liburu Doneen egiazko zentzu lez, "Ama Elizak ematen digu-
na bakarrik artu bear dala sinismen eta oiturei dagozkien gaietan".
(Liburu Doneen asmo okerreko itzulpenak galaztearren, Elizaren bai-
menik gabe Liburu aien argitaldi berriak egitea debekatu zuan Kontzi-
lioak).

Jatorrizko obena jaiotzaz datorkigula gure leen asabengandik eta bataioak osoro barkatzen **naiz beragandiko griña txar-
rrak guban jarraitu'** Ez zuan kontzilioak Ama Birjiñaren Sorkunde Gar-
biaz jardun nai izan, asaba batzuk eta teologilari domingotarrak ortaz
jardutearen aldeko ez ziralako.

Sinismen utsa ez dala naikoa salbamenerako' Egintza onak ere bearrezkoak dirala. Esker Donezailleak gizona zintzo egitean, gizon orren izakeran aldakuntza oso bat egiten duala; zintzotasuna ez dala, azaletik, barruan bizirik jarraitzen duten obenen estaltze utsa.

—Jatorrizko obenak ez zuala gizonaren izatea guztiz usteldu; ez dala, beraz, egia, gizonak dagian guztia obena danik; egintza onak egiteko gal dala gizona Jaungoikoaren graziarekin; ekintza on oiek egiten saiatzera beartua dagoala, ta ekintza on oien bitartez bere donetasuna azitzen duala.

—Sinismenaren aurkako oben bakarrak ez-ezik beste oben astun guztiek ere gizakumearen Zintzotasun edo Zuentasuna erailtzen dutela, baiña Zuentasun ori ostera lortu dezakeala gizakumeak penitentiaren bitartez' Ez da, beraz. sinismena bakarra naikoa; penitentzia, au da, gizakumearen ekintza ere bearrezkoa da pekatuengandiko berbizkunde ortarako.

—Sakramentuak zazpi dirala; berenez duten indarrez, zuentasuna ematen digutela. Sakramentu-egille nor leikean, eta Bataloa eta

Sendotza edo Konfirmazioariburuzko dotriña erakustearekin amaitu zan Kontzilioaren lenengo ekiñaldi au.

Julio lirarekin bigarren ekiñaldian:

—Eukaristian Kristo egiaz dagoala eta ogi-ardoen izate guztia Kristoren izate biurtzen dala Kontzilio onek egin zuan ofizialki egi sinis-bearra. Trento'n mugatua da gure, Eukaristiariburuzko, dotriña.

—Berdin esan dezakegu Aitorketaren dotriñari-buruz: Trento'k dogma edo sinis-egi egiña dugula, gaur ezagutzen dugun eran.

Irugarren Pío IV'a Aitasantu zala:

Ekiñaldi ontan tajutu zan Mezari-buruzko dotriña; eta argitu ere ziran Mezaren inguruan sortu ziran eztabaidak.

Fernando I Alemani'ko Inperatoreak iru gauza lortu nai zituan Kontzilioarengandik, bere Laterrietan kristauen oiturak, eta albait sinismenak ere, batasun geiagora erakartzeko:

"Utrakismua" edo "Bikoizketa": kristau soillak bi itxuretan, —ogi ta ardoen itxuretan—, eukaristia artu aal izatea;

barau-egunak kentzea;

apaizak ezkondu aal izatea'

Aurka irten zitzaion ordea Felipe Ira, ez bait zan Errege españiarra iñori erreztasunak ematearen zale. Bildur zan gaiñera, orrelako aterik bere Erreiñuetako katolikotasunean irikitzen ba'zan, ate oietatik protestalaritzarik sartuko ote zitzaion..., ibere almen orokorraren kalterako! Españi'n politika ta erlijioa besotik ibiltzen bait ziran. Aurka ziran iñakitarrak ere, batez ere Lainez, Canisio ta Salmeron; aurka, geinbat italiar eta españarrek osatzen zuten kardenaldiaren zatirik aundie-

Ala ere izan zan naiko zalantza Kontzilioaren altzoan, naiz-ta inperialariaren iru eskarietatik bat bakarrik azterketarako aukeratua zan: kristau guztiei eukaristia ardo-itxuran ere eman aal izatea.

Aitasantuaren iritzira laga zuan kontzilioak erabakia, eta onek baiezkoa eman zuan Austri, Boemi, ta Alemani'ko Laterri batzuetarako; baiña, iru urte geroago Pío V'ak, ezezko egin zuan ostera baiezkora. Ez noski Kristaudiaren onerako'

Morone kardenala buruzagi zuala, eta Lainez ifiakitarra teologilaririk eragilleena, bizkor ekin zion Kontzilioak bere irugarren ekiñaldi oni'

Eukaristiar ez ezik, Apaiztasunari eta Ezkontzariburuzko auzi guztiak ere irauli ta aztertu zituan.

Izugarrria izan zan sinismenaren arloan Trento'ko Asabek egin zuten lana. Esan leike, ordurarte kontzilioek erakutsi zuten dotriña osoa, berriz astiro auznartua izan ondorean, Trento'ko kontzilioaren erabaki ta legeetan ostera mami egiñik dagola kristaudiaren argimenerako. Gaurko Teologia. era askotara, Trento'tiko Teologia da. Orregaitik teologilariiek edo elizgizonek zerbait aldatu edo argiagotu bearrean aurkitzen diranean, Trento'ra jo bear izaten dute; Trento'k zer dion ikustera eta zer esan nai zuan aztertzer: Trento'ko Asabek idatzita laga zizkigutenetan zer dan Jainkoagandiko egia eta zer garai artako kulturaren ustea bereiztera alegia'

Lan aundia egin zuan Kontzilioak, sinismen-gaietaz landa, Elizaren garbikuntzan ere; ez bait zan kontzilioa ostelariak zapaltzeko barririk bildu; ez orixe! Martin Luter jaio-aurretik ere aspalditik zegoan kristaudi osoa kontzilio baten eske, eta uste dugu esan daitekela, ziurki, kontzilio ori irurogei urte lenago egin balitz, ez zala protestalari tzarik agertu izango; edo, ez zala beintzat zabaldu zan eran zabalduko, Elizaren baitan erejirik ez jaiotzea gauza eziña bait da.

Esan dezagun kristauen buruetan Kontzilioaren lendabiziko elburua Elizaren antzaberritzea zala, naiz agian Kontzilioa bildu zuan Aitasantuaren buruan ala ez izan, piztu bait zan gai oni-buruz ere Aitasantu ta Inperatorearen artean Kontzilioaren asiera bera kolokan ipiñi zuan eztabaidatxoa.

Karloa V'ak ez zuan nai sinismen-gaiak aztertzetik asi; Elizaren, —batez ere Erroma'ko Aulki Donearen—, xauketarako legeak emanaz baizik. Orrela egiñaz, zion, errezago izanen da lutertarrak Kontzilioa eramatea eta obeki erakutsiko dizkie Elizak bere asmoen sendotasuna eta egia. Ori zion Karlos V'ak baiña edonork dakian gauza da arek nai zuana bere Laterrietan katoliko ta lutertarren arteko gorrotoa ez geiago gogortzea zala'

Paul III'arentzat, ordea, Karlos V'aren eskaria onartzea protestalariak Kontzilioan Eliza osoaren epailari biurtzea zan. Eipatu-bearrak ziranak, epaille egitea' Eta, au zan gogorragoa, Kontzilioa Aitasantuaren epaille egiteko bide ematea! Bear bada, bildur zan Paul IV'a, bere ta *bere* inguruko jantzi gorritzko elizgizonen autsak argitara aterako ote ziran, baiña bere bildurrik aundiena, Kostantza'n jaio ta Basilea'n marnitutako kontziliokerira jausteko arriskua zan.

Azkenean bi gaiak batean aztertzea erabaki zuten Trento'n Aitasantuaren ordezkariiek. Gaizki artu zuan Paul IV'ak erabaki au, baiña alaxe're, eman zien bere ordezkoei, ondoen iduritzen zitzaien modura

gauzak h'abiltzeko baimena.

Zenbatu eziñak dira Kontzilioak Elizaren aldaketa onerako eman zituan lege ta aginduak. Lege aiek dira oraindik geienbat gure Eliz-Legediaren enborra. Baiña Kontzilioaren eginketa ontan lorketarik ederrenak gotzaiantzako eta apaizantzako eman zituan lege zorrotzak dira:

—Apaizak nola aziak eta eziak bear zuten erakusten duan legea eta ortarako eliz-barruti bakoitzean Apaizgaitegi edo Seminario bat eraikitzeko agintzen duana.

—Apaizak, bakoitza bere ardien artean bizitzera beartzen dituana.

—Gotzaiei ere, bere elizbarrutietan bizitzeko bear kuna, obligazioa, ipintzen diena' Eta gotzaiak nola aukeratu agintzen duana.

Lege auek leendik bete izan balira ez zan apaiz ez jakiñik kristaudian izango, eta apaiz ezjakiñik izan ez balitz, ez zan gaur Europa'ren erdia protestalari izango, apaiz egokirik ez zan lurraldeetan zabaldu bait zan geienbat ostelaritza.

Egiatzko gertakizun onuragarria izan zan Elizarentzat Trento'ko Kontzilioa. Bere altzoan askatasunik aundienean lasaiki ta bildurrik gabe agertu aal izan zuan teologilari bakoitzak eta Asaba bakoitzak bere iritzia. Izker a bizkorrean erabili ziran iritzi oiek, eta askotan garratzegian ere bai. Nai izan zuan guztiak itzegin zuan eta nai izan zuan modura. Ez zan kontzilioan lokarririk, ez zan ixil-bearrik .

Ez zuan Trento'k Elizaren antzaldatzea une batean egin. Ez zuan iñork orrelako miragarririk itxaro ere. Asko kosta zan, kristauen artean, apaizetan, gotzaidlan, eta batez ere errege, jauntxo eta Laterrietako politikierian Kontzilioaren arnasa sartuaraztea. Elizan bertan ere osoro sartu ez zala ere esan daiteke; baita sartu ez zitekeala ere, arnas ori osoro Elizan sartzea, Eliza osoro santu egitea bailitzake: izan ezin daiteken gauza.

Eragozpen aundiak garaitu bear izan zituan Elizak, Kontzilioaren asmoa aurrera ateraazteko, batez ere erregeen aldetik. Ez zeuden auek beren "pribilejio" edo sasieskubideak uzteko asmotan. Aurreneko oztopoa Españietako Felipe II'ak ipiñi zuan, Kontzilioa amaitzera zijoan unean bertan asarretu egin bait zan amaitze orren berri jakin zuanean. Kontzilioak, —Elizaren antzaldatzea oraindik egiteke zegoalako—, lanean jarraitu bear omen zuan. Zer eskatzen ote zion II'ak Kontzilioari?

Sinismen gaietan ere zitu ederrak eman zituan Kontzilioak. Pro-

Izugarria izan zan sinismenaren arloan Trento'ko Asabek egin zuten lana. Esan leike, ordurarte kontzilioek erakutsi zuten dotriña osoa, berriz astiro auznartua izan ondorean, Trento'ko kontzilioaren erabaki ta legeetan ostera mami egiñik dagola kristaudiaren argimenerako. Gaurko Teologia, era askotara, Trentoliko Teologia da. Orregaitik teologilariak edo elizgizonek zerbait aldatu edo argiagotu bearrean aurkitzen diranean, Trento'ra jo bear izaten dute; Trento'k zer dion ikustera eta zer esan nai zuan aztertzeraz: Trento`ko Asabek idatzita laga zizkigutenetan zer dan Jainkoagandiko egia eta zer garai artako kulturaren ustea bereiztera alegia.

Lan aundia egin zuan Kontzilioak, sinismen-gaietaz landa, Elizaren garbikuntzan ere; ez bait zan kontzilioa ostelariak zapaltzeko barririk bildu; ez orixe! Martin Luter jaio-aurretik ere aspalditik zegoan kristaudi osoa kontzilio baten eske, eta uste dugu esan daitekela, ziarri, kontzilio ori irurogei urte lenago egin balitz, ez zala protestalaritzarik agertu izango; edo, ez zala beintzat zabaldu zan eran zabalduko, Elizaren baitan erejirik ez jaiotzea gauza eziña bait da.

Esan dezagun kristauen buruetan Kontzj/joaren lendabiziko elburua Elizaren antzaberritzea zala, naiz agian Kontzilioa bildu zuan Aitasantuaren buruan ala ez izan, piztu bait zan gai oniburuz ere Aitasantu ta inperatorearen artean Kontzilioaren asiera bera kolokan ipiñi zuan eztabaidatxoa.

Karloa V'ak ez zuan nai sinismen-gaiak aztertzetik asi; Elizaren, ---batez ere Erroma'ko Aulki Donearen---, xauketarako legeak emanaz baizik. Orrela egiñaz, zion, errezago izanen da lutertarrak Kontziliora eramatea eta obeki erakutsiko dizkie Elizak bere asmoen sendotasuna eta egia. Ori zion Karlos V'ak baiña edonork dakian gauza da arek nai zuana bere Laterrietan katoliko ta lutertarren arteko gorrotoa ez geiago gogortzea zala.

Paul III'arentzat, ordea, Karlos V'aren eskaria onartzea, protestalariak Kontzilioan Eliza osoaren epailari biurtzea zan. Eiparu-bearrak ziranak, epaille egitea. Eta, au zan gogorragoa, Kontzilioa Aitasantuaren epaille egiteko bide ematea! Bear bada, bildur zan Paul IV'a, bere ta bere inguruko jantzi gorritzko elizgizonen autsak argitara aterako ote ziran' baiña bere bildurrik aundiena, Kostantza'n jaio ta Basilea'n mamitutako kontziliokerira jausteko arriskua zan.

Azkenean bi gaiak batean aztertzea erabaki zuten Trento'n aitasantuaren ordezkariak. Gaizki artu zuan Paul II'rak erabaki au, baiña alaxe're, eman zien bere ordezkoei, ondoen iduritzen zitzaien modura

gauzak irabiltzeko baimena.

Zenbatu eziñak dira Kontzilioak Elizaren aldaketa onerako eman zituan lege ta aginduak. Lege aiek dira oraindik geienbat gure Eliz-Legediaren enborra. Baiña Kontzilioaren eginketa ontan lorketarik ederrenak gotzaiantzako eta apaizantzako eman zituan lege zorrotzak dira:

Apaizak nola aziak eta eziak bear zuten erakusten duan legea eta ortarako eliz-barruti bakoitzean Apaizgaitegi edo Seminario bat eraikitzeko agintzen duana'

Apaizak, bakoitza bere ardien artean bizitzera beartzen dituana.

-Gotzaiei ere, bere elizbarrutietan bizitzeko bear kuna, obligazioa, ipintzen diena. Eta gotzaiak nola aukeratu agintzen duana'

Lege aukeratik bete izan balira ez zan apaiz ez jakiñik kristaudian izango, eta apaiz ez jakiñik izan ez balitz, ez zan gaur Europaren erdia protestalari izango, apaiz egokirik ez zan lurraldeetan zabaldu bait zan geienbat ostelaritza'

Egiazko gertakizun onuragarria izan zan Elizarentzat Trento'ko Kontzilioa' Bere altzoan askatasunik aundienean lasaiki ta bildurrik gabe agertu aal izan zuan teologilari bakoitzak eta Asaba bakoitzak bere iritzia. Izkerrean erabili ziran iritzi oiek, eta askotan garratzegian ere bai. Nai izan zuan guztiak itzegin zuan eta nai izan zuan modura' Ez zan kontzilioan lokarririk, ez zan ixil-bearrik.

Ez zuan Trento'k Elizaren antzaldatzea une batean egin. Ez zuan iñork orrelako miragarririk itxaro ere. Asko kosta zan, kristauen artean, apaizetan, gotzaidian, eta batez ere errege, jauntxo eta Laterrietako politikarian Kontzilioaren arnasa sartuaraztea. Elizan bertan ere osoro sartu ez zala ere esan daiteke; baita sartu ez zitekeala ere, arnas ori osoro Elizan sartzea, Eliza osoro santu egitea bailitzake: izan ezin daiteken gauza.

Eragozpen aundiak garaitu bear izan zituan Elizak, Kontzilioaren asmoa aurrera aterazteko, batez ere erregeen aldetik. Ez zeuden aukerak beren "pribilejio" edo sasieskubideak uzteko asmotan. Aurreneko oztopoa Españietako Felipe II'ak ipiñi zuan, Kontzilioa amaitzera zijoan unean bertan gaiñera, asarretu egin bait zan amaitze orren berri jakin zuanean. Kontzilioak, —Elizaren antzaldatzea oraindik egiteke zegoalako—, lanean jarraitu bear omen zuan. Zer eskatzen ote zion Felipe II'ak Kontzilioari?

Sinismen gaietan ere zitu ederrak eman zituan Kontzilioak. Pro-

testaiaritzak sortutako, edo oargarriago egindako gogapen naasketan, —leendik ere bai bait ziran okerrezko gogabideak—, Kontzilioak argi erakutsi zuan, zalantzan zeuden puntuetan sinismenezko egiak zeintzuk ziran, orrela katolikoaren artean lausoa lurrinduz'

Kontzilio beraren altzoan une askotan asaben eta teologiarien gogapenak arras ezberdiñak eta aurkakoak zirala, eta, bein biEno geiagotan, gogapen aiek batera erakartzea gauza eziña uste izan zala oroitzen ba'dugu, errez konturatuko gera zenbat aiñako bearra zeukan Elizak: Kontzilioak eman zion argitasun orren bearra!

Kontzilioaren bitartez Elizak, gorputz bezela, bere-egin zituan, leendik ainbat kristau bikarlek, lagundiek, anaitasunek eta elizgizonek elizgarbiketan aspalditik asirik zeuzkaten lanak'

Kontzilioak indar berria eman zion kristaudiari lan orretan jarraitzeko' Santutasun-gosea bizkortu zuan.

Kontzilioaren bitartez Eliza bera lotu zan gorputz bezela, santutasunerako ekintza ortara. "Gazteturik irten zan Trento'tik Eliza". (Ranke edestikari lutertar ospetsuaren itzak dira).

Gazteturik irten zan aitasantuen nortasuna ere. Bazuten bildurrik aski Kontzilio-aurretik aitasantuek Kontzilio arek aitasantutzaren almena ez ote zuan txikituko. Baiña besterik gertatu zan; indartsuago, iñoiz baiño sendoago, dizdiratsuago, garaitsuago atera zan Kontzilio-tik Aitasantutza. Egia da Birjaiotzako aitasantuak, eta Kontzilio-osteko aitasantuak, gizon lez ere ez dirala berdiñak, baiña ori bera ere Kontzilioaren emaitza da; baiña, batez ere, aitasantutzak berak Trento'z gero sorrarazten duan begirunea ez da berdiña; ta au bai dala kontzilioaren emaitzik aundienetakoa!

Ez zan, jakiña, akatsik gabea Trento'ko Kontzilioak tajutu zuan Eliza. Ekumenikoa zalako Trento'ko Eliz Batzar Nagusiak sinismenezko egitzat aldarrikatu zituan egiak Jaungoikoaren Itza dira.

Baiña Gogo Deuna gizonen bitartez mintzatu zitzaigun Trento'n; Kontzilioko Asaben bitartez. Ta bere Itza guri emateko, beren gizatasun osoan erabilii zituan Asaba aiek, ots, beren kulturarekin, beren leia, kezka, eta bildur guztiekin. Eta Trento'ko Asaben giza-koipe ori dana igaro zan naitanaiez, Trento'tik irten zitzaizkigun aginduetara. Eta orrela irtendako erabaki oien erarara tajutua izan dugu Era Berriko Eliza.

Gizonarentzat eziñezko gauza da arazo larrietan, egokitasunaren lerroan tinko gelditzea; beroegitik iges, otzegiera igaro oi da. Biguintasunaren bildur danean, gogortasun geitxora jausten da. Areago

oraindik. Egokitasunaren lerrorik ez dala ere esan dezakegu, denboraren igikunde geldieziñean bizi' dan gizakumearentzat; atzo gogorregi zana gaur biguiñegi izan bait daiteke' Gizakume soillarentzat ori egia ba'da, azkoz egiagoa da oraindik, ludi osoaren zabalean eta edesti guztiaren luzean bizi bear duan Elizarentzat.

Ala ere gaurtik gaur egiten ba'dugu, igerra aal izango dizkiogu Trento'n sortutako "Elizkera"ri lauso bat edo beste.

—Trento'tiko Eliza, garaimen-aizeak puztuegia da' Gaurko erderetan esan oi dan bezela, apurtxo bat "Triunfalista" Sentimentu ortatik sortu zan "Barrokera"ren oparotasuna. Agian, sikologiaren arloan billa dezakegu sentipen arroxko orren sustraia. iparraldeko lurretan galdutako kristaudiek saietsean iriki zioten zauriak ematen zion oñazea —ta lotsa—, aztu nairik dez ote zan gure Eliza zerutiko bere barren-edertasunari geiegizko atsegin goxoz begiratzen asi?

—"Bakarkoitasuna". Balio bezaigu itz onek, Elizak bere "bakarizateari" buruz garai artan zuan sentikera adierazteko. Esan dezagun aurretik, Ameriketako eta Asiko lurraldeetan mixiolariak egindako mirariak ez dirala, norbaitek beste modura pentsa arren, Elizaren geiegizko bakartasun aren aurka, baliozko arrazoiak, mixioetarako joera ura Trento'tikoa ez bait zan.

Esan daiteke, itzak neurri egokian artu ezkeru, Trento'ko Eliza "Komunitate" edo "Gizarte bakartia" dala' Ziur daki, jakin, bera bakarrik dala munduaren salbatzaillea; berak bakarrik daramakiala Jainkoagandiko egi osoa. Ta ortan arrazoi du. Baiña Trento'ko Elizak ez du usmatu ere egiten, beste gizarteetan egi orren zati ugariak naroki sakabanatuak egon litezkeanik. Elizatik kanpo, oro ondamera da, bere ustez. Urte asko kostako zaio Elizari, sentikera ori jaurti ondorean, Kepa Kanisio Done iñakitarrak -anai bereziekin" opa zuan alkarrizketa arri asiera ematea.

—Bildurtegia ere bada Trento'tik irten zitzaigun Eliza' Beraren itxura, arresi sendo gogorrez inguraturiko uri baten itxura dala-edo, esan dezakegu.

Ortik, Inkisizio bildurgarria, liburu debekatuen Zerrenda estua, exkomikapen ugariegiak, bere Liturgia erriarentzat mixterio utsa zan latiñean erabilli-nai setakoia, Idazti Doneak izkuntza berrietara

(erri xeak Biblia irakurtzea pekatu zala uste izateraiño...I), Idazti Doneak aurrenekoz idatziak izan ziran Palestina'ko ta Grezi'ko izkuntzak, zugurtasunaren neurriak ausiaz, baztarrera botatzea...

Egiatzko gaitza egin zion Elizaren geiegizko kezka onek erlijio-

jakintzari, inkisizioaren ta exkomikapenen bildurrak izutu bait zituan pentsalari katolikorik erneenak'

—Trento'ko Eliza "teologizkoegia" dala esatera ere ausartuko nintzake, itz orrekin zer esan nai dedan adieraztea lortuko banu. Ez dut esan nai Eliz arek kristautasuna animako bizitz egiteari garrantzirik eman ez zionik; ez iñolaz ere. Aszetikak eta Mistikak bizkor jarraitu zuten kristaudi artan' Baiña Aszetika ta Mistika bertago daude sentimenarengandik adimenarengandik baiño. Teologia berriz, teologi soil a, adimen uts duzu. Eta sentimenak eraman bait zuan Martin Luter, arrazoiari "ema galdua" deituaz, teologiaren giartasunik ez zuan mistikerira'.., Teologiaren garrantzia irten zan osoro indarturik eta aunditurik Trento'ko Kontziliotik. Teologikeri orren aurka jeikiko da laister Lurralde Beekoetan jantsenitasuna eta baionatar apaiz baten bultzakadari esker zabalduko da Paris'tik Europa guztira' Jansenitasuna, ordea, ereji izan zan. Ereji bildur garrria, bere estukeri ta mozkeri sinistaezifien erruz Elizari gaitz aundia egin ziona.

Eliza Katolikoan, Trento ezkeru, Teologia izanen da egiazko jakintza bakarra. Filosofia, Teologiaren mirabetxoia besterik ez da izango, eta Izadi-jakintzak..., denbora alaiki igarotzeko jostaketa atsegina. Izadijakintzak sortzen eta sendotzen ari ziran garai artan gaitz aundia egin zion Elizari Teologia n arrotasun orrek, Jakintza berri ura dana elizatik landa tajutu baifa zan.

—Zailtasuna. Trento'tiko Eliza "Zailla" da, makurtu **ibil**-kaitza, aIdabiderik gabea. Pentsamena gogortu eta legortu zaion Elizari Orrela izango da amazazpigarrendik ogeigarrena arteko Eliza. Eliz orren ustez, Trento'ko legeak naikoak ziran Eliza zuzentzeko; Legelariiek lege oiek argitzea eta agintariiek lege oiek betearaztea naikoa zuten Eliza zuzenbidetik eramateko; ez zan lege berri sakonen bearririk.

Eta sinismenaren arloan, berdin. Tinko uste izan bait zuan Eliz arek Trento'ko erabakiek eta an bildutako Asaben itzaldi eta teologiarien azterketa-ianek, Teologia jaso zutela mundu ontan Teologiak iritxi lezakean gaillurrik goikoenera. Ez zegoan egi berririk jakiterik. Jakintsuen lana, beraz, Teologi zarra ondo ikastea, zuzen ulertzea, garbi gordetzea, eta okerririk gabe erakustea izan bear zuan.

Zailtasun onek Elizari ekarri zion kaltea neurtzeko, naikoa dugu XVII mendearen erditik asita ia gaur-gaur arte teologiak iragan duan antzutasuna oroitzea. Oroi ditzegun baita mixio-lurretan, batez ere Indi'n eta Txina'n, errialde aietako jakintza zaarraren balioa ez ikusteak ekarri zizkigun ondoreak.

Ala ta guztiz ere, akatsak eta garaipenak alkarrekin neurtzen asi ezkerro, Trento'ko kontzilioaren garaipenak, akatsak baiño askoz ugariagoak, aundiagoak eta garrantzitsuagoak dirala esan bearrean gera. Geiago oraindik; Trento'ko Kontzilioa bera, bere akats eta guzti, Elizaren garaipenik aundienetakoa izan zala.

TRENTO OSTEKO AITASANTUAK
V PIO
(1565 • 1572)

IV Pio, Trento'ko kontzilioa amaitu zuan Aitasantua 1565'ean zan. Orduandik 1655'era, ia eun urtean, amabi gizon eseri ziran Aki Donean. Danak saiatu ziran Kontzilioaren erabakiak betearazteko lanean, bakoitza bere modura. Ikus dezagun laburki Aitasantu auen ekintza.

V P10.— Bere izenez Migel Ghislerei, domingotarra, gizon gogorra, zorrotza, Jon Kepa Karafa bildurgarriak bere laguntzaille bezela inkisizioaren epai-maiera deitu zuana, eta, Paul IV izenarekin Kepa Donea'ren Aulkian jarri zanean, Inkisizioaren Buru Nagusi izendatu zuana. Gizon ona zala esan bearrik ez da, bere garaiari•zegokion ontasunarekin, jakiña, baiña benetan zintzoa' Gaur aldareetan daukagu: San Pio Aitasantua.

Politikaz, Erdi-Aroko teokrazilaria zan, bere maixu ta lagun izan zuan Paul 1V'a bezela' Orretxegaitik Erdi-Aroko jokaerak ibilli zituan bein baiño geiagotan.

Politika-bide orren araura Inghlanderriko Elisabete I'a erregintzatik jaurti ta exkomikatu zuan, aren mendeko guztiei erregiñaren esanera egoteko zituzten bearkun guztiak askatuaz. Bi gauz lortu zituan exkomikapen orrekin: Erregiña bere erregintzan geiago sendotzea eta katolikoen zigorketa gogorragoa egitea.

Pentsatu zuan gurutze-gudan ere, eta egin zion dei kristaudiari' Felipe II'arekin eta Benezi'ko Errepublikarekin, "Alkarte Done" bat egin zuan turkitarrei itxasoz erasotzeko. Aitasantuak berak ipiñi zituan ortarako "Alkartaren" gudaririk geienak, gero Felipe Wak gero Benezi'k. Itxasontzirik geienak berriz Benezi'renak ziran, gero Aitasantuarenak, azkenik Felipe II'arenak. Gudarozte onen agintariak Marko-Antonio Colonna, Andrea Doria eta, danen buruzagi lez, Felipe II'aren sasi-anaia: Austri'tar Jon. 1571'ko urrillaren 7'an ondatu zuten Lepanto'ko itxas-kolkoan Selin 11 turkitarraren ontzidia.

ErdiAroko arazoak? Bai' Baiña oroi dezagun Aitasantua errege

zala; Itali'ko gerrialdeko erridien Erregea. Elizaren Laterria gaur uste dezakegun baiño askozaz garrantzi aundiagoko Jaurerria zala. Turkittarrak benezitarrei Txipre kendu ondorean Itali' ren gafiñera zetoze, Pio V'a Errege bezela, bere erriak babesteko, etsai aien aurka ekitera beartua zegoala, eta Itairko Erregerik indartsuenetakoa zalarik Itall'ren eta Europa'ko egoaldearen zaindari zala.

Turkitarrak osoro menderatuak gelditu ziran. Laterri kristauak, ordea, ez zuten garaitza arri, oparo eskeintzen zituan fruitu ederretatik, bat-batere ateratzen jakin.

Errege lez Pio V'ak lanketa aundiak asi, eta asitakoak jarraiarazi, zituan bere Jaurerrian, ez aundikeriari aize emateko, ogibiderik gabe zeuden langilleak lanean ipintzeko baizik.

Erdiaroko atsak eragin zion, ziurki, aitasantutzatik inkisizioari indar ematen saiatu zanean. Ortarako ez zuan Españi'ko Jaurerrietan lan aundirik izan, inkisizio-egiteko naikoa bait zan Felipe II'at Itali'ko Laterrietan ere Erroma'tiko aginduen zai egon gabe asi ziran inkisiziotetan Agintariek. Bildur bait zioten Aitasantu berriari!; ondo eza gutzen zuten b& agure giar aren eskuen gogortasuna. Ain zuzen, lutertarrekin jolaskeritan zebillen Maximilian II Inperatore makala ere exkornikaz zemaitu bait zuan; baita, zuzentasunaren neurri guztiak zapaltzen zituan bulda izugarri baten bitartez, Suezi'ko Erregiñ katoliko jatorra ere, Katalin Jagellon, bere senarraren eskariak entzunaz Eukaristia ardo-itxurapean ere artzera jarri zalako. Ta bere gudarozteko sai-Ilik bizkorrenak Frantzi'ra bidali zituan, ugonoteen aurkako gudatean eraso zezaten. Olandatarren aurka borrokan zebillen Alba'ko Dukearentzat ere izan zituan goraintzi maitetsuak.

Bai. ErdiAroko Aitasantua zan Pio V'a, ta erdiarokoa da "In Coena Domini", "Jaunaren Aparian", deritzaion buldaren mamia ere. Ostegun Santu batean idatzi zuan Bulda ori Aitasantuaren eskubideak sendotzeko. Ez da, beraz, arritzekoa Florentzi, Benezi, ta Itali'ko beste Laterriek zioten bildurra. Bildur orrek eraginda, noski, iriki zizkioten ateak aitasantuaren inkisizioari. Irutaraiño izan ziran sutara galdutako "artzai" ostelari italiarrak.

Ala ere esan bearra da, gizon onen omenez, saiatu zala gogorregia ez izaten. Bazekian berak, jendeak gogorregizat zeukalako egon zala baztertua, naiz kardenaI izan, Pio IV'aren denboran. Izan ere, Aitasantu onek, Pio IV'ak, amairu urteko ume bat aurrena, eta ogeitabi urteko gazte bat gero, kardenaI egin zituanean bein-da-berriro Aitasantuari bere arinkeria oarrerazl bait zion,

Ondo zekian gaiñera konklabe luze baten ondorean, bildur aundiarekin, —eta Pio IV'aren beraren illoba Karlos Borromeo'ren aolkuei eskerrak—, egin zutela Aitasantu, Paul IV'aren oroitzak kezkatu-rik zeuzkan kardenaI aiek' Ta, orrela, bere izakeraren geiegikeria ezagutzen zuala eta geiegizkoa zitekean zorroztasun orri neurria jarri nai ziola adierazteko, ez zuan artu Paul IV'a bere maixu ta "aita" maitearen izena, Pio IV gozoarena baizik; eta gozo agindu nai zuala kardenaI aiek jakin zezaten, onako auxe esan zien: "Badira nere etorrenak ituntzen dituanak; baiña askoz aundigoa izango da, oiek berak nere eriotzean sentittuko duten ituntasuna".

Esan diateke asmatu zuala. Erriak beintzat asko ta asko maite izan zuan. Irudi bat ere eraiki nai izan zion; al zitekean irudirik aundiena. Aitasantuak galerazi zuan, orrelakorik egitea. Ezzan erria arritu, bai bait zekian "bere" Pio V'a aundikerien etsai beltza zala'

Otoizketan, bere gorputza zigortzen, lekaideen Anaidiak eraberritzen, Eliz osoaren donetasuna aurreruntz bultzatzen, eta, batez ere, kosta-ala-kosta eta aundiki guztien aurka, Kontzilioaren aginduak be-tearazten, zenbat lan egin zuan esaterik ez dago. Ainbat gutxiago oraindik zenbaiteraifio bere asmo on aiek mami egitea lortu zuan. Garaitza ori ez zan arena lana bakarrik izan, Eliza osoarena baizik, ordurako Eliza, santuz, goren-gorengo mailleko santuz, betea bait zegoan' Ain zuzen, santu oietako batek eraman zuan Pio V'a bera aitasantutzara: San Karlos Borromeo'k, Milan'go Gotzaiak, Trento'tiko gotzai guztien eredu izan zanak.

Iru liburuk euki dute, lau menderen luzaroan bizirik PioV'aren oroitzua Eliz-gizon guztien buruan, ark aginduta egiñak izan bait ziran li buru oiek: "Trento'ko Kontzilioaren Katekismua", praille domingotarek idatzia; "Meza liburua", eta "Brebiario" edo "Otoiz-Liburua".

¿Pio V Doneari buruz gure iritzia? Aren akatsak arenak ez zirala, bera bizi izan zan aidiarenak baizik, ta errez aantzi ditezkeanak dirala, Elizari egin zion onarengaltik. Berari eskerrak batez ere, ez zan Trento'ko Kontzilioa literatura utsean gelditu lentxeago egin zan Laterandarra bezela, Kontzilioa biltzea lan zailla izan ba'zan, zaillagoa zan ba Kontzilio ura Elizaren Biziera biurtzea. Pio V'ak asi zuan, aulkeririk gabe, lan garratz ori. Ta, inola asi ere'..!

XIII GREGORIO
(1572· 1585)

Sasiseme baten aita zan, mutilletan txoro xamarra izana bait zan. San Karlos Borromeo'tarrarekin izan zuan adiskidetasunak zuzendu zuan, eta apaiz egin zanetik, apaiz on baten eredu izan zan. Legiztilari iaioa zan eta orregaitik eman zion Pio V'ak Elizaren Legedi berri bat antolatzeko lankizuna. Gizon baretsua zanez, Pio IV'ren laguna izan zan, eta bere aitasantutzan, IV Pio'ren baretasuna eta V'aren zorrotasuna batutzen asmatu zuan. Ugo Buoncompagni, zuan jatorriz izen.

Iñork baiño begi argiagoz ikusten zuan Lepanto'ko eraso artan turkitarrak zenbateraiño porrokatuak gelditu ziran' Orregaitik nai izan zuan bereala aien aurka gurutze-guda bat jaurti. Baiña ez zioten agintari kristauak erantzun. Españi'k turkitarrekin pakea egin zuan bere kasa; eta Benezi'k ere bai. Zabarkeri orri eskerrak jarraitu zuten turkitarrek Kostantinopla'n, Asi Txikian, Ipar-Afrika'n eta Europa'ko Bai kan'etan nagusi.

Inglannderriko Elisabete Lenengoaren aurka asi nal izan zuan beste gurutze-guda bat, ortarako agintari katoliko guztiak bilduaz. Ez zuan, jakina, bere guraririk lortu.

Sorkalderriko Kristau zismatikoak batasunera ekarri naiean saiatu zan. Ortarako bidali zuan Errusi'ra Possevino iñakitarra, baiña arlo ontan ere ez zuan irabazi aundirik atera.

Utsezkoa izan ote zan' ba, Gregorio **Jaurlaritza? Ez ori-xe.** Pio V'aren denboran protestalaritzaren zabalkundea gelditu ba'zan, Gregorio XIII'arenean asi bait zan ostera Katolikotasuna lurirabazten: Protestalaritzara jausitako erri asko Aulki Donearen esanera itzuli ziran'

Legedilari azkarra, ta adimen zorrotzeko eta begi luzeko gizona izan genduan Gregorio XIII'a, zuzen ikusi zituan kristaudiaren gaitzak bearrenik zituan bi sendagaiak:

A) —Aitasantua errialde bakoitzaren bizitzatik bertago egon aal izatea, gertakizunen berri obeto jakiteko, eta, batez ere, errialde aietan Trento'ko Kontzilioaren aginduak betetzen ari ziran ala ez ikusteko.

Ortarako, Laterri bakoitzean ordezkari edo "Nunzio" iraunkor bat ipiñi zuan.

Len ere ezagunak ziran nunzioak Elizaren diplomazian; baiña nunzio aiek gertakizun baterako bidaliak izaten ziran, eta beren egin-kizuna betetzen zutenean Aitasantuarengana itzultzen ziran. Orain-goak, ez. Oraingoak Laterri batera bidaliak ziran, Laterri artan bizi zitezen; Aitasantua ta Erregearen bitarteko izan zitezen' Laterri bakoitzean Aitasantuaren begi eta belarri izan bear zuten, onek kristaudian zer gertatzen zan zuzenki jakin zezan.

B) —Gotzai eta apaiz ondo eziak gertutu bearra. Ta ontarako lan aundia egin zuan Gregorio XIII'ak Ikastola Nagusien alde. "Ingländerritarren Ikastolak", eta "Grezitarren eta Marondar edo Maroniten Ikastolak" izan zuten Aitasantuaren laguntza naroa, baiña batez ere Loiolatarrek sortutako bi ikastolek: "Germanicum" eta "Romanum"; batez ere azkeneko onek. Orregaitik geroztik "Universitas Gregoriana" deitu izan zaio.

Jakintzaren arloan bi gauzek egin dute oroigarri Gregorio XIII'a: Pio V'aren denboran berak gertutu zuan "Corpus" edo "Eliz-Legeen Gorputza" argitaratu izateak, eta, batez ere, Egutegia zuzendu izateak' Berea du, gaur dabilkigun egutegia: "Calendarium Gregorianum". Lenagokoari "Julendarra" deitzen zitzaion, Julio Zesar'en denboran (Kristo jaio aurreko 46'garren urtean) egiña zalako. Urtearen luzaera ez bait zuten orduan ondo neurtu, amar egunez atzeratua zebillen mundua, Gregorio XIII'ak, (Trento'ko Kontzilioak eskatu zuana beteaz), bere egutegia, 1582'an, lege egin zuanean' Egutegi orren egilleak Sirleto Kardenala, Kristobal Clavius iñakitarra, eta, batez ere, Luigi Lulio astronomo edo ortzeiztilaria izan ziran'

Lutertarrek eta beste ostelariak "Antikristo'ren Egutegia" deitu zioten, eta emezortzigarren mendea arte ez zuten onartu. Sorterriko Eliza Ortodoxoek, berriz, ez dute oraindik beren-egin.

Biotz osoz lagundu zien Gregorio XII'ak praille ta lekaideen Anai di zarrei eta apaizen Lagundi berriei zintzotasunera bidean.

V SIXTO (1585 - 1590)

V SIXTO, Felix Peretti, frantziskotarra (1585 154530)' Guraso .txi-roen seme, Elizako Laterrietan jaioa, aurtzaroan txerrizai ibillia. Adimen argi, biotz sutsu eta burnizko naimenaren jabea zan Felix Peretti frantziskotarra. Batez ere izlari iaio bezela zan ezaguna; Loiola'ko Iñaki eta Neri'tar Felipe Doneak berak gogoz ta atseginki joan oi ziran frantziskotar aren itzaldi bikaiñak entzutera.

IV Paul eta V Pio'ren ezpalekoa zan; biguinkaitza, zailla, egosgorra, setatsua eta latza; aiek bezela, gogorregia. Baiña ederki etorri zitzaion gogortasun ori garai artako Elizari, —ialakoak bait ziran denborak!— eta ez zitzaion gaizki etorri Erroma'ko Jaurerri berari ere.

Ederki etorri zitzaion Elizari, Sixto V'aren zorrotzasun guzia!, Trento'ko Kontzilioaren aginduak Elizaren izakera osoaren mami egiten íbfilli bait zan atsedenek gabe. Burnizko frantzikotar arek atsedena zer zan ez zekian.

Berea du gerontzean Elizak erabilli oi duan Bibliaren latinezko "Vulgata" edo "Errikoi" itzulpenaten irarkafdi edo edizioa, naiz gero, zituan okerretatik garbitu bearra izan; leia ta presa geiegirekin argitaratu bait zuan Sixto V'ak'

Arenak dira, gaur Elizaren jaurketa edo gobernuak dituan "Congregationes" edo "Batzordeak".

Ederkitxo ere etorri zitzaion zorrotzasun ura Erroma'ri, pake-giro ta aberastasun aundira igo bait zituan Sixto V'ak Elizaren Laterriak. Ondo naasiak artu zituan berak Laterri aiek; Gregorio XIII agurearen azkeneko urteetan izugarri ugaritu bait ziran lapurrak eta gaizkilleak Laterri aietako baso ta bideetan, eta baita Erroma'ko karriketan ere.

Ez zan Sixto V'a orrelako okerkeririk patxadan ikusteko jaiotako gizona' Erruki gabe ekin zien gaizkilleei, naiz auek sendi aundiki ta aberatsetako umeak izan' Colonna Kardenalari eman zion eginkizun ori, eta laister garbitu zituan onek uri, erri ta mendiak ortarako Aita-

santuaren ertzaiñak era egokian erabilliaz. Erroma'ko erri isekalaria-
ren esakuna izan zan orduan onako au: "Erroma'ko azoketan ugari
ikusiko duk meloia' Ugariagoak dituk gaur gizon-buruak Sant'An-
gelo'ko atarietan abeetatik zintzilik".

Jende beartsuari nondik-bizi ematearren azkar bizkorarazi zituan
Uri'ko eta Eliz-Laterrietako lanketa guztiak. Aitasantu onek amaitua
dugu. Kepa Donearen Jauretze Nagusia, berak ipiñi bait zion, ain
apaingarri zaion kupula edo sagar-erdi itxurako gaillur borobilla.

Ala ere, bere ertzaintza gogorregia izan zalako, ez zion erriak mai-
tasunik izan.

Latza bait zan latzegia ezkontza-auslei, lizunkeritik bizi ziran
emakumei, azoketako lapurtxo eta neska-mutil lasaiei ematen
zitzaian zigorra.

Saiatu zan Aitasantua iñauteriak, Erroma'ko Iñauteri aipatuak,
kendu naiean ere. Alperrik. Ikusi bait zuan errian matxinada bat ere
sortu zitekeala, berak ori egiten ba'zuan' Ez zitzaion gaiñera erriari
matxinadarako askorik falta. Bildurrak eutsi zion. Baiña Aitasantua il
zan bezain laister, jaurti zuan apurturik Aitasantu aren omenez Kapi-
tolio'an eraikita zegoan irudi eder galanta'

Ez zuan Sixto V'ak orrelakorik merezi, bere aitasantutza egiaz izan
bait zan Erroma'rentzat, eta batez ere Elizarentzat, onurakorra.

VIII KLEMENTE (1592 - 1605)

Izan ziran Aitasantu onen aurretik 154530'etik 154532'ra iru Altasantu, bizi laburrekoak irurak: amabi egun iraun zuan Urbano VII`ak, amar illabete Gregorio XIV'ak, eta bi illabete Inozentzio IX'ak' Gregorio XIV'ak politikan ezik, —Frantzi'ko erlijio-guduetan Españi'ren alde ipiñi bait zan—, ez zuten irurak ezer aundirik'egiteko denborarik izan, are gutxiago Elizaren eraberritzean lan aundi sakonik egin aal izateko.

Klemente VIII'ak, aldatu zuan, bereala, Gregorio XIV'aren politika ura, eta Sixto V'aren bidera biurtu zan'

Sixto V'a, aurrenetik Españi'ren aldeko izan zan, eta arreta osoz eskatu zion Felipe II'ari Inghlanderri'ko Elisabete'ri guda egiteko' Baiña gero Españi'k indar geiegi artuko zaularen kezka sartu zitzaion; ez zitzaion gaiñera Felipell'aren jokaerarik atsegin, eta Enrike Naparroa'ko Erregearen alde jarri zan, Frantzi'ko erlijio-guduetan.

V Sixto'ren naia Españi ta Frantzi, bi jaurerri katoliko nagusiak, indar berdiñekoak izatea zan' Elizaren askatasunaren kalterako ta Europa'ren zorionaren kalterako izanen zala iduritzen zitzaion, bi aietako bat altsuegi izatea'

Ori bera uste izan zuan Klemente VIII'ak ere, eta Enrike naparrarI lagundu zion. Aitasantu izatera iritxi aurretik ere jakiña zan Aldobrandini Kardenal florentziarra —gure Klemente VIII'a— Naparroa'ko Enrike'ren aldeko zala; ziur uste bait zuan, au, azkenean katoliko egingo zitzaiola. Ta izan zuan Aldobrandini'k VIII Klemente izatera igo zanean, gertakizun ura ikusteko zoria'

Erljiozko bitizta sendoko gizona izan genduan beti Klemente VIII'a' Bazuan, alatagutziz, bere arra; aspalditik aitasantutzaren muiña jaten ari zan ar zaarra: sendikeria' Orrela egin zituan kardenal bere bi illoba eta beste illoba baten seme gaztetxo bat; amalau urtekoa au.

Baiña, naiz ori ala izan Klemente Vill'a gizon ona zala eta Aita-santurik onenetakoa izan dala esan bearrean gaude. Maiz barau egiten zuan, ta gogorki bere gorputza zigortu; atsegin zitzaion bere maiean eskaleak eseriaztea. Egunero aitortzen omen zan.

Bada noski misterio galanta, gizakumearen kontzientzia...! Eta baita gauza zailla ere Elizaren altzotik bein sartutako gaitzak botatzea!. Ez zan beintzat gutxi kosta sendikerja Elizatik ateratzea.

Ain zuzen misteriozko auzi batean sartua egon zan Klemente VIII'a, eta misteriorik argitu ez bazuan ere —giza arrazoiketaz argitu eziña bait zan--- berak baretu zuan beintzat domingotarren eta iñakitarraren artean pizturik zegoan iskamilla zakarra. "De auxiliis" edo "Laguntzei buruzko" iskamilla.

"Laguntzak" Jainkoak gizakumeari ematen dizkion "Graziak" dira. Laguntza oietaz ari dalarik, Sinismenak au dio: gizakumeak ez dezakeala Jainkoaren Grazirik gabe "ez asi, ez jarraitu, ez amaitu" sai bagarri lezaiokean gauzarik. Au da: beste mundurako baliozkoa litekean gauza on bat egiteko "asmoa" bera ere Jainkoagandiko Graziak sorrarazten duala gizonaren baitan.

Bi grazi-mota dirala teologiak erakutsi oi du. Bati "Gratia vere et mere sufficiens" deitzen dio' Obra onak egiñarazteko "egiaz gai" dana, baiña "gai izate utsean" geldituko dana, bere gaitasuna ekintza on batean mamituko ez dalako' Besteari "Gratia efficax", Obra onen "egikorra", "egillea", bere gaitasuna fruitu emateraiño, ekintza ona egiteraiño, eramango duana.

Eta grazi bat gai izate utsean gelditzen ba'da eta bestea ekintza ona egitera iristen ba'da, ez da azkeneko oni gizakumeak bere erantzun onarekin fruitua osotu aal izatea eman diolako, ez. Betidanik, gizonarengana iritxi aurretik, "in actu primo", Jaingoagan sortu zan "aurreneko unetjk", grazi ori "efficax" "egikorra", fruitu-emaillea, zalako baizik.

"Ori ala ba da, gizakumeak ez du askatasunik" esanaz amaitu zuan Jon Kalbin'ek, grazia ta askatasunaren arteko korapilloa' Baiña ori esanaz, ez zuan korapillorik askatzen; korapilloa ebaki egiten zuan; misterioa desegin.

Iñakitarrak sartu ziran misterioa askatzera' Iñaki Deunak berak idatzia laga zuan bere "Fede zuzenari buruzko" X111 "urrezko" araeuan: Graziatz jardutean "ez da geiegi aipatu bear graziak bere iza-kundez duan fruitua emateko almena, almen ori geiegi azpimarratzen ba'da, gizakumea erejira jausi bait daiteke, giza-askatasuna ukatzera

alegia; eta, salbazioari buruzko auzi osoa Jaungoiko bakarraren lana dalako ustean, bere burua ontzen saiatzeko leia ta ganora galtzera ere iritxi bait daiteke.

Arau orri jarraituaz, asmatu zuan Koinbra'ko Ikastola Nagusian irakasle zan Kepa Fonseca portugaldar iñakitarrak "Scientia rmedia"ren teori edo aburua' Aburu orri "molinkera" edo "molinis-moa" deitu oi zaio, beste iñakitar batek, Eborako irakasle zan Koldobika Molina'k, zabaldu bait zuan munduan, 1588^ran Lisboa'n argitaratu zuan idazki baten bitartez' Idazki orren izena: "Liberi arbitrii cum gratiae donis concordia" "Naimenaren askatasuna ta graziaren almena nola kidetu".

Aburu edo teori orren muiña "Scientia media" edo "Erdikoen Ezaguera", da, "Badiran" eta "Izango Diran" gauzen "erdian" bezela dauden "Izango Liraken" guazen ezaguera".

Jaungoikoak badu, ba, diran gauzen ezaguera; badu, izango dirarena. Baita ere badu izango liraken guzen eta gertatu litezken gertakari guztien ezaguera. Gauza--auek-ezagutze orri deitzen zaio "erdikoen ezaguera". Ezaguera onen bitartez badaki Jaungoikoak gizakumeak edozein kondiziotan nola erantzungo lioken. Eta orrela kondizio oietako batean baietz erantzungo liokela ikusten duanean "erazi Egikor" bat ematen dio, eta ezetz erantzungo Iiokela ikusten duanean "Gaitasun Utsezko Grazia"

Aburu ortan, domingotarren iritiz, Gizakumearen Naimena da ekintza onen egiazko gurasoa eta ez Jaungoikoaren Grazia, grazi-mota bat ala bestea emateko, Jaungoikoaren Naimena, gizakumearen naimenagandiko erantzunaren zai ipintzen dualako. Ori, pelajiotarren edo gutxienez erdlpelajlotarren aburu berbera zala zioten domingotarrek'

Domingotarren teoriaren bizl'Carrezurra auxe zan: Jaungoikoak "aurretik eragiten omen dio gizakumearen naimenari, —"praemotio", "aurretiko igikundea"—; Jaungoikoak berak ipintzen Omen du gizakumearen naimena baietz erantzutera, —"praedeterminatio" "aurretiko eraketa"—, gizakumeagana iritxi aurretik utseziña dan Grazi Egikorraren bitartez. Ta ori gizakumearen askatasunik zapaldu gabe, une berean Jaungoikoaren Almena gizakumearen naimenari aske ta iare izatea eta iareki ekitea ematen ari zaiolako' Domingo Bañez izan zan domingotarren aitzindari.

Aburu ortan itzez bakarrik salbatzen zala gizakumearen askatasuna, eta orregaitik kalbintarrenaren antzekoa zala erantzuten zieten iñakitarrek' Orrelako zerbait-edo uste izan bear zuten Iutertarrek ere,

Anai Martin Luter'en esakizun bat berbiztuaz, "a gratia sufficiente bera nos Domine", "gaitasun baizik ez dan grazitik gorde gaitzazu Jauna", bait zioten irrikaz.

Laister biurtu zuten españiar borrokalariek sugalda gogor, Portugal'eko iñakitar patxadatxu batek piztu zuan txinparta' Kixkaltzen ipiñ ziran Balladolid aurrena, eta gero, Salamanka ta Alkala'ko Unibersitateak. Alderdi batekoek erejetzat gaitzesten zituzten beste alderdi-koak.

Baretasun-billa zebillen Sales'ko Frantzisko Donea. Aren pentsaera jarraituaz, arrazoi eta egokitasun osoarekin idatziko du geroxeago Bossuet frantzitar neurrizaleak: "erazi ta askatasunaren korapillo onetan "lokarriaren bi ertzak eutsi bear ditugu tinko" fedearen bitartez. Bikain esana.

Bi ertz oiek "Graziaren indar utseziña" eta "giza-naimenaren askatasuna" dira. ta biak egizkoak dirala sinismenak erakusten digu. Lokarriaren erdia, bi ertz oiek nola alkarrekin korapillatzen diran batatak bestea desegin gabe, beti izanen da misterioa gure adimenarentzat; Jaungoikoaren urrutitasunetik izakundea duan oro bezela'

Bitartean Klemente Vill'a, Sixto V'ak argitaratu zuan Bibliari orban eta akatsak kenduarazten ari zan, argitaldi berri bat egiteko. Berritze ori dala-ta deituko zaio Biblia oni "Klementina" eta ez "Sixtina", jatorriz bear lukean lez.

Baiña ez zeukan azturik, Domingo'ren eta Iñaki'ren semeen arteko asarre beltza. Ederki ikusi zuan, —florentzitarra izaki—, teologilari egosgor aiek urrutiegira iristen ari zirala beren zipotzkerian, eta auzia diplomaziaren bidez konpondu bearra zala, teologiaren aldetik konponketarik izan ez zezakean ezker. Asarrearen baretasuna lortzeko, bi alderdikoei ixilik egoteko agindu zien; eta Aitasantuari ezdabaidaren muiñagaitik ajolik ez zitzaiola uste ez zezaten, Erroma'n Batzorde bat bildu zuan, arazo guztia, al zitekean neurriraiño, argiagotzen saia zedin.

Batzordea lanean ari zan bitartean il zan Klemente VIII'a. Baita aren ondorengo Leon XI'a ere, illabetera ez bait zan iritxi medizitar onen aitasantutza' Onen atzetik etorri zan Paul V'ak eman zuan "Laguntzei"-buruzko Elizaren azken-itza' "Ez zitekeala garbi erabaki bi ai derdietan arrazolanork zuan, eta bai bañeztarrek bai molinatarrek, beren aburua erakutsi zezaketela; ta, orregaitik, alderdi biei debekatzen zitzaiea batak besteari ereje deitzea".

V PAUL
(1605 1621)

Izan zan aurretik, aitzintxe esan dugun bezela, beste aitasantu bat: Leon XI'a Medizisendiko semea, Kardenal zala jauregi bat, "Villa Medici" aipatua, —edertasunaren **egin zualako, ertiaren** edestian ezaguna dana. Berak artu zuan baita, Kardenaf zala, Klemente Vill'ren ordezkari lez Enrike Naparroa'ko eta Frantzi'ko Erregea Eliza Katolikoaren altzoan' Izan zan asarre naiko Españi'n, Klemente VIII'ak naparrari exkomika jaso ziolako. Felipe II'aren enbaxadariak izan omen zuan, Erroma'n, Aitasantuaren iloba kardenala gizonegizonezko borrokara kiñatzeraiñoko ausardi txoroa!

Aitasantu egokia izanen zala Leon XI'a, diote edestilariek; baiña eriotzak illabete baiño lenago jetxi zuan Aulki Donetik.

Orduan izan zan Borghese kardenala, Paul V'a, Aitasantu autatua. Gizon Santua zala ez du iñork ukatzen. Ala ere, bere sendia maitatu zuala eta bere illobekin diru geiegi gastatu zuala aitortu bearrean gera. Baita gogortxuegia izan zala ere, Sixto V'aren antzera. Agian orretxegaitik aukeratu zuan Paul izena, IV Paul'en ornenez....

Politika-arloan ez zuan izan adu onegirik. Gogortasun geiegiak, Benezi'ren aurka gudara eraman zuan. Benezi'ko "Dux" edo Lendakaria eta Batzar Nagusia exkomikatuak izan ziran, eta Benezi ko Laterri osoan elizkizunik egitea ere galazia izan zan.

Ez zan ikaratu Benezi. Paul V'aren exkomika ta aginduei jaramp-nik egin gabe, len bezela jarritzeko beren elizkizunetan, zien Errepublikako elizgizonei.

Kaputxinoak, Felipe Nerrren semeak, eta Iñakitarrak bakarrikjarriri ziran Aitasantuaren esanera; eta Benezi'ko lurraldeetatik erbeeteratuak izan ziran.

Beste elizgizon guztiak, lotsagarriki, Benezi'ren eskarietara ñdikurtu, eta Aitasantuarengandik bereizi ziralako, "Benezi'ko Zisrriatxoa" deitu oi zaio ixkamil oni'

Ixkamillaren erru guzia ez zan Erroma'rena. Egia da beste diplomazi geiagoko Aitasantu batek auzia konpondu aal izango zuala orren urrutira iritxi gabe, baiña egia da baita ere Benezi'ko Errepublika arroxkoak ariñegi erabilli zituala beti Elizako gauzak eta ez ziela iñoiz Aitasantuei begiramen geiegirik gorde.

Gaizki ibilli bearra zan gudate artan Paul V'a, (Jaurerri protestanteek ez-eze Itali'ko Laterri katoliko batzuek ere Benezi'ren alde ateratzen ari ziralako), Frantzi'ko Enrike 111 naparrak bere diplomazizkd maixutasunarekin auzi guzia konpondu ez balu. Lasai gelditu zan noski Aitasantua benezitarrekin pakeak egin zituanez gero'

*

Gorakunde pozgarrian artu zuan Paul V'ak Elizaren gobernua. Oroi dezagun siñale bezela, 1600'eko "Jubileo" edo "Urte Santuan", iru milloi erromes joan zitizkiola Erroma'ra. Berebillik, egazkiñik eta lurriñezko itxas-ontzirik ez zan garaiean, eta Elizak ostelarien eskuetan ainbat Europa'ren zati zabal laga bear izan zuanean.', ; lru milloi erromes!

Paul V'ak bere almen osoz eragin zion gorakunde orri. Sixto V'az ari giñala esan genduana bir-esan-bearra dugu Paul V'aren aipamena egiterakoan ere. Aren gogorkeri amorekaitzak berak Elizaren bizkortasunari lagundu egin ziola, alakoak ziran denbora aiek-eta; elizgizon biurri askok eta okerbide iguingarri batek baiño geiagok, Aitasantu zorrotz bat bear bait zuten orduan.

Eliza bezelako gorputz aundi baten akatsak ez dira arin eta errex garbitu litezkeanak' Orrela, bere aurreko Aitasantuek bezela Paul V'ak sendo lan egin bear izan zuan.gotzai eta apaizei, Trento'k agindu zuan bezela, bere ardien artean biziartzeko' V Pio eta V Sixto bere aurreko bi Aitasantu zorrotzen antzera, xamurkeri ta leuntasun gabe jokatu zuan Paul V'ak Elizaren bizitzarako ain garrantzi aundikoa dan gai ontan.

Erroma'ko Errege lez nekazari txikiei laguntzen saiatu zan; Jaurreriaren onerako ziran bide-egite ta beste lanetan ekin zuan; txiroen laguna izan zan; eta gaiñera Batikano'ko Liburutegia aunditu zuan. Baiña Paul V'aren eginkizunik ezagunera, edertiarloan, Kepa Donearen Jauretxe Nagusia amaitu izatea da.

Paul V'aren denborakoa da Galileo'ren auzi ospetsua ere. Bi epaiketa izan zituan auzia. Bi aldiz agertu bear izan bait zuan Galileo'k Inkisizioaren aurrera; Paul V'a, eta gero, Urbano Vill'a Aita-

santu zirala. Ondo ezaguna da Galileo Galilei'ren izena, matematika, fisika, eta izarriztiaren arloetan lortu zituan aurrerapenengaitik; barria ezagunagoa, bear ba da, epaiketa oietan Elizako gizonek egin zuten utsarengaitik'

1610'ean edatzi zuan Galileo'k "Sideraus Nuncius", izaneko liburua. Koperniko'ren idorokizuna sendotuaz, ludia eguzkiaren inguruan zion'

Andik sei urtera Inkisizioaren Epaigelan zegoan Galileo eta bere aburua okerra zala aitortu bear izan zuan. (1616)'

Galileo'k obeagotu zuan olandarrek asmatutako "urrunbegirakiri" edo "teleskopioa"; eta ezin ukatu bait zituan, tresna aren bitartez ikusten zituan gauzak, 1632'an idatzi zuan beste liburu ausarti bat: "Dialogo sopra i due massimi sistemi del mondo", ("Munduari buruzko bi aburu nagusietaz elkarrizketa").

Bi aburu oietatik batek eguzkia lurraren biran zebillela zion, eta besteak, lurra eguzkiarenean. Galileo'k azkeneko aburu au egiten zuan, ostera, bere. Liburu onek, gaiñera, atsegin gutxi egin omen zion Urbano VIII'ari, bertan Galileo'k iseka egiten ziola uste izan zualako.

Irurogeitamar urte zituala, gaitz astunak menperatua zegoala, berri ere Inkisizioaren aurrean ikusi zuan Galileo'k bere burua. Ta lurra ez zala "ibiltzen" ziñ-egiñaz aitortu-ondoren irten zan andik' Baiñan jakintsu zaar agurgarriak "eppur si muove", "bazebillek ba ala ere"! esan omen zuan irtetzean. Esakizun au,ordea, arnetsezko kondaira besterik ez da ziurki; eun urte ondo igaroak zirala, 1761'ean asmatua'

Gauza orotan eta gertakizun guztietan Elizaren jokaera, kosta ala kosta, defendittu nai dutenak diotenez Inkisizioak ez zuan Galileo, eguzki ta lurraren arteko ibillerari buruz erakusten zuanagaitik gaitzetsi, bere erakusketa Eskritura Santuen esakizunetan oiñarritu nai zualako baizik. Inkisiziolari zuzen aiek, Galileo'ren Biblia erabiltzeko moduan "bakoitzak biblia bere erara ulertzeko" askatasunaren usaia usmatu bear omen zuten naltanaiez; lutertasunaren usala, alegia.

Baiña onek gauza bat bakarra erakusten digu: Trento'tiko Elizaren bildurkeria. Ta ez da makala, gerontzean bildurkeri onek Elizari egin bear dion kaltea.

Askoz leialago iduritzen zaigu Elizak oker jokatu zuala argi ta garbi aitortzea. Zorionez inkisizioaren sententzietan ez zegoan Elizaren utsezintasuna jokuan; Sinispideko egi bat sinismenaren gai bearrezkoa bezela erakusten duanean bakarrik da utseziña Eliza. Eta ez du Iñoiz ire Elizak orrelako erakusketarik egiteko inkisizioa erabilli; ta ez

zuten orduan ere Paul V'ak edo Urbano VIII'ak inkisiziorik ortarako erabilli nai.

Sendaezifia dugu, Elizak fedezkoak ez diran gauzetan uts-eginbear itun ori' Baiña, a! maizego pentsatuko balute Elizako Jaun Altsuek, zein errez egiaren aurka okerrezko maixu lez altxa daitezken...!

XV GREGORIO

(1621 • 1623)

Dударик gabe garaienetako Aitasantua izanen zan au ain arin eriotzak eraman ez balu. Ala ere, aurkitu zuan denbora "De Propaganda Fide", "Sinismenaren Zabalkunderako" Batzordearen oiñarria ipintzeko, eta Paulo VI'a arte bizirik iraun duten aitasantu-aukeratzen erabilli diran arauak antolatzeko.

Gizon ona, gizon argia, gizon iaioa, Gregorio XV'a' Esan daiteke, Trento'ko Kontzilioaren izpiritua bera izan zala gizon onen izpiritua' Berarekin igo zan, Trento'tiko bidean gora, Aitasantuaren irudia, kristaudiaren begirunean izan duan gaillurrik goikoenera. Zori txarrez bi urte bakarrik egon zan Kepa Donearen Aulkian.

IRU AITASANTU SENDIZALE.—Urbano Vill'a, (1623 - 1644), Inozentzio X'a, (1644 - 1655), Alexander V II'a, (1655 1667). Ez ziran iru Aitasantu auek, Trento-ondorean ikusi ditugun aitasantuen mailla-koak izan. Beren akatsik aundiena, "sendikeda"!

Ez zan artean joera txar au oso-oso aitasantutzatik garbitua izan' Maiz ikusi dugu, nola aitasantuek beren senditarrak kardenaltzara jasotzen zituzten' la legezko bezela artua zegoan, izan ere, Elizan, Aitasantu berri batek bere illoba bat kardenal eta beste bat Erroma'ko jaurleri edo orrelako beste zerbait egiteko oitura; baiña iru Aitasantu auen sendikeria aundiagoa izan zan; aurrenekoarena ia-ia Birjaiotzako Aitasantu aienaren antzekoa.

Urbano (Maffeo Barberini), bere sendikoei Kastro'ko dukaterria emategaitik, gudan sartzeraiño iritxi zan; eta guda galdu ondorean, Erroma'ko uria ere galduko zuan, Frantzi'ko diplomaziak salbatu ez balio.

Barberinitarrak arranoak bezela jausi ziran Erroma'ko kargu dirutsu guztien arrapatzera. "Quod non fecerunt Barbari, fecerunt Barberini", "Barbaritarrek egin ez zutena egin dute Barberindarrek" zio-

ten orduko jende ikasiek' Jende xeak, berriz, beste bertso au abestu oi zuan:

Hanno fatto piu danno
Urbano e nepoti
che Vandali e Gothi"

—X Inozentzto'ren denboran aalmen geiegi izan zuan Olimpia ize-neko Aitasantuaren koñata batek' Errez lortu zuan bere semea kardenal izendatua izatea. Ez zan ordea mutill au eliz-gizon izateko jaioa-ta, bere kargu guztiak utzita ezkondu egin zitzaion. Orduan Olimpia'k bere illobatzo gazte bat, amasei urteko mutikoa jaso zuan kardenaltzara. Aitasantuaren aideak, panfilitarrak, Erroma'ko jaun da jabe ziran, Panfili bat bait zan X Inozentzio. Laister ordea. Aitasantu au ilda Chigi Kardenala VII Alexander izatera iristen danean, Chigitarrak izango dira Erroma'ren jebeak' Alare ez zuan aitasantutzak, kristaudian irabazia zeukan onespelik galdu, ain gora igoa bait zan Pio V Donearen garaia ezkerok! Gaiñera Urbano VIII'a, Inozentzio X'a eta Alexander VII'a ez ziran gizon gaiztoak, iñondik ere. Gizon aulegiak ziran.

Aulak gerta zitzaizkgun politika arloan ere.

Aro artako Aitasantuak Sixto V'aren bideari jarraituaz maiz izan ziran Frantzi'ren eta Españi'ren "berdintasunaren" aldekoak. Bi Laterri auk indar berdiñekoak izatea nai zuten.

Politika orren arrazoia Europa'ko pakea zan noski; baiña baita, ziurki, Elizaren Laterrien askatasuna ta sendotasuna zaintzea ere.

Ez zuten nai Laterri bakar batek bizkortasun geiegi artzerik: eta azkeneko iru Aitasantu auk Espafli'd zioten bildurrik geiena. Españi, Itali'ko iparrean, Milan'go Laterriaren jabe zan, eta egoaldean bereak zituan Sizili'ko eta Napoles'ko Jaurerriak. Goitik eta betik eraso zezaien Españi'k Elizaren Laterriei'

Bazuten, beraz, Aitasantuek Españi'ren atzaparpean erortzeko bildurra zergaitik senti'

Dana dala, Errege izate orrek maiz ipiñi zituan egoera larrian Aitasantuak, eta egoera orrek gaitz aundia egin zion Elizari. Orrela gertatu zan "Ogeitamar Urteko Guduan" ere'

Gudu au Borboitarren eta Absburgetarren arteko bekaizkeriaren ondorena izan zan, naizta sortzez, erlijioagatiko asarrengaitik sortua izan.

Politika ta Erljioa osoro ibilli ziran naasirik gudate luze izugarri artan. Izugarria benetan; ez bait zan iñoiz Europ'an, Atila'ren mongolitarren etorrera ezkerok, gudate ontan aiña erailtze, lapurreta, kixkalke-

ta, ondamen eta biurrekeririk egin. Eta nazkagarrikeri aiek danak Jaungoikoaren izenean egin ziran, Ebangelioa bait zebilkiten ezpainetan, bai Iutertarrek eta bai katolikoek ere.

Guda, Boemi'n sortu zan' Badakigu "Cujus Regio" deitu zitzaion arauaren neurrira, lurraldearen Jaunaren erlijioa artu bear zutela lurralde artan bizi ziran guztiek, eta beste erlijio guztiak galeraziak gelditzen zirala.

arau ori bete nai izan zuan Matias Inperatoreak Ungari'n eta Boemi'n. Oratarako Jaurerri aietako ostelarien jauretxe eta otoiz-leku guztiak desegiteko agindu zuan.

Asarretu ziran Praga'ko protestalariak, eta Matias'ekin itzezin nai izan zuten, baiña matxinadarako gerturik zeudela-ta, ez zituan onek artu nai izan. Protestalariak, amorraturik, leiotik beera jaurtikiaz erail zituzten, Praga'n, Matias Inperatorearen bi ordezkariak. 1617'garren urtea zan. Asirik zegoan "Ogeitamar Urteko Gudatea".

Berealaxe zabaidu zan Europa guztira ludian izan dan gudarik nazkagarrienetako ura. Frantzi izan zan zabalduarazi zuana eta, Frantzi'ren Jaurle bezela, Richelieu Kardenala. Ori egitean, Richelieu'k Frantzi'ren aunditasuna (eta agian askatasuna bera ere) españiarren mendetik sabaltzen zuala uste izan zuan.

Ortarako ez zuan kerarik izan, aurrena lutertarrei laguntzeko, eta gero, lutertarrekin alkartuta gudan sartzeko. Berak gudate ura ez! zala, azkeneko unean beintzat, erlijiozko guda, poNtikazkoa zala esaten zuan. Baiña katolikoak menperatuak izan ziran; ostelariak irten ziran garaille; galdu zuan erabat aitasantuizak Europa'ko auzietan oraindik ordurarte gordetzen zuan nagusitzaren ondarra, eta au izan zan mingarriena, galdu zuan Elizak ere Trento ezkerro zekarkian igikunde bizi garaillea.

Gudate arek antzu utzi zituan gogoak; amaitu zuan santu aundien aroa, Iñaki Loiolatarra, Karlos Borromeo, Abila'ko Terese, Frantzisko Xabier'koaren aroa; antzu !aga zuan Eliza ere, ainbat Apaizen eta Erlijioen Anaidi berri bere altzoan sortzen ikusiberria zan Eliza' Ostera, polikipoliki, erridi osoak protestalaritzatik bereganatzen ari zan Eliza, igarturik bezela gelditu zan: moztu zan lenxeago berzabai-dunde pozgarri ura'

Ikus dezagun nola zegoan Europa amazpigarren mendearan asieran: Ordurarte España izan zan indartsuena eta Felipe II'a (1556-154538) zan ludiaren nagusia. Frantzi, erlijiozko gudak txikitua, osoro auldurik zegoan. Alemani'ko Inperioa, España'ren laguna zan, Felipe

Il'a ta Fernando Inperatorea aideak bait ziran, Ausburgetarrak biak; Karlos V'aren semea, Felipe II; anaia, Fernando I'a. Baiña Inperatorearen indarra itxurazkoa geiago zan mamizkoa baiño. Bere sorkunde-ko Laterrian bakarrik zan Errege ta egiazko Agintari. (Austri'n Fernando I'a). Betidanik, Inperioko beste Laterri bakoitza, aundi edo txiki, bere buruaren jabe bait zan, eta bertan Laterri artako jaunak bakarrik agintzen bait zuan. Inperatorea izen ederreko epailari garai bat besterik ez zan; ospez, aundia; almenez, geiegi ez' Garai ontan, Ausburgetarren sorterriaz gaiñera Errege bezela Fernando I'ak bereak zituan Boemi eta Ungari, baiña bi Laterri auek makaldurik zeuden bertan izandako erlijio-borroken eta turkitarren eraso gogorren erruz.

Españi'n bertan ere nabari ziran zauri sendakaitzen aztanark: "Errege Katolikoek", beren Jaurerrietatik judutarrak jaurtizean, purrukatuta utzi zuten Españi'ko ekonomia, ta ez du oraindik onek bururik altxa aal izan. Ameriketatik zetorren aberastasunak "inflazio" edo diru-ugaritasun ustela sortu zuan. Felipe Illak morisku mauritarkumeak erbestaratu zituanean, nekazaririk onenak eta eskulangillerik iaioenak galdu zituan Españi'k; izkilluekin irabazi zitekean ospe ta izen onak erail zuan, españiarren biotzetan, bizia lan egiñaz irabazteko gogoia, ainbat aldiz entzuten bait zuten ontasunik aipagarriena Elizaren alde eta Erregearen alde gudian il edo gudian garaile irtetzea zala.

Gudateetako eriotzek, eta aberastasunen atzetik Ameriketaruntzeko jende-ixuri etengabeak, ustu zituzten Españi'ko Jaurerriak. Berderatzi milloi ziran, 453.000.000 bakarrik Felipe II'ak Laterri auetako buruntzak artu zituanean, bere mende zituan españiar guztiak. Eun urte geroago, Españi'k "Ogeitamar Urteko Guda" galtzen duanean, sei milloi besterik ez dira izango aren billoba Felipe IV'aren mendekoak.

Artean goruntz zetorren Frantzi, Enrike IV naparra, pakea lortuta, bere politikaren eta diplomaziaren bidez Jaurerria bizkortzen asi zanezkerok. Lurrez gaurko Frantzi'ren bostetik lau besterik ez izan arren, bazituan amabost milloi bizilagun.

Europa'ko beste errialdeek baiño aberastasun geiago bere lurrai de beretan zualako, —Españrrenak Kolonietatikoak bait ziran—, nai ta naiezkoa zan Frantzi Europaren lenengo maillara iristea.

Ogeitamar Urteko Gudatearen asieran geldirik egon zan Frantzi, ez bait zan oraindik Richelieu Kardenala Jaurerriaren Nagusi. Gudate luze arek lau aro izan zituan: aurrenekoari, Boemi'ren eta Palatinerriaren aroa deritzaio; bigarrenari, Saxoni'rena eta Rinamarka'rena; irugarrenari, Suezirena; eta laugarrenari, Suezirena eta Frantzi'rena.

Aurreneko bi aroetan protestalariak zearo menderatuak izan ziran. Ez ordea irugarrenean; eta azkenekoan, Frantzi'ren laguntzari eskerrak, aiek irten ziran garaille.

Asieratik ibilli ziran politika ta erlijioa oso naasirik alkarrekin, XVI mendean Beeko Lurraldetan ibilli ziran bezela' Boemitarrak ere, beren altxakundean, ostelaritzaren alde aiña leiatzen ziran askatasunaren alde. Inperioaren barruan Jaurerri aske eta iare zan Boemi, eta aski paketsua, an Hus'ek bere erejia zabaldu zuan arte' Arrezkero asi ziran hustar egin ziran boemitarrak Inperio Katolikoaren aurka, beren lurraldearen askatasuna eskatzen. Siniskerak bultzatzen zituan artara abertzaletasunak baiño geiago.

Praga'ko "leiotik jaurtitze" aren ondorean, Boernrko protestalari ek Federik V Palatinerriko Printzipe kalbindarra egin zuten Boemi'ko Errege'

Inperioko Printzipe protestalari guztiak inperatorearen aurka irten ziran bereala. Ez danak; aietako bat, indartsunetakoa gaiñera, Saxoni'ko Printzipe Autalaria, II Jon Gorka lutertarra, palatindarrak kalbindarrak ziralako kalbindarrei zien gorrotoagatik Federik V'aren aurka irten bait zan gudara.

Felipe III'a (154538 1621) zan Españietako Erregea; eta Flandelurretako eta Frankokonterriko Jaun bait zan, bazituan an, gudalekuaren ondoan, gudarozte ugariak. Esan bearrik ez da, Inperatorearen alde sartu zirala burrukan gudarozte auk Federik V'aren Palatine-rrian. Inperatorea Fernando II'a zan, urte artan bertan (161453) il bait zan Matias' Fernando'ren alde sartu ziran Paul V eta batez ere Gregorio XV Aitasantuak ere,

Saxoni'ko Printzipeak Silesi, eta espāñitarrek Paiatinerria, artzen ziarduten bitartean, Inperatoreak osoro porrokatu zituan protestalarien indarrak "Weissen Berge" edo "Mendi Zuriko" erasoketa odoltsuan. "Sancta Maria" deika ekin omen zuten Fernando II'aren gudagizonek, Eta, bear bada, "Sancta Maria" deika eginen zuten, gurenda ondorean egin zuten erailketa gogorra ere.

Indarkeriaren bidez, saiatu zan Inperatorea "Cuius Regio" erara, arrapatu zituan lurraldeak katoliko egiten. Ez zitzaion Erroma'ko nuntzioaren laguntzarik faltatu, garai artako erak bait ziran aiek.

Dana dala, bizkortasun aundia artu zuan katolikotasunak Europa'ko errialde aietan.

Baiña ez zezaketen protestalariak katolikotasunaren sendotze ura ondo eraman; ezta Frantzi'k Espāñirrena ere, espāñiarrek beren in-

darrak Alemani'ren barruan, Palatinerrian, utzi bait zituzten; eta ori Belxika'n zeukaten gudarozterik eraman aal izan ez zutela, an olandarrek eraso bait zioten gudarozte arri'

Felipe IV'a (1621 - 1665) zan orain Españietako Errege. Richelieu, berriz, 1624'a ezkerko Frantzi'ko Jaurle. Richelieu'k eraginda jeiki ziran inperatorearen aurka Bee-Saxoni'ko jauntxo txiki batzuk, eta berealaxe alkartu zitzairen auei Kristian IV'a Dinamarka'ko Erregea. Ta orrela asi zan Ogeitamar Urteko Gudatearen bigarren aroa (1625 - 162453).

Ostera porrokatuak izan ziran protestalarien indarrak. Garaitzari bere zitu guztiak atera naiean, Nuntzioaren baimenarekin, Fernando II'ak "Edictum Restitutionis" edo "Itzulpenaren Legea" eman zuan. Lege onek, "Ausburg'eko Pakea" ezkerko arrapatutako lurralde guztiak itzultzeko agintzen zien protestalarietara. Puska zabala ziran lurralde aiek: Amalau "Diocesls" edo, batera Elizbarruti eta Laterri ziran, goztzairen lurrak; eta lekaidetxe-sail ugaria elizbarruti aietaz gaiñera.

Egia da lurralde aiek danak "Ausburg'eko Pake" artan erabaki zarenen; aurka artu zituztela protestalarietara; baiña orrenbeste urteren ondorean beranduegi zan orain gauzak eskuz aldatzen asi nai izateko.

-Cujus Regio" araua ere latzegi eraman nai izan zuan bere lurraldeetan Inperatoreak. Orduango agintarien akatsa zan orita, era berdiñean zebiltzan beren Laterrietan Printzipe protestalariak ere. Pakea luzarorako sendotzeko ez zan, ordea, ori, biderik egokiena.

Bazirudian berriro katolikotasuna Europa'n nagusi izatera zijoala. Eta ala izanean zan, gudu aren azkeneko aroan Frantzi protestalarien alde atera ez balitz'

Richelieu kardenalaren iritziz indar geiegi artzen ari ziran Ausburgetarrak' ots: Alemani'ko Fernando II'ak eta Españietako Felipe IV'ak. Etsai gogorregiak izan zitezkean Frantzi'rentzat biak, alkar arturik' Orretxegaitik lagundu zion Richelieu'k diruz oparo II Gustab Adolto Sueziko Erregeari au katolikoaren aurka gudan sartu zanean.

Gudatearen irugarren aro ontan, (1630 - 1635), Streziko Erregeak Alemani osoa artu zuan' Leendik itz-eman zion Richelieu Kardenalari, ez zuala artzen zituan lurralde katolikoetan katolikotasunaren aurka deus egingo. Baiña ez zuan bere itzik bete, eta saiatu zan bazter guztietan indar eta gogorkeriaren bitartez bere sinismena sartzan.

Bazirudian Inperioa desegitera edota eskuz aldatzera zijoala, Sueziko Errege erne ta iaioa, —balio aundiko gizona bera—, Inperatorearen buruntza jazteko asmotan bait zan; baiña Lutzen'go borrokan galdu zuan bizia; borroka irabazi ondorean!

Orduan asi zan Frantzi'ren aroa. (1635 - 1648).

Azkenean, Suezi'ko Erregea II-ondorean, garaille irten zan guduaren irugarren aroan II Fernando Inperatorea. Eta gurenda artaz baliaturik, Inperatorea, Alemani'ko Laterriko guztiak batuta an Laterri aundi, zabal, sendo, aberats eta indartsu bat osatzeko asmotan asiko zalaren bildurak eraginda sartu zan Richelieu Kardenala, pr4b-testalarien alboan, Fernando II'aren eta Felipe IV'aren aurka .borrokan.

Bizkor ibilli ba'ziran frantzitarrek gudaren laugarren aro ontan, ez ziran motel ostera, suzitarrek ere: Kristine nexkato Erregiñaren suzitar gudariak' Alernani'n Fernando II'a II ondorean Fernando III'ak jarraitu zuan borroka eta Frantzi'tik, Richelieu III ezker (1642), Mazarino Kardenalak. Gudate onek erakutsi zuan, garai artarako Españi'ren indarra auldua zala, eta bere erronka guztiak arrotasun utsa besterik ez zirala. Izan ere, Españi'ko gudarozteek, "Flande'ko Tertzio" aipatu aiek, ez zuten noski lengoen antzik. Porrokatuak izan ziran beintzat bazter guztietan: Auñamendian, Frankonterrian, eta Lurralde Beitietan. Ain zuzen, Lurralde Beitietan izan zituzten bi ondamenik audienak: Rocroi'ko borrokaldia, eta Dunkerke'ren alboko "Dunes" edo "Ondarreta"ko borrokaldia.

Ezer gutxi egin aal izan zuan guduaren azkeneko aro ontan Españietako IV Felipe'k; bere jaurerri berberetan ere aurka altxa bait ziztaizkion askatasun-billa portugaldarrak eta katalaunitarrak. Eta naiz auek menderatuak izan, garaille irten ziran Portugai'ekoak eta lortu zuten beren askatasuna 1640'ean. Jon IV'a izendatu zuten Errege.

Klemente Villa zan Aitasantu eta ez zuan Jon IV'a Errege bezela ezagutu nai izan, Felipe IV'arekin ez asarretzeagaitik. Bildur zan, noski, españiarrek, Napoles'tik gora, Erroma ez ote zioten kenduko. Aitasantua Errege izatearen ondorio txarrak.

Bi gizon argi, Europak izan dituan politikalaririk iaioenak, ziran, gudaren laugarren aro au asi zanetik, jokuaren ari guztien jabe: Frantzi'ko Richelieu Kardenala, eta Suezi'ko Oxenstierna, Kristiñe Erregiñaren aolkulari leiala, II Gustab Adolfo Kristirie'ren aitak erregetza artu zuanez gero, Suezi'ko Jaurerriaren politika-burua.

Westfan'ko Pakearekin amaitu zan Ogeitamar Urteko Gudua, eta ostelariak izan ziran garaille.

Gaur pake artako gauza asko legezkoak eta egokiak iruditzen zaizkigu: Lutertarrek eta Kalbindarrek (lenengo aldiz azkeneko auek)

Inperioaren barruan, katolikoek aña eskubide izatea. Ostelaritza edo protestantismoa katolikotasunaren parera, Inperioaren Iaterriko erlijioa bezela ezagutua izatea' Baiña orduan ez zan orrela pentsatzen, eta egin zuan oiu Inozentzio X Aitasantuak WesfaIrko erabakien aurka. Alperrik'

Izan ere Westfali'ko pake aren aurreneko ondorioa Aitasantuak Europa'ko politikan zuan almen guztia galtzea Izan zan; ta ori, katolikotasunaren galeratzat artu zuan jende guztiak' Ez da. beraz, arritzekoa Aitasantuak oiu-egin izana. Gaiñera Westfall'ko pakeak ez zion jendeari erlijio-askatasunik eman' Katoliko ta lutertarrak Inperioaren legearen aurrean pare izate orrek printzipeentzat bakarrik balio bait zuan!

Westfali'ko Pakearen bidez Alernani 343 (irureun da berrogeitairu) Laterrixtotan zatitua izan zan; Laterri oietako bakoitzak askatasun osoa zuan barne-arazoetan; eta Laterrietako Jauntxoek, edozein Erregek bezela eskubide osoak zituan erlijioari dagozkion gauzetan..! 333 Jauntxo Eliza gogoak ematen zien bezela eratzeko, aldatzeko eta gaiz-moldatzeko!.

Zein Laterri katoliko, ta zein ostelari izan bear zuan erabakitzeko, ez zan Ausburg'eko Pakearen urtea, 1555'a, aukeratu; Katolikoek kaltegarriago zetorkien beste urte bat aukeratu zan: 1642'a.

Urte ontan iru erlijioak sarturik zeuden Laterrietan, eta aietan, bakarrik, ez zuan "Cuius Regio" legeak baliorik izango; kalbintarrei, lutertarrei eta katolikuei laterri oietan ematen zitzaien beren erlijioa aitor aal izatea, eta bertako agintariei jendeari erlijioz aldaaraztea edo aldatu nai ez zutenak erbesteratzea debekatzen zitzaien. Beste Laterrietan jende guztiak Printzipearen naikeriaren mendera gelditzen ziran

Guretzako, Ogeitamar Urteko Gudatean egiazko galtzaillea, erlijiotasuna bera izan zan; ez Eliz au edo bestea.

Erlijioaren izenean ainbeste ta ain ikaragarritzko pistikeriak egi ten ikusteak, erlijio guziak berdiñak ez ote ziralakoaren zalantza sartu zuan gizonen buruetan aurrena. eta gero erlijioak gizarteko bizitzaren gidari izateko balio ez zuala sinistra eraman zituan adimen pentsalari asko. Pentsalari auek beste zerbaiten billa asiko dira, elizen erlijioez landa, gizateko bizitza paketsu baten oiñarritarako. Orrela sortuko da amazañ pigarren mendearen bigarren erdian bertan, "Argikunde", "Illuminisme", "Ilustración" esaten zaion filosofizko igikunde.

Diru ta ondasunen arloan ere asko gaidu zuten katolikoek, Fernando Irak emandako "Itzulpenaren Legea" indarge bihurturik, Laterri bakoitzari, 1624'a-aurretik bere-egindako Elizaren ondasun guztien jabe izaten utzi bait zitzaion.

Beti gertatuko zaio Elizari galera ori bere zaingoa izkilluetan eta izkillularien eskuetan ipintzen ba'du. Baiña, tamalez, jende askok Elizaren altzoan ez du ori oraindik ikusi.

Guduaren aurreneko iru aroetan Tilly eta Wallenstein izan ziran katolikoek buruzagiak, eta bien gudariek egin zituzten ondamen eta kalte izugarriak. Gaurko edestilari askok oraindik Tilly'ren aipamena egitean "katolikotasunaren zaintzalle ospetsua" deitu oi diote' Tilly, Gustavo II Adolfo'ren aurkako erasoketan artu zuan zauri batek zuan.

Ez dute orren aipagarri agertzen Wallenstein; ala-olako gizona izanik, azkenean, inperatorearen gudarozteko buruzagiek berak íl bait zuten

Laugarren aroan guda-egillerik iaioenak frantzitarak izan ziran: Konde'ko Printzipe "Aundia" eta Turena'ko Bizkontea.

Ala ere, badaiteke Wallenstein eta Tilly bizirik izan balira, SuezI'k eta Frantzi'k gudua ain errez irabazi ez izatea, eta Westfairko pakean Eliza katolikoa ta Aitasantuaren almena obeto irten izatea. Baifia ez dirudi, izkilluetatiko garaipena kristau-garaipen garbia izan daitekeanik'

Ez zuan, jakiña, ori pentsatzen orduango Aitasantuak; zazpi itz darabilzki Inozentzio X'ak "WestfaIrko Pakean artutako erabakien aurka: "Mundu guztiaren aurrean dagit aitor: Betibetirako izango dirala erabaki oiek "utsak", "balio-ezak", "indargeak", "okerrak", "zentsugabeak", "gaiztoak", "gaitzetsiak".

Itz geiegi, Inozentzio X'ak, berak, iñork aintzat artuko ez ziola bazekian bulda baterako; "Zelus Domus Tuae", "Zure Etxearen Zaletasuna" deritzaio buldari, Ta ori ondo zekialako bi urtez eduki zuan gorderik, 1648'an idatzitako bulda ura. 1650'a arte ez bait zuan argitaratu,

Iru mende geroago Pio XII'a etorriko zaigu osterá, WestfaIrko Pakearen urtebetetzean, izkera legunxagoarekin ba'da ere, Pake artako erabakiak gaitzestera' Baiña Pio Xirak ere, Elizaren eskiertasuna politikolari ta izkillu-gizonen babespean geiegi ipintzen zuala uste dute-nak asko dira munduan; eta, batez ere, Euzkadi'n!

RICHELIEU

Ikusi dugun bezela Eliza Katolikoarentzat kaltegarria izan zan Ogeitamar Urteko Gudua, eta "Elizak" gudua galdu izanaren erantzukizuna Armand du Plessis Richelieu Kardenalarena da.

Enrike IV naparra alztos illa izan zanean aren seme Luis XIII'ak (1610 - 1643) artu zuan buruntza; bederatzi urte besterik ez zituaneanl Ama Erregiña, Mari Medizitarra, erregeordezkotzat gelditu zan Late- rriaren Buru. Luis XIII'ak 1624'ean Richelieu agintaritzara deitu zua- nean, Ogeitamar Urteko Gudua sei urte ba zeramazkian, Ikusi dugu Tilly eta Wallenstein buruzagiek osoro porrokatu zituztela protestala- rien indar guztiak, eta Europa'ren jabe zala Inperatorea.

Osoro katolikoek mendean zeuden lutertarrak eta kalbindarrak.

Ondo dakigu garai artan fedea ezartzeko zein lasaiki erabili oi zan indarkeria' Izan ere. "Cujus Regio" arauak lege bihurturik bai zeu- kan indarkeri ori, 1555'eko Augsburg'eko Erabakia ezkeru. Berealaxe agertu zan gaiñera jokabide ori politika-dotriñ biurtua, 1584'53'an Tomas Lieber "Eraste" suizitar sendagilleak (1524 - 1583) idatzirik laga zuan "ExplIcatio Gravissima", "Garrantzi audienetako Erakusketa" izene- ko liburuan.

Egia da Olanda, Eskozl, ta Jinebra'ko kalbindarrek eta Dinamar- ka, Suezi edo Alemani'ko Iutertarrek, pozik artu zutela liburu au, politi- ka ta ekonomia ez-ezé. erlijioa ere Laterriko Agintariaren eskuetan egon bear zuala esaten zualako. Baiña egia da, baita, Espafil'n ere, eta Austri'n, Frantzi'n edo Alemani'n bertan, Agintari katolikoek, naiz itzez aitortu ez, egitez Eraste'ren modura gobernatzen zituztela beren errialdeak.

Iñakitarrak berak, arnaseigarren mendean ain paketsu izan ziran josulagunak, orain gogorkerira okertu ziran asko, Ungarrko Pazmany Kardenal iñakitarraren neurrigabekeri samiñak lekuko dirala. Mundu guztia gogortu bait zuan Ogeitarnar Urteko Gudate basati arek.

Ori oroitzen ba'dugu, errez aditu dezakegu, guduaren aurreneko aroetan katolikoek gudarozteak bazter guztietan garaille ikustean, arrazoi faltarik ez zutela protestalaritza galdurik zegoala uste zuten katolikoek'

Inglannderria, bere erlijio-aldakuntzak zirala-ta, oraindik osotasu-nera iritxi gabe bait zegoan, Suezi'k bakarrik zerbait egin zezakean protestalaritza salbatzeko, baiña ez zuan sekulan ezertxorik egingo, Richelieu'k laguntzarik eskeñi ez balio, ez zan ba ortarako bera baka-rrik gauza.

Eta Suezrko gudaroztea azkenean menderatua izan zanean, eta ostera katolikoek garaille ziranean, Frantzi bera bota zuan kardenalak gudara, bere indar guztiarekin Suezi'ren alde ta Augsburgetarren aurka. "Erejeen Kardenala" deitu zioten orduan Frantzi'n bertan zituan etsai ugariak.

Ez zuan erejiaren kutsurik Richelieu'k. Luçon'-go gotzala zan; Aitasantu on batek, Gregorio XV'ak, egin zuan kardenal. Ordurako protestalaritzaren aurka idatzia zuan teologizko liburu bat: "Principaux points de la foi de l'Eglise Catholique", Eliza Katolikuaren sinis-meneko atalik garaiena",

Maite zuan Eliza baiña ez zan kalbindarrak indarrez katoliko egi tearen zale; askatasunaren laguna zan, eta badu ontan meriturik nai-ko, ez bait ziran orduan asko, gogabide ortako gizonak. Klemente VIII maitagarriak berak bere adiskide zuan Enrike IV naparrak Nantes'ko, Pakean, kalbindarrei kontzientziko askatasuna eman ziela jakin zua-nean, "Josi nau gurutzean ori egitearekin, munduko gauzarik okerre-na bait da kontzientziaren askatasuna" oles-egin zuan. Orixe ber-bera bera zioten aspalditik kalbindarrek ere, batez ere Teodoro Bezak'k.... eta Jon Kalbin'ek berak!

Ala ere, naiz pake-zale izan, bazekian Richelieu'k, bearrezkoa za-la uste zuanean indarra erabiltzea Berak desegin zuan betirako Ugo-notetza. Politikako alderdi, gudarozte, ta "errepublika" bezela eratu-rik, ia-ia Laterri baten antzekoa bait zan Frantzi'ren altzoan ugonote-tza denbora artan.

Katolikoek eskuetan bizia galduko zutelakoaren bildur ziran ugo-notak Enrike IV naparraren mendera makurtu ziranean. Orregaitik la-ga zituan onek, Nantes'ko Pakeakoan, ugonoteen eskuetan gaztelu ta uri sail batzuk beren gudarozte ta guzti. Uri oiek oiñarri, ta Roxela Uri Buru zituztela, Errepublika baten itxurako zerbait eratu zuten ugonoteek, kalbindarrak ziran lurraldeekin amasei probintzi agiñaz: "L'Etat dans l'Etat", orduan esan zan bezela; "Laterriaren baitan Laterri bat".

Indargabeko agintaria agertu zan Mari Medizitarra, bere senarra erailla izan ondoren errege-ordetza artu zuanean, eta oraindik eskubide ugarigoak eman zizkien ugonoteei.

Ta auek, arroturik, ez zuten Nantes'ko Aginduak eskatzen ziona ere betetzen.

Enrike naparraren semeak —XIII Koldobika'k— Españi'ko Felipe III'aren alaba, Ane, emaztetzat artu zuanean, asarretu ziran ugonotak, eta, zazpi urte iraun zuan egiazko erlijio guda bat sortuarazi zuten. Koldobika XIII Erregeak berak ibilli bear izan zuan borroka artan ugonoteen aurka. Eta Enrike IV naparrak Frantzi'ko buruntza artu zuanetik asko ugaritu ta indartu bait ziran katolikoak, gogorkeritik gogorkerira zijoazen auek ere. Arriskuan zegoan Frantzi'ko pakea Richelieu'k jaurlearitza artu zuanean.

Egin zuten ostera ugonoteek beste altxaketa bat. Ugonoteen eredu, Lurralde Beekoetako "Probintzi Alkartuak" ziran. Kalbindarrek lurralde aietan bezela, berak ere Frantzi'n "Probintzi Alkartu" batzuekiko errepublika kalbindar bat edo zerbait olako sortu nai zuten.

Frantzi'ko Kalbindar auen alde jarri zan —joi politikaren arrazoiak! Españi'ko Errege Katolikoa, baiña aurka irten zitzaizkien Olanda'ko kalbindarrak eta Inghlanderriko ostelariak, Ogeitamar Urteko Gudarako Richelleu'ren laguntasuna nai zutelako. iPolitikaren arrazoiak!!! Errex menderatu zituan Richelieu'k, Olanda'ko ta Inghlanderriko guda-itxasontzien laguntzarekin gaiñera!, .Frantzi'ko ugonote aiek (1626).

Ala ere badu bere koxka 1625'eko ugonoteen jelkitze onek, Españi beren alde ta Inghlanderria ta Lurralde Beekoetako Probintzi Alkartuak beren aurka irtetzeak erlijiozkoa bezela asi zan Ogeitamar Urteko Gudua politikazko norgeienka biurtu zala adieratzen bait digu. Richelieu'k leunki tratatu zituan garaituak, baiña ugonoteek Laterriaren barruan eraikirik zeukaten beste "Laterri" ura desegiteko asmo sendoa artu zuan, ikusten bait zuan ez zala bestela pakerik. Ortarako Roxela'ri ekin zion; eta naiz oraingoan Inghlanderriko Karlos I'a ugonoteen alde atera, 1628'an Richelieu'k uri ura artu zuanean, betirako illik utzi zuan Frantzi'ko protestalaritza'

Frantzi'ko erlijio-guduen azkeneko borrokaldi onen zuzendarietako bat, praille kaputxinoa izan zan: Aita Josepe Tremblay'koa, "Parls'ko Aita Josepe" ere deitu oi zaiona'

Ez da gutxi idatzi praille oni buruz, Richelieu'ren politikan aren eraginpena noraiño iristen zan jakin naiean. Kardenal Jaurlearen

adiskide ta lagun kutun agertzen da beti. Bazekian Kardenalak praille au adimen zorrotzeko ta biotz garbiko gizona zala, ta atseginki artu oi zituan aren aolkuak; Ekintza zaratatsurik izan ez zualako eta apaltasunaren maitalea zalako "i'eminence gris" deitu zioten Kaputxindar ont: "Jaun altsu illauna". Ala ere ez zuan almen geiegirik Kardenalaren naimenean izan, eta egiak zerizkionean bakarrik erabiltzen zituan Kardenalak Aita Josepe'ren aolkuak.

Inperatorearen aldekoa zan praillea Ogeitamar Urteko Gudatean; ala ere, aren aolku guztiei maiteki entzugar egiñaz, Inperatorearen aurka sartu zan Kardenala gudan. Roxela artu ondorean, Richelieu'k emandako "Nimes'ko Erabakia", —"I'Edit de Nimes"— ere ¿Aita Josepe'ren oso gustokoa ote zan?. Asarretu zituan beintzat "Erabaki;" arrek "Deboziazko Alderdi" edo "Alderdi Eraspenkoia"-ko katoliko amorekaitzak, auetatik askok ugonotetzaren amaia ez-ezik ugonoteen ber-bereren amaia nai bait zuten.

Kardenalak, berriz, ugonotetza deusestu zuan' Ez da osterantzean ugonotetza Laterri bat izango; ez da gudarozte bat izango, ez da politika-alderdi bat ere izango, eta luzarora ez da ia-ia Eliz bat ere izango, poliki poliki akitzen joango bait dira Frantzi'ko ugonotak.

Ori zan, gure ustez, Kardenalak nai zuana, eta ori egitean, gure ustez au ere, Enrike IV naparraren asmoa osokundera eraman baizik ez zuan egiten, Orregaitik, Nimes'ko Erabakian, naparrak Nantes'koan ugonotei erlijio-arloan eman zizkien iaretasun eta esku-bide guztiak, birreman zizkien Kardenalak ere. Legearentzat berdinberdiñak izanen ziran katolikoak eta ugonotak.

Eraitza ederrak ekarri zituan paketasunezko jokabide onek. Ugari itzuli ziran Frantzi'n kalbindarrak katolikotasunera. Ona adigarri bezela gertakizuntxo auk: errixka batean, Leirak'en, irureundik irurogei ra jetxi ziran kalbindarrak. Ta, amar urteko epean, Kardenala agintari zala, ugonoteen lurralde guztietan orixe bera gertatu zala adierazten digu Eliz-Kalbindarreko "artzai" edo apaizekin gertatu zanak' 1627'tik 1637'ra, "artzai" kalbindarrak enneko amabostean, % 15, gutxitu bait ziran.

Baiña Frantzi betirako Katoliko laga zuan kardenala ¿nola sartu izan zitekean Sueziko ta Alemani'ko protestalarien alde, guduari iraulketa osoa emanda garaituak garaile biurtu izateraiño?

Eta oraindik arrigarriagoa dana, ¿nola ipiñi zan gudaketa artan Urbano Vill Aitasantua Frantzi'ren alde Inperatorearen alde baiño geiago?

Ipiñi bezela ez zan iñoren alde ipiñi Urbano VIII'a, ez zeukan agi-
rian iñoren alde ipintzerik ere-ta, Inperatorearen eta Españi'ko Erre-
gearen alde ez ba'zan; baiñan antxe, bere Laterriaren mugetan zeuz-
kan españiarrak Napoles'en eta Milan'en; eta Trento'n bertan, berriz
Inperatorearen indarrak. Lepotik artuta bezela zeuzkaten Absburgeta-
rrek Eliz-Laterriak. Ez zitzaion beraz Urbano Aitasantuari bi auzotar
aiek indar geiegirik artzea konbeni.

Ez ziran, noski, jende klase auek auzo onak Urbano Vill'arentzat,
bere Laterrien askatasuna españiarren mendera eroriko zalakoaren
bildur bizi bait zan' Orregaitik ez zuan Inperatorea ta Españi'ko Erre-
gea indar geiegirekin gudate artatik irtetzerik nal. Europa'n, Frantzi,
Españi eta Inperioa indar berdiñekoak izatea nai zuan. Baiña ortarako
Frantzi'ren aldera argiro ateratzerik ere ez zeukan, katigu artuko bait
zuten Itali'n zeuden Españi'ko gudarozteek.

Orrela ibilli zan ondorengo Aitasantua, Inozentzio X'a ere: zer
egin ez zekiala. Altagutziz ezin eragotzi izan zuan Españi Elizaren La-
terrietan lotsarik gabe sartu izatea; iñoreri baimenik eskatu gabe iga-
ro bait zan Milan-aldera Napoles'tik, Elizaren Laterri guztiak-zear, Es-
pañi'ko gudarozte osoa'

Erroma'ko Errege izan ez balitz, ez ote zan zalantzarik gabe Urba-
no VIII'a, —eta gero Inozentzio X'a—, Felipe IV eta Fernando II katoli-
koen alde aterako? Ez bait zuan ba orduan politikazko askatasunik
galtzeko bildurrik izango.

Saiatu zan Frantzi'ko Koldobika XIII'ari protestalariekin ez batze-
ko eskariak egiten, baiña ez zan Ausburgetarren alde jarri; askoz
txiago gaitzetsi zuan Richelieu'ren jokaera.

Politika-modu onekin Richelieu'ri katolikoen aurka gudan sartze-
ko bidea zabaldu ta erreztu egin zion, ez bait zuan iñolaz Kardenalak
Frantzi katolikoa gudate artan sarrarazterik izango Aitasantua aurka
jarri ba'zitzaion.

Argi ikusi zuten ori Richelieu'ren frantzitar etsai ugariak, alderdi
eraspenkoiakoek" adibidez.

Joan ziran Kardenalaren etsai frantziar auek Erroma'ra "Erejeen
Kardena" Aitasantuak gaitzetsia izatearen billa, baiña Urbano
VIII'ak Ogeitamar Urteko Gudate ura ez zala erlijio-guda, erantzun
zien; politikazkoa zala. Orixe bera esaten zuan Kardenalak: garai ar-
tan ez zala gudate ura erlijiozko auzia.

Aita Josepe'k ere ikusi aal izan zuan, azkenean gaur edestilari
guztientzat argi dagoan egi ori, eta batere kezkarik gabe asi zan, ordu-

rarte Koldobika XIII'a gurutze-gudara eraman nai zuan Aita Josepe Kaputxindarra, Sultana'rekin diplornazizko ariak iruten, turkitarrak Inperioaren aurka gudara erakartzeko. Ontaraiño naasi zan kristaudi osoa. Ta, Eliza politikaren eta izkilluen eskuetan ipiñi zutenak ziran errudun, orain guda galtzarekin, Eliza ere galtzaille irtetzen bait zart!

Westfai i'ko Pakearen ostean lau Jaurerri gelditu ziran tinko katoli kotasunean; tinkoegi bear ba'da, Laterri auetan bizkortu egin bait zan gogorkeria. Jaurerri auetan garaiena, luzaroan Europa guztiaren gidari izanen dana: Frantzi. Españi gero, naiz auldua ta makaldua, aberatsa oraindik Ameriketatik zetorkion zillarrari eskerrak' Austri ondoren bere Inperatoreari loturik zeuden inguruko Laterriekin. (Emendik aurrera Austri ta beste Laterri auek izango dira Inperioa, Alemani, ia osoro, betirako bereizi bait zan Inperatorearengandik naiz oraindik, izenez, Inperioaren zati jarraitu). Poloni azkenean; zan baiño askoz indartsuagoa izan zitekeana, bere barruan ar bat izan ez baTu. Lurrez Baltiko'tik ia Itxas Beltzeraiño zan Poloni; bereak zituan Letoni, Lituani, Ruteni, Ukrani, eta Biolorrusi edo Errusi Zuria; baiña ar batek jaten zion bere indarra; politikazko ar batek: Erregeak aiñako eskubidea bait zuten Jaurerriko ogei bat "Magnat" zeritzaien Jaun "aunditsuek", eta —auxe bai erri batek egin duan zorakeririk aundiena!—, 1652'an Poloni'ko Batzar Nagusiak, edozein lege sortu, edozein agindu eman, edo Jaurerri guziari zegokion edozer gauza egiteko, Erregeak Batzar Nagusiko batzarkide guztien baiezkoa bear zuala erabaki zuan! Eta ez Erregeak bakarrik, baita Batzar Nagusiak berak ere. Orrela lotu zizkioten eskuak, ezertarako, Poloni gaixoari Batzarkide aiek. Beretako batek bakarrik ezetz esatea naikoa bait zan Batzarren agindu bat indarrak gabe gelditzeko, naiz beste Batzarkide guztiek baietz esan. "De Liberum Veto" esaten zitzaion, "Yareen Ukoa", zoritxarreko erabaki arri

Segimund III Vasa'k, iñakitarren ikasle izandako Errege katoliko sendoak, bere Jaurerrian bertan almen geiago izan batu ez zuan noski Richelieu'k Absburgetarrak zapaltzeko suezitar protestalariekin alkar-terik egin izango; polonitar katolikoekin eginen zuan.

Westfali'ko Pake-ondorean Protestalarien indarra SuezI'n, Dinamarca'n, "Probintzi Alkartuetan" eta Inghlanderrian zegoan.

Laterri auetan denetan gogortu ziran erlijio batekoek bestekoe-kin zituzten artu-emanak. Erregea zan erlijioaren jabe, eta zori txarre-koa Erregearen erlijioaren aurka burua altxatzera ausartzen zana.

Zati-zati eginda gelditu zan Alemani'n ere gogor jokatu zuten, —baita beren artean ere—, Printzipe protestalari-ek, bakoitzak bere si-

nispidekoak ez ziranei sinispidez aldatuarazten.

Ala, Anjalt-Zerbst zerizan Laterritxo aietako batean lutertarra zan Jauna' Laister uxatu zituan andik, lutertasunera igaro nai ez zuten kai bidar gauztiak'

Hesse'n ordea Landgrave edo Lur-Jabeak, Kalbindarra zalako, lutertarrak bidali zituan aidean bere ikastola Nagusitik.

Orrelako gauzak maiz gerta oi ziran orduan Saxoni'n, Munster'en eta beste Laterritxoetan, protestalarien ber-beren artean. Ta ori bera egiten zuten agintari katolikoek beren Laterrietan, protestalariekin.

Probintzi Alkartuetan eskubide guztiek kendu zitzaizkien katolikoei. Probintzi Alkartuetako Errepublikak bere buruari "iaretasunaren lurra" "tolerantziaren lurra" deitzen zionean, tolerantzi orren azpian protestalarimota guztiek, baita anabaptistek ere iaretasun osoa arkitu zutela esan nai zuan; baiñan ez katolikoek. Auek izkutuan eta ixillean meza-ematen zuten. Ganbaretan, lastotartean-eta, Eukaristia gordetzen zuten. Laister sortu zan "Lastategiko Jaun Maiteari" ikus-talditxo bat egitera ixillean joateko oitura.

Austri'n etsairik gabe garaille zan katolikotasuna; baiña bazan Austri'rekin alkarturik zeuden lurraldeetan oiñaze ta samintasunik naiko protestalarientzat. Boemi'n Fernando inperatoreak beren lurrak kendu zizkien, katolikoei emateko; ogeita zazpi lepo moztu zituan Praga'n —eraildakoen artean bazan larogeitasei urteko agure giza-gaixoa bat ere—, eta ugelez eta makillez, zigortu zituan beste asko' Espetxera ez erortzeagaitik, era mingarrian iges-egin bear izan zuten beren tresna-ondarrak arrastaka, 30.000 protestalariak. Gaiñera 1630'ean, katoliko izan gabe Boemi'n sartzen zan oro eriotzaz zigortzeko agindua eman zuan Inperatore onek'

Dinamarka'n katolikotasuna debekatua izan zan; katoliko egiten zanari ondasun guztiak kentzen zitzaizkion, eta erbestera bidali.

Eriotza zuan zigor Dinamarkan sartzera ausartzen zan apaiz katoliko orok.

Ori bera gertatzen zan Españi'n Erregearen Inkisizioaren bitartez. Orixe bera Suezin ere, Gustab Adolfo II'aren Suezin. Bat bakarra zan bi Laterrien artean ezberdintasuna: An, Españi'n, protestalariak zirala zigortutakoak, eta emen, Suezin, katolikoak.

Baiña Jaurerri ontan gertatu zitzaigun iñork orduan itxaro ez zezakean miraria'

II Gustab Adolfo'k alaba bat besterik ez zuan: Kristiñe. Neska argi eta jakintsua bait zan au, Suezin'ko erregintza bere eskuetan artu

zuanean, gizon jakintsuez inguratu zuan bere burua; auen artean Grozio olandar kalbindarra eta Descartes katoliko frantzitarra izan zituan estimatuenak; Descartes filosofilaria batez ere. Onekin izandako al-karrizketek eraginda, katoliko egin zan Erregiña. Baiña Sueziko osoro lutertarra zalako, erregetza laga bearrean arkitu zan (1654), eta aize utsetan lurrindu zan Sueziko gure "miraria".

Aundikiro artu zuan AItasantuak Erroma'n Kristiñe. Emakume argia baiñan izugarri politikan-sartzearen-zalea izan zan au beti, ala-okakoa bere bizieran.

Kristifie'ren lekuan, bere lengusu batek, Karlos X'ak, jantzi zuan buruntza' Zearo lutertarra bait zan au, oster indar eman zitzaien Sueziko'n katolikotasunaren aurkako lege guztiei.

Inglannderrian, Itali'ko Laterri katolikoetan, —zer esanik ez Jinebra'n eta Eskozi'n—, Europa guztian, lege,ziran eriotza ta zigorra. Oiu bat edo beste bakarrik entzuten zan bi alderdietan, alkarrenganako begirapenaren alde' Erantzunik gabe gelditzen ziran oiu aiek. Ez da beraz arritzeko gauza, jendea, erlijioaganako zaletasuna eta konfiantza galdu-ta, Europa'ren alkarrea ta gizarteko pakea lortzeko erlijioaz landa beste gogapen batzuen billa asi izatea.

Elizaren sabelean bertan zenbaitek —agian bere salbapena politikan eta gudaketan eta indarkerian ipintze orrek— izoztu, agortu, ta antzutu zuan Trento aurretik sortu ta Trento'n bizkortu zan santutasunezko udaberri alaigarri ura' Denbora luzerako amaiturik gelditu zan santuen aroa.. Argikuntza-aroa, santurik gabeko edo beintzat, ia santurik gabeko aroa izango da, batez ere Birjaiotzako giroarekin kidatzen ba'dugu.

KRISTAU BIZIKERAREN ITXARKUNDEA

Bai omen zan, —mitolojizko izadian—, il ondorean bere auts eta errautsetatik berbizten zan egazti bat. "Fenix" egazti aren antzekoa duzu gure Antzekoa bakarrik; ez, "berdiña". Elizak ez bait du eriotzik. Satsez betetako urreak urre diraun bezela, santu bait dirau Elizak ere beti, naiz pekatuz jantzirik agertu.

Santu da beti Eliza. Santu, beragan Gogo Deuna bizi ta ari dala-ko; Santu, Kristo'k eman zizkion Egi, Lege, Sakramentu, ta auengandiko Grazi Donetzallea, —Gogo Deunaren zainketari eskerrak—, bere baitan beti garbi ta bizkor gordeko ditualako; Santu, —Gogo Deun ber-berorren eragiñak sortuta—, Santuak bere altzoan beti izango ditualako.

Ain zuzen, "santutasun-aro" bat Elizaren edestian izan bada, uraxe izan zan aro ori: amazazpigarren erdirarte irixten dan birjaiotzako aro luzea. Ez da iñoiz pekatuzko mundu zoro, gogor, odoltsu, zikin artan aiña santurik eta orduan aiña santu aundirik izan.

Iruzur-egin lezaiguke Elizaren edestia aztertzeak, edesti ortan Elizaren politikerari bakarrik so egiten ba'diogu. Elizaren edestia ez dute politikalariek idazten, ta askoz gutxiago gudariek, naiz politikalaria edo gudari oiek Aitasantuak izan. Elizaren edestia Santuek idazten dute.

Gorotz eta odol gabeko erditzerik ez dala, esan oi zuan Bernardo Doneak.

Sortu zigun umaldi eder, ugari, galantik Eliz odoltsu pekatuz betetako arek. Millaka ta millaka ta millaka izan ziran, santutasunaren ernemiña biotzean sentittuta, mundua santutzen saiatu ziran Elizaren seme-alaba bikain aiek: mundu guztia santutzen: kristaudi zarra ta mixio-lur urrutietako erridi ezagutu-berriak'

Gizadiaren antza ta edergaillu diran Elizaren ume aietatik asko, gaur aldareetan gurtzen ditugu. Baiña beste asko, asko ta asko, gelditu dira ospe ori jaso gabe, naiz aldareetara igotzeko gai izan.

Bazter guztietan ikusi dezazkegu lanean: lekaidetxe-bazterretan, diplomazian, ludiaren ertzeko jentillen artean, gotzaien mailla garaiean, nekazarien txoko baztartuetan, ikastola nagusietan. gaixote-gietan, Kepa Donearen Aulki gurenean..'

Zirrara bixigarria eragin zioten Elizaren gorputz guztiari.

Ta Birjaiotzaren altzotik zetorren ernekunde arri izugarritzko bizkortasuna eman zion Trento'ko Kontzilioak. Elizaren gorpuzki guztietan nabari da donetasunaren ernekundea: Lekaide-lekaimeen Analdi zarretan, Anaidi berrietan, kristauen ekintza-bide guztietan. Oroi ditzegun, adibidez, Abila'ko Terese eta Gurutzeko Jon Deunaren karmeldar eraberriak.

Asteko, ordea. asi gaitzen Anaidietan zaarrenari so-egiñaz: Beneditarren lagundi ospetsuari. Bai lekaide beltzetan, bai zurietan, piztu zan, Trento-ondoreko urteetan, santutasunaren galda. Izan zuten Aitasantuen laguntza osoa. Gregorio XIII'a, Klemente VII'a, Paul V'a ta Urbano VIII'ren baimen eta laguntzarekin sortu ziran zuri ta beltzen artean, Europa guztia-zear, aldi artan ospe aundia izan zuten Lekaidetxeen Alkarte edo Kongregazioak. Benito Donearen Araua santuki bizitzeko bakarrik sortu ziran alkarte aiek danak'

Lekaide beltzen artean, au da, beneditarren artean, Alkarte ale-tan alpatuena Mauro Donearena izan zan. ia Frantzi'ko lekaidetxe beltz geienak bere altzoan bildu zituana. Lan aundia ta ederra egin zuten lekaide maurotar auek eliz-edestia aztertzen eta Elizaren Asaba Doneen idazkiak argitaratzen. Berak gai ontan egindako lanketa izan zan, gero, Migne liburu-argitarazailleak osatu zuan "Patrologia" edo "Asaben Idazkien Bilduma"ren oiñarria.

Alkarteen bidetik jo zuten zistertarrek ere. Portugal'eko errialde maitagarriaren erdi-erdian dago Alkobasa'ko lekaidetxe eder galanta. Otza dakarkio biotzari, edergaillu-aztarnarik gabeko arriorma luze, lerdan, garaitsu aien lkuste utsak. Oro da egokia, oro zorakeri gabeko edertasuna' Ala ere zistertarren lekaidetxe artako sukaldearen aunditasun arrigarriak oroitu dezaiguke lekaide zuriek Bernardo Donearen laztasuna aztuxea euki zutela erdi-aroaren azken aldean.

Amaseigarren mendearen asieran, (1515), Itali'n, zistertarren artean sortutako berbizkunde-txinpartak, Alkobasa'ko lekaidetxean ar-tu zuan indarra (1567), eta emendik igaro zan Poloni'ra (1580), Alemani'ra (154535) Naparroa'ko eta Aragoi'ko Jaurerrietara (1616), eta Elizaren Laterrietara (1623).

Frantzi'ko lekaidetxe zistertarretan aurkitu zituan eragozpenik

aundienak eraberritze onek. Baiña Koldobika Xill'a, Enrike Napararren semea, aldaketaren alde jarri zan; eskatu zion laguntza Gregorio XV'ari; ta, naiz lasaikerizaleek asarre biziak sortu, azkenean Frantzi'ko lekaidetxe zuri guztiak artu bear izan zuten aldakuntza. Richelieu bera ere aldaketa donezalle guztien laguna izan bait zan!

Praille Mesede-egilleak, Afrika'ra kristau katiguen askatasuna erostera joaten ziran praille aiek ere, aitxatu ziran indar berriarekin. Amaseigarren mendean Agustin Donearen "Eremita" edo "Eremuzaleen" Anaiditik bizitza gogorrago baten billa "Recoletti" edo "Izkutuko" Agustindarrak sortu ziran bezela, erne ziran orain Mesede-egilleen artean "Oriutsiko Mesede-egilleak" (1604), Baita kanoniku Laterandarren artean ere, bizitza latzagoko Alkarte edo Kongregazio berriak (1623).

* * *

Ez dira noski emakumezkoak santutasun bideetan gizonezkoen atzetik Miragarria izan Kristaudi guziko Lekaimetxeetan sortu zan lore di mardula, abateme sutsuen ereintzaren zitua. Emakume gazteak geienetan abateme auek, askotan emakume izaten doi-doi asi ziran neskatoak; sendi aundiketako alabak oso maiz; beti neskatil argiak, giza-jakintzetan ondo eziak, gizalaba eder, lirain, biotz zabal eta izakera alaiekoak. Non-nai idoro daitezke garai artan. Ez zuten Elizaren santutasuna beste ametsik izan.

Ta emakume arrigarri aietaz ari galararik, mola aantzi Terese Abila'koa (1515 - 1582)?. Au bai zala neskatil alaia, neskatil atsegiña. Ta atsegiña bezain pollita eta ederra omen zan 18 urte zituala karmei darren artera sartu zanean. Baiña ez zegoan gustora lekaimetxe artan bizimodu latzago bat gura zuan. Ta bi Santuen aolkuei entzun-on egiñaz, lekaimetxe berri bat eratzea erabaki zuan. Bi Santu aiek Koldobika Beltran eta Alkantara ko Kepa izan zituan.

Ez ziran gauzak Terese gaixoak uste zuan bezain erexak. Muturtu zitzaizkion bere lekaimetxe zarreko aizpak, eta sartu zioten ziririk eta arantzik naiko. Eraso zioten —aizpatxo aiek eraginda noski-Abila'ko agintariek ber-berak ere. Orrelako jasaren burrunbak ikaratu zuan Karmeldarren Probintziko Aita Nagusia eta kendu zion onek Terese ri, emana zion baimena.

Terese, bakarrik gelditu zan ekaitz aren erdian, lasai, paketsu, ikaratu gabe' Ez zan, ordea, etsita gelditu. Jo zuan laguntza-billa, ta gora jo zuan, garai artako teologilaririk ospetsuenetako batengana,

odolez euskotarra zan Domingo Bañez domingotarrarengana. Laister ta errez lortu zion onek Pio IV Aitasantuaren onespena. Ta orrela, Aitasantu beraren baimenarekin, iriki aal izan zuan Terese'k bere ametsetako konbentutxoa: "Josepe Donearen Lekaimetxea", Abila'ko urian bertan, (1565).

Etxekoxkor txiro ura izan zan, karmeldar guztien berbizkunderen lenengo kabia.

Maiz ibilli bear izan zituan emakume xalo arek Gaztela legorreko bide latz autsatiak, lekaimetxe berriak irikitzeke; jasan bear izan zigan gorroto ta tximistarik ugari, baiña beti izan zuan Aitasantuaren launtza ta, poliki-poliki, irabazi zituan inguruko jendeen biotzak.

Bere anaien artean, ala ere, ez zuten danak ulertu aal izan Terese'k zekarkien mezua; bera il ondorean ere samintasunik naiko eman bait zioten bere "seme" Gurutzeko Donibane bikaiñari.

Ala ere, Karmel Mendiaren erraietaraiño aldamiña sartuta joan zitzaigun Terese mundutik; eta, ondorengo gizaldien maitasuna betirako irabazita!

Mistikaren barrutietan goitasunik garaieneko aingerua izan zan Josu'ren Terese Donea.

Emezortzi urte luzetan otoitzean sartu nai ta sartu eziñik animeko legorraldi aundiak igaro ondorean, otoizkuntzaren gaillurrik garaietaraiño jaso zuan Jaungoikoak. jA nolako liburuak utzi zizkigun, eta zeifien ederki idatziak gaiñera, emakume miragarri berdingabe arek, berak ain ederki ezagutzen zituan mistikaren bide izkutu eta gaillur argitsuetaz!

Entzun dituzu noski liburu auen izenak: "Camino de perfección", ("Donetasun Osorako Bidea"); "Las Fundaciones", ("Lekaimetxe-soraketak"); "Las Moradas", ("Bizitokiak", au da: Jaungoikoa'gana igotzeko ibilketan animak gero ta gorago, gero ta Jaungoikoa'gandik urbi-lago, aurki lezazkean santutasunezko "mailia" edo "tokiak", "bizi-moduak"); eta "Autobiografía", (Bere bizitza).

Terese'k idazkera berezia du, bere-berea, ederra, sendoa, mami-tua, oparoa; izkera errikoia darabilki beti, baiña apaiña, txukuna, panpoxa; esakera alaia, atsegiña, umoretsua, eta maiz biotza zirrarazten duana, bai noski, baiña baita sarri ezpaiñetara irri goxoa dakarrena ere. Gaztela'ko erderaren klasikurik gaillurrenetakoa da, Abila'ko, Josu'ren Terese Donea.

Bere lagunik sendoena Donibane Gurutzekoa izan zuan. Ez nolanaiko laguna, ez nolanaiko gizona; ta jakintsua, ta idazlea, ta olerka-

ria, ta mistikalaria, ta Santua.,.! Gaztelerak izan duan olerkaririk garaienetakoa, lirikan garaiena ez ba'da; Mistikazkoak ditu bere olerki guztiak eta idazkiak. Bai bizitzez, bai jakitez, Terese bera bezela Elizaren mistika-irakaslerik iaioenetakoa izan bait zitzaigun.

Ta, Terese bera bezeka, naiz mistika bizitzaren sakontasunean murgildurik bizi, gizarteko lanetan ekintza atsedean gabean, buruz ta biotzez osoro sartutako gizona izan zan. Izan ere, ardi artako otoitz gaillurreko gizakume mistiku guziek badute zertasun bereizi ori, ba-koitzari so-egften diogunean ikusi aal izango dugun bezela: Lan astu-netan sartutako gizaseme ta gizafabak izatea; otoizketa utsean gelditzen ez diranak; ekintza gogorren maitaleak' Esan leike mistikaren suak bultzatzen zituala ekintza aietara, ta ekintza latz aietan jasan bear izaten zituzten nekeek mistikaren garra bizkortzen zietela'

"Bere burua ukatu, gurutzea maitatu, Jaungoikoarengana beti er-
ne egon otoitzean, eta andik ateratzen zuan argitasuna liburuetan eman", eta berak bere biotzean sentitzen zuan donetasun-guraria karmeldar Anaidi osoaren biotz zabalean atsedetik artu gabe erein ta zabaldu! Ori izan zan Donibane Gurutzekoaren bizitza.

Salamanka'n Teologia sakonki ikasi ondorean egin zan apaiz. Ederki ezia zegoan, beraz, mistikaren teologi izkutua giza-izketan al dan argienik adierazteko. Ondo entzunak dituzu noski Donibane'ren idazkiak ere: "Subida ai Monte Carmelo", ("KarmelmendFrako gorabidea"); "Noche oscura del alma", ("Animako gau illuna"); "Cantico espiritual", ("Izpirituzko kantua"); "Llama del arnor viva", (-Maitasun bizizko garra").

Terese Abila'koaren naikundeen jakitea izan zuan bezain laister, jarri zan aren esanera Jon gaztea. Bazuan Terese'k Aitasantuaganifik karmeldar emakumeak ez-ez'e gizonetzkoak ere eraberritzeko baimena ta eskubidea. Pozik artu zuan apaiz gaztetxo argi arek eskeintzen zion eskua.

Terese'ren laguntzarekin asi zigun Jonek errikoakor batean bizi modu berria. Duruelos zan erriaren izena. Etxetxo txiki moldakaitz bat izan zan karmeldar gizonetzkoen lenengo lekaidetxe eraberritua, ta Terese alaaren umore gozoak ipfñi zion etxotxo arri, —antziñako idixko eta astotxo baten omenez—, izen egokia: "Belen'go Estalpea"!

Ez zan azi txikar ura antzu gelditu; laister (1568) iriki aal izan zuten Jon eta Terese'k lenengo lekaidetxe zabala gizonetzkoentzat. Ta onen atzetik arin sortu ziran konbentu berriak. Gizaseme Karmeldarrentzat ere su donetzaillea pizturik zegoan, ta bereala izanen da sutan Karmelmendi gutzia.

Ez zuten arerio faltarik izan. Asieran beintzat atsegin gutxi egin zien Karmel'go prailedi nagituei mojatxo ta praille ñaño aien gogoe-tek, eta gutxiago oraindik aien garaipen bizkorrek.

Zapuztu ziran nagitutako praille zaar guztiak. Berritze oro galera-zi zuten. Konbentu berrietara joan ziran guztiak lekaidetxe zarretara biurtzera beartuak izan ziran. Jon berritzaillea bera, arrapatuta, Toledo'ko espetxe illun batean baitu zuten. Egin zioten gizagaixoari zakur-keririk naiko: egunero bizkarrak berotu ere berotzen bait zizkioten zi-gorrez. Ortarako praille bakoitzak ematen zion zanpatako bat; gorpu-tza mintzeko aiñakoa ez ba zan ere bai anima samintzeko naikoa.

Agindu berdintsuak eman zizkioten Terese'ri ere, eta erdi baitua bezela baztertu zuten Toledo bertako komentu batera' Baiña bazuan lekaimetxo apal, arrai, goxo arek oraingoan lagun indartsurik...: Espa-ñietako Felipe II'a bera!' Luzamen aundirik gabe iritxi zitzaion Gre-gorio XIII'aren onespena; eta Karmelmendia arantz eta sasiz garbitze-ko bear zituan baimen ta eskubide guztiak.

Ordurako, zazpi illabeteko espetxetik irtena zan Jon Gurutzekoa ere, eta alaiki ekin zioten biak, atzera, karmeldarren antzaberritzeari. Lanketa ontan ir zan Josu'ren Terese Donea'

Ostera berriz jasan bear izan zituan zuriak eta beltzak Jon gai-xoak Ama onuragarriaren itzala falta izan zitzaionez gero.

Asis'ko Frantzisko il zanean frantziskotarren anaidiari gerta zi-tzaiona bera gertatu zitzaion karmeldarrenari ere Ama Terese il za-nean. Ala ta guztik ez zan emen ango "analtxo koxkor" aiek bezela erejira jausitako zatirik izan' Gorroto, bekaizkeri, ta borroka ugari, bai. Eta..' ibi alderdiak, beren ustez, ari ziran Ama Terese'ren asmoak be-tetzen!

Gurutzeko Donibane zapalduari kendu zizkioten kargu guztiak, ta itxi zuten, katigu bezela, Perluela'ko bazterrean, anaidiak zuan lekai-detxerik makurrenean. An galdu zuan osoro bere osasun kaxkarra; an-dik eraman zuten, erdi illik zegoanean, Osuna'ko komentura, ta an il zan, berak eta Terese'k ain maite izan zuten aldakuntza porrokaturik eta ia ezerreturik zekusala.

II ziran ereilleak, baiña an zegoan bizirik Karmelmendian berak erein zuten azia eta laister ernetu zitzaigun azi doatsu ura; eta eman ere ugari eman zigun, eman, santutasunaren zitua. Karne! guztian piztu bait zan Terese ta Jon maitagarri aien oroimena; ta aiek erakutsi zuten erara bizitzeko guraria. Errez berenganatu zuten eraberri-zaleek Sixto V zorrotzaren naimena, ta asarrebide guztiak betirako ixiltzeko,


bi lagunditan ebaki zuan Aitasantu onek Karmeldarren anaidi zaarra: "Karmel aundia", "geiegikerien" etsai agertzen ziran neurmen-zaleen Anaidia, aide batetik; "Karmel Txikia", araudi gogorraren maitale ziran Anaidia, besterik. Zuriz jazten ziran aiek; oial nabarrez beste auek.

Ez uste izan Karmel Txikikoek, otolzketan aritzeagaitik munduari bizkar-ematen ziotenik; ez orixe! Karmel Aundikoekin izandako auzi mingatzetan ere ozenki oiuegiten zuten aiek, otoitzik goikoena eta Ebangelioaren ereintza, —eta baita Teologiaren erakusketa ere—, aii karrekin ederki konpontzen ziraia.

Uste ortatik sortu zitzaizkigun KarmeiiMendiko teologilari be-riak, "Cursus Saimanticensis" deritzan liburu-bilduma idatzi eta argi-taratu zuten maixu ospetsu aiek, adibidez; eta uste ortatik sortuak ditugu mundu guztira zabaldu ziran eta mundu guztian ainbesteko lan ederra egin zuten eta egiten ari diran mixiolari karmeldarrak'

Zorionez, garaille irten bait zan, kristaudi osoaren onerako, Eliz Amaren Irakasle edo Doktore ditugun Terese Donearen eta Jon Do-nearen ekintza gogo-berritzaillea!.

Arrezkero, neurtu eziña dugu bere aunditasunean, karmeldarrek mixioetan ez eze kristaudi zarreko kristauen artean ere egin duten lan oparoa. Eliz osoaren zabalean nork ez du gaur era berezian maite Kar-mel'go Ama Birjiña?, eta nork ez die eraspen berezia Jon Gutzef6ari, Jesus Aurtxoaren Teresetxo'ri eta aien eta karmeldar danen "Ama" izandako Jesus'en Terese maitagarriari? Nork?



TEOLOGIAREN BERBIZKUNDEA

Berbizkunde ontan, izan zuan protestalaritzak zer ikusirik. Baiña emen ere gertakizunei neurria ondo artuta gauzak beren tokian bearrean aurkitzen da edestilaria.

Ez da egiaberbizkunde ori Elizatik kanpora irten ziran berrizaleen protesta edo osteketak sortu zuala. Ikusi dugun bezela Ikastoletan erakusten zan Teologia, "Eskolastika", dialektika utsa, au da, gogapenak alkarrekin egoki josteko arrazoiketa utsa izatera etorri zan amalaugarren mendean; eta, osoro, itzak itzekin dotore alkartzeko jostaketa biurtu zan, Okam frantziskotarrak teologiak erabiltzen zitu-tuan "gogapen orokor" aiek "itz utsak" zirala esan zuanean; eta erabat lepo egin zion teologiari, adimena Jaungoikoa ezagutzeko gai ez zala erakutsi zuanean.

"Nominalismo" eta "fideismo" ortaz, ots, "itzkeri" eta "fedeker-ortaz nazkatuta jeiki zan Martin Luter, arrazoiketari "txorakeri" ta arrazoiari "urdanga" deitu zionean. Baiña aren aurretik jeikiak ziran gizadi-zale mardulak, eskolastika aren legorkeri eta zabartasunaren aurka; eskolastikalariek zebilkiten izkuntza bera ere, latza, gogorra ta traketsa bait zan.

Birjaiotzako gizadizaletasunaren ioritasun naroak ernaarazi zitu-tuan, Anai Martin'en karraixiak baiño len, teologi zarra berpiztutzen asi ziran amaseigarren mendearen asierako teologilari bikain aiek: 1526'an íl zitzaigun Ferrara'ko Silbestre eta, batez ere, Gaeta'ko Bio'tar Tomas Kardenala: "Kaletano"

Izan ere, gar berria arturik zeukan teologiak Luter-aurreko aldi artan, eta gar berri ori Tomas Donearen pentsakerak, "tornismoak" eman zion.

Igarturik zegoan, amalaugarren mendea ezkerro, amairugarrenean ain aberaski emankorra izandako "eskolastika", eta arekin batera igartu zan aren giroan jaio eta azi zitzaigun Teologia ere. Birjaiotza-

ko jakintsu apaiñ dotoreei ez zetzaieken iñolaz ere, mamirik gabeko eta latiñ makur baldarrez jantzirik agertzen zan Teologi ura atsegiñ izan.

Elizaren Ikastola Nagusietan ere bazterturik zegoan Teologia; eta Elizako Legiztia, "Kanoniztla", erakusten zan bereiziki aren lekuan. Elizako Artzai eta Agintari guztiak, Legiztilariak ziran: Kanonistak.

XV eta XVI mendeko teologilariak, aipatutako SHbestre Ferraratarrak eta Kaietano'k batez ere, Akina'ko Donetomas'en iturrira jo zutenean asi zan berbizten, sendo eta oparo, gure Teologia. Eta laister izan zan ostera Eliz-jakintzetan nagusiena.

Donetomas'en-Teologia-EgitekoErak, ots, "tomismoak" salbatu zigun Teologia.

Tomismoa Teologian sartze orren aitzindariak, Tomas Donearen anai domingotarrak berak izan ziran, ta auen artean geienbat, len aipatu degun Tomas Bio'tarra, Gaeta'n jaio zalako "Gaetano" edo Kaietano deitua, Elizaren Kardenala izatera iritxi zana. Teologian ez-eze filosofian eta legiztian ere lenen mailleko jakintsua izan zitzaigun'

Baiña bera baiño jakintsuagoa, argiagoa, zorrotzagoa, ta batez ere ausartagoa, Bitori'ko Frantzisko domingotarra (1486 - 1546), nazio-arteke legiztiaren irasle edo fundatzaile bezela agurtua oi dana.

Meritu aundia du euskotar ospetsu onek eta garrantzi aundikoa da bere lana teologiaren arloan batez ere' Akino'koak amairugarren mendean egin zuana egin zuan Bitori'koak amaseigarrenean: Teologia, bere garaiko illuntasunak argitzeko, auziak garbitzeko, eta korapilloak askatzeko erabili.

Ordurarte teologiirakasleak Kepa Lonbarditarraren "Sententzien Liburua" aztertu, irauli ta atxurtu bestetik ez zuten egiten, an bait zegoan aien ustez teologiak erakutsi zezakean guztia. Amaseigarren mendea ezkerre teologilariak AkIna'ko Tornas'en Suma edo Bilduma aztertuko dute geienak beintzat, teologiak jaso lezazkean gai guztiak an ba'leude bezela. Tamalez, geienak beintzat ez dute ori besterik egingo: Maixuek erakutsia buruz-ikasi, Teologiarentzat gai berriak biltzera ausartu gabe.

Teologi ikasle ta erakusle aientzat teologia maixu zarrek landutako altxor aberatsaren antzeko zerbait zan. Frantzisko Bitori'koarentzat, ez' Onentzat teologia, gizadiko misterioen atea irikitze giltza ere bazan. Ateak irikitze giltza eta illunpeak argitzeko goi-argia.

Ez zan Tomas Donearen etsai, ez orixe! Berak baztertu zuan Salamanka'tik Lonbarditarraren "Sententzien Liburua", onen orde z To-

mas'en "Suma" ipintzeko. Argitaratu berriak dira gaur, Tomas'en teologiari buruz Bitori'koak eratu zituan erakusketak. Baina ez zuan ori bakarrik egin' Bere meriturik aundiena garai artako auzi garrantzitsu guztiei teologiaren argia jaurti izatea da. Orrela aztertu zituan "Ameriketako inditarren eskubideak", "Inperatorearen almenaren mugak'

Elizaren agintaritzaren sustraiak eta neurriak", "Aitasantuen erregetzaren Ertza", "Laterrietako autoritatearen iturburua eta zabaltasuna"...

Egi egiaz da euskotarra Frantzisko Bitori'koa batez ere legiztiari buruzko gaietaz ari danean. Bere demokrazi kutsua ez datorkio aita Tomas Akino'koarengandik bakarrik, ezta Paris'en izan zituan irakasle nominalistengandik ere; Arriaga'ko Batzar Nagusietako izpiritua-
ren antzeko zerbait nabari zaio aipatutako liburuen izenei dagozkien gaietaz ari danean,

Frantzisko Bitori'koaren lanik geienak bere ikasleek idatzi zituztelako ezagutzen ditugu. Ikasle ta jarraitzaile auen artean, izan ziran bi euskaldun ospetsu, biak Salamanka'ko Ikastola Nagusi artako irakasleak: Artazubiaga'ko Bañez'tar Domingo, arrasatearra, (Domingo Bañez de Artazubiaga), "Laterriaren Legiztia", "Jus Publicum" leenik landu ta antolatu zuana, eta Azpillikueta edo Azpillikueta'ko Martin, "Doctor Navarrensis", "Irakasle Naparra", Xabier'ko Frantzisko Donearen amaren anaia, Moral edo Oituriztiaren maixurik argienetakoa. Ain zuzen garai artan asi zan Oituriztla Teologiarengandik bereixten, jakintza iare bezela, ta Azpillikueta izan zan lan ortan aurrenekoetakoa. 1586'ean il zan.

Ikasle asko ta onak izan zituan Bitori'koak, jakintza erakusten bezain ona bait zan gizonak tajutzen; baiña ikasle auetan garaiena, Meitor Gano izanen zan noski, domingotarren teologian txapeldun nagusia. Ta ez zan orduan txapelduntza ori gauza erreza, domingotarrek beraiek izan bait zuten irakasle bikaiñik ugari.

Ala ere Bitori'koaren bidetik domingotarrak baso iñakitarrak obeto jarraitu zutela, esan daitekela uste dugu, aiek Akina'koaren esietan geiegi itxi bait ziran. Auek, berriz, askatasun geiagorekin zebiltzan naiz-ta Tomas Donearen erakuspenetatik aldendu ez. Asko ta onak ba'ziran domingotarren teologllariak, ez ziran gutxiago ta txarragoak iñakitarrenak. Aipa ditzegun Alfonso Salmeron, Diego Lainez, Luis Molina, Balentzi'ko Gregorio, Gabriel Vazkez, Roberto Belarmino Donea... eta batez ere Frantzisko Suarez (1548 - 1617), "Doctor Eximius", "Irakasle Gaillurrekoa", teologiak izan duan bururik argienetakoa, eta legiztilaririk zorrotzenetakoa, demokrazia betirako teologi katolikua-

ren erakuspen egin zuana.

Bizkortasun zolia artu zuan teologiaren erakusketak. Domingotarrek berbiztu zuten Tomas Donearen adimen-bideetako Teologia. Iñakitarrek eman zioten "Theologia Positiva" deitu oi zaion jakintzari, au da, Elizaren Asaba Doneen erakuskizunetan batez ere errotutzen dan teologiari, ordurarte iñork eman ez zion ardura.

Done Frantzisko'ren semeen artean, murgildu ziran Bonabenturaren idazkietan Buruñurdun edo Kaputxinoek, beste sendi frantziskotarrek Duns Skot'en eraketa, eskotismoa, kristaudi guztian zabaltzen zuten bitartean. Ain zuzen Irlanda odolustu bikain artatik zabaldu zan bereiziki Eskozi'ko frantziskotar ospetsu aren pentsakera. Emaiogun aintza Irlanda txiki bikaiñari.

Elizaren bizitza ez zan teologi berbiztuaren sugarra bakarrik izan. Era berean artu zuten indar Bibliaren ikaskuntzak, batez ere iñakitarren artean, eta legizti ta oituriztiak, baiña baitipat aszetika ta mistikak. Aurrenekoak, aszetikak, anima Jaungoikoagana nola urbildu erakusten digu; bigarrenak, Jaungoikoa animako otoiz-bizitzean nola sartzan dan, bizitza orren eragille Jaungoikoa bera izatera iristeraño.

Elizaren txoko guztietan sortu ziran lenen mailleko aszetikalariak, eta mistikaren irakasleak. Ta geienean maixu ta irakasle auek danak, beren erderetan idazle jatorrenetakoak izan ziran gaiñera. Aipatu ditzegun, Gebara'ko Andoni, Lizarra`ko Diago, Laredo'ko Bernardino, Murillo'ko Diago, Madrid'ko Alonso, Osuna'ko Frantzisko eta batez ere Aingeruen Jon ezitsua, eta inola ez! Alkantara'ko Kepa, Asistarraren semeen artean; Koldobika Blosio beneditarra; Granada'ko Luis domingotarra; Villanueva'ko Donetomas, Montoya'ko Luis, Orozko'ko Alfontso, Txaide'ko Malon, eta Leori'go Luis, agustindarrak; Borxa'ko Frantzisko Donea, Kepa Ribadeneira, Aita Alfontso Rodriguez, Anai Alonso Rodriguez Donea, La Puente'ko Luis, Eusebio N-ieremberg, eta Palma'ko Luis iñakitarrak. Eta izenbat geiago!

Oroi ditzegun, era berean, atal onen asieran aipatu ditugun giza-kume Done ospetsuak' Laister aipatu bearko ditugu beste batzuk ere: Berulle apaiz kardenala, Sales'ko Frantzisko gotzaia; Neri'ko Felipe; Olier eta Eudes apaizak'.. Danak aipatzea itxas-ertzeko ondarrak zenbatu nai izatea litzake. Ta alderakizun edo konparazio onek Bibliara garamazki. "Itxaso'ko ondarrak bezain ugariak izanen dira zure semeak. Zenbatu itzezu zeruko izarrak. Aiek beste izango dira zure semeak" esan zion Jainkoak Abraan Asaba'ri. Ori bera esan ziola dirudi, birjaiotza-arotik irtendako Ama Elizari ere, ez bait du onek beiñere bere zeruan ainbeste izar ta ain izar dizdiratsurik izan'

Kementsu, iori, gartsu, ari zan bizitza Eliz osoa-baitan. Ez ditze-
gun aztu, Edestiaren eta Arkeologiaren arloan egin ziran lanketak.
Gauza jakiña da Birjaiotza'ko jakintsuek edestiaren eta euskeraz "An-
tzirlizti" deitu dezaiokegun "arkeologiaren" zale zirala. Gaurko edes-
tia idazteko modua birjaiotzalariek sortu zutela ere esan daiteke'

Gaiñera Iutertarrek eta kalbindarrek maiz zerabilkiten agoan
aurreneko mendeetako kristautasuna' Naita naiezkoa zan beraz, ja-
kintza oietarako joera ere, elizgizonen artean sortzea. Beneditarrek,
Felipe Neri'ren semeek, iñakitarrek, —auen artean batez ere Laterri
Beikoetako, Jon Boiand'en lagunek (Bolandiste edo Bolandarrek), eta
izenbat geiagokl, egin zuten lanik ugari Elizaren edestia bere egitasu-
nean mundu guztiaren aurrean ipintzeko.

Elizaren biziaren ugaritasuna, igaro zan Edertiaren alorrera ere'
Jauretxegilleek, margolariek, irudiegilleek, danak izan zuten zer-
egiñik ugari. Eliz artako biziaren oparotsunetik sortua da, edertiko es-
tilo edo kerarik ederrena. Baita zaillena ere, geiegikerira erortzeko
arriskua berekin bait du. Baiña, arrisku ori garaitzen ba'du, aberatse-
L,, na, ikusgarrfkiena, apaiñena, politena, bikaiñena: "barrokoa" edo ba-
rrokera. Iñakrfarrek asi zuten edertiera berri au beren Erroma'ko "Del
GesU" edo "Josu'ren" Jauretxean. Orregaitik, josulagundiaren kera
deitua izan da barrokera' Bernini, Rubens eta Rembrandt —azkeneko
au-kalbindarra, eta beste lenen maillako edertilari asko era ontan ari
izan ziran lanean.

Barrokera'ren oparotasuna Elizaren biziaren barruko aberastasu-
naren irudi zan, baik; baiña izan zituan Eliz Amaren bizi naro ark bes-
te zitu batzuk ere: Anaidi berrien sorketa ta mixiolaritza.

ANAIDI BERRIAK

Kontzilio aurretik aipatu bait ditugu batzuk, ona kontzilio ondorean sortutakoak:

1^a. NERI'TAR FELIPE DONEAREN LAGUNDIA. Iñoiz gizon xalota maitagarririk izan ba'da, auxe da gizon ori: Felipe Neri Donea (1515 - 154535). Florentzitarra zan eta bazituan Uri apaiñ aren grazia eta alaitasuna'

Irriparrik goxoena ezpaiñetan zualarik edozeiñi entzuteko eta laguntzeko prest egon oi zan beti gau t'egun; eta edozeiñi pozaren ttantta xamur bat biotzera ixurtzeko une orotan gerturik aurkituko zenduan beti. Gau osoak igaro oi zituan otoizketan, lenen mailleko mistikoa izan zan ba. "Aski jauna, aski", oi egiten omen zuan maiz, pozaren pozak gaiñez eginda, Gure Jaunarekin itzegiten ari zanean.

Ala ere, mistika-gizon aundi au, Birjaiotzako "Jainkoaren Lagundi"etatik sortu ziran anaidietako batetik jaiotako Santua dugu; gazte zala, erromesei eta gaixoei laguntzeko, anaidi aietako batean sartu bait zan. An sortu zitzaion donetasunerako leia.

Egin zan apaiz. Ez zuan sekulan bere jatorrizko izakera otzanik eta umore gozorik galdu! Jende guzia bereganatzeko zuan doai bereizi ortatik sortu zitzaion, ia berak uste ez zuala, "Otoitzeko Lagundia", 1551'ren inguruan! Ona nola:

Apaiz-etxe txiro batean bizi zan, alai, Felipe. Alaitasun orrek laister inguratu zizkion apaiz lagun batzuk. Billera aiei arauditxo arin bat asmatu zien Felipe Doneak, danentzat onuragarri izan zitezen: Otoizketa, irakurketa, alkarrizketa, abestiak, itzaldiak... Billerari "L'Oratorio" deitu zion! Ez da errez, itz ori euskerara itzultzea, itz orrekin Felipe'k eta aren lagunek adierazi nai zutena esateko, era asko bait ditu gure izkerak. Lagunarte artakoak, beren etxe bakoitzari "Oratorio" deitzen zioten, otoiz-tokia alegia. Ortaz, Oratorio "Otoiztegi" euskeratu dezakegu. Otoizterako billerari ere "Oratorio" deitzen zioten! Ori,

"Otoitz-Batza" itzuli leike. Baiña itz orrekin beren eginkizunik garaiena otoitza zala ere adierazi nai zuten. Ori adierazteko euskeraz "Otoizkuntza" obeto legoke. Baiña ez letorke gaizki, "Otolzketa" ere, askotan otoitzerako zuten sarritasuna agertu nai bait zuten "Oratorio" esatean.

Ondo nabari da, beintzat, apaiz aiek otoitzari ematen zioten garrantzia. Orregaitik Billera artatik sortu zan Lagundiari, "Congregatione dell'Oratorio" deitu zion Felipe'k "Otoitzeko Lagundia" aldatzen du Orixe'k. Agian obeto legoke "Otoizkuntzeko Lagundia".

Felipe Neritarra Birjaiotzalari erne zalarik, edertasunaren maitale ere bazan, eta atsegin zitzaizkion abesti egokiak. Palestrinari berari eskatu zizkion otoiz-billeretarako abesti berriak. eta Felipe'rentzako sortu zuan maixu garaienetako arek "Oratorio" deritzaion abeskera berria.

iZenbat ordu pasa zituan Donefelipe maitetsuak aitortegian, eta bere etxeko gelatxoan, animen zuzenketako lan astunean".! Itali guztiak zuan maite; bazter guztietan sortu ziran Otoiztegiak. On aundia egin zion Elizari, Nerl'tarrak asmatu zuan, kristautasuna bizitzeko era berriak.

Felipe Donearen asmoa Kepa Berulle Kardenalak eraman zuan Frantzira, ta ospe aundia izan zuan Koldobika XIII'aren begien aurrean ere, 1611'ean Paris'en irikitako Otoiztegiak' Laister iriki ziran berriak Belxika'n eta Frantzi'n bertan, eta on aundia egin zuten bi Jaurrietako kristautasunean.

Kepa Berulle, Frantzi'ko "kristau barne-bizikeraren" sortzaileetako bat dugu. Beste biak, Eudesko Donibane eta Jon Jakob Olier izan genituan.

Olier'ek gaiñera Sulpizio Donearen Lagundia asmatu zuan, apaizgaien ikastetxeak zuzentzeko (1642)'

Eudes'ko Donibane'k ere sortu zuan Lagundi berri bat: "Josu ta Mari'ren Mixiolariena" (1645), au ere apaizgaiak ezitzeko asmatua. Eratu zuan, bait'ere, emakumezkoentzat "Ama Maitearen Alaben" Lagundia.

Ontaz lan asko egin zuan erriko jendeari mixioak ematen, eta arakatu zituan lanketa ortan Frantzi'ko baztarrik geienak; baiña, ere, Josu'ren eta Mari'ren Biotz santuekiko jaiera zabaltzen aurrenekoetakoa eta nagusienetakoa izan zalako da Eudes'en izena kristaudian ezaguna.

Miragarrizkoa izan zan iru gizon auek —azkeneko biak

bereiziki— kristau-bizikera berbizten eta apaiz-ikasgoak altxatzen bildu zuten uzta'

Bearkizun guztiei maiteki erantzun aal izateko iori sortu ziran Eliza-baitan kristau bikaiñen Alkarte ongilleak. ¿Dirurik gabeko jende gaitzak-joak, gaixotegietan beartasun gorrian bizi izaten zirala? Andaluze'n Jon Jainkoarena agertu zan bezela agertuko da Erroma'n Lelis'ko Kamilo. Gudaria au ere, Jainkoaren Jon portugaldar ura bezela, eta, Loiola'ko iñaki'ren antzera, borrokan zauritua eta iztarra sendatzen zuan bitartean Jainkoagana biurtua.

Portugal'eko Jon Cidade Jainkoarenak Granada'ko erotegietan eroak nola bizi ziran ikusi zuan bezela ikusi zuan Kamilo'k ere, gaixotegietan gaizkittuta zeudenak zeramakiten bizimodua. Ta auen serbitzura jarri zan betirako' Iñaki bezela gizon egiña zala, asi zan ikasketan apaiz egiteko. Apaizgoa artu zuanean bildu zuan 1584'ean, berak "Ministri degli Infirmi", "Gaixoen Serbitzariak" deitu zion lagundia. Lagundi ontako apaizak laugarren boto edo eskeintza bat egiten dute: Izurrite edo peste-denboran ere gaixoak zaMtzera beren buruak bearitzen dituan eskeintza'

,Gaixoak ez-ëze, bearrean aurkitzen dirala mutiko ta neskatoak, ikaskuntzarik gabe ezjakiñ beltzean gelditzen diralako? Or etorriko dira gizon eta emakume onuragarriak, utsune ori betetzera.

; Neskato ta neskafillentzat? Emakumezkoen zazpi Lagundi bizkor sortu zituan Eliz Amak mende bateko epean 1535'etik 1617'ra. Neke asko izan zituzten, aurrera irtetzeko Lagundi auek danak, beren sortzalleek ez bait zuten lagundi sortu-berri auetako neskafillentzat Boto edo Eskeintza Nagusirik gura. Aien elburua jendearteko apostoladutza zan; ez, lekaimetxe zarretan lez orma eta burni arteko "klausura" edo "bizitza itxia". Eliza ordea, iez egon oraindik orrelako aldakuntzetarako prestatua!

Lekaime ez ziran erlijiosen, —emakume erlijiosen—, lenengo Lagundia, Andoni Maria Zaccaria'k asmatu zuan 1535'ean; Lenxeago gizonzkoentzat "Barnabitarren Lagundia" asmatu zuan arek berak. "Paul Donearen Aingeruak" izen-ipiñi zien emakumezkoen Lagundiko "monja" berriei.

Pauso bat geiago emanen du Merizi'ko Gotzone Doneak. Ursule-tarrak osoro era berrira osatzean (1535)' Neskatz auek ez zuten erlijiosoen antzeko Lagundi bat osatzen. Alkarte bat besterik ezziran. Ez zuten boto edo eskeintzarik; bakoitza bere etxean bizi zan. Ala ere neska gazteen erakusketarako, neskatil aiek danak araudi bat betetzera eta

agintari baten mendean bizitzera beartzen zituzten beren buruak, al-kartean sartzen ziranean. Gaurko ixtitutu sekularren antzekoazan baitipat Gotzone Donearen Alkartea' Geiegi, noski, garai artako Elizgizonen pentsarnodurako.

Merizi'ko Gotzone Deunaren asmo berdiñak erabili zituzten beste gizonezko eta emakurnezko batzuek ere. Onatx kristau zintzo aien izenak:

—Mari Ward' Inlanderrian jaioa' eta Inlanderretik iges egiten zuten sendi katolikoan alabak kristauki ezitzeko "Zorioneko Mari Birjiñaren Lagundia" sortu ziguna, (1609)' Iñakitarrrek beren ikastetxeetan mutilentzat zerabilzkiten era ber-berak erabili nai izan zituan Mari Ward'ek neskatoen eziketari'

- -Alizia Leclerc. Gaztelan, neska eder-polita ez ezö, kaxkariñaxmarra ere izana. Baiña garai artan maiz gerta oi zan bezela zearo biurtu zan Jainkoagana' Apaiz bat, Kepa Fourier, izan zuan animazuzendari, eta, bien artean, "Andre Mariren Erlijosen Lagundia"ri eman zioten sortzea, (1598). Emen ere iñakitarrak izan ziran aolkulari nagusi.

—Lestonak'eko Jone Donea. Onek ere, iñakitarren antzera eman zion "Maria' ren Lagundiari" bizia.

Ez zaitez arritu iñakitarrak, ain itzal aundiko lez, batez ere gazteen eziketaren barrutian, bazter guztietan ikusten ba'dituzu.

Loiola'koaren denboran, ela aren oroitza bizirik zegoan denboran, josulagunak lenen-lenen mailletako gizakumeak bait ziran' iAi beti orrela jarraitu ba'zuten! Gogora ezazu gaiñera kristau-eziketaz ari gerala, eta ortan iñakitarren ikastetxeak egiazko eredu zirala orduan.

—Sales'ko Frantzisko Donea, "Bisitandinak" edo "Ikerpenaren Omenezko Erlijiosak" asmatu zizkigun Jinebra'ko Gotzai xaloo' Ez zuan iñolaz ere bere alaba aiek monja izaterik nai izan. Orretxegaitik ez zien abittu edo monja-soiriekorik jazten utzi.

—Paul'eko Bingen Donea, "Karitaterako Aizpak" eratu zituana.

Ez bait zan oraindik garai artan Elizan, lekaime ez zan erlijiosarik ondo ikusten, lagundi auek geienak, azkenean, bizikeraz aldatu, ta monjen antzera eskeintza edo botoak egin bear izan zituzten. Trento'tiko Elizaren geiegizko bildurkeria...!

Lagundi auen sortzailleetatik bi emakume, samintasun asko pasa-bearrak izan ziran; Mari Ward batez ere, aren aurka gauza oker asko zabaldu bait zan' Urbano VIII'ak, esakizun aiek egiazkoak zirala-

koan, desegin zion sortu-berria zuan Lagundia, eta Mari gaixoa bere Inghlanderrian il zan naigabez zanpaturik. Gaur badakigu, ziburki, esa-mesa aiek ez zirala egiak. Mirariz salbatu zitzaion bere Lagundia, Babiera'ko Maximilian lak dukaterri artan Maritarrek zuten ikastetxea zabalik gordetzea lortu zualako, eta gero, ia eun urte geroago, 1703'an IX Klemente'k bere onespena betirako eman ziolako.

Izan zuan gurutzearen zama Lestonak'eko Jone Doneak ere, bete alaben agintaritzaren kendu bait zioten. Onak ere zapalduak igaro zituan bizitzaren azkeneko iru urteak.

Oroipen berezia merezi du Sales'ko Frantzisko Doneak. Sabotaterra zan jaiotzez. Naiz gaur Frantzi'koa izan, aldi aietan Laterri iarea bait zan, berez frantzitar baiña italiar geiago dan Saboia' Frantzisko Sales'tarra, izakera garratzekoa zalarik, griña txar ori zapaldu ta menperatuaz, otzara, bare, ta paketsu izatera iritxi zan.

Beti izan genduan gogorkeriaren etsai; eta erejeak maitatuaz, leunki jardunaz, aiekin begirapenez itzegiñaz, Donekepa Kanisio'tarrak bezela, indarkeri-zale guztiak baiña ardi geigo itzularazi zituan Eliz Amaren artaldera. "Euli geiago arrapatzen dira, esan oi zuan, ezittantta batekin eun kupel ozpiñekin baiña", eta "ongiak ez du zaratarik ateratzen; zaratak ez du onik egiten"

Otsik eta zaratarik atera gabe, irurogei milla kalbindar biurtu omen zituan sinispide katolikora'

Ginebra'ko Gotzai egin zuten. Ez zuan, kalbindarren mendean zegoan uri artan bizitzerik izan, eta Frantzi'ko Annecy'n egin zuan bere egon-tokia. Orregaitik, eta frantzeraz idatzi zualako, berendar bezela jotzen dute frantzitarrek.

Eta ez da arritzekoa frantziarfen guraria; ¿Nork ez luke naiko berretarra izatea, Elizaren doneen artean maitagarrienetakoa dana? Jakintasunez ondo jantzitako gizona gaiñera, —Frantzisko Salestarra—, adimen zabal, eta luzekoa, kristau barru-bizitzaren bide eta bidexken ezagule zorrotza, idazle iaio, gozo, eta atsegiña. Ez zan bera nolanaiko gizakumea!..

Auek dituzu aren idaztirik garaiena: "Filotea. Eraspén-Bizitzarako Sarrera". "Teotimo". Jainko-Maitasunaren Erakusketa' Eta, "Animari-Buruzko Solasketa".

Sales'tar Frantzisko Donearen aszetikaren muiña auxa duzu: edozein bizimodutan, kristaua santu izatera beartua dagoala, Donetasuna ez dala apaizentzat bakarrik, lekaideentzat bakarrik; kristau guzti-zakoko dala. Santu izateko ez dala mundutik atera ta eremutar biur-

tu bearrik; ezkonduak, nagusiak, morroiak, nekazariak, gazteak, umeak berak, gudari ta salerosleak ere, santu izan daitezkeela, eta izan bear dutela; ta ori bizimoduz aldatu gabe gaiñera; gauza aundirik egin gabe; gauza txikiak ondo egiñaz; eta, batez ere, bakoitzak bere bizi-moduak eskatzen dizkion egitekoak zintzo beteaz.

Aszetika-era onek, santutasun-mota apal, ixil, legun, maitetsu eta errez bat sortu zigun, kristau-jendearen artean asko eta asko zabaldu zana.

Aszetika txikitxo onek egiazko donetasunera eta goieneko mistikara jaso zituan bere sortzalea, ta onen bidetik jarraitu zuten ainbat naimen oneko anima kristau. Auen artean aurrenekoa, Chantal'eko Jone Frantziske Fremiot Donea.

Andre au, Chantal'eko 'Baroarekin' ezkondua egon zan, eta izan zituan sei ume. Alargun gelditu zanean, ordurako umeak aziak zituan-da, "Baronesa" aberast batek izan zezazkean atsegiñ guztiei agur egiñik bere bizia osoro Jainkoari eskeintzeko guraria sumatu zuan boitz-barruan. Orduantxe ezagutu ere ezagutu zuan Sales'ko Donefrantzisko eta bien artean "Ikerpenaren Omenezko Lagundia" asmatu zuten'

Ain zuzen, aspalditik zebillen Sales'koa emakumezko beartsuei laguntzeko andre eta andereño zintzoekin zerbait sortu naiean. Gortutzeko eta animeko bearkizun orotan lagundu nai zien emakumez-koei. Orregaitik Lagundi sortu-berriaren lenengo eginkizuna neskak kristauki ezitzea izanen zan. Baiña Lagundi zabal bat gura zuan ark. Osasun makaleko neskatxak, adiñ aundiko emakumeak, eta baita alargunak ere, ots, beren adimenaren eta osasunaren neurrian karitate egiñaz bizia igaro nai zuten emakumezko guztiak altzoan artu zezazkean Lagundi bat.

Jone Frantziske Fremiot'arrak lagundu zion Lagundi ori sortzen. Esan dugun lez, ez zuten "Ordena" bat egin; "Lagunarte" bat baizik.

Baiña Ikerpena'ren Lagundiko emazteki auek bizimoduz aldatu bear izan bait zuten, eta egiazko lekaime biurtu Elizaren aginduz, Paul'dar Bixente Doneak atera zuan aurrera Saieskoa'ren asmakizuna "Karitatearen Aizpak" sortuaz.

Gaskoiña zan Donebixente; naiz kulturaz erdeldun izan, odolez eusko dan, Adur eta Garona ibaien artean dagoan, Gaskuiña zabaleko semea. Nekazari beartsuen umea. Ez du ori iñoiz aztuko Bixente'k apaiz egiten danean, eta beti izanen da txiroen guraso.

Ondo ezagutzen zituan "Monsieur Vincent" "Jaun Bixente" apai-

zak Salestarraren asmoak, Donefrantzisko'k berak izendatu bait zuan "Ikerpenaren Erlijosen" zuzendari' Lekaiume Salestarrak izan bear zuten dira beraz, 1533'an "Jaun Bixente'k", Marillak'eko Luise Donearen laguntzarekin, bildu zituan "Karitatearen Alabak". Neskatx auek urte baterako bakarrik egiten dituzte beren eskeintzak; eta urtero berritzen ditu eskeintza oiek, Lagundian jarraitu nai duanak' Beren eginkizuna, gaixoei, eibarriei, umezurtzei eta beren gurasoak eskutik utzitakOE umei laguntzea da. Chantal'eko baronesa bezala, Luise Marillac ere alarguna zan.

Bi emakume auek aldareetario igo ziran, eta —naiz aldareetara iritxi izan ez— aiek bezela millaka ta millaka, garai artan, kristaudi guztian eginkizun onetan bizitza osoa igaro zuten emakumeen oroigarri dira. Bai bait zan aro artan, maitasun-ixurketa ioririk Elizan!.

Baiña Gaskuifia'koa ez zan, emaztekien Lagundiak zuzendu ta asmatzen bakarrik aritu. Apaiz-apaiza zan, eta parroko izan ondorean, erriz-erri ibilli zan mixioak ematen; eta apaizgaien ezikera jasotzen ere saiatu zan' Bi eginkizun oietan aurrera jarraitzeko eraiki zun "Mixiotako Apaizen Lagundia". Apaiz auen lenengo etxea Paris'en Lazaro Donearen Gaixotegia izan zalako "Lazariste" edo "Lazarotarrak", eta Paul'eko Bixente'ren seme diralako, "Paulak" edo "Paldarrak" ere, deitu oi zaie'

Itzal aundia ta onuragarria egin zuan, Frantzi'n aurrena, eta Kristaudi osoan gero, Donebixente Paurdar Gaskuiña'koak.

Baiña jaio zitzaizkion Elizari gizonezkoen Lagundi geiago; eta —umeen ezikeraz ari bai gera— imutikoen eta gaztedi osoaren kristau azikuntzarako pentsatuak ziran Lagundiak gaiñera!

Aurrenekoa, Sadis'ko Markos Kusani'k sortua izan zan: "Doctrinari" edo "Dotriñ-Erakusleen Lagundia". Ez zitzaion IV eta V Pio Aitasantuen laguntzarik geitu' Azkeneko Aitasantu onek gaiñera, Kristaudiko Gotzaiei, bakoitzak bere eliz-barrutian Kusani'ren Alkartearen antzeko Alkarteak eraikitzeko eskatu zien. Eta bai bait zuten ortarako naimen zuzena aldi artako Gotzaiek, Dotriña Erakusleen alkarreak ugari sortu ziran Alemani'n, Austri'n.

Gotzai laguntzaille auen artean aipa dezagun Borromeo'tar Karlos Donea, berak idatzi bait zion alkarte auetako' bateri bere araudia. Elizari serbitzu aundiak egindako gizona auxe: Donekarlos Borromeo' Bere lanik ederrena eliz-barrutietan apaizgaietxeak, Trento'ko Kontzi-

lioak agindu zuan bezela sortaraztea, izan zan' Gero, Donekados'en etxe oien antzera eraiki ziran ondorengoak, gure "Seminarioak".

Ez zan iñortxo Trento'ko Kontzilioa Elizaren ezur eta aragi egiten Borromeo'tar Karlos Donea bezela saiatuko' Milan'go Goigoztai zan, baiña aren argia Milan'go mugetatik urrutira zabaldu zitzaigun. Milan'en bertan gozoro artu zuan Borromeo'k bere babespean, uri artako apaiz batzuek sortu zuten lagunartea. Milan'go Zaindaria Anbrosio Donea dalako' Santu onen babespean ipiñi zuten apaiz auek Alkarte sortu-berria, eta Santu orri eskeiñi zioten bakoitzak bere apaizgoa. Orregaitik deitu oi zaie 1578'an alkartu ziran apaiz auei "Anbrosio Donea'ri Opaiduak"; "Oblati".

Borroneo'k bere osaba Pio IV'aren alboan egin zuan lana, zegokion tokian adierazi dugu. Milan'go izurrietan bere karitatea noraiño iritxi zan ez du oraindik aztu kristau erriak. Protestalarien artean aren apostolutza gozoak SulzUko Kantoietan Eliza Katolikora jendetza andiak ekarri zituala ez dezagun aantzirik utzi.

Baiña bitartean Kasuni'ren "Alkarteek" bi bide artu zituzten, batzuk beren sortzailleari jarraituz, "Apaiz-Lagundi" batean bildu ziran 1587'an. Orrela bildu ziran apaizeri, "Kristau Dotriñeko Aitak" deitu zitzairen. Lagundi ortan bildu ez ziranak, ordurarte bezela "Lagunarte" uts jarraitu zuten.

"Kristau Dotriñeko Aiten" Lagundiarekin alkartu zan, apaiz batek, Zesar Bus'ek, Frantzi'n antolatutako "Apaiz Dotriñerakusleen Alkarte".

Ezagutzen zituan "Dotriña erakusleen Alkarte" oiek Donejosepe Kalasanztarrak; Alkarte oietako lagunkide izan bait zan Erroma'n, eta Alkarte bereko beste bi lagunekin asiera eman bait zion berak asmatutako Lagundi berriari 154537'garren'urtean. Sendi beartsuetako umeei erakusteko asmatutako lagundia zan ura: "Eskola Onetarako Jainkoa'ren Amaren Apaiz Araudun Txiroen" Lagundia' izentxoia luzexamarra irten bait zitzaion Donejosepe zoriontsuari...,, erriak toki batzuetan "Eskolapioak" eta beste batzuetan "Piaristak" deitu izan die Lagundi ontako Aita irakasleei.

Kalasanfkoak bere Lagundia baiño lentxeago eratu zituzten Leonardi'tar Jon Doneak "Jainkoaren Amaren Apaiz Araudunen Lagundia", eta beste bi apaizek, (Adorno`ko Jon Augustirrek, eta Donefranzisko Caracciolo'k), "Apaiz Araudun Txikerren Lagundia"

Azkeneko bi lagundi auen egitekoa zan baita elbarri ta gaixo txiroei laguntzea ere' Donibane Leonardi bere izurrite batean gaixoe

zaintzen arrapatutako kutsuz zan karitatearen ziñopa, martiri.

Arantzazko bizimodu latza eraman bear izan zuan Donejosepe Kalasanzarrak. Aragoi'ko Jaurerrian jaioa zan' Filosofi eta Teologi jakitez ondo apaindua, "Doktore" edo "Irakasle" maillaraiño iritxi bait zitzaigun'

Mutiko txiroen ezitzera betiko ziñez lotu zitezen laugarren eskeintza bat eskatu zien bere lagundikoei: erakustearen truke dirurik iñoiz ez jasotzeko eskeintza. Pozik ikusi aal izan zuan Donejosepe'k nola zabaltzen zan berak sortutako Lagundia Itali'n aurrena, eta gero Boemi, Morabi, Ungari, Poloni, eta Españi'n, V Paui eta XV Gregorio Aitasantuen laguntzari eskerrak. Eta, Lagundiaren Zuzendari Nagusi VIII Urbano'k izendatu zuanean, bazirudian argi eta atsegiñ agertzen zitzaiola etorkizuna'

Baiña..., laister jausi zitzaion gaiñera eraso beltza. !Bere "seme" batek, Sozzi napolitarrak, salatu zituan Inkisizioaren aurrean Aita eta Lagundia!'

Irurogeita sei urte zituan Donejosepe'k inkisizioaren epaimaiaren aurrera agertu bearrean aurkitu zanean' Urte bete geroago eman zuan Inkisizioak bere epai-itza: Donejosepe'ri Lagundiaren Lendakaritza kentzea eta Lagundi beraren bizikera aztertzeko Silbestre Pietrasanta josulaguna ikerlari edo bixitadore izendatzea' Ikerlari onen aburua, aurkakoa izan zitzaien Donejosepe'ren semeei; baita aburu onen ondoriozko Inkisizioaren epaiketa ere.

Gogor jokatu zuan X Gregorio'k. Eskubide guztiak kendu zizkion eskolapioen Lagundiari, eta apaiz-lagunarte uts biurtu zuan. "Jaunak eman zidan, Jaunak kendu dit. Bedi onetsia aren izena" esan omen zuan 80 urteko Donejosepe Agureak.

Bere Lagundia deseginda ikusirik il zan gizagaxoa, larogeita amabi urtekin, naigabe aien zamaren azpian. Ez zuan mundu oritan bere Lagundiaren berbizkunderik ikusi, berbizkunde au zortzi urte geroago gertatu bait zan, Alexander VII'aren bulda baten bitartez' Eta egin dute gerontzean lan ederrik ugari, bai orixe!, Kalasanz'eko Josepe Deunaren seme bikaiñek.

* * *

Orrelako seme-alabak eundaka eta millaka sortzen zituan Eliz ura, usteldurik zegoala esan ai dezake iñortxok? Baiñan, alataguz Eliz aren igalirik alaigarrienak ez dira kristaudi zarrean irten zitzaizkionak, jentillerri ezagutu-berrian sortutakoak baizik: mixioeta-koak.

MIXIOAK

Pozik asiko gera mixioen istoria kontatzen' Ain bait da alaigarria protestalaritzaren iraulketa asi baiño len Eliza katolikoak mundu guzira ebangelioa zabaltzeko izan zuan leia' Ez zegoan, ez orixe, **Bir-**jaiotzako Eliz loitu ura.

Ain zuzen ezagutu berria zan, Españietako Jaurerriei eskerrak, ludiaren zabalera.

Portugal, Portugal txiki, xalo, bizkorra, izan genduan munduari neurria artzeko ekintza ortan aurrenekoa' Koldobika l'a Abis'tarra (1383 - 1438) izan zan, gaztelarrak Alxubarrota'n zapalduta Jaurerria sendotu zuan ezker, "Kristo'ren aintzarako", Europa'tik Portugal'eko gudariak lendabizi atera zituana, Afrika'ko ipar-muturrean Zeuta'ko uria arrapatzeko (1415)'

Amabosgarren mendearen aurren-aurreneko urteetan asi zan, beraz, Portugal'en lur-irabazteen edestia.

Jibraltar'ko Itxas-lepoaren giltza dalako, garrantzi aundikoa zan kristaudiarentzat Zeuta. Ain zuzen uri orren arresien azpiko borroketanegin zan ospetsu Koldobika l'aren seme baten izena. Enrike "Printzipe Mariñela" deitu oi dio seme orri edestiak.

Baiña ez zan gudazalea Enrike printzipea. Jakintza, ta batez ere itxaso-jakintza, ta itxasoa bera, eta itxasoko zabaltasunak gorde zezazkean mltxerioak ezagutzea ziran Enrike'ren zaletasunak. Ikasketa oietan aritzeko eraiki zuan Portugal'eko ego-egoan Segres'ko Itxas-lkastola ospetsua. Ikastola ortan berritu ziran itxasoko mapa zarrak, ta an asmatu zuten mapa oiek egokiago edatzeko era berri bat; irten zan mariñel treberik ere ikastola artatik.

Mariñel oietan iaioena ta au sartiena, Printzipea bera; ikasi ta erakusteak laga-ta, sartu bait zan bein baiña geiagotan "Mare Tenebrosum", "Illunbeko Itxasoa" zeritzaion urezko zabaldi ezezagun artan "illunbe" aiek argitzera.

Ta baita argitu ere zati ederrean, bera il zanean (1460) ezagunak bait ziran kristaudiarentzat Atiantiar-itxas zabalaren erdian dauden Azoretako ugarteetatik asita Ginea'ko Kolkoaren barrurairño dauden lur eta ur guztiak'

Urruti-rrnifi aundia sortu zuten Portugal'en Enrike Printzipe Mariñelaren idoroketa auek, eta, 1487'an beste itxas-buruzagi trebe batek zabaldu zuan egoaldeko itxaso ta lurren ezaguera: Diaz'tar Bartolome'k; urte ortan bertan inguratu bait zuan "itxaropen Onaren" Furrnuturra; Afrika'ren azpiko puntta.

Ez zioten Bartolome'ri bere mariñelak aurrera jarraitu nai izan, baiña irikita zegoan Sortaldeko indietarako bidea.

Andik bost urtera iritxi zan Kristobal Kolon'darra, Gaztela'ko Elisabete lenengoaren izenean, Antilletako ugartetxo batera. 144532'ko urrillaren 12'a zan. Irikita gelditzen zan Sarkaideko Indietarako atea ere.

Ez ziran portugaldarrak sortaldeko bidean gelditu; ez gaztelarrak ere sarkaldeko atean. 144538'an iritxi zan Garna'ko Basko portugaldarra Indrra, Malabar'ko Kalikut urira. Bi urte geroago (1500) jritxi zan Brasilrera Portugaretik Alvarez-Cabral mariñela' 1511'ean artu zuan Portugal'entzat Alburkerke'k Goa'ko uria.

Goa izanen da, aurrerantzean, sorkaldean portugaldarren Uriburua. Urte ortan bertan artu zuten (Portugaldarrek) Malaka. Urrengo urtean berriz (1512) Zeilan, Molukak, Jaba, Sumatra, Zelebeak eta Borneo. 1517'an Txina'rekin salerosketan asiak ziran, eta laister egin zuten berena Txina'n bertan Makau uria.

151453'an ipiñi zuan oiña Ernan Cortes'ek Mexiko'ren itxasertzetan, eta 1531'ean asi zuan Frantzisko Pizarro'k Peru'ren arrapaketa. Ludiaren beste aldean berriz portugaldarrak 1542'a ezkerro Japoin'ekin artuemanetan zebiltzan'

Asiera-asieratik joan ziran lur urruti aietara, mariñelekin batean, mixioiariak. Kristaugintza-lan ontan ere portugaldarrak izan ziran aurrenekoak; eta ango beste apaiz eta praille guztiak baiño leenago "Kristo'ren Anaidiko Lekaide Zaldunak'" Ain zuzen Enrike Printzipe Mariñela ere Anaidi ontakoa zan, eta Anaidia'ren Maixu Nagusia izana gaiñera.

Aipamen aundia izan zuan beti Erroma'n Portugaleko "Lekaide Gudaegilleen" Anaidi onek' Aren eskuetan ipiñia zeukaten aspalditik aitasantuek, sarkaldean kristaudiko lurak Afrika'ko mauritarren atzaparretatik iare gordetzea. Ta orain, Enrike Printzipe Mariñela lur be-

rriak argiraten asi zanean, 111 Kalixto'k Kristoren Anaidiari eman zion lur berri aietako Elizaren "Zaindaritza; eta baita animen arazoetarako eskubide oso eta guztiak ere.

Ori izan zan Portugal'eko Erregeen "Padroao" edo Eliz-Zaindaritzaren oiñarria; Erregeak Kristo'ren Anaidiaren Maixutza Nagusia beretzako artzean, bere egin bait zituan, Anaidi onek Elizako gauzetarako zituan eskubide guztiak.

Eskubide ta almen berak eman zizkion VI Alexander'ek Gaztela'ko Erregeari, Kolon'ek Amerika aurkitu zuanean. Portugaldarren itza bera gazteleratuaz, "Patronato" deitu zioten Zaindaritza orri gaztelarrek.

"Zaindaritza" ez zan txantxetako gauza. Kontzientziko karga la-tza ipintzen zuan Erregeen bizkar-gaiñean, aien eskuetan uzten bait zuan Aitasantuak Mundu Berrien salbamena.

Aitasantuak, Kristo'ren ordezeko lez bere kontzientzian zuan erantzunbearra, Erregeen kontzientzira pasatzen zuan' Orregaitik deitu zioten kanonlariak "zaindaritza" arri "Vicariatus Regius", "Erregeek artutako Ordezkaritza", Aitasantuak bere ordezeko egiten bait zuan Erregea Ebangelioaren zabalkunderako.

Baiña aundia ba'zan kontzientziko zama, aundiak ziran Erregei zaindaritzatik zetorzkien bentajak ere. Ona Erregeen eginbear eta karguak:

—Lurralde berriak kristautzea' Ori izanen .zan Erregeen lenen-lenengo eginkizuna.

—Mixiolariak billatzea, bidaltzea, babestea.'; eta beren bizitzarako bear zuten guztia ematea.

—Gotzaitzak eta Parrokiak eta mixio-etxe guztiak eta mixioetako lan eta ekintza guztiak sortu zezazketen gastu guztiak ordaintzea.

Erregeen ardura zan, ikusi daitekeanez, Mundu Berrietan Ebangelioaren ereintzak eta Elizaren bizitzak berekin daramazkian ekonomiko korapillo guztiak egoki askatzea. Baiña ikusi nolakoak ziran Erregeek jasotzen zituzten arnariak; Erregeen eskubidekoak bait ziran:

—Eliz-barrutien mugak ezartzea ta, bearrezkoa zanean, muga oiek aldatzea.

—Eliz-barruti oietako gotzaiak aukeratzea.

—Mixioetara apaiz eta prailleak, naiz auen agintariak nai izan ez, mixiolari bidali aal izatea'

—"Benefizio" edo Elizan "diruz ordaindutakoak ziran kargu" guztietarako pertsonak aukeratzea.

—Elizaren amarrenak, danak, beretzako jaso ta gordetzea'

Esan dezagun egiaren omenez, aurreneko aldi luzean beintzat, benetan artu zuala Errege bakoitzak bere kontzientziaren zamarik astunena bezela Mundu Berriaren salbamenerako Aitasantuaren "Bikario" edo "Ordezkar" izate ori, azkenean Erregeen zaindaritza Elizarentzat kaltegarria izan ba'zan ere.

"Ez dut iñontxo ere Errege izan nai, Kristoren aintzarako ez ba'da" esan oi zuan Jon III portugaldarrak' Ala izan zan Xabier'ko Frantzis'koren adiskide zintzoa.

Bai Toledo'n edo Madrid'en, bai Lisboa'n, Españietako Erregeak, biak, egiazko kristauak ziran, beren akats-eta-guzti, eta, **Eliza**-ren maitaleak. Errege aukeratu zituzten gotzaiak, eta mixioetara bidali zituzten ebangelariak, gizon egokiak izan ziran; dudarik gabe, Alexander VI'ak, Leon X'ak edo Klemente VII'ak aukeratuko zituztenak baiño askoz obeak. Auen ondorengo Aitasantuen artean ere, bategen baiño geiagok, neurri gabe aberats ziran lurralde aietako Gotzai-Aulkietan ez ote zituzten beren semeak, beren illobak, edo beren lagun txepel biurri aietakoren batzuk eseriko?

Lotsagarri da aitortu bearra, baiña Birjaiotzako Aitasantu askok baiño konfiantza geiago damaio edestilariari, Portugal'eko Jon Ira, Manuel ra, Jon Sebastian I'a edota Gaztela'ko Isabel I'a, Karlos ra, eta Felipe tra bezelako Errege batek. Alako maitasunez artu bai zuten aukeratu munduaren ebangelizatzea!

Onuragarri izan zitzaion, beraz, asieran, kristautasunaren zabal-kundeari erregeen "Zaindaritza".

Erregeen eskuetan Aitasantuek orrelako eskubide aundiak ipintze ori ontzat artuarazteko, bi arrazoi aukeratu ipini oi dituzte edestilariak:

—Aitasantuek ez zutela ain mixio-lur zabalak kristautzea kostako zana ordaintzeko dirurik.

—Elizaren eraberritze eta protestalaritzaren zapalketako lanetan osoro sarturik zeudelako, Aitasantuek ez zutela astirik mixioetako ekinga bear bezela aurrera ateratzeko.

Sakonegiak eta ustelegiak iruditzen zaizkigu bi arrazoi oiek; ez zitzaizkien Aitasantuei edo Erregei, ez bata ta ez bestea, gogora etorri ere! Azkoz ariñagoa, axal-axalekoa, bait da gure ustez egiazko arrazoiak; auxe: Oitura. Denbora aietan oitura zala sinismenaren serbitzurako Erregeen indarra ta almena al zan geiena erabiltzea.

Aiztintxe aipatu dugu protestalaritza; geldi gaitezen ontan unetxo bat, badugu zerbait argitu bearra-ta'

Gure ustez merezi ez duten kargua bota oi zaie, mixioetako arazoari buruz, lutertarrei eta kalbindarrei: Ez zituztela mixioak aintzat artu.

Eliza katolikoaren mixiolaritzaren udaberri miragarri ura ikusteak damaien pozak lilluratzen ditu edesti-idazle katolikoak. Mixiolaritza Eliza Katolikoaren bakarraren aintza bereizia Izan zala diote. Ta egia da ori' Ez omen zuten Iutertarrek, edo kalbindarrek, edo angiltarrek mixiolaritzaren bearrik sumatu ere. Egia noski. Baiña egia da baita, gure iritziz, ez zutela orrelako beartasunik sumatzeko erarik eta abagunerik izan ere.

Sortu berriak zituzten oraindik Martin Luter'ek eta beste protestalariak, bakoitzak bere Eliza, eta bazuten naiko lan Eliz gazte naasi aiek zuzentzen, sendotzen, eta bizirik gordetzen, urrutietako eginkizunetan pentsatu gabe; ez bait ziran arrisku makalak eta arerio kaxkarak bertako Kanisio, Belarmino, eta Frantzisko Sales bezelako teologilari katolikoan arrazoiketa ta apostoladutza, Aitasantuengandiko tximistak, eta, geiago edo gutxiago, beti etsai izan zituzten España'ko, Frantzi'ko eta Poloni'ko Erregeen ta Alemani'ko Inperatoreen indarrak.

Mixio-lurrak, gaifiera, katolikoan eskuetan zeuden' Errege katoikoak ziran lur aien danen nagusi. Ta nolako Errege katolikoak gaiñeral Portugal'eko eta Gaztela'ko erregeak!

Ez zeukaten, beraz, protestalariak lur aietara mixiolari bakar bat bidaltzerik. Amerikak Alemanrko Priñtzipe lutertarren eskuetan egon balira, juste al dugu Martin Luter artalde berri aietara artzairik bidali gabe egongo zanik? Edota Lurralde Beekoetako Probintzi Alkartuen Errepublika kalbindarra lenxeago jaio balitz, eta Sortaldeko lurrak Oranda'ko Zelanda'ko eta Frixi'ko maririelek idoro ta arrapatu izan ba'zituzten, zillegi al zaigu, Jon Kalbin'ek bere "Presbiteru-Eliza" lurralde aietan, Indietako lur aietan ezartzeko alegia, deus egingo ez zuanik uste izatea?

Esan dezagun beste gauza bat ere, Mixiolaritza, Aitasantu ta Errege guztien gaiñetik, apaiz eta prailleen ekintza izan zan, eta aue-na da meriturik aundiena. ,Nork lezazke maitasunaren txapeldun aiek danak zenbatu? Ozeani'ko ugarte urrutienetan, Ameriketako oianetan, Afrika'ko basatien artean, Asi'ko jakintza zarrez ornitutako urietan..., ludi guztian ikusi dezazkegu Birjajiotza'ko mixiolariaki

"Kristoren Zaidundiko" lekaide gudariak eta lekaide apaizak izan ziran Afrika'ren lenengo bataiazailleak. Bernardo Boil, montserrat'eko beneditarra Ameriketara lenengo meza eman zuana eta lenengo bataioa egin zuana: Aiti'ko ugartean. 1494'aren ilbeltza'ren 6'a zan meza ori eman zan eguna. Bigarren aldiz Kolon Ameriketara etorri zanean, Erregearen aginduz etorri zan Kolon'ekin beneditar ori, eta berekin itzuli zan urte ortan bertan; baiña ez lenago esan dugun lez lert-dabiziko ameriketarra bataiatu gabe'

1502'an iritxi ziran Aiti'ra 17 frantziskotar. Laister zituzten atzetik domingotarrak eta agustindarrak. 1516'ean Zisneros Kardenalak, Gaztela'n Agintari zala, Ameriketara zijoazen ontzi guztiek mixiolariak eramane zituztela agindu zuan. Era berean sa laztzen ziran Portugal'eko erregeak Afrika'ko, Asi'ko, eta Brasill'eko lurretara fedea zabaltzen.

Apaiz, lekaide eta praile-mota zar eta berri guztiak sartu ziran leiaketarik bizkorrean mixiogintzako bearkizun ontan, baiña batez ere Eliza'ko lau Anaidi Mixiolari zaar aundiak: frantzisko, domingo, agustin eta karmeldarrak. Bereala, Frantzisko Xabier'koa aitzindari zutela, iñakitarrak.

Bene-benetan izango litzake gauza atsegIña, ludiko txoko izkutu guztietan mixiolariak egin zituzten lanak urtez-urte danak aipatzea eta danen kontua zeatz ematea, baiña eziñezko gauza genduke, mixiolariak zuten egintzaren aunditasun arrigarria bera bait da ortarako eragozpenik menderakaitzena.

Zabaltasun izugarriak ibilli zituzten urez, aizeak bultzatutako ontzi koxkor ariñetan, lurrez oiñutsik, ezpatik gabe, gurutzea beste gabe; oiñez, zer janik ez zeramakitela, eguzkiak kixkalitako ondar legorren gaiñean, edo pixtiz betetako, biderik gabeko, baso bero ffirrintsuetan'

Esan bearrik ez da, gizon maitagarri aien neke ta oiñazeak ez zira la noski txikiak izan. Askok eta askok eman zuten bizia Ebangelioa zabaltzeagaitik.

—Konta ezin ala dira gizon onuragarriak, mixiolari aien artean' Aipa ditzegun batzuk: Gante'ko Kepa, Balentzi'ko Martin, Benabente'ko Toribio, Zumarraga'tar Jon, Durangoko semea, —danak frantziskotarrak—, Mexikon.

Benabente'ko Toribk)ri, "Motolinia" deitu oi zaio, lurralde artako izkuntzan "Txiroa" esan nai dun izen apaiñ ori ipiñi bait zioten inditarrak, praillearen txirotasunaz arrituta. Jon Zurnarraga'tarra, Mexiko'ko

lendabiziko Gotzaia izan zan.

Frantziskotarrak ziran, Tukuman'en bere bizitza miragarri egin zuan Donefrantzisko Solano'tarra, eta Luis Bolaño, Paraguay'en 20.000 inditar bataiatu zituana.

Domingotarren artean aipagarriak ditugu Kolonbi'n ibillitako Tomas Ortiz, Jeronimo Loaysa, Bartolome Hojeda, Luis Beltran Donea... Toribio Mogrovejo Donea Peru'ko lenen Gotzaia izan zan.

—Agustin Donearen semea zan Kolonbi'n 8'000 bataiatu zituan Alfontso Gurutzekoa. Baita ere Filipinetara lendabizi iritxi zan mixiolaria: Andres Urdaneta ordiziarra, kosmografilaria.

Mertzedarioa zan berriz Txile'ra aurrena iritxi zana: Antonio Correa.

—iñaki Loiola'koaren semeen artean beste euskaldun bat dugu gaillurrena: Frantzisko Xabiertarra, baiña bere kidekoak dira beste izen aundiko mixiolari batzuk ere: Roberto Nobili, Mateo Ricci, Benito Goes (Tibet ezezagunera lendabizi sartu zan kristaua), Alexander Valignano, Ruggieri, Longobardi, Terentius, Rho, Kofler, Verviest..., Sortalde Urrutian lan egiñak danak. Afrika'n ibilli ziranetan ospetsuenak: Gonzalo Silveira (Mozañbiketa eta Zanzi), Vaz (Kongo), Barreiro (Ginea)...; Eta Ameriketako saillean, Kepa Claver Deuna Kolonbi'n 300'000 jopu beltz bataiatu zituana, esan oi danez; Valdivia, ta Rosales, Txile'n' Aurrenekoak, Vaidivia'k, 4.000 bataiatu omen zituan, eta bigarrenak 10.000. Lallemant, Masse, Brebeuf, Lejeune, Noue, eta Kanada'ko martiri guztiak, Iparrameriketan; Nobrega eta batez ere Anxtieta, Brasill'en' Etiopi'n, Nuñez Barreto, "Jon Apaiza'ren Erreinua" deitu oi zitzaion Etiopi artarako lendabiziko Patriarka edo Eliz-Guraso izendatua, eta aren bi Gotzai laguntzalleak: Oviedo ta Carneiro.

Nuñez Barreto'k, —Goa'n il bait zan—, ez zuan bere mixiolurrean oiñik ipintzerik izan' Oviedo dugu, orregaitik, egiaz, aurreneko Patriarka. Etiopi'ko mixiolari ospetsuak dira Paez eta Mendez ere.

Mixiolari danak ziran benetan egiazko apostoluak. Bi frantziskotarren artean egun batean 8.000, edo 10.000, edo 14.000 milla bataio egitea ez omen zan arritzeko gauza. Esazu, nai ba'duzu, bataio aiek ariñegi egiñak izan zirala, baiña numeroak oker jasoak dirala ez deza-kezu esan, dokumentu berezietan argi ta garbi agertzen bait dira' Xabier'ek berak ere, bein baiño geiagotan besoa beera jausitzen zitzaio- la, ainbeste bataiokeztaz nekatuta, idatzi oi zuan'

Gizon jakintsuak ziran gaiñera mixiolariak, eta erneak; langille geldikaitzak'

Izkuntza zaillak ikasi bearrean aurkitzen ziran, lanean asi aurretik, eta izkuntza bat baiño geiago gaiñera, an, aran batetik bestera, ai datzen bait zan izkera' Mixiolariak izan ziran izketa aien lendabiziko iztegi ta gramatika edo eliztiak idatzi zituztenak. ilgarri al dezakezu zenbat ziran Ameriketako, Ozeani'ko, Afrika'ko eta Asi'ko tribu edo sendisailletan erabilli oi ziran izkerak?

Mixiolarien lana ez zan sinismena aldarrikatzea bakarrik' Jentil aiek asko basatiak ziran; kulturaren arriaroan zeuden erriak. Mixiolariak ateratzen zituzten, gaitzak eta goseak jota bizi oi ziran jende errukarri aiek, oian eta basoetatik. Mixiolariak erakusten zieten irakurtzen, idazten, lurra lantzen eta aberezaintzan, zurgintzan, euntzen, burnilanketan, buztiñezko ontziak egiten, eta baita janariak erregegosten ere.

Mixiolari guztiak saiatu ziran irakasketa auetan; baiña nork ez du iñakitarrak eratutako "Reduccionen" deritzaien "IndiBillera" aien entzuterik?

Ez zan ortan gelditu Mixiolarien irakasketa. Oro, batez ere, domingotarrek lur aietan eraikitako Unibersitateak eta Ikastetxe ospetsuak.

Ez ziran danak ain jakituri motzekoak mixiolurretako erridiak. Gogora dezagun Indi'ko Brajmatarren jakintza zaarra. Japoin'go eta Indotxina'ko Budazaleen filosofia, Txina'ko Konfuziojarrailleen gizadiztia soziologia. Lurralde landu, txukun, jakintsu aietara zijoazten mixiolarien lenengo egitekoa ain mende zaarretako jakintza oparo ura ikastea izaten zan.

Ontan, iñakitarrak izan zitzaizkigun erneenik ibilli ziranak. Ez soilki Sortaldeko jakintza izkutukoi ura ikasten bakarrik, ez; baita jakintza artaz mixioketarako baliatzen ere.

Jakintza aiek ikastea bear-bearrezkoa zuten mixiolariak, lurralde aietako jendearen aurrean beren buruak arlote ez agertzeko. Ez ziran ortan gelditu, ordea, Nobili eta Ricci' Mixiolariak, edonun edonungoa egiñik agertu bear duala bere burua, idatzi bait zigun Paul Doneak, aolku ori egi biurtu nairik, Indrko eta Txina'ko jakintzaz jantzi zuten gure mixiolari aiek beren anitua. Geiago oraindik: Kristautasuna "katolikoa", ots, "edonungoa" dala oroituta, kultura ortaz jantzi zuten kristautasuna ere, Txina'n Txina'koa eta indietan Indietakoa agertu zedin.

;Ai iñakitar guztiak, eta beste mixiolari danak, Roberto Nobili eta

Mateo Ricci'ren bideak onartu balituzte eta bide oietatik ibilli balira!

Mixiolarien egitekoa zan, baita, erriko jende landerrak babestea ere, batez ere Lisboa'ko eta Madrid'ko jaurlaritzen menpera jausi ziran lurralde zabaletan. Ori egin zuan, gogorki gaiñera, Xabier^tek berak. Baiña gai onetan, jakintza-maillean Bitori'ko Frantzisko, eta politika-arloan Bartolome Las Casas domingotarrak izan ziran aitzindari

* *

Asieran ez zan arazo aundirik izan; lenengo mixiolariak Jaungoikoaren seme ta beren anai bezela ikusten zituzten ba lur berrietako jendeak' Baiña laister asi ziran, Bartzelona'tik Lisboa'ra, Españietako jaurerri guztietatik "kolonuak" ("lur-urratzaileak") etortzen.

Gizakume aiek aberastasuna nai zuten, al zan azkarren eta errexen irabazitako aberastasuna. Ta orduan asi ziran iskamillak,

Erdiaroko jaun feudalarrien antzera joaten ziran Indietara, lur-urratzaile aiek, bakoitza bere lurraren gaiñean zeuden gauza, abere, eta jende guztien jaun eta jabe izatera. Erregeak berak ematen zion bakoitzari lurraren, eta bertako gauzen nagusitasuna, eta jendeen "Ardura". (Gaztela'ko legeen izkeran "Ardura" arri "Encomienda" esaten zitzaion. "Encomienda" zan Ardurapean ipiñitako lurra ere. Eta Ardura artzen zuan lur-urratzaileari, "Encomendero" esaten zitzaion).

Bear ba'da, —kristau bait ziran sentimentuz Erregeak—, arduraketa ori ematean, legearen asmoak zuzenak ziran: Inditar "lander" "gaixo" aiek nagusi .kristau baten ardura-pean ipintzea eta nagusi kristau auek, legearen indarrez, inditarren ardura artzera beartzea. Baiña, asmoak asmo, legeak ekarri zuana, inditar jentillak nagusi kristauen jopu biurtzea izan zan.

Nagusi kristau auek beren buruen aberastasunerako zuten, ardura guztia. Aberastasun ori lortzeko, beren ardurapeko inditar aiek lanean ipiñi bear zituzten, ez bait ziran berak, —menderatzaileak, "los conquistadores"!—, Ameriketaraño lan-egitera joaten. Ta..., laister aberastu nai ba'zuten, gogor egiñarazi bear zieten lan beren jopuei. Errukarria izan zan inditar gaixoen biziera.

Baiña Ameriketako gizakume lander aiek ez zuten lan gogorretarako balio. Nekeak aulduta berealaxe iltzen ziran. Afrika'tik ekarri zituzten orduan, "Arduradun" kristau aiek, jopu berriak millaka ta milla-

ka; jopu beltzak.

Pistiak bezela arrapatzen zituzten, Saara'ko basamortutik egoalderako baso zabaletan, mutil indartsu bizkorak, neska eder liraiñak; Aragi ustela lez eramaten zituzten ontzien sabeletan pillotuta, erc40-serik, Ameriketaraño; An azoketan salduak izaten ziran gero, "arduradun" aien lurretan abereak bezeia lan egiteko.

Ara nola sortu zan, kristaudiaren lotsarako, amaseigarren mendean, erromatekoaren antzeko beste joputza "kristau" berri bat. Afrika'ko ta Ameriketako gizasemeak lanerako, eta gizalabak, ogerako; beste ernerik ez ba'zan, emaztetarako; baiña geienetan, maitakeri lizunetarako. Orrela ikusiko duzu gaur ere Amerika. Iparrean eta Egoan, zuriak nagusi: Europa'tik emakumerik naiko joandako lurraldeetan, odol-nasketank gabeko jendeak. Emakume zuri askorik izan ez zan erridietan; odol zuriko sendi-ale batzuk nagusien maillan, jende landerraren sail konta-eziñean berriz, odol guztien nasketako gizakumeak, bizimodurik beartsuenean.

Ez ziran gauzak garai artan gaur bezain argi ikusten. Teologilariak eta Lege-Irakasleak berak, zalantza-arteak galdurik ibilli ziran.

Izan ere... ezer eskubidez egin ziran Portugal eta Gaztela lurralde aien jabe? Jende arruntak ez zuan orrelako galderik egiten, baiña teologilariak bai.

Gaztela'ko ta Portugal'eko Erregeen urez-andiko arrapaketa aiek "legezko" egin bearrean aurkitzen ziran Koinbra'ko eta Salamanka'ko jakintsuak, arrapaketa aiek lapurreta gorri ager ez zitezen. Baiña ortarako punttu batzuk argitu bearrean aurkitzen ziran aurretik:

—Afrika'ko beltz aiek eta Ameriketako Indijendea..' zer ziran? Abere utsak? Gizakumeak? Iñoiz ordurarte ezagutu ez ziran abere ta giza arteko izaki ulerkaitzak? Bai ote zuten animarik?

—Egiazko gizakumeak ba'ziran, bai ote zuten adimenik naiko, gizakeraz bizitzeko?. Jaungoikoaren legea eta gizarteko arauak betetzeko?, Europa'ko jakintza ikasteko edo gutxienez Españietako langilleen modura lan-egitera iristeko bai ote zuten gaitasunik? Eta, egiazko gizakumeak ba'ziran, bai ote zuten beren buruen jabe izatera iristeko bear aiñako "gizatasunik"?

—Basati batzuk kulturazko biziera garaiago batera ekarrinaia, aguda bat egiteko bai ote da naiko arrazoi?

—Eta..' aKristautasuna zabaltzea? aErrege kristau batek eraso al dezazke gudaz jentill auek, Kristoren erreñura erakartzeko?

—BaI al dute almenik Errege Kristauek, izadiaren legeen aurka oben-egiten duten jentillak zigortzeko? jentil oiek Errege aien jaurrerietako mugetatik kanpo bizi diranean ere bai?

Galdera auek danak egiten zizkieten beren buruei orduango jakintsuek.

Zorionez, bereala argitu zuan Elizak, zalantza oien danen artean, bere bidea. Baña ez osoki, (laister ikusiko dugun bezela)' Bere garaieko kulturaz landa ez bait daiteke iñor ibilli! Ezta Eliza ere!

Aitasantuek ez zuten zalantzarik izan: Alexander VI'ak, Paul III'ak, Pio V'ak, Gregorio XIII'ak argi erakutsi zuten, itxasoz beste aldeko jende aiek danak egiazko gizakume osoak zirala. Onuragarri da, gai ontan, 1537'ko, Paul III'aren Bulda. "Veritas Ipsa", "Egia Bera", deritzaio Bulda orri; egoki gaiñera, inditarrak osoki gizon diralako ori, "Egia Bera" dala bait dio. Orixe bera pentsatzen zuan Alexander VI'ak 144533'an, Kolon'ek Ameriketak idoro bezain laister. Aurreneko punttua (inditarrak gizakume osoak zirala ederki argitu zuten Aitasantuek; eta teologilariak. Ez ala beste aiek, Bitorrko Frantzisko'k eta Kaietano'k izan ezik.

Dotriña kristaua osoki ikusi eta irakatsi zuten teologilarien artean, aipatu dugu Bitori'ko Frantzisko' Aipa dezagun Kaietano Kardenala ere: "Idoro berrietako lurraldeetako jendeak ez dira, ez izatez ez izan-bearrez, kristaudiko Erregeen mendeko. Ez zaio beraz Errege kristaulari, ez zaio Inperatoreari, ez zaio Elizari ere, jende oiei gudarik egitea zillegi" zion Kaietano'k 1517'an.

Mixiolari guztiak izan ziran —naiz gogoeten maillean gauzak Bitori'ko edo Gaeta'ko bi domingotar ospetsuek bezain garbi ez ikusi— beren mixiolurretako bizimodu ta jokaeran, jentill guztien gizatasunaren aldeko eta jopu ta lander guztien laguntzaille. Mexiko'n bakarrik izan zuten zaiantzaldi bezelako zerbait, une batean ez bait ziran mixiolari batzuk inditar kristauei Eukaristia ematera ausartu, eta uri artako Sinodo batek (1555) inditarrei apaizgoa ematea ere galerazi bait zuan.

Mixiolari guztien artean Bartolome de Las Casas izan zan gai ontan ospetsuena dudarik gabe. "Encomendero" edo "Arduradun" zela iritxi zan Ameriketara. Inditarren Bizitza ikusi zuanean, zan, eta bereala sartu zan gizadi errukarri aren aldeko lanketan;;4a.;; rretu zitzaizkion españatarak; baiña ez zuten Bartolome Ikaratu: *Zai.* zen España'ra etorri zan, Zisneros Kardenal erregeordezkoarengaria Eman zion onek, leialki, bere laguntza; baiña ez bait zuan naikoa Ameriketara itzuli ondorean, (apaIz soil bezela baiño prailleen bizkor baten barrundik obeki inditarren alde lan egin izango ta), domingotarren Ordenean sartu zan; Bitori'ko praille eta Gaeta'ko Kardenalaren Lagundian.

Bere alde izan zituan Aita Bartolome'k Erregeak, auek Ameriket-
tan zezaketen almenaren aurka ez bait zan beiñere, Bitoriko Frantzis-
ko bezela, mintzatu. Bai Karlos Inperatoreak, bai Felipe II'ak, begiru-
ne aundiz irakurri zituzten beti domingotar aren idazti sutsuak, eta
arras biguindu zituzten inditarren alde Gaztela'ko legeak. Bartolome
bera Txlapas'ko Gotzai izendatu zuan Karlos'ek.

Baiña legeak lege, Ameriketan len bezela ziarduten gauzak. Oste-
ra berriz Espafirra itzuli bear izan zuan Bartolonne'k, espaiñarrek Erre-
gearen etsaitzat salatu bait zuten.

Errugabe aurkitu zuan Karlos Inperatoreak Txiapas'ko Gotzaia.
Baiña Aita Bartolome ez zan ostera bere Mexiko'ko elizbarrutira itzuli'
Inperatorearen alboan gelditu zan, emen inditarren alde obeto lan
egingo zualaren ustean. 80 urte beteak zituan Felipe II'aren aolkulari
bezela oraindik Ameriketako ume gaixoen alde Erregeari itzegiñaz ja-
rraitzen zuanean.

Las Casas'tar Bartolome'ren lanik ederrena, bere "Breve relación
de la destrucción de las Indias" deritzan liburua da: "Indiak nola de-
segiten ari diranen kondaira laburra". Liburu orren ardatza auxe duzu:
"Españi'ko Erregeak Indietako Errege izateko arrazoi bat besterik ez
du: jentillak diran inditar aiek kristau biurtzea".

Badu beste liburu bat ere: "Historia apologetica de las Indias",
"Indien defentsarako edestia".

Idazti oietan bildurrik gabe aizatzen bait zituan espaiñarrek egin
zituzten izugarrikeriak, ez ziran "Conguistador" eta "Encomendero"
edo orrelako jende klaseak bakarrik izan bere aurka irten zitzaizkio-
nak. Gorrotorik naikorekin eraso zioten elizgizonek ere' Ta gaur orain-
dik ez diote espaiñakerizaleek barkatu. Baiña Aita Bartolome'ren aur-
ka ateratzen dituzten arrazolak, ez dute indarrrik:

—Numeroak, milloietaraiño jasoaz, geiegi puztutzen omen ditu.
Ori egia da. Garai artan numeroei ez zitzaien geiegizko begirunerik.
Arreta estuz neurtutako zenbaketa zorrotz baiño gelago ziran aunditasu-
na edo ugaritasuna ulert-errexu egiteko adigarri edo metafora. Orrela
erabiltzen ditu numeroak Aita Bartolome'k' Orrela orduango beste
edestilariek. Orrela mixiolarietate ere, beren bataiaketen numeroak
aipatzen dizkigutenean.

—Gauz ikaragarriak idazten omen ditu. Ta ala da; benetan ikara-
garriak. Baiña ikaragarrikeri oiek egiaz gertatutako gauzak dira. Gaur-
gaur bertan, Franko'ren gurutzadakoa gure begien aurrean gerta di-
ran gauzak aztu ez ditugunok, ez dugu noski Aita Bartolome'ren itzik

zalantzan ipiñiko' Oroi dezagun gaiñera garai artan Pizarro Buruzagiak berak Ataulpa Inperatorea, traizioz atzipetu ondorean, emandako itz guztiak zapalduaz makil zorroztu baten punttan eserI zuala, ta antxe laga zuala luzaroan, makill arek, esteak-gora astiro zulatuaz, bizia kendu zion arte.

Ots ordea!. Ez dute Españi'ren etsaiek zertaz pozturik. Ez dute Españi'ren maitaleek ere bereiziki lotsatzeko ziorik. Okerkeri oiek ten, beste jatorri guztietako jendeak ere ez bait dira motzak izan.

Lotsagarriagoa bear zaigu kristauoi, makurkeri oiek danak, Mundu Berria Kristo'rentzat irabaztera joan zirala ziotenak egiñak dirala apalki aitortu bearra. Orregaitik alaigarri zaigu, mixiolariak beintzat, Indietarako jende zorigaitzeko ura babesten egiaz saiatu zirala jakitea.

Baiña teologilariak, ia danak, ontzat ematen zuten lurralde aien arrapaketa' Batzuek, teokrazileek, Aitasantuak, ludi osoaren Errege zalarik, lurralde aiek Españietako agintariei eman zezaiezkeala pentsatzen zutelako. Beste askok, sinismena zabaltzearren guda egitea zillegi zala uste zutelako.

Zorionez ez ziran teologilari danak orrela sentitzen zutenak. Ikusi dugu Kaietano'ren iritzia. Baiña gai ontan egokien itzezin zuana Aita Frantzisko Bitorl'koa izan zan. Onek aurkitu zituan zuzentasunaren izenean, arrapaketa aiek danak gaitzesteko oraindik zutik dirauten arrazoi jatorrak.

"Papa non est rex mundi", "Aitasantua ez da munduko errege" erantzuten zien teokrazi-zaleei. Sinismena aipatzen zutenei, berriz, ez dala —esaten zien— sinismena, Erregeari eskubideak ematen dizkiona; erria dala, erriaren naimen lar.ea.

Benetan da zorrotza ta egokia Bitoriarraren pentsakera. Ikusi bere muiña bi punttutan:

—Lenengo punttua: "Potestas", "Almena", guk "Autoritatea" esango gendukeana, "Aginmena", Jainkoagandikoa da. Baiña Jainkoa'k ez dio Berak iñungo Erregeari zuzenenan ematen, jaiotzak ez bait ditu batzuk nagusi ta besteak jopu egiten, danak iareak baizik. Jaungoikoa'k "Potestas" ori, "Aginmena", "reipublicae", "erriari", ematen dio' Ta erriak erregeari.

"i Ederki!" (iñardesten zioten erregearen alderdikoek). "Inditarrak berak aukeratu dituzte gure erregeak beren "erregetzat".

Ondo dakigu danok gaur, au egia ez dala. Bitoriarra, ordea, ez zan, au egia zala-edo-ez-zalako eztabaida alperrikakoan sartu, bai bait

zuan esamesa oni aurpegi emateko arrazoi bikaiñik! Bigarren puntuan agertzera goazten au, ain zuzen:

—Bigarren puntua: Errege autatze ori, zintzoa eta zuzentasunari dagokiona izateko erriaren aldetik iaretasun osoan egiña izan bear du; ez du bestela baliorik. "Electio voluntaria", "nork bere borondatez egindako autaketa". Inditarrek egin dutela esan oi dan autaketa ori, balio ez duan autaketa da, españiarren izkilluen bildurrak eraginda, askatasunik gabe egiña dalako. "Ez da ere zillegi inditarren buruzagiek gure erregea Indietako erregetzarako aukeratu dutela esatea, buruzagiek ez bait dute berenez, erriaren baimenik eta onespenik gabe, errege bat aukeratzeko eskubiderik" (De Indiis", 24'garren, eta 7'garren numeruak; "De Potestate Civili" 7, 8, 14 ta 23'garrenak.)

Ez zuan orduango Elizak Aita Frantzisko Bitori'koaren erakuskintzarik ulertu. Egia da, inditarren gizatasunaren alde irten zala Eliza, eta ume errukarri aien bizimodua gozoagoa egiten eten gabe saiatu zala, baiña baita egia da, tamalez.

—Ez zuala pentsatu ere Españi'ko ta Portugal'eko erregeen lur-irabazteak zuzentasunaren aurkakoak izan zitezkeanik;

--Sinismena zabaltzeko guda egitea zillegi zalako ustean jarraitu zuala luzaro;

—eta naiz jopu beltzak gizamoduz erabiltzeko agindu, esklabutza bera okerkeria izan zitekeanik ez zitzaiola begien aurrean pasa ere.

Iain zailla bait da, Elizarentzat ere, denbora bakoitzeko illuntasun orokorraren azpian bide zuzena billatzen! iinditarrak babesteko bere aberkideen asarrea betirako irabazi zuan Aita Bartolome Las Casas bera"., Aita Bartolome!!!, ilgarri zitzaizkien lan gogorretatik inditarrak salbatzeko, afrikar beltzak jopu Ameriketara erakartzearen aldekoa izan bait zan'.!

Kristauak izanen dira, bi mende luzeetan beltzak salduaz aberastuko diranak' Ta oraindik itunagoa: munduak esklabutza gaitzesten duanean, ez dira gaitzespenak Elizagandik irtengo, Inghlanderriko "Puritanismoa" gandik eta Europa guziko "Ilustrazio" edo "Argikuntzaren" altzotik baizik. Esklabutza galazi ta debekatzen ere, azkene-koak, beren buruak katolikoenentzat jotzen dituzten bi jaurerriak izanen dira: Portugal eta Espāñi.

Oroiketa samingarri onek akullu izan bear luke Elizaren oarmenarentzako' Eliza da Jaungoikoak izadiaren zertasunean bertan mamitu dituan legeen zentzu-adierazlea. Bere eginkizunik garrantzitsueneta-

koa du, gizadiari argi egiteko Jaungoikoaren itza diran lege oiek izadia-baitan irakurtzea'

Eginkizun ontan, ordea, bein baiño geiagotan utsegin du. Utsegin lezake datozen aldietan ere. Ta agian gaur bertan ere gizarteko bizitzaren zuzentasunarako ain garrantzitsu dan lan ortan utsegiten ari daitekela pentsatzeak, bildur oiñazekorra eman bear lioke.

Pozik aipatu ditugu Kaietano, Las Casas, Bitoria domingotarrak, eta beste Anaidietako mixiolari guztien garaipenak; baiña txit atsegin zaigu euskotarroí mixiogintzan ere, Birjaiotzako mixiolari ospetsu aien artean, bikaiñenetakoak iñakitarrak izan zirala gogoratzea, leen-iñakltar iaia trebe ta ausarti aien atzean Loiola'ko Iñaki beraren izpiritua bait dakusgu; Euskaldun baten anima; Euskalerraren gogoa.

Zalantzarik gabe, aro artako iñakitar mixiolaririk goikoena, beste euskaldun bat dugu: Xaber'ko Frantzisko. Baiña mixiolaritzaren edestirako garrantzi geiagokoak gerta zitzaizkigun Sortaldeko inditarren artean Nobili eta txinatarren artean Ricei.

* *

Euskaldun ororentzat ongi ezaguna dan lez, Xabier'ko gazteluan jaioa dugu Jatsu eta Azpilikueta'tar Frantzisko, Naparroa'ko Erregearen aol'kulari baten semea; Txina'ko itxasertzaren alboko ugarte batean il zan sukarrak menperatuta, morroi batena beste laguntzarik gabe, bere azkeneko otoitzak euskeraz esanaz, berrogeitasei urte besterik ez zituala (1552).

Asko sufrittu bearrean aurkitu ziran Frantzisko'ren senditarrak V Fernando "Katolikoak" lapurkeri bizian, egiazko Erregiñ Katalñ Leengoari Naparroa kendu zionean (1512), Xabiertarrak beren Erregiñaren alde irten bait ziran gudara. Paris`ko Sorbona IkaStola Nagusian ezagutu zuan Frantzisko'k Loiola'ko eta onen lagunetakoa izan zan, Loiola'koak Josu'ren Lagundia sortzerakoan.

Aitasantuaren Nuntzio Sortalde guztirako, 111 Jon portugaidarren ordezkari lurralde zabal artan danean, eta an sortu zan josulagunen Prcibintziaren Aita Zuzendari, bazuan eskubiderik ugari beregan Frantziako Xabiertarrak. Erabili ere erabili zituan bein baiño geiagotan eskubide oiek, baita Portugal'eko guda-gizonei deituaz ere, sinismenaren zabalkunderako bearrezkoak zirala uste izan zuanean, erdiarokoa bait zan oraindik gai askotan aldi artako gizakumeen gogaera. Eskieki Bitori'ko Frantzisko'k ez zien, sinismenaren zabalkunderako,

iñongo gudadei deituko. Arabarra zan ordea Bitori'ko Frantzisko..., eta Frantzisko Xabier'koa naparra!

Sorkaideko indietan, Ozeani'ko ugarteetan, Japoin'en..., Jainkoak dakin aiña ibiladi egin ondorean, Txina, Turkestan, Errusi eta Europa-zear Paris'era oiñez etortzeko asmotan geldiarazi zuan erioztzak' Sorbona'tik mixiolari jakintsuak eraman nai zituan Sortaldeko erri jakintzaz ondo jantzietara.

Atsedean gabe ari izan zan lanean sortaldeko portugaldarren artean eta indi'ko kristau zismatikoen artean, baiña aren kuttunak jentillak izan ziran, eta ezin konta ala siñesgabe siñestera ekarri zituan.

Olerti-aizeak puztutako kondairak neurri gabe gizendu ditu Xabierren lorketak. Aia ere egiaz izan zan miragarda ark egindako lana, eta langintza ortatik jaso aal izan zan uzta. Ez zituan noski, kondaira aiek dioten bezela, milloi bat bataiaketa egin, baiña bai, —eta ez da gutxi—, eun bat milla, oietatik 50.000 Moluketan, 30.000 Trabankor'en, eta portugaleraz "A Pesqueria", "Arrantzegi", deitu oi zitzaion itxasertzean. Gaiñerakoak, beste lurraldeetan eta Japoin'en.

Ala ta guztiz, bearbada bataiaketa oiek baiño emankorrakoak izan ziran Xabier'en ekintzaren beste bi ondorio:

—Bere eskutitzekin kristaudi guztian eta, —nola ez—?, josulaguncHan batez ere, enaarazi zuan mfxio miña.

—Bere ibilketen bidez mixiokuntzarako lurralde berrien irikitzea. Lurralde berriak idoro zituan Xabier'ek; ez oraindik "era" berriak. Ori bere ondorengoan lana, batez ere Aita Ricci eta Aita Nobili'ren lana izanen da.

* * *

Sortaldean mixiolaritzaren arerioak Ameriketako areriorak berak izan ziran:

—Gudari, salerosie, eta lur-urratzaille kristau zipotzen bizimodu ta jokabide nazkagarriak. Gogor ekin zuan gaitz onen aurka Xabier'koak. Or daude, lekuko, bere adiskide jator Jon **idatzi ziz**-kion eskutitzak.

—Kristautze ura dana sakontasunik gabe egiña izatea. Millaka ta amarmillakako bataio aiek, —erdiaroan nestoritarrak Trina'n bertan egin zituztenak bezela—, axaleko bataio ariñak zirala, bataibearrak aurretik bear bezela sinismenaren egietan erakutsiak izaten ez ziraia-ko. Egia da. Orduango mixiolari guztien errua izan zan patxada-falta

ori. Esan dezagun baiña, Xabier'koaren aintzapenez, ez zituala iñoiz bere bataiatu-berriak aantzirik laga. Aien eziketan saiatu zala eskutitzen eta, al zanean, berrikusketen bidez, eta, Probintzi-buru lez, iñakitarrak erridi aietan egoki zabalduaz.

—Europa ta lurralde aietako kulturaren ez berdintasuna. Españarrak Ameriketara bezela, bere jakintzaz arroturik zeuden sorkaldean portugaldarrak, eta Indi'ko kultura zarraren edertasuna ez zuten usmatu ere egin. Oro zan aientzat iguingarri' Abertzalekeriak ere bazuan jardunkera ontan zer ikusirik.

Sorterrien maitale benetakoak, Europa'tiko mixolari danak ziran bakoitza bere aberriaren aintza, aberastasun, eta almena aunditzearen zale. Kanada'ra joatekoa zan Frantzi'ko lekaike ursuletar bat. Zertara?. "Planter la Croix avec les Fleurs de Lys a la face des anglais". "Ingländerritarren aurpegi-aurrean, Liiloreekin batera Gurutzea aldatzera" Eta lekaike ori idazle iaioa, mixtika-liburuen sortzaille bikaiña zan; eta, Mixtika gaillurrera igorik bizi zalako, Santuen artean ikusi gezakeguna: Sor Marie de l'incarnation, Josu-Gizaegitearen Arreba Mari. (A!, esan bearrik ez da noski LiliLoreak Frantzi'ko Laterriaren ikurra dirala).

Ebangelioa Europa'ko kulturaz jantzita zabaldu nai orrek, antzu egin zituan lurralde askotan aurreneko josulagunen ereintzak. Beste toki batzuetan berriz, ez zan, orretxegaitik, ereintzaren emaitza bear bezain ioria izan. Sorkalde'ko kristau zismatikuak Eliza bakarraren altzora erakartzeko egin ziran saioetan batez ere agertzen da au argi.

Sorkaldeko anai bereizien arloan ere iñakitarrak izan bait ziran lanik geiena egin zutenak, eta geienbat Abisini'n, Poloni'n eta Errusi'n.

Abisini'ko mixioa Iñaki DoneWc berak gertutua izan zan, Julio Ill'aren aginduz. Portugal'eko Jon ill'a eta Etiopi'ko "Negus" edo Inperatorea, alkarren lagunak ziran. Klaudio zan Negus onen izena, eta berak eskatu zituan mixiolariak, Jon Ill'aren bitartez.

Nuñez Barreto izan zan Etiopi'ko lenen Patrialka izendatua, baiña bidean bait zan **Nuñez** Barreto aren bi Gotzai laguntzailleak, Oviedo eta Carneiro, izan genituan rixteriozko lurralde artan lendabizi oiña ipiñi zutenak. Patriarkadutza, Oviedo'n eman zitzaion.

Ez zuten ezer aundirik lortu lenen mixiolari aiek.

Adur ohea izan zuan geroxeago beste iñakitar batek: Paez Aitak. Lortu zuan beintzat 1621'ean, Seltan-Segned Etiopi'ko Inperatore zala, ango Eliza monofisita eta Erroma'ko Eliza katolikoa alkarrekin batzea. Matxinada beltzean jeIki ziran aurka monofisitak, baiña errez

zanpatu zituan, izkilluen bitartez Inperatoreak.

Bazirudian betirako lorturik zegoala ainbeste neke eta oiñazez lortutako, bi Elizen Batasuna. Iruditze ustela. Erriak ez bait zuan al-kartze artan zer ikusirik izan; eta asarre, oso asarre bait zeuden apaiz eta lekaide monofisitak.

Laister, Patriarka eta Inperatore berriak genituan Etiopi'n' Patriarka, Mendez, oso diplomazi gutxiko gizona' inperatorea, Basilides, monofisiten adiskidea. Arin izan ziran Mendez eta bere mixiolariak andik uxatuak.

Alperrikakoak izan ziran, gizandi iñakitar auen lanak, nekeak eta oiñaze latzak. Berena zuten errurik aundiena, Mendez Patriarkarena batez ere, ez bait zioten, Abisinrko Eliz monofisita zaar aren izakerari, merezi zuan begirune ta maitasunik eman. Legeak, oiturak, liturgia, dana zan laisterka aldatu-bearra. Erromar biurtu nai zuten Etiopi, ta Etiopi'k ez zeukan erramarra biurtua izateko gogorik.

Ori bera gertatu zan Indi'n bertan ere "Santo Tomas'en Kristau" nestoritarrekin' 1599'n alkartu ziran Erroma'rekin baiña Portugal'etik zetozen praille ta apaizen arrokeriak eta oro erromatar egin nai arek nazkatu zituan kristau zaar aiek, eta askok, ostera, atzerritar zitzairen katolikotasun ura laga-ta, lengo Eliz bereizia bir-eratu zuten.

Kalte aundia egin zion bere buruari Erroma'ko Elizak, gogorkeri auekin, mixiolarieria baiño geiago, errua, Elizaren zailtasunarena bait zan. Trento-osteko Elizaren zailtasunak

Ala ere, ez ziran danak alperrikakoak izan, kristau bereziak batera ekartzeko egin ziran saiaketak. Europa'n, lortu zan "Rutenu" edo Rutenitarren alkartzea. •Rutenitar auek, Poloni, Lituani, eta Errusi'ren mugak bata bestearrekin naasten diran zelai zabaletako kristau ortodoxoak ziran.

Bi iñakitar izan genituen ontan geiena saiatu ziranak: Kepa Skarga, mixiolari, idazle eta izlari ezaguna polonieraz, eta Andoni Possevino garai artako nunziorik argienetakoa.

Skarga'ren "Eliz-Alkartea" izeneko idazkiak prestatu zuan, 154535'ean Brest'eko Sinoduan burututa gaur arte iraun duan alkartasuna. Baiña ez zan alkartze ori nekerik gabe egin. Josafat, Polots'eko gotzaiak, bere biziarekin ziñatu zuan, irabazi-berria zan batasuna. Lekaide Basiitarra zan Josafat, eta 1623'an erail zuten batasunaren etsaiek. Gaur aldareetan daukagu.

Andoni Possevino, Gregorio Xill'aren ordezkaria, saiatu zan katolikotasuna Poloni'tik aruntz ere zabaltzen.

Suezi'n Jon III lutertarra ekarri zuan Elizara. Suezi'ko erria ere katolikotasunera erakartzeko, Jon erregearen aurreneko ekintza, ia oso ro katoliko zan liturgi bat legez Suezi guztian ipintzea izan zan.

Possevino'ren lanak ez zuan Suezi'n bear bezelako ondoriorik izan. Zergaitik? Erregeak, bere anaiak —Karlos'ek— egiten zion gudan, bere eliz-batasun-asmo-on guztiak galdu ez zitezen, kontuz ibilli zuala ikusten zualako, bai noski. Baiña baita Erroma Erregearen eskariei erantzuteko biguinkaitza agertu zalako ere. Iru ziran eskari aiek: kristau guztiak eukaristia ogi ta ardo itxuretan artzeko baime-na; Liturgia suezieraz egitea, latiña lagata; apaizak ezkondu aal izatea. Erroma'k ez zuan ezertan amorerik eman, naiz eskari oietatik, bi beintzat, itxura onekoak izan.

Errusi'n berriz, adu txarra izan zuten Possevino'ren asmoek. Gregorio XIil'ak bidali zuan aruntz Possevino, eta bidali ere, IV Iban "Izugarriak" eskatutal bidali zuan. Eskari ura ordea ez zan oso gurari garbiz Estebe Barthori Poloni'ko Erregearekin gudan zebillen Errusi'ko "Tsar" "Izugarri" ura, eta dirudianez bera zan borroka artan izutua; poloniarrarekin pakeak egiteko Aitasantuaren laguntza billatunal bait zuan! Orduan egin zuan len esandako eskaria.

Lortu zion pake ori Possevino^lk eta errusitar eta katolikuen alartzea lortzeko ere, asi zan lanean. Baiña azkarregi il' zitzaion Iban IV'a eta azkarregi iI edo galdu zan Demetrio —Iban IV'aren semea— ere.

Orduan Fedor l'ak (1584-1598) artu zuan inperatoretzta izenez, izatez Boris Gudonow, aren ezkon-anaia, izan bait zan Laterrian Nagusi.

Garrantzi aundienetako erabakia artu zuan Boris'ek erlijio-arloan: Errusi Kostantinopla'ko Patriarkadutzatik bereiztea, Mosku bera Errusi guztiaren Patriarka-Aulki biurtuaz, ta Mosku'ko Gotzaia, Errusietako Patriarka edo Eliz-Asaba.

Orrela, XI mendean, (barbaritarren azpian jausirik zegoan Erroma zarretik bereizita), Kostantinopla "Erroma Berri", edo "Bigarren Erroma" jeiki zan modura irten zan orain, (turkitarrek zapalduta zeukaten "Bigarren Erroma" artatik iare), "Irugarren Erroma": Mosku, ortodoxiaren egiazko buru garai, iare, berria.

Fedor l'aren ondorean Boris Gudonow'ek berak (1598 - 1605) jantzi zuan buruntza, baiña itxaro ez zuan arerioa sortu zitzaion illunpetik: Demetrio, mundu guztiak iltzat emana zeukan Demetrio, Ivan IV "Izugarria"ren seme ura. "Gezurrezko Demetrio" deitu dio edestiak, baiña gezurrezkoa zan ala egiazkoa, ez du oraindik iñork argitu.

Demetrio gazteak bereala lortu zuan Polonitarren laguntza, eta baita Vill Klemente Aitasantuarena ere. Krakobrn Josulagunen ikas-tetxe batean bizi zan Demetrio eta andik agindu zion mundu guztiari Erroma'rekin alkartasuna eginen zuala, Errusrko Inperatoretza lortzen ba'zuan.

Lortu ere lortu zuan inperatoretza ori, 1605'ean Boris Gudonow zanean on'-semea aitzoz erailla izan bait zan' Bereala asi zan Demetrio Errusi Erroma'ra ekartzeko legeak gertutzen, eta bazirudian oro egiña zegoala; baiña egun batzuetan, izakeraz aldatuta, izan daitekean gizakumerik nardagarriena biurtu zan Demetrio: artoa, eta aragi kerri nazkagarriz lizundua. Ez zan urte betera iritxi aren jaurlaritza, aitzoz kendu bait zioten bizia matxinada batean. Orrela amaitu ziran, "Gezurrezko Demetrio" iguingarri aren illobian lurperatuta, Errorna'rekin alkartzeko gurari guztiak.

Egiaz izan zuan zori okerra Katolikotasunak Errusi'n. Baita Afrika'ko lurralde askotan ere. Ez daiteke noski errexa Elizaren bidea. Baiña badu berak ere mixiolarien artaraiñoako nekeen zitua ugariagoa ez izanaren errua, Afrika'n bertan ere ez bait zitzaien errietako kulturei bear aiñoako jaramonik egin; ez bait zuan liturgia beintzat izkuntza ta kultura aietan antolatzen jakin. Orduango Eliz aren betiko bildurra!

Ar dezagun eredu, Kongo'ko Jaurerria. Amaseigarren mendearen asieran, Portugareko mixiolariei eskerrak, kristaua zan Kongo'ko Errege beltza: Alfontso. Eta inolako kristau bikaiña gaiñera! Garbia aren bizimodua, aintzagarria jauretxetxoak eraikitzeako aren leia' Ta ori naikoa ez balitz bezela, berak bere agoz iragartzen zion Ebangelioa bere erriari. Errege onen semea izan zan, diotenez, Afrika'ko lenengo gotzai beltza.

Beste Kongo'ko mutil beltz aundiki batzuekin, Lisboa'n egin zituan apaiz-ikasketak, Ez dakigu deus ere aren bizitzaz; 1534'ean íl zanean, kristautasuna erridi aietan aski zabalduzik zegoala bakarrik dakigu' Orregaitik, urte ortan bertan Paul Illak, Ginea'ko itxas-kolkoan dagoan ugarte txiki batean portugaldarrak eraiki zuten Santo Tome uria, Gotzai-Uri egin zuan; eta, eliz-barruti bezela, Afrika guztia eman zion.

Santo Tome'ko gotzaia portugaldarra zan; Kongo'ko apaizak, beltzak. Ez ziran ondo konpondu.

Eun urtean bi saiaketa egin zituzten josulagunek Kristaudi ura indartzeko. Bertako aundikien semeentzat ikastola bat irikitzea ere pentsatu zuten, baiña batzuetan Olanda'ko kalbintarren areriotasuna-

gaitik, besteren batean Errege lizun batek erbestera jaurtitzen zitualako, ezer gutxi lortu aal izan zuten.

Ala ere, errege aiek geienak, batez ere Albaro I'a eta IV'a, mixiolarien adiskideak izan ziran' Ez zan beintzat kristautasunik Eun urte oietan badakigu sei gotzai izan zirala' Erregiña bera ere katolikoa zan 1626'ean: Zinga Erregiña, bataiatzean Ana izena artu zuana. Emezortzi urte gero, maitekiro eta pozik artu zituan Garzia I Erregeak, itali'tik etorri zitzaizkion mixiolari kaputxinoak'..

Alatagutziz Kongo'ko kristautasunak ez du beñere indarririk izan. eta badu, noski, ortan zer-ikusirik mixiolarien europazalekeriak eta Elizaren makurtu eziñak. A! Eta Portugal'etiko gotzai ta apaizen aberzalekeriak!

* *

Itxas.oz-beste-aIdeko erricli aientzat, kristautasuna erbesteko erlijioa zan' Arrotza zan, beste mundu batetik etorritako mixiolari aien sinistea; arrotza elizkizunetan zebilkiten erdera; arrotza iragartzen zuten Jainkoa bera. Bildurgarri, (ta arrazoi naikoarekin gaiñera), agertzen zitzaizen mixiolari aien abertzalekeria.

Orixe gertatu zan Japoin'en. Poliki zabaldurik zegoan Xabier'koak landu zituan ugarte aietan kristautasuna, eta lanean jarraitu zuten an iñakitarrek. Batez ere Alexander Valignano Sortaldeko iñakitarren Aita Nagusiak eman zion Japoin'go Elizari bere taiu sendoa. Gizon argia ta irikia zan italiar au; gauzei erakunde egokia emateko iñor ez bezelakoa. Antplatu zituan, japoineraz idazkiak argitaratzeko irarkola edo inprentak, ikastolak eta gaixotegiak, ta bertako apaizak ezitzeko apaizgaitegi bat eraikitzea ere pentsatu zuan.

Zori txarrez iñakitarrek ez zuten astirik asko izan. Laister jausi bait zan Japoin'go Elizaren gaiñera erasorik gogorrena.

Irureun milla ziran an kristauak amaseigarren mendearen amaieran; Zazpireun ta berrogeita amarrera iritxi ziran amazpigarren mendearen asieran, batzuek diotenez. Lau inperatoreen denboran egin zan zabalkunde ori: Kanbakundono, Taikosama, Daifusama, ta Jideta-da inperatoreen denboran'

Kanbakundono mixiolarien adiskidea izan zan; "Xoguntza" edo Inperatoretzta indarrez artu zualako (1565), "Bontzo" edo Apaiz budatarren indarra txikittutzea konbeni bait zitzaion'

Taikosama'k ere —Kanbakundono menperatu ta erail

ondorean—, era berean, indarrez, jantzi zuan "Xogun" edo Inperato-reen buruntza; eta, lengoa mixiolarien adiskide bait zan, au etsai izan zitzaien, eta jauretxe kristau guztiak apurtu ta mixiolariiek erbestera joateko agindu zuan. Ala ere baretu aal izan zuten kristauek inperato-reen asarrea. Ordurako kristau bait ziran bontzo eta aundiki asko, auen artean Ukondono guda-buruzagia'

Baiña piztu zan Mixio-Anaidien arteko bekaizkeria (ta abertzale-keria). Giro ortan agertu zitzaizkigun orduan mixiolari españiarrak Japoin'era. Ordurarte Portugal'ekoak —eta iñakitarrak— ziran Japoin'go ebangelari guztiak. Ta iare ziran!, ekintza egoki baten bidez Sixto V'ak Portugal'eko erregeen -padroao" edo "zaintzatik" landa ipiñi bait zuan Japoi guztia, ortarako berak Jaurerri aietako lenengo gotzaia izendatuaz.

Aldean zeuden, ordea, Filipinetan, Españi'ko Anaidi zaarretako mixiolariak. Lan aundia egiñak ziran LegazpVk irabazi zituan ugarte aietan; baiña beren Anaidien izena eta Españi'ren aunditasuna lparre-ko beste ugarte aietara ez eramatea lotsagarri ikusten zuten, nunbait. Baiñan, egia esan, EspañVganako eta Anaidiaganako maitasunak baiño geiago bultzatzen zituan Japoin'era lan zaillagoen gurariak; eta baita martiri iII nai izatearen garrak.

154532'n Aita Cobos domingotarra agertu zan Taikosama'ren aurre-
ra "Españi'ko Enbajadari" izena erabilliaz. Amar urte gero, Aita Kepa Bautista ta beste iru frantziskotar etorri ziran, Españi'ko Ordezkarri be-
zela auek ere. Taikosama'ren baimenik gabe lanean asi ziran, Osaka'n, Miyako'n eta Nagasaki'n. Gaiñera, —abertzalekeri utsez?, Taiko-
sama ikaratzeko?—, Españi'ko Erregearen aunditasuna ta indarrak neurri gabe go-
resten asi ziran. Ala ere ez zuan Taikosama'k gaizki erantzun, baiña zori-
txarrez orduantxe bertan ekaitzak itxas-ontzi es-

pañiar bat jaurti zuan Japoin'go lurrera, ta ontziaren kapitan arropu-
tza, Españi'ko Erregea, beste Pazifiko'ko ugarteak artu zituan bezela,
Japoi osoa ere artzeko getutzen ari zala oiuka asi zan.

Oraingoan bai. Mariñelaren arrandiak eta mixiolarien arrokeriak bildurtu ta asarretu zuten "Xogun" edo Inperatorea. Eraso odoltsua jausi zan kristauen gaiñera, kristau aiek Taikosama'rentzat Españiik etorri zitekean Errege "beti garaille" aren lagun izan bait zitezkean. 154537'an il ziran Japoin'go lendabiziko ziñopak Nagasaki'n' 26 ziran: 17 kristau, 6 frantziskotar eta iru josulagun; japoinarrak auek, irurak. Ta 26 aien atzetik beste asko izan ziran eraillak.

Ez zion, ala ere, ekaitz arek an ondamen aundirik egin Elizari,

urrengo urtean il bait zan Taikosama, eta aren ondorengolnperatorea, Daifusama, kristauen adiskide irten bait zan. Baretasun ori zala-ta, etorri ziran frantzisko ta domingotar geiago. Españiarrak, jakiña!

Laister aldatu ziran giroak, eta ez zan errua Daifusama'rena ba-karrik izan.

Ordurako iritxiak ziran Japoin'era Olanda'ko kalbindarrak eta In-glanderriko anglitarrak. 1600'ean eraiki zuten Yedo'n koloni edo sale-rosketarako babes bat.

Aztarna guztiek adierazten dutenez, badirudi katolikotasunen e-tsai auek izan zirala Inperatoreari burua berotu ziotenak, katoliko da-nak, —Japoin'en Errege katoliko bat ipiñi nai zutelako—, Inperatorea-ren etsaiak zirala esanaz.

1612'n eman zuan Dalfusama'k japoindarrei katoliko egitea ga-lazten zien legea. 1614'ean, kristautasuna ukatzen ez zuan guztia erailtzeko, eta mixiolari guztiak erbestera aide egiteko, agindu zuan.

160 ziran orduan mixiolariak, eta auetatik 130, iñakitarrak. Asko izan ziran bizia galdu zuten kristauak; baiña ez zan Elizarik ondatu, Daifusama'k bere azkeneko urteetan lasaitu bait zuan zigorra' 80 jau-retxe izan ziran apurtuak, eta 30 erbesteratutako mixiolariak.

1617'an Jidetada zan Inperatore, eta urte ortan eraso zion, berri-ro, Elizari. Eta, bere ondorean, Yemiztu inperatoreak ondatu zuan Ja-poin'go kristautasuna. Ezin esan daiteke, zenbat izan ziran martiriak. 200.000'tik gora bai, erbesteratuak ere martirien artean zenbatzen baditugu. Martiri auen artean, ondo ezaguna dugu euskaldunok alda-reetaraiño jasoia izan dan baten izena: Igokunde'ko Martin Doneare-na. Martin Loinaz, Beasain'go semea, batzuen ustez. Martin Aguirre, Bergara'koa, beste batzuek diotenez. Dana dala, frantziskotarra beintzat.

Elizaren edestiko atalik ederrenetakoa da Japoin'go martirien edestia. Eriotz-modurik mingarrienetan tinko aitortu zuten sinismena' Eta oraindik arrigarriagoa dana, sendi kristau aietatik askok, ixilllean, izkutuan, apaizik gabe, berak beren umeak bataiatuta kristau ikasbi-dean eziaz, garbi gorde zuten kristautasuna bi mende luzeetan. Eme-retzigarrenean, ostera, mixiolariak Japoin'era biurtu ziranean, ezin si-n istatu zuten aurrean zekustena' Antxe agertu zitzaizkien, ongietorria ematera, kristauak zirala esanaz, Xabierkoak landatu zuan Elizaren semeak' Bi mende oietan ez zan martiririk falta izan, arrapatzen zuten kristaua berealaxe izaten bait zan erailla.

Aundienetakoa izan zan Japoin'en egindako lana; baiña Japoin'go iñakitar aiek ez zuten kristautasuna Japoin'go kulturaz

jantzi. Ez ziran, tamalez, artaraiño ausartu.

lñork osoro ikusten ez zuan, (eta ain bear-bearrekoa zan), eginke-
ta ori asmaatu izatearen meritua beste iñakitar batzuen da: Mateo
Ricci izan zan "era" ori Txina'n asi zuana; eta Roberto Nobili, Indos-
tan'en. Biak alkarren berri jakin gabe eman zuten oinkada ori, bata
bestearengandik urruti ibilli bait ziran lanean.

Erdiaroaren asierako nestoritarren eta monofisitien ekintza aipa-
tzeke ere' zaarra zan Txina'n mislogintza, XIII mendean iritxi bait ziran
ara Anaidi zarretako **Baiñan aiek eratutako kristaudien**
aztarnarik ez zan XVrean' Izan ere ez bait zuten an Elizarik sortu. Soil-
ki txinatar batzuk bataiatzea izan zan egin zutena.

1557'an artu zuten portugaldarrek Makau uria, eta arrezkero saia-
tu ziran Anaidi guztietako mixiolariak Txina'n ebangelioa zabaldu
naiean, baiña alperrik. Aita Valignano josulagunen zuzendariak igarri
zuan Txina'k, zer mixiolari-mota bear zituan: gizadi-jakintzetan eta iza-
diaren ezaguketan ondo ornitutako gizonak. Aita Mateo Ricci izan zan
mixiolari auetan aurrenekoa ta ospetsuena' 1578-inguruan sartu zan
Txina'n, eta 1610'ean iI zanean, printzipe baten omenak egin zitzaiz-
kion, bere jakintzaz arriturik gelditzen zan Txina artan.

Fisika, Matematika, Izarritzia eta beste izadiari ;buruzko "jzti"
edo jakintza guztietan iaioa zalarik Txina'ko erderan idatzi zuan gai
oietaz, ederki ikasi bait zuan izkuntza ori. Baita egutegi ta mapa be-
rriak antolatuz ere, eta erloju, ta izarritzi eta ludiztirako tresna be-
rriak sortu ta egiñaz, erpiñeneko maillaraño igo zan Txina'ko jakin-
tsuen artean.

Lur artako jakintsuak bezela jantzi oi zan; txinatar izen bat ipiñi
zion bere buruari; eta bere oitura ta biziera guztia, bertako
"mandarin" edo aundiki ta jakintsuena bezelakoxea izan zan.

Baiña Mateo Ricci'ren txinatartze ori ez zan axalez-kanpokoa ba-
karrik izan. Ederki ezagutu zuan iñakitar onek, lur zabal artako jakin-
tzaren edertasuna. Tomas Doneak Aristoteles'en arrazoiak, egiak, eta
egokitasunak ikusi ta onartu zituan lez, ikusi ta onartu zituan Ricci'k
ere Konfuzio'renak; baita Txina'ko erlijioarenak ere, Jaungoikoaren
izena bera: "Ortziaren Jauna" edo "Zeruetako Jauna", egokia iduritu
bait zitzaion, kristauen Jaungoikoari deitzeko; ta izen ori erabilli zuan
bere idazti ta itzaldietan. Sendiaganako ta ildakoen aldeko eraspentak
zuan alderdi zuzena ere ederki ikusi zuan, eta ezzien bataiatuei beiñe-
re eraspent oietarako eragozpenik **Arek bezela pentsatzen zuten**
aren lagun iñakitarrek, ura bezela, gizon erne, jakintsu, eta irikiak bait

ziran.

Era ontan kristautasunak ez zuan erbesteko erlijio-usairik, eta asko zabaldu zan urte gutxitan. Milla ziran kristauak Ricci il zanean, geienak aundikien mailletakoak.

Teodizea Jainkoari-buruz giza-arrazoi utsak ezagutu dezazkean gauzen Jakintza da. Ba, Teodizeaz ere idatzi zuan Riccrk, Teologiari, —Jainkoak berak erakutsi digunaz baliaturik Jainkoaz gizonak jakin dezazkean gauzen Jakintzari— bidea irikitzeko. Auek eta Ricci'ren beste liburuak Txina'ko izkeran idatziak dira.

1615'ean eman zuan Paul V'ak liturgia erdera ortan egiteko bai-
mena. Zoritxarrez ez zuan Riccrren zentzu jatorrik izan Aita Longobardi, Riccrren ondorengoak; eta txinatartze ura dana, geiegizkoa izango ote zalaren bildurrez atzera egiten asi zalako, Pekin'dik bidalia izan zan, Inperalariak bidalia..

13.000 ziran orduan kristauak; danak gizon ospetsuak; eta ospetsuenetakoak, 13 "mandarin" edo jauriari, 321 lege-gizon eta epaille, eta baita printzipe batzuk ere. Ezagunak zaizkigu lenen mailleko lau jaunen izenak: Paul Kin, Paul Ly, Sin Konagsi eta Sung gudarozteburuzagia.

Schin edo Xin izeneko mandarin batek, sartu zion Inperatoreari kristautasuna erbesteko gauza zalakoaren bildurra. Baiña naiz onek mixiolariak Jaurerrik kanpora bidaltzeko agindu eta iñakitar batzuk zigortu ere izan, beste "mandarin" batek salbatu zuan oraingoz etorkizuna: Paul Ly kristauak; inperatorearen adiskide aundia bait zan.

1625'ean etorri zan berriz Erroma'tik Aita Nikolas Trigault, Erroma'n Paul V'agandik mixiolariantzat lortu zituan baimen eta eskubide guztiekin.

Ekin zioten osteran lanari iñakitar ospetsu aiek. Danak ziran izadiztietan jakintsu bikaiñenetakoak; lenxeago aipatutako Longobardi bera, Terentius, Rho, Schall, Koffer, Verbiest."; Guztiak izan ziran Erroma'n Bamberg'eko Clavio jakintsu iñakitarren ikasleak, ikaslerik iaioaenetakoak' jA zer nolako ospe aundia artu zuan berrero, Txinatar biurtutako kristautasunak, gizon erne ta argi auei eskerrak, jakituri zaarrez ain oparo jantzitako erri artan!

Adan Schall arras gizon argi ta atsegiña zan. Txina'ko izkuntzan 150 idazkitan izarrizti osoa idatzi zuan. Inperatoreak bere adiskide zuan, eta eguzkiaren eklipse edo illuntze bat egoki aurretik iragarri zualako, lenen mailleko mandariñ izendatu, eta Txina'n ainbeste garrantzi zuan izarrizti edo astronomiko lantegi ta begiratoki edo obser-

batorio guztien zuzendari ipiñi zuan. Aita Adan Schall'ek argitaratzen zuan egutegi edo kalendarioa izaten zan, Inperatorearen aginduz, Txina'ko kalendarioa. 1622'tik 1666'ra egon zan lur aietan lanean. Azkeneko urte ontan il zan'

1644'ean izan zan Txina'n "dinasti" edo "errege-sendrIaldaketa" Txing edo Mantxuritarren sendia jausita, Xij-Tsu'tarrena asi zan agintzen' Badira bildurgarriak aldaketa oiek, baiña ez zion onek Elizari kalterik egin, danak, sendi zarrekoak bezela berrikoak ere, mixiolariet/zien begirapenari eskerrak'

Batez ere Schall'dar Adan'eri zor zitzaion era berezian eraspen miresgarri ura.

Bera bezain aipagarri da Aita Fernando Verbiest ere. Laister irabazi zuan jatorri berriko Inperatorearen adiskidetza, eta matematikari guztien zuzendari egin zuan Inperatore onek. Gizon zabala, eta jakite guztien ontzi, asko idatzi zuan Verbiest'arrak, izadi jakitez eta erlijioz; Donetomas Akino'koaren "Suma" txinerazterre asi zan' Lan asko egin zuan, Laterriak erriaren onerako asi zituan obrak eta lanketak zuzentzen-eta. Inperatorearen aginduz kañoi-egilleen zuzendari ere izan zan.

1688¹garren urtean il zan, ez aurretik atsegiñ gozo bat artu gabe: Inozentzio XI'aren "Brebe" edo Eskutitz bat. Aipu on eta aintza osoa ematen zizkion Aitasantuak, egin zituan lanengaitik. Ordu onean etorri ziran aipamen oiek iñakitar gogo-zabalen etsaiak ixillerazteko, ordu-rako Txina'ko mixiolarien jardunkera arri erejusaia artzen asi zitzaizkionak bai bait ziran.

Bitartean, Fernando Verbiest'en antzera gogor ari ziran izadi jakintzen bidez sinismena ereiten gaiñerako iñakitarrak. Txina'ko izkuntzari dagozkion gaietan, eta baita sendagilletzaren arloan ere. aurrerapen aundiak egin zituzten. Gaiñera orduantxe idoro zan eta azaldu aal izan zan, Kristautasuna Txina'n gauza zaarra zala!.

Iain zarra ere! Nestorio'ren denborakoa. Idorokunde orrek ospe aundia eman zion Elizari txinatarren artean. Badirudi milloi batera iritxi zirala kristauak amazpigarren mendearen azkenerako. Bazan, itxaropen pozgarria izateko arrazoirk naiko. Baiña laister jausiko zaio Txina'ko kristautasunari uste ez zuan eraso. Ta eraso orren tximistak ez dira Pekin'dik irtengo; Erroma'tik irtengo dira'

Aita Mateo Ricci Txina'n mixiogintzan ari zala, iritxi zan Aita Roberto Nobili, iñakitarra au ere, Indostan'eko itxasertzetara, 1606'garren urtean. Aundia ta jakintsua ba'zan Txina, bazan Indi-Erria ere,

aundia, ugaria, jakintsua eta zaarra.

Berealaxe ikusi zuan Nobili'k Indietako mixiogintzak bere barruan zeraman erru-bikotea.

—Alde batetik, Inditar-jakintza bikaiña aintzat ez artzea. Portugal'eko mixiolariak ez ziran kultura artaz ezertxo ere arduratu. Ez bait zituzten ango izkuntzak ulertu ere egiten. Ez ziran oartu ere an kulturik ba'zanik' Orregaitik, Sarkaldeko kulturaz jantzi nai izaten zituzten baitaiatzen ziran guztiak. Ez zitekean orrela kristautasunera inditar jakintsurik ekarri. Atzerritar arroputz eta arerio iguingarri ikusten zituzten jakintsu aiek Portugal'etiko mixiolariak. Jende landerrak, jenderik landerrenak bakarrik, egiten ziran kristau. Batere kulturik gabeko jendeak.

—Beste aldetik, India, kasta edo giza-mailla askotan bereizia zegoalako, eta beeneko kastako jende landerrak bakarrik kristau sartzten ziralako, lurralde aietako aituren araura eziñezkoa zitzaien, goiko kasteko jendeei, maillarik azpikoeneko Eliz artako apaizekin itzegin aal izate utsa ere.

Mixiogintza orren aldaketa egiten asteko, Roberto Nobili, Roz Gotzai iñakitarraren baimenarekin, basamortura joan zan, Indi'ko barkartasunzale santuen erara' Aiek bezela Izugarrizko penitentziak egin zituan. Baita IndUko elerti edo literatura ta erlijio zaarren jakintza sakonki ikasi ere.

Brajman deitzen zioten Indi'ko kastarik garaieneko gizonak beren buruei. Ta brajman-jantziarekin agertu zan Roberto Nobili, kristautasuna brajmandarrei iragartzeko'

Bera ere Itali'ko sendien artean aundikienetako baten semea zala-ta, jazkera ori zegokiola zion, arrazoi osoarekin. Sanskritera eta Indi'ko beste izkuntza itzegiñenak ere bikainki erabiltzen zituan gizonari, gaiñera, ¿nork jakintsu izena eta jakintsuen jazkera ukatu?

Txina'n bezela, emaitza ederrak ekarri zituan ebangelioa zabalitzeko era onek Indi'n ere eta laister asi ziran brajmandarrak Elizara sartzten. Baiña Txina'n bezela, sortu ziran emen ere etsaiak. Nobilrk kristautasuna inditar egitean, kristautasunaren mamia bera usteltzen zuala zioten. Iñakitarrak berak ere aurka bezela atera zitzaizkion; Aita Fernandez mixiolari iñikitar ospetsua izan zan aurrena ikaratu zana. Ta onen atzetik Belarmino Kardenala, Nobili'k familiko adiskide zuana; baita Koinbra'ko Irakasleak ere!

Orduan idatzi zuan Roberto Nobili'k bere "Apologia" edo "Defentsa" Liburu onek irabazi zizkion Goa'ko Roz Goigotzaiaren biotza

aurrena, Koinbra'k izendatutako Paimeiro inkisizolariaren onespena gero, eta Belarmino Kardenai berberaren konfiantza osoa azkenean.

Indi'ko aundikien artean arrantzu ederra egin ondoren iI zan Nobili 1656'ean. Eta aren beraren bidetik jarraitu zuten iñakitarrek; batez ere Donibane Britto'k.

Txina ta Indi'ko irabazketa auek, ez ziran, mixiolarien oiñaze ta neke aundirik gabe egin. Aita Adan Schall bera eriotzera galdua izan zan eta ia milagroaz salbatu zuan bizia. Aita Fernando Verbiest ere Schalrekin espetxean egona dugu eta Donibane Britto'ri, 163453'an, lepoa moztu zioten' Ta au, mixiolaririk ospetsuenak besterik aipatzeke!

Zauri izugarria iriki zion, baiki, protestalaritzak Elizari gorputzean; baiña zauri orrek ez zion bizitzaren garrik auldu. Gar orren adi-garri dira, jakintza zarretako erridi arrotzetan kristautasuna jakintza aietako pentsakeraz ornitzeko mixiolariek egin zituzten saioak. Bai eta beste mixiolaritari batzuk jakintza gabeko errietan gizakume basatiak kulturara erakartzeko Ameriketara asmatu zituzten era berriak. Nork ez du Paraguai'ko inditarren "Bildumeen" entzuterik?

Basoan bakanka erdigoserik bizi ziran Ameriketako inditarrak batera bildu, eta orrela bildutako sendiak krsitauki bizitzeko osatzen ziran "erriei", batzuetan "Dotriñak" deitzen zitzaizen, beste batzuetan "Reducciones", gaztelerazko "reducir" itzak bi gauza esan nai bait zituan orduan "menderatutakoak toki batean biltzea" eta "ezitzea"

Gogoeta bikaiña izan zuten iñakitarrek, Ameriketako inditarren billera auek egitean'

Gogoeta ori ez zan iñakitarrena bakarrik izan, Frantziskotarrak eta beste praille batzuk ere saiatu ziran apostolutza-modu ortan. Iñakitarrek, ordea, era berezian.

Baiña "Redukzio" edo "Bilduma" aiek ezziran, inditarrak -ezitzeko" bakarrik asmatuak izan, baizik baita gizakume zoritxarreko errukarri aiek espainiarren salbatzeko ere. Orregaitik izan zuten lurralde aietako nagusi espainiarrekin ainbeste ixkamIlla bilduma aietako iñakitarrek'

"Redukzioen" edestia, ordea, XVII eta XVIII mendeetakoa da, eta orduan, Argikuntza-Aroa aztertzerakoan, azalduko dugu Bilduma aletan iñakitarrek egindako lana.

* * *

manheta

Euskotar galararik, pozik eta atseginki ikusi aal izan dugunez, protestalaritzaren denboretako Elizaren berbizkundera, Iñaki Loiolatarren semeen izenez beterik dago.

"Ifiazio or dago" abestu oi dio bere zaindari ospetsuari Euskalerrriak. Ta egia da beintzat, garai artako auzi eta arazo guztietan Ifiazio an zegoala bere semeen bitartez: Portugaretik Lituanarra katolikotasun zaarrek lurraldeetan; Suezin, Alemani'n, Inghanderrian eta beste Erri protestalarietan; Errusi'n eta Polonrn Eliza zaarretik bereizitako Anai Ortodoxiarrak Elizaren alkartasunera bir-ekarrinaiean; Afrika'n, eta Sortalde eta Sarkaldeko Indietan mixio-kerak berriak sortzen.'

"Iñazio or dago, beti ernai dago". Ernai egon zan, benetan ernai, Aitasantuei diplomaziaren arloan serbitzen, teologia sakontzen, izadigizadi-jakintzak lantzen, ikastetxeetan gaztedia ezitzen, umeei dotriña erakusten, Erregeei, aundikiei, eta erriko jende landerrei aolku zuzenak ematen.

"Armetan jarria dauka Konpañia". "Arma" oiek, Iñakik bere semeei emandako "armak", ez ziran Iñaki'k Iruña'ko arresietan erabili zituan izkilluak. Ez orixe! Izan ere, aro artan gizon paketsurik, gizon bare eta indarkeriaren etsairik izan ba'zan, gizon oiek, bat edo beste kenduta, iñakitarrak izan bait ziran. Anai bereizientzako eta anai jentilientzako begirunea eta maitasuna izan ziran Iñakrk bere Lagundiari eman zizkion "armak".

"Armetan jarria dauka Konpañia zizpaz armaturik". Bertsolariak itz oiek erabiltzean bere garaieko izkilluak zeuzkan buruan: kanpotik zizpaz su ematen zitzaien izkillu aiek. Beste txinparta bat sartu zien Ifiakrk arrigarrizko moduan bere setheei' ¿Ez al da benetan arrigarria, gure Iñaki'ren seme oiek aro artako eginkizun orotan aitzindari ikus-tea?

"Bandera zabalik"! Bai. Aitortu bearra da. Elizako beste Anaidien ikurriñ aintzagarrien artean aintzagarri dakusgu Birjaiotzakoan Iñaki Deunaren ikurriña. Pozgarria euskotarrantzat, ikurriñ ori guretar baten ikurriña izatea! Gorde beza beti "gure Zaindari aundiak" bere Erria Kristoren Ikurriñaren babespean.

"Iñaki! Entzun, arren, eiguzu"

AURKIBIDEA

SARRERA	5
BIRJAIOTZA-AROKO ELIZA	15
BIRJAIOTZAKO AITASANTUAK. V NIKOLAS (1447 - 1455)	23
III KALIXTO (1455 - 1458)	39
II PIO (1458 - 1464)	51
II PAUL (1464 -1471)	65
IV SIXTO (1471 - 1484)	71
VIII INOZENTZIO (1484 - 1492)	83
V ALEXANDER (1492 - 1503)	91
II JULIO (1503 - 1513)	117
MARTIN LUTER	131
BESTE ELIZ-ALDAZALEAK. ZUINGLI	173
JON KALBIN	177
VIII ENRIKE (1509 - 1547)	185
VI EDUARDO (1547 - 1553)	199
MARI ERREGIÑA (1553 - 1558)	203
I ELISABETE (1558 - 1603)	207
PROTESTALARITZA EUROPA'KO BESTE JAURERRIETAN	213
ESKANDINABI'KO JAURERRIAK	217
SUEZI	221
UNGARI, TRANSILBANI eta POLONI	225
BOEMI eta IRLANDA	231
FRANTZI	237
BELXIKA eta OLANDA	259
ELIZAREN ERABERRITZEA. Reformatio Ecclesiae	273
KRISTAUDIA SANTUTASUNAREN BILLA	279
JOSU'REN LAGUNDIA	283
ABILA'KO JON DONEA (1500 - 1569)	291
LENGO LEKAIDE ETA PRAILLEE BERBIZKUNDEA	295
PROTESTALARITZAREN AROKO AITASANTUAK	299

ADRIAN VI (1522 - 1523)	305
VII KLEMENTE (1523 1534)	307
III PAUL (1534 1549)	311
III JULIO (1550 - 1555)	319
IV PAUL (1555 - 1559)	323
IV PIO (1559 1565)	329
TRENTO'KO KONTZILIOA	331
V PIO (1565 - 1572) TRENTO OSTEKO AITASANTUAK	341
XIII GREGORIO (1572 - 1585)	345
V SIXTO (1585 1590)	347
VIII KLEMENTE (1592 - 1605)	349
V PAUL (1605 - 1621)	353
XV GREGORIO (1621 - 1623)	357
RICHELIEU	367
KRISTAU BIZIKERAREN ITXARKUNDEA	375
TEOLOGIAREN BERBIZKUNDEA	383
ANAIDI BERRIAK	389
MIXIOAK	399